


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**BERRIKUNTZA SOZIAL ERALDATZAILEA: Gipuzkoako
Lurralde Historikoko gizarte zerbitzuen gobernantzari
buruzko azterketa**

DOKTOREGO-TESIA

Egilea:


EUSEBIO LASA ALTUNA

Zuzendariak:

MIKEL ZURBANO IRIZAR

ENEKOITZ ETXEZARRETA ETXARRI

2018



**Bihar Argi, gaur itzal
baina nekatuta gabiltza, gainontzean**

**Mañana luz, hoy sombra
pero por lo demás nos cansamos**

**Light for tomorrow; shade for today
But, otherwise, we get tired**

(Globo rojo – Oi! Bihotz; Ay! Corazón; Oh! Heart. José Luís Zumeta, 2009)

LABURPENA

Tesi honetan aztertu da Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak tresna egokiak badituela beste gizarte-eredu bat eraikitzeko eta bide batez zerbitzu publikoak sozializatzeko. Hain zuzen ere, gizarte zerbitzuen lankidetzagobernantzaren aplikazioa, bereziki hirugarren sektorea/ekonomia soziala eta kooperatibizazioa bultzatuz, estrategia egokia izan daiteke zerbitzu publikoetan hiritarren parte hartzea sendotzeko eta autogestioa bultzatzeko. Bide horretatik, zenbait proposamen teoriko plazaratu dira lankidetzagobernantzaren bitartez hirugarren sektorea/ekonomia sozialeko erakunde desberdinen esku hartzea indartzeko. Gero hausnarketa hori Gipuzkoako lurralde eremura eraman da. Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuko arduradunekin Delphi azterketa bat burutu da jakiteko ea departamenduak bat egiten duen hemen garatu dugun Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen gobernantzarekin hirugarren sektorea/ekonomia soziala eta kooperatibak era aktiboan sustatuz.

Hitz gakoak:

Berrikuntza Sozial Eraldatzailea, lankidetzagobernantza, gizarte zerbitzuak, hirugarren sektorea, ekonomia soziala, kooperatibizazioa.

RESUMEN

En la presente tesis se analiza que la Innovación Social Transformadora tiene instrumentos adecuados para construir otro modelo de sociedad y al mismo tiempo socializar los servicios públicos. Al fin y al cabo, la aplicación de la gobernanza colaborativa en los servicios sociales, especialmente a través del impulso del tercer sector/economía social y de la cooperativización, puede ser una estrategia adecuada para reforzar la participación de la ciudadanía en los servicios públicos y para impulsar la autogestión. Además, se han presentado diferentes propuestas teóricas para que la gobernanza colaborativa sea capaz de fortalecer la participación de las diferentes entidades del tercer sector/economía social. A continuación se ha trasladado esa reflexión al territorio de Gipuzkoa, realizando un estudio Delphi con las personas responsables del Departamento de Política Social de la Diputación Foral de Gipuzkoa para saber si ese departamento está a favor de aplicar la Innovación Social Transformadora aquí desarrollada en la gobernanza para promocionar de forma activa el tercer sector/economía social y las cooperativas.

Palabras clave:

Innovación Social Transformadora, gobernanza colaborativa, servicios sociales, tercer sector, economía social, cooperativización.

ABSTRACT

This thesis shows that adequate means are available for Transformative Social Innovation to construct a different social model whilst at the same time socialising public services. In fact, the application of collaborative governance in social services, in particular fostering a third sector/social economy and cooperativisation, may be a good strategy to increase people's participation in social services and encourage self-management. In this vein, a number of theoretical proposals have been put forward with a view to increasing intervention by various third sector/social economy organisations through collaborative governance. These reflections have later been taken up in the province of Gipuzkoa, where a Delphi survey was carried out involving responsables from the Social Policy Department of the Gipuzkoa County Council in order to determine whether or not the development of this Transformative Social Innovation governance, which would actively promote the third sector/social economy and cooperatives, was viewed favourably by the department.

Keywords

Transformative Social Innovation, collaborative governance, social services, third sector, social economy, cooperativisation.

AURKIBIDEA

0 SARRERA	13
0.1 Tesiaren aurkezpena.....	13
0.2 Tesiaren helburua eta hipotesia.....	16
0.3 Tesiaren Metodologia.....	17
0.4 Tesiaren egitura.....	21

LEHENENGO ATALA: MARKO TEORIKOA

1 KAPITULUA: ONGIZATE-ESTATUAREN ERAIKUNTZA ETA GAINBEHERA. BESTE GIZARTE-EREDU BAT ERAIKITZEKO BEHARRA.....29

1.1 Klase arteko borrokaren lehen emaitzak Europa modernoan. Ongizate-estatuaren lehen oinarri politikoak.....	29
1.2 Ongizate-estatuaren oinarri ekonomikoak.....	33
1.3 Lehenbiziko eraso egituratuak klase-antolakundearen aurka: AEB eta industriek lekualdatze diseinu berriak.....	36
1.4 1973ko krisitik aurrera Europako kapitalak aurrea hartzen du klase arteko borroka-fase berrian.....	38
1.5 Maastrichteko Tratatuak: ongizate-estatuaren desagite planifikatuaren hasiera.....	43
1.6 Europar ongizate-estatuaren desagitearen bigarren fasea: Lisboako estrategia.....	47
1.7 Askatasun, Segurtasun eta Justizia Espazioa: Hagako programa.....	51
1.8 Atzeraldi Handia bezala ezagutzen dena kapitalista-metaketaren prozesuaren bizkortzailea.....	53
1.9 Eredu neoliberalak gaitasuna erreproduzitzeko.....	57
1.10 Prozesu eraldatzailea bide malkartsua.....	59
1.11 Neoliberalismoa kontraesan bezala betetako prozesua.....	60
1.12 Prozesu eraldatzailea neoliberalismoaren jokalekutik abiatu.....	63
1.13 Beste gizarte-eredu bat eraikitze garrantzia.....	69

2 KAPITULUA: BERRIKUNTZA SOZIAL ERALDATZAILEA.....71

2.1 Berrikuntza Sozialaren kontzeptuaren jatorria.....	71
2.2 Berrikuntza Sozialaren kontzeptuaren garapena.....	76
2.3 Berrikuntza Soziala abiapuntu.....	89
2.4 Berrikuntza Sozial Eraldatzailea: beste eredu alternatibo bat eraikitze tresna.....	91
2.5 Baloreak landu.....	100
2.6 Aldaketa sortzeko gatazkaren beharra.....	101
2.7 Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen giltzarri nagusiak.....	104

3 KAPITULUA: BERRIKUNTZA SOZIAL ERALDATZAILEA ETA EKONOMIA SOZIALA.....	111
3.1 Ekonomia Sozialaren kontzeptuaren bilakaera.....	111
3.1.1 Kontzeptuaren hiru ardatzak: eragile ekonomikoak, akademia eta erakunde publikoak.....	112
3.1.2 Azken 40 urteak Espainian, Frantzia eta Euskal Herrian.....	115
3.1.3 Ekonomia Sozialaren egungo mugak.....	119
3.1.4 Ekonomia Sozialaren aitortza maila Europan: analisi alderatuak.....	120
3.1.4.1 Ekonomia Soziala Europan.....	120
3.1.4.2 Hirugarren Sektorea Europan.....	122
3.1.4.3 Homologazioa, arazoak eta kontsentsuzko printzipioen bilaketa.....	122
3.1.5 Etorkizuneko erronkak: proposamen berritzaileak.....	124
3.1.6 Ekonomia solidarioaren proposamen biziberritzailea.....	125
3.2 Ekonomia soziala eta Berrikuntza Soziala.....	127
3.3 Ekonomia Soziala eta Berrikuntza Sozial Eraldatzailea.....	132
3.4 Ekonomia Sozial Eraldatzailearen giltzarri nagusiak.....	139
4 KAPITULUA: BERRIKUNTZA SOZIAL ERALDATZAILEA ETA GOBERNANTZA POLITIKAK.....	143
4.1 New Public Management.....	144
4.2 Gobernantzan aire berriak.....	147
4.3 Gobernantza eta Ekonomia Soziala.....	156
4.3.1 Politika publikoen Koprodukzioa.....	159
4.3.2 Politika publikoen koeraikuntza.....	161
4.3.2.1 Politika publikoaren monoeraikuntza.....	161
4.3.2.2 Politika Publikoaren Koeraikuntza neoliberala.....	162
4.3.2.3 Politika Publikoaren Koeraikuntza korporatibista.....	163
4.3.2.4 Politika Publikoaren Koeraikuntza demokratikoa eta elkartasunean oinarritutakoa.....	163
4.4 Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen koeraikuntza.....	165
4.5 Gobernantza Gizarte eta Osasun Zerbitzuetan.....	167
4.5.1 Gizarte eta Osasun Zerbitzuen ezaugarriak.....	168
4.5.2 Gizarte eta Osasun Zerbitzuen Gobernantzaren bilakaera.....	169
4.5.3 Gizarte eta Osasun Zerbitzuen arloan Lankidetzeta-Gobernantza.....	171
4.6 Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen Gobernantzaren giltzarri nagusiak.....	175
LEHEN ATALEKO ONDORIO NAGUSIAK.....	185

BIGARREN ATALA: LANDA AZTERKETA. GIPUZKOAKO GIZARTE ZERBITZUEN GOBERNANTZARI BURUZKO DELPHI AZTERKETA

5 KAPITULUA: LANDA AZTERKETAREN TESTUINGURUA. GIZARTE ZERBITZUAK GIPUZKOAN.....195

5.1 Gipuzkoako lurraldearen kokapena.....	195
5.2 Gizarte Zerbitzuen horniketa.....	196
5.3 Gipuzkoako lurraldearen Gizarte Zerbitzuen indarreko marko juridikoa.....	197
5.3.1 Espainiar Estatuko 2006ko Mendekotasun Legea.....	198
5.3.2 Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Legea.....	199
5.4 Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen ereduaren ezaugarri nagusiak.....	213

6 KAPITULUA: LANDA AZTERKETAREN METODOLOGIA. GIPUZKOAKO GIZARTE ZERBITZUEN GOBERNANTZARI BURUZKO DELPHI AZTERKETA.....217

6.1 Delphi metodoaren hausnarketa teoriko orokorra.....	217
6.2 Delphi metodoaren lan enpiriko zehatzari egokipena.....	220
6.2.1 Focus Group.....	220
6.2.2 Adituak aukeratu.....	222
6.2.3 Galdetegia prestatu.....	224
6.2.4 Bi txandako Delphi prozesua finkatu.....	225
6.2.5 Politikoen eta teknikoen emaitzak bakoitzak bere aldetik ere aztertu.....	225
6.2.6 Emaitzen kalitatea baloratu.....	226

7 KAPITULUA: LANDA AZTERKETAREN EMAITZAK. GIPUZKOAKO GIZARTE ZERBITZUEN GOBERNANTZARI BURUZKO DELPHI AZTERKETA.....233

7.1 Emaitza nagusiak.....	234
7.1.1 Adituen gaur egungo ardura	235

LEHEN ARLOA: EREDU EGOKIENA GIZARTE ZERBITZUAK ANTOLATZEKO

7.1.2 Eredu publiko soila eredurik egokiena.....	237
7.1.3 Eredu kontzertatua eredurik egokiena.....	241
7.1.4 Eredu pribatu soila eredurik egokiena.....	245
7.1.5 Adituen hausnarketak lehenbiziko atal honi buruz (2, 3, 4).....	249
Lehenbiziko Arloa: Hausnarketa Orokorra (2, 3, 4, 5).....	251

BIGARREN ARLOA: GIZARTE ZERBITZU PUBLIKOAK DISEINATZEKO GARAIAN

7.1.6 Diseinuan, hirugarren sektorea era informatiboan bakarrik.....	263
--	-----

7.1.7 Diseinuan, hirugarren sektorea era kontsultiboan bakarrik.....	267
7.1.8 Diseinuan, hirugarren sektorea modu partekatuan.....	271
7.1.9 Adituen hausnarketak bigarren atal honi buruz (6, 7, 8).....	275
Bigarren Arloa: Hausnarketa Orokorra (6, 7, 8, 9).....	277
<u>HIRUGARREN ARLOA: GIZARTE ZERBITZUAK EMATEKO GARAIAN</u>	
7.1.10 Zerbitzua ematerakoan, kontzertazioa.....	283
7.1.11 Zerbitzua ematerakoan, kontratazioa.....	287
7.1.12 Zerbitzua ematerakoan, hitzarmena.....	291
7.1.13 Adituen hausnarketak hirugarren atalari buruz (10, 11,12).....	295
Hirugarren Arloa: Hausnarketa Orokorra (10, 11, 12, 13).....	297
<u>LAUGARREN ARLOA: HIRUGARREN SEKTOREA ETA KOOPERATIBAK</u>	
7.1.14 Zerbitzua ematerakoan, 3.sektorea positiboki diskriminatu.....	305
7.1.15 Klausula sozialak garrantzitsuak.....	309
7.1.16 Bereziki kooperatibak diskriminatu.....	313
7.1.17 Adituen hausnarketak laugarren atalari buruz (14, 15, 16).....	317
Laugarren Arloa: Hausnarketa Orokorra (14, 15, 16, 17).....	319
<u>BOSGARREN ARLOA: KOOP: PUBLIKOTASUNA EDO PRIBATIZAZIOA INDARTU</u>	
7.1.18 Kooperatibizazioa espazio publikoa zabaltzeko bide bat.....	325
7.1.19 Kooperatibizazioa erantzukizun publikoa indartzeko bide bat.....	329
7.1.20 Kooperatibizazioa erantzukizuna pribatizatze bide bat.....	333
7.1.21 Kooperatibizazioa helburu integrala.....	337
7.1.22 Kooperatibizazioa aldi baterako helburu bat publikazioaren bidean.....	341
7.1.23 Kooperatibizazioa arazo puntualei bakarrik aurre egiteko.....	345
7.1.24 Kooperatibizazioa ez da inolaz ere aukera bat.....	349
7.1.25 Kooperatiba eredu desberdinak.....	353
7.1.26 Adituen hausnarketak atal honi buruz (18,19,20,21,22,23,24,25).....	359
Bosgarren Arloa: Hausnarketa orokorra (18,19,20,21,22,23,24,25,26).....	361
<u>SEIGARREN ARLOA: ADITUAK GEHITU NAHIKO LUKEENA</u>	
7.1.27 Azken arlo honetan adituak egin dezake bere hausnarketa laburra aurreko ataletan ukitu ez den edozein gai jorratuz.....	371
BIGARREN ATALEKO ONDORIO NAGUSIAK.....	373

8 AZKEN GOGOETAK	383
9 Bibliografia	429
10 Taula eta Grafikoen aurkibidea	439
10.1 Taulak.....	439
10.2 Grafikoak.....	442
11 Web orriak	445
12 Eranskinak	449
12.1 Eranskina 1.....	449
12.2 Eranskina 2.....	450
12.3 Eranskina 3.....	451

0 SARRERA

0.1 Tesiaren aurkezpena

Gaur egungo gizartea aztertzen badugu konturatzen gara Kapitalismoak desberdintasun sozioekonomiko izugarriak sortzen dituela ez bakarrik munduko biztanleriaren artean, baita ere Europar Batasunaren barruan. Krisi hori ez da bakarrik ekonomikoa. Baita ere soziala, kulturala, politikoa, ekologikoa, ideologikoa eta etikoa. Azken finean, zibilizazioaren paradigma bera krisian dago. Mundua ez dago aldaketen garai baten aurrean bakarrik, aro aldaketa sakon baten ataria gurutzatzen ari da. Kapitalismoaren garaipen ideologikoak bere krisi sakona ezkutatzen du ez delako gai gizakiaren etorkizunak planteatzen dituen erronkei, arazoei eta zalantzei erantzuteko. Horregatik adierazi daiteke gaur egungo eredu neoliberalak huts egin duela. Hala ere, jauzia ez da egun batetik bestera emango. Sistema kapitalistak gaitasuna dauka erreproduzitzeko egoera honetaz probetxua ateratzen duten klase sozialak eta interes ekonomikoak daudelako. Testuinguru honetan, egunetik egunera garrantzitsuagoa da beste gizarte-eredu bat eraikitzea balio eta politika desberdinekin, elkarkidetasunean, ondasunaren banaketan, parte hartze sozialean eta bizi kalitatean oinarrituta. Horregatik, ezinbestekoa da, apustu bat egitea, beste garapen eredu baten alde, beste gizarte baten alde.

Hala ere, jakitun gara ez dela lan erraza izango neoliberalismoa garaitzea baino bai ezinbestekoa gaur egungo eredu ekonomiko nagusiak dakarren dualizazioa eta injustizia gainditzeko. Bide luze eta aldapatsu hori egiteko ikerketa honetan garatzen dugun Berrikuntza Sozial Eraldatzailea tresna egokia izan daiteke helburu hori lortzeko. Hala ere, autore desberdinen hausnarketak ikusita, ikerketa honen helburu bat izango da Berrikuntza Soziala gizarte-eraldaketaren alde ipintzea. Hain zuzen ere, Berrikuntza Soziala ulertzeko modu asko daude. Autore batzuk pentsatzen dute Berrikuntza Sozialari buruz hitz egiteko nahikoa dela praktika zahar bat egokitzea, ideia bat beste testuinguru batean aplikatzea edo bazterketa sozialari aurre egiteko edozein neurri hartzea. Gainera, Berrikuntza Sozial Eraldatzailea terminoa erabili duten zenbait autore eta proiektuek ere maila mikroko dinamikak eta aldaketak proposatzen dituzte eraldaketaren aldeko teoria sendo bat antolatuta gabe. TRANSIT proiektua horren adibide esanguratsua izan daiteke. Tesi hau idazten ibili

garen bitartean anbizio handiko TRANSIT proiektua burutu da. Lau urteko ibilbidea eduki du, 2014ko urtarriletik 2017ko abendura arte. Europako Batzordeak aldi berean finantzatu du. Proiektuaren helburua Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen teoria bat finkatzea izan da gizartearen ahalduntzea eta aldaketa burutzeko. TRANSIT proiektuak erabili duen ikerketa metodoak enpresari, berritzaile, legegile eta akademikoen arteko berrelikadura sustatu du. Proiektu horretan Europa eta Latinoamerikako nazioarteko 20 sareetan konektatuta dauden berrikuntza sozialak aztertu dira. Hala ere zenbait autoreentzat proiektu horretan erabiltzen den Berrikuntza Sozial Eraldatzailea ez da nahikoa gaur egungo egitura politikoa eta ekonomikoa gainditzeko. Adibidez, Andreas Novy autorearen arabera TRANSIT proiektuak ez du Berrikuntza Soziala jarri sistemaren eraldaketaren mesedera. TRANSIT programak aplikatu duen Berrikuntza Soziala gehiago aritu da neoliberalismoaren korrante nagusiaren barruan mikro aldaketak burutzen.

Hori dela eta, gure ikerketa honetan Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen kontzeptua aztertzen dugunean ezinbestekoa ikusten da errotikako iraulketa bat ematea, kapitalismoarekin haustura bat burutzea, izaeran, bitartekoetan eta antolaketa moduan. Horregatik, ikerketa honen asmoa da gizarte-erlaketan oinarritutako Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen zimenduak antolatzea neoliberalismoaren gaurko fasea zalantzan jartzeko eta gizarteari bide berriak irekitzen joateko.

Gainera, eskema horretan ekonomia sozialak paper garrantzitsua joki dezake. Horrekin batera ekonomia soziala Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen harrobia eta sustatzailea izan daiteke. Hau da, ekonomia sozialak beste mugimendu eta dinamika sozialekin batera gaitasun handia eduki dezake ekonomia eredu berri bat eraikitzeko gizartearekin eta politikarekin lotura zuzena mantenduz. Baina horretarako ekonomia sozialak eraldaketarako duen potentzialitate guztia askatu behar du azaleko jarrera hutsean erori gabe eta eraldaketarako tresna garrantzitsua bihurtuz.

Bestalde, Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak landuko duen gobernanzak interes orokorra bermatu beharko du. Horretarako estatua eta gizartearen arteko erlazioak birdefinituko dituen praktika berriak eta esku hartze publikoaren modalitate desberdinak garatuko ditu. Hain zuzen ere Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak gobernanzaren kontzeptuak hierarkia eta

merkatuaren mugak gaintzen dituzten ekimen publikoak azpimarratuko ditu eta bide batez, gaur egungo gizarte konplexuan estatuaren eginkizunaren eraldaketari garrantzia emango dio.

Bestalde, tesi honetan interesa dugu gizarte zerbitzuen arloan lankidetzan oinarritutako gobernantza prozesuak aztertzeko, bereziki sektore publiko eta hirugarren sekorea/ekonomia sozialeko erakundeen artean gauzatzen direnak. Dudarik gabe, gizarte zerbitzuen gobernantza asko ikertzen ari den esparru bat da ikerlarien aldetik. Gizartean ere gaurkotasun handiko gai bat da. Askok eztabaidatzen ari da zein izan behar den estatuaren, merkatuaren eta gizarte zibilaren papera gizarte zerbitzuak hornitzeko garaian. Estatua hornitzaile nagusia izan behar al da, gizarte zibilak protagonismo handiagoa hartu behar al du edo zerbitzu horiek privatizatu egin behar dira gero merkatuak eskaintzeko. Gainera, krisi ekonomikoak ere areagotu egin du eztabaida hori eta tesi neoliberalak planteatzen ari den irtenbide nagusiak, zerbitzu publiko horiek privatizatuz, ez du arazoa konpontzen. Gure ustez, Berrikuntza Sozial Eraldatzailearentzat hirugarren sektoreak, ekonomia sozialak eta bereziki, kooperatibek, paper garrantzitsua joko dezakete gobernantza eredu berri horretan.

Gainera, landa azterketan aukera eduki dugu Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen gobernantza hori Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako departamentuan aplikatzen den aztertzeko. Kontuan hartu behar da Gipuzkoako gizarte zerbitzuak potentzialitate handiko esparru bat dela politika aurrerakoiak martxan ipintzeko. Hasteko, Gipuzkoako gizarte zerbitzuek erantzukizun publikoko eredu mistoa jarraitzen dute. Eredu misto hori kontzertazioaren bitartez antolatzen da. Bertan, batzuetan esku-hartze publikoa zuzenean bideratzen da eta beste batzuetan, berriz, sektore pribatuaren edo hirugarren sektorea/ekonomia sozialaren bitartez gauzatzen da. Aipatzekoa da ere zenbait gizarte esparruetan hirugarren sektoreko elkarrekin historikoki pisu handia eduki dutela. Ez hori bakarrik, administrazioaren aurretik ibili dira zerbitzuak emateko garaian eta aitzindaritza funtzioa bete dute. Horrekin batera, Gipuzkoan mugimendu kooperatiboa errotuta dago egitura sozioekonomikoan eta egunetik egunera ekonomia sozial eta solidarioko ekimenak indar gehiago hartzen ari dira herrialdean.

Aipatzekoa da ere Ikerketa-lan hori martxan ipintzeko Gipuzkoako Foru Aldundiko gizarte politikarako arduradunen jarrera positiboarekin aurkitu garela. Hain zuzen ere, pertsona horiek interes berezia agertu dute gizarte zerbitzuen politika publikoak ezaugarritu eta hirugarren sektorea/ekonomia sozialaren eta kooperatibizazioaren aldeko apustua eztabaidatzeko eta aztertzeko. Zalantzarik gabe, landa azterketa egin zen momentuan, 2014ko martxoan, Bildu koalizioak Gipuzkoako Foru Aldundia eta bide batez Gizarte Politikako Departamentua gobernatzen zuenean, gogo berezi bat zegoen sail horretan gobernantza eredia eztabaidatzeko, bereziki hirugarren sektorea/ekonomia sozialaren eta kooperatibizazioaren ekarpena aztertzeko.

0.2 Tesiaren helburua eta hipotesia

0.2.1 Helburua

Tesi honen helburu nagusia Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak Berrikuntza Sozial Eraldatzailea aplikatzen duen gizarte zerbitzuak antolatzeko garaian aztertzea da. Xede hori betetzeko lehenbizi Berrikuntza Sozial Eraldatzailea zer den definituko da. Gero aztertuko da nola egokitzen den Berrikuntza Sozial Eraldatzailea gobernantza eremura eta azkenik ikertuko da ea Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak Berrikuntza Sozial Eraldatzailea aplikatzen duen gizarte zerbitzuak antolatzeko garaian. Ikerketa bideratu den moduan, arlo teknikoetan baino gehiago arduradunen ikuspegi ideologikoan sakondu nahi izan da. Hain zuzen ere, arakatu nahi da departamenduko arduradunek, edozein zailtasun tekniko, legal edo juridikoen gainetik, Berrikuntza Sozial Eraldatzailean oinarritutako gobernantzaren aldeko jarrera duten edo ez.

0.2.2 Hipotesia

Hori izanik ikerketaren helburua abiapuntuko hipotesi nagusia hauxe litzateke:

Hipotesia: Azterketa burutu zen garaian, 2014ko martxoan, Bildu koalizioak Gipuzkoako Foru Aldundia gobernatzen zuenean, Gizarte Politikako Departamentuak Berrikuntza Sozial

Eraldatzailea aplikatzen zuen gizarte zerbitzuak antolatzeko momentuan. Hipotesi nagusi hori kontrastatzeko hurrengo bost azpi-hipotesiak plazaratu dira:

(1) Gizarte politikako departamentuak gizarte zerbitzu publikoak antolatzeko garaian lankidetzan oinarritutako eredu publikoa garatzen du.

(2) Gizarte politikako departamentua, gizarte zerbitzu publikoak diseinatzeko garaian, koeraikuntzan oinarritzen da hirugarren sektorea/ekonomia soziala aintzakotzat hartuz.

(3) Gizarte politikako departamentua, gizarte zerbitzu publikoak emateko garaian, kudeaketa zuzenarekin batera kontzertatutako koprodukzioan oinarritzen da hirugarren sektorea/ekonomia soziala aintzakotzat hartuz.

(4) Gizarte politikako departamentuak, gizarte zerbitzu publikoak emateko garaian, hirugarren sektorea/ekonomia sozialeko partaideak positiboki diskriminatzen ditu.

(5) Gizarte politikako departamentuak, gizarte zerbitzu publikoak emateko garaian, kooperatibazioa sustatzen du espazio publikoa zabaltzeko.

0.3 Tesiaren Metodologia

Hipotesi hori frogatzeko ikerketa lanetan erabiltzen diren bi esparru metodologiko nagusi baliatu dira hemen: gaiari loturiko literaturaren berrikusketa bibliografikoa eta landa azterketa.

Berrikusketa bibliografikoa

Ondoren atalez atal ikusiko den moduan hirugarren sektorea/ekonomia soziala¹ eta berrikuntza sozialaren berrikusketa bibliografikoa egin dugunean bereziki Quebec-eko eta Europako autoreetan oinarritu gara. Hau da, gerturaketa anglosaxoia alda batera utzi dugu

¹ Lan honetan “hirugarren sektorea” eta “ekonomia soziala” terminoak berdin berdinean erabiliko dira. Landa azterketako galdetegian “hirugarren sektorea” terminoa erabili da, kontuan hartuta gizarte zerbitzuetan “ekonomia soziala” terminoak ospe handia ez duelako eta bakarrik kooperatibekin lotzen delako. Bestalde, hirugarren sektoreak zenbait kooperatiba mota barneratzen ditu, irabazi-asmorik gabekoak direnak. Horregatik, hirugarren sektoreari buruz hitz egiterakoan zentzu zabalean egingo da, kooperatibak ere integratuz eta ekonomia sozialari buruz hitz egiten denean baita ere irabazi-asmorik gabeko erakundeak sartuko dira.

eta bereziki korrante frankofonoko autoreak aukeratu ditugu. Hain zuzen ere, Interes berezia jarri dugu erakundeen gobernantzan eta funtzionamendu demokratikoan. Baita ere, gizabanakoen inbertsioen ordainsarrietan baino gehiago ongizate kolektiboan zentratu da gure atentzioa. Gainera, gure hausnarketari gizarte mugimenduaren ikuspegia txertatu nahi izan diogu momentuko gizarte-arauak auzian jarriz eta gizarte-ordena berria aldarrikatuz.

Marko teorikoa ongizate-estatuaren eraikuntza eta gainbeheraren azterketarekin hasten da. Arlo hori burutzeko, besteak beste, Karl Polanyi, Richard Peet, Alain Lipietz, Ramon Fernandez Durán, Nekane Jurado, Pedro Montes, Jamie Peck, Anatole Kaletsky eta Juan-Luis Kleinen hausnarketak erabili dira.

Gero, Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen kontzeptua zehaztuko da. Horretarako, hasteko, Berrikuntza Sozialaren kontzeptuaren jatorria berrikusi da. Lan hori burutzeko, alde batetik, Glasgow Caledonian Unibertsitateko “Yunus Centre for Social and Business Health” ikerketa zentruko Noorseha Ayob, Simon Teasdale eta Kylie Faganen hausnarketak aztertu dira eta bestetik, KU Leuven-eko unibertsitateko “Research Centre on Space and Society” ikerketa zentroko Frank Moulaert-en ekarpenak oinarri bezala erabili dira. Horrekin batera, Berrikuntza Sozialaren kontzeptuaren bilakaera ikusi da. Hori egiteko, bereziki, Québeceko CRISES (Centre de Recherche sur les Innovations Sociales) ikerketa zentroko Juan-Luis Klein, Marie J. Bouchard, Benoît Levesque eta Denis Harrissonen ekarpenak jaso dira. Baita ere, hausnarketa hori Aix-Marseille unibertsitateko Nadine Richez-Battesti eta Francesca Petrella eta Paul Valéry-Montpellier unibertsitateko Delphine Valladek burututako ikerketarekin osatu da. Azkenik, Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen kontzeptuari gure ekarpena egin baino lehen Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen terminoak eduki dituen zenbait gerturaketa esanguratsu mahaigaineratu dira. Horien artean aipatzekoak dira Frank Moulaert, TRANSIT proiektua, Mangabeira Unger eta Andreas Novyk egindako hausnarketak.

Ondoren, gure ekarpenean Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak behar duen ekonomia sozialaren inguruan hausnartu da. Atal horretan ekonomia sozialaren bilakaera eta gaur egungo mugak azaleratu eta gero homologazio arazoak eta kontsentsuzko printzipioak ukitu dira. Baita ere, ekonomia solidarioaren proposamen berritzailea garatu da eta ekonomia soziala Berrikuntza Sozialaren esparruarekin lotu da. Kapitulu honetako hausnarketa

nagusiak egiteko, alde batetik, CIRIEC-Españaiko kideak diren José Luis Monzón, Rafael Chaves eta José Barearen ekarpenak jaso dira eta bestetik, UPV-EHU Unibertsitateko GEZKI eta HEGOA institutuko kideak diren Enekoitz Etxezarreta, Jon Morandeira eta Juan Carlos Perez de Mendigurenenak aztertu dira. Baita ere, kontuan hartu dira Jean-Louis Laville, Benoît Lévesque, Marie J. Bouchard eta José Luis Coraggiok egindako hausnarketak. Eremu hori amaitzeko ekonomia sozialak Berrikuntza Sozial Eraldatzaileari egiten dizkion ekarpen garrantzitsuak plazaratu dira.

Marko teorikoaren berrikusketarekin jarraitzeko, Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak behar duen gobernantza eredua aztertu da. New Public Management gobernantza eredua aztertu eta gero gobernantzan gertatzen ari diren ildo berriak hausnartu dira. Horrekin batera ekonomia sozialak gobernantza eredu berriari egiten dion ekarpena baloratu da. Baita ere, Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen koeraikuntza jorratu da. Arlo hori amaitzeko lankidetzan oinarritutako gobernantza ereduak gizarte eta osasun zerbitzuetan aplikatu da. Gobernantzaren atal hori jorratzeko bereziki CRISES zentroko Benoît Levésque, Jean Marc Fontan, Juan Luis Klein, Diane Gabrielle Tremblay eta Yves Vaillancourt ikerlarien hausnarketak plazaratu dira. Baita ere, Mid-Sweden unibertsitateko Victor Pestoff eta Nijmegen unibertsitateko Taco Brandsenen ekarpenak kontuan hartu dira.

Azkenik, landa azterketa egin baino lehen komeni da Gipuzkoako gizarte zerbitzuak Europar Batasunean, Estatu Espainolean, Euskal Herrian eta Euskal Autonomia Elkargoan kokatzea eta bere ezaugarri nagusiak azalera. Arlo horretarako Gregorio Rodriguez Cabrero, Raquel Gallego, Joan Subirats eta Ricard Gomák egindako ikerketak erabili dira oinarri bezala. Hausnarketa horiek osatzeko UPV-EHU unibertsitateko GEZKI institutuko kideak diren Enekoitz Etxezarreta, Mikel Zurbano eta Baleren Bakaikoaren ekarpenak jaso dira.

Landa azterketa

Bestetik, atal enpirikoan, Delphi metodoa erabili da Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamenduak gizarte zerbitzuak antolatzekeo garaian Berrikuntza Sozial Eraldatzailea erabiltzen duen jakiteko. Teknika horren bitartez lortutako informazio subjektiboarekin eredu matematiko bat elikatu dezaketen datuak lortu dira. Bereziki datu

objektibo horiek inkesta prozesu baten bitartez eskuratu dira. Delphi metodoa aditu talde batetik abiatuta talde iritzi sinesgarri bat lortzeko giza ikerketarako teknika bat da. Pertsona talde batean komunikazioa egituratzeko metodo bat da, gai korapilatsu bat konpontzeko ekarpen probetxugarriak egin dezakeena. Iterazio-metodo bat da (gutxienez, adituak bi aldiz kontsultatuak izan behar dira galdera berdinari buruz), parte hartzaileen anonimataua gordetzen da eta feedback kontrolatua dauka. Adituen arteko informazio trukaketa ikerketako koordinatzailearen bitartez egiten da, garrantzitsua ez den informazioa baztertuz. Metodoaren ardatz nagusia adituen taldea edo panela da. Talde hori informazioa eskaintzen duena da. Gero, informazio hori, iterazio, interakzio eta agregazio prozesuak jaso ondoren, taldearen iritzia bihurtuko da, ikerketaren outputa osatuz.

Delphi metodo hori oinarri bezala hartuta, ikerketa zehatza burutzeko, zenbait egokipen egin dira ahalik eta etekin handiena ateratzeko. Azken finean, Delphi hibrido bat erabili da, oinarrizko teknika horri aberasgarriak izango diren beste ikerketa tresna batzuk gehituz.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak Berrikuntza Sozial Eraldatzailea praktikan ipintzen duen jakiteko logikoena da departamentu horretan ardurak eta ezagupena duten pertsonengan jotzea. Delphi estudio horretan 16 pertsonak parte hartu dute, horietatik 11 perfil politiko batekin eta beste 5 perfil teknikoarekin. Hasierako 16 pertsonetatik 13k amaitu zuten positiboki prozesu osoa. Bestalde, galdera kopurua 27ra mugatu da. Galdera horiek 6 arloetan banatu dira ikerketaren azterketa errazteko eta ondorioak 6 gai nagusien inguruan antolatzeke. Erantzun horiek kuantifikatzeko 1etik 5erako Likert eskala erabili da (1,2,3,4,5). Bertan erdiko balorea 3 izango da, desadostasuna 1 eta 2 eta adostasuna 4 eta 5. Horrela egiteak aukera ematen du batez bestekoak, desbideratze tipikoak eta kuartilak aztertzeke.

Gainera, galdera argiak eta zehatzak prestatu dira, ikerketaren muinari helduz eta hizkuntza maila adituen kolektiboari egokituz. Azkenik, arlo bakoitza galdera ireki batekin amaitu da aditu bakoitzak aukera eduki dezan arlo horri buruzko iruzkinak eta ekarpenak egiteko. Galdetegi diseinu horrekin lortzen da azterketa kuantitatiboa azterketa kualitatiboarekin lotzea eta, bide batez, ikertzailearen hautemateak gehitzea.

Delphi metodoa burutzeko bi inkesta-txanda erabili dira. Gainera, bigarren inkesta betetzerakoan adituek dagoeneko ezagutzen zituzten lehenengo txandan aditu horiek emandako batez besteko erantzunak. Feedback hori nahikoa izan da aditu-multzoaren iritziak gerturatzen joateko eta adostasunetara iristeko.

Delphi metodotik lortutako bigarren inkesta-txandako aldagai guztien datuak ere bi azpimultzotan aztertu dira iragazki bat ipini ondoren. Alde batetik politikoen emaitzak aztertu dira eta bestetik teknikoenak eta ahal izan den heinean biren arteko emaitzak alderatu dira.

Datuak prozesatu ondoren azken urratsa da prozesuan parte hartu duten adituekin eta interesatuekin emaitza horiek partekatzea eta euren balorazioa jasotzea. Azken urrats horrek seriotasuna ematen dio metodologia guztiari, bereziki kontuan hartzen bada ikerketa hori aurrera eramatea posible izan dela pertsona-aditu batzuen lan desinteresatuarengatik. Aldi berean, kontraste horrek informazio asko eskuratzeko parada ematen du eta momentu egokia izaten da emaitzak egiaztatzeko eta egon daitekeen edozein desbiderapen zuzentzeko.

0.4 Tesiaren egitura

Tesia sarrera batekin hasten da. Bertan, laburbiltzen da zeintzuk diren ikerketa hori aukeratzeko arrazoiak, non ipini den helburua eta zein den hipotesi nagusia, zer nolako metodologia erabili den eta, azkenik, zein den ikerketa hau burutzeko jarraitu den eskema nagusia.

Ikerketa honek bi atal ondo desberdinduak ditu. Alde batetik, Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen hurbilketa teorikoa burutuko da (1.go, 2., 3. eta 4. kapituluak) eta bestetik (5., 6. eta 7. kapituluetan) landa azterketa egingo da Delphi metodoaren bitartez. Azkenik, azken ondorioak aurkeztuko dira.

1.go kapituluaren ongizate-estatuaren eraikuntza eta gainbehera aro modernoan aztertzen da. XIX. mendeko klase arteko borrokaren lehen emaitzak ikusten hasiko dira European ongizate-estatuaren lehen oinarri politikoak eta ekonomikoak finkatuz. Ondoren, 1973ko krisitik

aurrera Europako kapitalak aurrea hartuko dio klase arteko borroka-fase berriari eta Europar ongizate-estatuaren desagitea areagotu egingo da. Gero Atzeraldia Handia etorriko da eta metaketa-kapitalistaren prozesuaren bizkortzaile funtzioa beteko du. Kapitalismoak desberdintasun sozioekonomiko handiak sortuko ditu ez bakarrik munduko biztanleriaren artean, baita ere Europar Batasunaren barruan. Kapitalismoaren garaipen ideologikoak bere krisi sakona ezkututzen du ez delako gai gizakiaren etorkizunak planteatzen dituen erronkei, arazoei eta zalantzei erantzuteko. Esan daiteke gaur egungo eredu neoliberalak huts egin duela. Hala ere, jauzia ez da egun batetik bestera emango. Sistema kapitalistak gaitasuna dauka erreproduzitzeko egoera honetaz probetxua ateratzen duten klase sozialak eta interes ekonomikoak daudelako. Horregatik, prozesu eraldatzailea bide malkartsua izango da. Testuinguru horretan egunetik egunera garrantzitsuagoa da beste gizarte-eredu bat eraikitzea balore eta politika desberdinekin, elkarkidetasunean, ondasunaren banaketan, parte hartze sozialean eta bizi kalitatean oinarrituta.

2. kapituluak, Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen oinarriak finkatuko dira, ikuspegi sozio-politiko alternatiboak sortzeko eta eraldaketa sozialaren aldeko ahalmena garatzeko. Azken finean, gizartearen eraldaketara bideratutako Berrikuntza Sozialaren kontzeptuak, teoriak, praktikak eta estrategiak elkarlotuko dira gaur egungo gizarte-desorekei eta ongizate faltari aurre egiteko eta inongo bazterketarik gabeko mundu bat eraikitze bidean urrats sendoak emateko. Bide horretan, ikerketa honetan garatuko den Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak oinarri politiko eta ideologiko argiak eduki beharko ditu bere potentzialitate guztia gizarte-eraldaketara bideratzeko. Hain zuzen ere, komeni da Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen eginkizuna ondo kokatzea hausnarketa sozio-politiko alternatibo egokiak plazaratzeko eta praktikara eramateko. Zentzuzko alternatibak plazaratuko dira. Horretarako sormena, antolaketa egokia, herritar desberdinen mobilizazio ahalmena eta instituzioei zuzendutako lankidetzak eta interpelazioa erabiliko da. Garrantzitsua da jarduera horien arteko halako oreka bat bilatzea errendimendu sozial eta politikorik handiena gauzatzeko. Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen teoria politiko-ideologiko horiek martxan ipintzea da kapitulu horren helburua.

3. kapituluaren Berrikuntza Sozial Eraldatzailea eta ekonomia soziala lotuko dira. Eraldaketan oinarritutako ekonomia soziala Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen kontzeptuaren parte izango da. Berrikuntza Sozial Eraldatzailearentzat ekonomia soziala tresna estrategikoa bihurtuko da. Gainera, gaur egungo krisi egoeran ekonomia sozialak paper garrantzitsua joki dezake. Horrekin batera ekonomia soziala Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen harrobia eta sustatzailea izan daiteke. Hau da, ekonomia sozialak beste mugimendu eta dinamika sozialekin batera gaitasun handia eduki dezake ekonomia eredu berri bat eraikitzeko gizartearekin eta politikarekin lotura zuzena mantenduz. Baina horretarako ekonomia sozialak eraldaketarako duen potentzialitate guztia askatu beharko du azaleko jarrera hutsean erori gabe eta eraldaketarako tresna garrantzitsua bihurtuz. Horregatik, kapitulu honetan ekonomia sozial eraldatzaileak antolakuntza sozioekonomikoan duen izaera estrategikoa azalduko da gaur egungo ikuspegi ekonomizistatik aldentuz eta tresna baliagarria bihurtuz beste eredu gizatiarragoa eta beste balore herrikoiagoak txertatzen joateko.

4. kapituluaren Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen barruan jorrituko den gobernantzan sakonduko da. Berrikuntza Sozial Eraldatzailean erabiliko den gobernantzaren kontzeptuak arazo kolektiboak konpontzeko prozesuak azpimarratuko ditu eta gizarte zibila eta botere publikoaren arteko elkarrekintzari garrantzia emango dio. Gainera, gobernantza eraldatzaile horrek aktore publiko eta pribatuen aniztasunaren presentzia azpimarratuko du, partikularki ekonomia sozial eta solidarioko aktoreenak esku hartze kolektiboak lantzeko eta martxan ipintzeko. Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen gobernantza lankidetzak motakoa izango da. Erregimen horretan lankidetzak bat martxan ipintzen da botere publikoa eta bereziki sozietate zibileko aktoreen artean. Autoritate publikoen eginkizuna ez da indarrezko boterea erabiltzea. Gehiago da koordinazio eta sustatze lanak burutzea gizarte zibila eta botere publikoaren artean sortu diren lankidetzak desberdinetan. Gizarte eta osasun zerbitzuen arloan landuko den gobernantza lankidetzan oinarritutako prozesuak bultzatu beharko ditu, bereziki instituzio publiko eta hirugarren sektorea/ekonomia sozialeko erakundeen artean gauzatzen direnak. Bide horrek koordinazio instituzionalaren iraulteta eskatzen du. Estatuaren funtzioa gizartearen aurrean birkokatu egin behar da.

Behin Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen hurbilketa teorikoa egin ondoren eta atal osoko ondorio nagusiak atera eta gero bigarren atalean landa-azterketari helduko zaio.

5. kapituluan Gipuzkoako Lurralde Historikoko gizarte zerbitzuen ezaugarriak zehaztuko dira. Hasteko Gipuzkoako Lurraldea kokatuko da Estatuko eta Euskal Autonomia Erkidegoko egitura sozio-politikoan. Gero gizarte zerbitzuen horniketa nola bideratzen den aipatuko da. Estatu Espainol mailan gizarte zerbitzu, etxebizitza eta oinarrizko errentaren arloetan merkatuak eta familiak agintzen badu ere, Hego Euskal Herrian (Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Komunitatean) esku hartze publikoak eta sare sozialek pisu handiagoa hartzen dute merkatuaren eta familiaren eragina asko gutxituz. Euskal Autonomia Erkidegoko Gipuzkoako lurraldean, berriz, zaintza eta mendekotasun arloak orokorki kontzertazioaren bitartez antolatzen dira. Bertan, batzuetan esku hartze publikoa zuzenean bideratzen da eta beste batzuetan, berriz, sektore pribatuaren edo ekonomia soziala/hirugarren sektorearen bitartez gauzatzen da. Ondoren Gipuzkoako gizarte zerbitzuen marko juridiko nagusia aurkeztuko da. Horretarako Espainiar Estatuko 2006ko mendekotasun legea eta Euskal Autonomia Erkidegoko 2008ko gizarte zerbitzuen legea kontuan hartuko dira. Kapitulu hori Gipuzkoako gizarte zerbitzuen ereduaren ezaugarri nagusiekin amaituko da.

6. kapituluan landa azterketaren metodologia zehaztuko da. Hain zuzen ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren gizarte zerbitzuen gobernantzari buruzko Delphi azterketaren ezaugarri nagusiak azalduko dira. Hasteko Delphi metodoaren hausnarketa teoriko orokorrak egingo dira eta gero Delphi metodo hori ikerketaren lan enpiriko zehatzari egokituko zaio. Metodoaren ardatz nagusia adituen taldea edo panela da. Talde hori informazioa eskaintzen duena da. Gero, informazio hori, iterazio, interakzio eta agregazio prozesuak jaso ondoren, taldearen iritzia bihurtuko da, ikerketaren outputa osatuz. Delphi metodo hori oinarri bezala hartuta, ikerketa zehatza burutzeko, zenbait egokipen egin zaio ahalik eta etekin handiena ateratzeko. Azken finean, Delphi hibrido bat erabili da, oinarrizko teknika horri aberasgarriak izango diren beste ikerketa tresna batzuk gehituz.

7. kapituluan landa azterketaren emaitza nagusiak bildu dira. Emaitza horiek 5 multzo nagusietan banatuta daude: eredu egokiena gizarte zerbitzuak antolatzeko, gizarte zerbitzu

publikoen diseinua, gizarte zerbitzuak emateko ereduak, hirugarren sektorea/ekonomia sozialaren diskriminazio positiboa eta kooperatibizazioaren aldeko jarrera. Amaitzeko beste multzo bat irekitzen da adituek zerbait gehitu nahi badute bertan sartzeko. Kapitulu horretan ikerketaren emaitzak galderaz galdera aztertutakoak izan dira. Gainera, galdera horiek sei arlo nagusitan bildu direnez adituen hausnarketa kualitatiboak multzoka gehituko zaizkio. Gero, emaitza horiek itzultze-bileretan adituen aurrean aurkeztu eta eztabaidatu dira, politikoen eta teknikoen hausnarketak bereizita aurkeztuz.

Landa azterketako atalaren kapitulu guztiak garatu eta gero atal osoari buruzko ondorio nagusiak atera dira. Azkenik, marko teorikoa berrikusita eta landa azterketaren ondorio nagusiak atera eta gero, ikerketa osoari buruzko azken gogoetak plazaratuko dira. Amaitzeko, lanaren azken orrialdeetan, bibliografia, taulen eta grafikoaren aurkibidea, web orrien bilduma eta eranskinak kokatuko dira.

LEHENENGO ATALA: MARKO TEORIKOA

1 KAPITULUA: ONGIZATE-ESTATUAREN ERAIKUNTZA ETA GAINBEHERA. BESTE GIZARTE-EREDU BAT ERAIKITZEKO BEHARRA

1.1 Klase arteko borrokaren lehen emaitzak Europa modernoan. Ongizate-estatuaren lehen oinarri politikoak

XVIII. mende amaierako Ingalaterran hasi zen iraultza industrial eta berarekin batera sortu zen ekoizpenaren elementu guztiak merkantzia bihurtzen zuen utopia ekonomikoa Adam Smith-en (2011) postuladok jarraituz. Polanyi-k (1997) aipatzen duen moduan 1820 urtetik aurrera hiru dogma liberal klasikoek pisua hartu zuten: lanak bere prezioa merkatuan aurkitu behar du; monetaren sorrera autorregulazio mekanismo bateri lotuta egon beharko da; merkantziak libreki mugitu behar dira herrialde batetik bestera inongo oztoporik gabe. Hau da, hiru dogma horiek laburtzen dira lan merkatuan, urre-patroian eta merkataritza librean. 1830eko hamarkada arte itxaron beharko dugu Ingalaterran liberalismo ekonomikoa gurutzada kartsua bihurtu dadin. Hain zuzen ere, 1832an burgesiaren garaipen politikoaren ondoren txiroen aldeko legedia errotik aldatu ondoren bere aplikazioa azkartu egiten da tregoarik gabe. Librekanbioa koagulatu egin zen, izugarritzko eraso gogorra martxan ipiniz. *Laissez-faire*² dotrina ez zen zerbait naturala. Merkatu libreak ez ziren inoiz eratuko horretarako baimena eman ez bazen. *Laissez-faire* bera Estatuak inposatu zuen. 1830 eta 1850 urteen artean, alde batetik, erregelamendu murriztaileak indargabetzeko lege berrien eklosio handi bat eman zen eta bestetik, Estatuaren administrazio-funtzioak izugarri handitu ziren, zentralizatutako burokrazia baten bitartez liberalismoen bozeramaileek agindutako eginkizunak betearazteko.

1850 urtetik aurrera burututako bigarren iraultza industrialak aldaketa sakonak ekarri zituen egitura demografikoan eta klaseen egituraketetan. Garai hartako herrialde industrializatu gehienetan eman ziren lurraren jabegoaren erreformen ondoren lanerako indarra bihurtu zen biztanleriaren gehiengoak bizirauteko zuen errekurso bakarra.

XIX. mende horretan bi indar kontrajarriek mugitzen zuten gizarte modernoa. Polanyi-ren (1997) hitzetan alde batetik, merkatua zabaldu egin zen modu iraunkorrean baino, era

² http://www.eco-finanzas.com/diccionario/L/LAISSEZ_FAIRE.htm, 2018/01/09 egunean begiratua.

berean, joera horren aurrean kontrako mugimendu bat garatu zen gizartea babesteko, betiere merkatuaren autorregulazioarekin bateragarria. Hau da, merkatu bat zegoen eskulanarentzat eta lurrarentzat eta eskaintza eta eskaria soldata eta errenta mailen bitartez arautzen ziren. Egia bada ekoizpena era horretan antolatu zitekeela ezin dugu ahaztu ere gizon-emakumeen eta lurzuaren etorkizuna merkatuaren legeen eskuetan uzteak hondamendia zekarrela. Horregatik kontra-mugimenduaren oinarria merkatuaren ekimena kontrolatzea izan zen, eskulana eta lurraren ekoizpen-faktoreei dagokionez. Hauxe izan zen interbentzionismoaren betebeharr nagusia. Ondorioz, XIX. mendeko historia soziala bi ertz horietan oinarrituta azaldu daiteke. Lehenbiziko ardatzean liberalismo ekonomikoa eta gizarte-babesaren arteko talka agertzen da eta bigarreanean klaseen arteko gatazka nabaria da.

1875eko lehen krisi ekonomikoa larriak agerian utzi zuen garatzen ari zen eredu ekonomikoa berri horren gordintasuna. Goian aipatu dugun moduan garai horretan garatzen ari zen eredu ekonomikoa *laissez-faire* leloan oinarritzen zen. Liberalismo ekonomikoa merkatu-sistema antolatu nahi zuen gizarte baten antolaketa-printzipioa izan da. Burokrazia gaitzetzeko metodo baten aldeko joera bat zena merkatu autorregulatzailaren bidez gizakiaren salbaziorako benetako fedea bihurtu zen. Fanatismo hori liberalismoaren eginkizunaren areagotzearen ondorio bat bihurtu zen: ordena berri horrek berealdiko oinazeak eragingo zien pertsona errugabeei. Fede liberalak ebanjelioaren miresmena jaso zuen garapenean bete betean zegoen merkatu-ekonomia baten beharrei erantzunez (Polanyi, 1997).

Testuinguru horretan Marx eta Engels-en (1968) teoriak, klase kontzientzia indartsua eta miseriako baldintza sozialei eta laboralei aurre egiteko haztegi egokia bihurtu ziren. Besteak beste, lan errenten ordezkotako errentak (pentsioak, lanerako ezintasuna, langabezia-asegurua...), etxebizitza eskubidea (alokairuzko etxebizitza sozialen parke publikoa), osasungintza eta hezkuntza duina eta unibertsala aldarrikatzeko balio izan zuten. Borroka-dinamika berri horrek aro berriko lehen gizarte-asegurua 1883an eratu zuen Alemanian, Bismarcken agintaldian, greba luze baten ondoren. Aseguru hau langile aktiboarekin

lotuta zegoen. Alemaniako adibidea jarraituz, gizarte-aseguruen garapena beste herrialde industrializatuetan oso azkarra izan zen.

1919an, Lehen Mundu Gerrari amaiera eman zion Versalleseko Hitzarmena eta gero Lanaren Nazioarteko Erakundea (LANE)³ jaiotzen zen, bere helburuetako bat gizarte-eskubideen koordinaketa eta garapena lortzea zelarik. Dena dela, liberalismo ekonomikoaren prestigioak 1920ko hamarkadan lortu zuen bere maila gorena. Milaka pertsonak jasan zuten inflazioaren zigorra eta klase sozialak eta nazio osoak esplotatuak izan ziren. Garai horretan moneten egonkortze politikak hartu zuten herrien eta gobernuen pentsamendu politikoen erdigunea. Langabetuen gabeziak eta kaleratutako funtzionarioen estutasunak, nazioen eskubideen abandonua eta konstituzio-eskubideen galerak ordaindu behar zen prezio juxtua zen liberalismo ekonomikoaren doktrina ondo aplikatzeko (Polanyi, 1997).

Ondorioz, 30eko hamarkada 1929an sortutako Depresio Handiarekin hasi zen. Langabezia-tasak %30era iritsi ziren, gizarte eta langile-matxinadak egunerokoak ziren, behar egoerarako estatuak bermatutako gutxieneko sarrerak aldarrikatuz (langabezia aseguruak eta abar). Mugimendu sozialistek, egoera ekonomikoak eta Sobietar Errepublika Sozialisten Batasunaren (SESB) iraultzak bultzatuta, goranzko bidea hartu zuten. Alemaniako eta Italiako mugimendu faxistek ere mozorrotzen zituzten euren benetako xedeak “enplegu beteko” eta “gizarte segurantzaz guztientzat” bezalako promesekin.

Garapen horren ondorioz esan dezakegu 30eko hamarkadan 20ko hamarkadako liberalismo ekonomikoaren balio absolutuak erlatibizatu egin zirela. Bi herrialde boteretsuenak, Britainia Handia eta Amerikako Estatu Batuak (AEB), zailtasun handiak eduki zituzten, patroi-urra utzi eta euren monetak gestionatzen hasi ziren. Nazioarteko zorrak blokean itzuliak izan ziren eta aldi berean aberatsenak eta errespetagarrienak liberalismo ekonomikoaren dogmak alde batera uzten hasi ziren. Atzetik, Frantzia eta beste estatu batzuk bide berdina hartu zuten. 40ko hamarkadan liberalismo ekonomikoak oraindik porrot handiagoa jaso zuen. Nahiz eta Britainia Handia eta AEB ortodoxia monetariotik aldenduta egon oraindik

³ <http://www.onu.cl/onu/sample-page/agencias-fondos-y-programas/oit/>, LANEren sorrera, helburuak eta bilakaera laburtuta, 2018/01/09 egunean begiratu.

liberalismoaren oinarriak eta metodoak mantentzen zituzten industrian, merkataritzan eta orokorrean bizitza ekonomikoaren antolaketa orokorrean (Polanyi, 1997).

Merkatu horien funtzionamenduak gizartearen etorkizuna mehatxupean ipintzen zuelako ezinbestekoa egin zen esku-hartze bat burutzea gizarte-babeserako neurriak indarrean ipintzeko. Polanyi-ri (1997) jarraituz gizarte-babesa autorregulatutako merkatu baten ezinbesteko osagarria da. Azken finean, politikaren parte hartzea beharrezkoa egin zen merkatuaren autorregulazioa egoera arriskutsuan aurkitzen zelako. Esku hartzeak balio izan zuten egoera zail horietan gizartearen batasuna bermatzeko.

Kontzientziazio politiko eta klase arteko borroka testuinguru horretan Bigarren Mundu Gerrak mugarri bat ipini zuen ongizate-estatuaren garapenean. SESBeko armadak, Alemaniako lurraldean sartzearekin batera bere boterea zabaltzen zihoan. SESBeko gupidagabeko aurrerapen horri eusteko eta sistema sozialistari aurre egiteko europar botere faktikoek ikusi zuten bide bakarra langileekin gizarte segurantzia eta gero ongizate-estatu deituko zenaren garapena hitzartzea izan zen. Estatu Batuetako Truman presidente berak 1947an onartu zuen espantsionismo komunista AEBren eta mendebal munduaren arrisku eta etsai nagusia izanik negoziazio sozialetara behartzen zuela (Jurado, 2010). Garai hartako eredu ekonomiko eta politiko sobietarraren garapenaren mehatxuak europar mendebaldeko agintariak behartu zituen aurrekari historikorik gabeko hitzarmen sozial eta erreteki buruzkoa onartzea. Hala ere hitzarmen hori ez zen eman Estatu Espainola, Portugal eta Greziako izaera faxistako diktadura militarretan non aseguru partzialak eta loturarik gabekoak bakarrik garatu ziren.

Sobietarren sozialismoaren presentzia presio bat izan zen beti Europar mendebaldean neurri aurrerakoiak martxan ipintzen joateko. Polanyi-ren (1997) iritziz bertako langile-klasearen aldeko alderdi sozialista gehienek kapitalismoaren erreformaren aldeko hautua egiten zuten eta ez iraultzaren bitartez eredu hori suntsitzeko apustua.

Hitzarmen sozial horretan estatuak merkatua ordezkatu zuen azken horrek ezin zuelako modu automatikoan konpondu hitzarmenaren lehen zutabea zenaren enplegu betearen arazoa. Bigarren zutabea estatu berak babes soziala beregain hartzea izan zen. Baztertutako

gizabanakoen laguntza eta babesa estatuaren betebeharra bihurtu zen eta ez karitate solidarioarena. Hirugarren zutabeak, berriz, demokrazia aktiboan sakontzea planteatzen zuen. Jurado-ren (2010) hitzetan, Itun Sozial horrek ondorengo gertaera nagusiak eduki zituen: i) Filadelfiako Nazioarteko Biltzarrak (1944)⁴, Churchill eta Rooseveltek babestua, Gizarte Segurantzaren nazioarteko eredu baten prototipoa zehazten du; ii) 1949an Mendebaldeko Europar Batasunak Gizarte Segurantzaren hitzarmen bat martxan ipintzen du estatu-partaideen artean aldebiko tratatuak bateratzeko; iii) 1957an Europako Ekonomia Elkartea (EEE) sortzen da Erromako Tratatuaren⁵ bidez eta bertan finkatzen dira europar eskubide sozialen oinarriak oraindik inongo neurri hertsatzailerik hartu gabe estatu-partaide guztien artean bateratzea lortzeko, eta iv) 1964an Europako Kontseiluak Lanaren Nazioarteko Erakundearekin bateratze lanak hasten ditu aurrerapen nabarmenak lortuz. Europako ongizate-estatuaren oinarri politikoak aztertu ondoren gaur egungo egoera ulertzeko hori posible egin duten oinarri ekonomikoak ere azaltzea komeni da.

1.2 Ongizate-estatuaren oinarri ekonomikoak

Bigarren Mundu Gerrak harreman sozio-politikoak sakonki aldatzarekin batera egitura sozio-ekonomikoa irauli zuen. Alde batetik, gatazka militarrek Europako ekoizpen egitura zaharkitua suntsitu zuen eta horrek erraztu egin zuen teknologia berrien sarrera eta zabalkundea. Bestetik, berriz, gerra helburu militarretara aplikatutako teknologia-aparatu berrien izugarritzko esperimentazio gune bat bihurtu zen. Geroago aurrerapen horiek ekoizpen zibilera zabalduko dira eta, besteak beste, sekulako kostuen murrizketak, ekoizpen-escalaren handitzeak, produktibitatearen hazkunde indartsuak eta bide batez enpresa-irabaziak ekarriko ditu. Gainera, gerra espioitzaren eraginez, puntako teknologia ez zen sektore edo herrialde baten patrimonio bakarria izan eta Alemania, Frantzia, Erresuma Batua, Italia, AEB eta Japoniak aukera eduki zuten teknologia hori batera aplikatzen hasteko.

Gainera, Keynes-en (2006) teoriak aplikatu ziren, nahiz eta garai horretako eredu ekonomiko kapitalistaren barruan, gaur egungo teoria klasiko eta neoliberaletatik nabarmenki urruntzen

⁴ <http://www.ilo.org/legacy/spanish/inwork/cb-policy-guide/declaraciondefiladelfia1944.pdf>, Filadelfiako Aldarrikapena, 2018/01/09 egunean begiratua.

⁵ <http://eur-lex.europa.eu/legal-content/EN/TXT/?uri=LEGISSUM%3Axy0023>, Erromako Tratatuaren laburpena, 2018/01/09 egunean begiratua.

ziren. Keynesek defendatzen zuen estatuak barne eskari egoki baten ardura hartu behar zuela. Modu horretan, hiritarren gastu ahalmena jaisten bazen estatuak eurengatik, besteak beste, hezkuntzan, osasungintzan eta gizarte-azpiegituretan gastatu behar zuen. Gainera, estatuak hiritarrei bake soziala bermatzeko behar zuen gutxieneko moneta-errekurtsoak transferitzen zien (pentsioak, langabezia-prestazioak, oinarrizko errentak...). Politika ekonomiko horrekin enpresen ekoizpena kontsumitzeko eta gehiago ekoizten jarraitzeko eskari maila egokia mantendu nahi zen. Azken finean, keynesiar politikaren helburua enplegu betea lortzea zen eskaria motor ekonomikoa bihurtuz. Erosteko ahalmena edukitzeko ulertzen zen familiek gutxieneko errenta bat bermatuta eduki behar zutela. Estatuaren konpromisoa, berriz, ondasun publikoen eskaria maila egokian mantentzea zen.

Keynesek 1944an Bretton Woodseko konferentzian⁶ parte hartu zuen britainiar ordezkari bezala. Bertan Nazioarteko Moneta Funtza (NMF) eta Munduko Bankua (MB) sortu ziren, eta bertan AEBen asmoen aurka jardun zuen, azken horrek Europari menpekotasun finantzarioa ezarri nahi baitzion. AEBk inposatu nahi zuena ez zen asko urruntzen gero Maastrichteko Tratatuak⁷ finkatu zuenetik. Keynesek lortu zuen AEBko asmoak gelditzea, alde batetik, amerikarren menderatze ekonomikoa oraindik hasiberria zelako eta, bestetik, garai hartako SESBen mehatxu erreal edo balizkoa zegoelako. Nahiz eta Europar eredu onartezina zen AEBrentzat, azken honen ideala beti ekonomian laissez-faire izan delako, bere asmoak kontrolatu behar izan zituen SESBen erorketa eman arte.

1957an Europako Ekonomia Erkidegoaren (EEE) lehen etapan, "Seiren Europa osatzen denean"⁸ hazkunde ekonomiko iraunkor bat ematen da bere barnean, munduko ekonomiaren zabalkunde indartsu batekin batera, "Iparraldeko" herrialdeetan bereziki zentratuz eta "Hegoaldearekiko" zuloa handituz. Gerra amaitu eta gero europar ekonomiek berreraiki prozesua martxan ipintzen dute (Fernández Durán, 1996). Bigarren Munduko Gerratik 1973 arte, aldagai ekonomiko guztien igoerak herrialde industrializatueta beste edozein garaikoak baino askoz handiagoak izan ziren. Adibidez, produktibitatea batez beste

⁶ https://elpais.com/economia/2008/11/15/actualidad/1226737974_850215.html, Bretton Woodseko akordioen laburpena, 2018/01/09 egunean begiratua.

⁷ https://europa.eu/european-union/sites/europaeu/files/docs/body/treaty_on_european_union_en.pdf, Maastrichteko Tratatuak, 2018/01/09 egunean begiratua.

⁸ https://europa.eu/european-union/about-eu/history_es, Europar Batasunaren historia laburra, 2018/01/09 egunean begiratua.

garai horretan urteko %4,5 igo zen. Produktibitatearen gehikuntza horrek ongizate-estatuaren ezarpenaren kostuak arazo handirik gabe xurgatu zituen.

Denboraldi horretan, 70eko hamarkadaren hasiera arte, ez da EEEen bateraezintasun gradu handirik ematen kapitalen eta langileen interesen artean (Montes, 1993). Garai horretan ongizate-estatuak garatzen da, Keynesiar esku hartze osagarri handi batekin eta barneko efektu banatzaileekin, bereziki sozialdemokraziak bultzatuta. Hau gerraosteko kapitalismoaren berreraikuntzan indartsu antolatuta zegoen langile-klasea inplikatzeko era bat izan zen. Baita ere, kapitalaren aldetik langileen gatazka-gaitasuna desaktibatze modu bat, bereziki kontuan hartzen badugu Europa bi blokeetan banatuta zegoela. Modu horretan, ongizate-estatuaren eraikuntzak Ekialdeko arriskuei dei egin zezakeen. Aldi berean, hazkunde handiak (garai hartako teknologia baxuarekin) enplegu beteko egoera zekarren eta bide batez lan indarraren salmenta-baldintzen hobekuntza bultzatzen zuen. Nekazaritzan ere bakea lortu zen Nekazaritza Politika Bateratu (NPB)⁹ eskuzabal bat 1962an martxan ipini ondoren (Fernández Durán, 1996).

Egoera hau 70eko hamarkadaren hasieran zakarki aldatu zen nahiz eta Britainia Handia, Irlanda eta Danimarka EEEen sartu ziren. Gerraosteko hazkunde fordistaren¹⁰ zikloaren amaiera, dolar-urrearen patroiaren desagerpena eta 1973ko lehen krisi energetikoak¹¹ erreferentzia marko hori eztanda erazi egiten du (Fernández Durán, 1996). 1973ko krisi ekonomikoarekin kapitala ongizate-estatuaren hitzarmen soziala zalantzan jartzen hasi zen eta, bide batez, saiatu zen krisiaren pisua langileen bizkarrean uzten. SESBren hondoratzeak eta eremu sozialistaren desagerpenak bidea libre utzi zion Maastrichteko Tratatuari Europako ongizate-estatu indargabetzeko.

⁹ https://ec.europa.eu/agriculture/cap-overview/history_es, Nekazaritza Politika Bateratuaren historia, 2018/01/09 egunean begiratu.

¹⁰ <https://definicion.de/fordismo/>, Fordismoaren definizioa, 2018/01/09 egunean begiratu.

¹¹ <http://www.hiru.eus/historia/la-crisis-del-petroleo>, 1973ko Petrolioaren Krisia, 2018/01/09 egunean begiratu.

1.3 Lehenbiziko eraso egituratuak klase-antolakundearen aurka: AEB eta industriren lekualdatze diseinu berriak

Ameriketako Estatu Batuetako klase borrokak ere bere fruituak eman zituen. 1930eko hamarkadan gizarte eta lan babeserako egitura bat eraiki zen *New Deal*¹² izenarekin ezagutzen dena. Eredu hori 50eko hamarkadan hasi zen zalantzan jartzen, komunismoaren aurkako borroka juridikoa, mediatikoa eta soziala aprobetxatuz eta amerikar langileriak erasoari aurre ezin eginez. Fase horrek garrantzi handia dauka bertan erabilitako diseinuak eta estrategiak gaur egungo Europan berrituta martxan ipini direlako.

Komunismoaren jazarpenaren barruan ekoizpen-egituraren berrantolaketa bat diseinatu zen, lantegien lekualdatzeak barne, sindikatu-aktibitate ahulagoa zegoen eskualdetara eramanez (Peet, 1983). Hau dela eta, lekualdatzearen fenomenoak AEBko diskurtso politikoan presente egon da tarteka 60ko hamarkadatik aurrera. Garai horretan langileriak eskatzen zituen lekualdatzeari aurre egiteko neurrien aurrean langile kaltetuentzat politika berriak diseinatu ziren gizarte-zerbitzuen prestazioan eta birgizarteratze laboralean oinarrituta. Baita ere aduana-zergarik gabeko eremuak sortu ziren inbertsioak erakartzeko. Hogeita hamar urte baino gehiago pasa ondoren esan dezakegu adabaki-politika horiek ez dutela balio izan eremu kaltetuak birgaitzeko baino hala ere neurri horiek aplikatzen jarraitu dira azken hogeita hamar urteetan Europako herrialde desberdinetan.

Azterketa berdinek egiaztatzen dute esperimentu hau arrakastatsua izan zela kapitalarentzat eta gainera, oso indartuta atera zela klase-gatazka horretatik. Arrakasta hori izan da hain zuen ere multinazionalak 90eko hamarkadatik aurrera Europan esportatu dutena. Estrategiaren emaitzak kronologikoki aztertzerakoan esan dezakegu lehenbiziko helburua egitura sindikalak ahultzea izan zela eta horretarako egitura produktiboak berrantolatu egin ziren, lantegien lekualdatzeak barne, aktibismo sindikal ahulagoa zegoen gunetara eramanez. Eremu berri horietan 30eko hamarkadan langile eta enpresarien artean finkatu zen lan harremanetarako ereduak (New Deal) apurtzeko diseinu berri bat martxan ipini zen. Jauzi berri horren adibiderik nagusia eredu fordista izan zen.

¹² https://web.stanford.edu/class/e297c/poverty_prejudice/soc_sec/hgreat.htm, New Deal Akordioa, 2018/01/09 egunean begiratua.

Konpromiso fordianoak parekotasun bat egiten zuen ekoizpen handi gorakor eta kontsumo handi gorakorraren artean. Mundu osoan gerra amaitu ondoren harrera egin zitzaion *american way of life*¹³ deituz, eredu produktibista eta hedonista bat bezala, guztien artean kontsumitutako merkantzien hazkundearen bitartez lortutako zorientasunean oinarrituz. Beste era batera esanda, paradigma fordianoak hiru hanketan oinarritzen den aurrerapen kontzeptua plazaratzen du: aurrerapen teknikoa, aurrerapen soziala eta estatuaren aurrerapena. Aurrerapenaren eta zorientasunaren bilaketaren kontzeptu hori helburu bezala zegoen kontsideratua indar politikoen arku zabalean, ideologia kontserbadoretik komunistara, kristau-demokrazia eta sozialistak barne. (Lipietz, 1997).

Eredu berria, produktibitatea, lehiakortasuna eta merkatua terminoak sakratutzat jotzen dituen teoria ekonomiko berri batekin apainduta, hasi ziren antolaketa eta ekoizpen teknika berriak martxan ipintzen. Hala nola aipagarriak dira lan merkatuen erosioa eta segmentazioa, negoziazio kolektibotik kanpo edo bere barnean onartutako soldata-politika berriak, lanaren egonkortasuna neurri horien onarpenaren truke eta eliteko langileen parte-hartze handiagoa enpresaren zuzendaritzan ordainsariak parte-hartze horren tamainarekin lotuta. Azken finean, “pilaketa malguaren metodoa” bezala ezagutzen dena. Eraitzaurreko langile eta enpresarien arteko harreman-ereduaren tresna instituzional eta legalaren apurketa izan da.

Galera hori sindikatuen akats estrategikoekin lagundua izan zen. Hutsegite horiek etorri ziren sindikatuen politika industria-sektorean oinarritzen jarraitu zuelako, zerbitzu-sektorea eta sindikatuetan presentzia txikia zuten emakumeak eta etorkinak bigarren maila batean utziz. Errakuntza horiei gehitu beharko genioke 80ko hamarkadan, Ronald Reaganen garaian, aplikatu ziren sindikatuen aurkako politikak. Horien bitartez eskarmentu handiena zuten sindikatu-liderrak kaleratuak izan ziren, “bake soziala” apurtzen zuten ekoizpen zentroei itxiera mehatxuak bidaltzea ohikoa zen, soldata beherapenak alde bateko erabakiak bihurtu ziren eta enpresek adituak kontratatzen zituzten sindikatuen aurkako neurriak hartzeko (Bronfrenbrenner, 2000).

¹³ https://historiaybiografias.com/el_mundo07b/, American way of life, 2018/01/09 egunean begiratua.

Gizarte-babesari eta errentaren banaketari dagokionez sindikatuen aurkako joera erasokor horrek bere fruituak eman zituen enpresen negoziazio-ahalmena asko handitu zelako. Horren ondorioz, 80ko hamarkadatik aurrera lehengoratzeko prozesu bat ematen da, aurreko urteetan lortutako hobekuntzak besteak beste soldatetan, laguntzetan, pentsioetan eta antzintasunean nabarmenki atzera eginez. Joera horiek ondorio negatibo zuzenak eduki zituzten ondasunaren banaketan, bereziki errenta asko kontzentratu egin zelako eta desberdintasunak geografikoki eta gizarte-talde desberdinen artean asko handitu zirelako.

Azkenik, multinazionalen sendotze prozesua emango da. Aberastasunaren metatze horrek enpresak indartu egin ditu behar zuten kapital-metaketa lortuz multinazional indartsuetan bihurtzeko. Enpresa horien boterea kasu askotan estatuen ginetik ipini da. Ehunka multinazional indartsuek ahalmena dute XXI. mendeko munduko erabaki politikoak eta ekonomikoak hartzeko edo baldintzatzeko. Itzalean dagoen botere hori ikusezina da hiritarren gehingoarentzat baina politikoengatik onartua izan da. Enpresari bakar batzuk munduko politikak zuzentzen dituztenean ondorio lazarriak eduki dezake giza eskubideen alorrean eta ingurumenean. Planetak eta bertako biztanle txiroenak dar-dar egiten ari dira datu ekonomikoen boterearen azpian.

1.4 1973ko krisitik aurrera Europako kapitalak aurea hartzen du klase arteko borroka-fase berrian

Aurreko orrietan aipatu dugu 1973 urtearen inguruan krisi ekonomiko luze bat piztu zela energia kostuak asko igoz eta 1945-1972 denboraldian garapen teknologikoari esker emandako hedapen ekonomikoa geldituz. Enpresariak saiatu ziren euren kostuak soldata-kostu zuzenetara eta zeharkakoetara transferitzen (gizarte-kotizazioak), itun sozialaren oinarriari eraso eginez.

Esan dezakegu krisiaren faktore nagusietako bat iraultza elektronikoa izan zela eta bere ahalmen izugarria produktibitatea handitzeko, bereziki ELGAko (Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundea)¹⁴ herrialdeetan eta bere eragin eremuetan. Ongizate-estatuaren fase hedakorrean martxan ipinitako errezeta ekonomikoek baliorik gabe gelditu

¹⁴ <http://www.oecd.org/about/>, ELGA erakundearen nondik norakoak, 2018/01/10 egunean begiratua.

ziren ez zutelako aurreko garaietako kapitalaren etekin-tasa errekuaratzeko ahalmenik. Gainera, inflazioaren hazkundera sistema ahultzen zuen. Krisi horretatik ateratzeko kapitalak beste politika ekonomiko bat behar zuen. Testuinguru horretan sortzen da neoliberalismoa eta hedatzen da herrialde gehienetara. Ideologia neoliberal horren klabe nagusia merkatuaren goraipamena da ekonomiaren mekanismo erregulatzailer bakar eta ordezka ezinezkoa bezala. Beti ere bere helburua kapitalaren errentagarritasun tasa berreskuratzea izanik.

Atal honetako ildo jarraitzeko Fernández Durán-en (1996) hausnarketa erabiliko da. Berarentzat garai horretan ekoizpen-egitura kapitalistaren berrantolaketa sakona hasten da planeta mailan eta "Lanaren Nazioarteko Banaketa Berria" bezala ezagutuko da. Alde batetik, jarduera industrialeko sektore garrantzitsuak periferiako herrialdeetara lekualdatuko dira ekoizpen-kostuak merkatzeko eta bestetik erdigunean geldituko den jarduera industrialak eduki teknologiko handiagoko ekoizpenera bideratuko da. Bi joera horiek eskulanaren soberakin handiak ekarriko dituzte egiturazko langabezia eraginez.

Aldi berean, erdiguneko herrialdeetako politika makroekonomikoetan aldaketa bat emango da, ideologia neoliberalak aurrerapausoak ematen ari delako, atzeraldiari aurre egiteko eta ahal den moduan hazkundera bultzatzeko. Neoliberalismoa indarrez sartuko da 80ko hamarkadan Atlantikoko bi aldeetan Reagan eta Thatcherren eskutik. Politika horiek ongizate-estatuaren mekanismo banatzaileak pixkanaka suntsituko dituzte, gastu soziala murriztuz, estatuaren papera arlo produktiboan sakonki gutxituz eta zerga-politika atzerakoia ezarriz.

Horregatik, 80ko hamarkadaren hasieran Reagan presidentearen ekonomialari-aholkulari talde batek hausnartu zuen politika ekonomiko gehiegi zuzenduta zegoela eskari agregatua indartzearen alde (kontsumoa gehi inbertsioa). Hau da, zerikusi handiegia zuela ongizate-estatuaren politika keynesiarrarekin. Ekonomialari horientzat, komenigarria zen oinarri liberaletara bueltatzea, errentagarritasun ekonomiko handitzeko eta estatuaren esku-hartzea gutxitzeko hiru oinarritzko ideien bitartez: i) keynesiar ideiak alboratu; ii) indarra eskaintza agregatuan jarri, enpresariei diru-laguntzak emanez, eta iii) zerga gutxitze handiak defendatu. Hiru ideia horiek elkarloturik osatzen dute Teoria Ekonomiko berria. Hau da,

ekonomia suspertzea eskaintzaren aldetik, keynesiar eskolaren eskariaren aldeko suspertzearekin alderatuz.

Ronald Reaganen Administrazioak, alde batetik, nahiz eta zergak gutxituz eskariaren igoera handia ekarri zuen, bestetik, defizit publiko izugarria sortu eta inflazioak gora egin zuen beti ere gastu publiko berdinarekin jarraitu zuelako. Modu bakarra zegoen oreka berreskuratzeko: moneta politika murriztailea ezartzea interes tipoak eta langabezia tasa asko igoz. Hain zuzen ere, fase horretan akzioan sartzen dira Milton Friedman-en (2002) postulatuak. Bere iritziz, alferrikako lana da ekonomiaren joko-arauak behartzea. Friedmanek berak garatzen du langabezia-tasa naturalaren ideia, hau da, langabezia tasa adierazgarri bat egotea merkatu-prozesuen ondorio normal bat dela eta gainera egoera onargarria izan daitekeela. Inflazioaren aurkako borroka bihurtzen da doktrina neoliberalaren helburu nagusia, metatutako kapitalak erosteko ahalmena mantendu dezan.

Aldi berean, Europar Instituzioen indartze sistematikoa burutuko da, euren egitura indartuz eta bitartean estatu-nazioen pisua galduz. Europar mailako erakunde horiek estatu-nazioen gaintik gelditzen den plangintza bultzatuko dute. Ez hori bakarrik, 80ko hamarkadaren hasieran, europar eraikuntzaren alde beti egondako kapitalaren indarrak antolatu egiten dira aurrez aurre europar proiektuari bultzada berria emateko. Era horretan, 1983an Europako Industrialarien Mahai Borobila (EIMB)¹⁵ osatuko da eta bertan daude ordezkatuak Europako transnazional nagusienak (Shell, Fiat, ICI, Nestlé, Daimler Benz...). Sektore horiek aginduak ematen dituzte Europako egitura Komunitarioak behar dituen erreformak eta urratsak gauzatu ditzan.

Hau horrela izanik, EIMBk eskatutakoaren arabera 1986an Instituzio Komunitarioen sendotzea sakondu egiten da Europako Akta Bakarraren (EAB)¹⁶ onarpenarekin. EABk Europako barne-merkatua eratzeko beharra planteatzen du. Merkatu Bakar horren helburu nagusia merkantzien zirkulazio aserako barne oztopo guztiak kentzea zen eta, aldi berean, zerbitzu, kapital eta pertsonen mugarik gabeko zirkulazioa zabaltzea. Beranduago, 1991an, EIMBk zehaztutako irizpideak berriz ere jarraituz Maastrichten finkatzen da Ekonomia eta

¹⁵ <https://www.ert.eu/>, Europako Industrialarien Mahai Borobila (EIMB), 2018/01/10 egunean begiratua.

¹⁶ <http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=LEGISSUM%3Axy0027>, Europako Akta Bakarra, 2018/01/10 egunean begiratua.

Diru Batasuna (EDB)¹⁷ lortzeko bidea. Horretarako Bruselari transferitzen zaio estatuen politika ekonomikoari buruzko kontrol ahalmen zabala. Helburua da moneta bakarra lortzeko bete behar diren konbergentzia baldintzak bermatzea.

Dinamika berri horren balantze soziala argia da. Ekoizpenaren hazkunde bat ematen da halabeharrez enplegua sortzen ez duena. Ez hori bakarrik, hazkundeak ez badu tasa zehatz bat gainditzen enplegu garbia sortu ordez desegin egiten du. Sartzen ari gara Nazio Batuen hitzetan “enplegurik gabeko hazkunde” fase batean. Enplegua sortu daiteke espazio aberats eta boteretsuetan baino askoz gehiago galduko da gune pobre, periferiko eta ahulenetan. Merkatu Bakarra librekanbioaren gune bat bihurtzen da politika sozial bateraturik gabe (Lipietz, 1997). Gainera, Merkatu Bakarrak bultzatzen duen inbertsioak eta hazkundeak orokorrean mugikortasun motorizatua handituko du (garraio-azpiegitura berriak eskatuz) eta ekoizpen-eredu geroz eta xahutzaileagoa finkatuko du, geldiezinezko ingurumen-inpaktuaren hazkundera sortuz.

Keynesiar eredua alde batera utzi ondoren neoliberalismoari ateak irekitzen zaizkio, krisiaren jatorria merkatu-indarren joko askeari ipintzen zaizkion oztopoetan kokatuz. Ongizate-estatuari hazkundera oztopatzen duen balizko zurruntasuna leporatzen zaio. Gainera, ideologo neoliberalentzat krisitik ateratzeko ezinbestekoa zen errekurtsio produktiboen (eskulana eta lehengaiak) erabilera tasa (esplotazioa) handitzea eta horrekin batera produktibitatea igotzea. Teknologi berrien hutsunea egonda, hori soldata errealak, gizarte-kotizazioak eta enpresa-etekinen gaineko edozein zerga jaitsita lortzen zen. Beste era batera esanda, egonkortasuna totala izan dadin, errezeta-liburu neoliberalak aholkatzen dute ekoizpen-kostuak kontrolatzea: eskulana eta lehengaiak. Horren ondorioz, lehentasunezko helburuak lan merkatuaren malgutasuna igotzea (kaleratzea ahalik eta errazena izatea), soldaten neurritasuna mantentzea eta errekurtsioak ahalik eta merkeenak bilatzea dira. Hori da aldarrikatzen duten bidea lehiakorragoak izateko. Egunetik egunera internazionalagoa eta globalagoa den ekonomia batean industrializatutako herrialde berriei

¹⁷ https://ec.europa.eu/info/business-economy-euro/economic-and-fiscal-policy-coordination/economic-and-monetary-union/what-economic-and-monetary-union-emu_en, Ekonomia eta Diru Batasuna (EDB), 2018/01/10 egunean begiratua.

aurre egin behar zaie, bereziki lan kostuak eta babes sozial txikiagoa edukirik konparaziozko abantaila bat duten Asiako herrialdeei.

Argi dago errentagarritasun-tasaren igoeraren inguruan artikulatzen direla politika neoliberalaren pieza desberdinak, besteak beste, soldatei eraso, prestazio eta zerbitzu sozialen atzerakada, kontra-erreforma fiskala, lan merkatuaren desarauketa, pribatizazioak eta monetarismoan oinarritutako politika ekonomikoak. Eredu horrek gorputz teoriko globala hartu zuen 1989ko Washingtongo Akordioarekin¹⁸ eta bide batez Europar Batasuneko herrialde-partaideei inposatzen zaien Maastrichteko Tratatuaren bitartez. Hori dena gertatzen da SESBen erorketak sektore askorentzat ekarri zuen armagabetze ideologikoaren ondoren. Dena dela, europar diskurtsoaren erretorika pixkanaka elkartasuna, berdintasuna, justizia, lurralde-oreka eta ingurumenaren errespetua bultzatuko duen garapenaren ideia nagusitik urruntzen doa. Bultzatzen ari den garapenak baldintzak sortu nahi ditu europar kapital transnazionalen agindupean eskala handiko ekoizpenak eta banaketak, inongo trabarik gabe, zabaltzeko.

Guzti horren ondorioz, 80ko hamarkadan kapitalismoaren zabalkunde sakona ematen da. Zurbano-ren (1998) arabera Iparreko gobernu gehienek 80ko hamarkadatik aurrera politika neoliberalak aplikatzen hasi ziren, ekonomia globalean lehiakortasuna eta malgutasuna kapitalak erakartzeko erabiliz. Hau da, negozio-esparruak handitzeko bizitzako atal guztiak merkantzia soila bihurtzen joaten dira. Denboraldi hau ezaugarritzen da berrantolaketa industrialak, sektore publikoaren pribatizazioak, egiturazko langabezia (milioika langabetu Europan), soldaten parte hartzearen jaitsiera iraunkorra nazio-errentan eta pentsioen lehenbiziko erreforma ematen direlako.

Modu horretan, gaur egun, dena salerosi daiteke, orain arte merkatuaren logikatik kanpo zeuden gauzak barne: pentsioak, hartzaindegiak, osasuna, hezkuntza, komunikazioak, energia, garraio publikoa, aisia, kultura, ea. Testuinguru horretan kokatu beharko genuke Gizarte Segurantzaren, gizarte-zerbitzuen eta zerbitzu publikoen pribatizazioa, sektore publikoaren ahultzea eta baita ere kontsumoa biderkatzeko helburua duten behar berriak

¹⁸ <http://economipedia.com/historia/consenso-de-washington.html>, Washingtongo Akordioa, 2018/01/10 egunean begiratua.

etengabe eratzea. Azpimarratzekotan aipatzekoa da, besteak beste, elkartasuna eta afektibitatea bezalako gizon-emakumeen baloreak merkantzia bihurtzen direla. Azken finean, denboraldi horretan ongizate-estatuaren aurkako ofentsiba irmoa martxan ipini zen arrazoi ideologikoak teknikoan gaintik jarritz eta bere fruitu goiztiarra gaur egungo krisi ekonomikoa izan da.

1.5 Maastrichteko Tratatuak: Europar ongizate-estatuaren desegite planifikatuaren hasiera

Fernandez Durán-ekin (1996) jarraituz azken 50 urtetan mundializazio ekonomikoko prozesuak areagotu egin dira inoiz historian zehar eman ez diren bezala. Aldi berean planetako erregio desberdinetan merkatu zabaltze eta sendotze prozesuak sakondu egin dira estatu-nazioek ipinitako mugak gaindituz, ekoizpena eta banaketa eskala handian aurrera egiteko enpresa transnazional handien bitartez.

Ekialdeko blokearen desagerpenarekin globalizazioa kontzeptu ia mistiko bat bihurtu da. Postmodernitatearen sinonimo bezala erabiltzen da, ekonomiaren mundializazioaren adierazle, “herri globala” terminoa mugarik gabeko mundu baten baliokide bezala erabiliz, mundua merkatu bakar bat kontsideratuz non estandarizazioak eta eskala-ekonomiek bereziki multinazionalen baimentzen die sekulako negozioak egitera.

Esan dezakegu, globalizazio ekonomikoa orain dela 500 urte europar potentziek hasi zuten kolonizazio prozesuaren jarraipen bat besterik ez dela. Hori bai, gaur egun modu bereziki berritzaileak erabiliz. Denbora luze horretan esplotazio harremanak ezarri ziren Erdigune (hasiera batean Europako potentzia kolonial nagusienak eta gero denboraren poderioan Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Antolakundea –ELGA- osatzen duten herrialdeak orokorrean) eta Periferiaren artean (Hegoa edo Hirugarren Mundua). Horrela, gaur egun ikusten dugu nola Erdigune beraren barruan zabaltzen ari direla bizitasun bereziarekin periferia desberdinak (baztertuak, zokoratuak, ...).

Neoliberalismoaren aurrerapenak eta ekonomiaren nazioartekotzeak kapitalismoaren bilakaeraren estuki lotuta dauden bi ezaugarri dira. Nazioarteko erakundeek (Nazioarteko

Moneta Funtsa¹⁹, Munduko Bankua²⁰, Munduko Merkataritza Erakundea²¹, Europar Batasuna²², ...) egindako diseinu berria onartzen duten meneko gobernuek desarauketa totala martxan ipini eta gero sektore estrategikoetako enpresa handien bategitea bultzatu dute (kimikan, telekomunikazioetan, aeronautikan, informatikan, finantza-arloan, energian, ea.). Etengabeko fusioaren prozesuak botere-talde oligarkikoak sortzen ditu, enplegua suntsituz, prezioen monopolioak eratuz eta inposizio sozialak burutuz. Estrategia horren ondorioz, Enpresa Txiki eta Ertainek (ETE) bigarren mailako paper bat betetzera behartzen dituzte, hau da, multinazionalen azpikontratatuena konpartsarena.

Gaur egun, mundu-mailako aroan, kolonizazio mota berri bat zabaltzen ari da. Ez dago estatuek zuzenduta. Enpresa multinazional handiek gidatzen dute. Gobernuek ez daukate kontrolik enpresa multinazionalen gainean. Lege batek traba egiten badie alde egitearekin mehatxatzen dute eta berehala joan daitezke. Planeta libreki zeharkatu dezakete eskulan merkeena, ingurumen babes txikiena edo zerga-politika arinenaren bila. Maastrichten zehaztu den Europa puzzle horren beste pieza bat da eta horrek arriskuan ipintzen ditu langile klaseak momentu historiko zehatz batean, bere gatazka potentzialarekin, erdietsi zituen lorpenak.

Horregatik, 80ko hamarkadaren erditik aurrera mito baten inposaketaren aurrean gaude: Europa eztabaida ezinezko etorkizuneko proiektu bat bihurtu da. Mito horrek, beste guztiak bezala, izaera ia erlijiosoa edo dogmatikoa hartzen joan da eta lortu du eraikitzea bere ustezko onuren inguruko gutxieneko azterketa, eztabaida edo arrazoibidea eman gabe (Martin Seco, 1992). Mito hori gizarteko sektore menderatzaileak eraiki dute, "eraikuntza europarraren" onuradun nagusiak direlako. Gainera, mitoaren lanketan eta zabalkundean teknoburokrazia publikoa eta pribatua osatzen duten sektore profesional zabalen laguntza jaso dute, horiek ere eraikuntza europarraren bigarren mailako onuradunak bihurtuko direlako. Hain zuzen ere, osagarri teknoburokratiko horrek eratu du neurri handi batean europar mitoaren oinarri ideologikoa. Ezin dugu ahaztu behar ere europar mitologiak mass

¹⁹ <http://www.imf.org/external/spanish/>, Nazioarteko Moneta Funtsa, 2018/01/10 egunean begiratu.

²⁰ <http://www.bancomundial.org/>, Munduko Bankua, 2018/01/10 egunean begiratu.

²¹ <https://www.wto.org/indexsp.htm>, Munduko Merkataritza Erakundea, 2018/01/10 egunean begiratu.

²² https://europa.eu/european-union/index_es, Europar Batasuna, 2018/01/10 egunean begiratu.

medien sedukzioarekin, manipulazioarekin eta ezkutatze-lanarekin kontaktu duela. Argi dago ere, europar mitoa garatzeko ia ate guztiak zabalik eduki dituztela antolatutako ezkerreko indar politiko eta sindikal gehienek, indar gehiago edo gutxiagorekin, bat egin dutelako proiektu horrekin.

Europeismoaren erretorika merkatuen hedapenaren bidez hazkunde ekonomikoaren bultzadaren beharraren diskurtsora mugatzen ari da. Gainera esaten zaigu bide horrek europar gizarteak duen langabezia arazo larria konponduko duela eta aldi berean gutxieneko aberastasuna sortuko dela hazkunde ekonomiko berak eragiten dituen ingurumen-arazoak konpontzeko. Ez hori bakarrik, europar proiektua saiatzen da saltzen Hego eta Ekialdeko periferiako herrientzat ere onurak ekarriko dituela. Hain zuzen ere proiektu europarrean sakontzeak garapen bidean dauden herriekiko merkataritza sustatuko duela eta bide batez lurralde horietako biztanleak makaltasun egoeratik aterako direla. Tamalez, zantzu on horiek berriketa hutsean gelditzen dira, Europar Batasunaren helburu nagusia beti izan delako bere interes propioak bultzatzea. Gainera, europar proiektuaren garapenak Erdigune eta Periferiaren arteko amildegia handitu egingo du, bi poloen arteko menderatze-dependentsia erlazioa areagotuz eta planeta mailako desoreka ekologikoak larriagotuz.

Europazaletasuna parekatu nahi da, globalizazio ekonomikoaren fase gogor berezian, irizpide neoliberalarekin eta kapitalen interesekin eraikitzen ari den europar integrazio horrekin. Modu horretan, gaur egungo eredu ekonomikoaren oinarri nagusiak eztabaidaezineko egiak bezala onartzea proposatzen digute, ekoizpen-ehuna, gizarte-egitura eta ingurumenaren gaineko eragin positiboak jakinda bezala emanda.

Ez da kasualitatea Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuna 1991ko abuztuan desagertu zela eta urte bereko abenduan Europar Batasuneko estatu-buruzagiak Maastrichten bildu zirela euren sinadurarekin kapital multinazional eta finantzarioaren egoitzetatik “Europa berrirako” bultzatu den eredia berresteko. Maastrichteko Tratatu merkatu bakarreko elkartera iristeko baldintza ekonomiko zehatzekin oinarritzen da. Horien artean, zor publikoa gutxitzea, defizit publikoa %3ra mugatzea eta inflazioaren eta interes-tasen kontrola lortzea. Baldintza horiek, zerga sistemen erreformarekin batera (gehikortasuna gutxituz eta enpresei eta errenta altuei zergak gutxituz) sektore publikoa ahultzen dute.

Maastrichteko konbergentzia-irizpide horiek estatu indartsuenek inposatu zituzten, garai hartan, euren ekonomietarako egokiak zirelako. Bestalde, esan daiteke moneta bakarra Merkatu Bakarraren barruan funtzionatzen zuten enpresa handien eskakizun bat izan zela transakzio monetarioen kostuak gutxitzeko eta dibisa desberdinen arteko fluktuazioak ekiditeko. Moneta bakarra Europako finantza-kapitalaren helburua ere bazen aukera ematen ziolako dolarrarekin eta yenarekin baldintza berdinetan lehiatzeko eta, bide batez, munduko erreserba-dibisa bezala kontsideratua izateko.

Zergatik agertzen da Maastrichteko Tratatu gehiegizko defizitarekin arduratuta? eta, bide batez, zergatik bihurtzen da kezka hori dogma ekonomiko batean? Maastrichteko Tratatu bultzatu zutenek defizit publikoa murriztu nahi zuten gastu soziala murriztuz eta ez politika fiskal aurrerakoi bat ezarriz. Aldi berean, zor publikoaren zenbateko globala gutxitzeko pribatizazioa bultzatu zuten enpresa publiko errentagarrienak salduz. Gastu publikoaren arrazionaltasuna, efikazia eta efizientzia termino ekonomizista hutsetan planteatzen zen eta ez zerbitzu publiko bezala gizarte-ondasunen ekoizle moduan merkatuaren logikatik at. Gizartearentzat, hezkuntzan edo osasungintzan egiten diren gastuak ezin dira inbertsio pribatuaren mozkinaren logikaren barruan kokatu.

Maastrichteko Tratatuarekin Europako Batzordeak bere eskuduntza ekonomikoak asko indartuko ditu eta estatu-kideen konbergentzia planak berrikusiko ditu konbergentzia irizpideak betearazteko eta moneta bakarrera iristeko. Modu horretan, estatu-kideek galdu egingo dute politika ekonomikoa zuzentzeko gaitasuna. Joera hori areagotu egingo da banku zentralak botere politikotik independentzia lortzen duelako. Gainera, Europar Batasuna mailan mekanismo banatzailek ez dagoenez herrialde desberdinen arteko diferentziak areagotu egingo dira. Lehiak herrialde atzeratuak oraindik atzerago utziko ditu errenta, zerga eta gastu publiko gutxiagorekin (Montes, 1993).

Bestalde, gizarte-prestazioak oso desberdinak ziren herrialde batetik bestera eta Maastrichteko Tratatuak ez zuen aurreikusi Europako gizarte-esparru baten antzeko zerbitu. Ez hori bakarrik, euren arteko diferentzia sozialak nabarmenagoak egin ziren. Hori baino gehiago, 1989an onartu zen Europako Gutun Soziala iruzur handi bat izan zen ez zuelako

ezer zehazten eta ez zelako ezertara konprometitzen. Hain zuzen ere, “ekonomia-konbergentziaren” paradoxa nagusia “dibergentzia soziala” sortzen zuela zen.

Maastrichteko Tratatuaren atzean ez zeuden bakarrik politika ekonomikoko konpromiso horiek. Baita ere agertzen zen seguritatea eta europar defentsa bateratuaren espazioaren hedapena. Maastrichten diseinatutako politikek Europar Batasuneko estatu guztien aparatu ideologikoa eta errepresiboa behar zuten. Ez hori bakarrik, Joera horiek egonkortzeko mass mediak jokatu zezaketen paperari garrantzi handia eman zitzaion, bereziki prozesu horien halabeharrezko eta atzeraezinezko izaera azpimarratzeko. Guzti horrengatik baieztatu dezakegu Maastrichteko Tratata Mendebaldeko Europaren integrazioaren eta NATOren errefortzuaren egitura adierazgarrietako dela.

Ikusita estatuek ibilbide desberdinak eduki dituztela, ongizate-estatuaren desegituraketa sakonagoa izan da zenbait estatuetan, Erresuma Batuko neoliberalismoa (Thatcherismoa)²³ eta tradizio demokratiko eskaseko Europako hegoaldeko herrialdeak (Estatu Espainola, Grezia eta Portugal) nabarmenduz.

1.6 Europar ongizate-estatuaren desegitearen bigarren fasea: Lisboako estrategia²⁴

Maastrichteko Tratatuaren helburuak beteta eta moneta bakarra onartu berria Europar Batasuneko estatuetakoko agintariak Lisboan bildu ziren 2000. urteko martxoan hamarkada berriaren (2000-2010) estrategia ekonomikoa diseinatzeko. Maastrichteko Tratatuaren ildoetan sakondu nahi da baina gozatutako mezuzi batekin. Hala ere, esanguratsua da onartutako dokumentuetan ordezkatu egiten dela “ongizate-estatuaren” terminoa “ongizate-gizartearen” deituragatik. Aldaketa horrekin gizartearen gainean uzten da, besteak beste, hezkuntzaren, osasungintzaren eta ekonomiaren seguritatea. Estatuaren esku-hartzea, berriz, muturreko kasuetarako bakarrik utziko da gutxieneko estaldura publikoarekin (privatizazioak eta asistentzialismoa).

²³ <http://www.elmundo.es/elmundo/2013/04/08/economia/1365430449.html>, Thatcherismoa, 2018/01/10 egunean begiratu.

²⁴ http://www.europarl.europa.eu/summits/lis1_es.htm, Lisboako Estrategia, 2018/01/10 egunean begiratu.

Lisboako Estrategiaren oinarriak eta ondorengo gailurretan hartutako erabakiak ezagutzea giltza da, horien artean, Europar Tratatu Konstituzionalaren (ETK) onarpena. 1990eko hamarkadan, AEBk komertzializatu egin zituen ordu arte espioitzan eta defentsan erabili zituen teknologia berrien sistema guztiak. Alde batetik, ekoizpen produktiboan robotikaren aplikazioa ekarri zuen produktibitatearen igoera handiak lortuz baina, aldi berean, langabezia eta lan merkatuaren ezegonkortasuna sortuz. Bestetik, berriz, sektore teknologiko beraren kapitalizazioarekin topo egiten dugu automatizaziotik robot adimentsura pasatuz.

Europak esparru horretan atzera egin zuen ez bakarrik ikerketa eta garapenaren (I+G) faktoreengatik baita ere gerrako lobbyek presentzia politiko txikiagoa zutelako. Europar Batzordeak berak, Lisboako Estrategia azaltzerako garaian, Europa bi poloen artean dagoela baieztatzen du: AEB eta Asia (bereziki Txina). Txinaren garapenari dagokionez (India ere bere atzetik doa) esan dezakegu eredu propio bat eraikitzen ari dela, NDF eta MBren inposaketa eta diseinu estandarizatuetatik at, garapen endogenoago bat bilatuz eta nazioarteko finantza sistematik zertxobait urrunduz.

Erronka bikoitz horren aurrean eta 90eko hamarkadako politika publikoekin indartuta (Maastrichteko Tratua) europar kapitalak gero Lisboan bildutako Europar Batasuneko estatuburuek onartu zuten estrategia estatubatuar-ereduan inspirazioa hartuta. Amerikako Estatu Batuetan informazio-teknologiaren (robot adimentsua garatzeko ezinbestekoa) 300 enpresetatik %74a bertan kokatzen da eta Lisboan garapen teknologiko horren alde egin zen ikerketako beste esparru batzuk alboratuz (ingurumena, energia iturri berriak, planetako biztanle guztiei bizitza-kalitate duina eskaini, ea). Hau da, Lisboan bio-genetika eta buruko prozesuen azterketen aldeko apustua egin zen batik bat kontrol sozialerako tresnak garatzeko eta arma berriak bultzatzeko (arma biologikoak, arma adimendunak, ea.). 2000. urteko martxoko Europako Kontseiluak helburu estrategiko garrantzitsu bat hartu zuen: 2010. urtea amaitu aurretik Europar Batasuna ezagueran oinarritutako munduko ekonomia lehiakorrena eta dinamikoena bihurtu behar zela.

Era horretara sistema publikoa berrantolatu egin nahi zen europar lobby militaristak eskatzen zuenari men eginez: baliabide publikoak lortu, barne eskaria garatu, Ikerketa eta

Garapenerako (I+G) sareen azpiegiturak diru publikoarekin eraiki eta kontrolak eta zerga-sistema liberalizatu. Baliabide publikoak eta gobernuen babes estrategikoa komunikaziorako teknologiak deituriko sektore berriaren eskuetan gelditzen dira, ekonomia tradizionalako sektoreetatik transferituz eta bere atal zibila sektore publikotik baztertuta geldituz.

Jadanik Amerikako Estatu Batuetan garatutako diseinu militarista horrek deskonexio sozial handiagoa eskatzen zuen. Horregatik ondoren etorriko diren Amsterdam²⁵ eta Nizako Tratatuetan²⁶ (2001) garrantzi handia emango zaio “kohesio sozialari” kontrako bidetik doan apustua ezkutatzeko asmoz. Hala, Europako biztanleriaren zahartze prozesua hondamendi bat bezala aurkeztuz (ez da ikusten etorkinei atek irekitzea) Europar Batasuneko estatu-kideei eskatzen zaie langileen bizitza aktiboa luzatzea erretiro-adina atzeratuz eta pentsioen pribatizaziorako neurriak azkartuz. Era berean, aholkatzen da lan merkatuaren malgutasuna indarrean jartzea eta sektore pribatuari espazio handiagoa ematea hezkuntzan eta osasungintzan. Azken finean, sektore publikoari eskatzen zaio ekonomian duen pisua gutxitzea (zergak gutxituz eta gastu soziala murriztuz) eta eskubide laboralak eta sozialak deuseztatzea metatzen ari den kapitalak eremu handiagoa eta egokiagoa eduki dezan ekonomian aritzeko.

Tratatu horien ekarpenekin, Lisboako Estrategia bideratu zen 2010eko Europar Batasuna “Jakindurian oinarritutako munduko ekonomia lehiakorrena eta dinamikoena, enplegu gehiago eta hoberenekin eta kohesio sozial handienarekin” lortzeko. Dena dela, ingurumen arazoan aurrean gizarrean ematen ari zen kontzientziazioa handitzen ari zelako hirugarren ingurumen-zutabe batekin osatzea erabaki zen. Hain zuzen ere, 2001eko Goteborgeko Europako Kontseiluan²⁷ Garapen Iraunkorreko Estrategia onartu ondoren behin betiko adierazpena horrela gelditu zen: “Jakindurian oinarritutako munduko ekonomia lehiakorrena

²⁵ <http://www.europarl.europa.eu/topics/treaty/pdf/amst-es.pdf>, Amsterdameko Tratatua, 2018/01/10 egunean begiratua.

²⁶ http://www.europarl.europa.eu/ftu/pdf/es/FTU_1.1.4.pdf, Nizako Tratatua, 2018/01/10 egunean begiratua.

²⁷ europa.eu/rapid/press-release_DOC-01-8_es.pdf, Goteborgeko Europako Kontseilua, 2018/01/10 egunean begiratua.

eta dinamikoena, ekonomia iraunkorki hazteko ahalmena duena, enplegu gehiago eta hoberekin eta kohesio sozial handienarekin”.

Bide horretatik esan dezakegu “ingurumen gaia” bete betean sartu dela merkatuan. Ez bakarrik diskurtsoaren estetikaren elementu bat bezala. Baita ere neurri ekonomiko antisozialak ezkutatzeko. Eta larriagoa dena, etekin iturri eta merkataritza-transakzio bihurtzeko. Horrela, negutegi efektuko gasak mugatzerakoan herrialdeka kuotak ezarriz kutsadura-maila txikiena duten herrialde eta enpresei utzi zaie “kutsatzeko eskubideak” beste herrialde batzuei saltzen eta horren ondorioz azken horiek gehiago kutsatu dezakete. Hitzetatik haratago begiratu behar da eta horrela egiaztatuko da nola eskubide batzuen aitortpenaren atzean eta zenbait kohesio sozialen helburuen ondoan benetan bultzatzen ari dena neoliberalismo basatia dela.

Lisboako Planaren bidearen amaieran langabezia, pobrezia, enpresa-lekualdatzeak eta ingurumenaren narriadura ikusten da. 2000. urtetik aurrera aldagai horiek neurtzen dituzten adierazle ekonomikoak nabarmenki okertu egin dira. Adibide bezala pobrezia aipatuko dugu. Lisboako helbururik garrantzitsuenetakoa 2010erako pobrezia Europar Batasunetik errotik kentzea zen (2000. urtean pobrezia ez zen 50 milioira iristen). Dena dela, Europar Batasunak 2009an Stockholmen egin zuen bilkuran 79 milioi pobre zeudela onartu ondoren Europako Batzordean ez da hitz egiten pobrezia errotik kentzea baizik eta proposamen errealistago baten inguruan lan egitea 2020 urterako²⁸, kontuan hartuta krisi ekonomikoaren ondorioz klase sozial berri bat sortuko dela “langile pobreekin” osatuta. Termino hori Europako Batzordeak berak sortu zuen lana edukita miseriatik aldendu ezin duten hiritar horiei izendatzeko.

Aldi berean, langabezia, lan-malgutasuna eta azpikontratatzeko handitzen ari dira, pentsio-erreformen neurriak martxan dirau eta multinazional handiek soldatak jaisten dituzte lanaldia luzatzen duten bitartean. Horrekin batera, behin eta berriz azpimarratzen zaigunean babes publikoaren sistema eutsiezina dela bankari behar dituen errekurso guztiak ematen zaizkio eta politika horrekin zorpetze handiago bat bultzatzen da merkatu pribatuan behar

²⁸ https://ec.europa.eu/info/business-economy-euro/economic-and-fiscal-policy-coordination/eu-economic-governance-monitoring-prevention-correction/european-semester/framework/europe-2020-strategy_es, Europar Estrategia 2020, 2018/01/10 egunean begiratua.

indibidualak betetzeko. Politika hori ez da batere solidarioa baztertuekin. Gainera behin eta berriz errepikatzen da pobrezia gizarte horrek pertsona guztiei neurri berean eskaintzen dien onuraz probetxua atera nahi ez duten, ez dakiten edo ezin duten pertsonen arazo indibidual bat dela. Dударik gabe, pobrezia egitura-arazo bat da (ez indibiduala) eta era berean korapilatsua (ez faktore batek eraginda) aberastasuna gutxi batzuen eskuetan egotearen ondorioa.

Gure artean, besteak beste, lan-merkatuaren desegituraketak, gizarte-kontrolera eta menpekotasunera zuzendutako garapen teknologikoaren jabetzeak eta etxebizitza edukitzea bezalako eskubideen esplotazioak aberastasun-metaketa areagotu egiten dute. Klase ofentsiba horrekin batera Kapitalak errepresio-tresnak ezartzen ditu gero ulertzeko modu subjektiboa manipulatzeko propaganda elementuekin nahikoa ez duenean martxan ipintzeko. Hagako Tratatuak da azkena eta gaur egun garrantzitsuena.

1.7 Askatasun, segurtasun eta justizia espazioa: Hagako Programa²⁹

2004ko Hagako Programaren helburua errepresioa eta kontrol soziala handitzeko bitartekoak artikulatzea eta hobetzea da, herriek, erakunde politiko eta sindikalek edo gizarte mugimenduek “Europa berri” horren garapena ez oztopatzeko. Lehenbizi azpimarratuko dugu Hagako programak bere edukiari ematen dion izena, hots, “askatasun, segurtasun eta justizia espazioa” errepresioaren eta kontrolaren areagotzea definitzeko.

Gainera, Europar Batasunaren “segurtasunaren” auzia europar tratatu gehienetan jasota dago. Europar Batasunak urtetik urtera paper aktiboagoa jokatu du espazio polizial, aduanazain eta judizial bateratua osatzeko. Horretarako asilo, immigrazio eta kanpoko mugen inguruko politika koordinatua martxan ipini da. Koordinazio hori 2004ko urriaren 29an Roman sinatu zen Europar Konstituzio Tratatuaren bitartez sendotu egiten da. Aurretik sinatutako tratatuei jarraipena emanez (Maastricht, Amsterdam eta Niza) azken horrek ere esparru judizial, polizial eta barne kontrolean indarra jartzen du, “Europar Konstituzioa” bezala ezagutzen den erantzun ezinezko testu batean kokatuz.

²⁹ <http://www.acnur.org/t3/fileadmin/Documentos/BDL/2009/7286.pdf?view=1>, Hagako Programa, 2018/01/10 egunean begiratua.

1999an Tampereko Kontseilu Europarrean³⁰ egitasmo orokor bat onartu zen garapen hori emateko. Lisboako Estrategiak ere “segurtasunean” indarra jartzen zuen, hain zuzen ere, oinarrizko lorpen sozialetan (pentsioak, lan-erregulazioa, ea.) eragina zuen aldebakarreko diseinu ekonomikoa bultzatzen zuelako. Hala ere, 2001eko 11-S-tik aurrera (New Yorkeko Dorre Bikien aurkako atentatua) segurtasunean sakonduko da eta indar handiagoa emateko Europar Konstituzio Tratatuen forma emango zaio.

2004ean, Tampereko bilera baino bost urte geroago, eta Konstituzio Tratua sinatu ondoren, Europako Batzordeak erabaki zuen Europar Batasunaren barnean segurtasunaren arloan zeuden erronka berriei aurre egitea. Helburu horrekin Kontseilu Europarrak “Hagako programa” onartu zuen. Programa horrek Konstituzio Tratuan ezarritako asmoak finkatzen ditu. Hagako programaren helburua Europar Batasunaren gaitasun komunak hobetzea da, migrazio fluxuak erregulatzea, kanpo-mugak kontrolatzea, mugaz gaineko antolatutako krimenari aurre egitea, mehatxu terroristei erantzutea, Europolen eta Eurojustiziaren potentzialtasuna garatzea eta azkenik erabakien eta arlo zibil eta penaleko ziurtagiri judizialen elkarganako aitortzea. Epe motzeko elementu garrantzitsu bat terrorismoaren prebentzioa eta ezabapena da.

Azken finean, Hagako programak “askatasun, segurtasun eta justizia espazioari” dagokion atal guztiak hartuko ditu, bai barne eta kanpo-politikari begira. Zehazki, hiritarren oinarrizko eskubideak, asilo eskubidea eta immigrazioa, mugen gestioa, terrorismoa eta antolatutako krimenaren kontrako borroka, kooperazio judiziala eta poliziala, eskubide zibilen zenbait atal eta baita ere Europar Batasuneko drogaren aurkako estrategia (2005-2012) ukituko ditu. Hagako programa irakurrita burura datorkigu AEBetan askatasunen esparruan gertatutakoa “terrorismoaren kontrako” borrokaren barruan. Hain zuzen ere, bertatik kopiatu da Frantziak eta Alemaniak hainbeste kritikatu zuten “prebentziozko defentsa” kontzeptua eta bide batez “prebentziozko segurtasuna” bultzatu da.

³⁰ http://www.europarl.europa.eu/summits/tam_es.htm, Tampereko Europar Kontseilua, 2018/01/10 egunean begiratua.

1.8 Atzeraldi Handia³¹ bezala ezagutzen dena kapitalista-metaketa-aren prozesuaren bizkortzaile

Globalizazioaren aroan merkatu izarra finantza-merkatua izan da. Kapitalaren metaketa handiari finantza-globalizazioa batzen badiogu emaitza da kapital-mugimenduen fluxuek izugarritzko dimentsioa hartu dutela. Komunikazioen abiadura handiek finantza-transakzioak biderkatu egin zituzten. Hori dela eta, finantza-krisiaren aurretik kapital-mugimenduen fluxuek izugarritzko dimentsioa hartu zuten. Egunero dibisa merkatuetan 3 bilioi dolar baino gehiago aldatzen ziren eta horietatik % 8a baino gutxiago elikadura eta industria produktuak erosteko ziren. Gainerako guztia espekulatiboa zen eta 2007an eztanda egin zuen Atzeraldi Handia bezala ezagutu denaren parte zen. Finantza-ekonomia ekonomia errealekin lotuta egon beharren partez bere kaxa dabil, espekulazioa suspertuz eta gizarteko gune herrikoen bizitza mailetan triskantza handiak eraginez. Hain zuzen ere, finantza-espekulazioak bere etekinak ekoizpen-ekonomiatik ateratzen ditu, lortutako interesen bitartez, soldata-errentetatik lekualdatze bat emanez.

Gaur egungo krisi ekonomiko hori 2001ean hasten da garatzen, interneteko “teknologia-burbuilaren” eta “teknologia berrien” leherketaren ondoren, burtsako erorketa handiak emanez. Erantzun politikoa diruaren prezioa jaistea da sistemari moneta-masa handia injektatzeko asmoz. Modu horretan, AEBn, bi urtetan, diruaren prezioa %6,5etik % 1era jaitsi zen eta euroaren eremuan % 2ra erori zen, kapitalaren metaketarako bide berri bat irekiz “adreiluaren inbertsioaren” bitartez. Finantza-sektoretik negozio nitxo berri bat diseinatzen da. Sektore horretan ildo propioak eratzen dira lurzorua metatuz, eraikuntza-enpresa handietako kapitalean parte hartuz eta etxebizitza erosleei diru merkea eskainiz. Politika horrek higiezin merkatua dopatu egin zuen eta 10 urteren poderioan etxebizitzaren prezio erreala AEBetan bikoiztu, Estatu espainolean hirukoiztu eta Euskal Herrian lauukoiztu egin zuen. Balio handitze izugarri horrekin, bankuek maileguak eman zituzten etxebizitzaren balioaren gaintetik eta familiak zorpetu egin ziren euren ahalmen errealetik gora.

³¹ <http://www.argia.eus/argia-astekaria/2532/erantzuna-historia-ekonomikoari-galdetu>, Atzeraldi Handia, 2018/01/11 egunean begiratua.

Egoera horretan, 2007an Atzeraldi Handia agertzen da. Hori ulertzeko gogoratu behar da bankuek, Basileako Arauen arabera, erlazio zehatz bat mantendu behar dutela bere kapitala eta bere aktiboen artean. Kredituak oso altuak direnean iristen da momentu bat gutxieneko erlazio hori gainditu egiten dela eta horren ondorioz ezin dela kreditu gehiago eman kapital berekia handitu gabe. Arau hori gainditzeko bankuek hipoteka-kreditu horiek eurek sortutako inbertsio-bankuen eskuetan ipini zituzten, zer produktu erosten zuten ez zekiten mundu osoko aurreztaileei finantza-deribatuak bezala salduz. Hau da, azken finean inbertsio-fondo³², FIAMM, FIM, pentsio-fondoetako inbertitzaileak erosten ibili diren produktuak hipoteka horiek izan dira.

Bitxia bada ere, krisi hau bankuak oraindik etekinak lortzen ari diren egoera batean ematen da. Adibidez, Estatu Espainoleko finantza-erakundearen etekinak 2004-2008 urteen artean, nahiz eta finantza-sistemaren krisia 2007an lehertu zen, %79 handitu ziren. Epe horretan bankuen irabaziak Barne Produktu Gordinaren (BPG) urteko hazkundearen erdiaren gainetik jarri ziren. Kontuan hartzen badugu beste erdia eraikuntza sektoreko balioaren igoeratik zetorrela, berresten da “teknologia berrien krisiaren” ondorengo hazkunde ekonomikoa osoki oinarrituta zegoela espekulazio ekonomikoan.

Atzeraldi Handia ekonomia errealearen krisian oinarritzen da, kapitalismoaren deskonposizioa da, lehenbizi AEB barruan ematen da bera izan zelako neoliberalismoa martxan ipini zuen lehenengoa 1981ean Ronald Reaganekin. Ekonomia horrek urte asko darama desoreka handi batekin ekoizten eta kontsumitzen denaren artean, gainerako munduak finantzatutako zorpetze batean oinarrituta. Bere ekoizpen-sektore erreala egunetik egunera gehiago lekualdatu da eta nahiz eta gerra-ekonomiaren bitartez saiatu den suspertzen, honek elite txiki bateri bakarrik mesede egin dio, inoiz ikusi ez den aberastasunaren pilaketa batekin.

Ondorioz, klase ertainak pixkanaka txirotzen joan dira eta herritarrak zuzenean hondoratu egin dira. Langabezia izugarri igo da, banku-ordainketak gora egin dute eta etxebizitza ugari merkaturatu egin dira bere balioa asko jaitsiz, eusten dituzten maileguen oso azpitik geldituz. Bankuek ezin izan dute errekuperatu maileguz emandakoa, inbertsio-paketeak balio

³² <http://www.fondosdeinversion.es/fondos-inversion-renta-fija/>, Inbertsio Fondoak, 2018/01/11 egunean begiratu.

osoa galdu dute eta horiek erosi zituzten inbertitzaileek ikusi dute euren patrimonioa erortzen. Hau dela eta, denak batera finantza-pakete horiek saltzera joan dira. Okerrena da bankuek ez dakitela nortzuk eta zenbat pakete pozoitu dituzten eta horregatik inork ez dio dirurik utzi nahi beste banku bateri (bankuen arteko kreditua) eguneroko likidezia beharrei aurre egiteko. Momentu honetan sektore publikoak esku hartu behar du, *laissez faire* filosofia apurtzen da, bankuei prezio baxuan behar duten diru guztia emateko, zergadunen zergekin ordainduta, berriz ere kontsumitzaileei maileguan emateko zorpetzen segi dezaten eta bide batez garapen eredu bat (eraikuntza eta auto industriarena) mantentzen jarraitzeko, lurzoru eta energia xahutzailea, eutsiezina eta etorkizuneko belaunaldi berriekin eta herriekin solidarioa ez dena.

Eta hori guztia egiten ari dira gizartearen mesederako. Hiritarren onurako gastu publikoa egokitzen ari dira, gastu soziala jaitsiz bankari eta espekulatzaileen etekinak salbatzeko; gizartearen mesederako soldatak ari dira behera egiten eta pentsioak izozten eta aldi berean enplegu erregulazio neurri sakonak ari dira onartzen. Era honetara, finantza-krisiaren ondoren etekinen metatze fase berri baten aurrean gaude eskulanaren eta lehen gaien esplotazioan oinarrituta.

Bide horretatik, pozoitze ideologikoa ez da bakarrik ematen merkatuaren bertuteak aipatzen direnean. Baita ere krisitik ateratzeko planteatzen diren irtenbideak mahai gainean ipintzen dituztenean. Kapitalismoaren krisia sistema global bezala ezkutatu egiten da dezelerazioaz eta urte txarraz hitz eginez eta etengabe sektore publikoari eskatzen zaio arautegi berriarekin giza, natura eta ingurumen-errekurtsoen esplotazio maila handiagoak onartzea eta, gainera, diru publiko gehiago negozio pribatuetara bideratzea eta bide batez azken horiei zergak eta karga sozialak kentzea.

Globalizazioa globokolonizazioa besterik ez da, desberdintasun sozioekonomiko izugarriak sortzen dituena ez bakarrik munduko biztanleriaren artean, baita ere Europar Batasunaren barruan. Krisi hau ez da bakarrik ekonomikoa. Baita ere soziala, kulturala, politikoa, ekologikoa, ideologikoa eta etikoa (Mendizabal, 2012). Azken finean, zibilizazioaren paradigma bera krisian dago. Ez gaude aldaketen garai baten aurrean bakarrik, aro aldaketa sakon baten ataria gurutzatu dugu. Mendizabal-i (2012) jarraituz kapitalismoaren garaipen

ideologikoak bere krisi sakona ezkututzen du ez delako gai gizakiaren etorkizunak planteatzen dituen erronkei, arazoei eta zalantzei erantzuteko.

Arlo ekonomikoan, superproduktiozko krisi periodikoek eta itzulkorrek sistemaren irrazionaltasuna erakusten dute. Krisi prekapitalistetan jendea gosez hiltzen zen uzta ahula izan zelako eta eskaria eskaintza baino askoz handiagoa zelako. Oraingo gizarte kapitalistan berriz biztanleriaren sektore garrantzitsuak langabezira, miseriara eta marjinaziora kondenatuak dira eskaintza produktiboaren gaitasunak dagoen eskaria aise gainditzen duelako. Irabazien tasaren jaitsierak finantza-trumoiak eratu ditu herrialde desberdinetan burbuila espekulatiboak garatuz eta ekonomia erreala itoz. Horren ondorioz milaka milioi euro sakrifikatuko dira espekulatuak sortutako zuloak estaltzeko. Gaur egungo ekonomia kapitalistaren truke balioko gizarteak ez du uzten ditugun indar produktibo indartsuak gizateria hobetuko luketen produktuen ekoizpena eta jardueretara bideratzen.

Arlo sozialean, “eskariari” eta ez behar sozialei erantzutera zuzenduta dagoen sistema ekonomikoak bazterketa prozesu sakonak sortzen ditu Planetaren Hegoaldean eta Iparraldeko biztanleriaren geruza garrantzitsuetan. Ezin dugu ahaztu iraultza informatikoa eta teknologikoaren garaian 1200 milioi pertsonen pobrezia poltsa izugarria dagoela, munduko langileen erdiek egunean 2 dolar baino gutxiago jasotzen dutela, 2.400 milioi pertsonak ez dutela edateko urik, emakumeek gizarte osoaren lanaren gehiengoa egiten badute ere sarreren %10 bakarrik jasotzen dutela eta pertsona aberatsenen %20ek errentaren % 80 baino gehiago biltzen dutela.

Arlo kulturean, nazioartekotze–globalizazio prozesu kapitalista estatu-nazioen opresio nazionalarekin nahasten da mundu hizkuntzen eta kulturen asimilazioa azkartuz. UNESCO³³ren linguistika bulegoak aurreratzen du XXI mendean gaur egun kontabilizatuta dauden 6000 hizkuntzen erdiak baino gehiago desagertu egingo direla. Prozesu horren bidez hizkuntza inperialista multzo txiki batek gizateriaren bioaniztasun linguistikoa pixkanaka jaten joango da.

³³ <https://es.unesco.org/>, UNESCO, 2018/01/11 egunean begiratua.

Arlo politikoan, berriz, gatazka nazionalak eta intentsitate baxu eta erdiko gerrak zabaltzen ari dira leku guztietatik. Alde batetik, estatu-nazioaren aurkako herrien borrokak ditugu eta bestetik inperialismoaren esku-hartze humanitarioak ematen dira. Bide beretik, demokrazia burgesaren eta eredu neoliberalaren konbinaketak benetako menperatze ereduak sortzen ditu, erabaki garrantzitsuak enpresa handien eskuetan utziz, sektore politiko eta sozial zabalak baztertuz, disidentzia erreprimatuz, kontrol sozialerako elementu sofistikatuak erabiliz eta komunikabideak benetako alienazio-armak bihurtuz.

Arlo ekologikoan, korporazio multinazionalen eskuetan dagoen errekurtsoen kontrol planetarioak energia-errekurtsoen agortzea dakar. Gaur egun garaile atera den ekoizpen eredu lehiakorrek airea, ura eta lurra kutsatuko dituen indar produktiboen garapena bultzatu du. Klima aldaketa orokorrak, energia-errekurtsoen agortzeak, ozono kaparen zuloak, euri azidoak, tropikoko ohian-galtzeak, istripu nuklearrak, negutegi efektuak eta gaur egungo garapen ereduak bultzatutako beste fenomenoek zalantzan jartzen dute guztion bizitzaren baldintza materialen etorkizuna. Ez da aro baten krisia bakarrik. Krisi ekologikoak handitu egiten du ekoizpen moduaren bidera ezintasuna eta zibilizazio krisia bezala agertzen da.

Azkenik, arlo ideologikoan eta etikoan, kapitalismoak klaseen eta herri zapalduen balioak eta portaerak berrikusi egiten ditu. Bide horretatik kapitalismoak indibidualismoa, solidaritaterik eza, indar basatia, korporatibismoa, disidenteei ospea kentzea, estatu-biolentziaren legitimazioa, kontsumo eta telenobelaren gizartearen alienazioa eta interes pertsonalen inperioa bultzatzen ditu.

1.9 Eredu neoliberalak gaitasuna erreproduzitzeko

Horregatik adierazi dezakegu gaur egungo eredu neoliberalak huts egin duela. Hala ere, jauzia ez da egun batetik bestera emango. Dударik gabe, globalizazio neoliberalaren, munduko merkatuaren eta eragile pribatuen garaia da (Zurbano, 2010). Sistema kapitalistak gaitasuna dauka erreproduzitzeko egoera honetaz probetxua ateratzen duten klase sozialak eta interes ekonomikoak daudelako.

Kaletsky-k (2011) egiten duen hausnarketatik abiatu ezkerko kapitalismoa ez dago hilda. Krisia kapitalismoa berrasmatzeko eta indartzeko bide bat da. Hau da, ekonomiak erronka garrantzitsuei aurre egin behar dienean hobeto hornitutako bertsio berri bat sortzen da, aurreko forma nagusia ordezkatzuz. Bere ustez, kapitalismoren ibilbidean hiru fase egon dira.

Lehenbizikoa, *Laissez faire-ren* kapitalismoa da Napoleonen gerretatik Depresio Handira arte. Garai horretako testu nagusia Adam Smithen “Nazioen aberastasuna” zen eta ikuspegi orokorrak ekonomia eta politikaren arteko bereizketa aldarrikatzen zuen. 30eko hamarkadarekin bigarren fasean sartzen da, keynesiar kapitalismo soziala oinarri bezala hartuta. Fase horrek 1970eko estagflazio arte iraun zuen eta bere ideia nagusia gobernuen esku hartzea ekonomian defendatzea zen. Hirugarren aldaketa, merkatuen fundamentalismoa, Reagan eta Thatcherren agintaldien eskutik zetorren eta gaur egungo krisi arte mantendu da, merkatuek emaitza optimoak lortzen dituztela eta gobernuek ahalik eta gutxiena esku hartu behar dutela azpimarratuz.

Azken fase honen krisiak atek irekitzen dio kapitalismoaren garapenaren bilakaeraren fase berri bateri, hots, kapitalismo 4.0. Kapitalismoaren aro berri horren postulatu teorikoak ez dira zehatzak. Kaletsky-k (2011) bat egiten du Max Plancken kontsiderazioarekin “zientziek aurrera egiten dutela hileta-kolpeka”. Ez dator bat erregulaziorik gabeko eta estatu-esku hartzerik gabeko merkatu libreekin eta horregatik arlo politikoan ipintzen ditu bere uste sendoak. Bere ustez kapitalismoaren fase berriaren balio nagusiak pragmatismoa, esperimantazioa, eta errore eta froga metodoa izango dira. Jokamolde horietan ideologiak zentzu komunari utziko dio bere lekua nahiz eta horrek ziurgabetasuna, anbiguotasuna eta sendotasunik eza ekarriko duen.

Kaletsky-k (2011) adierazten duen moduan kapitalismo berria 2. eta 3. fasearen sintesi hegeliarra izango da, darwinismo ukitu batekin. Munduak trantsizio berri bateri egin behar dio aurre. Bertan onartzen da merkatuek eta gobernuek joera daukatela akatsak egiteko eta, kasu batzuetan, akats horiek oso ondorio txarrak ekartzen dituzte. Ondorioz, biek, merkatuek eta gobernuek, elkarlana egin beharko dute. Gainera, azken hauek, merkatuen ekimena modu pragmatikoan baloratu beharko dute, kasuz kasu, arauketari pisu desberdina emanaz zirkunstantzia bakoitzaren arabera.

Bere iragarpenen artean azpimarratzen du gobernu gehiago baino murriztagoa izango dela. Pobre tutako sektore publikoak egitura-argaltze bat jasango du baino bere eragina eta ardura handituz. Aldi berean, zerga politikaren helburu simetrikoak, zerga exakzioa eta birbanaketa, zorrotzagoak izango dira. Saihets ezina izango da zerga altuagoren edo eskubide sozialen murrizketen artean aukeratzea. Osasun zerbitzuak eta goi mailako hezkuntza eredu misto publiko pribatuetara zuzenduko dira. Osasuna, hezkuntza eta pentsioak izango dira hurrengo urteetako erronka nagusiak. Zerbitzu publikoak privatizatu egingo dira, finantza-arauegiak gogortu eta lehengaien kontsumoaren arrazionalizazioa zerga politikaren bitartez burutuko da.

Peck-ek (2013) ere hausnartzen du neoliberalismoak 2008ko krisiarekin bederatzi bizitzetatik beste bat galdu duela baino argi dauka oraindik gure artean dagoela bizirik. Ez hori bakarrik, azken krisi honek utzi digun ondorio negatiboena arrazionaltasun eta diziiplina neoliberalak sendotuta aterata dela da. Berritoren ere, urgentziazko lehenasunezko eginkizunak hazkundera berreskuratzea eta aurrekontu murrizketa dira. Depresio Handiarekin gertatu zen bezala oraingoan ere kapitalismoak erakutsi du gaitasun handia duela krisiak sortutako baldintzak bere alde kapitalizatzen. Horregatik, berritoren ere, neoliberalismoaren desagertpenaren aurrean baino gehiago neoliberalismoaren mutazio prozesuaren beste inflexio puntu historiko baten aurrean aurkitu gaitetzke.

1.10 Prozesu eraldatzailea bide malkartsua

Krisi garai hauek momentu zailak dira politika aurrerakoiak martxan ipintzeko. Hasiera batean bai zirudien Wall Streeten erorketak neoliberalismoaren merkatu askearen dotrinaren amaiera izan zitekeela. Pentsatu genezakeen krisiaren errautsetatik eredu gizatiar eta iraunkorrago bat sortzeko baldintzak zeudela. Momentu batean ematen zuen hori zela aldaketaren norabidea. Baino gero, prozesu eraldatzailea martxan ipintzeko baldintzak desagertu egin dira. Bat-batean, aldaketaren joera aurrerakoi hori azkar desagertu da.

Oraindik okerragoa dena, argi gelditu da krisia erabili nahi zutela beste kontraeraso neoliberal bat martxan ipintzeko. Agindutako finantza arloko araudien aldaketak berehala gelditu dira diluituta; errentagarritasuna berreskuratu den heinean larrialdietarako gastu

programak azkar ezabatu dira baina langabezia tasa handia izaten jarraitzen du eta etxe kaleratzeak segitzen dute; ongizate-estatuaren berrantolaketa eta zerbitzu publikoen murrizketak zorra arintzeko ezinbesteko baldintzak bezala aurkeztu ziren; gobernu zentralek arriskuak eta ardurak deskargatu zituzten tokiko gobernu, eskola zuzendaritza, osasun arduradun, karitate eta boluntario talde eta azken garaian kontsumitzaileen gainean. Azken finean, berrantolaketa kostuak berriro ere txiroen eta ahulenen gainean erori dira, gastu publikoen murrizketak eta privatizazioak bultzatuz. Behar bada esan dezakegu neoliberalismoaren ahultasunak eta mugak ematen diola ideologia neoliberal horri sistema erregulazile moduan aurrera egiteko grina.

2008ko finantza Krisiaren inguruko eszenatoki politikoa ondo ulertzea garrantzitsua da. Finantza Krisiaren erdi erdian neoliberalismoaren gaitzespena gauza orokorra bihurtu zen. Bertsio nagusia zen erregulazioa, esku hartzea eta estatua berriro bueltan zetozela eta ondorioz Margaret Thatcher eta Ronald Reaganekin hasi zen neoliberalismoaren garaia ofizialki gaindituta zegoela.

Elite politikoez eta komunikabideetako esatariek askotan aipatu egin dute merkatu askearen denboraldiaren amaierak estatuaren itzulera ekarri duela azken horrek noizbait alde egin bazuen moduan. Neoliberalismoaren helburua, bere forma desberdinetan, estatua heltzea eta berrerabiltzea izan da korporazio, merkatu aske eta merkatu ordenaren alde moldatzeko. Hala ere hau ez da inoiz izan erraz burututako prozesu bat.

Neoliberalismoa merkatua eta estatuaren nahasketa bat denez estatu-eraketa bakoitzak era desberdinean jasan du finantza krisia eta ondorengo atzeraldi ekonomiko orokorra. Mundu mailako atzeraldi bat baino gehiago esan dezakegu berrantolaketa global baterantz doan prozesu bat izan dela, bereziki arau neoliberalak erreformatuz eta berreraikiz.

1.11 Neoliberalismoa kontraesanez betetako prozesua

Eskematikoki esan dezakegu neoliberalismoa merkatu arauetan oinarritutako kontraesanez betetako prozesu bat dela. Gainera estatuaren mugetan negoziatu da eta XIX. mendeko *laissez-fairen* kritika arinetik XX. mendeko kolektibismoan, planifikazioan eta sozializazioan oinarritutako gobernuari egindako kritika zorrotzaren arteko espazio ideologikoa betetzen du.

Zentzu batean neoliberalismoak testuinguru zehatz bat osatzen du, inoiz ez estandarra, krisi partikular eta gatazka sozial desberdinen ondorioekin bere izaera eta bilakaera moldatu duena.

Peck-eri (2013) jarraituz, neoliberalismoaren bilakaera dialektika kontraesankor baten bidez zuzenduta dago. Kontzeptualizazio horren bitartez, neoliberalismoak bi aurpegi ditu, “*roll-back*”(deregulatory) eta “*roll-out*”(reregulatory) prozesuak (Peck eta Tickell 2002). Neoliberalismoaren lehen fasetan *Roll-back* prozesuak gailentzen dira. Bertan, berrantolaketa proiektuak doaz instituzio aurkariak deuseztatzerara, botere gune alternatiboak desantolatzerara, kontrol burokratikoko esparruak arau-gabetzerara eta potentzialki subjektu kolektiboak direnak diziplinan sartzea. Ofentsiba hori normalean lotzen da sindikatuen, planifikazio agentzien eta burokrazia publikoen aurkako erasoekin, diru-laguntzen murrizketa, antolaketa dimentsioaren txikitzea, merkatu azterketa eta pribatizazioen bitartez. Hau da, merkatu askearen kontrairaultzaren lehen fronte horretan berehala topo egingo dugu merkatuaren porrotaren bidetik datozen aurreikusitako mugekin.

Liberalizazio prozesuak, austeritate publikoak, merkatuaren porrotak eta bazterketa sozialak dakarten kostu igoerak erreformista neoliberalak behartu egiten ditu gustuko ez dituzten era desberdinetako esku hartzeak, hobekuntzak eta erregulazioak martxan ipintzea. Merkatuak onartutako erregulazio prozesu horiek gobernu neoliberalak berreraiki egiten dute, krisi zehatz bakoitzaren ondoren behin eta berriz birmoldatuz eta birrasmatuz hibridaziora eramanez. “*Roll-out*” neoliberalismoaren prozesu bikoitza da, hau da, prozesu kreatzailea eta aldi berean prozesu errektiboa. Hein handi batean “*roll back*” prozesu desarautzaileen mugei, porrotei eta gaizki kudeatutako kanpo-efektuei ematen zaien erantzun taktikoak eta estrategikoak islatzen ditu.

Azken finean, Peck-eren (2013) ustez *roll-back /roll-in* dialektika hori politika neoliberalaren porrotaren eta politika neoliberalaren egokitze-prozesuaren bi aurpegiak dira, berriz ere azpimarratuz berrantolaketa neoliberalak garaipenaren martxa bat baino gehiago egokipen eta porroten serie desberdinen isla dela. Esan beharrik ez dago egokipen bakar batek ere ez duela betetzen logika neoliberal garbia. Gainera, ez dira gai horiek martxan ipintzeko arrazoiak diren porrotak eta kontraesanak gainditzeko. Praktikarekin nahasmenean

moldeatutako hibridoak izanik lortu ezinezko garbitasunaren erradikaltasuna islatzen dute. Neoliberalismoa helburu politiko bezala merkatu-utopiaren ideala bada ez da inoiz desarautzearen aldeko mugimendu sinple bat izango. Kontrakoa, neoliberalismoak bizi-iraun nahi badu egokipen iraunkorra jasan beharko du. Neoliberalismoaren paisaiek ez dute zer ikusirik Thomas Friedman (2005) bezalako apologistak irudikatzen zuten mundu lauarekin. Horiek oso gorabeheratsuak dira eta etengabe aldakorrak.

Irakurketa honetatik abiatuta neoliberalismoak ez dakar politika finko eta egonkor bat. Gehiago da esperimentazioan oinarritutako prozesu kontrajarri bat, porrot-krisia dinamika batek lagunduta. Hori bai, joera bat dago aukeraketa estrategikoa merkatuaren, pribatizazioaren eta korporazioaren alde egiteko, baino kasu horietan ere praktikan neoliberalismoak forma polimorfikoak eta kontestuaren arabekoak erakusten ditu.

Historian zehar neoliberalismoaren bilakaera desberdina izan den fast-policy prozesu batek lagundu eta hein batean partzialki eratu du. Prozesu hori transnazional mailako arau-eraketan, diskurtsoan eta gobernantzan islatu da (Peck and Theodore, 2010). Behar bada *fast-policy* erregimenak, zentzu hertsian, ez dira zuzenean neoliberalismoaren produktuak. Hala ere, esan dezakegu neoliberalismoa sakondu egin den heinean koeboluzionatu egin dutela. Egokipen teknokratiko iraunkorra, arau global berriekin bat eginik, *fast-policy* gunearen funtzionatzeko modua bihurtu da, ebidentzian oinarritutako politikak egiteko eta modu pragmatiko batean aplikatzeko. Sistema horrek operatzen du gaur egun sakonki neoliberalismoa dagoen eremu batean eta bertan tokian tokiko etorkizuna eduki dezaketen ereduak emulatuak izaten dira maiz, kontsultore pribatu edo adituen sareen bitartez.

Peck-en (2013) iritziz aukeratutako eredu horien erabilerak politika neoliberalaren bidea eta interkonexioaren maila eskumen-erreforma desberdinen artean indartu egiten ditu. Politika global emankorrenen generazio berrien istorioak, praktika hoberenak eta ereduak ez dira aurkitutako objektuak bakarrik. Orain horiek era aktiboan koproduzituak dira *fast-policy* gunearen sare lasaiaren bitartez. Azken finean, euren ekoizpena eta kontsumoa *fast-policy* integrazioaren prozesu zirkularraren elementuak dira.

Fast-policy erregimenak politikaren ezagutza aldatzen ari da eta gaur egun politika hori gustuko programazio teknologien, eredu eta politika egituren azelerazioan eta zorrotz aukeratutako zirkulazioan oinarritzen da. Politika eredu globalizatuen eraginaren azpian politika erreformaren dinamikak eraldatu egin dira. Egunetik egunera faseak izateari utzi eta etengabeko egokipenak bihurtzen ari dira. Ondorioz, politika eraketa (*policy making*) erlatibizatzen ari da eta egunetik egunera esparru transnazonaletan aplikatzen da. Politika eredu globalizatu horiek ez dira bakarrik inportatuak izaten tokiko jurisdikzioengatik. Koproduzituak izaten dira sakabanatutako sare-berritzaileen bitartez.

Neoliberalismoak prozesu horren parametroak moldeatzen ditu tolerantzia ideologikoak finkatuz. Politika garapena ez da bakarrik globalizatu, neoliberalizatu ere egin da. Gainera, *fast-policy* erregimenek diktatu horiek zeharkako bitartekoen bitartez bideratzen dituzte, “praktika hobereenen” diziplina erabiliz. Prozesu honen atzean dagoen pisu instituzionala nabaria da baina, aldi berean, apurketak, imperfekzioak eta mugak nonahi azaltzen dira. Azken finean, biak, *fast policy* politikak eta bere mugak, ikus daitezke eskala globaleko Berrikuntza Sozialeko aukera egiturak berreraikitzen joateko.

1.12 Prozesu eraldatzailea neoliberalismoaren jokalekutik abiatuta

Dudarik gabe, neoliberalismoaren terreno aldakor eta ezezagun horretan eraiki beharko dugu alternatiba eraldatzailea. Argi eta garbi, krisiaren baldintzak bakarrik ez du bermatzen neoliberalismoaren kontrako ildoaren indarketa. Alternatiba aurrerakoiak garatzeko beharra, bideragarritasuna eta iraunkortasuna ez da nahikoa proiektu horiek gauzatzeko. Kontrakoa, prozesu eraldatzaileak urratsak eman beharko ditu neoliberalismoak azken hamarkadetan garatu duen ingurumen egituratu eta errotuan. Hain zuzen ere, denbora horretan merkatuaren eta korporazioen aldeko arrazionaltasunak bat egin du egitura sozial, korporatibo eta finantzarioekin eta estatu-boterearekin.

Goian deskribatutako neoliberalismoaren paisaia horretan benetako protagonismoa eman behar zaio eguneroko praktikan gauzatzen den eraldaketa sozialari. Hori dela eta, prozesu eraldatzailearen lehenbiziko helburua ekonomia eta gizarte eredu alternatiboa garatzea da,

elkartasunean eta herritarren bizi-kalitatean oinarrituz. Eta teoria hutsean geratu gabe prestaturiko proposamenak praktikara eraman behar dira egungo errealitatek abiatuz.

Klein-ek (2013) ere eraso neoliberalak aukera bat bezala ikusten du beste eredu alternatibo baten aldeko urratsak ematen hasteko. Hau da, eredu neoliberalak gure kolektibitateko esparru sozial eta demokratikoan sortu dituen atzerapausoei erantzuteko ezinbestekoa egiten da prozesu eraldatzailea aktibatzea. Finantza-krisiaren dimentsio nabarmenak, parte-hartze demokratikoaren beherakadak, lurraldeen arteko desoreken hazkundera eta desberdintasun sozialen gorakadak agerian uzten du ardura sozial eta ekologikorik gabeko hazkundera oinarritutako gizarte baten porrota. Gorago aipatu dugun moduan, hazkundera eredu hori, 1980ko hamarkadatik aurrera, merkatuen globalizazioan, estatuen boterearen erosioan, babes sozialerako bitartekoen ahuldadean eta gizarte zibilaren ekimenerako ahalmenen erabilera utilitarista hutsean oinarritzen da. Hala nola, 2008ko krisiak agerian utzi ditu eredu horren zentzugabekeriak. Hasiera batean finantza arlokoa izan bada gero garatu egin da atal sozialera, politikora eta geopolitikora.

Aldi berean garrantzitsua da agerian uztea dotrina kapitalista neoliberal horrek dituen ondorio lazarriak mundu azpigaratua kanpo zorraren bidez euren etorkizuna itoz, errekurso naturalak deuseztatuz eta txirotasuna betiketuz eta mundu garatua biztanleriaren multzo handien lan merkatuko prekarietatea eta bazterketa soziala handituz, bereziki gazte eta emakumeen artean, ingurumena suntsituz eta gizartearen ongizatea kolokan jarritz. Dena dela, aldi berean onartu behar da ere *laissez faire* ereduak historian zehar berealdiko indarra eta ahalmena erakutsi duela ondasuna ekoizteko eta munduan zehar mugitzeko alde batetik bestera. Hori bai, bihozgabetasun izugarria erakusten du errenta eta ondasuna banatzeko eta ingurumena babesteko. Aldi berean aztertu beharko genuke dotrina neoliberalaren mugak eta merkatu-arau horren milaka urteko manifestazioaren indarra eta nekaezintasuna.

Prozesu eraldatzailea garatzeko momentuan tokian tokiko proposamenak nazioarteko dinamikekin lotzea ezinbestekoa da. Zalantzarik gabe, aurrerapausoak bi mailatan eman behar dira. Alde batetik, gaitasuna erakutsi behar da tokian tokiko esperientzia emankorrak nazioarteko sare alternatiboetara bideratzeko eta bestetik, nazioartean sendotzen ari

direnak gertuko eremuetara eramateko. Horretarako, beharrezkoa da informazio-trukaketa indartzea, jarduketa-ildoak burutzea eta koordinazio-dinamikak martxan jartzea.

Peck-eren (2013) azalpenekin jarraituz berak azpimarratzen du atentziora jarri behar dela transnazional mailako politika diseinuetan, *“fast policy”* bezala ezaugarritzen direnak eta zalantzarik gabe neoliberalizazio prozesua lagundu eta erraztu dutenak. Ez hori bakarrik, politika transnazional horiek guztiz txertatuta daude gaur egungo gizartearen maila instituzionalean eta sozialean eta kontuan hartu beharreko ingurumena da edozein Berrikuntza Sozial Eraldatzaile aurrera eramateko.

Gaur egungo mundu globalizatu honetan neoliberalismoari aurre egiteko alternatibak garatu nahi badira, kontuan hartu behar da politika-eraketa esparruak inoiz ezin direla irla bat izan. Tokiko alternatibak garrantzitsuak badira ere, ez dira nahikoak. Egunetik egunera, fast-travelling politika globalen modeloak erreformaren nazioarteko ereduak bihurtu dira. Neoliberalismoaren bektore berantiarrak izanik hauek asko zabaldu dira politika kosmopolita baten kultura bezala. Ezaguna da politika globalaren merkatuak interes neoliberalaren alde egiten duela eta urrunera eta azkarren bidaiatzen duten politika modelo horiek estatus quoa egokitzeko edo zabaltzeko balio dutela eta ez horiek iraultzeko.

Bilakaera horrek prozesu eraldatzailearen zenbait praktika egokitzea eskatzen du, ohiko joera eduki duelako ekimen lokalak eta organikoak, oinarritzko berrikuntzak eta maila sozialean soilik txertatutako estrategiak baloratzeko. Horiek arrakastatsuak izan daitezke maila lokalean baina zailtasun handiak eduki dezakete beste toki batzuetara eramateko. Maila horretan teknokratek eta aholkulari neoliberalak abantaila taktikoa daukate.

Doktrina neoliberalak aldarrikatzen du ekonomia merkatuaren legearen bidez funtzionatu behar duela, eskaria eta eskaintzaren joko librea garatuz eta administrazioaren ahalik eta esku hartze txikiena erabiliz. Gero praktikan hori ez da egia. Estatu neoliberalaren esku hartzea gai ekonomikoetan, nahiz eta batzuetan ezkutuan egiten den, oso handia da. Gainera, eskaintza multinazionalen oligopolioen bidez finkatzen da prezioak sakonki manipulaturik. Gaur egungo eztabaida ideologiko nagusia ez da esku hartzea bai edo ez. Auzia

da noren alde egiten den interbentzio hori, elitezko sektore aberatsak edo klase herrikoiak defendatzeko.

Gauza da neoliberalismoa beti existitu dela era partzial edo ezkutu batean eta posible da aurkitzea bakarrik modu desantolatu eta hibrido horretan. Gizarte libre eta ekonomia askearen utopia hori egin ezinezkoa da. Egin diren esperimentuek neoliberalismoaren ideologia garbia eta ametsezko hori aplikatzeko porrot egin dute (Polanyi, 1997). Baina beti huts egin dute esperimenturako erronda berriak sortuz. Bide horretatik neoliberalismoa beti lotu egin da merkatu askera zuzendutako erreformen egitasmoekin. Iraultza iraunkor baten antzeko mugimendu hori ezin da bakarrik epaitu erabateko merkatu librearen aldeko ametsaren fantasiarekin. Merkatuaren aurrerapenaren mitologiaren azpian neoliberalismoaren modu desberdineko porrot eta saiakera berrien errealitate nahasi bat ezkututzen da. Praktikan neoliberalismoa ez da inoiz izan liberalizazio osoa, estatuaren desagerpena. Alderantziz, estatua berrasmatzeko apustu inperfektu bat da, klase globalizazio proiektuarekin bat datorren errenta eta etekinen birbanaketa sozial atzerakoia bultzatzen duena eta transnazionalen eta korporazioen globalizazioan oinarritzen dena.

Guretzat merkatuak ere paper bikoitza joka dezake. Desberdindu egin beharko zen klase herrikoien interesen alde aritzen den merkatua merkatu inperfektu txar batetik non, azken honetan, estatuaren esku hartzea gomendagarria den. Bestalde ezin daiteke ahaztu azken mendeetan merkatu librearen ideologiak porrotez beteriko historia duela. Ez hori bakarrik, Kaletsky-ren (2011) arabera eredu kapitalista moldatzen eta egokitzen joan da denbora eta herrialdearen arabera.

Guzti horrengatik, Peck-ekin (2013) jarraituz, ez da zuzena neoliberalismoa ezaugarritzea estatu taxonomiko mota bat bezala. Urrutiago joanez, prozesu moduan kontsideratzen bada, neoliberalismoak eragina du estatuan eta forma sozialetan. Bere ezaugarriak eta ondorioak aldatu egiten dira denboraren poderioan eta testuinguru desberdinetan. Esan dezakegu neoliberalismoak beti eduki duela esku hartzearen aurkako sindromea, baina bere desarautze bultzadak topo egin dute merkatuaren porrotarekin eta ondoren neurri zuzentzaile arautzaileak ipini behar izan dira orekatzeko. 1970eko hamarkadatik aurrera neoliberalismoak irabazi egin badu ideien munduan, garaipen horiek eskasak eta partzialak

izan dira. Gainera, neoliberalismoaren proiektua aurrera doa, inoiz bere helmugara iritsi gabe, baino inoiz ere jakin gabe non gelditu. Neoliberalismoaren erregimena termino horietan ikusita ezin da izan zerbait guztiz egonkorra. Baina, bestalde ez da erraza itzulgarria bihurtzea epe motzean.

Zalantzarik gabe, prozesu eraldatzailearekin neoliberalismoaren alternatiba eraikitzen joateko gaur egungo jokaleku neoliberalatik abiatu beharko da aldaketa egunaren zain egon gabe. Jokaleku neoliberal hori mugimenduan dagoen esparru bat izanik aukera sortzailea ere egon daiteke. Horretarako egunez egun urratsak eman behar dira, norabide onean, korrante neoliberalak asimilatu gabe, iparra ondo finkatuz, epe motzeko urratsak epe erdiko eta luzeko urratsekin lotuz, garapen teorikoak errealitateko praktikarekin koordinatuz. Aldi berean, ezinbestekoa da balio indibidualista, kontsumista eta erreakzionarioekin funtzionatzen duten sare eta guneen aurrean esparru sozial alternatiboak eta eraldatzaileak sortzea.

Bertara gonbidatuak izango dira bide hori egiteko prest dauden mugimendu sozial, sindikal, politiko eta intelektual guztiak, tokian tokikoak eta nazioartekoak. Lan hori burutzeko trebakuntzari garrantzi berezia eman beharko zaio. Ezin da ahaztu ere konpromiso militantea ezinbestekoa dela aldaketa gauzatzeko. Eredu neoliberalaren atzean interes ekonomiko eta politiko asko ezkututzen dira eta ondorioz, ereduaren arteko talka irabazteko ahalik eta pertsona gehien bildu behar dira bakoitzak bere posibilitateen arabera eta gustuko duen esparruan lana eginez. Bide hori ilusio sortzaile bihurtu beharko da, hori baita modu bakarra gizartea aktibatzeke eta martxan ipintzeko.

Erregimen neoliberalak kontuan hartu beharko den jokalekua izango da alternatiba aurrerakoiak gauzatzeko garaian. Formulazio hori onartzen bada, neoliberalismoa ezaugarritu daiteke ez bakarrik muga garrantzitsuak dituen eredu bat bezala, baita ere aukera politikorako erregistro berrien jokaleku.

Gainera, hertsiki lan egin behar da maila lokalean eta mundu osoko transformazio sozialaren alde mugitzen diren mugimendu sozial, sindikal eta politikoekin batera. Lan hori herri eta auzoetan gauzatzeko da tokiko arazoak konpontzeko, baina baita herrialdean, nazioan eta nazioartean ere. Komeni da elkarren arteko elkarrizketa azpimarratzea, proposamenak

erkatzea eta mugimendu sozial eta sindikalarekin lan egitea, sare alternatiboak sortu eta erronka garrantzitsuei aurre eginez, lana eta aberastasuna banatzeko eta guztion helburuak batzen dituen eredu alternatiboa eraikitzen joateko.

Klein-entzat (2013) egoera lazgarri hori gizarte mugimenduentzat interpelazio zuzena bihurtzen da. Gizartea martxan ipintzeko deialdia atzerazina da. Ekimen kolektiborako bitartekoak berrituz, hiritarren adierazpenak, erresistentziak, aldarrikapenak eta kreatibitate dinamika berriak martxan ipiniz. Interpelazio horretatik hasi beharko da marrazten mundializazio berri baten aldeko proposamena. Deialdi hori era desberdinetan gauzatu daiteke, bereziki populuen, erakundeen eta maila instituzional zehatz batzuen berrikuntza ahalmena azkartuz.

Proiektu neoliberalak ospea nahiko galdua duela esan daiteke, Hegoalde globalizatuan egitura-doikuntzako politikek porrot egin dutelako eta Iparraldean gehiegizko desarauketa eman delako. Dударik gabe, jokaleku hori pizgarri bat izan daiteke prozesu eraldatzaileak bere bidea egiteko. Hasteko, ezin da ahaztu esperimendu neoliberalak huts egiten jarraitzen dutela. Gainera, ezinbestekoa da beti politika horiei erantzutea. Horrek eskatzen du askotan desatsegina den eguneroko erantzun lan hori ezinbestekoa bihurtzea, bereziki neoliberalismoaren erasoaldien aurrean erantzun kontzertatuak martxan ipintzea. Baita ere, azpimarratu daiteke estrategia aldetik garrantzitsuagoa dela alternatiben hedapena eta sustapena. Behar handi bat dago praktika hobereenen forma aurrerakoiak hedatzeko eta iraunarazteko.

Peck-ek (2013) marraztutako *fast-policy* ingurune horretan bere buruari galdetzen dio ea posible den *fast-policy* erregimenaren hedatze-sistemak bereganatzea alternatibak zabaltzeko. Galdera horri erantzuteko beharrezkoa ikusten du atenzioa Berrikuntza Sozialeko ekoizpen mailetatik banaketa eraginkorretara berbideratzea. Gainera praktikan, zalantzak ditu ea politika aurrerakoiak zailagoak diren eskalara eramatea edo *fast policy* hedapen sistemaren konfigurazioa kaltegarria den politika eraldatzaile horiek aurrera eramateko. Bere ustez, prozesu eraldatzaileak etekinak atera ditzake bere esperimendu naturalaren berrikuspenetik. Irakaspen iturri moduan Ipar Amerikan zabaldu diren bizitzeko soldaten ordenantzak eta Brasileko Porto Alegreko eredu oinarritutako aurrekontu parte

hartaileen zabalkunde harrigarria ipintzen ditu. Batzuetan, teknologia politika aztoragarri horiek euren izaera aurrerakoia galdu egiten dute proiektu transferigarriak bihurtzen direlako. Behar bada, bere ustez, hori izan da aurrekontu parte hartaileekin gertatu dena. Zenbait tokietan udal kontabilitate teknika hutsa bihurtu da. Bizitzeko soldataren aldeko mugimenduek gaur egun kemena eta anbizioa irabazten ari dira. Hortik dator lan kritiko gehiago egiteko beharra, lankide sozialekin, berrikuntza politiken zabalkunde eraldatzaileak garatzeko, bereziki eskaletan salto egiteko gaitasuna erakusten dutenean. Egunetik egunera politiken diseinua geroz eta gehiago erlatibizatu eta emulatu egiten da eta, horren ondorioz, bitarteko analitiko berriak erabili beharko dira.

Prozesu eraldatzailearen aldeko lana burutzeko, besteak beste kale mailakoa edo komunitate eskalakoa, zeregin asko dago oraindik egiteko. Galdetu beharko genioke gure buruari zergatik politika batzuk besteak baino hobeto edo urrutirago bidaiatzen duten. Krisi global berri bati zain egon gabe alternatiba eraikitzaileak martxan ipini behar dira emaitza hobekak lortzeko. Politika-eredu alternatiboen sorkuntzarekin batera horien zirkulazio estrategia aktibatu behar da, bereziki kanal eta bitartekari alternatiboen bitartez. Horrek eskatzen du asmakuntza sozial iraunkorra bultzatzea eta aldi berean inguruetan mugitzeko diseinu alternatiboen bide berritzaileak ulertzea. Neoliberalismoaren fast-policyren abantaila garaitzeko ezin da bakarrik argudiatu arrazoi etiko, intelektual eta sozial indartsuagoak daudela. Mugikortasun politikaren praktikaren eremua seriooki lehiatu eta irabazi egin behar da.

1.13 Beste gizarte-eredu bat eraikitzeko garrantzia

Testuinguru honetan egunetik egunera garrantzitsuagoa da beste gizarte-eredu bat eraikitzea balio eta politika desberdinekin, elkarkidetasunean, ondasunaren banaketan, parte hartze sozialean eta bizi kalitatean oinarrituta. Duñaiturria-k (2007) dioenez ezinbestekoa da ideologia indartsu bat eraikitzea neoliberalismo postmodernistari aurre egiteko. Gainera, ekonomialari kritikoaren artean adostasun handia dago politika neoliberalaren ondorioak aztertzerakoan. Gaur egun jaun eta jabe den eredu horrek ahalmen handia du ondasunak eta zerbitzuak ekoizteko. Hala ere, sentsibilitate falta izugarria erakusten du errenta eta ondasuna banatzeko. Gainera, ekonomia oligopolio eta

monopolioen kontrolpean uzten da. Doktrina kapitalista neoliberal horrek ondorio lazgarriak ditu mundu azpigaratuarentzat kanpo zorraren bidez euren etorkizuna itoz, errekurtsio naturalak deuseztatuz eta txirotasuna betiketuz. Mundu garatuan ere eraginak agerian gelditzen dira, biztanleriaren multzo handien lan merkatuko prekarietatea eta bazterketa soziala handituz, bereziki gazte eta emakumeen artean, ingurumena suntsituz eta gizartearen ongizatea okertuz.

Bide luze eta malkartsu hori egiteko hemen finkatzen den Berrikuntza Sozial Eraldatzailea bitarteko egokia izan daiteke. Azken finean, gizartearen eraldaketara bideratutako Berrikuntza Sozialaren kontzeptuak, teoriak, praktikak eta estrategiak elkarlotu egin beharko dira inongo bazterketarik gabeko mundu bat eraikitze bidean urrats sendoak emateko. Moulaert, MacCallum eta Hillier-entzat (2013) Berrikuntza Sozialak esanahi politiko-ideologiko sendoa dauka. Giza garapena bilatzen duten mugimendu sozial eta politikoentzat gida indartsua da. Hemen urrutirago joan nahi da. Beste eredu ekonomiko alternatiboaren bidean Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen kontzeptua plazaratu nahi da. Dena dela, Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen oinarriak ondo finkatu aurretik komeni da Berrikuntza Sozialaren terminoaren inguruan dauden hurbilketa desberdinak plazaratzea.

2 KAPITULUA: BERRIKUNTZA SOZIAL ERALDATZAILEA

2.1 Berrikuntza Sozialaren kontzeptuaren jatorria

Berrikuntza Soziala gaurkotasuna duen kontzeptua da. Literatura asko idatzi da Berrikuntza Sozialari buruz. Berrikuntza Sozialaren terminoa arrazoi desberdinengatik eta testuinguru desberdinetan plazaratu da. Ayob, Teasdale eta Fagan-en (2016) ustez Berrikuntza Sozialaren kontzeptua lehenbizi soziologoek erabili zuten XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran, alde batetik, sarean antolatutako gizarteek nola suspertzen zuten berrikuntza teknologikoa azaltzeko (Tarde, 1899) eta, bestetik, berrikuntzen eragin soziala ulertzeko (Hoggan, 1909).

Moulaert et al.-entzat (2013) Berrikuntza Soziala 60. eta 70. hamarkadan Paris, Berlin eta Europa eta Amerikako hiriburu desberdinetan erabilia izan zen ikasle eta langile mugimenduengatik. Izendatzaile komun hori beti gorako ekonomia eta gizarte dinamika parte hartzaileak eta kreaizaileak sortuko zituzten ekimen kolektibo eta eraldaketa sozial desberdinak aipatzeko baliatu zuten (Chambon, David eta Devevey, 1982). Garai horretan ikasle eta langileriaren demokrazia, generoa eta burujabetzari buruzko eztabaida publikoak gaurkotasun handia zuten. Drucker-ek (1987), berriz, Berrikuntza Sozialaren terminoa erabiliko du kudeaketa lanetan egituren murriztapenak eta giza sinergiak lortzeko prozesuen beharra azpimarratzeko. Hain zuzen ere, autore horrek termino horrekin adierazi nahi zuen gizarte batek ipini behar dituen bitartekoak enpresetan eta gobernuetan dagoen burokrazia astuna arintzeko. Garai berriagoetan diskurtso hori alde batera utzi da New Public Management (NPM) metodoen aldeko estiloak eta ereduak bultzatzeko.

Berrikuntza Sozialaren beste erabilera bat Gershuny-k (1987) egiten duena da. Berarentzat Berrikuntza Sozial handiena eman da etxetresna elektrikoak erabiltzen hasi garenean etxeke eskulana murrizten joateko. Bide batez jendeak denbora gutxiago erabiliko du etxeke lanak egiteko eta aldi berean denbora libre gehiago edukiko du aisiarekin gozatzeko. Beste autore batzuk Berrikuntza Sozialaren dimentsio desberdinak plazaratu dituzte termino hori zuzenean erabili gabe. Besteak beste, XIX. mendean Benjamin Franklinek Berrikuntza Soziala erabili zuen komunitateetako gizarte antolaketetan aldaketa txikiak proposatzen joateko

(Munford, 2002) eta Émile Durkheimen 1893an azpimarratu zuen giza erregulazioen garrantzia aldaketa teknologikoak dakarren lanaren banaketaren garapenean. Argi dago aldaketa teknologikoak bakarrik daukela zentzua aldi berean egitura soziala aldatzen den heinean. XX. mendearen hasieran Max Weber-ek (1947) frogatu zuen sistema kapitalistak arrazionalizatzeko daukan indarra. Berak egitura sozialaren eta berrikuntzaren arteko erlazioak aztertu zituen. Gainera, beste gauza batzuen artean, adierazi zuen bizitzako baldintzak hobetzea ez zela elementu erabakigarri bakarra aldaketa soziala burutzeko. 1930eko hamarkadan Schumpeter-ek (2005) berrikuntza hitza gizarteko eta enpresetako antolaketetan egitura aldaketak adierazteko erabili zuen ikuspegi ekonomiko hutsa gaindituz eta bere teoria soziala, besteak beste, ikuspegi kultural, artistiko eta politikoarekin osatuz.

Ayob et al.-ek (2016) azterketa bibliometrikoa erabili dute Berrikuntza Sozialaren kontzeptualizazio desberdinak sailkatzeko. Gainera, ikerketa hori burutzeko 25 urteko aldia hartu dute, 1989tik 2013raino, eta garai horretako artikulua akademiko garrantzitsuenak aztertu dituzte. Euren ustez bertatik atera duten ondorio nagusia da Berrikuntza Sozialaren literatura sailkatu daitezkeela hiru gai nagusien inguruan: berrikuntza teknologikoa, gizarte-harremanak eta gizartean sortutako eraginak. Ondorengo taulan (2.1.1 taulan) ikusten den moduan, 1989tik aurrera argitaratutako argitalpenak sailkatu daitezke gai horien lau konbinaketan desberdinetan: gizarte harremanak, gizartean eraginak, gizarte harremanak eta gizartean eraginak, eta gizarte harremanak eta berrikuntza teknologikoak.

2.1.1 Taula: Berrikuntza Sozial kontzeptuaren bilakaera (54 ikerlan aztertu ondoren)

	1989-1993	1994-1998	1999-2003	2004-2008	2009-2013
Gizarte Harremanak	3	1	2	1	1
Gizartean Eraginak	0	0	0	3	2
Gizarte Harremanak/ Gizartean Eraginak	2	0	4	12	13
Gizarte Harremanak/Berrik. Teknologiko	0	1	2	3	4

Iturria: Ayob et al. (2016) ikerketatik ateratako datuekin geuk egina

Taula honetan ikus daitezkeenez 1999 urtea baino lehen ez dago patroia argi bat Berrikuntza Sozialaren kontzeptua zehazteko garaian. Literatura zientifiko desberdin gehiena gizarte harremanen ikuspegi soziologiko batetik dator eta gutxienean argitalpenak, berriz,

berrikuntza teknologikoarekin lotzen dira. 2000. urtera itxaron beharko da Berrikuntza Sozialaren kontzeptuaren atzean gizarte-aldaketak eragingo dituen gizarte harremanen forma berriak azalarazteko. Ordutik aurrera, nahiz eta Berrikuntza Sozialaren azken ikuskera hori gailenduko den, gutxieneko literatura batek jarraituko du aldaketa teknologikoari garrantzia ematen.

Hala ere, Ayob et al.-en (2016) arabera literaturan Berrikuntza Sozialaren kontzeptu zabal hori mugatu daiteke ezaugarrien nahasketarekin osatutako hiru proposamen zehatzetara. Lehenbiziko proposamena, literatura soziologikotik eratorrita baina baita ere teknologia eta gizarte aldaketan, zientzia politikoan eta pentsamenduaren diseinuaren literaturan presente dagoena, Berrikuntza Sozialaren kontzeptuak elkarlanerako forma berrien aplikazioa dakar, norbanakoen edo erakundeen artean, eta sarritan gobernuaren, gizarte zibilaren eta hiritarren arteko harremanak berritzea eta horizontalagoak bihurtzea eskatzen du. Jarrera horrek berrikuntzara garamatza. Kontzeptuaren berrikuntza elementua maiz ez dago oso ondo definitua baino era berean ideien berritasunarekin lotuta dago, gizarte harremanen elkarlaneko forma berriekin erlazionatuta dago. Gainera, berrikuntzaren literatura zabala aztertzen bada ikusiko da posible dela ideiak eta konponbideak bereiztea eta hori oso jarrera berritzailea da. Gainera horiek esparru alternatibo batetik inportatuak dira eta gaur egungo irtenbideetatik hobekuntza graduala eta inkrementala ekarriko lukete (Osborne, 2013). Bigarren proposamena, teknologia eta aldaketa sozialen literaturatik eta zientzia politikotik datorrena, Berrikuntza Sozial horiek gizarte eta botere harreman berri batetara eraman gaitzake. Azkenik, hirugarren proposamenak, enpresa-administrazioan eta kudeaketa-literaturan agertzen dena, berrikuntzak ikuspegi funtzionaletik gizartean eragin positiboa eduki behar duela defendatzen du, bizi kalitatea eta kantitatea handituz (Pol eta Ville, 2009).


2.1.2 Taula: Berrikuntza Sozialaren hiru proposamen zehatz

Lehen proposamena	Elkarlanerako forma berrien aplikazioa
Bigarren proposamena	Gizarte eta botere harreman berri batera garamatza
Hirugarren proposamena	Gizartean eragin positiboa, bizi kalitatea eta kantitatea handituz

Iturria: Ayob et al. (2016) ikerketatik ateratako datuekin geuk egina

Bestalde, Ayob et al.-ek (2016) Berrikuntza Sozialaren prozesua pausoz pauso deskribatzen dute. Euren ustez literatura akademikoak bost ibilbide identifikatzen ditu eta ibilbide guzti horiek Berrikuntza Soziala bezala identifikatu daitezke: i) giza-harremanen forma berriak berrikuntzara eramaten gaitu; ii) berrikuntzak giza eta botere harremanen berrantolaketa sortzen du; iii) berrikuntzak giza-balore utilitaristara garamatza; iv) giza-harremanen forma berriek berrikuntza sortzen dute eta berrikuntza horrek botere-harremanen birmoldaketa dakar (eta ondorioz Gizartean Eraginak), eta v) giza-harremanen forma berriek berrikuntza dakarte eta berrikuntza horrek giza-balio utilitarista eraikitzen du (eta ondorioz Gizartean Eraginak).

2.1.1 Grafikoa: Berrikuntza Sozialaren prozesua pausoz pauso



Iturria: Ayob et al. (2016) ikerketatik euskaratua

Literaturan ematen diren desberdintasun nagusiak honakoak dira. Alde batetik, lankidetzak beharrezko elementua litzateke Berrikuntza Sozialaren prozesuan eta, bestetik, Berrikuntza Soziala prozesu bat litzateke edo soilik edozein berrikuntzak dakarren balio utilitariora kontsideratu daiteke. Diferentzia horiek bi tradizioen artean dauden ikuspegi desberdinak azpimarratzen dute. Alde batetik, tradizio erradikalagoa eta normatiboa daukagu eta bertatik aldaketa soziala (eta politikoa) ikusten da giza-erlazioen berrikuntzaren ondorio bezala. Bestetik, berriz, hurbilketa utilitarioagoa agertzen zaigu norbanakoen utilitatean

gertatutako aldaketek sortutako berrikuntzak gizartean eragiten dituen ondorioak azpimarratuz. Tradizio erradikala, Berrikuntza Sozial indartsua daramana, koprodukzioetik oso gertu dago. Ekimen mota zabal bat zerrendatu daiteke koprodukzioaren termino horren azpian eta denak sostengatzen dira hurrengo parametroetan: lankidetzan, ideia berrien sorkuntzan, ahalduntzean eta gizartearen aldaketan (Bovaird eta Loeffler, 2012; Brandsen eta Pestoff, 2006).

Ayob et al.-entzat (2016) koprodukzioa kontzeptua Berrikuntza Sozialaren eredu erradikalenekin lotu daiteke. Gainera, termino horren jarraitzaileentzat, ahalduntzearen ideia da giltza nagusia lan egiteko moduan (Pestoff, 2006). Berrikuntza Sozialaren tradizio sendoa botere-erlazioen berregituraketa bat bezala ikus daiteke aldeztetik gutxietsitako norbanakoak eta taldeak konprometituz eta ahaldunduz. Nahiz eta Berrikuntza Sozialaren tradizio biek aldaketa soziala daukaten azken helburu bezala, tradizio ahularentzat aldaketa soziala mugatzen da norbanakoaren utilitatean aldaketak gehitzera eta tradizio sendoan, berriz, aldaketa sozial hori mamitzen da botere oreka lekualdatuz.

Berrikuntza Soziala, literaturan agertzen den moduan, prozesu bat bezala ikus daiteke eta gainera dimentsio politikoa duena. Hain zuzen ere, politika sozialean ikertu behar da talde desberdinen konbinaketek ideiak eta konponbideak sortzeko zer nolako ondorioak dituzten talde horietan eta gizarte zabalagotan. Hori zaila da lortzea atzera begirako Berrikuntza Sozial arrakastatsuen analisia erabilita. Luzetarako azterketek, berriz, lankidetzaren forma berri horien barruan botere dimentsioa kontuan hartzen dutenak, potentzialitate handiagoa dute (Evers, Ewert eta Brandsen, 2014).

Hala ere, politika sozialaren ikerkuntza kritikoagoak egiteko aukera maila makroan zabaltzen da. Bertan, Berrikuntza Sozialeko politiken helburu ezkutatuak posible dira aztertzea euren testuinguru zabala kontuan hartuta. Hau da, noraino batzuetan Berrikuntza Soziala ez den erabiltzen zerbitzu publikoko murrizketak isilean gordetzeko. Bestalde, eskualdeen arteko konparaketek ere ondorio emankorra eman dezakete. Herrialde desberdinak Berrikuntza Sozialaren erabilera ongizate-estatua modernizatzeko aplikazio eta garapen maila desberdinetan daude. Hurbilketa hori erabil daiteke herrialde desberdinen arteko desberdintasunak eta antzekotasunak identifikatzeko, baita ere tradizio ahula eta sendoa

aplikatu den herrialdeen arteko konparaketak egiteko. Baita ere garrantzitsua da ikerketa ez mugatzea bakarrik mendebaldeko herrialdeetara. Garapen bidean dauden herrialdeetan Berrikuntza Soziala ikus daiteke bitarteko bat bezala ongizate-estatuaren garapenaren gainera jauzi egiteko. Baina kontuan hartuta herrialde desberdin horietan estatua, gizarte zibila eta hiritarren arteko harremanak oso desberdinak direla, aztertu behar da ea gobernu autoritarioenak ahalmena duten gertuagoko eta jerarkia txikiagoko harremanak eraikitzeko talde horien artean.

2.2 Berrikuntza Sozialaren kontzeptuaren garapena

Beste autore batzuk ere 80ko hamarkadatik hona modan ipini den Berrikuntza Sozialaren termino hori sakonduko dute. Klein-ek (2013) dio 80ko hamarkadatik hona Berrikuntza Sozialaren hitza asko zabaldu dela mundu mailan neoliberalismoaren hazkunde-ereduaren porrota eta sendotasun faltagatik. Hain zuzen ere, eredu neoliberalaren krisiak eragile sozialak behartzen ditu arazo sozial nagusiei erantzun bat aurkitzera, hau da, berrikuntza bultzatzera. Klein-en (2013) arabera Berrikuntza Sozialera hiru ikuspegi desberdinetatik gertura daiteke:

(1) Ikuspegi epistemologikoa, hurbilketa alternatibo honek Berrikuntza Soziala paradigma aldaketa baten parte kontsideratzen du. Ezagupena koeraikuntzaren emaitza da, ikertzaileen eta aktore desberdinen elkarlanerako ahaleginaren emaitza izango da eta kontuan eduki beharko lituzke faktore lokalak eta globalak, norabide holistiko eta iraunkor batean.

(2) Ikuspegi etikoa, zentzu etikoa kontuan hartzen bada Berrikuntza Sozialak elkarrekin ikasteko bitarteko bat bezala eta pertsona hauskorren bizi baldintzak hobetzeko gaitasunak handitzeko tresna moduan funtzionatzen du. Aldi berean, ikuspegi etikoak ere gizarte-segmentu hori prekarietatean mantentzen duen ingurumen instituzionala eraldatzeko bitartekoak hobetzen ditu.

(3) Ikuspegi estrategikoa, maila estrategikoan, Berrikuntza Soziala proiektu integratzaile baten gidaria bihurtzen da ongizatea sortu eta banatzeko Komunitateko aktore politiko, sozial eta ekologikoei osatutako sare bati esker. Horretarako ezinbestekoa da alde batetik,

maila globala, nazionala eta lokala batzea eta bestetik, giza jardueraren atal desberdinak koordinatzea, besteak beste, arlo publikoa, soziala eta pribatua.

2.2.1 Taula : Berrikuntza Sozialera gerturatzeko hiru ikuspegi

EPISTEMOLOGIKOA	ETIKOA	ESTRATEGIKOA
-Paradigma aldaketa baten parte. -Ezagupena ikertzaileen eta aktore desberdinen elkarlanerako ahaleginaren emaitza da. -Koeraikuntzaren emaitza da. -Kontuan eduki beharko lituzke faktore lokalak eta globalak.	-Elkarrekin ikasteko bitarteko bat. -Pertsona hauskorren bizi baldintzak hobetzeko gaitasunak handitzeko tresna. -Prekarietatea sortzen duen Ingurumen instituzionala eraldatzeko bitartekoak hobetzen ditu.	-Proiektu integratzaile baten gidaria bihurtzen da. -Maila globala, nazionala eta lokala batu behar da. -Giza jardueraren atal desberdinak (arlo publikoa, soziala eta pribatua) koordinatzea eskatzen du.

Iturria: Kleinen (2015) datuekin geuk egina

Hillenkamp-ek (2016) ere azpimarratzen du 80ko hamarkadatik aurrera aldaketa sozialaren kontzepzio estuak eta deterministak zalantzan jartzen direla. Garai horretan Hirugarren Mundua bezala ezagutzen den eremuko kanpo-zorren krisiaren ondorioz berriztatze ekonomikoko estatu-politikak zaharkitu egiten dira eta, aldi berean, Brundtland (1987) txostenak krisi ekologikoaren eskala handiko kontzientzia hartzera laguntzen du. Doktrina neoliberalaren estatuaren aurkako jarrerak alde batetik gizarte zibilaren indarketa dakar eta bestetik aldaketaren motor bezala norbanakoen eta Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeen papera sendotuta ateratzen da.

Aldi berean esan dezakegu Berrikuntza Sozialaren inguruan sortu diren askotariko diskurtsoak eta lanak erakusten dutela gaur egun ere ez dagoela gaiari buruzko marko integratzaile bat, hurbilketa asko baizik. Batzuk Berrikuntza Soziala ikusten dute erremintakutxa bat bezala arazo korapilatsuei irtenbide azkarra emateko. Askotan dibertsitate horrek, jarrera murriztaileekin batera, Berrikuntza Soziala neoliberalismoaren laguntzaile bihurtzen du. Hillenkamp-en (2016) arabera adiera horrentzat elkartasuna ekintza moralaren oinarri bat da, horregatik arrazionaltasuna eta gaur egungo gaitzen oinarrian dagoen sistema instituzionala zuzenean zalantzan ipini gabe. Ondorioz, kontuz ibili behar da, berrikuntza horiek indartu dezaketelako gaur egungo eredia, krisiaren arduraduna izan dena, egokitze ahalmen izugarria erakusten ari delako.

Bouchard-entzat (2013), berriz, Berrikuntza Soziala forma hartzen duen jarduera berri bat da eta gero zabaldu egiten da testuinguru zehatz batean. Berarentzat Berrikuntza Soziala gutxienez bi ikuspegi nagusietatik aztertu dezakegu. Lehenbiziko hurbilketak arazo sozial nagusiak konpondu nahi ditu, enpresa-ekimenetan oinarrituta, filantropia, norbanakoen ardura eta merkatua estatua baino gehiago azpimarratuz. Eredu hori Ashoka³⁴ elkarteak oso ondo ordezkutzen du. Bigarren hurbilketak, berriz, indar berezia ipintzen du Berrikuntza Sozialaren prozesuen eta produktuen izaera kolektiboan. Gerturatze horretan, nahiz eta mikrosistemak uniformetasun sozial berriekin esperimentatzeko eremuak badiren ere, berrikuntza ez da ekimen arrazional eta borondatezko batetik bakarrik sortzen. Kasu honetan Berrikuntza Soziala egiturazko geldialdiak gizarte-mugimenduen ekimenekin lotuz garatzen da baita ere. Krisi garaietan, arau makro-sozialek (merkatua, estatua, negozio kolektiboa) astindu ederra jasotzen dute toki gehiago eginez berrikuntzarako eta esperimentaziorako. Lidergoa duten eragile sozialengatik eta tokian tokiko esperimentuetatik sortutako erregulazio berriak gero gizarte osora zabalduko dira.

Bigarren hurbilketa horretan Berrikuntza Sozialaren definizio zabalduenetakoa CRISES (Centre de Recherche sur les Innovations Sociales) erakundearena da: “Eragile Sozialek martxan ipini duten esku-hartze bat helburu bati erantzuteko, behar zehatzak betetzeko, irtenbide bat eskaintzeko edo aukera batez baliatu ekimenerako giza harremanak aldatzeko, Ekintzarako esparrua eraldatzeko edo kultura-norabide berriak proposatzeko helburuarekin.” Lévesque-k (2006) CRISESen definizio hori ulertzen du esanez Berrikuntza Soziala behar zehatzei emandako erantzun bat dela baino baita ere Berrikuntza Sozialak aldaketa soziala bultzatzen duela ikusmen berri baten bitartez arazoak ikusi eta definitzeko eta bidez batez arazo horiei irtenbideak proposatuz.

CRISESek Berrikuntza Sozialaren lau mota desberdin antzematen ditu (Bouchard, 2013): i) ekoizpen erlazioak (langileen konpromisoak eta parte hartzeak, lan-antolaketa eredu berriak, autogestio negozioak sortzea, langile-funtsak eta laneratze-entresak); ii) kontsumo erlazioak (erabiltzaileen konpromisoak eta parte hartzeak, pertsonentzako koprodukzio-zerbitzuak, programa berrien eta arau berrien koeraikuntza, kontsumo arduratsua, aisia eta turismo

³⁴ <https://www.ashoka.org/es>, Ashoka Elkarte, 2018/05/20 egunean begiratua.

arduratsua); iii) enpresen arteko harremanak (lankidetzeta eta norgehiagoka, merkatu ezaren interdependentzia-kanpo-efektuak eta enpresaren gizarte-erantzukizuna), eta iv) gizarte-harremanen eraketa espaziala (governantza modu berriak, Komunitatearen garapen ekonomikoa).

2.2.2 Taula: Berrikuntza Sozial mota desberdinak

Ekoizpen erlazioak: langileen eskuhartzea, lan-antolaketa eredu berriak, autogestio negoziok sortzea, langile-funtsak eta laneratze-enpresak.
Kontsumo erlazioak: erabiltzaileen inplikazioa eta parte-hartzea, pertsonentzako koprodukzio-zerbitzuak, programa berrien eta arau berrien koerakuntza, kontsumo arduratsua, aisia eta turismo arduratsua.
Enpresen arteko harremanak: lankidetzeta eta norgehiagoka, merkatu ezaren interdependentzia-kanpo-efektuak- eta enpresaren gizarte-erantzukizuna.
Gizarte-harremanen eraketa espaziala: governantza modu berriak, Komunitatearen garapen ekonomikoa.

Iturria: CRISES (Centre de Recherche sur les Innovations Sociales). Bouchard-en (2013) datuekin geuk egina

Gainera, Bouchard-entzat (2007) ekonomia sozial eta solidarioa Berrikuntza Sozialaren motor bat da. Alde batetik, Berrikuntza Sozialaren ikuspegi funtzionalagoa hartzen badugu, ekonomia soziala saiatzen da estatuak edo merkatuak betetzen ez dituen beharrak estaltzen. Bestetik, Berrikuntza Sozialaren ikuspegi eraldatzaileagoa aplikatzen badugu, ekonomia sozialak borroka sozialekin batera behar ekonomiko eta sozialei erantzuteko modu berriak asmatuko ditu, tokian tokiko arauak eta instituzioak goitik behera irauliz. Ekonomia sozialak Berrikuntza Sozial iraunkorrak eragiten ditu, antolaketa maila gaintu eta esparru instituzionala hunkitu ondoren gaur egungo eredu ekonomikoari alternatiba bat proposatuz (Bouchard, 2006).

Richez-Battesti, Petrella eta Vallade-rentzat (2012) Berrikuntza Sozialaren terminoa ere polisemikoa da eta horregatik definizio eta errealitate desberdinak biltzen ditu bere barnean. Egile hauek proposatzen dute Berrikuntza Sozialaren kontzeptuak hiru taldeetan sailkatzea:

(1) Politika publikoen modernizaziorako lanabesa. Ikusmolde horrek Berrikuntza Sozialaren antolaketa ahalmenari emango dio garrantzia. Bereziki aztertuko du zein den Berrikuntza Sozialaren gaitasuna erakundeak eraldatzeko. Partikularki erakunde publikoetan zentratuko

da, hauek lehiakorrakoak eta eraginkorrakoak bihurtzeko asmoz. Zehazki, gobernu eta nazioarteko erakunde batzuk Berrikuntza Soziala gizarte-politiken berrikuntzaren oinarria kontsideratuko dute. Hau da, gestio publiko berrituaren arauak kontuan hartuta eta zerbitzu publikoen eraginkortasuna eta lehiakortasuna lortzeko helburuarekin, Berrikuntza Sozialak ekimen publikoen formen eraberritzean parte hartuko du. Besteak beste, egunetik egunera zerbitzu publiko zuzen gutxiago ematen duen Estatuak ordezkatzeko prozesua bultzatzen da. Azken finean, Berrikuntza Soziala gizarte politika arloetan Estatuak eta Lurralde-erakundeek dituzten hutsuneak zuzentzeko erabiliko da.

(2) Enpresa-dimentsioa eraberritzeko tresna. Bigarren hurbilketa horrek Berrikuntza Sozialaren enpresa-ikuspegia garatzen duten lanak biltzen ditu. Kasu horretan, Berrikuntza Sozialak balioa emango dio aktore partikular kategoriatan, hain zuzen ere, enpresaburu sozialari. Ikerketa horiek saiatuko dira zehazten zer den enpresa edo enpresaburu sozial bat berrikuntza edo aldaketa prozesu bat abiapuntu bezala hartuta. Enpresa edo enpresaburu sozialaren kontzeptuak garapen handia eduki du 90. hamarkadaren hasieratik Amerikako Estatu Batuetan eta Europan. Harrez gero korrante desberdinak zabaldu dira bi kontinenteetan.

AEBetan, hain zuzen ere, bi pentsamendu eskola zabaldu dira. Alde batetik, merkataritza eskola. Hasiera batean, eskola honentzat enpresa soziala antolaketa modu bat zen irabazi-asmorik gabeko erakundearen finantza-arazoak konpontzeko. Gero, hasierako ikuskera hori zabaldu egin da eta gaur egun helburu sozial bat duen edozein merkataritza jarduera ekonomiko, irabazi asmokoa edo ez, enpresa sozial moduan kontsideratu daiteke. Ez hori bakarrik, txiroekin merkatu eta negozio berriak sortzen dituzten enpresa multinazionalak ere sar daitezke eredu horretan.

Bestetik, berrikuntza sozialaren eskola dago. Bigarren honek azentua ipintzen du enpresaburu sozialak duen berrikuntza sozialerako dinamikan. Bereziki, bere helburu soziala betetzeko, kontuan hartuko diren ezaugarriak bere profila, dinamismoa, kreatibitatea eta lidergoa izango dira. Eredu horretan berrikuntza soziala pertsonalizatu egiten da norbanakoa erakundearen gainetik jarriz. Enpresaria aldaketarako aktorea bihurtzen da, balioa sortzeko dauden aukerak aprobetxatuz. Balio hori agenteek merkatuan sortutako balioarengatik

ordainduko duten prezioarekin neurtuko da. Azken finean, enpresaburu soziala enpresaburu klasiko bat izango da, helburu sozial batek bultzatua. Hau da, balio soziala sortzen duten aldaketak proposatzen dituena.

Berrikuntza Sozialaren ikuspegi hori Ashoka bezalako fundazioek sostengatu dute. Europan, berriz, enpresa sozialak herrialde desberdinetan garatu dira helburu sozial bat lortzeko jardura ekonomikoak bultzatzeko arautegiak martxan ipini direnean. Genero horretako lehendabiziko legedia 1991an onartu zen Italian kooperatiba sozialak eratzeko. Testuinguru horretan egituratuko da EMES (Emergence des Entreprises Sociales) europar sarea, Ekonomia Sozial eta Solidarioa (ESS) edo gizarte zibilaren inguruan lanean dabiltzan ikerlariekin osatua. Europako enpresa sozial horien Berrikuntza Sozialaren ikuspegia AEBko ikuspegitik aldendu egiten da, ekonomia sozial eta solidarioko kontzepzioetara gehiago gerturatuz.

(3) Ekonomia sozial eta solidarioko aktore eta ikerlari desberdinek erabiltzen dutena. Azken hurbilketa honetan, Berrikuntza Sozialaren ikuspegi instituzionalagoa garatzen duten lanak bilduko dira. Hau da, alde batetik, gizartea eraldatzeko praktika berriak, arauak eta erregelak azpimarratuko dira. Eta bestetik, testuinguru instituzionalari eta lokalari garrantzia emango zaio. Ikuspegi horrek atentzio berezia jarriko du lurraldean sortuko diren prozesu Kolektiboetan asegabeko behar sozialak betetzeko, beti ere, gizartea eraldatzeko dinamika baten barruan. Berrikuntza Soziala ulertzeko modu hori 70. hamarkadan garatzen hasi zen. Bere barnean gizarte mugimenduek egindako presioari erantzuteko prozedura berriak, lotura berriak, zerbitzu berriak ikus ditzakegu. Gainera, Berrikuntza Sozial hori erabilera eta prozedura kolektiboaren konbinaketarengatik ezaugarritzen da eta, aldi berean, parte hartze zabalean oinarrituta. Eredu hori lokalizatutako berrikuntza sistema batean kokatzen da, aktoreen arteko lankidetzaren lurralde zehatz baten barnean garatuz. Esperimentazio horiek politikoki, sozialki edo kulturalki eremu emankorretan edo ez hain emankorretan garatuko dira. Berrikuntza Sozial horien hedapena eta instituzionalizazioa sostenguen eta indar korrelazioaren arabera gertatuko dira. Berrikuntza Sozialaren kontzepzio hori bereziki Bouchard, Klein, Harrison eta Lévesquek Montrealeko CRISES ikerketa laborategian eta Moulaertek Frantziako IFRESIn gauzatu dute.

2.2.3 Taula: Berrikuntza Sozialaren kontzepzio desberdinak

<u>Politika publikoen modernizaziorako lanabesa</u>	<u>Enpresa-dimentsioa eraberritzeko tresna</u>	<u>Ekonomia Sozial eta Solidarioak erabiltzen duena</u>
<p>-Berrikuntza Sozialaren antolaketa ahalmenari emango dio garrantzia.</p> <p>-Aztertuko du zein den Berrikuntza Sozialaren gaitasuna erakundeak eraldatzeko.</p> <p>-Partikularki erakunde publikoetan zentratuko da, lehiakoragoak eta eraginkoragoak bihurtzeko asmoz.</p> <p>-Gobernu eta nazioarteko erakunde batzuk Berrikuntza Soziala gizarte-politiken berrikuntzaren oinarria kontsideratuko dute.</p> <p>-Berrikuntza Sozialak ekimen publikoen formen eraberritzean parte hartuko du.</p> <p>-Azken finean, Berrikuntza Soziala gizarte-politika arloetan estatuak eta lurralde-erakundeek dituzten hutsuneak zuzentzeko erabiliko da.</p>	<p>-Berrikuntza Sozialaren enpresa-ikuspegia garatzen du.</p> <p>-Berrikuntza Sozialak balioa emango dio enpresaburu sozialari.</p> <p>-Ikerketa horiek saiatuko dira zehazten zer den enpresa edo enpresaburu sozial bat berrikuntza abiapuntu bezala hartuta.</p> <p>-Enpresa edo enpresaburu sozialaren inguruan AEBetan, hain zuzen ere, bi pentsamendu eskola zabaldu dira. Alde batetik, merkataritza eskola. Eta bestetik, berrikuntza sozialaren eskola.</p> <p>-Europar, berriz, enpresa sozialak herrialde desberdinetan garatu dira helburu sozial bat lortzeko jarduera ekonomikoak bultzatzeko arautegiak martxan ipini direnean. Testuinguru horretan egituratuko da EMES (Emergence des Entreprises Sociales) europar sarea, Ekonomia Sozial eta Solidarioa (ESS) edo gizarte zibilaren inguruan lanean dabiltzan ikerlariekin osatua.</p>	<p>-Berrikuntza Sozialaren ikuspegi instituzionalagoa garatzen du.</p> <p>-Gizartea eraldatzeko praktika berriak, arauak eta erregelak agertuko dira.</p> <p>-Testuinguru instituzionalari eta lokalari garrantzia emango zaio.</p> <p>-Atentzio berezia jarriko du lurraldean sortuko diren prozesu kolektiboetan asegabeko behar sozialak betetzeko.</p> <p>-Berrikuntza Sozial hori erabilera eta prozedura kolektiboaren konbinaketarengatik ezaugarritzen da.</p> <p>-Parte hartze zabalean oinarritzen da.</p> <p>-Politikoki, sozialki edo kulturalki eremu emankorretan edo ez hain emankorretan garatuko dira.</p> <p>-Berrikuntza Soziala ekimen lokal bat bezala definitzen da, behetik gorakoa, gobernuarena ez dena eta gizakien beharrak betetzera zuzenduta dagoena.</p>

Iturria: Richez-Battesti et al.-en (2012) datuekin geuk egina

Zentzu horretan Berrikuntza Soziala ekimen lokal bat bezala definitzen da, behetik gorakoa, gobernuarena ez dena eta gizakien beharrak betetzera zuzenduta dagoena. Gainera inklusiboa eta parte hartzailea da. Berrikuntza Sozial mota hori garatzeko beharrezkoa da gai sozialetan eta harreman instituzionaletan aldaketak eragiteko ahalmena indartzea. Aldi berean galdera nagusia da nola pasa esperimendazio fasetik, difusiora eta orokortzera.

Erronka da nola artikulatu behetik gorako Berrikuntza Soziala botere maila desberdinetako politika publikoetan parte-hartzeko eta aitortua, hedatua eta sendotua izateko. Ez hori bakarrik, maiz Berrikuntza Sozialak multzoka garatzen dira. Funtsezko Berrikuntza batek bere inguruan beste maila txikiagoko berrikuntzak eragiten ditu, aldaketa-olatu bat sortuz, ez bakarrik ekonomikoa, baita ere soziala, politikoa eta kulturala. Ezin dugu ahaztu ere ikuspegi honetatik Berrikuntza Sozialak harreman estua duela ekonomia sozial eta solidarioarekin.

Berrikuntza Sozialaren korrante bakoitza bere taldean kokatzeko Richez-Battesti et al.-ek (2012) hiru aldagai kontuan hartuko dituzte:

(1) Berrikuntzaren izaera eta sortzeko eta zabaltzeko prozesua. Gaur egun berrikuntzaren izaerari buruzko adostasunik badago hori da Berrikuntza Soziala aldaketa prozesu bat kontsideratzen delako. Nolanahi ere, ez da egokia Berrikuntza Soziala berrikuntza teknologikoarekin zuzenean lotzea. Nahiz eta gizartearen aurrerapenean teknikaren pisua garrantzitsua izan, arrazoi desberdinak eramaten gaitu hazkundera eta garapen soziala dakarren aurrerabide teknikoaren eredua kritikatzera. Berrikuntza Sozialaren terminoak duen funtzioa berrikuntzaren helburu soziala baloratzea da eta, aldi berean, berrikuntza teknologikoaren ondorio negatiboak leuntzea. Hain zuzen ere, askotan berrikuntza teknologikoak, doikuntzak ez badira martxan ipintzen, desoreka garrantzitsuak sortzen ditu, bereziki epe motz eta epe erdiko desoreka sozialak.

Berrikuntza Soziala martxan ipintzea modu bat da berrikuntza teknologikoaren gaizki-esaleak egiten dituzten kritikak errotik mozteko eta bide batez berrikuntza prozesua legitimatzeko. Aurkeztutako hiru ikusmolde desberdin horietan Berrikuntza Sozialak behar sozial gehiago edo gutxiago betetzen ditu. Gainera, kontuan hartuko dira Berrikuntza Sozialean parte hartzen duten aktoreak eta Berrikuntza Soziala sortzeko behar diren oinarri desberdinak. Berriz, berrikuntzaren ikuspegi instituzionalagoa kontuan hartzen bada, azentua prozesuan ipini beharko dugu, hain zuzen ere ikastaldi eta aktoreen arteko koordinazio mailan. Bestalde, Berrikuntza Sozialak luzaro iraun nahi badu beste aktore askok hori bereganatu egin beharko dute Berrikuntza Soziala indartuta ateratzeko.

(2) Berrikuntzaren dimentsio “sozialaren” zentzua eta perimetroa. Aurreko atalean argitu den moduan berrikuntza ezaugarritzen dugu emaitzak ematen dituen aldaketarako eta ikasketarako prozesu jarraitu bat bezala. Berrikuntzari “sozial” hitza gehitzen badiogu ulertzen da bete gabeko edo gaizki betetako behar sozialei erantzuteko helburua duela. Hala ere, berrikuntzaren dimentsio “sozialaren” edukia argitzeko hiru aldagai aztertzen ditu. Lehenik, esku hartze sozialari buruzko esanahia dugu. Gaur egungo krisiaren testuinguruan ematen ari den bilakaera soziala, ekonomikoa eta demografikoa kontuan hartzen badugu Berrikuntza Soziala agertzen da tresna eraginkor bat bezala pobrezia eta bazterketaren aurka borrokatzeko. Irtenbide berritzaileak lortu daitezke aktore pribatuen kreatibitatea lankidetzaren dinamiketan garatuz edo aktore publiko eta pribatuen arteko lankidetzaren erabiliz. Azken finean, Berrikuntza Soziala gauzatzen da behar sozialei erantzuteko borondatea dagoelako.

Bestetik, gizarteari buruzko esanahia dago. “Sozial” hitza zabaldu daiteke beste gizarteko dimentsio bati erantzuteko, adibidez ingurumena babesteko, berrikuntzari ikuspegi globalago bat emanez. “Sozial” hitzari eduki zabalago bat emanez berrikuntzaren helburua handitu egiten dugu gizartearen eraldaketara bideratuz. Azkenik, antolaketari buruzko edukiarekin amaitzen da. Berrikuntza Sozialari antolaketan oinarritutako beste irakurketa bat ematea ere litekeena da. Hau da, aztertu dezakegu zein izan den antolaketa-bilakaera erakundearen eraginkortasuna hobetzeko. Garrantzitsua da antolaketa forma berritzaileak garatzea lankidetzaren bultzatzeko eta bide batez zerbitzuak hobetu eta behar berriei aurre egiteko. Gainera, estatus juridiko berriek aukera ematen dute lankidetzaren forma berriak antolatzeko, jarduera, sektore edo lurralde zehatz bateko aktore desberdinen artean baliabideak partekatuz. Ikuspegi honetan ere mahai gaineratzen da ikasteko ahalmena eta lan antolaketaren modu berrien esperimentazioa.

(3) Erakunde “berritzailearen” ezaugarriak eta bereziki bertan parte hartzen duten esku-hartzaileen partaidetza eta gobernantza moduak. Berrikuntza Sozialaren ikusmolde desberdinek ez dituzte berrikuntza guztiak ekintzailatza-proiektu berdinean sartzen. Horregatik aztertu egin behar da berrikuntzak sortu, egonkortu eta zabaltzen dituzten erakundeek zer nolako ezaugarriak dituzten.

2.2.4 Taula: Berrikuntza Soziala kokatzeko aldagaiak

(1) Berrikuntzaren izaera eta sortzeko eta zabaltzeko prozesua.	(2) Berrikuntzaren dimentsio "sozialaren" zentzua eta perimetroa.	(3) Erakunde "berritzailearen" ezaugarriak
<p>-Berrikuntza Soziala aldaketa prozesu bat kontsideratzen da.</p> <p>-Berrikuntza Sozialaren terminoak duen funtzioa berrikuntzaren helburu soziala baloratzea da eta, aldi berean, berrikuntza teknologikoaren ondorio negatiboak leuntzea eta kritikak errotik moztea.</p> <p>-Berrikuntza Sozialak behar sozial gehiago edo gutxiago betetzen dituen aztertu.</p> <p>-Kontuan hartu Berrikuntza Sozialean parte hartzen duten aktoreak eta Berrikuntza Soziala sortzeko behar diren oinarri desberdinak.</p> <p>-Berrikuntzaren ikuspegi instituzionalagoa kontuan hartzen bada, azentua prozesuan ipini beharko dugu: ikastaldi eta aktoreen arteko koordinazio maila nolakoa izan den.</p> <p>-Berrikuntza Sozialak luzaro iraun nahi badu beste aktore askok hori bereganatu egin beharko dute Berrikuntza Soziala indartuta ateratzeko.</p>	<p>-Berrikuntzari "sozial" hitza gehitzen badiogu behar sozialei erantzuteko da.</p> <p>-Berrikuntzaren dimentsio "sozialaren" edukia argitzeko hiru aldagai aztertzen ditu:</p> <p>1) <u>Esku hartze sozialari buruzko esanahia:</u></p> <p>-Pobrezia eta bazterketari aurre egiteko.</p> <p>-Irtentze berritzaileak asmatzeko lankidetzaren dinamikan.</p> <p>2) <u>Gizarteari buruzko esanahia:</u></p> <p>- "Sozial" hitza zabaldu gizarteko beste arloetara: ingurumenera, berrikuntza ikuspegi globalagora.</p> <p>- "Sozial" hitza gizartearen eraldaketara bideratu.</p> <p>3) <u>Antolaketari buruzko edukia:</u></p> <p>-Aztertu antolaketa bilakaera erakundearen eraginkortasuna igotzeko.</p> <p>-Antolaketa forma berritzaileak landu. Helburua lankidetzaren garatu, zerbitzuak hobetu eta behar berriei aurre egin.</p>	<p>-Aztertu berrikuntzak sortu, egonkortu eta zabaltzen dituzten erakundearen ezaugarriak.</p> <p>-Ikusi ea ekintzaitza edo aktoreen arteko lankidetzaren berrikuntzaren iturri den.</p> <p>-Begiratu antolaketaren izaera indibiduala edo kolektiboa den. Ekintzaitza sozialaren ezaugarria edo dimentsio kolektiboa.</p> <p>-Gobernantza eta prozesu demokratikoak nola gauzatzen diren.</p> <p>- Zeintzuk dira antolaketan parte hartzen duten partaideak?</p> <p>- Nork hartzen dituzte erabakiak?</p> <p>-Gobernatzeko modu demokratikoa al dago?</p> <p>-Mozkinen birbanaketa indibidualaren maila.</p> <p>- Gobernatzeko egitura.</p> <p>-Erabilitako baliabideak eta finantza autonomiaren maila.</p>

Iturria: Richez-Battesti et al.-en (2012) datuekin geuk egina

Alde batetik, ekintzaitza edo aktoreen arteko lankidetzaren berrikuntzaren iturri izan daiteke. Azterketaren dimentsio bat antolaketaren izaera indibiduala edo kolektiboa ikustea da. Puntu honetan aurkako bi ikuspegik talka egiten dute. Alde batetik, amerikar pentsamendu eskolak ekintzaitza sozialaren ezaugarriari ematen dio garrantzia Berrikuntza Soziala sortu, zabaldu eta egonkortzeko. Bestetik, europar enpresa sozialak eta instituzionalagoa den ikuspegiak antolaketaren dimentsio kolektiboa azpimarratzen dute. Azken ikuspegi honetan, Berrikuntza Soziala enpresa kolektibo batean garatzen da, partaidetza-gobernantzan oinarrituta. Gainera, bertako partaide desberdinek aukera dute Berrikuntza Soziala

eskuratzeke. Hain zuzen ere, ikuspegi horrek ondorio desberdinak ditu. Hasteko, enpresa-eredua ez da gehiago gauza bihurtuko (kosifikatu). Hau da, partaide askoren lankidetzaz gauzatzen da oinarritik datorren proiektu bat burutzeko, epe luzeko talde interesa defendatzeko eta balioaren kontzepzio originalera bihurtzeko. Gainera, Berrikuntza Soziala bere sorrera eta zabalkundea posible egiten duten prozesuetan kokatzen da eta ez erabilpenean eta aktoreen jabegoan.

Puntu garrantzitsu bat aktoreen parte hartzea eta ekintzailtza da lurraldearen gainean eragiteko ahalmena berrindartzeko. Azken finean, Berrikuntza Soziala ez da pertsona-kategoria zehatz baten ardura. Hala ere, Berrikuntza Sozialak, lankidetzaz eta ikasketa kolektiboak bultzatzen dituzten erakundeetan, baliabide heterogeneoak mobilizatzeko gaitasuna erakusten du. Zentzu horretan ekintzailtza kolektiboa, aktoreak eta baliabideak mobilizatzeko asmoarekin, lurraldean zentratzen da. Ondorioz, Berrikuntza Soziala arau eraldaketaren lankidetzaz berrituaren eta lurralde txertaketaren prozesu bat da epe luzerako kanpo-efektu positiboak borondatez ekoizteko helburuarekin. Egindako ekoizpenak helburu hirukoitzaz edukiko du. Lehenik, aukera bat da, prozesu parte-hartzaile eta inklusibo baten barruan, batera lan egiteko. Bestetik, erabilera kolektiboa bultzatuko du. Eta azkenik, ondorioek helburu indibidual soila gaindituko dute.

Bestetik, berriz, gobernantza eta prozesu demokratikoen erronkak azpimarratzeak merezi du. Berrikuntza Sozialari buruz europar enpresa sozialaren kontzepzioan eta antolaketaren hurbilketa instituzionalean hitz egiten dugunean onartzen dugu bere barnean demokrazia, lankidetzaz-gobernantza eta ekonomia sozial eta solidarioko kalitate bikoitza doala. Edo bestela arriskua daukagu Berrikuntza Sozialaren terminoaren itxurakeriako planteamendu bat egiteko enpresa hori kolektiboa, demokratikoa, parte hartzailea edo irabazi asmorik gabekoa izan edo ez izan. Zeintzuk dira antolaketan parte hartzen duten partaideak? Nortzuk hartzen dituzte erabakiak? Gobernatzeko modu demokratikoa al dago? Hau da, helburu sozial bat bilatzearekin batera antolaketa eredian ezaugarrituko dira hurrengo hiru dimentsioen arabera:

(1) Mozkinen birbanaketa indibidualaren maila kontuan hartzen badugu, irizpide horren arabera erakunde batzuk zorrozki irabazi asmorik gabekoak dira. Beste batzuk, irabazi

mugatuak dituzte eta azken batzuentzat, berriz, oso garrantzitsua da irabaziak maximizatzea helburu sozialak bete arazteko.

(2) Gobernatzeko egitura aztertzen bada, berriz, kontuan hartuko da, alde batetik, jabetza eskubideak parte hartzaile baten edo askoren eskuetan dauden, bestetik erabakitze demokratikoaren prozesuaren izaera eta azkenik, antolakundearen barruan kalitate bikoitzaren printzipioa aintzat hartzen den parte hartzea eta eztabaida bultzatuz.

(3) Azkenik, mobilizatutako baliabideak eta finantza autonomiaren maila ikusten badugu, dimentsio honen barruan aztertuko dira, hasteko, baliabide filantropikoak eta borondatezkoak, gero erakundearen aurrekontuan merkatukoak eta ez-merkatukoak diren baliabideak eta, azkenik, baliabideen hibridazioa edo kapital pribatuen ekarpena finantza autonomia bermatzeko.

Richez-Battesti et al.-en (2012) hausnarketari jarraituz goian aipatutako hiru dimentsio horien artikulazio desberdinek aukera ematen dute Berrikuntza Soziala barnean daramaten antolamendu desberdinen tipologiak zirriborrazteko. Euren ustez hiru dimentsio horien konbinaketek eredu kapitalistaren doiketa edo aldaketa erradikalagoak eragiten dituzte. Gizarte-eraldaketarako hazia bere barnean eraman edo ez, Berrikuntza Sozialaren kontzepzio horiek elementu amankomun batzuk dituzte. Alde batetik, berrikuntzaren kontzepzioa zabaltzeko egiten dute dimentsio ez teknologikoetara. Eta bestetik, Berrikuntza Sozialak erantzun sortzailea ematen die bete gabeko behar sozialei. Dena dela, hiru kontzepzio horiek sozial hitza oso era desberdinean definitzen dute. Espektra oso zabala da. Mutur batean, ekimen soziala txiroenei merkatura iristeko aukerak ematea kontsideratzen da eta beste puntan ekimen soziala aktoreen artean lankidetzaren berri bat bultzatzea izango litzateke. Ekintzailetzaren izaera ere asko aldatzen da kontzepzio batetik bestera bereziki galdetzen dugunean zein den Berrikuntza Sozialak daukan gobernantza eredua.

Richez-Battesti et al.-entzat (2012) Berrikuntza Sozialaren lehenbiziko arriskua tokian tokiko esparruan gelditzea da, berrikuntzaren aldeko giro instituzionalik ez dagoen tokian edo parte hartzeko edo berrikuntza zabaltzeko eta iraunkortzeko ahalmenik ikusten ez denean. Esperimentaziotik ez da generalizaziora pasako eta bide batez ez da iritsiko lurraldeen artean

praktika egokiak elkar trukatzera. Bigarren arriskua, berriz, Berrikuntza Soziala ospetsu izatetik erraz pasa daiteke erretorika hutsera distantzia txikia dagoelako batetik bestera. Arrisku horiek ekonomia sozial eta solidarioko aktoreetako zati batek ondo identifikatuta ditu. Aktore horiek azpimarratzen dute enpresa kolektiboek egin duten ekarpena. Baina aldi berean beldurra diote Berrikuntza Soziala “modan jartzeari” eta termino horren azpian ematen den edozein aktibitate justifikatzea, antolaketaren proiektu soziala alde batera utziz. Azken finean, kolektiboki onartutako irizpide argi batzuetan oinarritutako definiziorik ez egoteak Berrikuntza Sozialaren kategoriaren erabilpena aktoreek palanka bezala erabiltzen duten tresna bat da beren ekimenen garapena sustatzeko. Bide horretatik, adibidez, egileentzat Berrikuntza Soziala 2020rako europar estrategian sartzea aukera bat da. Baina aukera hori elkarteen esparrurako oztopo bat bihurtu daiteke estrategia hori esku hartze publikoaren atzera egite masiboarekin lotzen bada eta aldi berean Berrikuntza Soziala irabazi asmoko enpresen garapena bermatzeko tresna bat bezala ulertzen bada.

Hain zuzen ere, autore desberdinen hausnarketak ikusita ondorioztatu dezakegu gaur egun erronka bat dela Berrikuntza Soziala gizarte-eraldaketa proiektu baten alde ipintzea. Hain zuzen ere, Berrikuntza Soziala ulertzeko modu asko daudela ikusi dugu. Autore batzuk pentsatzen dute berrikuntzari buruz hitz egiteko nahikoa dela praktika zahar bat egokitzea, ideia bat beste testuinguru batean aplikatzea edo bazterketa sozialari aurre egiteko edozein neurri hartzea. Beste batzuk, berriz, ezinbestekoa ikusten dute errotikako iraulketa bat ematea, haustura bat burutzea, izaeran, bitartekoetan eta antolaketa moduan. Horregatik, argi gelditu da Berrikuntza Sozialaren hitzarekin nahasketa handia sortzen dela Berrikuntza Sozial mota guzti horiek esanahi berdin baten azpian biltzen direlako eta bide batez eraldaketa sozial erreal baten aldeko Berrikuntza Sozialak zurrumbilo horren barruan galduta eta urardotua agertzeko arriskua dagoelako. Dena dela, ikerketa honen asmoa da Gizarte-eraldaketan oinarritutako Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen zimenduak antolatzea neoliberalismoaren gaurko fasea zalantzan jartzeko eta gizarteari bide berriak irekitzen joateko.

2.3 Berrikuntza Soziala abiapuntu

Moulaert et al.-ek (2013) azpimarratzen dute Berrikuntza Sozialari buruz hitz egiten dutenean irtenbide aurrerakoiak bilatzen ari direla besteak beste bazterketa, eskasia, alienazioa eta ongizate faltari aurre egiteko. Hau da, aurrerapen soziala eta garapena bultzatzeko tresna bezala identifikatzen dute. Egile hauentzat Berrikuntza Sozialaren eginkizun nagusi bat bazterketa eta behar egoerei era egokian erantzuteko ekimen kolektibo eta eraldaketa sozial mota desberdinak definitzea da. Berrikuntza Sozialarekin anbizio politiko-ideologikoa martxan ipini nahi dute teoria horiek aplikatuz eta garapen politikan nagusi izan diren teknologian eta negozioan oinarritutako diskurtsoei alternatiba bat eskainiz.

Hain zuzen ere, Moulaert et al.-ek (2013) Berrikuntza Soziala ikuspegi epistemologiko batetik aztertzen dute arlo politiko eta sozialari garrantzia emanez eta garapen alternatiborako estrategia bateko osagai nagusi bat bezala aldarrikatuz. Berrikuntza Soziala aurkezten dute askotariko disziplinen arteko ikerketaren ardatz eragile moduan eta aldi berean Jarduera Kolektiboaren gidari.

Egileen ustez Berrikuntza Sozialak inklusioa eta ongizatea bultzatu behar du giza harremanak hobetuz eta prozesuak indartuz. Hain zuzen ere aldaketa sozial berritzaileak emateko giza harremanak hobetu behar dira. Gainera, Berrikuntza Sozialak arazoak konpontzen baditu giza izaera hobetuz eta gizartearen beharrak asebetez orduan Berrikuntza Sozialak, kontzeptu zientifiko bezala, giza existentziaren hobekuntza, batera bizitzearekin oreka hobea lortzea, pertsonen arteko harremanak garatzea eta giza izaera ontzeko ekinbideak martxan ipintzea bilatu beharko luke. Bestalde, Berrikuntza Soziala ibilbidearen eta testuinguruaren menpe dago. Kontuan hartzen ditu baztertutako talde edo norbanakoak gizarteko esparru desberdinetan hobeto integratzeko martxan ipintzen diren aldaketak eta agendak, agentziak eta erakundeak. Berrikuntza Soziala, hein handi batean, aldaketen berrikuntza prozesu bat da eta, aldi berean, gizarte harremanen dinamikak dira, botere harremanak barne.

Hau da, Berrikuntza Sozialak Inklusio sozialari buruz hitz egiten du eta horretarako batzuetan bazterketa soziala iraunarazi nahi duten indar kontserbatzaileak gainditu behar ditu. Azken

finean, Berrikuntza Sozialak justizia sozialaren aldeko aldarrikapena darama bere barnean. Bestalde, Berrikuntza Sozialaren beste definizio batzuk utopiak sortzeko gaitasuna azpimarratuko dute. Mikro eskalako aukera espazioek makro eskalako estrategia sortzaileak eratu ditzakete. Hain zuzen ere azpimarratzen da zein garrantzitsuak diren komunitate txikietako norbanako eta taldeen ekimenen arteko harremanak eta horrekin batera lotura horiek duten garrantzia sozialki sortzaileak diren makro/mikro estrategiak eraikitzeke eta, bide batez, horiek erraztuko dituzten erakundeak bultzatzeko. Ikusten denez definizio guzti horietan beti giza kondizioa agertzen da, besteak beste gizarte-bazterketa gainditu, zerbitzuen kalitatea igo, bizi baldintzak hobetu edo ongizatea garatzeko. Horrek esan nahi du Berrikuntza Soziala ezin dela inoiz bere testuinguru sozio-kultural edo sozio-politikotik aldendu. Aldi berean, modu demokratikoan jarraitzeko, konpromiso bat eskatzen du ikerketarekin giza kondizioaren hobekuntzan arduratzen diren aktore guztiak inplikatzu eta ikerketa ekimen transdisziplinarioen ereduak eraikiz.

Gainera, Berrikuntza Sozialaren bitartez eraiki nahi den eredu berri hori koherentea izan behar da globalizazioak ekarri dituen sozietate konfigurazio berriekin baina aldi berean hiritarrei eman behar die aitorpena eta ahalmen erreala beren eskubideak eta ardurak gauzatzeko (Lévesque, 2011). Zalantzarik gabe, gaur egungo globalizazio prozesua ikus daiteke batera bizitzeko dinamika inklusibo, solidario eta ekologiko baten aldeko aukera historiko bat bezala. Ikuspegi hori guztiz txertatuta dago hiritarren mugimenduen aldarrikapenekin (Klein eta Harisson, 2010). Ekimen kolektibo berri horiek erabiliz sortuko dira berrikuntza sozialak han eta hemen, gobernamentu arloan, finantzetan, ingurumenaren babesaren atalean, pobreziaren kontrako borrokan, kulturen, gizarteratze politketan, ea.(Klein et al., 2010). Berrikuntza horiek estrategia politiko, ekonomiko, sozial eta ekologiko global baten erreferenteak bihurtu behar dira eta eragina eduki beharko dute Estatuan, kapital pribatuan eta gizarte zibileko aktoreetan ez bada nahi eredu kapitalistak berrikuntza horiek erabiltzea bere makinariaren eraginkortasuna handitzeko (Peck, 2013).

Moulaert et al.-entzat (2013) Berrikuntza Sozialaren ikerketaren nukleoa modu analitiko eta aktibistaren bitartez giza garapenaren baldintza kaskar eta ezustekoei erantzutea izan bada, honek erronka epistemologiko partikular bat dakar. Hau da, jakinduria eraikitzeke sistemak

ez ditu bakarrik sistema politiko-ideologikoaren erlazioak, instituzionalizazio baztertzailerak eta jarrera kolektiboak kritikoki hausnartu behar. Aldi berean, ahalmena erakutsi behar du estrategia alternatiboetarako eta garapen prozesuetarako aukerak bilatzeko. Hori egiteko ez da nahikoa buruari galdetzea zer aztertu eta nola aztertu. Baita ere, garrantzitsua da zehaztea nola antolatu eta legitimatu jakinduria ekoizteko sistema. Horrek esan nahi du agerian utzi eta ordezkatu egin beharko zirela Berrikuntza Sozialaren emantzipazio helburuekin bat ez datozen ikerketa akademikoaren paradigma nagusiaren alde horiek. Baita ere, Berrikuntza Sozialeko ikerlariek konplexutasunarekin jokatzen jakin beharko dute, bai teoriak aztertzerakoan eta baita ere horiek praktikan ipintzeko garaian. Gainera, gizarte-eragileek toki bat eduki beharko dute marko teorikoa eraikitzeko garaian.

Moulaert et al.-eri (2013) jarraituz gaur egun Berrikuntza Sozialaren bitartez ukitzen den problematika soziala konplexuagoa bihurtu da, bereziki nozitzen den krisi sozio-ekonomikoa, sozio-politikoa eta sozio-ekologikoa elkar elikatzen ari direlako. Horregatik, momentu honetan, Berrikuntza Sozialaren terminoaren erabilera zalantzarri bihurtu da. Alde batetik, eraldaketa soziala bilatzen duten mugimendu sozial eta politikoentzat erreferentzia-puntu garrantzitsua bihurtu da. Baina bestetik, Berrikuntza Soziala erabiltzen ari da hurbilketa berri bat bultzatzeko, hots, ongizate-estatuaren krisiaren testuinguruan ekonomia sozial “merkearen” bitartez lanpostu berriak sortzeko eta zerbitzuak pribatizatzeke.

2.4 Berrikuntza Sozial Eraldatzailea: beste eredu alternatibo bat eraikitzeke tresna

Ondorioz, goian aipatutako autoreentzat Berrikuntza Sozialak esanahi politiko-ideologiko sendoa dauka. Giza garapena bilatzen duten mugimendu sozial eta politikoentzat gida indartsua da. Bestalde, literatura akademikoan Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen terminoa ere erabilia izan da Berrikuntza Sozialaren mota zehatz bat ezaugarritzeko. Hain zuzen ere, korrante neoliberaletik urruntzen den Berrikuntza Soziala definitzeko. Hala ere, Novy-ren (2017) arabera, termino hori mehatxu bat bihurtu da askotan Berrikuntza Soziala erabili delako neoliberalismoaren alde gizatiarra indartzeko. Bereziki joera hori arriskutsua bihurtu zen Durao Barrosoren Europar Batzordeak Berrikuntza Soziala hartu zuenean 2008ko Atzeraldi Handiaren krisi soziala konpontzeko. Ikuspegi horretatik Berrikuntza Soziala ekintzaile sozialen sustapenera eta kuasimerkatuen eraketara murrizten joan da (Jenson,

2015). Gaur egun, Berrikuntza Sozialen politiketan arreta zentzuzko ekimenetan jartzen da zatikako aldaketak martxan ipintzeko, epe motzean. Ekimen horietan inork ez du zalantzan jartzen eraginkortasuna handituz gutxiagorekin gehiago egiteko filosofia. Ez eta ere pizgarriak ematea hiritarrek gizarte gaietan gehiago parte har dezaten. Hala ere, emaitza horiek egunetik egunera problematikoagoak bihurtzen dira. Alde batetik, neurgarria den eragin sozial bat lortzen bada ere irtenbide azkarrak eta agerikoak eskainiz, bestetik berriz epe motzeko emaitza arin horiek ez dute uzten gaur egungo askotariko krisiaren zergatietan sakontzen. Hain zuzen ere, egitura arazoaren zergatiak ulertu gabe ekimenak ezin du inoiz garrantzizko dimentsioa duen arazo bati erantzun eta bere gaitasunak ezagutu. Hau da, eraginik gabeko dinamika bihurtzen dira. Kapitalismoaren eraberritzeari buruzko teoria on bat behar da edozein eraldaketa dinamika eraginkor martxan ipintzeko.

Novy-ri (2017) jarraituz zenbait saiakera desberdin ikusiko dira Berrikuntza Sozial Eraldatzailea definitzeko, Berrikuntza Sozialaren bertsio erradikalak aurkezteko, kausei aurre egiten saiatzen direnak, botere erlazio desorekatuak eta merkatu-ekonomia kapitalistaren arazo sistemikoak azaleratzen dituztenak. Horien artean, Frank Moulaerten ekipo akademikoak, TRANSIT ikerketa proiektuak eta Mangabeira Ungerrek azterketa desberdinak egin dituzte Berrikuntza Sozialaren eraldaketa-ahalmena erakusteko.

Frank Moulaerten ikerketa tradizioak beti azpimarratu izan ditu Berrikuntza Sozialaren ahalduntze eta eraldaketa dimentsioak (Moulaert, MacCallum, Mehmood eta Hamdouch, 2013). Moulaertek argudiatzen du Berrikuntza Soziala praktika bat dela giza-zintzotasuna zentzu zabalean hobetzeko, garapen eta hazkunde materialistatik haratago joanez. Gainera, nabarmentzen du Berrikuntza Sozial horren helburu nagusiak, besteak beste, erakundeak eraldatzea, botere-egitura zapaltzaileak kentzea, bete gabeko beharrak lortzeko ekimen kolektiboak burutzea eta behetik gorako giza-erlazioen ahalduntzea direla. Ondorioz, edozein ikerketan teoria praktikarekin lotu behar da ekintza eta hausnarketa elkarlotuta doazelako.

Giza-harremanak eraldatzera bideratutako Berrikuntza Sozialak teoria eta metodo honekin batera ikerketa diseinu egokia behar du. Jakinduria praktikoa aproposa eta eraldaketa soziala batera doaz. Moulaertentzat Berrikuntza Soziala ezin da ekimen zehatzetan bakarrik

oinarritu. Instituzio-egitura nagusiarekiko berritzailea izan beharko luke. Horregatik, ahalduntze kolektiboa sendotzea erabakiorra da giza-harremanak aldatzeko eta oinarrizko beharrak asebetetzeko. Hori gobernantza parte-hartzailearen eta gaitasunaren eraikuntzaren bitartez lortzen da. Alorrarteko jakintzen ikerketak aukerak zabaldu egiten ditu arlo desberdinetako profesionalak ikerketa prozesuan txertatuz eta bide batez errealitatea hobeto ezagutzen. Adibidez, kohesio soziala ezin da ulertu jakintzagai bakar baten bitartez eta horren ondorioz ezin zaio esparru zehatz bateko politika batekin bakarrik aurre egin. Askotariko ikuspegiak eta gerturaketak behar dira horrelako arazo bateri heltzeko. Hau da, multidimentsionalitatea jorratu behar da, zergatiak azpimarratuz eta egiturazko mekanismoak ezagutzen. Baina beti ere, aurre egin behar zaie egiturazko arazoei problematika zehatz horren azaleko konponketetan bakarrik gelditu gabe. Berrikuntza minimalista horiek, gabezi larriak dauden tokietan, bere horretan positiboak izan daitezke, baina ezin daiteke esan berritzaileak edo eraldatzaileak direnik, hain zuzen ere, eredu sozioekonomiko neoliberalarekiko menpekotasuna sakontzen dutelako. Gaur egungo sistema sozial eta politiko neoliberalaren mugak gaindiezinak direla onartzen bada orduan ezin izango da Berrikuntza Sozial Eraldatzailea aplikatu.

Beste ikerketa proiektu bat TRANSIT (2018) izenekoa da. Proiektu hori esplizituki Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen teoria aztertzeko jaio da eta bere asmoa aldaketa sakonak burutzea da. Ikerketaren diseinuan TRANSIT-ek (2018) hiru makro-dinamika ukitzen ditu: krisi ekonomikoa, aldaketa klimatikoa eta Informazio eta Komunikazio Teknologien (IKT) iraultza. Hiru makro-dinamika horiek forma hartuko dute ekimen berritzaileen bitartez. Maila desberdineko ikuspegia kontuan hartuz gero, proiektu horren ikerketa taldearen arabera Berrikuntza Sozialak praktika berriak maila mikroan egiteari garrantzia emango dio eta gainera aldaketa sakonagoak eragingo ditu berrikuntza, inflexio-puntu, aldaketa-kontakizun eta gizarte-eraldaketaren bitartez. Aldaketarako eta berrikuntzarako lau bide horiek batera garatzen badira aldaketa sozio-ekonomiko zabalagoa ekarriko du. Hala eta guztiz ere, behetik gorako ekimenen eta merkatu-ekonomia kapitalistaren egituraren arteko lotura oinarrizko lanketa ximple baten bitartez egiten da. Krisiaren fenomenoak deskribatzen denean ez da eraldaketarako teoria bat eraikitzen eta gainera hori ez da kausa-mekanismoekin lotzen. Novy-ren (2017) iritziz kasu praktikoen arabera ikusten da ea hori TRANSIT-eko

ikerketa enpirikoan lortzen den. Dena dela, hori ez da posible izango ez bada hausnarketa sakonago bat egiten boterea eta menpekotasunaren inguruan. Hori frogatzeko Novy-k (2017) Ashokaren kasua hartzen du. Ashokaren adibidea kasu egokia da tokian tokiko egitasmoak sare transnasionalekin lotzeko. Gainera Ashoka agente klabea da ImPROvE (2018) Europar ikerketa proiektuko “Energy for all” egitasmoa martxan ipintzeko. “Energy for all” proiektu horretan ikuspegi eraldatzailea hartzea suposatuko luke txiroak zorpetzera bultzatzen duten estrategiak kritikoki ebaluatzea. Jarrera horrek eskatzen du familia txiroen aldeko arreta handitzea zerbitzu publikoetara berdintasunez iristeko dauden egitura arazoak gaindituz. Paraleloki ikusten da diru publikoa erabiltzen ari dela bankuetako akzionistak salbatzeko eta horiek ez dira hiritar xumeak. Portaera horrek gobernantza eredu berrikuntza sozial asko zalantzan jartzen ditu, bereziki enpresa eta filantropiarekin elkarlanean burutzen direnak. Kapitalismoaren korrante nagusiak mugatzen duen berrikuntza sozialak erakusten du ahalduz prozesuetan premia handia dagoela botereari sentikorra izango den kontzeptualizazioa garatzea maniobra espazioak arakatzeko.

Novy-k (2017) Berrikuntza erradikalaren hirugarren mota bat aipatzen du. Mangabeira Ungerrek landu duena. Autore horrek Berrikuntza Sozial minimalista eta Berrikuntza Sozial maximalistaren kontzeptuak erabiltzen ditu. Berrikuntza Sozial minimalistak aurpegi gizatiarra jartzen dio bestela jasangaitza izango zen egoera bateri. Aldiz, Berrikuntza Sozial maximalistak aldaketa sakonak aldarrikatzen ditu. Ungerrek (2015) esperimendatzeko metodo berri bat eskaintzen du. Metodo horrek aldaketa lortzen du gizarte-ingeniaritza sozialdemokratatik aldenduz. Gerra ondorengo kapitalismoaren ongizate sozialdemokratarekin gizarte politika eraginkorra izan da. Eredu hori zentralista, burokratiko eta homogeneizatzailea kontsidera daiteke. Urteak joan ahala gizarte-ingeniaritza sozialdemokrata hori desegiten eta ospea galtzen joan ondoren eraldaketarako metodo aurrerakoi bat aurkitzeko premia behar bat sortzen da. Eraldaketarako metodo horrek beste mundu baten aldeko pentsamendu ameslaria gaur egungo errealitate pragmatikoarekin lotuko du. Ungerrek (2015) proposatzen duen esperimendazioak egitasmo bikoitza dauka, erradikala eta erreformista. Eskala txiki eta epe luzeko eraldaketen arteko dialektika hori konstruktiboki garatzeko berrikuntza sozial maximalistak behar dira, zatika eta graduala metodoetan baina bestalde erradikala asmoetan.

Novy-k (2017) berak ere bere Berrikuntza Sozial Eraldatzaile propioa lantzen du. Berarentzat Berrikuntza Sozial Eraldatzailea errealitatea bihurtze eta azaleratzearen prozesu iraunkorra bezala nabaritzen duen ontologian oinarritzen da. Novy-arentzat (2017) Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak errealismo kritikoa, transdisziplinaritatea eta pentsamendu utopikoa behar du. Eraldaketa ez da itxura aldaketa txiki bat, forma aldaketa sakon bat baizik. Eraldaketa horiek hobeto ulertzeko prozesuetan oinarritutako filosofiaren zientzia behar da. Hau da, errealitatea, natura eta gizartea aztertze prozeduran oinarritutako ulermena garatu daiteke. Eraldaketa kolektibo kontzienteak esan nahi du ikastea forma sozialak, erakundeak, diskurtsoak eta bizitzeko moduak aldatzeko.

Bestalde, errealismo kritikoa azpimarratzen du errealitate bat dagoela gure behaketatik eta kontzeptualizaziotik kanpo bizi dena. Horregatik errealitatera kritikoki eta kontzeptu egokiekin hurbildu beharra dago mundu erreala gure deskribapena baino gehiago delako. Errealismo kritikoa Berrikuntza Sozialaren ulermen maximalista eta erradikala da. Bere helburu utopikoa status quoa gainditzea da, bizitza hobe baten aldeko amets eta itxaropenetan oinarrituz. Errealismo kritikoa ikuspuntutik gaur egungo berrikuntza Sozial nagusiaren ikerketa eta politika kritikatu behar da oraingo errealitatea aztertzerako bakarrik mugatzen delako eta gaitasunezko etorkizun aurrerakoia kanpoan uzten dituelako.

Berrikuntza Sozialaren ikerlan ona egiteko aurrebaldintza ekintzaren ahalmena ez gutxiestea da. Ikuspenak, irudimenak eta utopia ez dira eginezinak, emantzipazioa eta iraunkortasuna erdiesteko ekintza eraldatzaile eraginkorra egituratzeko erabakitzaileak baizik. Erreforma eta iraultzaren tentsioa jasagarria egiteko utopia zehatzaren kontzeptua lagungarria izan daiteke. Utopia zehatzak urrats bideragarriak behar ditu potentzialak eguneratzeko eta kapitalismoa gainditzeko joateko. Hau da, utopiek epe motzean eraginkorra izan daitekeen estrategia erreformista gidatu dezakete baina, aldi berean, utopiek aldaketa erradikalagoa burutzeko indarra dute. Berrikuntza Sozial Eraldatzailea kontziente da muga egituralak eta interes zapaltzaileen botereak daudela eta horiek gainditzeko eraldaketa bikoitza behar dela.

Hala ere, Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen gerturaketa desberdinak aurkeztu ondoren gure ikerketa honetan urrutirago joan nahi da. Berrikuntza Sozialari “Eraldatzailea” terminoa gehitzen zaio kapitalismoari aurre egingo dion beste eredu alternatibo bat eraikitzeo tresna egokia izan nahi duelako.

Berrikuntza Sozial Eraldatzailearekin apustua eta nahia beste garapen eredu alternatibo bat eraikitzea da. Planetaren etorkizuna bermatu nahi bada, lurraren bioaniztasun ekologikoa, kulturala eta linguistikoa gorde nahi bada, mundu parekidea, justu, bidezkoa eta solidarioa eraiki nahi bada beharrezkoa da beste gizarte alternatibo baten alde lan egitea. Hala ere, ez da lan erraza neoliberalismoa garaitzea baina bai ezinbestekoa gaur egungo eredu ekonomiko nagusiak dakarren dualizazioa eta injustizia gainditzeko. Bide luze eta malkartsu hori egiteko hemen zehazten den Berrikuntza Sozial Eraldatzailea lanabes egokia izan daiteke. Azken finean, gizartearen eraldaketara bideratutako Berrikuntza Sozialaren kontzeptuak, teoriak, praktikak eta estrategiak elkarlotu egin behar dira inongo bazterketarik gabeko mundu bat eraikitze bidean urrats sendoak emateko. Hau da, beste eredu ekonomiko alternatiboaren bidean Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen kontzeptua mahai-gaineratu nahi da. Horretarako garrantzitsua da Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen rola ondo finkatzea eta diskurtso sozio-politiko alternatiboak eraikitzea aldaketa sozialaren aldeko potentzialtasuna garatzeko. Lehiakortasunaren tesiaren aurrean Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak antitesi bat eskaintzen du eta, era berean, elkartasunezko kontra-ideologia iradokitzen du. Aldi berean, Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak mobilizatzeko berezko joerarekin batera kapitalismoak eragindako bazterketa, alienazioa eta baliabideen eskasiaren aurka agertzen da. Sarritan zapaltzailea den egitura instituzional nagusiaren kontra erreakzionatzea Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen eginkizun oso garrantzitsua izan beharko luke.

Zentzu horretan, Berrikuntza Sozial eraldatzaileak indarra erakusten du neoliberalismoaren aurrean beste eredu transformatzaile sendo eta posible bat eraikitzeo. Bide horretatik, Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak neoliberalismoaren alternatibaren oinarria indartzea du helburu. Eta zimendu hori eraikitzeo elkartasuna, integrazioa eta elkarlana bultzatzen du indibidualismoa, sektorializazioa eta zatiketa alboratuz. Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak ere

berrikuntzaren aplikazio eta interpretazio ekonomikoen aurrean mobilizatorako indar argia agertu behar du. Ikuspegi zientifiko batetik hartuta, Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak erakusten du bere helburua teoriatik praktikara zuzendutako ikerketa metodologia bultzatzea dela. Gainera, aztertu behar dena da zein den gaur egungo sistemaren eta Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen dinamiken arteko dialektika. Baita ere, komeni da ikertzea eta aurreikustea zeintzuk diren gaur egungo sistema ekonomikoaren dinamika baztertzailerak eta atzerakoiak Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak kontra erreakzionatzeko. Ahaztu ezin dena zera da zein ekimenek hobetzen duten gizartearen baloreak, zein mugimendu sozial edo politiko diren garrantzitsuak aldaketa sozialerako eta zeintzuk diren dinamika sozio-politiko eta instituzional egokiak Berrikuntza Sozial Eraldatzailea tokiko komunitateetan eta enpresetan garaile ateratzeko. Horretarako ezinbestekoa da garapen alternatibo baterako estrategia eraikitzeke balioko duen Berrikuntza Sozialaren marko analitikoaren oinarriak ipintzea.

Berrikuntza Sozial Eraldatzailea bere barnean elkartasunaren eta zuzentasunaren baloreak daraman indar bat dela esan dezakegu eta indar horrek ikerketak eta ekimenak bultzatuko ditu gaur egungo gizartea iraultzeko. Gainera, garrantzitsua da burutik eskema neoliberalak alboratzea balio eta pentsamendu aurrerakoiak indarrean ipintzeko. Hala ere, Berrikuntza Sozial Eraldatzailea ez da edozein balditzetan aplikatu daitekeen errezeta bat. Egin beharreko bidea eta tokian tokiko testuingurua kontuan hartu behar dira estrategia egokia plazaratzeko. Horregatik, Berrikuntza Sozial Eraldatzailea praktikan ipiniko duten ikertzaile eta aktore sozial eta politikoez esparru lokalak eta globalak elkarlotuko dituzte, teoria eta praktikaren interakzioa bultzatuz gizarte-aldaketa lortzen laguntzeko. Horregatik Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen funtzioa ondo finkatzeari lehentasuna emango zaio, ikuspegi sozio-politiko alternatiboak sortzeko eta eraldaketa sozialaren aldeko ahalmena garatzeko.

Aldi berean, Berrikuntza Sozial Eraldatzailea gai izan behar da botere politiko subiranoa eratzeko oinarri oinarrizko eremuetatik hasita. Hain zuzen ere subsidiarotasun printzipiotik abiatzea ezinbestekoa da. Ahalik eta deszentralizazio administratiborik handiena bilatu beharko luke eta horretarako udal eta tokiko erakundeei eskumenak eta beharrezko baliabideak esleitzeko balio beharko du. Baita ere, Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak eredu

alternatibo integrala sustatuko du, eredu ekonomizistak alde batera utziz. Premia materialak baino zerbait gehiago asetu nahi da; pertsona protagonista izango den bidezko gizartearen eraikuntzan inbertitu nahi da. Gainera, Politika ekonomikoaren arlo guztiak (monetarioa, fiskala, aurrekontuen politika, laborala, sektoriala...) gizarteko premia indibidual eta kolektiboak asetzeko antolatuko dira. Hau da, ekonomia pertsona eta kolektibitatearen zerbitzura jarriko da eta ez alderantziz. Nolanahi ere, horrek ez du esan nahi oreka makroekonomikoak eta mikroekonomikoak gorde behar ez direnik. Era berean, naturarekiko begirunea ere bermatu beharko du. Horretarako azpiegiturek eta jarduera sozioekonomiko guztiek ingurugiroa errespetatuko dute.

Demokrazia parte hartzailearen aplikazioak ere markatuko du diferentzia. Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak parte hartzeari ateak ireki behar dizkio. Hain zuzen ere herritarren parte hartzearekin hartuko dira erabaki sozial, politiko eta ekonomiko garrantzitsuenak. Informazioa lortzeko, eztabaida egokiak burutzeko eta erabakiak hartzeko Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak parte hartzeko tresna egokiak antolatuko ditu.

Baita ere, Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak antolaketa instituzional konprometitua aldarrikatuko du. Hiritar guztiei gizarte zerbitzuak eta segurtasun ekonomikoa eskaintzeaz gain, hiritar ororentzat oinarrizko eskubide sozialak bermatuko dituen antolaketa instituzionala edukitzea ezinbestekoa da. Baita ere, antolaketa instituzional horrek zenbait mekanismo edukiko ditu politika birbanatzaileak gauzatzeko, zerbitzu publiko egokiak hornitzeko eta gizarte, genero eta ekonomia alorreko desberdintasunak gainditzeko.

Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak ezin du ahaztu ere emakumeen bazterkeria gainditzeko politikak gauzatu behar dituela. Politika integralez ari gara, emakumeen kolektiboen errealitate desberdinen diagnostikotik abiatuz, neurri konpentsatzaile eraginkorrak aplikatuko dira esparru desberdinetan genero desberdintasunak gainditzen joateko.

Gainera, Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak gai sozio-ekonomikoei lehentasuna ematea eskatzen du, gizarteko arazoei konponbidea aurkitu asmoz. Gai sozio-ekonomikoak bizitzako eguneroko dinamikan sartu behar dira. Gaurtik hasi behar da ekonomia egituratzen eta garapen eredu alternatiboa lantzen. Beharrezko mekanismoak martxan jarriko dira, frogatu

nahi delako elkartasunean eta aberastasunaren banaketan oinarritutako ereduaz baliatuz neoliberalismoaren erasoari aurre egin daitekeela. Maila lokaletik hasita helburu hori duten beste nazioarteko erakunde sozial, politiko eta sindikalekin bat egingo da.

Horretarako, Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak mekanismoak garatu behar ditu hiritarrek ekonomia eta gizarte gaiak jorratzeari beldurra kentzeko. Gizarte eta ekonomia gaietan lan egitea, herri eta auzoetako arazoei heltzea da. Hiritarrak euren artean antolatzea oso garrantzitsua da oinarritzko arazoei irtenbide bat aurkitzeko. Nolanahi ere, kontuan hartu behar da espazio soziopolitiko bakoitzak errealitate jakin bat bizi duela eta horren arabera aurrerapausoak urratsez urrats ikusiko direla.

Ez hori bakarrik, Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak zor zaion garrantzia emango dio prestakuntza ideologikoari. Hiritarrak prestatu behar dira gai sozioekonomikoak aztertzeko eta ulertzeko eta eredu neoliberaletik datozen erasoei aurre egiteko. Ezin da ahaztu ere gizarte honetan komunikazioaren arloak duen garrantzia. Eskuaratean dauden baliabide guztiak erabiliko dira egin diren proposamenak eta balorazioak gizarteratzeko. Indarrak bildu eta antolatuko dira aurkeztu diren alternatiba zehatzak aurrera eramateko. Hiritarren autoeraketarekin batera, eraldaketaren aldeko indar politiko, sozial eta sindikalak aktibatuko dira, aldeko instituzio mailako dinamikak ere ahaztu gabe. Jarduera guzti horien arteko oreka bat bilatu behar da, errendimendu sozial eta politikorik handiena lortzeko.

Lor daitezkeen aliantza guztiak eremu zehatz baten barruan sartu behar dira, hau da, maila lokaleko eta mundu osoko transformazio sozialaren alde lan egin nahi duten erakunde sozial, sindikal eta politikoekin batera. Lan hori herri eta auzoetan gauzatuko da tokiko arazoak konpontzeko, baina baita herrialdean, nazioan eta nazioartean ere. Komeni da elkarren arteko elkarrizketa azpimarratzea, proposamenak erkatzea eta mugimendu sozial eta sindikalarekin lan egitea, erronka garrantzitsuenak lortzeko bidean jartzeko.

Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak espazio ekonomiko, sozial eta politiko alternatiboak sortzeko eta sendotzeko bitartekoak ipiniko ditu. Espazio horiek erreferentzia puntu garrantzitsuak bihurtu daitezke esperientzia positiboak eta eraldatzaileak ezagunak egiteko eta

gero beste espazio batzuetara garraiatzeko. Hau da, arnas-gune horiek prozesu eraldatzailearen zabaltze estrategian paper garrantzitsua jokatuko dezakete.

2.5 Baloreak landu

Bestalde, Berrikuntza Sozial Eraldatzailea garatzeko ezinbestekoa da baloreen dimentsioari garrantzia ematea. Aldaketa soziala bultzatu nahi bada baloredun pertsonak behar dira. Hain zuzen ere, Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen azpian dauden baloreek korrante nagusiko baloreen (indibidualismoa, kontsumismoa, lehiakortasuna, demokrazia ordezkatzailea eta hezkuntza eredu formalak) aurrez aurre egon beharko dute. Aldaketa sozial aurrerakoa lortzeko, besteak beste, irabazi-asmorik gabeko jarduera ekonomikoan oinarritutako eredu alternatiboak, pertsonen trebakuntza, zuzeneko inplikazioa erabakitzeke ahalmen-prozesuetan, justizia sozialaren bilaketa, aukera berdintasuna eta genero parekidetasuna bultzatu beharko da. Haddock eta Tornaghi-rentzat (2013) baloreen dimentsio hori Berrikuntza Sozialarentzat erregaia bezalakoa da horrek jarduteko motibazioa ematen duelako.

Berrikuntza Sozial Eraldatzailea bultzatzeko eta bere inguruan aztertzeke ikertzaileak aldaketa soziala sustatzeko oinarritzkoak diren balore-joko osoa ezagutu eta barneratu beharko ditu. Gainera, nahiz eta forma kolektiboak eta asoziatiboak txikiak edo informalak izan, balore horiek garatzen diren espazio desberdinekiko sentsibilitate berezi bat erakutsi beharko du. Bestalde, balore horiek lantzeke trebakuntza ideologikoari zor zaion garrantzia eman behar zaio.

Dudarik gabe, Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak benetako protagonismoa eman behar dio eguneroko praktikan gauzatzen den eraldaketa sozialari. Lehenbiziko helburua gizarte eredu alternatiboa eraikitzea da, lankidetzan eta herritaren bizi-baldintzen hobekuntzan oinarrituz. Gainera, teoria hutsean geratu beharrean, proposamen horiek praktikara eramateko gaitasuna erakutsi behar da egungo errealitateke abiatuz.

Gizarteko arazoeke konponbidea aurkitu asmoz gizarte-ereldaketan oinarritutako Berrikuntza Sozialak arazo sozialeke lehentasuna ematea eskatzen du. Gizarteko sektore behartsuenak dituzten arazo sozio-ekonomikoak konpontzea lurralde bateke eguneroko dinamika sozio-

politikoaren helburua izan beharko du, beste gai batzuen artean lehentasuna emanaz. Azken finean, elkartasunean eta aberastasunaren banaketan oinarritutako eredia bultzatuko da neoliberalismoaren erasoei aurre egiteko. Horretarako, tokian tokiko esparrutik hasi beharko da, helburu berdina duten nazioko zein nazioarteko aktore sozial eta politikoekin bat eginez.

Zentzuzko alternatibak plazaratuko dira. Horretarako sormena, antolaketa egokia, herritar desberdinen mobilizazio ahalmena eta instituzioei zuzendutako lankidetzak eta interpelazioa erabiliko dira. Garrantzitsua da Jarduera horien arteko halako oreka bat bilatzea errendimendu sozial eta politikorik handiena gauzatzeko. Lor daitezkeen aliantza guztiak eremu zehatz baten barruan sartuko dira, hau da, hertsiki lan egin beharko da tokian tokiko eta mundu osoko eraldaketa sozialaren alde dauden erakunde sozial, sindikal eta politikoekin batera. Lan hori herri eta auzoetan gauzatu da tokiko arazoak konpontzeko, baina baita herrialdean, nazioan eta nazioartean ere. Komeni da elkarren arteko lankidetzak azpimarratzea, proposamenak alderatzea eta lan egitea, erronka garrantzitsuei aurre egiteko, hala nola, herritarren gehiengoaren bizi kalitatea hobetzea, lana eta aberastasuna banatzea eta guztion helburuak batzen dituen ekimen sozio-ekonomikoa sakontzea.

2.6 Aldaketa sortzeko gatazkaren beharra

Gatazkaren dimentsioa Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen barruan txertatzea oso garrantzitsua da. Kasu askotan gatazka sortzea ezinbestekoa da, urratsak emateko, konponketak bilatzeko, desoreka sozial, ekonomiko eta ekologikoak gaitzetzeko. Bidegabekeria bat gertatzen denean, giza eskubideak errespetatzen ez direnean, zapalkuntza egoera bat ematen denean gatazka pizten bada horrek atentzioa eramaten du gizartearen erdira eta arazo horretan inplikaturik dauden aktore desberdinak ardurapean ipintzen ditu mekanismo desberdinen bitartez irtenbide zentzuzkoak eta sortzaileak lortzeko. Zentzu horretan gatazka gizarte eraldaketaren iturri da. Tourain-entzat (2007) gatazka gizartearen eraldaketarako eragile positiboa da. Castells (2004) eta Dubet-entzat (2004) berriz, hiri-gatazken inguruan hitz egiterako garaian azpimarratzen dute metropolizazio prozesuek hiri aktoreen arteko berrantolaketa sakona ekarri dutela eta horren ondorioz erlazio gatazkatsu berriak agertu direla desberdintasun, bazterketa eta nortasun mota berriekin lotuta, bereziki globalizazioaren ondorioz.

Hernandez, Trudelle eta Koci-ri (2013) jarraituz Montrealeko Hiri Proiektu Handiak aztertu ondoren azpimarratzen dute gatazkek eta aldarrikapenen edukiek politiken eta instituzioen aldaketa bat eskatzen dutela. Egileentzat, gatazka Berrikuntza Sozialaren eta eraldaketa politikoaren agente garrantzitsua da.

Gainera, egoera gatazkatsuak lurralde sozialaren berrikuntzaren forma bat da. Autore horien arabera, hiri gatazka oinarri bezala hartuta, gatazka lau modu desberdinetan uler daiteke:

(1) Gatazka Foro bezala: hiri gatazkaren lehen figura, lurralde sozialaren berrikuntza moduan, foroa da. Figura hori bitarteko bat da debate publikoetan eztabaidak pizteko eta gai eta arazo sozialak gizartean zabaltzeko. Hain zuzen ere, gatazka azalpen eta komunikazio defizit baten isla da, proiektu bat proposatzen duen aktore baten eta jaso/jasan behar duen lurralde-komunitate baten artean. Berehala sortzen da eztabaida publiko bat proiektua egiteko beharraren inguruan. Hori dela eta, lurralde antolaketari buruzko proiektuek elkarrizketa eta konpromisoaren ezarketaren inguruko froga bikoitza pasa behar dute. Hain zuzen ere, egoera gatazkatsuek proiektua gidatzen dute eta aktoreei gardentasuna erabiltzea eskatzen zaie eta, aldi berean, kezka sozial nagusienak zabaltzea.

(2) Gatazka bozgorailu moduan: bigarren figura horretan gatazkek komunitateak dituen beharren bozgorailu funtzioa betetzen du, bereziki lurralde batean eskaintzen diren ekipamendu eta zerbitzuen inguruan. Hau da, ekimen gatazkatsua burutzen duten aktoreek ekipamendu eta zerbitzuen behar horiek plazara ateratzen dituzte, hau da, hutsune nagusiak gizarteratzen dituzte.

(3) Gatazka barometro antzera: jarduera gatazkatsuek protagonista desberdinen lurralde sozialeko baloreen sistema oso bat agerian uzten dute. Azken finean, balio sozial eta urbanistikoaren barometro bat bihurtuz, hiri gatazken autoreek dituzten oinarri axiologikoak azaleratzen dituzte. Gatazkek autoritate publikoa interpelatzen du, alde batetik, emandako espazio batean talde batek dituen interesei buruz, eta bestetik, taldeko partaideen xedeei buruz.

(4) Gatazka zaintzan eta esna egoteko: aldi berean, hiri-espazioak hiritarren zaintzaren subjektuak dira. Bertan, hiritarrek egindako proposamen desberdinak erregulatzeko eta

ebalutzeko ahalmena eduki dezakete. Esna egoteak, gatazkaren ezaugarri bat izanik, bermatzen du egiten diren proposamenetatik idealenak eta egokienak onartuko direla. Era horretara gatazkak lurraldearentzat kaltegarriak bezala aurrez ikusten diren proiektuak desaktibatuko ditu. Bide horretatik gatazkan dauden aktoreek pentsatzeko jakinduria eta abileziaren etika berreskuratuko dute. Azken finean, lurralde sozialaren berrikuntza horrek hiria gizatiarragoa egitea bilatuko du.

2.6.1 Taula: Gatazkak ulertzeko modu desberdinak

Foro bezala	Debate publikoetan eztabaidak pizteko
Bozgorailu moduan	Lurralde bateko beharrak plazaratzeko, gizarteratzeko
Barometro antzera	Lurralde bateko balio sozial eta urbanistikoak neurtzeko
Esna egoteko	Gatazka baten aurrean adi, erne egoteko

Iturria: Hernandez et al.-en (2013) datuekin geuk egina

Vainerrentzat (2013) berriz, mugimendu herrikoi zabalaren antolaketa maila lokalean, nazio mailan edo nazioartean Berrikuntza Soziala eraikitze bide bat da. Hain zuzen ere, gatazka zehatz bat piztu eta antolatu egiten da komunitateak duen arazo bati irtenbide duina emateko. Ez hori bakarrik, borroka hori gizarte-eraldaketaren aldeko dinamika orokor baten parte bezala ulertzen da. Hori da Vainerren (2013) arabera Brasilgo MAB (Mouvement national des Affectés par les Barrages) mugimenduak erakusten diguna. Mugimendu horrek presen eraikuntzek sortu dituzten populazio kaltetuen interesak defendatzeko borrokatzen du baina, aldi berean, mugimendu horren helburua beste energia eredu bat bultzatzea da azkenean berdintasunean oinarritutako beste garapen-eredu bat eraikitze bide bat. Autore horrek azpimarratzen du MAB mugimendu herrikoiaren balore nagusiak ondoko hauek direla:

(1) Bere kultura politikoa egituratzen da nahasketa konplexu batetik datozen elementu desberdinen gainean, besteak beste, 1960ko hamarkadako Latinoamerikako marxismo iraultzailea eta askapenerako teologia, 1970eko eta 1980ko hamarkadetako Brasilgo diktadura militarren kontrako borroka demokratikoa, mugimendu ekologista eta mugimendu identitario postmodernoak.

(2) Oinarritik eraikitako antolaketa eta mobilizazioari garrantzia ematea, masa ekimen zuzenak zentralizatutako erakunde eta negoziazio dinamiken gaintik erabiliz.

(3) Mugimenduaren osaketan eta iraupenean eskala lokalaren eta erregionalaren lehentasuna, maila nazionala eta nazioartekoaren gaintik.

(4) Mugimenduaren autonomia estatusa, alderdi politiko eta laguntza ematen dioten erakundeekiko.

(5) Beste mugimendu herrikoiekiko elkartasuna, bai maila nazionalean zein nazioartean.

Gatazkak sortzen dituen aukera guztiak profitatzeko beharrezkoa da kudeaketa sortzailea ondo gobernatzea. Hau da, alde batetik, eskala lokalak, erregionalak, nazionalak eta nazioartekoak osagarri bihurtu behar dira. Bestetik berriz, mugimenduko militanteek prestakuntza egokia jaso beharko dute gatazkaren atzean dauden borroka molde desberdinak ondo kudeatzeko eta eraginkorrak bihurtzeko.

2.7 Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen giltzarri nagusiak

Goiko autore desberdinen hausnarketak ikusita ondorioztatu daiteke gaur egun erronka bat dela Berrikuntza Soziala gizarte-erlaldaketa proiektu baten alde ipintzea. Hain zuzen ere, Berrikuntza Soziala ulertzeko modu asko daude. Autore batzuk pentsatzen dute berrikuntzari buruz hitz egiteko nahikoa dela praktika zahar bat egokitzea, ideia bat beste testuinguru batean aplikatzea edo bazterketa sozialari aurre egiteko edozein neurri hartzea. Beste batzuk, berriz, ezinbestekoa ikusten dute errotikako iraulketa bat ematea, haustura bat burutzea, izaeran, bitartekoetan eta antolaketa moduan. Horregatik, argi gelditu da Berrikuntza Sozialaren hitzarekin nahasketa handia sortzen dela Berrikuntza Sozial mota guzti horiek esanahi berdinean baten azpian biltzen direlako eta bide batez eraldaketa sozial erreal baten aldeko Berrikuntza Sozialak zurrumbilo horren barruan galdua eta urardotua agertzeko arriskua dagoelako.

Gainera, gaur egun Berrikuntza Sozialaren bitartez ukitzen den problematika soziala konplexuagoa bihurtu da, bereziki nozitzen den krisi sozio-ekonomikoa, sozio-politikoa eta sozio-ekologikoa elkar elikatzen ari direlako. Horregatik, momentu honetan, Berrikuntza

Sozialaren terminoaren erabilera zalantzarria bihurtu da. Askotan Berrikuntza Soziala erabiltzen ari da hurbilketa berri bat bultzatzeko, hots, ongizate-estatuaren krisiaren testuinguruan ekonomia sozial “merkearen” bitartez lanpostu berriak sortzeko eta zerbitzuak privatizatzen. Batzuetan ere, literatura akademikoan Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen terminoak neoliberalismoaren alde gizatiarra indartzen du.

Hori dela eta, atal honen asmoa guk ikerketa honetan garatu dugun Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen giltzarriak laburbiltzea da. Hain zuzen ere, Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak esanahi politiko-ideologiko sendoa eduki nahi du. Bereziki, giza garapena bilatzen duten mugimendu sozial eta politikoentzat gida indartsua bihurtzeko. Horregatik, Berrikuntza Sozialari “Eraldatzailea” terminoa gehitu zaio kapitalismoari aurre egingo dion beste eredu alternatibo bat eraikitzen tresna egokia izan nahi duelako. Berrikuntza Sozial Eraldatzailea definitzeko hurrengo hiru aldagaiak aztertuko dira:

(1) Berrikuntzaren izaera. Berrikuntzaren izaera kontuan hartzen bada Berrikuntza Sozial Eraldatzailea gizartearen eraldaketara bideratuko da. Horrek esan nahi du bere helburua gizarte eredu berri bat eraikitzen prozesu eraldatzaileak martxan ipintzea dela. Gainera, xede hori lortzeko kontzeptuak, teoriak, praktikak eta estrategiak elkarlotuko dira.

Prozesu eraldatzaile horiek neoliberalismoak azken hamarkadetan garatu duen ingurumen egituratu eta errotutik abiatuko dira. Hain zuzen ere, jokaleku neoliberal mugimenduan dagoen esparru bat izanik aukera sortzaileak egon daitezke. Ez hori bakarrik, espazio sozial alternatiboak sortu nahi dira balore indibidualista, kontsumista eta atzerakoiekin funtzionatzen duten sare eta guneei aurre egiteko. Elkarren arteko elkarriketa sendotuko da eta proposamen desberdinak erkatuko dira gehiengoaren helburuak batzen dituenak eraikitzen joateko.

Gero espazio ekonomiko, sozial eta politiko alternatibo horiek erreferentzi puntuak bihurtzea da helburua. Arnasa-gune horiek prozesu eraldatzailearen zabalte estrategian paper garrantzitsua joki dezakete. Esperientzia positibo eta eraldatzaile horiek ezagunak egiten diren heinean beste espazio batzuetara garraiatuko dira.

Tokian tokiko proposamenak nazioarteko dinamikekin lotuko dira. Bertako esperientzia emankorrak nazioarteko sare alternatiboetara bideratuko dira. Horrekin batera, informazio-trukaketa indartu, jarduera-ildoak burutu eta koordinazio-dinamikak martxan ipiniko dira.

Berrikuntza Sozial Eraldatzailea garatzeko ezinbestekoa da baloreen dimentsioari garrantzia ematea. Aldaketa soziala bultzatzeko baloredun pertsonak ezinbestekoak dira. Hain zuzen ere, Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen azpian dauden baloreek korrante nagusiko baloreen aurrez aurre egon beharko dute. Aldaketa sozial aurrerakoa lortzeko, besteak beste, irabazi asmorik gabeko jarduera ekonomikoan oinarritutako eredu alternatiboak, pertsonen autogestioa, zuzeneko inplikazioa erabakitzeke ahalmen-prozesuetan, justizia sozialaren bilaketa, aukera berdintasuna eta genero parekidetasuna bultzatu beharko dira.

Prozesu eraldatzaileak martxan ipintzeko gatazkaren dimentsioa txertatzea garrantzitsua da. Kasu askotan gatazka sortzea ezinbestekoa da, urratsak emateko, konponketak bilatzeko eta desoreka sozial, ekonomiko eta ekologikoak gainditzeko. Bidegabekeria bat gertatzen denean, giza eskubideak errespetatzen ez direnean, zapalkuntza egoera bat ematen denean gatazka pizten bada horrek atentzioa sortzen du eta arazo horretan inplikaturik dauden aktore desberdinak ardurapean ipintzen ditu mekanismo desberdinen bitartez irtenbide zentzuzkoak eta sortzaileak lortzeko. Zentzu horretan gatazka gizarte eraldaketaren iturri da eta, gainera, eraginkorra izan daiteke kapitalismoak eragindako desorekak eta bidegabekeriak salatzeke eta, bide batez, proposamen alternatibo egingarriak inplementatu arazteke.

(2) Berrikuntzaren dimentsio soziala. Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen azken helburua ez da bete gabeko edo gaizki betetako behar sozialei aurre egitea. Ez eta ere esku hartze sozialari buruz bakarrik aritzea. Gizartearen eraldaketa integralaren dimentsioari heldu nahi dio. Xedea beste garapen eredu alternatibo bat eraikitzea da Planetaren etorkizuna bermatzeko, lurraren bioaniztasun ekologikoa, kulturala eta linguistikoa sostengatzeko eta mundu parekidea, justu, bidezkoa eta solidarioa eraikitzeke. Horregatik, Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak arlo ekonomiko, soziala, kulturala, politikoa, ekologikoa, ideologikoa eta etikoa landuko ditu eta genero berdintasuna helburu bezala jarriko du.

Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak premia materialak baino zerbait gehiago asetu nahi ditu. Pertsona protagonista izango den gizartearen eraikuntzan inbertitu nahi du. Indar guztiak gizarteko premia indibidual eta kolektiboak asetzeko antolatuko dira. Hau da, ekonomia pertsona eta kolektibitatearen zerbitzura jarriko da eta ez alderantziz.

Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak estatuaren esku hartzea gizartearen gehiengoaren alde burutuko du. Hau da, antolaketa instituzional konprometitu izan behar du, lankidetzagobernantzan oinarrituz (*ikusi 4.6.1 taula*), sektore behartsuei lehentasuna emanaz, hiritar guztiei gizarte zerbitzuak eta segurtasuna eskainiz, hiritar ororentzat oinarritzko eskubide sozialak bermatuz, politika birbanatzaileak gauzatuz, zerbitzu publiko egokiak bermatuz eta gizarte eta ekonomia alorreko desberdintasunak gaindituz.

Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak merkatuaren paper positiboa bultzatuko du, beti ere sektore herrikoi zabalaren alde arituz. Kontuan hartu behar da merkatuak paper bikoitza jokatu dezakeela. Desberdindu egin behar da klase herrikoiaren interesen alde aritzen den merkaturaren merkatu inperfektu txar batetik. Hau da, Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak merkatu eraginkorra sustatuko du, gizartearen interes indibidual eta kolektiboekin bat eginez eta enpresa-ahaleginak eta ekimen pribatuak kolektiboaren mesedera bideratuz.

Gainera, Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak Ekonomia Sozial Eraldatzailearen ahalmen guztia askatuko du. Kontuan hartu behar da Ekonomia Sozial Eraldatzailea Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen tresna estrategikoa dela, harrobia eta sustatzailea. Prozesu eraldatzaileak martxan ipintzeko euskarrietako bat baita ere (*ikusi 3.4.1 taula*).

(3) Berrikuntzaren antolaketa. Prozesu eraldatzailea antolatu egin behar da neoliberalismoaren aurrean beste eredu transformatzaile sendo eta posible bat eraikitzeko. Helburu hori lortzeko elkartasuna, integrazioa eta elkarlana bultzatuko da indibidualismoa, sektorializazioa eta zatiketa alboratuz.

Gainera, estrategia egokia antolatzeko aztertu behar da zein den gaur egungo sistema neoliberalaren eta Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen dinamiken arteko dialektika. Baita ere, komeni da ikertzea eta aurreikustea zeintzuk diren gaur egungo sistema ekonomikoaren dinamika baztertzailak eta atzerakoiak Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak kontra

erreakzionatzeko. Kontuan hartu behar da ere zein ekimenek hobetzen duten gizartearen baloreak, zein mugimendu sozial edo politiko diren garrantzitsuak aldaketa sozialerako eta zeintzuk diren dinamika sozio-politiko eta instituzional egokiak Berrikuntza Sozial Eraldatzailea tokiko komunitateetan eta enpresetan garaile ateratzeko.

Hiritarren auto-eraketarekin batera eraldaketaren aldeko indar sozial, sindikal, politiko eta instituzionalak bat egingo dute. Antolaketa hori herri eta auzoetan gauzatuko da tokiko arazoak konpontzeko, baina baita herrialdean, nazioan eta nazioartean ere. Elkarren arteko elkarrizketa, koordinaketa eta lan amankomuna sustatuko da urratsez urrats aurrerapenak lortzeko. Hain zuzen ere, epe motzeko pausoak epe erdiko eta epe luzeko pausoekin lotuz. Egin beharreko bidea eta tokian tokiko testuingurua kontuan hartu behar dira estrategia egokia plazaratzeko. Proposamen teorikoak ere praktikarekin uztartzea komeni da egungo errealitatekin abiatuz. Beti ere, korrante neoliberalak asimilatu gabe.

Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak demokrazia parte-hartzailea ere sustatuko du. Hain zuzen ere herritarren parte hartzearekin hartuko dira erabaki sozial, politiko eta ekonomiko garrantzitsuenak. Informazioa lortzeko, eztabaida egokiak burutzeko eta erabakiak hartzeko Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak parte hartzeko tresna egokiak antolatu beharko ditu.

Ilusioa sortu eta transmitituko duten pertsona militanteak animatzea eta antolatzea garrantzitsua da gustuko duten esparruetan lan egiteko. Horretarako zor zaion garrantzia emango zaio prestakuntza ideologikoari. Hiritarrak formatu behar dira gizarte eta ekonomia gaiak ulertzeko eta aztertzeko. Segurtasuna lortzea garrantzitsua da talde dinamika egokiak antolatzeko eta herri eta auzoetako arazoei heltzeko. Baita ere, komeni da ere komunikazioa lantzea antolatutako dinamikak gizarteratzeko.

Aldi berean, Berrikuntza Sozial Eraldatzailea gai izan behar da botere politiko subiranoa eratzeko oinarri oinarrizko eremuetatik hasita. Ahalik eta deszentralizazio administratiborik handiena bilatu beharko luke eta horretarako udal eta tokiko erakundeei eskumenak eta beharrezko baliabideak esleitzeko balio beharko du.

2.7.1 Taula: Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen giltzarri nagusiak

(1) Berrikuntzaren izaera	(2) Berrikuntzaren dimentsio soziala	(3) Berrikuntzaren antolaketa
<p>KAPITALISMOARI AURRE EGINGO DION EREDU ALTERNATIBOAK ERAIKI</p> <p>-Prozesu eraldatzaileak martxan ipini: .errotikako eraldaketak korrante neoliberalak asimilatu gabe. .kontzeptuak, teoriak, praktikak eta estrategiak elkarlotu. .neoliberalismoak garatu duen ingurumenetik abiatu. .espazio sozial alternatiboak sortu sare eta gune neoliberaleri aurre egiteko. .espazio ekonomiko, sozial eta politiko alternatibo horiek erreferentzi puntuak bihurtu. .arnasa-gune horiek ezagunak egiten diren heinean beste espazio batzuetara garraiatu. .tokian tokiko proposamenak nazioarteko dinamikekin lotu. .Informazio trukaketa indartu eta jarduera ildoak burutu.</p> <p>-Baloreen dimentsioari garrantzia eman: .Baloredun pertsonak ezinbestekoak dira aldaketa burutzeko. .korrante nagusiko balore neoliberaleri aurre egin (indibidualismoa, kontsumismoa, lehiakortasuna, demokrazia ordezkatzaila...).</p> <p>-Gatazkaren beharra aldaketa eragiteko: .gatazka ezinbestekoa da urratsak emateko, konponketak bilatzeko eta desoreka sozio-ekonomikoak gainditzeko. .gatazka atentzioa deitu eta inplikaturako aktoreak irtenbide zentzuzkoak eta sortzaileak lortzera behartzen du. .gatazka gizarte eraldaketaren iturri da, kapitalismoak eragindako bidegabekeriak salatzeko eta proposamen egingarriak implementatzeko.</p>	<p>-Azken helburua ez da bete gabeko edo gaizki betetako behar sozialei aurre egitea.</p> <p>-Ez eta ere esku hartze sozialari buruz bakarrik aritzea.</p> <p>-Gizartearen eraldaketa integralaren dimentsioari heldu: .garapen eredu alternatiboa eraiki. .arloan ekonomikoa, soziala, kulturala, politikoa, ekologikoa, ideologikoa eta etikoa landu eta genero berdintasuna helburu. .persona eta kolektibitate protagonista izango den gizartearen eraikuntzan inbertitu.</p> <p>-Estatuaren esku hartzea gizartearen gehiengoaren alde burutu: .antolaketa instituzional konprometitua. .Lankidetzaz-gobernantza ezarri (<i>Ikusi 4.6.1 taula</i>) .sektore behartsuei lehentasuna eman. .hiritar guztiei gizarte zerbitzuak eta segurtasuna eskaini. .hiritar ororentzat oinarritzko eskubide sozialak bermatu. .politika birbanatzaileak gauzatu. .zerbitzu publiko egokiak bermatu. .gizarte eta ekonomia alorreko desberdintasunak gainditu.</p> <p>-Merkatuaren paper positiboa bultzatu: .merkatua eraginkorra denean. .merkatuak bat egiten duenean gizartearen interes indibidual eta kolektiboekin. .enpresa-ahaleginak eta ekimen pribatuak kolektiboaren mesederako direnean.</p> <p>-Ekonomia Sozial Eraldatzailearen ahalmen guztia askatu. (<i>Ikusi 3.4.1 taula</i>)</p>	<p>-Estrategia egokia eratu: .gaur egungo eredu neoliberalaren eta Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen arteko dialektika zehaztu. .sistema neoliberalaren dinamika baztertzailak eta atzerakoiak aurreikusi horien kontra erreakzionatzeko. .gizartearen baloreak sendotzen dituzten ekimenak ezagutu. .aldaketa sozialerako garrantzitsuak diren mugimendu sozial eta politikoak identifikatu. .prozesu eraldatzaileak tokiko komunitateetan eta enpresetan garaile ateratzeko dinamika sozio-politikoak eta instituzionalak antzeman.</p> <p>-Antolaketa herri eta auzoetan gauzatu, baita ere herrialdean, nazioan eta nazioartean: .eraldaketaren aldeko indar sozial, sindikal, politiko eta instituzionalak bat egin. .elkarren arteko elkarriketa, koordinaketa eta lan amankomuna sustatu. .aurrerapenak urratsez urrats eman, epe motzeko pausoak epe erdiko eta epe luzeko pausoekin lotuz. .tokian tokiko testuingurua eta egin beharreko bidea kontuan hartu estrategia egokia plazaratzeko. .proposamen teorikoak praktikarekin uztartu, egungo errealitateetik abiatuz. -demokrazia parte-hartzailea bultzatu.</p> <p>-Prestakuntza ideologikoa sustatu: .hiritarrak formatu behar dira gizarte eta ekonomia gaiak ulertzeko eta aztertzeko. .segurtasuna lortu talde dinamika egokiak antolatzeko eta herri eta auzoetako arazoei heltzeko. .komunikazioa landu antolatutako dinamika eraldatzaileak gizarteratzeko.</p>

Iturria: Geuk egina (2018)

3 KAPITULUA: BERRIKUNTZA SOZIAL ERALDATZAILEA ETA EKONOMIA SOZIALA

3.1 Ekonomia Sozialaren kontzeptuaren bilakaera

Ekonomia soziala ez da fenomeno berria. Dena dela, azken hamarkadetan ekonomia sozialaren inguruko interesa indartu egin da. Urte hauetan eman diren aldaketa ekonomiko, sozial eta politikoez 2008ko krisia sortarazi ondoren, galdera ugari plazaratu dituzte. Ekonomia eta gizartearen arteko lotura ezak erakusten du gaur egungo krisia ez dela koiunturala garapen ereduaren apurketa sakon bat baizik. Horrekin batera ekonomia soziala Berrikuntza Sozialaren laborategia bezala aurkezten da. Hau da, ekonomia sozialak beste mugimendu eta dinamika sozialekin batera gaitasun handia eduki dezake ekonomia eredu berri bat eraikitzeko gizartearekin eta politikarekin lotura zuzena mantenduz.

Ekonomia sozialaren eraldaketa gaitasuna aztertu aurretik komeni da ekonomia sozialaren kontzeptu beraren bilakaera eta gaur egungo kokapena ondo finkatzea. Ekonomia sozialaren kontzeptuak badu gaur egun erakunde mailako ordezkartza eta onespen publiko zein juridiko garrantzitsua herrialde batzuetan. Baina kontzeptuak gure artean duen edukia behar bezala ulertzeko komenigarria da, aldeaz aurretik, kontzeptu honen garapen historikoan eman diren urratsen interpretazio labur batekin hasia.

Ekonomia sozialaren kontzeptuak munduan zehar azken bi mendeetan bi loraldi bizi izan dituela esan ohi da: lehena, XIX. mendearen erdialdean, fenomeno kooperatiboaren ez tandari lotua, eta bigarrena, XX. mendeko azken laurdenean, "gizarte ekonomia berria" deitua izan denaren agerpenarekin batera.

Bi garai historikotan, kontzeptuaren hedapen eta sendotzea hiru ardatz nagusiren arteko elkar eraginean oinarritu izan da (Etxezarreta, Pérez de Mendiguren eta Morandeira, 2014): lehenik sektoreko eragile ekonomikoen artean emandako artikulazio prozesuak leudeke, horien ondorioz kontzeptuari loturiko ezaugarriak aldarrikatu izan direlarik printzipioen karta eta mota ezberdinetako adierazpen instituzionalen bitartez; behin sektoreak bere burua modu bateratuan aurkeztu ostean, aitorenak iritsi izan dira bi eragile ezberdinen aldetik:

akademia, alde batetik, sektore hau ikerketa gai gisa landuaz eta herri erakundeak, beste aldetik, sektorearen ikusgarritasun, neurketa eta sustapen neurrien bitartez. Hiru ardatz horien bilakaera historikoa garatuko dugu zehatzago jarraian.

3.1.1 Kontzeptuaren hiru ardatzak: eragile ekonomikoak, akademia eta erakunde publikoak

Hurbilketa teorikoa ezberdin samarra izan bada ere aipaturiko bi loraldietan, mugarri bertsuak aurkitzen ahal dira prozesu osoan. XIX. mende erdialdeko prozesuei erreparatu, iraultza industrialaren eta kapitalismoaren hasierako garapenaren aurkako erresistentzia giroan sortu ziren ekimen autogestionarioetan oinarritu zuten beren teorizazioa XIX. mendeko lehen *ekonomialari sozialek*. Sozialismo utopikoaren ikusmoldetik Robert Owen edo Charles Fourier bezalako enpresari ekintzaileek sustaturiko lehen esperientzia kooperatiboetan (eskualde kooperatiboak, falansterioak, etab.) hasiko dira lehen lehenik ekonomia sozialari loturiko enpresa ezaugarriak agertzen. Lehendabiziko kooperatiba kontsideratzen den Rochdaleko esperientzian ezarriko dira lehen aldiz printzipio kooperatiboen ernamuinak: atxikipen askea, demokrazia, etekinen banaketa, hezkuntza, e.a.

Esperientzia horien analisia burutuz agertuko dira lehen “ekonomialari sozialak”, ekonomia sozialaren kontzeptua estreinakoz erabiltzen dutenak horrelako esperientziak izendatzeko, eta baita ere ekimen horien bereizgarri diren bi ezaugarri azpimarratzeko: i) alde batetik, haren izaera moralizatzailea, gizakien portaeran eragina duelako; eta, ii) bestetik, haien eragin sozioekonomikoa, jardunbide ekonomiko eraginkorragoak eta gizakoiagoak direlako³⁵.

XX. mendearen azken hiru hamarkadetan hedaturiko definizioa aski doituagoa da gaur egun Ekonomia Soziala esatean ulertzen dugunarekiko, baina kontzeptuaren garapen prozesuak ibilbide bertsua jarraitu izan du.

³⁵ Leon Walrasen eskutik, ekonomia politikoaren maila berebean ipini eta “sortutako aberastasun soziala banatzeko teoria”-ren osagai dela irizten zaion adinean, Gizarte Ekonomia zientzia mailako ikergaia izatera igarotzen da (eduki ideologiko edo moralizatzailetik harago). Analisi zehatzago baterako ikus Monzón (2003) eta Chaves (1997).

Ipar Amerikako ekonomia sozialaren izaera aztertzen badugu Quebecoko hurbilketak garrantzia ematen dio erakunde desberdinen (besteak beste kooperatibak, mutualitateak eta irabazi-asmorik gabeko erakundeak) funtzionamendu demokratikoari eta gobernantzari. Bouchard-ek (2013) 1996an Québecen finkatutako definizioa honela laburtzen du: “Ekonomia sozialaren” definizioak maiz kontrajarriak diren bi termino elkartzen ditu: “ekonomia” terminoak ondasunen eta zerbitzuen ekoizpen zehatzari egiten dio erreferentzia -enpresa antolaketa egitura moduan- ongizate kolektiboa hobetzeko asmoz. “Sozial” terminoa berriz jarduera horien onura sozialei buruz (ez bakarrik onura ekonomikoa) ari da hitz egiten. Abantaila sozial horiek neurtzeko kontuan hartuko dira zenbateraino garapen demokratikoari, gizartea aktibo mantentzeko eta ahalduntze indibidualari eta kolektiboari laguntzen dion. Hain zuzen ere, onura sozialek biztanleriaren bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzen lagunduko dute, bereziki zerbitzu kopuru handiagoa hornituz. Baita ere onura sozial horiek sortutako lanpostu-kopuruaren terminoetan ebaluatu daitezke. Zehazki esanda, ekonomia sozialaren esparruak komunitatean oinarritutako ahalduntze asmoarekin eraikitako jarduera eta erakunde guztiak bere barnean hartzen ditu ondorengo oinarri eta arauekin: i) helburua, etekinak ateratzea da baino, aldi berean, beren kideei edo komunitateari zerbitzatzea da; ii) ez daude gobernuaren kontrolaren azpian; iii) arauetan eta jardunbidetan erabakitzeko prozedura demokratikoak txertatuko dituzte erabiltzaileak eta langileak barne hartuz; iv) irabaziak eta sarrerak banatzeko garaian pertsonak eta lana kapitalaren beharraren aurretik ipiniko dira eta v) beren jarduerak parte hartzean, ahalduntzean eta pertsona eta komunitateen erantzukizunean oinarritzen dira.

Ipar Amerikako beste lurraldeetan ekonomia sozialaren kontzeptua ez da Quebecen bezala ulertzen. Kanadako ingeles lurraldeetan ekonomia sozialaren barruan ez dira merkatuan oinarritutako erakundeak bakarrik sartzen. Bertan dago, baita ere, antolatutako gizarte zibil osoa (boluntario eta irabazi asmorik gabeko erakundeak, sindikatuak, elkarte sozialak, erlijio-erakundeak e.a.) eta irabazi asmorik gabeko sektore publikoa (besteak beste ospitaleak eta unibertsitateak) (Quarter, Mook eta Armstrong, 2009). Gainera, Amerikako Estatu Batuetan eta Kanadako ingeles aldean boluntario/irabazi asmorik gabeko sektorearen definizioa alde batetik murriztaileagoa da. Izan ere, bakarrik kontuan hartzen du erakunde zehatzaren legeko estatusa eta bestetik zabalagoa da irabazi asmorik gabeko erakunde guztiak sartzen

dituelako bokazio ekonomikoa eduki edo ez. Quebecen berriz, ekonomia sozialak enpresa-esparru zabalagoa hartzen du barnean kooperatibak eta mutualitateak sartzen direlako eta gizarte zibilaren eremua estuagoa da bakarrik helburu sozial batekin ondasunak eta zerbitzuak ekoizten dituzten erakundeak kontuan hartzen dituelako. Ondorioz, Quebecen definizio zabal bat erabilita kooperatibak, ondasunak edo zerbitzuak ekoizten dituzten irabazi asmorik gabeko erakundeak eta mutualitateak sartuko lirateke ekonomia sozialaren definizioan.

Europara hurbiltzen bagara lehen lehenik sektoreko eragileak (kooperatibak, mutualitateak eta elkarteak) dira Frantzian 1970ean edota Belgikan 1990ean hainbat kontseilu eta batzordetan elkartzen direnak eta, irizpide edo printzipio zehatz batzuetan oinarrituta, bestelako eragile ekonomikoetatik bereizten den osotasun baten partaide aldarrikatzen direnak.

1980an Frantziako mutualitate, kooperatiba eta elkarten nazio batzordeak argitaraturiko “Gizarte Ekonomiaren Printzipioen Gutunak” jaso zituen estreinakoz Europa mailan irizpide horiek, zazpi puntutan oinarrituz: i) pertsonaren lehentasuna, ii) borondatezko partaidetza, iii) kontrol demokratikoa, iv) elkartearen interesa eta interes orokorraren uztardura, v) elkartasuna, vi) kudeaketarako autonomia eta vii) etekinen banaketaren gaineko politikak.

Aldi berean eta prozesu honekin batera sortzen dira honelako entitateak ikertzea helburu duten lehen erakunde akademikoak, CIRIEC-International aitzindari dutela. Ikerlari sare unibertsitario horien jardura erabakigarria izan zen kontzeptua sendotzeko, haren bereizgarri teorikoak argitu eta Europa mailako kontularitza sistema nazionalen arabera entitate hauen azterketa estatistikoa ere burutu zutelako.

Ekonomia sozialaren alorrean mugarri funtsezkoa izan da “Ekonomia Sozialeko enpresen Kontu Sateliteak gauzatzeko Eskuliburua”-ren proposamena (Barea eta Monzón, 1995, 2007; Monzón, 2010), sektorea zenbatzeko metodologia bat ezartzen duelako, nazio mailako kontu

sistemei egokitutakoa. Egokitzapen honetatik abiatuz iristen da CIRIECek proposatzen duen ekonomia sozialaren egungo definiziora³⁶.

Behin sektorea zehazki definitu ondoren, eta haren zenbaketarako metodologia egokiak ezarri eta gero, egingarriagoa dirudi alor honen sustapenerako politika publikoak abiaraztea. Europan, legegintza eta sustapenerako ekimen ezberdinak garatu izan dira azkenaldian. Aitzindaria izan zen ekonomia sozialaren 2011ko lege espainiarra eta haren ondotik etorri ziren Portugalekoa 2013an eta baita ere 2014ko Frantziako ekonomia sozial eta solidarioaren legea.

Estatu partaideez gain ekonomia sozialak geroz eta onespren handiagoa izan du Europar Batasunaren mailan ere. Monzón-ek (2016) oso era xehatua azaltzen duen legez, Europako Batzordean Jaques Delorsen agintaldian (1985-1995) bultzada handia eman zitzaion kooperatiben auziari eta bi urrats erabakigarri gertatu ziren bultzada honen ondorioz: i) Europar Legebiltzarreko ekonomia sozialeko “Intertaldea” (*intergroup*) eratu zen, zeinak bultzatu izan dituen 1990az geroztik kooperatiba eta bestelako entitateen gaineko ebazpen eta ekintzarako plan proposamen ugari, eta ii) *Social Economy Europe* Batzorde Europarraren sorrera 2000. urtean, zeinetan elkartzen baitira Europar Batasuneko kooperatiba, mutualitate, elkarte eta fundazioen erakunde ordezkari nagusiak³⁷.

3.1.2 Azken 40 urteak Espainian, Frantzian eta Euskal Herrian

Monzón-ek (2016) burutzen duen errepassoarekin jarraitzeko, esan beharra dago Espainia mailan zein Hego Euskal Herrian ere ekonomia sozialaren kontzeptuaren garapena urrats antzekoetatik igaro dela.

Espainiari erreparatuz, sektoreko eragileak antolatzen hasiko dira 80ko hamarkadaren erdialdera COCETA³⁸ (Espainiako Lan Elkartuko Kooperatiben Konfederazioa) eta CONFESAL³⁹

³⁶ Metodologia honen arabera, Ekonomia Sozialaren esparrua zehazki definitu eta bi azpisektoretan banatzen da, merkatukoa edo enpresaritzakoa eta ez-merkatukoa; eta lehen aipatu ditugun kideek bere garaian aldarrikatu zituztenekin zerikusi zuzena duten zazpi irizpidetan oinarritzen da.

³⁷ Europar Batasunaren esparruan ekonomia sozialak izan duen bilakaera sakonago aztertzeko ikusi Monzón eta Chavez (2016).

³⁸ <http://www.coceta.coop/>, COCETA, 2018/05/20 egunean begiratua.

³⁹ <https://www.confesal.org/WEB/index.php>, CONFESAL, 2018/05/20 egunean begiratua.

(Espainiako Lan Elkarten Konfederazioa) bezalako erakundeen bitartez. Gaur egun ekonomia sozialeko erakunde guztien erakunde ordezkagarri nagusia CEPES⁴⁰ da, 1992az geroztik jardunean diharduena.

Herri erakundeen aldetik aitortza 1990an sorturiko INFES (*Instituto Nacional de Fomento de la Economía Social*) erakundearen bitartez heldu zen lehenik, eta behin betiko bultzada aipatu bezala 2011ko ekonomia sozialaren legearen onarpenaren bitartez gauzatu da. Lege honen inguruko analisiak ugariak diren arren (Perez de Uralde, 2014; Etxezarreta eta Morandeira, 2012; Fajardo, 2012; e.a.) legearen onarpenak kontzeptuaren sendotzeari bi ekarpen nagusi egin dizkiola ondorioztatuko genuke: alde batetik bistarazi egin du errealitate ekonomiko bat, printzipio konkretu batzuen bitartez ezaugarritzen dena. Beste aldetik, sektorea sendotzeko sustapen neurriak hartzeko marko juridikoa ezarri du, nahiz eta askok argudiatzen duten legez, marko horren garapena hutsaren hurrengoa izan dela legea onartu eta gero.

Hego Euskal Herrira etorritz, ekonomia sozialaren kontzeptuan zentraltasun historikoa bete izan du Mondragon Taldean bilduriko mugimendu kooperatiboak. Fenomeno honen inguruan nazioarte mailan egin diren ikerlanak zenbatu ezinak diren arren, komeni da aipatzea Hego Euskal Herrian badela ekonomia sozialik Mondragon Taldeetik kanpo ere.

Euskal Autonomia Erkidegoan Gizarte Ekonomiako Euskal Behatokiaren (2018) arabera 2017an 2223 kooperatiba eta lan sozietateak zeuden 68648 langileekin. Autonomia horretan ekonomia sozialeko eragileak oso modu antolatuan dihardute beraien erakunde ordezkagarrien bitartez: KONFEKOOP⁴¹, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa, ASLE⁴², Euskadiko Lan Elkarten Elkartea, EHLABE⁴³ Euskadiko Enplegu Zentro Berezien Elkartea, GIZATEA⁴⁴, Euskadiko Gizarteratze Enpresen Elkartea eta REAS Euskadi⁴⁵, nagusiak aipatzearren. Erakunde mota guztiak batzen dituen erakundea ere indarrean da EAEn,

⁴⁰ <http://www.cepes.es/>, CEPES, 2018/05/20 egunean begiratua.

⁴¹ <https://www.konfekoop.coop/?idioma=es>, Konfekoop, 2018/05/20 egunean begiratua.

⁴² <http://asle.es/>, ASLE, 2018/05/20 egunean begiratua.

⁴³ <http://www.ehlabe.org/>, EHLABE, 2018/05/20 egunean begiratua.

⁴⁴ <http://www.gizatea.net/>, Gizatea, 2018/05/20 egunean begiratua.

⁴⁵ <https://www.economiasolidaria.org/reas-euskadi>, REAS-Euskadi, 2018/05/20 egunean begiratua.

EGES⁴⁶ izena daramana. Bestalde, 2008ko abenduaren 30ean Eusko Jaurlaritzak eta UPV-EHUK sinatutako lankidetzak hitzarmen baten harira jaio zen Gizarte Ekonomiaren Euskal Behatokia (GEEB)⁴⁷, Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia sozialaren jardura behatzeko eta horren jarraipena egiteko. Nafarroako Foru Komunitatean (NFK), berriz, Ugalderean (2017) arabera 2017an ekonomia sozialeko 1064 enpresa zeuden 16430 langileekin. Bestalde, Foru Komunitate horretan ekonomia sozialeko erakunde garrantzitsuenak Nafarroako CEPES⁴⁸ inguruan biltzen dira: ANEL⁴⁹, Nafarroako Ekonomia Sozialen Enpresak, UCAN⁵⁰, Nafarroako Nekazaritzako eta Elikadurako Kooperatiben Batasuna, CIS⁵¹, Nafarroako Gizarteratzeko eta Laneratzeko Elkartea eta Nafarroako REAS⁵², Nafarroako Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea.

Halaber, herri erakundeen aldetik 1986an Euskal Autonomia Erkidegoan sortzen den Kooperatiba eta Ekonomia Sozialaren Zuzendaritzatik bideratzen dira esparru honetako erakundeen sustapenerako politika publiko nagusiak. Zuzendaritza honetaz gain badira herri erakundeekiko interlokuzioa burutzen duten bestelako erakunde publiko-pribatuak ere, nagusia aipatzearren Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua⁵³ da. Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuari dagokionez Ekonomia Sozialeko gaiak Garapen Ekonomikorako Saitetik zuzentzen dira. Gainera, 2017ko martxoaren 22an, sektoreko erakunde nagusien parte-hartzearekin, Nafarroako Ekonomia Sozialeko 2017-2020 Plana⁵⁴ onartu zen 2.828.000 euroko aurrekontuarekin.

Azkenik, mundu akademikoari dagokionez, Euskal Herriko Unibertsitatean, Mondragon Unibertsitatean eta Deustuko Unibertsitatean daude ekonomia sozialaren gain espezializaturiko ikerketa-institutuak (GEZKI⁵⁵, Lanki⁵⁶, IEC⁵⁷, hurrenez hurren) eta

⁴⁶ <https://www.eges.eus/es-eges>, EGES, 2018/05/20 egunean begiratu.

⁴⁷ <http://www.oves-geeb.com/eu/behatokia/nortzuk-gara>, OVES-GEEB, 2018/05/20 egunean begiratu.

⁴⁸ <http://www.cepesnavarra.org/>, CEPES Nafarroa, 2018/05/20 egunean begiratu.

⁴⁹ <http://www.anel.es/>, ANEL, 2018/05/20 egunean begiratu.

⁵⁰ <http://ucan.es/>, UCAN, 2018/05/20 egunean begiratu.

⁵¹ http://www.centrosdeinsercion.org/centrosdeinsercion/Centros_de_Insercion_Navarra.html, CIS Nafarroa, 2018/05/20 egunean begiratu.

⁵² <http://www.economiasolidaria.org/reasnavarra>, REAS Nafarroa, 2018/05/20 egunean begiratu.

⁵³ <http://www.csce-ekgk.coop/es/>, CSCE-EKGK, 2018/05/20 egunean begiratu.

⁵⁴ http://www.gobiernoabierto.navarra.es/sites/default/files/plan_integral_de_economia_social_v6.pdf, Nafarroako Ekonomia Sozialeko 2017-2020 Plana, 2018/05/20 egunean begiratu.

⁵⁵ <http://www.gezki.eus>, GEZKI, 2018/05/20 egunean begiratu.

irakaskuntza mailan ekonomia sozialaren ikusgarritasuna oraindik orain oso mugatua den arren, gradu ondoko ikasketen eskaintzan ere badu bere presentzia⁵⁸.

Itçainak (2017) egiten duen hausnarketari jarraituz Frantzian ekonomia sozialak indar berri bat hartzen ari da azken urte hauetan. Bereziki 2014 urtean ekonomia sozial eta solidarioaren legea onartu ondoren. Lege berri horrekin Espainian, Portugalen eta Europako beste herrialde batzuetan markatutako bidea jarraitzen du. Lege berri horrekin 1980an argitaraturiko “Ekonomia Sozialaren Printzipioen Gutunaren” bitartez lortutako aitortza sendotu egingo da.

Ipar Euskal Herrira etorri Iparaldeko ekonomia sozialaren garapenak mugari garrantzitsu bat finkatuko du 70eko hamarkadan. Garai horretan, abertzale mugimenduak bultzatuta, tokian tokiko garapenaren aldeko mugimendu sozialak osatzen hasiko dira. Gainera, Hego Euskal Herriko mugimendu kooperatibistak Iparaldeko lehen kooperatiben sortzea hurbiletik jarraitu eta lagunduko du. 1974tik aurrera langile kooperatiben mugimenduak gorputza hartzen hasiko da Partzuer⁵⁹ elkartarekin. Hemen-Herrikoa⁶⁰, berriz, 1979-1980 urtean jaioko da. Nekazaritza txiki eta iraunkorraren mugimenduan ELB⁶¹ sindikatua 1980an abiatuko da eta Arrapitz Federazioa⁶² 1991an. Mugimendu horrek aurrera egin zuen eta 2000ko hamarkadan ekonomia sozialaren bigarren jauzi bat ikusiko dugu. Ekoizpenari eta lanari kontsumoaren eta elkartrukearen arloak gehituko zaizkio. Ingurumenari lotutako kezka gero eta handiagoak dira eta zirkuitu laburren ideia agertuko da. Testuinguruko horretan euskal moneta “euskoa” plazaratuko da 2012an. Ekonomia sozialaren bigarren belaunaldi horrek ere Hego Euskal Herriarekin harremanak sendotuko ditu, besteak beste, nekazaritza biologikoan, euskaran, kulturaren, komunikazioan eta hedabideetan. Baita ere

⁵⁶ <http://www.mondragon.edu/eu/huhezi/ikerketa/ikerketa-taldeak/lanki>, Lanki, 2018/05/20 egunean begiratu.

⁵⁷ <http://derecho.deusto.es/cs/Satellite/derecho/es/instituto-de-estudios-cooperativos-0>, ICE Deusto, 2018/05/20 egunean begiratu.

⁵⁸ <https://www.ehu.es/es/web/economiasocialsolidaria/aurkezpena>, Ekonomia Sozial eta Solidarioko EHUko Masterra, 2018/05/20 egunean begiratu.

⁵⁹ http://www.euskonews.com/0664zkb/elkar_eu.html, Partzuer, 2018/05/20 egunean begiratu.

⁶⁰ <http://hemen-herrikoa.org/>, Hemen-Herrikoa, 2018/05/20 egunean begiratu.

⁶¹ <http://www.euskonews.com/0492zkb/ebooks49204eu.html>, ELB, 2018/05/20 egunean begiratu.

⁶² <http://www.argia.eus/argia-astekaria/1760/arrapitz-federazioa>, Arrapitz Federazioa, 2018/05/20 egunean begiratu.

azpimarratzekoa da Iparraldeko hainbat ekonomia Sozialeko eragilek (Lan Berri⁶³, Andere Nahia⁶⁴, Herrikoa, Laborantxa Iraunkorraren Mugimendua⁶⁵) ireki dituzten harremanak Bearneseekin eta Landestarrekin, Tarnosen kokatuta dagoen Hego Akitaniako PTCEren⁶⁶ (Pôle Territorial de Coopération Économique) bitartez.

3.1.3 Ekonomia Sozialaren egungo mugak

Orain arte garatutako azterketari jarraituz ondoriozta liteke Euskal Herrian, Espainian, Frantzia zein Europa mailan ekonomia sozialaren kontzeptua nahiko finkatua dagoela gaur egun, eta finkapen honetan eragin dutela maila anitzetan garatzen joan diren erakunde ordezkari, ebazpen instituzional, ikerlan eta lege garapenek. Hau horrela izanik ere, agerikoa da ekonomia sozialaren aitortza maila ezberdina dela European herrialde ezberdinen artean, eta kontzeptu honen ingurumarian badirela antzeko kontzeptuak, elkarren arteko nolabaiteko lehia aurkitzen direnak.

Monzón eta Chaves-en (2016) irudiko, bi dira tradizionalki ekonomia sozialari loturik agertu izan diren kontzeptuak: *Non Profit Organizations* kontzeptua batetik, eta *Solidarity Economy* bestetik. Azkenaldian, bestalde, kontzeptu berriak ere agertu izan dira, nagusiki hauexek: *Social Enterprise*, *Colaborative Economy*, *Economy for the Common Good*, *Circular Economy* edo *Corporate Social Responsibility* bezalako adierak.

Horien guztien analisisa burutzea eta horiek ekonomia sozialarekin dituzten ezberdintasunak jorratzea lan honen irismenetik kanpo geratzen denez⁶⁷, jarraian aztertuko dugu zeintzuk diren gure iritzian nazioarteko analisi alderatu esanguratsuenak, eta horietan proposatzen diren kontsentsuzko adiera nagusiak.

⁶³ <https://www.lexpress.fr/emploi/formation/detail-organisme.html?id=29812>, Lan Berri, 2018/05/20 egunean begiratua.

⁶⁴ <http://www.anderenahia.asso.fr/>, Andere Nahia, 2018/05/20 egunean begiratua.

⁶⁵ <http://www.eitelkartea.com/dokumentuak/berco.pdf>, Laborantxa Iraunkorraren Mugimendua, 2018/05/20 egunean begiratua.

⁶⁶ https://www.economie.gouv.fr/files/files/PDF/20150421_dossier_de_presse_ptce.pdf, Pôle Territorial de Coopération Économique, 2018/05/20 egunean begiratua.

⁶⁷ Analisi alderatu horiek aztertzeko ikus adibidez: Monzón eta Chaves, 2016, 2012; Perez de Mendiguren, Etxezarreta eta Guridi, 2009; Monzón, 2006.

3.1.4 Ekonomia Sozialaren aitortza maila ezberdina Europan: analisi alderatuak

Gure iritzian, bi dira Europa mailan azken urte hauetan burutu diren nazioarteko alderaketa lan nagusiak, zorroztasunez eta analisirako metodologia bertsuak erabiliz: alde batetik, Monzón et al.-ek (2016) koordinaturiko *Recent Evolutions of Social Economy in the European Union* ikerlana; eta bestetik, Salamon eta Sokolowsky-k (2014) argitaratu dutena *The Third Sector in Europe: Towards a Consensus Conceptualization*.

Lehen ikerlanak bat egiten du bete betean ekonomia sozialaren korpus teoriko nagusiarekin. Bigarrenak, aldiz, *Non Profit Organizations* eskolako ikerlarien aztarna du, eta herrialde europarretan (herrialde anglosaxoiarretan ez bezala) adiera horrek duen jarraipen mugatuagoa dela medio, *Third Sector* adieraren alde egiten du kontsentsuzko proposamen gisa. Bi azterlan horietan berresten da gisa honetako entitateak izendatzeko erabiltzen diren kontzeptuak aldakorrak direla herrialdeen arabera. Azter ditzagun banan bana.

3.1.4.1 Ekonomia Soziala Europan

Azpiko taulan ikus daitekeenez, Monzón et al.-ek (2016) ekonomia sozialaren aitorten mailaren arabera hiru herrialde multzo bereizten dituzte: i) aitortza maila altuko herrialdeen artean leudeke Espainia, Frantzia, Portugal, Belgika eta Luxenburgo, denak ere herrialde kontinentalak; ii) aitortza maila ertainarekin multzo handi xamar bat dago, nahiko heterogeneoa, mediterranean herrialde (Italia, Txipre, Grezia,..) eta eskandinabiar herrialde (Finlandia, Suedia, Danimarka...) gehienak baina baita beste herrialde multzo handi bat ere, eta azkenik iii) aitortza mailarik baxuena herrialde germaniarretan (Austria, Txekia, Alemania) eta baltikoetan (Estonia, Letonia, Lituania) aurkituko litzateke.

Erlazionaturiko kontzeptuei dagokienez, autoreek aipatzen dute Europan sona handiena duten adierak *Non Profit Organizations*, *Social Enterprise* eta *Third Sector* liritekeela, eta arrakasta gutxienekoak *Solidarity Economy* eta *Economy for the Common Good*.

3.1.4.1.1 Taula: "Ekonomia Sozialaren kontzeptuaren nazio-onarpena Europar Batasunan"

Herrialdea	Kodea	Erakunde Publikoen aldetik	Ekonomia Sozialeko Elkarte eta Federazioen aldetik	Mundu Akademiko/ Zientifikoaren aldetik
ALEMANIA	DE	*	**	**
AUSTRIA	AT	*	**	**
BELGIKA	BE	***	***	**
BULGARIA	BG	**	**	**
DANIMARKA	DK	**	**	**
ERRESUMA BAT.	UK	**	**	**
ESLOVAKIA	SK	*	*	**
ESLOVENIA	SI	**	***	**
ESPAINIA	ES	***	***	***
ESTONIA	EE	**	**	*
FINLANDIA	FI	**	**	**
FRANTZIA	FR	***	***	**
GREZIA	EL	**	**	***
HOLANDA	NL	*	*	*
HUNGRIA	HU	**	**	**
IRLANDA	IE	**	***	**
ITALIA	IT	**	**	**
KROAZIA	HR	*	**	*
LETONIA	LV	*	**	**
LITUANIA	LT	**	**	*
LUXENBURGO	LU	***	***	**
MALTA	MT	**	*	**
POLONIA	PL	**	***	**
PORTUGAL	PT	***	***	**
RUMANIA	RO	**	**	**
SUEDIA	SE	**	**	**
TXEKIAR ERR.	CZ	*	**	**
ZIPRE	CY	**	**	**

*Onarpen txikia

**Onarpen ertaina

***Onarpen handia

Iturria: Monzón eta al. (2016:39) taulatik euskaratua

Analisia eremuka egin behar izanez gero, Europa iparraldeko herrietan *Social Enterprise* adiera erabiltzen da gehienbat; eta ekialdeko herrialdeetan *Non Profit Organizations* eta *Voluntary Sector*.

3.1.4.2 Hirugarren Sektorea European

Salamon et al.-aren (2014) analisiaren arabera aniztasun handi bat nabari da Europako herrialdeen artean hirugarren sektore edo espazio hori izendatzerako garaian. Ekonomia sozialaren kontzeptuak erakunde tipo konkretu batzuri erreferentzia egiten dion arren, hirugarren sektorearen baitan sar litezkeen erakunde tipoen unibertsoa askoz lausoagoa da, irekiagoa, eta beraz, herrialde bakoitzean nagusitzen den kontzeptuak errealitate sozioekonomiko anitzago horri erantzuten dio.

Analisia herrialdeka honakoa litzateke: i) herrialde anglosaxoietan *Public Charities* da gehien onarturiko adiera; ii) herrialde germaniarretan *Non Profit Organizations* eta *Civil Society*; iii) Europako hegoaldean *Social Economy* litzateke hedatuena, eta iv) herrialde eskandinabiarretan zein erdialde-ekialdeko herrialdeetan ez dago hirugarren sektorea izendatzeko adiera orokorturik, edo adiera multzo oso handi bat erabiltzen da.

3.1.4.3 Homologazioa, arazoak eta kontsentsuzko printzipioen bilaketa

Nazioarteko analisi alderatuen emaitzetatik lehen ondorio bat atera genezake: ekonomia soziala kontzeptuaren ahulgune nagusietako bat kontzeptua figura juridikoen (edo erakunde tipoen) arabera sailkatzea da, herrialde bakoitzaren legedia ezberdina izanik figura juridikoak ere ezberdinak baitira herrialde bakoitzean. Horrela, kooperatibak oso ohikoak diren bezala tradizio frankofonoko herrialdeetan, ekialdeko herrialde post-sobietarretan kasik debekatuak aurkitzen dira. Era berean, herrialde anglosaxoniarretan *charity*ak oso formula zabalduak diren arren, ez dira guztiz homologagarriak beste herrialde askotan, eta horien parekoak bilatu behar lirateke (“elkarte” edo “gizarte zibileko erakundeak”). Figura juridikoen homologazio honen faltan, nazioartean baliagarria izango den kontzeptua proposatze aldera, sektorea printzipio orokorragoen bitartez sailkatzeko saioa egiten da.

Salamon et al.-ek (2014) proposatzen dute hirugarren sektorea litzatekeela kontsentsuzko adiera Europa mailan. Beren ustez, kontzeptu horren baitan zein motatako erakundeak leudekeen argitzeak desadostasunak sortzen dituen arren, adostasuna ageri da European hirugarren sektoreari lotzen zaizkion hiru printzipio nagusiren inguruan: i) etxegune, gobernu eta irabazi asmodun enpresak ez diren ekintza kolektibo zein indibidualak dira; ii) hirugarren

pertsonei zein komunitateari baliagarria zaion zerbait sortzeko helburua dutenak, eta iii) borondatezko jardueren bitartez burutzen direnak (eta ez inork derrigortuta).

Printzipio horien arabera, hortaz, kontzeptu honen baitakoak lirateke: i) *Non Profit Organization*⁶⁸ guztiak; ii) ekonomia sozialari loturiko kooperatibak eta mutualitateak, baldin eta “etekinen banaketa mugatu” bat ziurtatzen badute “*for-profit*” enpresa ereduetatik urrunduz; iii) enpresa sozialak, baldin eta “etekinen banaketa mugatu” bat ziurtatzen badute “*for-profit*” enpresa ereduetatik urrunduz, eta azkenik iv) instituzioez harago, borondatezko lanean oinarritzen diren ekimen indibidualak ere barneratuko lirateke, zenbait herrialdeetan gizarte zibilaren parte izateari edo boluntariotzari oso lotuta agertzen baita nozio hau.

Monzón et al.-ek (2016) aldiz, *Non Profit Organization (NPO)* ikusmoldeetik oso gertu aurkitzen den hirugarren sektorea kontzeptuaren aurrean, ekonomia sozialaren kontzeptuari hiru elementu bereizgarri ezartzen dizkiote:

(1) *Non profit* irizpidea: ekonomia sozialaren kontzeptuak irizpide hau ez litzateke eskakizun orokortu bat izango, kide partaideen artean etekina banatzen duten enpresak (kooperatiba eta mutualitateak) baitira erakunde nagusiak.

(2) *Demokrazia* irizpidea: ekonomia sozialaren kontzeptuak irizpide hau ezartzen du elementu bereizgarri nagusi gisa, eta praktika demokratikorik ziurtatzen ez duten erakundeak baztertzen ditu.

(3) *Serving people* irizpidea: ekonomia sozialak zehatz ezartzen duen bitartean bere jarduera pertsonen edo gizarte-ekonomiako beste erakundeen mesedetan dela, hirugarren sektoreak hau oso modu heterogeneoan definitzen du, izan ere, *NPO* erakundeak sortuak izan baitaitezke hauek kontrolatu edo finantzatzen dituzten erakundeen mesedetan.

Laburbilduz, ondorioztatu genezake Europar ekonomia sozialarekin lehian diren kontzeptuen arteko gerturatze bat eman dela, nahiz eta elementu bereizgarri nagusiak hauek liratekeen: hirugarren sektorea adierak merkatuko eragileei atea ixten die eta pertsona boluntarioak barneratzen ditu, eta ekonomia sozialak merkatuko eragileei atea ez

⁶⁸ Nazio Batuen “*Handbook on Nonprofit Institutions in the System of National Account*” gidaliburuan Irabazi Asmorik Gabeko erakundeak bezala kontsideratzen direnak; ingelesez “*NPIs*” edo “*non profit institutions*”.

ixteaz gain, pertsonen zerbitzura egindako jarduera kolektibo eta demokratiko gisa bereziten du bere burua.

3.1.5 Etorkizuneko erronkak: proposamen berritzaileak

Orain arte garaturiko bi ataletatik ondorio bikoitza atera genezake. Alde batetik, ekonomia sozialak azken 40 urtetan sendotze prozesu bat bizi izan du, eta hau neurri handi batean sektorea figura juridiko konkretuekin identifikatzen dator. Sektorea modu horretan definitzeak erraztu egiten du berau ikusgarri egitea, datu estatistikoaren bitartez (nazio kontabilitate arauetara egokituak) neurtzea, eta sektorearen sustapenerako politika publikoen *targeta* hobeto mugatzea.

Sendotze bidean mesedegarri izan den hautu horrek berak, alabaina, bestelako ondorio ezkorragoak ere ekarri ditu, kontzeptuaren mugak agerian utziz: nazioartean homologagarri izatea zailtzen da, figura juridikoak eta horien gaineko erregulazioa ezberdina baita herrialde ezberdinen artean. Baina homologazio arazo hauez gain, badira gure iritzian sakonekoak diren beste bi arazo, ekonomia sozialaren potentzialtasuna bera mugatzen dutenak:

(1) Kontzeptuak ezikusiarena egiten duenean ekonomia sozialaren praktika errealean gainean. Figura juridiko konkretu bat hartzeak ez baitu beti ziurtatzen erakundearen praktikak demokrazian eta elkartasunean oinarrituak izango direnik. Erretorika eta praktikaren arteko desegokitze baten aurrean geundeke kasu askotan (Perez de Mendiguren eta Etxezarreta, 2015-II).

(2) Kontzeptuak bigarren ezikusi bat egiten du bestelako praktiken gainean. Hau da, ekonomia sozialari loturiko figura juridikoez gain egon badaudelako bestelako praktika demokratiko eta eraldatzaileak, nagusiki ekonomia solidarioaren esparrutik heltzen direnak (Perez de Mendiguren eta Etxezarreta, 2015).

Ekonomia sozialaren inguruko azken bi kritika horiekin bete betean bat egiten du ekonomia solidarioaren proposamenak, zeinak ekonomia sozialaren muga batzuk gaintzea proposatzen baitu aldi berean. Adiera honek elementu berritzaileak eta bizi-berritzaileak eskaintzen dizkio ekonomia sozialaren kontzeptuari jarraian aztertuko dugun moduan.

3.1.6 Ekonomia Solidarioaren proposamen bizi-berritzailea

Laville-k (2013), ekonomia solidarioaren adiera ekonomia sozialaren kontraesanak gainditzeko bide gisa proposatzen du. Laville-ren (2013) irudiko, ekonomia soziala bere garapenean logika propioetatik urruntzen joan da, geroz eta gehiago desbideratuz merkatuko zein estatuko logika nagusietara. Bizi izan dituen isomorfismo prozesu horiek zentzu kritiko baten gabeziari zor zaizkio, ekonomiaz bere osotasunean ez baitu gogoetarik proposatzen, ez eta ekonomia sozialak merkatuan jokatzeko duen moduz ere. Honen iritziz, ekonomia sozialaren helburu behinena gaur egun merkatuetan lehiakor izatea da, izaera sozialeko helburuak bigarren maila batean utziz. Diskurtso eta praktiken arteko “desegokitze” fenomeno gisa ere izendatu izan dira ikuspegi instituzionalistatik prozesuok (Brunsson, 1989; Meyer eta Rowan, 1977). Zentzu horretan, Laville-k (2013) ekonomia sozialeko eragileek berezkoa duten gaitasun eraldatzailea alferrik galtzen uzten dutela uste du.

Hortaz, ekonomia solidarioaren proposamenarekin, ekonomia sozialaren interpretazio tradizionalak dituen zenbait muga gainditzeko litzateke helburua, bai bestelako errealitate enpresarialak aintzat hartuz (laneratze enpresak, bidezko merkataritzakoak edo finantza etikoen esparrukoak), baina baita teoria neoklasikoak eskaintzen ez dituen lanabes analitikoak proposatuz ere, ekonomia ulertzeko eta egiteko bestelako modu hauek teorizatu eta azaltzeko. Proposamen honek, beraz, ekonomia sozialaren kontzeptua zabaltzeko nahi du gutxienik hiru esparrutan (Perez de Mendiguren et al., 2015): i) antolaketa esparruan, ekonomia sozialak aintzat hartzen ez dituen zenbait dinamika barneratuz (ez monetarioak, esaterako); ii) esparru politikoan, ekonomia sozialaren funtzio politikoaren sakontzea proposatuz, eta iii) esparru teorikoan, teoria ekonomiko hegemonikoei aurka egingo dien korpus teoriko berri baten eraikuntzan parte hartuz.

Azkenetik hasita, ekonomia solidarioak ekonomia diziplina zientifiko gisa berrikusteko proposamena ere badakar berekin. Honela, ekonomia solidarioak eskola neoklasikoaren bi zutabe nagusi jartzen ditu kolokan: lehena, *homo economicus*-aren paradigma, zeinak aurreikusten baitu gizabanakoak (zein pertsona juridikoek) modu arrazional, berekoi, lehiakor eta utilitaristan jardungo duela beren jardura ekonomikoan. Eta bigarren,

ekonomia zientzia formalista, buruaskia eta isolatua denaren usteari ere kontrajartzen zaio (Coraggio, 2009, 2011)⁶⁹.

Ekonomia solidarioaren teorialarien iritzian, ekonomia ulertzeko teoria neoklasikoak muga argiak ditu gutxienik hiru esparrutan: i) esparru ekonomikoa isolatu egiten da gainerako gizarte esparruetatik, funtsean merkatuarekin berdintzen baita; ii) era berean, merkatua esparru auto-erregulatzaile gisa ulertzen da, eta beraz berau erregula lezakeen bestelako gizarte-instituzioen beharrik gabekoa; eta iii) enpresa modernoa enpresa kapitalistarekin parekatzen da, analisitik kanpo utziz ezein erakunde ekonomikoa ez kapitalista (Laville, 2004).

Marko teoriko neoklasikoaren muga horiek gainditzeko, eredu alternatiboa Polanyi (1997) antropologo ekonomialariak eginiko bi ekarpen giltzarri berreskuratuz eraikitzen da. Batetik ekonomiaren gaineko ikuspegi sustantiboa (*sustantive*) hobestea bultzatzen da, egungo ekonomia konbentzionalak bultzatzen duen ikuspegi formalistaren aurrean. Bigarren, eta lehen ideiarik loturik, printzipio ekonomikoaren pluraltasunaren aitortza egiten da, harreman ekonomikoetan merkatuko harremanez gain bestelako erregulazio-arau eta balio sinbolikoek ere parte hartzen dutela nabarmenduz. Funtsean, hiru logika edo “integrazio printzipio” ezberdini buruz ari dira, hots, elkartrukea, birbanaketa eta elkarrekikotasuna, eta horietako bakoitza nagusi den esparru ekonomikoa ezberdinak finkatzen dira: merkatuko ekonomia, estatua eta esparru komunitarioa, hurrenez hurren.

Proposamen epistemologiko honek, ikerketa akademikoari zorrotasuna gehitzeaz batera, ondorio politiko argiak ere baditu, gizarte jardura den neurrian ekonomia birgizarteratzea eta birpolitizatzea eskatzen baitu. Zentzu horretan, ekonomia solidarioak ezin du ekonomikoa ez izan (ekonomiaren adiera plural batetik abiatuta), baina ezin du ezta ere apolitikoa edo politikoki akritikoa izan (Dacheux eta Goujon, 2011). Dena den, hainbat autorek argudiatzen du ekonomia solidarioaren funtzio politiko honen inguruan ez dela

⁶⁹ Ikuspegi neoklasiko honentzat ekonomia gainerako gizarte zientzia eta zientzia naturaletatik aparte uler liteke, modu isolatuan, eta bere interes gune nagusia auto-erregulatzen diren merkatuetan diharduten norbanakoen joera maximizatzailea aztertzea litzateke. Adiera hau kontsiderazio etiko oroz kanpokoa da, ez baitu zalantzan jartzen, besteak beste, ez gizabanakoen preferentzien legitimotasuna ez eta horiek jasotzen dituzten errenten jatorrien gaineko legitimotasunik ere.

oraindik batasun edo koherentzia nahikorik erdietsi, ez eta egitasmo ezberdinen arteko artikulazio errealik ere (Coraggio, 2012)⁷⁰.

Azkenik, antolaketa-esparruari dagokionez, ekonomia solidarioak bat egiten du ekonomia soziala kontzeptuari egiten zaion “hertsadura juridikoaren” kritikarekin, eta hor gertuago kokatzen da EMES eskolak maneiatzen duen *Social Enterprise* adieratik (Defourny eta Nyssens, 2012). Adiera honek sektorea identifikatzeko hiru dimentsio ezartzen ditu (ekonomikoa, soziala eta parte hartzeari dagokiona) eta beren praktikak printzipio horien arabera burutzen dituzten enpresak kontsideratzen ditu *Social Enterprise* gisa.

3.2 Ekonomia Soziala eta Berrikuntza Soziala

Ekonomia sozialaren kontzeptu beraren bilakaera eta gaur egungo kokapena ondo finkatu ondoren ekonomia sozialaren eraldaketa gaitasuna aztertu beharko genuke. Dударik gabe, ekonomia soziala Berrikuntza Soziala bultzatzeko tresna garrantzitsua izan daiteke. Bouchard-i (2013) jarraituz, bere ustez, gaur egungo krisi egoeran ekonomia sozialak paper garrantzitsua joka dezake. Dugarik gabe ez gaude koiuntura-krisi baten aurrean. Egitura-aldaketa izugarriak ematen ari dira garapen eredian, askotariko krisiak sortuz bereziki lan eta enplegu munduan, estatuan, finantza arloan, ekonomia globalean eta ingurumenean. Garai honetan desberdintasunak eta bazterkeria sozial handiak daude, indibidualismoak ere indarra hartzen doa eta estatuak gobernaezinak bihurtzen ari dira. Baina aldi berean ekimen ugari sortzen ari dira ildo nagusi ezkor horiei aurre egiteko elkartasuna bultzatuz, indar harremanak orekatuz eta ondasuna birbanatuz. Testuinguru horretan, ekonomia sozialak zeregin handia eduki dezake desberdintasun ekonomiko eta sozialei irtenbideak bilatzeko eta bide horretatik beste garapen eredu bat eraikitzen joateko. Maila lokalean, ekonomia sozialeko ekimenak biderkatzen eta sakabanatzen ari dira eta, aldi berean, bizi-baldintzetan, enpleguan, lurraldean eta baita ere politika publikoetako plangintzetan eta inplementazioetan egitura-aldaketak eragiten ditu. Horregatik, ekonomia soziala egunetik egunera gehiago ikusten da Berrikuntza Sozialaren kontzeptuaren parte bezala.

⁷⁰ Gizarte Ekonomiaren funtzio politikoaren inguruko eztabaidan sakondu nahi izanez gero, ikus: Coraggio, 2012; Perez de Mendiguren eta Etxezarreta, 2015.

Hain zuzen ere, Bouchard eta Lévesque-n (2010) arabera Berrikuntza Soziala hiru ikuspegietatik aztertu daiteke: i) *mugimendu sozialen* arabera, horiek baita daude ekonomia sozialak bultzatutako eskaera sozialen atzean; ii) *dimentsio instituzionala* kontuan hartuta, dimentsio horrek gutxieneko arau egonkorrekin erabakitzen duela aktore sozialen artean zehaztutako konpromisoak, eta iii) *antolaketa ikuspuntua*, honekin aktoreek praktikan ipintzen dituzte ekoizpen, kontsumo eta banaketa-harreman berriak. Gainera, Berrikuntza Sozialaren ikerkuntzak kontuan hartzen du lehenbizi zer gertatu den aurretik (azalertzeko baldintzak), gero zer pasatu den ondoren (sakabanatze baldintzak) eta azkenik, berrikuntza prozesua (sorkuntza). Prozesu horri lurralde sozialaren konfigurazioan ematen diren harremanak gehitu beharko zaizkio.

Aldi berean, Berrikuntza Sozialak, kontzeptu operatibo bat bezala, kontuan hartzen ditu dinamika ekonomikoaren funtzionamenduari lagundu edo kontrapisua egiten dioten ekimenak. Ikuspegi horretatik, ekonomia sozialaren bitartez sortutako berrikuntza fenomeno garaikide globalagoa da, hau da, garapena lortzeko bidean gizarte zibilaren parte hartzea handitzeko bilaketa bat da. Berrikuntza Sozialaren eta eraldaketa sozialaren azterketa gizarte-paradigma berri edo garapen-eredu berri baterantz hurbiltzeko tresna da. Ez hori bakarrik, ekonomia sozialaren olatu berriak kapitalismoa eraldatzeko proposamenak edo erreakzioak dira. Kontuan hartu behar da sistema horrek bete gabe uzten dituen eskaerek eta nahiek gaur egungo sistema kapitalistaren mugak agerian uzten dituztela. Horregatik, ikuspegi honetatik ekonomia soziala ekonomia kapitalista eta instituzio kapitalisten kritika bezala ikusten da, eta, aldi berean, ikuspegi ekonomikoa, soziala eta politikoa batu dezakeen alternatiba bat izan daiteke. Behar bada, zentzu horretan, ekonomia soziala ez da hainbeste ekonomia kapitalistaren alternatiba orokor bat. Gehiago kontsideratu dezakegu esperimenterako esparru bat. Hori bai, esperimendu horiek orokortzen badira orduan bai lortu dezakegu kapitalismoa eta espazio publikoa zeharo aldatzea eta bide batez demokratizazio handiagoa erdiestea.

Nahi bada lurralde batean berrikuntza zabaldu bertan lehendik dagoen ereduari eta instituzio-sistemari aurre egin behar zaio. Hori dela eta, ekonomia sozialak lortu beharko luke merkatuaren eskusibotasuna apurtzea eta estatuaren eginkizun zentrala gizarte-

garapenean partekatzea. Helburu horiek lortzeko giro instituzionala aldekoa edo kontrakoa izan daiteke. Aldeko giroa dagoen instituzio sistemetan errazagoa izango da lehenbizi, gaur egun dauden hutsuneak eta mugak ezagutaraztea, ondoren, berrikuntza sozialaren prozesuan aktore instituzionalek jokatu behar duten papera zehaztea eta azkenik, irtenbide berriak pentsatzea eta gauzatzea.

Ekonomia sozialak bultzatzen duen Berrikuntza Sozialak koordinazio soziala eta politikoa eratu beharko luke, instituzio, erakunde eta komunitateen arteko zubiak eraikitzeko. Esan dezakegu ekonomia sozialeko enpresak bereziki berritzaileak direla ikuspegi soziala bere balioetan eta eguneroko praktikan txertatzen dituelako (Lévesque, 2004). Baita ere, alde politikoak kontuan hartzen ditu (Eme eta Lavelle, 1994). Ekonomia sozialak bultzatzen duen Berrikuntza Sozialaren helburuetako bat lurralde baten egitura sozioekonomikoa indartzea da bazterketa sozialari aurre eginez eta garapen sostenga ezina alboratuz. Aldi berean, garrantzitsua da estamentu desberdinen arteko parte hartzearen faktorea indartzea. Azken finean, helburu nagusia gizartea ekonomiara eta botere politikora hurbiltzea da.

Hala ere, kontuan hartu behar da ekonomia sozial osoak ez duela berrikuntza erabiltzen. Batzuetan, berrikuntza hori oso epe laburrekoa da. Beste batzuetan, berriz, ikusiezina bihurtzen da merkatuaren presioaren edo estatuaren estandarizazioaren ondorioz. Gainera, ekonomia sozialaren eragina zabaldu daiteke enpresa pribatuetara. Hor dugu Erantzukizun Sozial Korporatiboaren (ESK) ariketa. Zerbitzu publikoan ere ekonomia sozialaren indar hori nabaria izan daiteke, bereziki zerbitzu sozialetan eta osasun arloetan. Dena dela, sakabanatze horrek ez du zergatik praktiken eta instituzioen eraldaketa sakon bat ekarri behar. Berrikuntzak aldi baterako sistemaren tentsioak xurgatu ditzake, barne kontraesanak desagertu gabe. Horregatik, komeni da ere ekonomia sozialaren mugak azalaraztea, besteak beste, lan baldintza kaxkarrak ingurumen tradizionaletan, desberdintasun nabariak harreman sozialetan eta garapena bultzatzea ingurumenaren kalitatean eragin positiboak sortu gabe. Ezin da ahaztu ere ekonomia sozialak berak bakarrik ez daukala gaitasunik sakon errotoetako joerak aldatzeko. Azken finean, ekoizpen, kontsumo eta banaketarako alternatiba praktikoak bilatzeko laborategi bat dela esan dezakegu. Ekonomia sozialaren tresnarekin

pertsona eta komunitateen beharrentzat demokratikoagoak eta errespetagarriagoak diren arau berriak garatu daitezke garapen iraunkorraren perspektiban.

Azken urte hauetan ekonomia sozialak eduki duen gorakadak erakusten du gaur egun ez duela hondar espazio bat okupatzen merkatua eta estatuaren artean. Ekonomia sozialaren tamaina baino gehiago kontuan hartu beharko zen esparru horrek daukan ahalmena eremu instituzionalean eragiteko. Bestalde, ekonomia soziala ezin da hertsiki ondasunen eta zerbitzuen ekoizle hutsa kontsideratu. Koordinaketa soziala eta politikoa bultzatzeko eragile indartsu bat izan daiteke (Laville et al., 2004). Ez hori bakarrik, ekonomia soziala zentzu batean Berrikuntza Sozial iraunkorraren hornitzailea da. Alde batetik, bere esperimentazioak antolaketa maila gainditzen du. Gainera, esparru instituzionalean parte hartzen du eta azkenik ekonomiaren beste gizarte-antolaketa eredu bat proposatzen du.

Dudarik gabe, ekonomia sozialak duen erronketako bat bere ordezkari erabakiguneetan indartzea da. Kontuan hartzen baditugu ekonomia sozialaren jardura mota desberdinak, antolaketa ereduak eta finantzaketa iturriak esan dezakegu oso anitza dela. Gainera, gaur egun oraindik elkarren arteko aitorten instituzional txikia ematen da. Arriskua da ekonomia soziala zatitua eta ekonomia eta gizarteko erabakigune garrantzitsuenetatik isolatua mantentzea. Hau da, ekonomia sozialak barnera begira bizi bada, aktore publiko eta pribatuekin inongo harremanik gabe, bakarrik tokian tokiko erabakigunetan eragin dezake eta gainera efektu horiek denboran mugatuak izango dira. Ekonomia sozialak interes orokorrerako ondorio positiboak dituela erakusten ez badu eman dezakeen sentsazioa da polarizazioa eta bazterketa soziala eta ekonomikoa bultzatzen ari dela. Ekonomia sozialak sinesgarritasuna irabazten joateko eraiki nahi duen gizartearen ikuspegi argi bat islatu behar du.

Normalean ekonomia soziala azaleratu egiten da helburu eta behar kolektiboei erantzuteko, maiz aktibitate-sektore berri edo azpigaratuetan, gauzak egiteko modu berriak proposatuz eta ekitatea, berdintasuna eta justizia sozialen baloreak aldarrikatuz. Beti ere ahalduntze-espíritu sozial eta kolektibo bat mantenduz eta irabazi pertsonalen gaintik helburuak mantenduz (Borzaga eta Defourny, 2004). Ekonomia soziala saiatzen da bete gabe dauden behar sozialak eta itxaropenak asetzen. Behar sozial horiek bete gabe daude enpresa

kapitalistek ez dutelako etekin nahikorik ateratzen edo botere publikoek ez eraginkorrak direlako edo erantzuna atzerapenarekin ematen dutelako (Vienney, 1980).

Ekonomia sozialak baliagarriak diren eta eskuragarri dauden produktuen eta zerbitzuen esparrua zabaltzeko egiten du merkatuak edo estatuak betetzen ez duelako. Baita ere aukera berriak ematen die baztertutako edo bigarren mailako aktoreei eta ahalduntze sozial edo kolektibo berriak piztu egiten ditu erakunde berriak sortuz. Gainera, ekonomia sozialak lagundu egiten du arau eta norma berriak instituzionalizatzen, bereziki lankidetzaren arloko barne antolaketako praktika mailan.

Beste erakundeekin gertatzen den moduan ekonomia sozialeko erakundeen espazioa jarrera kontserbadore eta berritzaileen arteko tentsioen bitartez eraikitzen da. Gainera, esan dezakegu fase desberdinak daudela Berrikuntza Sozialaren bizitza zikloan (nobedadea, zabalkundea, heldutasuna, gainbehera) eta, azkenean, mugimenduaren amaiera instituzionalizazioarekin, gainbeherarekin edo pribatizazioarekin ematen da. Dena dela, Berrikuntza Sozialaren kasuan, instituzionalizazioa garaipenaren gailurra izan daiteke batzuetan joera horrek bere ekarpenak gizarte osora zabaltzea laguntzen duelako (Bouchard, 2006). Hau da, Quebec bezalako herrialde batean non bertako ongizate-estatuak ekonomia soziala aintzat hartzen duen, erakundetzea burokratizazio prozesu bat baino gehiago zerbait desiragarri bezala ikus daiteke.

Ekonomia sozialaren bitartez egiten den Berrikuntza Sozialak ikuspegi global batetik hartuta aukera ematen du gai sozialak birformulatzeko eta birkokatzeko. Ikuspegi berri horrek ezeztatzen du gizartea eta ekonomiaren arteko dikotomia. Gainera, praktika horiek zalantzan jartzen ditu sektore pribatuaren eta publikoaren banaketa eta garapen ekonomikoa eta sozialaren arteko zatiketa. Praktika berri horiek koordinazio soziala eta politikoa eratzen laguntzen dute.

Bouchard-en (2013) arabera bi faktore nagusiek laguntzen dute ekonomia sozialaren berrikuntzaren potentzialtasuna azaltzen. Lehenbiziko faktorea finantza-irabazien eta akzioen banaketa-debekuaren mugarekin lotuta dago. Irabaziak banatzeko muga horrek ekonomia sozialeko erakundeak ondasun publikoaren osagarri indartsua duten produktuak

garatzeko partikulariki erakargarriak bihurtzen dira. Batzuetan ekonomia sozialeko erakundeek estatuak baino ahalmen handiagoa daukate behar batzuk betetzeko. Bestek beste, eskaera zehatz batzuei arinago erantzun diezaiokete boluntarioen errekurtsoak erabiliz.

Bigarren faktoreak ekonomia sozialaren esanahi zabalagoarekin lotura dauka. Atal honek ekonomia sozialaren beste funtzio batzuk kontuan hartzen ditu, hala nola, espazio demokratikoak eraiki, eskubide sozialen defentsa burutu edo gizarte-integrazioa bultzatu (Enjolras, 2002). Hau da, ekonomia sozialak joera dauka instituzioak birpentsatzeko, bereziki instituzio horiek ez badute gaitasunik eskaera sozial berriei aurre egiteko (Lévesque eta Vaillancourt, 1998). Hurbilketa historiko batek erakusten du berrikuntza prozesua fase desberdinetan ematen dela, maiz normak edo arauak erantzunez, alternatibak proposatuz eta azkenik alternatiba horiek erakundeetara eta jarduera-sektoreetara zabalduz.

Horrek erakusten du ekonomia sozialak instituzioei aurre egiten diela arauak, legeak edo gizartearen baloreak erabilia. Ez hori bakarrik, batzuetan saiatzen da garapen ereduaren instituzio dimentsioa berriz ere definitzen, besteak beste merkatu, estatu, sare eta komunitatearen arteko erlazioak (Lévesque, 2006). Berrikuntzak beti ez badu ere gauzak egiteko aldaketa erradikalaren efektua, badu kasu batzuetan eragin zabala edo generikoa.

Ikusi ditugun bi ikuspegi horiek berrikuntza soziala ekonomia sozialean garatzeko osagarriak dira. Lehenbizikoak ekonomia sozialaren potentzialtasuna erakusten du arazo sozialak saihesteko edo konpontzeko (Bouchard, 1999). Bigarrenak, berriz, Berrikuntza Sozialaren xedea azaltzen du, Berrikuntza teknologikoarekin gertatzen denaren kontra, merkatuak oso gutxi bultzatzen duena. Horregatik, ekonomia soziala errealitate konplexua delako diziplina anitzeko kontzeptualizazioa eskatzen du.

3.3 Ekonomia Soziala eta Berrikuntza Sozial Eraldatzailea

Aurreko atalean aipatu den moduan une honetan, neoliberalismoak gidatutako globalizazioaren aroan bizi gara: kapitalismo globalak erabateko hegemonia dauka eta desberdintasunak hazten ari dira bai mundu mailan eta baita ere herrialde bakoitzaren barruan. Aro honetan, ekonomia sozialak bi arima ditu. Batetik, sistema kapitalistaren

barruan integraturik, zenbait arloetan gero eta diferentzia gutxiago dago enpresa kapitalista eta ekonomia sozialaren artean. Bestetik, ordea, kapitalismoaren logikatik kanpo dauden hainbat elementu mantentzen ditu, eta etorkizuneko alternatibak posible direla pentsatzeko edo frogatzeko elementu garrantzitsuak izan daitezke. Anbibalentea dugu, beraz, ekonomia sozialaren egoera: i) batetik asimilatuta eta indiferentziaziorako joera du, eta bestetik ii) alternatibetarako hazitoki da edo izan daiteke. Hain zuzen ere, ekonomia sozialaren etorkizuneko pausoen esku dago balantza alde batera edo bestera eramatea.

Testuinguru horretan, Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen bidean, ekonomia sozialak ekarpen garrantzitsuak egin ditzake. Horretarako oinarrizko printzipioei eutsi, gaurkotu eta ekonomia sozialaren politika norabide horretan bideratzea izan behar du helburu nagusia. Horrek eskatzen du ekonomia sozialaren zenbait inertzia eta bizio sakonki aldatzea, eta ondo finkatzen ari diren zenbait arlo hobetzea. Esan daiteke ekonomia sozialaren esperientzia errealitate baliotsua dela. Bide bat egin du, eta egiten jarraitzen du, enpresa-demokrazia esperientzia bezala, horrek berekin dituen ekarpen, gorabehera eta kontraesan guztien artean. Baita ere, tokian tokiko garapen ekonomiko, sozial eta kulturalarekin konpromisoko ibilbide bat osatu du. Zentzu horretan, estandarizazio kapitalistaren barruan esperientzia sozio-ekonomiko singular eta propio bat osatzen du, pista interesgarriak eskaintzen dituen historiako momentu honetan.

Hala ere, ingurunea erritmo bizkorrean aldatzen ari da azken urteotan. Ekonomia sozialaren esperientzia justizia sozialaren inguruko arazoei erantzunez jaio zen, eta erantzun haiei eusten saiatu da egoera berrietara moldatuz. Horrela gaur egungo inguruneak bi erronka nagusi planteatzen ditu. Alde batetik, ekonomia sozialaren betiko muina izan den erakunde-demokraziaren eta helburu moduan duen eraldaketa sozialaren erronka mantentzea. Eta bestetik, gaur egungo inguruneak sortzen dituen arazo berriei zuzenki erantzutea. Batzuetan, ekonomia sozialaren partaideek hein batean ahultasun ideologikoa eta norabide krisia bizi izan dute, testuinguru berri honetan kokatzeko orduan.

Ekonomia sozialaren ibilbidean positiboak diren elementu askoren alboan elementu kezagarriak ere ikusten dira azken urteotan. Besteak beste, soberania-organoen eta gobernu-organoen ahultzea joera teknokratikoen mesedetan, tokian tokiko jendartearekiko

konpromisoa diluitzeko arriskua, internazionalizazioaren alde sozialari eta lurraldetasunaren artikulazioari buruzko gogoetarik eza, ideologizazioaren eta formazio kooperatiboaren atala indargabetzea, oinarri sozialean zentzu komunitarioa makaltzea, kontratatu kopuruaren hazkundera eta kooperatiba berrien sorreran inplikazioa txikiagoa izatea.

Hau dela eta, Berrikuntza Sozial Eraldatzailearentzat tresna estrategikoa izango den ekonomia soziala berreraiki behar da. Horretarako, ekonomia sozialaren oinarrizko elementuak berreskuratu ondoren garai berrietara egokitu behar dira. Ekonomia sozialak bi norabide handi landu behar ditu CRISESeko ikerlarien ikuspegitik urrunago joanez. Alde batetik, esperientzia sozio-ekonomiko berezi bat bezala sakontzea, enpresa-demokrazia gero eta erradikalagoa lortzea eta azpimarra hazkundera jartzeari utzi eta lehentasuna elementu kualitatiboetan ipintzea. Eta bestetik, konpromiso soziala indartu eta gaurkotu egin behar du. Bi norabide horiek elkarren osagarriak dira eta horien inguruan hainbat ildo bultzatu beharko dira: demokrazia parte hartzailea garatzea, ideia-lanketa, eztabaida eta formazio soziala eta kooperatiboa bultzatzea, lan baldintza duinak bermatzea, ingurumena errespetatzea, inguruarekiko ezaugarri sozial eta kulturean txertatzea eta munduko hegoaldearen garapenerako lankidetzan eta tokian tokiko eraikuntzan parte hartzea.

Datozen urteetan goian aipatu diren erronka nagusiak betetzen joaten hasteko komeni da ekonomia soziala ikuspegi integraletik hartzea eta gero, baita ere, bakoitza bere erakunde edo enpresa mailan aztertzea: barne demokrazian urratsak emateko, formazio arloan sakontzeko, konpromiso sozialean bideak lantzeko eta tokian tokiko garapenen eragile aktiboak bihurtzeko.

Gainera, ekonomia sozialari aitortu behar zaio egun betetzen duen tokia. Ukaezina da bere barnean biltzen duen ahalmen ekonomikoa eta gizartearen antolaketari egiten dion ekarpena. Nahiz eta bere barnean atomizazioa eta sakabanaketa handia den, gizarte eraldaketarako agente nagusienetako bat kontsideratu daiteke. Aldi berean ekonomia sozialaren baloreak kontutan hartzen badira, eragin sozial handia eduki dezake erakunde eta enpresa antolaketan. Baita ere bertan lana egiten duten langileengan eta kokatuta dauden eskualde eta herrietan. Horregatik, ekonomia sozialak antolakuntza sozioekonomikoan izaera estrategikoa dauka eta gaur egungo ikuspegi ekonomizistatik aldentzeko tresna

baliagarria izan daiteke egitasmo ekonomikoaren garapenean beste eredu gizatiarragoa eta beste balore herrikoiagoak txertatzen joateko.

Dudarik gabe, ekonomia sozialaren barnean koordinazio espazioak sortzea beharrezkoa da informazioa trukatu, hausnarketak burutu eta ildo berriak zabaltzeko. Ezin da ahaztu ere partaideen heziketak duen garrantzia ekonomia sozialaren baloreekiko atxikimendua indartzeko. Gauza jakina da urteetan emandako bilakaerak ekonomia soziala errealitate aldakor baten aurrean jartzen duela, kolektibo horretara inguratzen diren partaideen profila eta ikuspegiak egun oso desberdinak direlarik. Ekonomia sozialak bertako beharrei eta bertako arazoei, bertako bitartekoekin, erritmoekin eta kolektibo horrek eskatzen dituen estiloekin erantzun beharko dio. Neurrira sortutako jantzia osatu beharko litzateke, beti ere orain arteko eskarmentua eta esperientzia praktikoa erabiliz.

Gainera, hasiera hasieratik eraginkortasuna landuko da aplikazio praktikoari garrantzia emanaz. Eredu ekonomikoan kontu handiarekin hartuko da ekonomia sozialaren eragina. Ekonomia sozialaren izpirituak demokrazia ekonomikoa, kogestioa, kopartaidetza eta langileen mugimendurekiko artikulazio ideologikoa, politikoa eta organikoa landu beharko du. Ekonomia sozialaren aukera ere erabili behar da sistema kapitalista gainditzeko eta tokian tokiko mugimendu herrikoia proiektu sozio-politikoan integratzeko.

Ildo hori azpimarratzen da ekonomia sozialak bat egiten duelako kultura kolektiboarekin eta iragan komunalarekin. Ekonomia sozialaz hitz egiten denean enpresa multzo eta elkarte eta esperientzia herrikoia eta komunitarioez hitz egiten ari gara. Bertan ondasun eta zerbitzuen ekoizleek ekoizpen bitartekoen jabetza dute edo prozesu ekonomiko globalaren beste osagarriren baten gestio kolektiboa burutzen dute (banaketa, finantzaketa...). Hau da, bere jabetza, funtzionamenduan eta gestioan parte hartzen dute.

Egin den hausnarketa kontuan hartuta, ekonomia soziala osatzen duten enpresa eta erakundeen lehenbiziko sailkapen bat egin daiteke bete behar duten funtzioa edo konpondu behar dituzten arazoak kontuan hartuz. Irizpide horien arabera ekonomia soziala sei kategorietan sailkatu daiteke:

Lehenengo, maila ertain eta altuko teknologia eta antolaketa egokia duten enpresa errentagarriak biltzen dira. Bertan langileek ekoizpen bitartekoen jabegoa dute.

Bigarren, kapitalak alde batera utzi dituen enpresa eta sektoreekin topo egiten dugu, errentagarriak izateari utzi diotelako edo beste gune edo herrialde batean errentagarriagoak direlako. Orduan, langileak elkartu egiten dira beren esperientzia eta diruaren parte bat eskainiz (kalte-ordainketak, langabezia, e.a.) euren kontura enpresari segida emateko eta ekoizpenarekin jarraitzeko lanpostua mantentzearen truke. Enpresa horietako langileek ekoizpen-baliabideen jabegoaren gehiengoa edo osoa dute. Hori da, Elkarte Anonimo Laboralen eta Lan Elkarteko Kooperatiba batzuen jatorria.

Hirugarren, baldintza kaskarrak dituzten norbanako ekoizleekin aurkitzen gara (merkatuak markatzen dituen produktuen prezioek ez dute balio gutxieneko sarrera bat bermatzeko). Banaka ez dute irtenbiderik aurkitzen edo hau ez da nahikoa bizi-irauteko. Aukera bakarra elkartzea da irtenbide bateratu bat aurkitzeko. Talde honetan ekonomiako sektore desberdinetako elkarte eta kooperatibak bilduko dira (nekazaritza, arrantza, industria, finantzak, zerbitzuak). Elkartzearen helburua merkatuaren aurrean beren baldintzak hobetzea da.

Laugarren, badaude baliagarritasun sozialeko zerbitzu edo produktu batzuk, besteak beste kulturean, arlo sozialean edo ekologian. Baina, kapitalarentzat ez dira errentagarriak edo ideologikoki ez dira berarentzat interesgarriak. Horregatik bakarrik pertsonen ekimenarekin eta konpromisoarekin lortu daiteke proiektu horiek aurrera ateratzea. Pertsona horiek elkartu egiten dira ez dagoen zerbitzu hori sortzeko.

Bosgarren, kontuan hartu behar dira tokian tokiko ekoizpen eta bizitza esperientzia kolektiboak, gaur egungo eredu kapitalistaren alternatiba bezala garatzen direnak. Besteak beste, okupatutako zenbait herrien esperientziak.

Seigarren, ekonomia sozialaren barruan sartu daitezke herri ekimenetatik jaio diren elkartze-erperientziak helburu sozialeko produktuak edo zerbitzuak ekoizteko eta kontsumitzeko, besteak beste kontsumo-taldeak, gaur egungo eskaintza publikoak edo pribatuak betetzen ez dituelako.

Aldi berean, gizarte kolektibo eta komunalaren aldeko jarrerak ekonomia sozialaren aldeko esperientzia desberdinak balioztatu egiten ditu. Horiek, gizarteko sektore langile eta aurrerakoiek bizitza baldintzak kontrolatzeko eta menperatzeko egiten ari diren esfortzua islatzen dute. Azken finean, erronka nagusia da ekonomia soziala ere gizarte zibilaren eta herri mugimenduaren aldeko proiektu batean artikulatzea.

3.3.1 Taula: Ekonomia Sozialaren sailkapena

1.-Maila erdi eta altuko teknologia duten enpresak.	Enpresa errentagarriak.
2.-Kapitalak alde egin ondoren langileak elkartu egiten dira.	Elkarte Anonimo Laboralen eta Lan Elkarteko Kooperatiba batzuen jatorria.
3.-Baldintza kaskarrak dituzten norbanako ekoizleak elkartu egiten dira irtenbide bateratu bat aurkitzeko.	Ekonomiako sektore desberdinetako elkarte eta kooperatibak (nekazaritza, arrantza, industria, finantzak, zerbitzuak).
4.-Baliagarritasun sozialeko produktu edo zerbitzu batzuk ekoizteko elkartu egiten dira.	Kapitalarentzat ez dira errentagarriak edo ideologikoki ez dira interesgarriak.
5.-Tokian tokiko ekoizpen eta bizitza esperientzia kolektiboak.	Gaur egungo eredu kapitalistaren alternatiba bezala garatzen direnak.
6.-Herri ekimenetatik jaio diren elkartze-esperientziak, helburu sozialeko produktuak edo zerbitzuak ekoizteko.	Gaur egungo eskaintza publikoak edo pribatuak betetzen ez dituelako.

Iturria: Geuk egina (2018)

Laburbilduz, Berrikuntza Sozial Eraldatzailea bultzatzen duen ekonomia sozialaren mamia ulertzeko lau aspektu kontuan hartuko dira:

Lehenik globalizazio neoliberalari aurre egiteko giltzarria da. Ekonomia sozialak tresna garrantzitsuak ditu globalizazioari arrakastarekin aurre egiteko. Lau gaitasun azpimarratuko dira. Batetik, Lurraldetasuna dugu. Enpresa horietako langile-enpresariak orokorrean lurraldean txertatutako gizon-emakumeak dira eta maiz beren lurraldea garatzeko eta bertan bizitzeko apustua egiten dute enpresen lekualdatze-joerari aurre eginez. Bestalde, Elkartzeko ahalmen handia nabarmentzen da. Ekonomia sozialak bizitasun handia erakusten du elkartzeko, enpresa-taldeak sortu eta zerbitzuak eta estaldura elkarrekin eraikitzeko. Bide horretatik eskala-ekonomiak eta arrazionalizazio-ekimenak lortu ditzake, besteak beste, planifikazioan, ikerketa eta garapenean, espezializazioan, dibertsifikazioan,

komertzializazioan, finantzaketan eta interes komunean. Horrela lortzen dugu ekoizpen-unitate bakoitzaren aukera mugatuak gaitzea. Hirugarrenez malgutasuna dago. Malgutasuna zentzu onean ulertuta etor daiteke ekonomia sozialeko langile-enpresariak erakundearen nortasunarekin eta helburuekin bat egiten dutelako. Malgutasun hori zehazten da enpresa horietan errekurtsio zehatzak daudelako momentu jakin batean hobeto maniobratzeko. Bestalde, malgutasun hori era orekatuan erabili behar da, alde negatiboak (adibidez, auto-esplotazioa) saihesteko eta positiboak (adibidez, autogestio-esperientziaren sendotzea eta garapena) indartzeko. Azkenik, komunitatearen garapena hartzen da kontuan. Komunitatearen garapen hori lortu daiteke ekonomia sozialaren bitartez ekoiztutako plusbalioaren zati bat bideratzen bada tokian tokiko industria, hezkuntza, gizarte-laguntza edo ikerketa finantzatzeko. Oinarritik kontrolatutako prozesua izan beharko luke, komunitateko garapen ekonomikoa, autogestioa eta jabetza soziala, egitura komunitarioen demokratizazioa eta sustapen materiala, soziala, politikoa eta kulturala bultzatzeko.

Bigarren aspektua ekonomia soziala eta tokiko burujabetza da. Modu orokor batean erronka nagusia ekonomia soziala eta autogestioaren bitartez tokian tokiko proiektu propio bat garatzea izango zen langile eta herri mugimenduekin bat eginez. Hau da, ekonomia sozialak sindikatuarekin eta langile mugimendu osoarekin artikulazio ideologikoa eta politikoa behar du gero tokian tokiko instituzioekin elkarlan aurrerakoia burutzeko. Hala ere, gaur egun ekonomia sozialaren gehiengoan artikulazio organiko hori ez da ematen eta artikulazio ideologikoa eta politikoa oso mugatua da.

Hirugarrenez, ekonomia soziala eta eredu propioaren arteko uztarketa dago. Ekonomia soziala langile eta herri mugimenduekin artikulatzearen klabea askatzen bada gero errazagoa izango da autogestio errealitate hori garapen eredu propio batean txertatzea. Horretarako zenbait orientabide plazaratuko ditugu: i) ekonomia soziala uler daiteke tokian tokiko gizarte eraldaketarako tresna garrantzitsu bat bezala; ii) ekonomia soziala bihur daiteke langile klasearen sustapenerako tresna bat eta, aldi berean, protagonista ekoizpen, banaketa, zerbitzu eta hezkuntza arloetan eta enpresaren gestioaren esparruan; iii) ekonomia sozialak herriaren interesak defendatu behar ditu eta saiatu behar da multinazionalen metaketa ekonomikoaren eredia neutralizatzen; iv) nahiz eta ekonomia

kapitalistan murgilduta egon, ekonomia sozialak, eguneroko praktikatik abiatuta, ahalmena erakutsi behar du eredu kapitalista gainditzeko eta proiektu soziopolitiko eraldatzaile berri batean txertatzeko. Integrazio horrek artikulazio integral bat eskatzen du arlo sozial, politiko eta ideologikoarekin. Hau da, Ekonomia sozialaren eraginkortasun ekonomikoak lurraldearen garapen sozial, politiko eta kulturalarekin bat egin beharko luke; v) aztertu beharko da zein den ekonomia sozialaren ahalmena emantzipaziorako eredu propioa garatzeko. Ekonomia sozialak bat egin beharko du tokian tokiko ezaugarriekin proiektu komunal bat burutzeko eta estatu sozialismoen porrotak gainditzeko. Alde batetik, boterea eta jabegoa komunitate osoan birbanatzeko beharra azpimarratuz eta bestetik, parte hartzea, autogestioa eta kontra-botere espazioak dinamika eta mundu-ikuskeraren berri baten barruan txertatuz.

Laugarren adierak ekonomia soziala eta gizarte-ekintza uztartzen ditu. Bere garrantzi handiagatik aipamen berezia merezi du kooperatibek duten betebeharra gizarte-ekintzei buruz. Horiek, kontuan hartuta beren jatorria eta helburuak, babes berezia dute zenbait ataletan, horien artean babes fiskala. Kooperatibek Elkarleen Zerga txikiagoa ordaintzen dute baina horren truke etekinen zati bat beren jarduera burutzen duten lurraldeko gizarte-ekintzetara bideratu behar dute. Gai hori garrantzi handikoa da, lurralde bateko garapen ekonomiko, sozial eta kulturalaren beharra planteatzen denean. Gizarte-ekintzen Funtsak komunitate sozialenak dira. Ondorioz, bertako hiritarrek eta gizarte-mugimenduek parte hartu beharko lukete funts horien banaketa-erabakietan.

3.4 Ekonomia Sozial Eraldatzailearen giltzarri nagusiak

Aurreko atalean aipatu den moduan une honetan, neoliberalismoak gidatutako globalizazioaren aroan bizi gara. Kapitalismo globalak erabateko hegemonia dauka eta desberdintasun ekonomikoak eta sozialak handiak dira bai mundu mailan eta baita ere herrialde bakoitzaren barruan. Aro honetan, ekonomia sozialak bi arima ditu. Batetik, sistema kapitalistaren barruan integraturik, zenbait arloetan gero eta diferentzia gutxiago dago enpresa kapitalista eta ekonomia sozialaren artean. Bestetik, ordea, Ekonomia Sozial Eraldatzailearen dinamika desberdinak garatzen ari dira zenbait esparruetan, kapitalismoaren logikatik kanpo. Kasu horretan, ekonomia sozialak eraldaketarako potentzialitatea dauka eta bide batez zeregin handia bete dezake desberdintasun

ekonomiko eta sozialei aurre egiteko eta bide horretatik beste garapen eredu bat eraikitzen laguntzeko. Horregatik esan daiteke eraldaketan oinarritutako ekonomia soziala Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen pieza bat dela. Hain zuzen ere, Ekonomia Sozial Eraldatzaile hori definitzeko hurrengo giltzarri nagusiak kontuan hartuko dira:

(1) Ekonomia Sozial Eraldatzailea Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen kontzeptuaren parte da. Hau dela eta, Ekonomia Sozial Eraldatzailea Berrikuntza Sozial Eraldatzailearentzat tresna estrategikoa da. Horrekin batera, Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen harrobia eta sustatzailea izan daiteke. Hau da, Ekonomia Sozial Eraldatzaileak beste mugimendu eta dinamika sozialekin batera gaitasun handia eduki dezake prozesu eraldatzaileak martxan ipintzeko. Horretarako, Ekonomia Sozial Eraldatzaileak bi esparru nagusi jorratzen ditu. Alde batetik, esperientzia sozio-ekonomiko berezi bat bezala garatzen da, enpresa-demokrazia gero eta erradikalagoa lortzeko eta azpimarra hazkundean jartzeari utzi eta lehentasuna elementu kualitatiboetan ipintzeko. Eta bestetik, konpromiso soziala indartu eta gaurkotu egiten du. Bi norabide horiek elkarren osagarriak dira eta horiek sendotzeko hainbat ildo lantzen dira: demokrazia parte-hartzailea garatu, ideia-lanketa, eztabaida eta formazio soziala eta kooperatiboa bultzatu, lan baldintza duinak bermatu, ingurumena errespetatu, inguruarekiko ezaugarri sozial eta kulturean txertatu eta munduko hegoaldearen garapenerako lankidetzan eta tokian tokiko eraikuntzan parte hartu.

(2) Ekonomia Sozial Eraldatzaileak Ekonomia Solidarioaren adiera darama bere barnean. Hain zuzen ere, Ekonomia Solidarioaren adiera ekonomia sozialaren kontraesanak gainditzeko bide gisa proposatzen da. Hortaz, ekonomia solidarioaren proposamenarekin, ekonomia sozialaren interpretazio tradizionalak dituen zenbait muga gainditzea litzateke helburua, bestelako enpresa errealitateak aintzat hartuz (laneratze enpresak, bidezko merkataritzakoak edo finantza etikoen esparrukoak) eta teoria neoklasikoak eskaintzen ez dituen lanabes analitikoak proposatuz, beti ere, ekonomia ulertzeko eta praktikan jartzeko bestelako moduak teorizatu eta azaltzeko. Ekonomia solidarioaren proposamen horrek, beraz, ekonomia sozialaren kontzeptua gutxienez hiru arloetan zabaldu nahi du: i) antolaketa esparruan, ekonomia sozialak aintzat hartzen ez dituen zenbait dinamika eta enpresa errealitateak barneratuz (laneratze enpresak, bidezko merkataritza, finantza etikoak...); ii)

maila politikoan, ekonomia sozialaren funtzio politikoaren sakontzea proposatuz, eta iii) esparru teorikoan, teoria ekonomiko hegemonikoen aurrean korpus teoriko berri baten eraikuntzan parte hartuz.

(3) Ekonomia Sozial Eraldatzaileak lau ezaugarri nagusi ditu. Ekonomia Sozial Eraldatzailearen edukia ulertzeko lau aspektu kontuan hartuko dira. Lehenbizi, ekonomia sozial eraldatzaileak globalizazioari aurre egiteko tresna izango da, lurraldetasuna, elkartzeko ahalmena, malgutasuna eta komunitatearen garapena landuz. Bigarren, ekonomia sozial eraldatzaileak bertako sindikatuarekin eta langile mugimenduarekin artikulazio ideologikoa eta politikoa eratuko du gero tokian tokiko instituzioekin elkarlana burutzeko. Hirugarren, ekonomia sozial eraldatzailea autogestioan oinarritutako garapen eredu propio baten ezinbesteko pieza izango da. Azkenik, laugarren atalean, ekonomia sozial eraldatzailea gizarte-ekintzari laguntzeko bitartekoa kontsideratu daiteke, lortutako etekin ekonomikoen zati bat lurraldeko gizarte-ekintzetara bideratuz, lurraldeko garapen ekonomiko, sozial eta kulturalaren beharrei erantzuten joateko.

3.4.1 Taula: Ekonomia Sozial Eraldatzailearen giltzarri nagusiak

1.-Ekonomia Sozial Eraldatzailea Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen kontzeptuaren parte da:

- Ekonomia Sozial Eraldatzailea Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen tresna estrategikoa da.
- Ekonomia Sozial Eraldatzailea Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen harrobia eta sustatzailea da.
- Prozesu eraldatzaileak martxan ipintzeko Ekonomia Sozial Eraldatzaileak bi esparru osagarri jorratzen ditu:
 - .Esperientzia sozio-ekonomiko berezi bat bezala sakondu:
 - .enpresa-demokrazia gero eta erradikalagoa lortu.
 - .lehentasuna elementu kualitatiboetan jarri.
 - .Konpromiso soziala indartu eta gaurkotu:
 - Bi norabide horiek sendotzeko ildoak:
 - .demokrazia parte hartzailea garatu.
 - .ideia-lanketa, eztabaida eta formazio soziala eta kooperatiboa bultzatu.
 - .lan baldintza duinak bermatu.
 - .ingurumena errespetatu.
 - .inguruarekiko ezaugarri sozial eta kulturalen txertatu.
 - .munduko hegoaldearen garapenerako lankidetzan eta tokian tokiko eraikuntzan parte hartu.

2.-Ekonomia Sozial Eraldatzaileak Ekonomia Solidarioaren adiera darama bere barnean:

- Ekonomia Sozialaren interpretazio tradizionalaren mugak eta kontraesanak gainditzen ditu.
- Ekonomia sozialaren kontzeptua zabaltzen egiten du:
 - .antolaketa esparruan: ekonomia sozialak aintzat hartzen ez dituen zenbait dinamika eta enpresa errealitateak barneratzen ditu (laneratze enpresak, bidezko merkataritza, finantza etikoak...)
 - .esparru politikoan: ekonomia sozialaren funtzio politikoa sakondu egiten du. Hau da, ekonomia birpolitizatu egiten da.
 - .esparru teorikoan: teoria ekonomiko hegemonikoei aurre egingo dien korpus teoriko berri baten eraikuntzan parte hartuko du.

3.- Ekonomia Sozial Eraldatzailearen lau ezaugarri nagusi:

1.-Globalizazio neoliberalari aurre egiteko lanabesa:

- .lurraldeari lotua: enpresa horietako langile-enpresariak orokorrean lurraldean txertatutako gizon-emakumeak dira.
- .bizitasun handia elkartzeko: enpresa-taldeak sortu; zerbitzuak eta estaldura taldeak eraiki.
- .malgutasuna: zentzu onean ulertuta erabiliko da momentu jakin batean hobeto maniobratzeko eta alde negatiboak saihesteko.
- .komunitatearen garapena: ekonomia sozialaren bitartez lortzen den plusbalioaren zati bat tokian tokiko beharretara bideratu.

2.-Tokian tokiko artikulazio ideologikoa eta politikoa burutzeko tresna:

- .ekonomia sozialak sindikatuekin eta langile mugimenduarekin artikulazio ideologikoa eta politikoa burutu.
- .ekonomia sozialak tokian tokiko instituzioekin elkarlana antolatu.

3.-Garapen eredu propio bat eratzekeo pieza:

- .ekonomia soziala tokian tokiko gizarte eraldaketarako tresna garrantzitsua.
- .ekonomia soziala langile klasearen sustapenerako bitartekoa.
- .ekonomia soziala herriaren gehiengoaren interesak defendatzeko .
- .ekonomia sozialak, eguneroko praktikatik hasita, ahalmena erakutsi proiektu soziopolitiko eraldatzaile batean txertatzeko.

4.-Gizarte-ekintzari laguntzeko bitartekoa:

- .lurralde bateko garapen ekonomiko, sozial eta kulturala sustatu.
- .bertako hiritarrek eta gizarte-mugimenduek parte hartu beharko lukete fondo horien banaketa-erabakietan.

Iturria: Geuk egina (2018)

4 KAPITULUA: BERRIKUNTZA SOZIAL ERALDATZAILEA ETA GOBERNANTZA

Kapitulu hau jorratzen hasteko Lévesque-ren (2013) hausnarketa jarraituko dugu. Bere ustez, Bigarren Mundu-Gerra amaitu eta gero Berrikuntza Sozialak indar handia hartu zuen administrazio publikoan. Hala ere, garai horretan “berrikuntza” termino hori ez zegoen zabaldua eta azentua ipini zen sasoi horretan aurrera eraman ziren erreforma politiko nagusietan, besteak beste, garatutako herrialdeetan ongizate-estatuak eraikitzen joateko asmoz (Esping-Andersen, 1990).

Dena dela, azken bi hamarkadetan berrikuntza administrazio publikoan eta zerbitzu publikoetan zerbait ohikoa bihurtu da. Berrikuntza Sozialaren inguruan eman den interes gorakada hori 80ko hamarkadan hasi zen New Public Management (NPM) paradigmaren oinarritutako erreformei esker (Osborne eta Gaebler, 1993). Hasiera batean, Berrikuntza Sozialeko ekimenak NPMren inguruan garatu badira ere, gero, Berrikuntza Soziala zabaldu da Administrazio Publikora eredu alternatibo eraldatzaileak eraikitzeko asmoarekin.

Dudarik gabe, administrazio publikoa esparru aberatsa bihurtu da Berrikuntza Soziala aplikatzeko. Nolanahi ere, Berrikuntza Sozial hori ikuspegi desberdinetatik ipiniko da martxan. Berrikuntza Sozialak esanahi orokor bat dauka. Esan dezakegu prozesu bat bezala ulertzen dela konpondu gabeko arazo sozialei irtenbide bat emateko. Dena dela, Berrikuntza Sozialaren kontzeptua gehiago sakontzen badugu kontuan hartuko dugu zein motakoak diren berrikuntza horiek sortu dituzten harreman sozial berriak, bai gestio eta koordinazio arloan eta, baita ere, botere eta arautze esparruan.

Administrazio publikoan eta zerbitzu publiko gehienetan ematen den Berrikuntza Soziala gehienetan erakundetzearen bitartez zabaldu da. Hain zuzen ere merkatu indarren bitartez baino gehiago autoritate publikoek Berrikuntza Soziala onartu eta bultzatu dutelako. Ez hori bakarrik, estatuaren eginkizuna garrantzitsua da merkatu eta merkatu gisako egoeretan, eta estatuak zuzendutako birbanaketak finkatu egiten du oinarritzko zerbitzuen eskaera. Zerbitzu publikoetan produktuaren berrikuntza maiz antolaketa berrikuntzak izaten dira eginkizunaren banaketa, edukia, gaitasunen izaera edo koordinaketa berrantolatu egiten direlako zerbitzua aldatzen denean (Callon, Larédo eta Rabeharisoa, 1997).

4.1 New Public Management

Bestalde, zenbait eremu geografikoetan erraztasun handiagoarekin garatzen da Berrikuntza Soziala, hori da NPMaren paradigma herrialdeetan modu ezberdinean garatzeko arrazoi nagusia (Bezes, 2009). Gainera, denboraldi historiko batzuetan beste batzuetan baino samurrago burutzen da Berrikuntza Soziala. Bereziki krisi handiak eman direnean horiek gainditu dira jarduera eta sektore desberdinetan berrikuntza generikoak aplikatuz. Azken gertakari horrek atea irekitzen die berrikuntzen klusterrei. Krisi ondorengo berrikuntza ez da ezustean zabaltzen. Paradigma sozio-tekniko batek lagunduta garatzen da, arazo, metodo eta irtenbide posibleen ikuspegi berri bat ezarriz (Freeman, 1991).

Berrikuntza teknologikoa aplikatzen duen paradigma sozio-tekniko hori Berrikuntza Soziala aplikatzen duen paradigma sozial batekin lotuta dago. Paradigma mota berri horrek berrikuntza erradikalaren ernalketa laguntzen du. Besteak beste, jakinduria esparru berrietara eramateko Berrikuntza Soziala sortzen du baino, aldi berean, berrikuntza inkrementala eta arrunta errazten du. Paradigma sozietarioak gainera berrikuntza atzerabiderik gabeko puntura eramango duen dinamikaren alde egingo du.

Paradigma berri batek indarra hartzeko aurretik paradigma zaharrak erakutsi behar du ez dela gai dauden arazo sozialei eta eskaerei erantzuteko. Ez hori bakarrik paradigma berri baterantz trantsizioa egiteko beharrezkoa da aliantza politiko eta sozialak eraikitzea eta botere harremanak aldatzea. Gainera, aldaketa horiek gauzatze berriak ekartzen ditu ikasteko eta bereganatzeko bide berriak hartuz eta tresna berriak erabiliz (Hall, 1993).

NPM bezala ezagutzen den paradigmak Berrikuntza Soziala aplikatzen du, bereziki antolaketa arloan eta maila instituzionalean. XXI. mendearen hasieran munduko estatu-nazio askok esfortzu handiak egiten ari dira gobernatzeko modua aldatzeko eta berrikuntzaren kultura gobernuetako burokrazian txertatzeko. 1979an Margaret Thatcher eta 1980an Ronald Reagan boterera iritsi zirenean estatu-erreformen abiapuntu indartsua finkatu zuten. Nahiz eta erreforma horiek eskuinak bultzatuta eta pentsamendu neoliberalarekin garatuak izan ziren beste kasu batzuetan, berriz, zentro-ezkerreko gobernuak martxan ipini zituzten, horien artean, 1984ko Zelanda Berriko gobernu laborista eta 1983ko Australiako gobernu

laborista, ondoren 1992an Bill Clinton eta 1997an Tony Blair. Suedia eta Holanda bezalako beste herrialde batzuetan erreformak ez ziren hain ideologikoak izan. Pragmatismoan oinarritu ziren gehiago.

Egin diren zenbait azterketetan ondo identifikatzen dira erreforma horien atzean zeuden koalizioak eta aliantzak. Wood-ek (1995), adibidez, erreforma horien atzean kontabilitate-enpresen, finantza-bitartekarien, enpresa-aholkularien eta negozio-eskolen arteko koalizioak identifikatzen ditu. Hau da, profesional eta interes korporatiboen guneak osatzen dira. Gainera estatuaren barnetik ere laguntza ematen da norabide horretan urratsak emateko. Testuinguru horretan ekonomia neoklasikoan hezitako goi mailako gestore publikoek klase berri bat sortzen dute lan analitikoak burutzeko, kontrola areagotzeko eta bide batez errutina gutxitzeko.

Estatu-nazioetan klase ertaineko sektore batek interes berezia erakusten du zerbitzu publikoek hobetzeko eta aldi berean zergak gutxitzeko. Horretarako proposatzen du merkatua zerbitzu publikoetan sartzea. Mugimendu sozialetan lan egiten duten gizarteko beste sektore batzuk, berriz, erabiltzaileen parte hartzean oinarritutako zerbitzu publikoen aldeko erreformak bultzatu nahi dituzte (Aucoin, 1995). Zenbait tokietan, gainera, hiritar talde batzuk eskaera formalak egingo dituzte administrazio publikoa deszentralizatzeke (Moulaert, 2009; Klein, 2008). Gobernuak erreformatzeko mugimendu horiek Munduko Bankua, Nazioarteko Diru Funtsa, Nazio Batuen eta Ekonomiako Lankidetzaren eta Garapenerako Erakundea bezalako nazioarteko erakunde handien babesa jaso zuten. Munduan zehar zenbait lehiaketa ere antolatu ziren berrikuntza zerbitzu publikoetan bultzatzeko.

Esan dezakegu New Public Management gobernuaren eginkizunaren inguruko ideia berrien multzoa dela. Baita ere kudeaketa-berrikuntza sektore publikora eramateko bilduma (Van de Walle eta Hammerschmid, 2011). Ideien munduan, NPMek beste gestio eskola batzuei itzala egin die. Dena dela, NPM planteamendua aurrera eramaterako garaian kontuan hartu behar da bi eskola daudela: i) Ekonomia instituzional berria, aukeraketa publikoaren teoria, monetarismoa eta eskaintzan oinarritutako ekonomia bere barnean duela, eta ii) Kudeaketa joera berriak, kudeaketa teoriak eta negozio-motibazioaren psikologia nahastuz. Bi

planteamendu teoriko horiek negozio pribatua sektore publikoan sartzearen alde daude eta aldi berean berrikuntzaren alde. Horrekin batera, zalantzan ipintzen dituzte administrazio publikoen balio tradizionalak, horien ordean eraginkortasunaren, sormenaren eta arriskuak hartzearen alde daude. Dena dela, bi planteamendu horiek, kudeatzaileek eduki behar duten autonomiari buruz, iritzi desberdinak dituzte. Lehenbizikoan, ekonomia instituzional berria, lehiakortasuna eta finantza-pizgarriak klabeak dira nagusia asebetetzeko. Bigarrean, new public management planteamenduan, berriz, kudeatzaileengan sinestea bilatzen da autonomia eta askatasun handiagoa emanez eta horrekin berrikuntzarako aukera handiagoak bilatuz (Pollitt eta Dan, 2011).

Hood (1991) lehenbizikoa izan zen NPM planteamendu ezin hobea bezala ezaugarritzen, hurrengo elementuak erabiliz: i) gestio profesional aktiboa sektore publikora eraman: horrek dakar antolaketa publikoaren buruan dauden arduradunei autonomia gehiago ematea, ardurak hobeto banatzeko eta antolatzeko; ii) errendimendua neurtzeko neurri eta estandar esplizituak ezarri: nahi badugu betekizunen ebaluaketa kuantitatiboa egin helburuak eta adierazleak ondo zehaztuak egon behar dira; iii) outputen kontroletan enfasi handiagoa jarri: zenbait berrikuntza proposatu daitezke errendimendu-hobekuntzak sustatzeko; iv) sektore publikoan unitateen bereizketa bultzatu: ildo horren helburua kudeaketa eta gestio sistemak deszentralizatzea da, erlatiboki independenteak diren unitate operazionalekin eta kudeatzaileak aurrekontuak antolatzeko margen handiarekin, hori dena eraginkortasuna hobetzeko; v) sektore publikoan lehiakortasun handiagoa lortu: unitateen arteko lehiakortasunaren bitartez asmoa da kostuak gutxitzea eta eraginkortasuna handitzea; vi) gestio-praktikan sektore pribatuko estiloari garrantzia eman: sektore publikoan sektore pribatuko gestio-tresnak sartu, besteak beste, langileen kontratazioan malgutasun handiagoa ezarriz, eta vii) errekurtsioak erabiltzerakoan diziplina eta zuhertasuna erabili: administrazio publikoa zorrotzagoa izatera bultzatu nahi da, kostuak gutxitzeko, bereziki giza errekurtsioetan.

NPMren definizio hori britainiar esperientzian inspiratzen da eta gobernu desberdinen dokumentuetatik hartutako elementuak biltzen ditu, bereziki anglo-saxoi herrialdeetan. Dena dela definizio hori, formulatu den lehenbizikoa izanik, hasierako puntua bezala

konsideratu dezakegu. Beste ikerlari batzuk euren definizio propioa kaleratu zuten. Azkenik, paradigma horrek aukerak ematen ditu administrazio publikoan Berrikuntza Sozialean espazio berriak sortzeko.

4.2 Gobernantzan aire berriak

Estatu-erreformak eta berrikuntza olatu berriak bi urratsetan emango dira. Lehenbizikoa, 80ko hamarkadan hasiko dena, ekonomiaren liberalizazioan, enpresa estatalen pribatizazioan eta gastu publikoaren murrizketan zentratuko da, hori dena, monetarismoaren teoriak eta eskaintzan oinarritutako ekonomiak lagunduta (Bezes, 2009). Bigarren urratsa, berriz, 90eko eta 2000ko hamarkadetan garatzen dena, gehiago arduratuko da administrazio-erreformak egiten eta estatua modernizatzen, gehienbat zerbitzuak eraginkorragoak bihurtuz eta erabiltzaileentzat arduratsuagoak eginez. Gainera, azken urrats horrek gestio eta zerbitzuaren entregaren inguruko berrikuntza sortuko du (Van de Walle et al., 2011).

Goian eztabaidatu ditugun NPMren ezaugarriak abiapuntu bezala hartuta, Berrikuntza Soziala norabide askotan banatzen da. Kudeatzaileentzat autonomia gehiago lortzeko asmo horretan, gidatzea eta arraun egitearen arteko diferentziak kontuan hartuta eta misioak finkatutako norabidea zehazturik berrikuntza mota asko lortu daitezke. Helburua betetzeko eta eraginkortasuna lortzeko saiakerak espazio berri bat sortzen du outputak neurtzeko eta kudeaketa eta aurrekontu ataletan adierazle berriak definitzeko. Era berean, emaitzen jarraipenari prozesuei baino garrantzi handiagoa emateak ekarri du, bezeroari begirako berrikuntzaren bitartez, zerbitzuen kalitatea hobetzea. Zerbitzu publikoak espezializatutako unitate zerbitzu desberdinetan banatzen direnean berrikuntzarako espazio berri bat sortzen da. Espazio horretan, erlatiboki independenteak diren agentziak agertzen dira, lankidetzak ere kontuan hartu beharko ditugu, horien artean publiko-pribatuak, eta deszentralizazio joerak erregio eta toki mailetara zabalduko dira. Sektore publikora lehiakortasun handiagoa eramateko ondorengo elementuak sustatu behar dira: i) zuzendaritza zentrala eta agentzien arteko kontratuzko edo erdi-kontratuzko prozesuak birdiseinatu; ii) lehiaketa eta lizitazioak ugaritu; iii) irabazi-asmorik gabeko sektoreari, ekonomia sozialari eta sektore pribatuari irekitako koasimerkatuak ezarri.

Sektore pribatuan oinarritutako kudeaketak eta bezeroek gidatutako gobernuek berrikuntza sustatzen dute kudeaketa eta antolaketa modu aitzindariak, langileak kontratatze eta ordaintzeko sistema berriak eta lan antolaketa eredu irudimentsuak lortzeko. Hau da, baliabide publikoak diziplina handiagoarekin kudeatu direnean produktibitatea igo eta kostuak gutxitu egin dira. Bereziki, giza baliabideen kostuak txikitu dira, orokorrean borondatezko erretreta bultzatuz.

Azken hamarkadan itsura du NPMk bere gailurra jo duela eta eredu berriak agertzen hasten direla. Hiru dira gehien aipatzen diren bide berriak. Alde batetik, Weberren estatu berria izendatu dezakegu. Estatuaren legitimazio berria lortu nahi da balio ez-ekonomikoetan eta sozietate-arazoetan azentua jarritz. Bestetik, hor ditugu estatuaren, gizarte zibila eta merkatuaren arteko erlazioak aztertzen dituzten teoriak. Azkenik, berriz, gobernu-gobernantza teoriak ditugu gidaritzaren horizontal eta bertikalaren inguruan, gizarte sarea deituriko ereduarekin (Vries, 2010). Public Value Management hurbilketak aztertzen duen moduan hiru ikuspegi horiek atal desberdinetan gainezari egiten dira, bereziki gobernantza eta berrikuntza arloetan (Benington eta Moore, 2011).

Administrazio publikoari dagokionez, 2000ko hamarkadan gorantz doan eredu berri bat ikus dezakegu, gobernantza Integratzailea bezala ezagutzen dena. NPM ereduan oinarritutako erreformek ongizate-estatu (welfare state) zerbitzuak emateko erlatiboki independenteak diren aktore anitzen ongizate nahasketa (welfare mix) batean bihurtu dute (Evers eta Laville, 2004). Horretarako gobernuek sareak osatu dituzte interes publikoa bermatuko dituzten jarduerak gauzatzeko. Hau da arrazoia gobernantza eredu asko plazaratzeko, bakoitza bere izen propioarekin. Besteak beste, sare gobernantza, banatutako gobernantza publikoa, gobernantza integrala, gobernantza batua, gobernantza holistikoa, gobernantza publiko berria, digital garaiko gobernantza, elkarlaneko gobernantza eta erabateko gobernantza. NPMrekiko diferentzia handiena da eredu berri horiek ez direla bakarrik gidaritzan zentratzen. Baita ere garrantzia ematen diote jarraipenari, inplementazioari eta zerbitzua emateari. Gainera, lankidetzan eta koordinaketan oinarritzen diren eredu berri horietako batzuk gobernantzaren rola azpimarratzen dute (Van de Walle et al., 2011).

Zentzu horretan, balio publikoaren kudeaketak azterketa berezia egitea eskatzen du. Azken hurbilketa horretan esparru publikoaren gobernantzak eztabaidatzeko eta erabakitzeko sareak sortzea balio publikoak lortzeko eskatzen du (Stoker, 2006). Azken eredu berri horren ezaugarri nagusienak hurrengo hauek dira: i) esku hartze publikoaren helburua balio publikoak indartzea izango da; ii) interesatuta dauden guztien aitorpena egin behar da euren parte hartzea bermatzeko; iii) zerbitzuak emateko momentuan mentalitate irekia erakutsi beharko da zerbitzu publikoen baloreak aplikatuz, eta iv) zerbitzu publikoak eskaintzeko garaian egokitzeko eta ikasteko gaitasuna beharrezkoa da. Parte hartzean oinarritutako gobernantzan esku hartzen duten aktoreek ezin dute bakarrik zerbitzuen koprodukzioan parte hartu. Baita ere politika publikoen koproduktoreak izan behar dute (Vaillancourt, 2009). Kudeatzaileek esfortzu handia egin beharko dute ikasteko eta epe luzeko harremanak lantzeko gaitasuna erakutsi beharko dute, hain zuzen ere, eredu horretan asko baloratzen delako balio publikoak lankidetzan eraikitzeke ahalmena (O`Flynn, 2007).

NPM ikuspegia kontuan hartzen badugu, berrikuntza ekoizleek hasi eta zabaltzen dute. Horretara iristeko NPMk bi eskaera egiten ditu. Alde batetik, “utzi kudeatzaile publikoak berrikuntza egin dezaten” zuzendaritza hurbilketak esaten duen moduan. Bestetik, berriz, “kudeatzaile publikoak berrikuntza egitera bultzatu” barnera begira presioa erabiliz eta kanpora begira lehiaketa sortuz. Laburbilduz, NPMk erreferentzia bezala enpresa-ekimen kapitalista dauka eta alde batera uzten ditu presio politiko-administratiboaren erantzunak (Verhoest, Verschuere eta Brouckaert, 2007). Ikuspegi horretatik berrikuntza irekia baino gehiago itxia bezala sailka dezakegu (Chesbrough, 2003).

Lankidetzaren gobernantzaren eremuaren barnean, bezeroak barnean hartzen dituen berrikuntza izanik, berrikuntza irekiaren mota bat dela esan dezakegu. Era orokorrean gobernantza mota hori definitzeko kontuan hartuko dugu: i) sarea indartzen duten helburuak eta helmugak sozializatu egiten ditu; ii) munduaren ikuspegi partekatua eta kontzientzia soziala kanpoko ingurumenarekin bilatzen da; iii) ezagutza soziala sortzeko ahalmena sareko partaideen arteko interakzioa eta elkarrizketaren bidez lantzen da, eta iv) parte hartzearen arkitektura bat eraikitzeke bitartekoak jartzen dira gobernantza

mekanismoak egituratzeko eta bide batez erabiltzaileek ere eztabaidetan eta erabakitze guneetan parte hartzeko.

Kontuan hartzen badugu estatua eta komunitatearen lankidetzaberrikuntzaren arteko erlazioa posible dugu bi dimentsio bereiztea: alde batetik, berrikuntzaren natura eta, bestetik, lidergoaren natura eta lankidetzarako akordioak. Dударik gabe, lankidetzaberrikuntzak sortzen duen berrikuntza hobeto egokitzen zaio erabiltzaileari eta komunitateari. Baita ere, lankidetzaberrikuntza sarean antolatutako gobernantzan aplikatzen bada egon daitekeen arriskua modu desberdinetan gutxitu daiteke. Lehenbizi, informazioa partekatu egiten da eta erakunde desberdinen artean praktika egokiak sustatzen dira. Jarrera horrek eramaten gaitu esperimentuak arrakastatsuak izatera eta porrotak ahal den heinean saihestera. Bigarren, lankidetzaberrikuntza, prozesuari eta garapen urratsei garrantzia emanez, gai da kostuak gutxitzeko eta era berean urrats batetik bestera zer den egingarria aurreikusteko. Hirugarren, arriskua txikiagotzeko ikuspuntutik, berrikuntza horiek ondo egokitzen dira aktore asko dauden eta multidimentsionalak diren zerbitzu publikoetara. Azken finean, lankidetzaberrikuntzak, eztabaida eta koeraikuntza bultzatzen duen heinean, babes handiagoa eta arrakasta izateko baldintza hobeak erakusten ditu. Hori horrela izaten da lankidetzaberrikuntza horrek errekurso ukigarriak eta ukiezinak mobilizatzen dituelako, normalki ongizate-estatuak hornituko dituen zerbitzuak ekoizteko (Von Hippel, 2005).

Eztabaida honetatik bi kanpo jorra ditzakegu. Alde batetik, azken hiru hamarkadetan Berrikuntza Sozialak jarraitu duen bidea administrazio publikoan. Bestetik, berriz, Berrikuntza Sozialak daukan berezitasuna eta eman behar zaion garrantzia espazio publikoan beti ere kontsideratuta berrikuntzaren teoria ez dagoela mugatuta sektore pribatuari. Administrazio publikoa tradizionalki ez bada izan berrikuntzaren aldekoa, gero, aldaketak sartzen hasi diren heinean, oso eremu emankorra bihurtu da. Horretarako sektore pribatuari begira jarri da, ez bakarrik antolakuntzaberrikuntzak sartzeko baita ere instituzio mailakoak, besteak beste, barne-entitate independenteen eraikuntza eta kanpo-entitateen hornikuntza (kuasipublikoak, pribatuak eta irabazi asmorik gabeko lankidetzak). Horietako

berrikuntza batzuk sektore pribatutik kopiatu dira. Ikuspegi hori ez da bakarrik zabaldu herrialde garatu guzietara, urrutiago ere joan da.

Laburbilduz esan dezakegu NPM paradigmatik berrikuntza-sorta bat ipini duela koherentziadun marko batean eta hortik abiatuta bere zabalkuntza sustatu du. Denborarekin paradigma horren mugak gobernantzaren ikuspegitik agerian gelditu dira, bereziki estatuak kontrola eta abilezia galtzen joan delako. Aldi berean, pentsamendurako bide berriak sortzen hasi dira. Nahiz eta NPM egun nagusia izaten jarraitzen duen, bide berri horiek ari dira berrikuntza ildo berriak jorratzen. Hain zuzen ere, eskola berri horiek eskatzen ari dira balio publikoa birkokatzea eta birdefinitzea, eztabaida eta erabiltzaileen partaidetza sustatzea gobernantza hobetzeko eta lankidetzaren berrikuntza eratzeko. Bereziki eskola berri horiek bakarrik errotuko dira aliantza berriak osatzen badira estatu-barnetik eta kanpotik.

Nahiz eta oraindik berrikuntza horiek oso zabaldua ez egon, aldaketek eragina dute zerbitzu publikoetan eta erlazio berriak josten ari dira, estatua, merkatua eta gizarte zibilaren artean (Lévesque, 2003). Horrek bultzatzen gaitu galdetzea ea berrikuntza horiek eraikiko duten administrazio berri bat gaur egungoarekin hibridazio bat eginez edo sedimentazio forma bat hartuko duten. Pentsatu dezakegu, herrialdearen arabera, gizarte batzuetan hibridazioa garaile aterako dela eta sedimentazioa beste batzuetan.

Sektore publikoan berrikuntzaren zabalkundea ez da merkatuaren bitartez bermatzen, instituzionalizazioaren laguntzarekin baizik. Hau da, instituzionalizazio hori emango da agintari publikoek berrikuntza aitortu ondoren sostengatzen badute. Hemen ere, errotikako berrikuntza bat martxan jarri aurretik justifikatu egin behar da eta eginkizuna ondo azaldu zentzua eta edukia emanaz. Ez hori bakarrik, gizarte-paradigma berri hori administrazio publikoan bakarrik txertatuko da itun sozial zabal bat lortzen bada eragile guztien artean. Sektore pribatuan etekin ekonomikoak ematen dituen berrikuntza ona dela kontsideratzen bada sektore publikoarentzat, berriz, ez da nahiko berrikuntza hori mesedegarria izatea erakundearentzat. Gai izan behar da baita ere balio publikoak hobetzeko eta interes orokorra bermatzeko. Hau da, berrikuntza eraldatzaile horrekin gizartearen esparru publiko/komunitarioa sendotuta eta indartuta atera behar da.

Horregatik, administrazio publikoan eta gizarte mailan lan handia dago egiteko berrikuntza prozesuari zentzu aurrerakoia eta eraldatzailea txertatzeko.

Enjolras-en (2008) hausnarketa jarraituz gobernantzaren auziaren atzealdean estatuaren ahalmenaren erosio bikoitza ezkututzen da. Alde batetik, kontuan hartu behar dugu azken urteetan estatuaren esku-hartze gaitasuna ahuldu egin dela mundu mailako finantza merkatuen desarauketak burutu direlako eta nazioz gaindiko eta nazioz azpiko eskumenen garapena ikusi dugulako. Bestetik, berriz, estatuaren papera txikitu egin da, zalantzan ipini delako bere ahalmena arazo sozialak konpontzeko. Irizpide neoliberalaren zabalkundearekin estatua egunetik egunera arazoen konpontzaile baino gehiago eraginkortasun ekonomiko ezaren sortzaile bihurtu da. Joera horren ondorioz desarauketak, privatizazioak, aurrekontu publikoen murrizketak eta enpresa pribatuetan aplikatzen diren gestio praktikak zabaldu dira. Gobernantza gaiak indarra hartu du hausnarketa bat zabaldu delako esku-hartze publikoaren inguruan. Hain zuzen ere eztabaida zabaldu da interes orokorra lortzeko zeintzuk diren ekimen alternatiboen inguruan hausnartzeko, beti ere, politika publikoaren behartzeko tresnak erabili gabe. Gobernantzaren auziak azertu nahi ditu estatua eta gizartearen arteko erlazioak birdefinitzen dituen praktika berriak eta esku hartze publikoaren modalitate desberdinak.

Gobernantzaren inguruan idatzi den literaturak nahasmena sortzen du gobernantza kontzeptu beraren inguruan (Pierre, 2000). Hain zuzen ere, gobernantzaren kontzeptuari bi zentzu eman diezaiokegu. Lehen hurbilketa estatuaren inguruan zentratzen da eta estatuaren ahalmenak eta bitartekoak gobernatzeko zeintzuk diren aztertzen ditu. Bigarren hurbilketa, berriz, gizartean kokatzen da eta hurbilketa horrek, alde batetik, gizartearen auto-gobernantzari garrantzia ematen dio eta bestetik, gizarteko aktore desberdinen artean ematen diren koordinazio-modalitateak azpimarratuko ditu. Dena dela, gobernantzaren inguruko idazkiek botere publikoaren esku hartzean ematen diren aldaketak bereziki aztertzen dute. Rodhes-ek (1997) azpimarratzen duen moduan gobernantza gobernatze terminoaren zentzuaren aldaketa bat da, gobernatzeko prozesu berri bat adieraziz, arautze baldintza eraldatuak nabarmenduz edo gizartea gobernatzeko metodo berriak aipatuz. Gobernantzaren kontzeptuak hierarkia eta merkatuaren mugak gainditzen dituzten ekimen

publikoen modalitateen garapenak azpimarratuko ditu eta bide batez, gaur egungo gizarte konplexuan estatuaren eginkizunaren eraldaketari garrantzia emango dio. Ideia nagusia da 80ko hamarkadan esku-hartze publiko hierarkikoen mekanismoek tokia utzi diotela merkatuaren mekanismoari eta 90eko hamarkadan sareen eta lankidetzaren garapenari.

Gobernantzaren kontzeptua gobernatze noziotik desberdintzen da lehenbizikoak arazo kolektiboak konpontzeko prozesuak azpimarratzen dituelako eta bigarrenak, berriz, estatuaren rola oinarri bezala hartuta, gizarte zibila eta botere publikoaren arteko elkarrekintzari garrantzia emango diolako. Gobernantzak aktore publiko eta pribatuen aniztasunaren presentzia eskatzen du, partikulariki ekonomia sozial eta solidarioko aktorena esku-hartze kolektiboak lantzeko eta martxan ipintzeko. Gobernantzaren ideiarekin atzean dagoen botere publikoaren eginkizuna ez da autoritate hierarkiko eta kontrolatzaile batena. Gehiago da lidergoa erabiltzen duen bideratzaile bat, aktore desberdinen sare batean partaide bezala lagunduz. Aldi berean, gobernantzaren kontzeptuak botere publikoaren esku-hartze moduen aldaketari garrantzia ematen dio. Gainera, hasiera bateko koordinaketa hierarkikoak lehenbizi merkataritza-koordinaketak bihurtzen dira eta gero sare-koordinaketan amaitzen dute. Ez hori bakarrik, baita ere azpimarratu beharko da esku-hartze moduen aldaketak ez direla homogeneousak ez eta ere linealak. Esku hartze eta koordinazio modu berriek ez dute zaharren tokia oso osorik hartzen. Kasu gehienetan gehitu edo nahastu egiten dira beren artean tentsioak eta inkoherentziak sortuz.

Enjolras-ek (2008) gobernantza-erregimenaren kontzeptuaren inguruan lehenbizi estatuaren esku hartze modu idealak desberdintzen ditu, gero saiatuko da gobernantzan eman diren aldaketak aztertzen eta gobernantzarako instituzio-gune hibridoak irudikatzen. Berak gobernantza-erregimen bat definitzeko hiru elementu osagarri erabiliko ditu:

(1) Interes orokorreko helburuak betetzeko konprometituta dauden aktoreak eta horien ezaugarriak (helburuak, baloreak, instituzio-formak, errekurtsoak, motibazio motak, legitimazioa).

(2) Interes orokorreko helburuak betetzeko erabilitako politika publikoko tresnak. Ikuspegi honetatik hiru tresna mota desberdindu ditzakegu:

.Erregulatzaileak: helburua aktoreak modu zehatz batean funtzionatzeko behartzea da.

.Sustagarriak: tresna hauekin aktoreek eragiten ditugu norabide egoki baterantz mugitzeko.

.Informatzaileak: xedea da aktoreei buruan sartzera era zehatz batean aritu behar dutela.

(3) Politika publikoko sare batean elkar eragiteko instituzio-modalitate desberdinak. Politika publikoko tresnak ez dira euren kaxa martxan ipintzen. Beharrezkoak dira koordinaziorako instituzio-modalitate desberdinak politika publikoen kontzepzioaren eta aplikazioaren motak definitzeko.

Bestalde, gobernantza berriaren kontzeptuak bere atzean politika publikoen esku-hartzearen eraldaketa bat darama. Horren harira, bi gobernantza-erregimen erreferentzial berri azaleratzen dira:

Lehenbizikoa gobernantza lehiakorraren erregimena da. Gaur egun hegemoniko bihurtzen ari den paradigma da. Gobernantza lehiakorraren erregimena aztertzerakoan ikus dezakegu botere publikoak utzi egiten duela lehiakortasunaren eta kontsumitzailearen eta ekoizlearen askatasunaren jokoaren jolasten. Erregimen honen barruan bi gobernantza lehiakor bereizi ditzakegu. Bata, merkatu-mekanismoetan oinarritzen da eta bestea, merkatuaren porrota aintzat hartu ondoren, kuasimerkatua antolatzen saiatzen da. Kuasimerkatuaren erregulazioak kontratu sustagarriak martxan ipiniko ditu botere publiko eta eskaintzaileen artean. Merkatu-mekanismoaren erregulazioan, berriz, kuasimerkatuaren erregulazioaren kontra, kontsumitzailea era berean eroslea da eta horren ondorioz erregulazioa ez da ematen botere publiko eta eskaintzailearen kontratu jokoaren artean. Gehiago erregulatzen da produktuaren kalitatearen kontrolaren bitartez eta prezioaren distortsioa erabiliz (diru-laguntzak, zergak).

Bigarren erregimena lankidetzaren motakoa da. Erregimen horretan lankidetzaren bat martxan ipintzen da botere publikoa eta bereziki sozietate zibileko aktoreen artean. Autoritate

publikoen eginkizuna ez da indarrezko boterea erabiltzea. Gehiago da koordinazio eta sustatze lanak burutzea gizarte zibila eta botere publikoaren artean sortu diren lankidetzak desberdinetan. Lankidetzak elkarlanean aritzeko forma berriak dira arazo edo proiektu batean inplikaturako sektore desberdinen artean. Dancause eta Morin-en (2013) arabera, lankidetzak-harremanek ez dute bakarrik kooperazioa eramaten. Baita ere bere barnean gatazka daramate. Horrek eskatzen du ekimen bateratuak bilatzea eta aktore desberdinen artean negoziatzea. Azken finean, lankidetzak jakinduria kolektiboa sortzen du eta aktore desberdinen arteko logiken hibridazioa dakar. Gainera, lankidetzak asimetrikoa izan daiteke, aktore desberdinek ez dituztelako errekurtso berdinak edo hierarkikoa, partaide batek daukan boterea bere abantailarako erabili dezakeelako.

Tokiko gizarteak eta administrazioak esparru egokiena da gobernantza mota hori martxan ipintzeko, gune aproposa delako aktoreen arteko koordinazio horizontala sustatzeko eta aldi berean lurraldea ekoizpen eta lehiakortasunerako faktore bihurtzeko. Gobernantza berri hori gauzatzeko ezinbestekoa da lurralde horretan, alde batetik, kapital soziala egotea eta baliaraztea eta bestetik, harreman instituzionalak garatzea demokrazia parte-hartzailea gauzatu dadin. Atzerapen ekonomikoa jasaten ari den auzo edo hiri bateko komunitateak suspertze-prozesu kolektibo bat martxan ipini dezake bertako eragile sozioekonomikoek beren interesak defendatzeko mobilizatzeko gaitasuna erakusten badute. Mobilizazio horrek jardura ekonomikoa bertan kokatzearen aldera paper erabakigarria joko dezake. Gainera, eragile sozial desberdinen arteko erlazioak sendotu egiten ditu. Mobilizazio soziala eta ekimen kolektiboa martxan ipiniko da norbanakoek pobretze prozesua nozitzen hasten direnean, kontzientzia hartuz eta zergatien aurre eginez.

Norbanako ekimen desberdinen konbinaketa bati esker, gizabanakoek gizarte talde bat osatzen dute prozesua geldiarazteko. Kontzientzia hartzen dutenean ez direla gai gutxieneko eskubide sozial eta ekonomikoak errespetatu arazteko orduan antolatuko dira indarrean dauden arau ekonomikoak eta politikoak erantzuteko asmoz. Beren indarra kolektiboaren antolaketa ahalmenarekin eta populazio osoarentzat auziak duen garrantziarekin lotuta egongo da. Hain zuzen ere, populazio baten barnean ematen den bidezko kausa baten zabalkundeak gizarte-mugimendu bat sortzen eta garatzen lagun dezake, aurkariekin,

mintzakideekin, erakundeekin eta lortu beharreko helburuekin (Tilly, 1984). Baina beti ez da horrela gertatzen. Gizarte-mugimendu bat ez da linealki garatzen. Batzuetan aurrera pausoak eta beste batzuetan atzerapausoak ematen dira. Geldiuneak ere hor daude. Eragile sozialen osaketa anitza denean gai bati buruzko jarrera desberdinak egoten dira eta ondorioz erabakiak adostasunez hartzea zaila izaten da. Quebecen tokian tokiko aktoreen mobilizazioak ekimen kolektiboaren esparrua aldatu egin du. Berrikuntza Sozialaren bitartez tokian tokiko garapen esparruan aktore berriak sartu dira, horien artean aipatzekoak dira ekonomia sozial eta solidarioko enpresa eta erakunde desberdinak (Klein, Fontan, Harrison eta Lévesque, 2009).

4.3 Gobernantza eta ekonomia Soziala

Quebecen 1980tik aurrera garatu zen testuinguru instituzionalean kontzertazioak eta lankidetzak berritu egin zuten tokian tokiko aktoreen ekimenen katalogoa (Fontan, Klein eta Tremblay, 2005). Desberdintasun ekonomikoak salatzen eta demokrazia egikaritzeko baldintzak hobetzeko presio bideak erabiltzen Quebecen zenbait mugimendu sozialek, horien artean, erakunde sindikalek eta erakunde komunitarioek jauzi egin zuten enpresa-ekimenera eta gobernantza egiturak osatzera gutxieneko zerbitzuak bermatzeko eta enplegua sortzeko (Klein, Tremblay eta Bussièrès, 2010). Hau da, ekimenerako esparru kolektibo berriak jaio ziren.

Antolaketa ikuspegi batetik, tokian tokiko kolektibitate batek dituen tresnen artean bertako aktoreen ekimen kolektiborako joera eta errekurtsoen mobilizazioa azpimarra ditzakegu. Aktibo horiek sozio-lurraldearen kapitalaren kontzeptuaren bitartez garatuko dituzte. Sozio-lurraldearen kapitalak bi elementu ditu. Alde batetik, tokian tokiko kolektibitate batek dituen ezaugarri kulturalak, instituzionalak eta fisikoak. Eta bestetik, gaitasun indibidual eta kolektiboak garapen hori antolatzeko eta gauzatzeko.

Estrategia horrek balio dezake maila lokaleko politika publikoetan kolektibitatearen aldeko estatuaren berrinbertsioa aldarrikatzeko. Elkartasun sozialaren bila biltzen diren aktore desberdinek gaitasuna erakusten badute botere publikoa interpelatzeko gai izango dira lankidetzan oinarritutako gobernantza sustatzeko eta tokian tokiko arazoei aurre egiteko.

Ikuspegi horretatik, ekonomia sozial eta solidarioko erakundeek eginkizun garrantzitsua eduki dezakete gobernantza prozesuak martxan ipintzeko garaian, hain zuzen ere, erakunde horiek gizalegezko konpromisoen eta gizarte-partaidetzaren espazioak direlako. Ekonomia sozialeko aktoreek, bereziki maila lokalean, beste ezaugarri batzuen artean honako bi faktore dituzte gobernantza prozesuetako aktore pribilegiatuak izateko. Alde batetik, elkartasunezko guneak osatzen dituzte borondatezko konpromisoetan eta elkarrekikotasunean oinarritutako ekimen kolektiboak burutzeko gai direlarik. Bestetik, berriz, erakunde horietako erabaki prozesuak hastapen eta prozedura demokratikoetan oinarritzen dira. Arrazoi horiengatik ekonomia sozial eta solidarioko erakundeak gizarte zibilaren mobilizaziorako eta ordezkaritzaerako aktore klabeak dira.

Gobernantza berriak gizarte zibila eta botere publikoaren arteko lankidetzaren harremanak sustatzen baditu ere ezin da ezkutatu eguneroko errealitatean erregimen eta gobernantza maila anitz daudela bata bestearen ondoan eta gainean, gobernantzaren konplexutasuna agerian utziz. Vaillancourt-en (2013) hausnarketa jarraituz politika publikoaren Koeraikuntza eta koprodukzioaren fenomenoak aztertzerako garaian kontuan hartuko ditu estatua, merkatua eta gizarte zibileko aktoreen arteko harremanen bilakaera. Gaiari buruzko beste hurbilketa batzuk estatua eta merkatua edo estatua eta gizarte zibilaren arteko harremanetan bakarrik oinarritzen dira.

Bestalde, estatuko partaideek desberdinak izan daitezke, tokian tokikoak, eskualdekoak, nazionalak, kontinentalak edo globalak. Gainera, botere politikoaren hainbat atal bereizten ditu, besteak beste, exekutiboa, legegilea eta judiziala. Ez hori bakarrik, arlo politikoa arlo administratibotik alderatu daiteke. Merkatua, berriz, gizarte zibiletik kanpo dagoen beste esparru bat kontsideratzen da. Berarentzat azalpen hori garrantzitsua da gizarte zibilaren inguruko aipamenetan gai hori nahiko ilun dagoelako. Merkatuak lan merkatuko eta merkatu-ekonomiako partaideak kontuan hartuko ditu. Baita ere beren ordezkaritza-egiturak, enpresa-ordezkariak eta erakunde sindikalak barne.

Gizarte zibilaren kontzeptuari dagokionez, berriz, ez da errealitate uniforme bat kontsideratzen. Horri buruz ikuspegi desberdin asko daude eta horien ginetik aipatzekoa da gizarte zibilak demokratizatzeko daukan gaitasuna. Hirugarren sektorea aipatzerakoan,

termino hori, azken hamarkadetan erabili da eta Europako autore desberdinen eragina jaso du, bereziki politika sozialean eta hirugarren sektoreko berrikuntza ahalmenean interesatuta dauden ikerlarien aldetik. Kontzeptu hori, alde batetik, gizarte zibilaren esanahia baino estuagoa da eta bestetik, ekonomia sozialarena baino zabalagoa.

Ekonomia sozialaren kontzeptua aztertu nahi bada, lehen esan dugun moduan, CRISESek erabiltzen duen definizio zabala hartuko dugu. Definizio horrek merkatukoak eta merkatukoak ez diren partaideak onartuko ditu, komunitate eta kooperatiba erakundeak barne. Definizio horren ondorioz ekonomia sozialeko aktoreek gizarte zibilean eta merkatuan egon daitezke.

Politika publikoaren kontzeptuak, berriz, politika soziala hartzen du bere barnean. Aldi berean, politika sozialaren ezaugarri asko partekatu egiten ditu. Horregatik, politika publikoak erakunde estatuen jardura ekonomikoak bakarrik kontuan hartzen dituen ikuspegi murriztailearekin ez du bat egiten. Politika terminoa aipatzen duenean estatua edo agintari publikoen esku hartzeari buruz ari da hitz egiten. Gainera, parte-hartze hori interes orokorra lortzeko egiten da, merkatuaren legeak edo familiaren elkartasuneko diru-iturriak kolokan ipintzen direnean.

Bestalde, berarentzat estatuaren esku hartzearekin bakarrik, zaila da politika sozial eta publiko egokia lortzea. Une honetan lagungarri egiten da koeraikuntzaren eta koprodukzioaren politikaren bereizketa. Ikuspegi aurrerakoi eta eraldatzaile batetik politika publikoei buruz hitz egiten ari denean garrantzitsua da, alde batetik, estatuaren esku hartzea baloratzea eta indartzea eta, bestetik, bide bat aurkitzea gizarte zibilaren, merkatuaren eta bereziki ekonomia sozialaren ekarpenak sendotzeko. Lan hori, ongizate-estatuaren politiken loraldia amaitu zenetik, inoiz baino beharrezkoagoa da egitea. Aurretik 70eko eta 80ko hamarkadetan ezkerreko mugimenduek joera eduki dute estatua politika sozial eta publikoaren aktore bakarra kontsideratzeko. 80ko hamarkadako ongizate-estatuaren eta enplegu krisiaren ondorioz zenbait talde aurrerakoi saiatu dira beren ikuspegia egokitzen politika publikoari komunitateak dituen beharrak gehituz.

Vaillancourt-ek (2013) politika publikoaren sorreran sei osagarri ikusten ditu: i) interes orokorra lortzeko helburu nagusiak ezagutu; ii) erregulazio irizpideak aukeratu kalitatea lortzeko; iii) finantzaketa-iturriak lortu (estatua, pribatua, mistoa...); iv) gestioarekiko ardura-banaketak definitu; v) politika publikoei dagozkien zerbitzuak emateko ardura-banaketak hitzartu eta vi) politika publikoak ebaluatzeko bitartekoak ezarri. Osagarri horiek Koprodukzioa eta koeraikuntza prozesuak ondo definitzen lagunduko dute.

4.3.1 Politika publikoen koprodukzioa

Azken 30 urtetan asko idatzi da koprodukzioaren inguruan. Hausnarketa horietan interes publikoko zerbitzuen koprodukzioa eta politika publikoen koprodukzioa aztertu da. Koprodukzioak estatuaren eta estatukoak ez diren aktoreen parte hartzea eskatzen du. Azken horiek merkatuarekin edota gizarte zibilarekin (hirugarren sektorea) lotuta egon daitezke. Koprodukzioa antolaketa mailan aplikatzen da (produktuen eta zerbitzuen antolaketan). Koeraikuntza, berriz, instituzio mailan garatzen da zuzendaritza orokorraren funtzioa betetz eta politikaren elementuak azpimarratuz. Politika publikoaren koprodukzioaren literaturaren berrikusketan bi zentzu ematen zaio kontzeptuari. Koprodukzioaren kontzeptua lehenengoz Amerikan garatu zen 60ko hamarkadaren azken urteetan zerbitzu publikoak ekoizterakoan hiritar arrunten parte hartzea deskribatzeko eta mugatzeko. Ikuspegi horrek zerbitzu horiek ematerako garaian norbanakoen eta aktore kolektiboen eginkizuna azpimarratzen zuen. Berriki, kontzeptuaren ikuspuntu normatiboa garatu da. Hau da, koprodukzioak, zenbait ikerlarien arabera, paper garrantzitsua joka dezake sistema politiko demokratikoen eta ongizate-estatuaren berrikuntzan (Pestoff, Osborne eta Brandsen, 2006).

Koprodukzioaren lehen esanahiak interes publikoaren zerbitzuei buruz hitz egiten ari da. Esan daiteke formalki ez datorrela bat politika publikoaren koprodukzioarekin. Koprodukzioaren bigarren esanahiak, ikuspegi normatiboa lantzen duenak, interes handia du. Koprodukzio mota hori politikari buruz ari da, partikulariki politika publikoari buruz. Koprodukzio eredu horrek eginkizun garrantzitsua joka dezake sistema politiko demokratikoen berrikuntzan. Hain zuzen ere, koprodukzioaren helburua estatuaren eta politika publikoen demokratizazioa lortzea da. Horretarako, zerbitzu publikoen eta politika

publikoen antolamendua eraikitzen saiatzen da. Bertan, autoritate publikoek estatukoak ez diren aktoreen ekarpenak bilatzen dituzte, bereziki hirugarren sektorekoak.

Zerbitzu publikoen eta interes publikoko zerbitzuen berrantolaketari begira koprodukzioaren forma berriak ikertzen ari diren ikerlarien artean batzuk ari dira maila lokaleko politikan eta bereziki udaletan ematen ari diren aldaketak aztertzen. Aldaketa horietan, akordio berriak gauzatzen ari dira, bai formalak eta informalak, hierarkikoak eta kooperatiboak, gobernu lokalaren, sektore pribatuaren eta hirugarren sektoreko erakundeen artean. Zerbitzu kolektiboen ekoizpenean estatukoak ez diren erakundeek erabiltzen ari diren parte hartzeko era berri horiek, *“welfare mix”* edo *“mixed economy of welfare”* bezala ezagutzen direnak (Pestoff, 2006), sarri tokiko zerbitzuen arloan garatzen dira, besteak beste, garraioan, zabor bilketan eta zerbitzu sozialetan. Hau da, hemen zehaztu dugun koprodukzioaren kontzeptuak estatua eta irabazi asmoko sektore pribatuaren arteko lankidetzan oinarritutako eraketak azaldu nahi ditu. Beste autore batzuk, berriz, estatua eta hirugarren sektoreko erakundeen arteko lankidetzak kontuan hartuko dute, ekonomia sozial eta komunitarioko familien erakundeak barne.

Horietako eraketa batzuk bat datoz ikuspegi neoliberalarekin estatuarekin lotura eza sustatzen dutelako, partikulariki lankidetzak publiko-pribatuaren bitartez. Beste antolamendu batzuk bultzada aurrerakoia garatzen dute, ekonomiaren eta gizartearen demokratizazio handiagoa bilatuz. Autore talde bat koprodukzio forma aurrerakoiak hedatzeko interesatuta dago, estatua eta hirugarren sektorearen arteko lankidetzaren bitartez. Adibidez, Pestoff-ek (2006) maite duen koprodukzio markoan estatuak finantzaketa eta erregulazioa burutzen du eta hirugarren sektoreak ongizate zerbitzuen gestioa eta horniketa. Beraren ustez, hirugarren sektoreko erakundeek ahalmena dute autoritate publikoek gauzatzen duten gobernantza demokratikoa zabaltzeko eta sakontzeko. Gainera, hirugarren sektoreko erakunde horiek hobekien kokatuta daude parte hartze plural hori gauzatzeko. Hori bai, horretarako baldintza zehatz batzuk bete beharko dira, hala nola, finantzaketa publiko egokia eta erregulazio aproposa bermatzea. Azken finean, koprodukzioaren ekarpenak bere balioa hartzen du politika publikoa aplikatzen den garaian baino ez politika hori erabakitzen

eta diseinatzen den momentuan. Ikuspegi hori kontuan hartuta, politika publikoaren koprodukzioaren eta koeraikuntzaren arteko mugan mugitzen da eztabaida.

4.3.2 Politika publikoen koeraikuntza

Koprodukzioaren kontzeptua ez bezala politika publikoen koeraikuntza ez da literaturan asko aipatzen. Atal honetan, politika publikoen koeraikuntza aztertuko da, eraketa desberdinak zehaztuz eta osaketa demokratiko baten ezaugarriak zeintzuk diren bilatuz, bereziki ekonomia sozialaren ekarpenak azpimarratuz. Komeni da aipatzea koeraikuntza ibilbidearen hasieran gauzatzen dela, politika publikoa sortzen den momentuan. Dударik gabe, estatuak koeraikuntza martxan ipiniko balu merkatuko, gizarte zibileko eta ekonomia sozialeko aktoreekin lankidetzan onura asko ekarriko lituzke, gutxienez gizarte batzuetan, momentu zehazetan eta politika publikoaren esparru jakinetan. Azpimarratu nahi bada zeintzuk diren koeraikuntzaren eredu emankorrenak, aurretik komeni da aurkeztea estatuak koeraikuntzarako erabiltzen dituen politika desberdinak.

4.3.2.1 Politika publikoen monoeraikuntza

Estatuak monoeraikuntza funtzioa betetzen duenean historikoki estatuak jokatu duen paper autoritario, hierarkiko eta enpresarialean kokatzen da. Estatu Frantsesa, Kanadako 1945-1975eko estatu federala eta Quebecoko 60ko eta 70eko hamarkadak azken honen adibide esanguratsuak dira. Demokrazia ordezkataileetako agertoki horietan ardurari buruzko kontzepzio klasikoak aukeratutako hautagaietan uzten du ardura politiko eta ekonomiko osoa. Jarrera hori 1945a baino lehenagoko garai historikoetan jasotako irakaspenetatik dator. Orduan estatua nahi bezala kanporatua izan zen merkatua, familia eta gizarte zibilarengatik. Horrek eramaten gaitu zuzenean, penduluaren beste puntan kokatuz, estatu hierarkikoaren mugak eta akatsak ezagutzera. Hain zuzen ere, 1929ko depresioaren garaian modan egon zen laissez faire jarreratik ondo bereizteko. Zehazki, estatu interbentzionistaren joera burokratikoetan erortzen da liskarren gaineratik epaile papera hartuz antolatzaile, enpresari edo zuzendari bezala. Modu autoritarioan portatzen da. Bere burua politika publikoen arduradun bakarra bezala ikusten du. Jarrera hori koprodukzioaren forma desberdinekin guztiz bateragarria da. Hau da, estatuak bere politika publikoak diseinatu eta

eraikitzen dituen bitartean sektore pribatua eta hirugarren sektorea erabili dezake politika horiek gauzatzeko.

4.3.2.2 Politika Publikoen koeraikuntza neoliberalak

Horregatik, politika publikoen koeraikuntza burutzeko estatuak gobernantza modu irekiak martxan ipini beharko ditu estatua osatzen ez duten sektoreetatik, bereziki merkatutik eta gizarte zibiletik, datozen aktoreek parte hartzeko. Gainera, komeni da azpimarratzea gizarte kapitalisten azken bilakaeretan politika publikoen koeraikuntzaren zati handi bat estatua eta merkaturan murgilduta dauden elite ekonomikoen artean burutu dela. Onartu behar da estatua ez dela erakunde neutral bat. Bere esku-hartzeak zenbait indar sozial laguntzen ditu beste batzuk, berriz, gutxietsiz. Hau da, besteak beste, klase, genero eta kultura zatiketetatik sortutako harreman sozialetan oinarritzen da. Horregatik, esan dezakegu koeraikuntzaren kontzeptua modu desberdinetan aplikatu daitekeela eta horren arabera, interes orokorraren helburuarekin bat egingo du edo ez.

Koeraikuntza neoliberalen estatuak politika publikoa sektore pribatuarekin lankidetzan eraikitzen du, hau da, merkatu ekonomiako agente sozioekonomiko nagusiekin aliantza egingo du. Politika neoliberalaren koeraikuntzan erregulazio lehiakorra bultzatuko duten akordio instituzionalak gauzatu dira. Arauketa horiek Erresuma Batuko politika sozialaren literaturan kuasimerkatuak bezala ezagutu dira. Kuasimerkatu horiek ezaugarritzen dira, alde batetik, estatuak politika publikoaren eraikuntza eta produkzioa sektore publiko, sektore pribatu eta hirugarren sektorearen parte hartzeari irekitzen diolako eta, bestetik, parte hartzaile guzti horiek gonbidatzen dituelako beren artean kontratuengatik lehiatzera. Eredu horrek merkatuak zuzendutako manipulazioaren logika jarraitzen du. Adibidez helburuak betetzearekin lotuta dauden kontratu-klausulak edo zerbitzuaren estaldura zehazteko informazio metodoak. Azkenik, lotura eduki dezake ere ardura publikoak bere gainetik kentzeko eta beste aktoreen gainean jartzeko. Gainera, horrekin batera kostuak murriztu egiten dira eta zerbitzu-kalitatearen bermeak txikitu.

4.3.2.3 Politika Publikoen koeraikuntza korporatibista

Koeraikuntza korporatibistaren eredua lehendabizi, forma tradizionalagoak erabiliz, modan egon zen Quebecen 40ko eta 50eko hamarkadetan. Gero, 70eko eta 80eko hamarkadetan, molde modernoagoak hartu zituen bereziki sektore sozioekonomikoaren goi-bileraren formularekin. Bi modalitate horietan lankidetzak garatzen da esparru politikoa, lan merkatua eta gizarte zibilaren artean. Dena dela, harreman horietan ordezkariak desorekatua ematen da. Hau da, lanarekin eta gestioarekin lotuta dauden sektore eta aktore batzuk estatuarekin ematen den elkarrizketan eta deliberazioan presente daude baino beste batzuk ez. Gauza da aktore batzuk beste batzuk baino pisu handiagoa dutela eta horrekin batera politika publikoaren koeraikuntza interes zehatz batzuegatik monopolizatuta dagoela.

4.3.2.4 Politika Publikoen koeraikuntza demokratikoa eta elkartasunean oinarritutakoa

Koeraikuntza demokratikoa eta elkartasunean oinarritutakoa interes orokorra bilatzen du eta aldi berean koeraikuntza neoliberaletik eta korporatibistatik aldentu egiten da. Vaillancourt-entzat (2013) azken koeraikuntza honek lau ezaugarri ditu:

(1) Hasteko, estatua besteak bezalako partaide bat da. Hau da, estatuak politika publikoak koeraikitzen ditu merkatuko eta gizarte zibileko koarkitektoekin lankidetzan arituz. Horrek ez du esan nahi estatua koeraikuntzan parte hartzen duten beste aktoreen posizio berdin berdinean dagoela. Funtsean, estatuak, desadostasunak daudenean, gobernatu egin beharko du eta azken erabakiak hartu beharko ditu. Argi eta garbi, politika publikoak garatuko ditu lankidetzak estuan merkatu ekonomiako eta gizarte zibileko aktoreekin. Hau da, estatukoak ez diren beste aktoreekin hitz egin, iritziak elkar-trukatu eta hausnarketak burutuko ditu. Estatua gainera egongo da baino aldi berean berengandik gertu. Bide horretatik, autosufizientzia eta guztiahalduntasun jarrerak saihestu egiten ditu.

(2) Gainera, koeraikuntza demokratikoa estatuaren erreforma baten gainean eraikitzen da. Erreforma horren bitartez estatua gizarte zibilaren partaide bihurtzen da, merkatu ekonomiaren aktoreen partaide izateari utzi gabe. Vaillancourt-entzat (2013) koeraikuntza eredu hori koeraikuntza antikapitalistatik desberdindu egiten da. Azken honetan, estatua gizarte zibilaren partaidea da eta merkatu ekonomiaren aktoreen aurka jartzen da.

Sozialismo errearen porrotetik irakasgaiak jaso ondoren askotariko ekonomia batean kokatzen da. Horrela, neoliberalismoarekin haustura bat bilatzen du, baino ez merkatu ekonomiarekin. Estatuaren eraldatu nahi du, erreforma parte hartzailea gauzatuz. Hain zuzen ere estatuaren indarra dator ahalmen handia duela gizartearen segmentu guztien errekurtsoak bildu ondoren helburu kolektiboak eta interes orokorra lortzeko.

(3) Baita ere, koeraikuntza demokratikoak demokrazia ordezkatzaitik eta demokrazia parte hartzailetik ezaugarri interesgarrienak hautatzea dakar. Ikuspegi hori ez dator bat demokrazia ordezkatzaitik (politikari guztiak lizunak direlakoan) eta demokrazia parte hartzailea (estatuaren interes taldeen eskuetan uzten dutelakoan) kritikatzeko duten ildoekin. Kontuan hartuta gaur egun demokrazia ordezkatzaitik azken hitza duela, koeraikuntza demokratikoak bilatzen du aukeratutako ordezkari politiko horiek gobernatzeko modu irekiak hautatzea. Horrek esan nahi du elkarrizketa bultzatu behar dela ordezkari politiko eta demokrazia parte hartzaileko liderrekin. Horretarako elkarrizketarako, bitartekaritzarako eta hausnarketarako topalekuak sortu beharko dira. Baita ere, ezinbestekoa da estatuko, alderdi politikoetako eta gizarte zibileko liderrak prestatuta egotea lan demokratikoa bideratzeko. Horrek eskatzen du, alde batetik, ahalmena edukitzea gatazka antzemateko eta gestionatzeko eta, bestetik, gobernatzeko forma desberdinak sustatzea, maiz baztertuta gelditzen diren aktore sozio-ekonomikoak eta sozio-politikoak sartuz.

(4) Azkenik, politika publikoen koeraikuntza demokratikoak eta elkartasunean oinarritutako ekonomia sozialeko aktoreen parte hartzearen aitorpena dakar. Gauza ez da ekonomia sozialari pribilegio-tratamendu bat ematea. Gehiago da ekonomia sozialari aukera ematea beste aktoreen artean bere ahotsa kontuan hartzeko politika publikoak eta programak zehazten diren momentuan. Helburua da gaur egun ekonomia sozialak jokatzen duen papera estatuaren tresna huts bat bezala politika publikoen aplikazioan gaitzea. Laburbilduz, elkartasunean oinarritutako koeraikuntza ez da luxu bat, demokrazia lortzeko bitarteko bat baizik. Horregatik, gizarte zibileko eta ekonomia sozialeko aktoreak estatuarekiko harremanetan baztertutako edo erabiliak direnean politika publikoa pobretuta ateratzen da lehiakortasunaren eta burokraziaren erregulazioaren alde negatiboak

agerian gelditzen direlako. Ekonomia sozialarentzat onartezinak diren jarrera horiek bereziki *public-private partnership* estiloko ekimenetan agertzen dira.

4.4 Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen koeraikuntza

Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen bidean urratsak emateko Koeraikuntza demokratikoa eta elkartasunean oinarritutako eredu hori sakondu egin beharko zen planifikazio parte-hartzailea gehituz. Dударik gabe, gaur egungo demokrazia ordezkatzailearen koordenadak gainditu egin behar dira. Parlamentuaren eta alderdi politikoen jokoa ez da nahikoa interes orokorra eta komunitarioa defendatzeko. Dinamika hori partekatu egin behar da gizarte zibilean mugitzen diren aktore eta herri mugimenduekin. Horregatik, ekonomia sozialaren, langileriaren eta gizartearen parte hartzea ezinbestekoa da sektore publikoaren plangintza ekonomikoa burutzeko. Ez da bakarrik aktore desberdinen ahotsa kontuan hartzea. Urrunago joatea eskatzen du.

Planifikazio parte-hartzaile hori martxan ipintzeko mekanismo desberdinak finkatu beharko dira. Alde batetik, prozesuan parte hartzen duten aktoreei informazio osoa bermatzeko zaie eta bestetik, erabakiak hartzeko eta bide batez hartutako erabaki horiek fiskalizatzeko aukera emango zaie. Ez da nahikoa eztabaida eta kontraste markoak definitzea bakarrik. Horrekin batera marko horien eraginkortasuna bermatu egin behar da. Zentzu horretan, bitartekoak ipini behar dira aktore inplikatuaren esku-hartze zuzena beraiek lan egiten duten arloetan bermatzeko. Gizartearen antolaketa autonomoa aktore eta herri mugimendu desberdinetan klabeetako bat da parte-hartze zuzena sustatzeko. Hala nola borondatezko lanaren bitartez ikuspegi eta proposamen berrien ekarpenak egingo dituzte.

Herri mugimenduek jokatu dezaketen papera oraindik garrantzitsuagoa izan daiteke kontuan edukitzen bada arlo sozioekonomikoan hartzen diren erabaki asko zalantzakorrak direla. Beste kasu batzuetan, berriz, erabaki bat edo beste hartzeak balorazio ezberdinak ditu eta horrek eramaten du gizartearen kontsentsu zabalak lortzea, bereziki eragile sozialekin. Planifikazio parte hartzaile horrek lurralde esparrua, arlo instituzionala eta arlo pribatua jorratuko ditu. Gaur egun ekonomiak duen konplexutasuna kontuan hartzen bada sektore publikoaren esku-hartzeak prozesu ekonomikoan bi alderdi oso desberdin ditu. Alde batetik,

sektore publikoak berak prozesuaren zati garrantzitsu bat antolatu eta zuzendu beharko luke, ekoizle bezala behar indibidualak eta kolektiboak asebetez. Bestetik, berriz, sektore publiko horrek ekonomia sozialaren eta sektore pribatuaren plan ekonomikoak zuzendu, erregulatu eta osatu egin beharko lituzke.

Gaur arte sektore publikoaren planifikazioak bat egin du ingurune kapitalistaren beharrekin. Boterearen inguruan mugitu diren talde formalak, informalak edo presio-taldeak saiatu dira komunitatearen soberakinak beren mesederako jartzen eta bide batez sektore publikoaren privatizazioaren aldeko argudioak zabaltzen, esparru hori iruzurrarekin, diru-xahutzearekin, eraginkortasun ezarekin eta burokrazia eroarekin identifikatuz. Guzti horrengatik, esparru instituzional osoan, tokian tokiko gobernuetatik hasita, premiazkoa da martxan ipintzea planifikazio parte-hartzailean oinarritutako mekanismoak. Erakunde horietan hartzen bait dira behar desberdinak konpontzeko erabakiak, hirigintza eta ekologiatik hasita, babes soziala eta produkzio-inbertsioekin jarraituz eta hezkuntza eta kulturaraino. Zentzu horretan, garrantzitsua da biztanleriak dituen lehentasunak gai guzti horietan zeintzuk diren jakiteko mekanismoak zehaztea. Planifikazio parte hartzaile horrek lagundu beharko luke, besteak beste, errentaren banaketa, estaldura soziala, garapen kulturala eta kontzientzia soziala hobetzen.

Berrikuntza Sozial neoliberala eta Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen arteko diferentzia ez dago estatuaren parte-hartzea gai ekonomikoetan bultzatzen den edo ez. Dilema horrela planteatzea ez da egokia. Garrantzitsuena da zehaztea zein den esku hartzearen helburua. Neoliberalismoaren helburua bidegabeko elite bat eta errenta eta aberastasunaren banaketa desorekatua egonkortzea da. Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak berriz, biztanleriaren gehiengoaren aldeko esku-hartzea bultzatu beharko luke, sortutako ondasuna modu zuzenean banatuz.

Horrengatik funtsezkoa da sektore publikoaren esku-hartzea antolaketa ekonomikoan burutzea. Esku-hartze hori gardena izan behar du, merkatuak eragiten dituen desoreka larrien zuzentzaile, bai arlo produktiboan eta baita ere errentaren eta ondasunaren banaketan. Ezinbestekoa da sektore publiko indartsu bat antolatzea ez bakarrik arrazoi ideologikoengatik, baita ere eraginkortasun ekonomikoa dela medio. Sektore publiko horrek

goian aipatu dugun planifikazio ekonomiko parte-hartzailearen ezaugarri guztiak eduki beharko ditu. Sektorre publikoaren bilakaera zintzoa babesteko eta bide okerretik ez joateko beharrezko kontrolak ipini beharko dira eta gizarte zibilaren erakunde ordezkatzailak izango dira kontrol horren berme.

Bistakoa da ekimen pribatua ez dela nahikoa sare sozioekonomikoa antolatzeko. Sektorre publikoa ezinbestekoa da ekonomiako arlo desberdinak koordinatzeko eta dinamizatzeko. Horregatik hain garrantzitsua da egiazko sektorre publiko indartsu, dinamiko, eraginkor eta bidezko bat sendotzea politika makroekonomikoak, politika sektorialak eta politika horizontalak planifikatu eta koordinatzeko. Sektorre publiko hori buru izango da ekonomiaren birsorkuntza eta modernizazioa bideratzeko eta bere gainean planifikazio loteslea eta sektorre pribatuarentzat planifikazio orientagarria ezartzeko. Dударik gabe, planifikazio parte-hartzailearen eremuan, planifikazio hori gizarte zibileko eragile sozial desberdinekin eta ekimen pribatuarekin lankidetzan estuan antolatuko da. Merkatua operatiboa denean eta ekimen pribatuak eta enpresa-ahaleginak komunitatearen mesedean jarduten duenean dinamika pribatu horiek estimulatuak izango dira. Sektorre pribatuarentzat planifikazio orientagarria aipatzen dugunean baldintzatutako politika orokorreko eta sustapen publikorako neurriak hartzea eskatzen du. Bere helburua agente ekonomiko pribatuei eragitea da komunitateak finkatutako helburu sozialak betearazteko.

4.5 Gobernantza gizarte eta osasun zerbitzuetan

Gizarte eta osasun zerbitzuen helburua bizitzaren gorabeherengatik (gaixotasuna, adina, baliaezintasuna, familia-egoera, e.a.) edo gertakari sozialengatik (langabezia, pobrezia, desintegrazio soziala, toxikomania, e.a.) ahulduta dauden pertsonak babestea eta laguntzea da (Enjolras, 2008). Horren ondorioz, gizarte eta osasun zerbitzuen onuradunek ahulduta edo zailtasun egoeran dauden pertsonak dira. Zerbitzu horiek maiz kaudimena ez duen eskaera bati erantzuten diote. Gainera, ezinbestekoa da prozedura zehatzak martxan ipintzea zerbitzuen kalitatea bermatzeko eta onuradunak babesteko. Bestalde, zerbitzu horiek kolektiboarekiko kanpo-efektuak eragiten dituzte.

4.5.1 Gizarte eta osasun zerbitzuen ezaugarriak

Enjolras-en (2008) hausnarketa jarraituz historian zehar, hasiera batean, ahuldutako pertsonen babesa eta laguntza familiarik, elkartasun naturaletik eta filantropiatik etorri da. Ongizate-estatuaren eta gizarte-zerbitzuen historia zerbitzu horien sozializazioaren historia da. Ikuspegi horretatik ongizatea lortzeko bi bide desberdin aurkitu ditzakegu. Alde batetik, modu sozializatua, ongizate-estatuak erabili duena, zuzenbidean oinarrituta. Bestetik, berriz, borondatezko moldea, azken hau borondatezko edo berezko elkartasunean finkatzen da. Gizarte-zerbitzuen garapena, orokorrean, ongizatea lortzeko bi bide desberdin horien konbinaketari esker eman da. Europan, adibidez, irabazi asmorik gabeko elkarteek eginkizun aitzindaria jokatu dute arazo sozialak izendatu eta erantzuteko garaian. Pixkanaka, lan banaketa bat finkatu da botere publiko eta elkarten artean. Lan banaketa horrek, herrialdearen arabera, forma desberdinak hartzen ditu. Ikuspegi horretatik posible da hiru funtzio desberdintzea, hots, eskaria, finantzaketa eta eskaintza ezagutaraztea. Funtzio horiek Estatuak berak bakarrik bete ditzake edo elkarteekin batera partekatu. Hiru funtzio horien banaketa modalitate desberdinek finkatuko dute estatu/elkarten arteko erlazio mota diferenteak.

Gizarte eta osasun zerbitzuentzat prestazioaren kalitatearen auzia erabakitzailea da, segurtasuna, ongizate fisikoa eta morala eta eraginkortasuna kontuan hartu behar direlako. Gizarte eta osasun zerbitzuen kalitatea ez da bakarrik lortzen zeregin material batzuk bete ondoren. Baita ere zerbitzua neurtzeko garrantzi handia dauka hornitzailearen eta onuradunaren artean lortzen den giza harremanaren kalitatea eta horrek pisu handia dauka prestazioaren eraginkortasuna neurtzeko garaian. Ondorioz, gizarte eta osasun zerbitzuen eskaintzak zerbitzuen kalitatea eta pertsonen babesa bermatuko dituen modalitateak eskatzen ditu.

Goian aipatu dugun moduan ezin dugu ahaztu ere ondasun horien kontsumoak edo ekoizpenak kanpo-efektuak dituela. Hau da, kontsumitzeko edo ekoizteko erabakian zerikusirik ez duten hirugarren pertsonengan ere eragina du. Gizarte eta osasun zerbitzuen kasuan kanpo-efektuak ematen direlako zerbitzu horiek ez dute onuradun zuzenengan bakarrik eragiten. Baita ere ondorio sozial positiboak edukiko dituzte kolektibitate osoan

(besteak beste, kohesio soziala handitu, pobrezia gutxitu eta bizi-kalitatea hobetu). Komeni da azpimarratzea gizarte eta osasun zerbitzuak interes orokorreko zerbitzuak direla, hain zuzen ere, zerbitzu horiek balio komun batzuk lortzeko laguntza ematen dutelako: kolektibitate baten kohesio soziala lortu eta kolektibitate baten partaide guztientzat gutxieneko ziurtasuna eta duintasuna bermatu.

4.5.2 Gizarte eta osasun zerbitzuen gobernantzaren bilakaera

Herrialde gehienetan gizarte eta osasun zerbitzuen gobernantza moduek bilakaera bat eraman dute. Eskematikoki aztertuta esan dezakegu administrazio publikoan oinarritutako kontzepzio batetik gobernantzan oinarritutako kontzepzio batetara pasa direla aktore desberdinen eginkizuna sustatuz eta pizgarriei garrantzia emanez. Tradizionalki esku-hartze publikoak oinarri arrazional baten bitartez burutu egin dira: i) arazoa ezagutu; ii) erabaki politikoa hartu arazoari irtenbide bat emateko; iii) ekimen programa bat zehaztu, helburuak, baliabideak, lege-bitartekoak eta programaren arduradun administratiboak finkatuz eta azkenik iv) programaren martxa kontrolatu eta noizbehinka bere ebaluaketa egin. Esku-hartze eredu horrek bi muga argi ditu. Alde batetik, administrazio publikoak, funtzionalki eta bertikalki, eginkizun baten inguruan antolatzen dira (adibidez, lana, etxebizitza, osasuna, e.a.) eta ez arazo baten inguruan (adibidez, bazterketa soziala). Funtzioen arteko lotura horizontalak ahulak dira eta ondorioz funtzioarekiko arazoak zeharkakoak direnez horiek konpontzeko ahalmena mugatua da. Bestetik, berriz, politika publikoen arrakasta ez dator bakarrik aktore publikoek duten ahalmenetik. Baita ere kontuan hartu behar da beste aktore ugari batzuen mobilizazioa eta lankidetzak, gizarte zibiletik eta enpresa mundutik datozenak. Momentu honetan, gizarte zibileko eta enpresa munduko aktoreen lankidetzarik gabeko esku-hartze publikoaren eredu arrazionalak bere mugak ditu.

Kasu gehienetan gizarte eta osasun zerbitzuen gobernantzak eredu mistoa erabiltzen du. Lankidetzak eta lehiakortasunaren arteko nahasketa izaten da. Gizarte eta osasun zerbitzuen gobernantza hori maiz ezaugarritzen da barne-tentsio bat dagoelako esku hartze tresnak definitzen dituzten oinarrien eta instituzio-modalitateen elkarrekintzen artean. Auzia da jakitea justiziaren, merkatuaren eta gizalegearen ataletatik zein nagusituko den oinarrizko egitura bezala.

Azkenik, gizarte eta osasun zerbitzuetan martxan ipintzen den erregimen mota aztertzen denean kontuan hartu beharko da justizia eta eraginkortasunaren artean ematen den kontraesana. Lehiakortasunean oinarritutako gobernantza bat martxan ipintzen denean sarri eraginkortasunaren arrazoia erabiltzen da. Hemen arazo nagusia izaten da eraginkortasunaren ebaluaketa hori gizarte-ongizatean oinarritutako kontzepzio batetik egiten dela. Eraginkortasunaren ebaluaketa egiteko beste irizpide batzuk hartuko baziren, adibidez gobernantza erregimenen ahalmena desberdintasun sozialak gutxitzeko, lehiakortasunean oinarritutako gobernantzaren abantailak birkontsideratu beharko genituzke.

Lévesque eta Thiry-ren (2008) hausnarketara joanez, gizarte eta osasun zerbitzuen ezaugarriak kontuan hartzen badira, aktore publikoak eta ekonomia sozialak lehen garrantziko tokia beteko dute gobernantza erregimenean. Ikuspegi horretatik, erakunde publikoak eta ekonomia soziala egokiagoak dira balore ez monetarioak kontuan hartzen dituen gizarte batean osasun zerbitzuak emateko. Hauen eredu instituzionalek asko laguntzen dute. Bereziki, kontuan hartuko dira jabego-eskubideen banaketa eta funtzionamendu demokratikoa. Erakunde publikoetan demokrazia ordezkatzailerak eta prozedura-mekanismoak eta ekonomia sozialean demokrazia parte-hartzailea eta deliberazio-mekanismoak laguntzen dute. Egile hauen ustez, enpresa pribatuek parte hartu dezakete zerbitzu horiek ekoizteko eta interes orokorra defendatzeko baina, merkatu-akatsak direla medio, beharrezkoa da esku-hartze tresnak aurreikustea merkatu-akats horiek zuzentzeko edo merkatuak behar dituen baldintzak sortzeko.

Zalantzarik ez dago estatuak paper garrantzitsua jokatzen duela politikak eta finantzaketa moduak zehazteko garaian. Era berean, erakunde publikoak aktore nagusiak dira gizarte eta osasun zerbitzuak ekoizteko eta banatzeko. Dena dela, badaude azpisektore garrantzitsu batzuk non ekonomia soziala eta irabazi-asmoko erakundeak parte hartzen duten sektore publikoarekin batera. Aukera desberdin horietan elkarrekin, erakunde publikoak eta enpresa pribatuak interes orokorraren atzetik batera lan egiten dute. Gehienetan, esperimentazio horien ekimenak gizarte zibilera bueltatzen dira ekonomia sozialaren bitartez. Ekonomia

sozialeko aktore horiek botere publikoaren laguntza bilatzen dute proiektu pilotuak aurrera eramateko eta maiz irabazi-asmoko aktore pribatuak gehitzen dira.

Hori horrela izanik esan daiteke ekonomia soziala eta sektore publikoa direla aktore nagusiak, ahaztu gabe ere, sektore pribatua bere presentzia duelako koasimerkatuen edo konkurrentzia esparruen bitartez. Gainera, elkarrekin erakunde publikoek baino gaitasun handiagoa dute eskaera soziala identifikatzeko. Hala ere, ekonomia soziala eta erakunde publikoen arteko lankidetzaren forma guztiek ez dituzte abantaila berdinak ekartzen. Hain zuzen ere, azterketa enpirikoek erakusten dute jatorri publikoa duten lankidetzek, lankideen arteko oreka ziurtatuta ez dagoenean eta finantzaketa iturri bakar batetik datorrenean, arrisku handiagoa dutela goitik beherako tutoretzapeko kontrola jasateko.

4.5.3 Gizarte eta osasun zerbitzuen arloan lankidetzaren oinarritutako gobernantza

Lévesque et al.-ek (2008), gizarte eta osasun zerbitzuen arloan, lehiakortasunean baino gehiago lankidetzaren oinarritutako prozesuak aztertuko dituzte, bereziki erakunde publiko eta ekonomia sozialeko enpresen artean ematen direnak. Gainera, horretarako instituzio-dimentsioa eta antolaketa-dimentsioa desberdinduko dituzte.

Beraien ustez, instituzio-dimentsioa kontuan hartzen bada koordinazio instituzional berrien aldeko apustuek (sareak eta lankidetzaren instituzionala lehenagoko teknokrazia eta korporatibismoaren aurrean) estatuaren gizartearekiko birkokapen berri bat dakar. Hortik aurrera, marko instituzionalaren eraldaketa sakonak hitzarmen soziala zabaltzea ekar dezake. Aldaketa instituzional txikiagoak ematen badira estatuaren esku-hartzea ekarriko du baino, kasu horretan, lege, dekretu eta erregelamenduen bidez, beti ere zalantzan jarri daitezkeen hierarkiaren bitartez. Aldi berean, estatuaren esku hartzea beharrezkoa da norabide berrian doazen koordinaketa instituzionalak martxan ipintzeko, eskumenen deszentralizazio bat izan edo konkurrentzia egokitze bat burutu. Azken finean, bakarrik estatuak ditu hertsatzaileak baino suspergarriak diren esku hartze tresnak jartzeko edo behar denean inposatzeko mekanismoak.

Ikuspegi horretatik, erakundetze prozesu hori normalki faseka egiten da. Batzuetan, berriz, baldintza egokiak ematen direnean, lehenago burutu daiteke. Aktoreen aniztasunak, estatu

mailako banaketa gainditzen duten arazoan zailtasunak, horizontaltasunean oinarritzen den ikuspegiaren eraginkortasuna eta sektoreen eta jakintzagai desberdinen arteko dinamikek argi uzten dute politika sozialak ezin direla estatuaren eskuetan bakarrik utzi. Orain dela gutxi arteko politika sozial gehienak estatua eta beste partaideen arteko koeraikuntza mekanismoaren bitartez eraikitzen ziren, gizarte zibiletik sortutako esperimentazioak, proiektu pilotuak eta ekimenak oinarri bezala hartuta. Testuinguru horretan, ekonomia sozialeko erakunde aipagarrienek beste aktoreek baino gaitasun handiagoa zuten behar berriak identifikatzeko, arazoei erantzuteko, planteamendu berritzaileak asmatzeko eta tresna berriak martxan ipintzeko. Horregatik, ekonomia sozialak, botere publikoaren esperimentazio jarraituaren bitartez, estatuak lankidetzan eta sarean oinarritutako marko instituzionalak definitzeko behar dituen elementuak hornitzen ditu.

Lankidetzaren gobernantza kasu gehienetan espazio bat aurkitzen da aktoreen arteko kontzertazioa burutzeko. Kontzertazio esparru horrek, balio instituzionala duena, hurbilketa bateratua lantzea posible egiten du. Gauza bera, tokian tokiko garapenean, maila lokaleko zenbait zerbitzuen integrazio berri batek zalantzan jartzen du garapen sozial eta ekonomikoaren artean dagoen muga. Hurbilketa horien eraikuntzak, logika eta interes desberdinak dituzten aktoreen artean, deliberazioa eta behar diren egokipenak egiteko esperimentazioa eskatzen du. Modu horretan, molde instituzional bat eraikitzearekin batera gobernantza eta eraginkortasuna betiketuko duen funtzionamendua bermatzea ezinbestekoa da. Bide horretatik, eraiki eta partekatutako hurbilketak heterogeneotasuna murriztu egiten du parte-hartzaileak anitzak direlako. Lan kolektibo horrek agerian uzten du nola eraiki daitekeen interes orokorra. Esperimentazio horiek nagusiki maila lokalean eta erregionalean egiten dira eta horren ondorioz, lurralde eta kolektibitate zehatz batean txertatutako elkartasuna sortzen da.

Aurreko lerroetan ikusi da Lévesque et al.-entzat (2008) arlo instituzionalean estatua ez dela beste aktoreak bezalako. Antolaketa arloan berriz, beste aktoreen baldintza berdinetan jokatu beharko du. Instituzionalizatutako lankidetzaren erregimenaren oinarria da erakunde publikoak eta arduradun politikoak besteek bezalako aktoreak direla, bereziki gizarte-zerbitzuen ekoizpena eta gestioari dagokionez. Aktoreen kontzertaziorako, guztien artean

dira, kalitatea hobetzeko, erabiltzaileei emandako eskaintza handitzeko edo komunitateak eta aurrekontu publikoek ordaindu behar dituzten kostuak gutxitzeko. Dinamika orokor hori ondo ezaguna dugunez gure hausnarketa askotan bigarren plano batean sortzen den lankidetzagobernantzaren inguruan zentratu da, azken honek beste erregimenek baino gehiago erabiltzen duelako berrikuntza eta esperimentazioa, bereziki ahalmen handia duelako hurbilketa partekatuetan eta interes orokorreko proiektuetan aktore asko eta anitzak partaide izateko.

Gizarte eta osasun arloan konkurrentzian oinarritutako erregimen batean interes orokorra lortzeko estatuak esku-hartze asko eta desberdinak egin behar ditu, batez ere merkatuaren akatsak konpontzeko edo erabiltzaileen parte handi bat kaudimengabea denean koasimerkatuaren baldintzak sortzeko. Era horretara estatuaren finantzaketa lehiaketa publikoaren bitartez egin daiteke. Batzuetan hornitzaile desberdinak konkurrentzian ipiniz edo beste batzuetan agentziek zerbitzu publikoak erosiz eta gero erabiltzaileei dohain emanaz. Koasimerkatuaren eskema horretan ekonomia soziala eta ekonomia publikoko aktoreek parte hartu dezakete sarearen bitartez.

Lankidetzagobernantza erregimena garaile ateratzen den tokietan aktore guztiek parte har dezakete partaidetza baten bitartez non instituzionalizazio modu desberdinak onartzen diren, besteak beste, negoziatutakoa edo inposatutakoa. Hau da, azaleratzen diren gobernantza erregimen berrietan ez da hainbeste erregulazio publikoen desegite huts bat ematen. Gehiago da desarauketa eta berrarauketaren konbinaketa bat.

Interes orokorreko gizarte-zerbitzuen iraulketa bat egitea ez dirudi ekimen erraza. Hala ere, ezinbestekoa dela esan daiteke. Estatuarentzat kostuak gutxitzeko, erabiltzaileentzat kalitatea hobetzeko eta irabazteko asmoa duen sektore pribatuarentzat eraginkortasuna handitu eta jarduera esparruak zabaltzeko. Azken hamarkadetan berrikuntzak biderkatu egin dira baino horiek bereziki esperimentazioaren esparruan eman dira eta gainera gizarte-zerbitzuen sistematik at gauzatu dira. Horrek ez du esan nahi berrikuntza horiek marjinalak direnik, hain zuzen ere, ekarpen berri horiek hurbilketa berriak ekartzen dituztelako bai lankidetzagobernantzara eta baita ere konkurrentziagobernantzara. Lankidetzagobernantza gehiago garatzen bada gizarte zerbitzuetan konkurrentzia gobernantzak berriz

arrakasta handiagoa dauka osasun zerbitzuetan. Dena dela, ikertutako kasu guztien zeharkako azterketa egiten bada esan daiteke eremu batean bildu daitezkeela gobernantza forma desberdinak. Horrek eramaten du gobernantza-forma desberdinen hibridazioaren hipotesia lantzerantz, batez ere lankidetzaren eta konkurrentzia-gobernantzarenak. Galdera da ea erregimen desberdinen justaposizio baten aurrean gauden edo, urrutiago joanez, lankidetzaren eta konkurrentzia erregimenen arteko hibridazio bat ematen den. Aztertu beharko zen zeintzuk diren bi erregimen horien arteko puntu komunak. Gobernantza-erregimenen mota idealen arteko hibridazioaren hipotesiak eramaten du ez nahastea mota idealak eta errealitatea. Weber-ek (1965) ondo azaldu zuen moduan mota idealak errealitatean era puruan inoiz ez dagoen eraikuntza mental bat da. Orduan, aztertu behar dena ez da hainbeste lankidetzaren eta konkurrentzia-gobernantzen elkarbizitzak gobernantza hibrido bat sortuko duten baizik eta aztertzea elkarbizitza luze batean bietatik garaile zein aterako den eta nolako egitura instituzionala sortuko duen.

4.6 Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen Gobernantzaren giltzarri nagusiak

Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak, lotura zuzena dauka gobernantzarekin. Horregatik, Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak lantzen duen gobernantzak interes orokorra defendatzen du. Horretarako estatua eta gizartearen arteko erlazioak birdefinituko dituen praktika berriak eta esku-hartze publikoaren modalitate desberdinak garatzen dira. Hain zuzen ere Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak gobernantzaren kontzeptuak hierarkia eta merkatuaren mugak gainditzen dituzten ekimen publikoak azpimarratzen ditu eta bide batez, gaur egungo gizarte konplexuan estatuaren eginkizunaren eraldaketari garrantzia ematen dio, sareen eta lankidetzaren garapenari tokia utziz.

Berrikuntza Sozial Eraldatzailean erabiliko den gobernantzaren kontzeptuak arazo kolektiboak konpontzeko prozesuak azpimarratzen ditu eta gizarte zibila eta botere publikoaren arteko elkarrekintzari garrantzia ematen dio. Hain zuzen ere, Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen gobernantzak hurrengo giltzarriak azpimarratzen ditu:

(1) Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen gobernantzak lankidetzaren oinarritutako eredu publikoa garatzen du. Hau da, Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen gobernantza botere

publikoan oinarritzen da. Ez hori bakarrik, baita ere Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen gobernantza lankidetzak motakoa da. Aldi berean, Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen gobernantzak botere publikoaren esku hartze moduen aldaketari garrantzia ematen dio. Erregimen horretan lankidetzak bat martxan ipintzen da botere publikoa eta bereziki sozietate zibileko aktoreen artean. Autoritate publikoen eginkizuna ez da indarrezko boterea erabiltzea. Gehiago da koordinazio eta sustatze lanak burutzea gizarte zibila eta botere publikoaren artean sortu diren lankidetzak desberdinetan. Azken finean, lankidetzak motako gobernantzak jakinduria kolektiboa sortzen du eta aktore desberdinen arteko logiken nahasketa dakar. Gainera, lankidetzak ahalik eta simetrikoena da, aktore guztiek errekurtso eta indar antzekoa erabiliz.

Gobernantza eraldatzaileak demokrazia ordezkatzaitetik eta demokrazia parte-hartzaitetik ezaugarri interesgarrienak hautatzea dakar. Gobernantza eraldatzaile horrek aukeratutako ordezkari politiko horiek gobernatzeko modu irekiak hautatzea bilatzen du. Horrek esan nahi du elkarrizketa bultzatu behar dela ordezkari politiko eta demokrazia parte-hartzaileko kidegoekin. Horretarako elkarrizketarako, bitartekaritzarako eta hausnarketarako topalekuak sortu beharko dira. Horregatik, lankidetzan oinarritutako gobernantza martxan ipintzeko eredu publiko indartsua behar da. Ez bakarrik arrazoi ideologikoengatik, baita ere eraginkortasun sozio-ekonomikoa dela medio.

Eredu publiko horrek gero planifikazio ekonomiko parte hartzailea sustatzen du. Eredu publikoaren bilakaera zintzoa babesteko eta bide okerretik ez joateko beharrezko kontrolak ipintzen dira eta gizarte zibilaren erakunde ordezkatzaileak dira kontrol horren berme. Eredu publiko hori ezinbestekoa da sozio-ekonomiako arlo desberdinak koordinatzeko eta dinamizatzeko. Horregatik hain garrantzitsua da eredu publiko indartsu, dinamiko, eraginkor eta zintzo bat osatzea politika makroekonomikoak, politika sektorialak eta politika horizontalak planifikatu eta koordinatzeko. Eredu publiko hori buru da ekonomiaren birsorkuntza eta modernizazioa bideratzeko eta bere gainean planifikazio loteslea eta sektore pribatuarentzat planifikazio orientagarria finkatzeko. Dударik gabe, Planifikazio parte hartzailearen ereduak, planifikazio hori gizarte zibileko eragile sozial desberdinekin eta ekimen pribatuarekin lankidetzak estuan antolatzen da. Merkatua operatiboa denean eta

ekimen pribatuak eta enpresa-ahaleginak komunitatearen mesedean jarduten dutenean dinamika pribatu horiek estimulatuak dira.

Dударик gabe, tokiko gizartea eta administrazioa esparru egokiena da gobernantza eraldatzaile hori martxan ipintzeko, gune aproposa delako aktoreen arteko koordinazio horizontala sustatzeko eta aldi berean lurraldea ekoizpen faktore bihurtzeko. Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen gobernantza berri hori gauzatzeko ezinbestekoa da lurralde horretan, alde batetik, kapital soziala egotea eta baliaraztea eta bestetik, harreman instituzionalak garatzea demokrazia parte-hartzailea gauzatu dadin. Arazo kolektiboren bat dagoen auzo edo herri bateko komunitateak suspertze-prozesu kolektibo bat martxan ipini dezake bertako eragile sozioekonomikoek esparru horretako interesak defendatzeko mobilizatzeko gaitasuna erakusten badute. Gainera, eragile sozial desberdinen arteko erlazioak sendotu egiten ditu. Mobilizazio soziala eta ekimen kolektiboa martxan ipintzen da, kontzientzia hartuz eta zergatiei aurre eginez. Elkartasun sozialaren bila biltzen diren aktore desberdinek gaitasuna erakusten badute botere publikoa interpelatzeko gai izango dira lankidetzan oinarritutako gobernantza sustatzeko eta tokian tokiko arazoei aurre egiteko.

Gizarte zerbitzuen arloa aztertzen bada, Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak gizarte zerbitzuen atalean lankidetzan oinarritutako gobernantza-prozesuak bultzatzen ditu, bereziki erakunde publiko eta hirugarren sektorea/ekonomia sozialeko enpresen artean gauzatzen direnak. Bide horrek koordinazio instituzionalaren iraulketa dakar eta bide batez estatuaren funtzioa gizartearen aurrean birkokatzen du. Gizarte zerbitzuen marko instituzionalaren eraldaketa sakon horrek akordio soziala zabaltzea ahalbideratzen du. Zentzu horretan gizarte zerbitzuen arloan eredu publikoaren esku hartzea indartzen da antolaketa instituzionala areagotu eta dinamizazio bitartekoak gorpuzteko. Hori bai, gizarte zerbitzuak ezin dira eredu publikoaren eskuetan bakarrik utzi. Eredu publikoa ez da gai zenbait arazoei aurre egiteko eta horretarako Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak eragile sozialen esku hartze anitza bultzatzen du.

Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen lankidetzan oinarritutako gobernantzan diskurtsoa eta praktikaren arteko distantzia murriztea da helburua. Gainera gizarte zibileko arduradunen eta kargu politikoen artean ematen diren tentsioak gainditu egin behar dira. Hain zuzen ere,

demokrazia parte-hartzailearen eta demokrazia ordezkatzailearen arteko kontraesanak leuntzea komeni da. Azken finean, lankidetzaren egonkorrena inizatiba elkarteetatik etortzen denean ematen da, kasu horretan, partaideen arteko barne oreka errespetatzen delako eta finantza-iturriak dibertsifikatuak direlako.

Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak bultzatutako gizarte zerbitzuen iraulketa bat egitea ez da enpresa erraza. Hala ere, ezinbestekoa da erabiltzaileentzat kalitatea hobetzeko eta ekonomia sozial eta irabazi asmorik gabeko erakundeentzat eraginkortasuna handitu eta jarduera esparruak zabaltzeko.

(2) Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen gobernantza, zerbitzu publikoak diseinatzeko garaian, koeraintzaren oinarritzen da. Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak, zerbitzu publikoak diseinatzeko garaian, koeraintzaren alde egingo du, gizarte zibileko, ekonomia sozialeko eta merkatuko aktoreekin erabakiak lankidetzan hartuz. Koeraintza ibilbidearen hasieran gauzatzen da, politika publikoa sortu eta diseinatu den momentuan. Dударik gabe, estatuak lankidetzan oinarritutako koeraintza martxan ipintzen duenean gizarte zibileko, ekonomia sozialeko eta merkatuko aktoreekin onura asko ekartzen ditu politika publikoaren esparru jakinetan. Koeraintza horrek interes orokorra bilatzen du eta aldi berean koeraintza neoliberaletik eta korporatibistatik aldendu egiten da.

Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen gobernantzan estatuak politika publikoak koeraintzen ditu gizarte zibileko eta merkatuko erakundeekin lankidetzan arituz. Horrek ez du esan nahi estatua koeraintzaren parte hartzen duten beste aktoreen posizio berdinean dagoela. Hau da, estatukoak ez diren beste aktoreekin hitz egin, iritziak elkartrukatu eta erabakiak hartuko ditu. Estatua gainetik egongo da baino aldi berean berengandik gertu. Funtsean, estatuak, desadostasunak daudenean, gobernatu eta azken erabakiak hartzen ditu. Hau da, estatuak politika publikoak garatzen ditu lankidetzaren estuan enpresa eta gizarte zibileko aktoreekin. Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak estatua eraldatu nahi du, iraulketa parte hartzailea gauzatzuz. Hain zuzen ere estatuaren indarra dator ahalmen handia duelako gizartearen segmentu guztien errekurtsioak bildu ondoren helburu kolektiboak eta interes orokorra lortzeko.

Zentzu berean, Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen eskutik gizarte zerbitzuak estatua eta beste partaideen arteko koeraikuntza mekanismoaren bitartez diseinatzen dira, gizarte zibileko erakundeak eta enpresak oinarri bezala hartuta. Ez hori bakarrik, gainera antolaketa arloan aktore ekonomiko eta sozial guztiak baldintza berdinetan kokatuko dira. Estatua ere beste eragileen maila berdinean arituko da gizarte zerbitzuak diseinatzen. Horregatik, lankidetzan oinarritutako gobernantza batek ondo funtzionatzeko aktore desberdinen arteko bitartekaritza espazioak garatzen ditu eta partaideen arteko koordinaketa konbentzimenduaren bitartez landuko da, bereziki informazioaren trukaketa erabilita. Horrek aktoreen arteko konfiantza sendotzen du. Azken finean, Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen gobernantza gizarte zerbitzuetan aplikatzeko sostengua eta entrenamendua beharko da, lehenbizi entzuten ikasteko eta gero gogoeta eta negoziazioa gauzatzeko.

(3) Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen gobernantza, zerbitzu publikoak emateko garaian, kudeaketa zuzenarekin batera, gizarte zibilarekin eta hirugarren sektorea/ekonomia sozialeko eragileekin kontzertatutako koprodukzioan oinarritzen da.

Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen gobernantzaren ikuspegitik, sistema publiko batek, baita ere gizarte zerbitzuen sistemak ere, publiko gisa, zerbitzu publikoak emateko garaian, zuzenean kudeatutako gutxieneko gune bat beharko du. Erantzukizun publiko zuzena bermatu behar da erregulazioa, finantzaketa eta kontrola antolatzerakoan. Baita ere, zuzenean ekoizten da sistemaren plangintza eta koordinazioa. Gizarte zerbitzuen erabiltzaileei ere bermatu behar zaie kudeaketa zuzenaren bitartez, besteak beste, informazioa, balioztapena, orientazioa, bitartekaritza eta erreklamazio-sistema.

Bestalde, Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen koprodukzioak, zerbitzu publikoak ekoizterakoan, estatuaren eta aktore kolektiboen parte hartzea eskatzen du. Gainera, Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen Koprodukzioak, zerbitzu publikoak emateko garaian, norbanakoen eta aktore kolektibo horien eginkizuna azpimarratzen du. Hain zuzen ere, Koprodukzio eraldatzaile horrek parte hartze demokratikoa sustatzen du eta balio du sistema politikoa berritzeko. Horregatik, Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen koprodukzioaren helburua estatuaren eta politika publikoen demokratizazioa lortzea da. Zerbitzu publikoen eta politika publikoen antolamendua eraikitzen saiatzen da. Bertan, autoritate publikoek,

zerbitzu publikoak ekoizteko garaian, estatukoak ez diren aktoreen ekarpenak bilatzen dituzte.

Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen gobernantzan, estatua eta aktore kolektiboen arteko gizarte zerbitzuen koprodukzioa antolatzeko, bereziki kontzertazio sistema erabiliko da. Lehenbizi administrazioak, koeraikuntzaren bitartez, gizarte zerbitzuen mapa osoa diseinatzen du. Ondoren, kanpoan ikusten da zein erakunde edo enpresa den gai zehaztutako gizarte zerbitzu horiek emateko. Kontzertazioaren bitartez kalitatezko zerbitzua bermatu nahi da, beharra duten herritar guztiei asistentzia ona eta homologatua eskainiz. Bestalde, eskaintza kontzertatua ondo arautu behar da zerbitzu kontzertatueterako exigentziak eta egonkortasuna aldi berean egokitzeko.

Gainera, politika publikoak ekoizteko garaian Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak hirugarren sektorea/ekonomia sozialeko erakundeen aldeko apustua egiten du. Hau da, hirugarren sektorea/ekonomia sozialeko erakundeek ahalmena dute gobernantza demokratikoa zabaltzeko eta sakontzeko. Gainera, hirugarren sektorea/ekonomia sozialeko erakunde horiek hobekien kokatuta daude parte hartze plural hori gauzatzeko. Hori bai, finantzaketa publiko egokia eta erregulazio aproposa bermatu behar da.

(4) Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen gobernantzak hirugarren sektorea/ekonomia sozialeko partaideak positiboki diskriminatuko ditu. Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen gobernantza horrek aktore publiko eta pribatuen aniztasunaren presentzia eskatzen du, partikulariki hirugarren sektorea/ekonomia sozialeko aktoreena esku hartze kolektiboak lantzeko eta martxan ipintzeko. Ikuspegi horretatik, hirugarren sektorea/ekonomia sozialeko erakundeek eginkizun garrantzitsua eduki dezakete Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen gobernantza martxan ipintzeko garaian, hain zuzen ere, erakunde horiek gizalegezko konpromisoen eta gizarte-partaidetzaren espazioak direlako. Hirugarren sektorea/ekonomia sozialeko aktoreek, bereziki maila lokalean, beste ezaugarri batzuen artean honako bi dituzte gobernantza eraldatzailearen aktore pribilegiatuak izateko. Alde batetik, elkartasunezko guneak osatzen dituzte borondatezko konpromisoetan eta elkarrekikotasunean oinarritutako ekimen kolektiboak burutzeko gai direlarik. Bestetik, berriz, erakunde horietako erabaki prozesuak hastapen eta prozedura demokratikoetan oinarritzen dira.

Arrazoi horiengatik hirugarren sektorea/ekonomia sozialeko erakundeak gizarte zibilaren mobilizaziorako eta ordezkartzarako aktore klabeak dira. Horregatik, Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak sustatuko duen gobernantzak, alde batetik, estatuaren esku hartzea baloratuko du eta bestetik, gizarte zibilaren eta bereziki hirugarren sektorea/ekonomia sozialaren ekarpenak aintzat hartuko ditu.

Politika publikoen koeraikuntza eta koproduzio demokratikoak hirugarren sektorea/ekonomia sozialeko aktoreen parte hartzearen aitorpena dakar. Gauza ez da hirugarren sektorea/ekonomia sozialari pribilegio-tratamendu bat ematea. Gehiago da, politika publikoak eta programak zehazten diren momentuan, hirugarren sektorea/ekonomia sozialari aukera ematea beste aktoreen artean bere ahotsa kontuan hartzeko. Helburua da gaur egun hirugarren sektorea/ekonomia sozialak politika publikoen aplikazioan jokatzeko duen papera estatuaren tresna huts bezala gainditzea. Azken finean, elkartasunean oinarritutako koeraikuntza eta koproduzioa ez da luxu bat, demokrazia lortzeko bitarteko bat baizik. Horregatik, gizarte zibileko eta hirugarren sektorea/ekonomia sozialeko aktoreak estatuarekiko harremanetan baztertuak edo erabiliak direnean politika publikoa pobretuta ateratzen da lehiakortasunaren eta burokraziaren erregulazioaren alde negatiboak agerian gelditzen direlako.

Gizarte zerbitzuen arloan hirugarren sektorea/ekonomia sozialak beste aktoreek baino gaitasun handiago erakutsi dezake behar berriak identifikatzeko, arazoei erantzuteko, planteamendu berritzaileak asmatzeko eta tresna berriak martxan ipintzeko. Horregatik, Berrikuntza Sozial Eraldatzailean, gizarte zerbitzuak emateko garaian, hirugarren sektorea/ekonomia sozialak ekarpen garrantzitsua egin dezake estatuak lankidetzan eta sarean oinarritutako marko instituzionalak definitzeko eta zerbitzuak ekoizteko garaian.

(5) Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen gobernantzak kooperatibizazioa sustatzen du espazio publikoa zabaltzeko. Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak Kooperatibizazioaren esperientzia errealitate baliotsua bezala aitortzen du erantzukizun publikoa indartzeko. Eredu publiko soilarekin batera ekonomia sozialak eta bere barnean bereziki kooperatibismoak ekarpen estimagarria egiten dio izaera publikoari. Beti ere, kooperatibismo horrek kapitalismoaren logikatik kanpo dauden elementuak mantentzen baditu. Hau da, kooperatibismoak

demokrazia ekonomikoa, kogestioa, kopartaidetza eta artikulazio ideologiko, politiko eta organiko alternatiboa bultzatzen badu, herri sektoreekin bat eginez. Zentzu horretan, kooperatibizazioa etorkizuneko eredu alternatiboa posible dela pentsatzeko edo frogatzeko elementu garrantzitsua izan daiteke. Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen adiera horretatik tira eginez kooperatibismoak zeregin handia dauka desberdintasun ekonomiko eta sozialei irtenbideak bilatzeko eta bide horretatik beste garapen eredu bat eraikitzen laguntzeko. Maila lokalean, bizi-baldintzetan, enpleguan, lurraldean eta baita ere politika publikoetako plangintzetan eta inplementazioetan egitura-aldaketak eragiteko ahalmena eduki dezake.

Horregatik, eraldaketan oinarritutako kooperatibismoa Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen kontzeptuaren parte bezala ikusten da. Kooperatibismo eraldatzaile horrek lortzen du merkatuaren eksklusibotasuna apurtzea eta gizartearen garapenerako gobernantza partekatzea. Hala ere, Kooperatibizazio eraldatzaile hori ezin da dekretuz ezarri. Tokian tokiko eremu sozioekonomikoetan substratu egokia behar da. Kooperatibismo eraldatzailea aipatzea enpresa multzo eta elkarte eta esperientzia herrikoi eta komunitarioez hitz egitea da. Bertan ondasun eta zerbitzuen ekoizleek ekoizpen bitartekoen jabegoa dute edo prozesu ekonomiko globalaren beste osagarriren baten gestio kolektiboa burutzen dute. Hau da, bere jabegoan, funtzionamenduan eta gestioan parte hartzen dute. Baita ere ezinbestekoa da instituzioen laguntza egotea. Aldeko giroa dagoen gobernantza sistemetan errazagoa da gaur egun dauden hutsuneak eta mugak ezagutaraztea, aktore instituzionalek jokatu behar duten papera zehaztea eta azkenik, irtenbide berriak pentsatzea eta gauzatzea.

Beste alde batetik, kooperatibismoaren barnean koordinazio espazioak sortzea beharrezkoa da informazioa trukatu, hausnarketak burutu eta ildo berriak zabaltzeko. Ezin da ahaztu ere partaideen heziketak duen garrantzia kooperatibismo eraldatzailearen baloreekiko atxikimendua indartzeko.

Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen ikuspegitik gizarte zerbitzuen arloko gobernantzan ekonomia sozialaren barnean kooperatibismoak ahalmen ekonomiko ukalezina erakutsi dezake. Hain zuzen ere, kooperatibizazioak izaera estrategikoa dauka gizarte zerbitzuen diseinuan eta ekoizpenean ahalmen publikoa eta soziala zabaltzeko. Gainera, erantzukizun publiko horren zabalkundea gestio pribatuaren kontura egitea komeni da.

4.6.1 Taula: Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen Gobernantzaren giltzarri nagusiak

-Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen gobernantzak:

- .interes orokorra defendatzen du.
- .estatuaren eginkizuna eraldatzen du.
- .sareei eta lankidetzaren garapenari tokia uzten dio.
- .arazo kolektiboak konpontzeko prozesuak azpimarratzen ditu.
- .gizarte zibila eta botere publikoaren arteko elkarrekintza sustatzen du.

1.-Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen gobernantzak lankidetzan oinarritutako eredu publikoa garatzen du:

- botere publikoan oinarritzen da.
- lankidetzaren motakoa da.
- botere publikoaren esku hartze moduen aldaketari garrantzia ematen dio.
- lankidetzaren bat martxan ipintzen da botere publikoa eta bereziki sozietate zibileko aktoreen artean.
- autoritate publikoen eginkizuna ez da indarrezko boterea erabiltzea.
- gehiago da koordinazio eta sustatze lanak burutzea gizarte zibila eta botere publikoaren artean sortu diren lankidetzaren desberdinetan:
 - . jakinduria kolektiboa sortzen du eta aktore desberdinen arteko logikaren nahasketa dakar.
 - . lankidetzaren ahalik eta simetrikoena da, aktore guztiek errekurtsoa eta indar antzekoa erabiliz.

2.-Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen gobernantza, zerbitzu publikoak diseinatzeko garaian, koerainkuntzan oinarritzen da:

-Koerainkuntzaren ezaugarriak:

- .gizarte zibileko, ekonomia sozialeko eta merkatuko aktoreekin erabakiak lankidetzan hartuko ditu.
- .Koerainkuntza horrek interes orokorra bilatzen du eta aldi berean koerainkuntza neoliberaletik eta korporatibistatik aldentu egiten da.
- .estatuak politika publikoak garatzen ditu lankidetzaren estuan enpresa eta gizarte zibileko aktoreekin.
- .bakarrik desadostasunak daudenean estatuak azken erabakiak hartzen ditu.
- .Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak estatua eraldatu nahi du, iraulketa parte hartzailea gauzatzeko.
- .estatuaren indarra: ahalmen handia gizartearen errekurtsoak bildu ondoren helburu kolektiboak lortzeko.

-Koerainkuntza gizarte zerbitzuetan:

- .Estatua beste eragileen maila berdinean arituko da gizarte zerbitzuak diseinatzen.
- .Lankidetzan oinarritutako gobernantza batek ondo funtzionatzeko aktore desberdinen arteko bitartekaritza espazioak garatzen ditu.
- .Partaideen arteko koordinaketa konbentzimenduaren bitartez landu, aktoreen arteko konfiantza sendotuz.
- .Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen gobernantza gizarte zerbitzuetan aplikatzeko sostengua eta entrenamendua behar da, lehenbizi entzuten ikasteko eta gero gogoeta eta negoziazioa gauzatzeko.

3.-Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen gobernantza, zerbitzu publikoak emateko garaian, kudeaketa zuzenarekin batera, kontzertatutako koprodukzioan oinarritzen da:

-Koprodukzioaren ezaugarriak:

- .sistema publiko batek, baita ere gizarte zerbitzuen sistemak ere, publiko gisa, zerbitzu publikoak emateko garaian, zuzenean kudeatutako gutxieneko gune bat beharko du.

- .bestalde, koprodukzio eraldatzaileak estatuaren eta aktore kolektiboen parte hartzea eskatzen du.
- .koprodukzio eraldatzaile horrek parte hartze demokratikoa sustatu eta sistema politikoa berritzen du.
- .autoritate publikoek, koprodukzioarekin estatuak ez diren aktoreen ekarpenak bilatzen dituzte.

-Gizarte zerbitzuen koprodukzioa antolatzeko, bereziki KONTZERTAZIO sistema erabiliko da:

- .lehenbizi administrazioak, koerainkuntzaren bitartez, gizarte zerbitzuen mapa osoa diseinatu.
- .ondoren, kanpoan ikusi zein den erakunde edo enpresa egokia gizarte zerbitzu horiek emateko.
- .kontzertazioaren bitartez kalitatezko zerbitzua bermatu (asistentzia ona eta homologatua).
- .eskaintza kontzertatua ondo arautu (zerbitzu kontzertatuen eskaerak+egonkortasuna egokitu).

-Politika publikoak ekoizteko garaian Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak hirugarren sektorea/ekonomia sozialeko erakundeen aldeko apustua egiten du.

4.-Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen gobernantzak hirugarren sektorea/ekonomia sozialeko partaideak positiboki diskriminatuko ditu:

-Gobernantza eraldatzaile horrek aktore publiko eta pribatuen aniztasunaren presentzia eskatzen du, partikulari hirugarren sektorea/ekonomia sozialeko aktoreena esku hartze kolektiboak lantzeko eta martxan ipintzeko.

-Hirugarren sektore/ekonomia sozialeko erakundeek eginkizun garrantzitsua eduki dezakete gobernantzan, erakunde horiek gizalegezko konpromisoen eta gizarte-partaidetzaren espazioak direlako.

-Hirugarren sektorea/ekonomia sozialeko aktoreek, bereziki maila lokalean, gobernantza eraldatzailearen aktore pribilegiatuak dira:

.elkartasunezko guneak osatzen dituzte.

.borondatezko konpromisoetan eta elkarrekikotasunean oinarritutako ekimen kolektiboak burutzen dituzte.

.erakunde horietako erabaki prozesuak hastapen eta prozedura demokratikoetan oinarritzen dira.

.hirugarren sektorea/ekonomia sozialeko erakundeak gizarte zibilaren mobilizaziorako eta ordezkartzarako aktore klabeak dira.

-Politika publikoen koeraikuntza eta koproduzio demokratikoak hirugarren sektorea/ekonomia sozialeko aktoreen parte hartzearen aitortzea dakar:

.ez da hirugarren sektorea/ekonomia sozialari pribilegio-tratamendu bat ematea.

.gehiago da, politika publikoak eta programak zehazten diren momentuan, hirugarren sektoreari/ekonomia sozialari aukera ematea beste aktoreen artean bere ahotsa kontuan hartzeko.

.gizarte zerbitzuen arloan hirugarren sektorea/ekonomia sozialak beste aktoreek baino gaitasun handiago erakutsi dezake behar berriak identifikatzeko, arazoei erantzuteko, planteamendu berritzaileak asmatzeko eta tresna berriak martxan ipintzeko.

.Berrikuntza Sozial Eraldatzailean, gizarte zerbitzuak emateko garaian, hirugarren sektorea/ekonomia sozialak ekarpen garrantzitsua egin dezake estatuak lankidetzan eta sarean oinarritutako marko instituzionalak definitzeko eta zerbitzuak ekoizteko garaian.

5.-Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen gobernantzak kooperatibizazioa sustatzen du espazio publikoa zabaltzeko:

-Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak Kooperatibizazioaren esperientzia errealitate baliotsua bezala aitortzen du erantzukizun publikoa indartzeko.

-Eredu publiko soilarekin batera ekonomia sozialak eta bere barnean bereziki kooperatibismoak ekarpen estimagarria egiten dio izaera publikoari:

.Kooperatibismo horrek kapitalismoaren logikatik kanpo dauden elementuak mantenduz.

.kooperatibismoak demokrazia ekonomikoa, kogestioa, kopartaidetza eta artikulazio ideologiko, politiko eta organiko alternatiboa bultzatuz.

-Kooperatibizazioa etorkizuneko eredu alternatiboa posible dela pentsatzeko edo frogatzeko elementu garrantzitsua izan daiteke.

-Kooperatibismoak zeregin handia dauka desberdintasun ekonomiko eta sozialei irtenbideak bilatzeko eta bide horretatik beste garapen eredu bat eraikitzen laguntzeko.

-Eraldaketa oinarritutako kooperatibismoa Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen kontzeptuaren parte bezala ikusten da:

.kooperatibismo eraldatzaile horrek lortzen du merkatuaren eksklusibotasuna apurtzea eta gizartearen garapenerako gobernantza partekatzea.

.Kooperatibizazio eraldatzaile hori ezin da dekretuz ezarri.

.Tokian tokiko eremu sozioekonomikoetan substratu egokia behar da.

.Kooperatibismo eraldatzailea aipatzea enpresa multzo, elkarrekin eta esperientzia komunitarioez hitz egitea da.

.kooperatibistak bere jabegoan, funtzionamenduan eta gestioan parte hartzen dute.

.Kooperatibizazioa burutzeko ezinbestekoa da instituzioen laguntza egotea.

-Kooperatibismoaren barnean koordinazio espazioak sortzea beharrezkoa da informazioa trukatu, hausnarketak burutu eta ildo berriak zabaltzeko.

-Partaideen heziketak ere garrantzia handia dauka kooperatibismo eraldatzailearen baloreak indartzeko.

-Gizarte zerbitzuen arloko gobernantzan:

.ekonomia sozialaren barnean kooperatibismoak ahalmen ekonomiko ukaezina erakutsi dezake.

.kooperatibizazioak izaera estrategikoa dauka gizarte zerbitzuen diseinuan eta ekoizpenean ahalmen publiko eta soziala zabaltzeko.

.erantzukizun publiko horren zabalkundea gestio pribatuaren kontura egitea komeni da.

LEHEN ATALEKO (MARKO TEORIKOA) ONDORIO NAGUSIAK

Marko teorikoaren atal honetan literaturaren errebisioa egin da. Bertan ikusi da garatu den Berrikuntza Sozial Eraldatzailea tresna egokia izan daitekela beste gizarte eredu bat eraikitzen joateko. Ez hori bakarrik, baita ere ahalmena duela zerbitzu publikoak sozializatzeko. Hain zuzen ere, gizarte zerbitzuen diseinuan eta hornikuntzan lankidetzan oinarritutako gobernantzaren aplikazioa, bereziki hirugarren sektorea/ekonomia sozialaren esku hartzea eta kooperatibizazioa bultzatuz, estrategia egokia izan daiteke zerbitzu publikoetan hiritarren parte hartzea sendotzeko eta autogestioa bultzatzeko. Bide horretatik, atal honetan aztertu den Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen eskutik zenbait proposamen teoriko plazaratu dira lankidetzaren bitartez hirugarren sektore/ekonomia sozialeko erakunde desberdinen esku hartzea indartzeko. Ez bakarrik gizarte zerbitzuak emateko garaian. Baita ere, gizarte zerbitzu horiek diseinatzeko eta antolatzeko momentuan. Atal honetan hurrengo ondorio nagusiak atera dira:

(1) Beste gizarte-eredu bat eraikitze beharra. Kapitalismoak desberdintasun sozioekonomiko izugarriak sortzen ditu ez bakarrik munduko biztanleriaren artean, baita ere Europar Batasunaren barruan. Krisi hori ez da bakarrik ekonomikoa. Baita ere soziala, kulturala, politikoa, ekologikoa, ideologikoa eta etikoa. Azken finean, zibilizazioaren paradigma bera krisian dago. Mundua ez dago aldaketen garai baten aurrean bakarrik, aro aldaketa sakon baten ataria gurutzatzen ari da. Kapitalismoaren garaipen ideologikoak bere krisi sakona ezkututzen du ez delako gai gizakiaren etorkizunak planteatzen dituen erronkei, arazoei eta zalantzei erantzuteko. Horregatik adierazi daiteke gaur egungo eredu neoliberalak huts egin duela. Hala ere, jauzia ez da egun batetik bestera emango. Sistema kapitalistak gaitasuna dauka erreproduzitzeko egoera honetaz probetxua ateratzen duten klase sozialak eta interes ekonomikoak daudelako. Testuinguru honetan, egunetik egunera garrantzitsuagoa da beste gizarte-eredu bat eraikitzea balio eta politika desberdinekin, elkarkidetasunean, ondasunaren banaketan, parte hartze sozialean eta bizi kalitatean oinarrituta. Horregatik, ezinbestekoa da, apustu bat egitea, beste garapen eredu baten alde, beste gizarte baten alde. Planetaren etorkizuna bermatu nahi bada, Lurraren bioaniztasun ekologikoari, kulturalari eta linguistikoari eutsi nahi bazaio, mundu parekidea, justua,

bidezkoa eta solidarioa lortu nahi bada beharrezkoa da beste eredu alternatibo baten alde lan egitea.

(2) Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen aldeko apustua. Hala ere, ez da lan erraza izango neoliberalismoa garaitzea baina bai ezinbestekoa gaur egungo eredu ekonomiko nagusiak dakarren dualizazioa eta injustizia gainditzeko. Bide luze eta malkartsu hori egiteko hemen garatzen den Berrikuntza Sozial Eraldatzailea tresna egokia izan daiteke. Hain zuzen ere, autore desberdinen hausnarketak ikusita ondorioztatu daiteke gaur egungo erronka bat dela Berrikuntza Soziala gizarte-eraldaketa proiektu baten alde ipintzea. Hain zuzen ere, Berrikuntza Soziala ulertzeko modu asko daudela ikusi da. Autore batzuk pentsatzen dute Berrikuntza Sozialari buruz hitz egiteko nahikoa dela praktika zahar bat egokitzea, ideia bat beste testuinguru batean aplikatzea edo bazterketa sozialari aurre egiteko edozein neurri hartzea. Beste autore eta proiektu batzuk, berriz, Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen terminoa erabiltzen dute neoliberalismoaren alde gizatiarra indartzeko eredu kapitalistaren egitura arazoei aurre egin gabe. Ikerketa honetan, berriz, ezinbestekoa ikusten da errotikako iraulketa bat ematea, haustura bat burutzea, izaeran, bitartekoetan eta antolaketa moduan. Horregatik, argi gelditu da Berrikuntza Sozialaren hitzarekin nahasketa handia sortzen dela Berrikuntza Sozial mota guzti horiek esanahi berdin baten azpian biltzen direlako eta bide batez eraldaketa sozial erreal baten aldeko Berrikuntza Soziala zurrumbilo horren barruan galduta eta urardotuta agertzeko arriskua dagoelako. Horregatik, ikerketa honen asmoa izan da gizarte-eraldaketan oinarritutako Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen zimenduak antolatzea neoliberalismoaren gaurko fasea zalantzan jartzeko eta gizarteari bide berriak irekitzen joateko.

Horregatik Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen funtzioa ondo finkatzeari lehentasuna eman zaio, ikuspegi sozio-politiko alternatiboak sortzeko eta eraldaketa sozialaren aldeko ahalmena garatzeko. Azken finean, gizartearen eraldaketara bideratutako Berrikuntza Sozialaren kontzeptuak, teoriak, praktikak eta estrategiak elkarlotuko dira gaur egungo gizarte-desorekei eta ongizate faltari aurre egiteko eta inongo bazterketarik gabeko mundu bat eraikitze bidean urrats sendoak emateko.

Bide horretan Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak oinarri politiko eta ideologiko argiak eduki beharko ditu bere potentzialitate guztia gizarte-eraldaketara bideratzeko. Hain zuzen ere, komeni da Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen eginkizuna ondo kokatzea hausnarketa sozio-politiko alternatibo egokiak plazaratzeko eta praktikara eramateko. Zentzuzko alternatibak plazaratuko dira. Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen helburua teoria politiko-ideologiko horiek martxan ipintzea da orain arte berrikuntzan eta arlo politikoan nagusi izan diren aurrerapen teknikoan eta irabazian oinarritutako diskurtsoetatik aldentzeko. Horretarako, Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak esparru sozial alternatiboak sortzen joan beharko du balore indibidualista, kontsumista eta erreakzionarioekin funtzionatzen duten sare eta guneei aurre egiteko. Alternatiba aurrerakoiak garatzeko beharra, bideragarritasuna eta iraunkortasuna ez da nahikoa proiektu horiek gauzatzeko. Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak ahalmena eduki beharko du neoliberalismoak azken hamarkadetan garatu duen ingurumen egituratu eta errotuan prozesu eraldatzaileak martxan ipintzeko. Espazio ekonomiko, sozial eta politiko alternatibo horiek erreferentzia puntu garrantzitsuak bihurtzeko esperientzia positibo eta eraldatzaile horiek ezagunak egiteko eta gero beste espazio batzuetara garraiatzeko. Hau da, arnas-gune horiek prozesu eraldatzailearen zabaltze estrategian paper garrantzitsua jokatu dezakete.

Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak bultzatu nahi duen prozesu eraldatzailea gaur egungo jokaleku neoliberaletik abiatu beharko da. Aldi berean, Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak tokian tokiko proposamenak nazioarteko dinamikekin lotu behar ditu. Gainera, Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen estrategia hori eraginkorra izateko komeni da maila lokalean eta nazioartean transformazio sozialaren alde mugitzen diren mugimendu sozial, sindikal eta politikoekin lan egitea. Baita ere, Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak lortu egin behar du estatuaren esku hartzea gizartearen gehiengoaren alde burutzea, bertako sektore behartsuei lehentasuna emanez. Berrikuntza Sozial Eraldatzailearentzat merkatuak paper positiboa joka dezake beti ere sektore herrikoi zabalen alde aritzen bada. Beste alde batetik, Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak norbanakoen lanerako konpromisoa zainduko du, parte hartzeari atek irekiko dizkio, emakumeen bazterkeria gainditzeko politikak gauzatzeko ditu eta zor zaion garrantzia emango dio prestakuntza ideologikoari eta baloreen dimentsioari. Ezin da ahaztu

ere gatazkaren dimentsioa Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen barruan txertatzea oso garrantzitsua dela.

(3) Ekonomia soziala Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen motore. Gaur egungo krisi egoeran ekonomia sozialak paper garrantzitsua joka dezake. Horrekin batera ekonomia soziala Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen harrobia eta sustatzailea izan daiteke. Hau da, ekonomia sozialak beste mugimendu eta dinamika sozialekin batera gaitasun handia eduki dezake ekonomia eredu berri bat eraikitzeko gizartearekin eta politikarekin lotura zuzena mantenduz. Baina horretarako ekonomia sozialak eraldaketarako duen potentzialitate guztia askatu behar du azaleko jarrera hutsean erori gabe eta eraldaketarako tresna garrantzitsua bihurtuz. Hain zuen ere, Ekonomia Sozial Eraldatzaileak Ekonomia Solidarioaren adiera darama bere barnean. Hau da, Ekonomia Solidarioaren adiera ekonomia sozialaren kontraesanak gainditzeko bide gisa proposatzen da. Horregatik, eraldaketan oinarritutako ekonomia soziala Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen kontzeptuaren parte bezala ikusten da. Berrikuntza Sozial Eraldatzailearentzat tresna estrategikoa izango den ekonomia soziala berreraiki behar da. Horretarako, ekonomia sozial eraldatzaileak bertako beharrei eta bertako arazoei, bertako bitartekoekin, erritmoekin eta kolektibo horrek eskatzen dituen estiloekin erantzun beharko dio. Gainera, hasiera hasieratik eraginkortasuna bilatuko da aplikazio praktikoari garrantzia emanaz.

Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak bultzatuko duen ekonomia sozialaren mamia ulertzeko lau aspektu kontuan hartuko dira. Lehenbizi, ekonomia sozial eraldatzaileak globalizazioari aurre egiteko balio beharko du, lurraldetasuna, elkartzeko ahalmena, malgutasuna eta komunitatearen garapena landuz. Bigarren, ekonomia sozial eraldatzaileak bertako sindikatuarekin eta langile mugimendu osoarekin artikulazio ideologikoa eta politikoa antolatu beharko du gero tokian tokiko instituzioekin elkarlan aurrerakoia burutzeko. Hirugarren, ekonomia sozial eraldatzailearen autogestio errealitate hori garapen eredu propio batean txertatuko da. Azkenik, laugarren atalean, ekonomia sozial eraldatzaileak dituen etekin ekonomikoen zati bat lurraldeko gizarte-ekintzetara bideratuko da, lurraldeko garapen ekonomiko, sozial eta kulturalaren beharrei erantzuten joateko.

(4) Lankidetzaren motako gobernantza Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen oinarri. Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak landuko duen gobernantzak interes orokorra bermatu beharko du. Horretarako estatua eta gizartearen arteko erlazioak birdefinituko dituen praktika berriak eta esku hartze publikoaren modalitate desberdinak garatuko ditu. Hain zuzen ere Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak gobernantzaren kontzeptuak hierarkia eta merkatuaren mugak gainditzen dituzten ekimen publikoak azpimarratuko ditu eta bide batez, gaur egungo gizarte konplexuan estatuaren eginkizunaren eraldaketari garrantzia emango dio. Sareen eta lankidetzaren garapenari ere tokia utziko dio.

Berrikuntza Sozial Eraldatzailean erabiliko den gobernantzaren kontzeptuak arazo kolektiboak konpontzeko prozesuak nabarmenduko ditu eta gizarte zibila eta botere publikoaren arteko elkarrekintzari garrantzia emango dio. Horregatik, Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen gobernantza lankidetzaren motakoa izango da. Erregimen horretan lankidetzaren bat martxan ipintzen da botere publikoa eta bereziki sozietate zibileko aktoreen artean. Autoritate publikoen eginkizuna ez da indarrezko boterea erabiltzea. Gehiago da koordinazio eta sustatze lanak burutzea gizarte zibila eta botere publikoaren artean sortu diren lankidetzaren desberdinetan. Tokiko gizartearen eta administrazioaren esparru egokiena da gobernantza eraldatzaile hori martxan ipintzeko, gune aproposa delako aktoreen arteko koordinazio horizontala sustatzeko eta aldi berean lurraldea ekoizpen faktore bihurtzeko.

Ikuspegi horretatik, Ekonomia Sozial eta Solidarioko erakundeek eginkizun garrantzitsua eduki dezakete Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen gobernantza martxan ipintzeko garaian, hain zuzen ere, erakunde horiek gizalegezko konpromisoen eta gizarte-partaidetzaren espazioak direlako. Horregatik, Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak sustatuko duen gobernantzak, alde batetik, estatuaren esku hartzea baloratuko du eta bestetik, bide bat aurkitu beharko du gizarte zibilaren, merkatuaren eta bereziki ekonomia sozialaren ekarpenak sendotzeko.

Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak bultzatuko duen gobernantza politika publikoaren koeraikuntzaren alde nabarmenduko da, merkatuko, gizarte zibileko eta ekonomia sozialeko aktoreekin lankidetzaren arituz. Koeraikuntza horrek interes orokorra bilatzen du eta aldi berean koeraikuntza neoliberaletik eta korporatibistatik aldentu egiten da. Estatua gainetik

egongo da baino aldi berean eurengandik gertu. Bide horretatik, nor bere burua aski izatea eta guztiahalduntasun jarrerak saihestu egiten ditu. Hain zuzen ere, Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak estatua eraldatu nahi du, eredu parte hartzailea gauzatuz. Hau da, politika publikoen koeraikuntza demokratikoak ekonomia sozialeko aktoreen parte hartzearen aitortpena dakar. Gauza ez da ekonomia sozialari pribilegio-tratamendu bat ematea. Gehiago da ekonomia sozialari aukera ematea beste aktoreen artean bere ahotsa kontuan hartzeko politika publikoak eta programak zehazten diren momentuan.

Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen bidean urratsak emateko koeraikuntza demokratikoaren eredu hori sakondu egin beharko da planifikazio parte hartzailea gehituz. Gaur egungo demokrazia ordezkatzzailearen koordenadak gainditu egin behar dira. Parlamentuaren eta alderdi politikoen jokia ez da nahikoa interes orokorra eta komunitarioa defendatzeko. Dinamika hori partekatu egin behar da gizarte zibilean mugitzen diren aktore eta herri mugimenduekin. Horregatik, ekonomia sozialaren, langileriaren eta gizartearen parte hartzea ezinbestekoa da sektore publikoaren plangintza ekonomikoa burutzeko. Ez da bakarrik aktore desberdinen ahotsa kontuan hartzea. Urrunago joatea eskatzen du prozesuan parte hartzen duten aktoreei informazio osoa bermatzeko eta erabakiak hartzeko aukera ematea eta bide batez hartutako erabaki horiek fiskalizatzeko ahalmena edukitzea.

Planifikazio parte hartzaile horrek lurralde esparrua, arlo instituzionala eta arlo pribatua jorratuko ditu. Alde batetik, sektore publikoak berak prozesuaren zati garrantzitsu bat antolatu eta zuzendu beharko luke, ekoizle bezala behar indibidualak eta kolektiboak asebetez. Bestetik, berriz, sektore publiko horrek ekonomia sozialaren eta sektore pribatuaren plan ekonomikoak zuzendu, erregulatu eta osatu egin beharko lituzke.

(5) Gobernantza aurrerakoia gizarte eta osasun zerbitzuetan. Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak gizarte eta osasun zerbitzuen arloan lankidetzan oinarritutako prozesuak bultzatu beharko ditu, bereziki erakunde publiko eta ekonomia sozialeko enpresen artean gauzatzen direnak. Bide horrek koordinazio instituzionalaren iraulketa eskatzen du. Gainera, estatuaren funtzioa gizartearen aurrean birkokatu egin behar da.

Hori bai, gizarte eta osasun zerbitzuak ezin dira estatuaren eskuetan bakarrik utzi. Estatuak ez da gai zenbait arazoei aurre egiteko eta horretarako Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak eragile sozialen esku hartze anitza bultzatu beharko du. Horregatik, Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen eskutik gizarte eta osasun zerbitzuak estatua eta beste partaideen arteko koeraikuntza mekanismoaren bitartez eraiki beharko dira, gizarte zibileko erakundeak eta enpresak oinarri bezala hartuta. Testuinguru horretan, ekonomia sozialak beste aktoreek baino gaitasun handiagoa erakutsi dezake behar berriak identifikatzeko, arazoei erantzuteko, planteamendu berritzaileak asmatzeko eta tresna berriak martxan ipintzeko. Horregatik, Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak bultzatutako gizarte eta osasun zerbitzuetan ekonomia sozialak ekarpen garrantzitsua egin dezake estatuak lankidetzan eta sarean oinarritutako marko instituzionalak definitzeko garaian.

Bestalde, lankidetzan oinarritutako gobernantza batek ondo funtzionatzeko aktore desberdinen arteko bitartekaritza espazioak garatu beharko ditu eta partaideen arteko koordinaketa konbentzimenduaren bitartez landuko da, bereziki informazioaren trukaketa erabilita. Horrek aktoreen arteko konfiantza sendotuko du. Azken finean, Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen gobernantza gizarte eta osasun zerbitzuetan aplikatzeko sostengua eta entrenamendua beharko da, lehenbizi entzuten ikasteko eta gero gogoeta eta negoziazioa gauzatzeko.

Horrekin batera Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen lankidetzan oinarritutako gobernantzan diskurtsoa eta praktikaren arteko distantzia murriztea lortu behar da. Berrikuntza Sozial Eraldatzailea, gizarte eta osasun zerbitzuen arloan, lankidetzaren inguruan zentratu da beste erregimenek baino gehiago erabiltzen duelako berrikuntza eta esperimentazioa, bereziki ahalmen handia duelako hurbilketa partekatuetan eta interes orokorreko proiektuetan aktore asko eta anitzak partaide izateko. Lankidetzaren gobernantza ez da hainbeste erregulazio publikoen desegite huts bat. Gehiago da desarauketa eta birrarauketaren konbinaketa bat.

Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak bultzatutako gizarte eta osasun zerbitzuen iraulketa bat egitea ez da enpresa erraza. Hala ere, ezinbestekoa dela esan daiteke, erabiltzaileentzat kalitatea hobetzeko eta ekonomia sozial eta irabazi asmorik gabeko erakundeentzat

eraginkortasuna handitu eta jarduera esparruak zabaltzeko. Zalantzarik gabe gizarte eta osasun zerbitzuetan Lankidetzeta-gobernantzaren esparrua handitzen den heinean konkurrentzia-gobernantzaren esparrua murriztu egingo da.

**BIGARREN ATALA: LANDA AZTERKETA. GIPUZKOAKO LURRALDE
HISTORIKOKO GIZARTE ZERBITZUEN GOBERNANTZARI BURUZKO DELPHI
AZTERKETA**

5 KAPITULUA: LANDA AZTERKETAREN TESTUINGURUA. GIZARTE ZERBITZUAK GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOAN

5.1 Gipuzkoako lurraldearen kokapena

Espainiako 1987ko konstituzioak Autonomien Estaturua martxan ipintzen du. Estaturua 17 erregio autonomoetan banatzen da, bakoitza bere gobernu autonomo eta instituzioekin. Erregio autonomoen artean autonomi maila desberdina ematen da. Azterketa orokor bat egiten bada kasu guztietan defentsa, ordezkaritza diplomatikoa, kanpo merkataritza eta aduanak Estatuaren konpetentzia eskusiboak izango dira. Beste eskumenak, berriz, erregioaren konpetentzia eskusiboak izan daitezke edo partekatu egiten dira Estatuarekin. Autonomia desberdinen artean, Katalunia, Galizia, Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroako Foru Komunitatea dira autonomia handiena duten erregioak. Hala ere, gaur egun oraindik ere onartutako zenbait eskumen transferitu gabe daude, horien artean nagusia gizarte segurantzak da. Bestalde, Euskal Herrian kokatuta dauden bi autonomiek, Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroako Foru Komunitateak Kontzertu Ekonomikoaren eta Hitzarmen Ekonomikoaren bitartez zerga erregimen berezi bat dute. Alde batetik, zerga batzuk biltzeko eta horiekin transferitutako eskumenei aurre egiteko eta bestetik, Estatuari kupo bat emateko transferitu gabeko eskumenak ordaintzeko. Gainera, azken kupo hori kalkulatu aurretik doiketa desberdin batzuk egin behar dira. Gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoko Parlamentuak dituen konpetentzien artean osasuna, hezkuntza, garapen ekonomikoa, ikerketa, enplegua eta babes soziala, euskara, nekazaritza, kultura, turismoa, hirigintza, etxebizitza eta garraioa azpimarratu ditzakegu. Euskal Autonomia Erkidegoko 2018ko aurrekontua 11.486 milioi eurokoa da.⁷¹

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoa hiru lurralde historikoetan banatuta dago, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa. Lurralde historiko bakoitzak bere instituzio propioak ditu. Bereziki, Foru Aldundia organo exekutiboa eta Batzar Nagusiak organo legegilea. Gipuzkoako Batzar Nagusiek dituzten eskumenen artean politika soziala, zerga politika, errepideak, kultura, gaztedia, kirola, berrikuntza, nekazaritza-garapena, turismoa, eta lurralde antolaketa

⁷¹ <http://www.eitb.eus/es/noticias/politica/detalle/5291203/presupuestos-euskadi-2018-votacion-parlamento-vasco-cuentas-vascas/>, 2018ko martxoaren 17an ikusia.

azpimarratu ditzakegu. Gipuzkoako Foru Aldundiak 2018rako 856,5 milioi euroko aurrekontua edukiko du.⁷²

5.2 Gizarte zerbitzuen horniketa

Kontuan hartuta espazio politiko batek dituen tresna sozioekonomikoak bere biztanleriaren ongizatea babesteko eta bermatzeko Pestoff-en (1999) arabera Euskal Autonomia Erkidegoan, Espainiako beste zonaldeetan bezala, mediterraneoko erregimen kontserbadore korporatibista aplikatzen da. Hori bai, zenbait espezifikotasun zehatz erakusten dituelarik. Mediterraneoko izaera horrek bere barnean elizaren eragina eta familiaren balore tradizionalen babesa darama. Eredu hori subsidiarioa da, hau da, Estatuak esku hartuko du familiaren eta eliza bezalako beste erakunde batzuen ahalmena agortzen denean. Eredu horretan, familia tradizionalaren eskemak errotuta daudelako, ez da emakumezkoen enplegua sustatzen. Pentsa daiteke, Estatuak eta merkatuak euren gain hartzen ez dituzten eginkizun sozial horiek emazteek eta amek bete behar dituztela.

Espainiar Estatuaren mailan egin diren zenbait azterketa kontuan hartzen badira (Rodriguez Cabrero, 2008; Gallego, Subirats eta Gomá, 2003) ikerketa horietan azpimarratzen da Estatuko erregioek, bakoitzaren autonomiaren ahalmenaren arabera, berezitasun propioak dituztela. Zentzu horretan, Euskal Autonomia Erkidegoak, beste autonomiekin alderatuta, gastu sozial handienetakoa dauka. Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoa Estatuko Gobernu Zentralak proposatzen duen ildotik alderatu egiten da ekimen publikoaren eginkizunari merkatuari baino pisu handiagoa emanez. Horrekin batera, ikerketa horien arabera Euskal Autonomia Erkidegoa gizarte-laguntza, enplegu eta oinarrizko errenten zerbitzuetan nabarmendu egiten da. Baita ere, esan daiteke gestio tresna publikoagoak eta eragileen sare konplexuetan antolatutakoak erabiltzen dituela. Hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoan sektore pribatuko gestio-tresnak garaile ateratzen dira hezkuntzan, gizarte-zerbitzuen eta enplegu hornikuntzan. Sektore publikoko tresnak, berriz, indar gehiago dute osasungintzan, etxebizitzan eta oinarrizko errentan. Gainera, osasungintzan ezik, beste

⁷² <http://www.noticiasdegipuzkoa.eus/2017/11/01/sociedad/gipuzkoa-contara-en-2018-con-el-presupuesto-mas-ambicioso-de-su-historia-en-politica-social>, 2018ko martxoaren 17an ikusia.

ataletan sare konplexuak ekimen publikoa, ekimen pribatua eta azken honetan zenbait gobernuz kanpoko erakundeekin daude antolatuta. Horietako batzuk ere ekonomia sozial eta solidarioaren esparruan lan egiten dute.

Espainiar estatu mailan gizarte zerbitzu, etxebizitza eta oinarrizko errentaren arloetan merkatuak eta familiak agintzen badu ere, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Komunitatean esku-hartze publikoak eta sare sozialek pisu handiagoa hartzen dute merkatuaren eta familiaren eragina asko gutxituz.

Euskal Autonomia Erkidegoan zaintza eta mendekotasun arloetan sare sozialek duten garrantzi erlatiboa Etxezarreta eta Bakaikoaren (2011) lanean azpimarratzen da. Ikerketa horietan Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan hiru portaera desberdin ikusten dira: Arabako lurraldean izaera publikoa garaile ateratzen da. Bizkaian, berriz, sektore pribatuak eta hirugarren sektoreak pisu nagusia dute. Azkenik, Gipuzkoan kontzertazioaren bitartez antolatzen da. Bertan, batzuetan esku-hartze publikoa zuzenean bideratzen da eta beste batzuetan, berriz, sektore pribatuaren edo hirugarren sektorea/ekonomia sozialaren bitartez gauzatzen da.

5.3. Gipuzkoako lurraldearen gizarte zerbitzuen indarreko marko juridikoa

Subsidiaritasun printzipioa aplikatzen da Europar Batasunean. Bestalde printzipio hori Europar Batasuneko herrialde gehiena zeharkatzen duen joera global baten menpe dago: bere biztanleriaren zahartzea. Bizi-itxaropena luzatzen ari bada ere ezgaitasunik gabeko bizi-itxaropena ez da luzatu proportzio berdinean. Zentzu horretan zahartze aktiboaren printzipioa nagusitzen ari da europar mailako politika desberdinetan. Horren ondorio nagusia da gizarte zerbitzuen kostu publikoa izugarri handitzen ari dela. Europar Batasunetik zuzendutako orientabideak bi ildo nagusi jarraitzen dute: ikerketa eta garapena bultzatzea eta, subsidiaritasun printzipioa aplikatuz, lurraldearen arabera erantzuna ematea.

Horregatik, Europar Batasunak orientabide komun batzuk finkatzen ditu adineko pertsonen problematikari erantzun bat emateko. Europar esparru horretatik anbiguotasunez jositako errezeta liberalak proposatzen dira. Europako Parlamentuko eta Europako Kontseiluko 2006/123/CE zuzentaraua, Barne Merkatuko zerbitzuei dagokionez, liberalizazio horren

adibide esanguratsua da. Egia da ere, gizarte zerbitzuen esparruko zenbait alorretan salbuespenak plazaratzen direla baino beti ere anbiguotasunez josita.

Zahartze esparruari zuzenean dagokionez europar esparrutik gizarte zerbitzuen egituraketa bultzatu, egituraketa horretan informazio eta komunikazio teknologien garrantzia azpimarratu eta adineko langileen enplegua sustatu nahi da. Horren adibide Europako Batzordeak Parlamentuari eta Kontseiluari bidalitako Komunikazioa da⁷³.

5.3.1 Espainiar Estatuko 2006ko mendekotasun legea

Europar Batasuna zeharkatzen duen joera horren azpian Estatu Espainolaren esparruan 2006an mendekotasun legea⁷⁴ onartu zen. Lege hori martxan jartzen da autonomia pertsonala sustatzeko eta dependentzia egoeran dauden pertsonak laguntzeko. Estatu Espainolak, beste administrazio publiko guztiekin batera, lege horrekin bermatu egin nahi ditu gutxieneko eskubide batzuk bere lurralde osoan. Hasteko, arau horretan zenbait oinarrizko definizioak zehazten dira, horien artean, autonomia, mendekotasuna, eguneroko bizitzako oinarrizko aktibitateak, arreta ez profesionala, arreta profesionala, laguntza pertsonala eta hirugarren sektorea. Bestalde, zerbitzuak emateko gizarte zerbitzuen eta osasun zerbitzuen arteko lankidetzaren printzipioa garatzen da. Zerbitzu horiek emateko hirugarren sektorearen parte hartzea ere bertan jasota dago. Legeak Estatuko Administrazio Orokorraren aldetik gutxieneko berme bat plazaratzen badu ere gero autonomia-erkidego bakoitzari aukera ematen zaio babes hori osatzeko eta toki administrazioekin partekatzeko.

Lege horrek bereizketa bat egiten du zerbitzuen eta prestazio ekonomikoen katalogoen artean. Lehenengoan, mendekotasuna saihesteko neurriak, telelaguntza, etxez etxeko laguntza, eguneko eta gaueko zentroak eta erresidentziako zaintza zerrendatzen dira. Bigarrenean, berriz, prestazio ekonomikoaren barruan, hiru aukera aurreikusten dira: i) PECE⁷⁵, familia inguruko norbaitek ematen duen laguntza ordaintzeko prestazio ekonomikoa, arreta ez profesionala eta ezohikoa; ii) PEAP⁷⁶, laguntza pertsonala lortzeko prestazio ekonomikoa, laguntzaile pertsonal baten zerbitzuak kontratatzeko eguneroko oinarrizko

⁷³ 2012/02/29 COM(2012) 83 final.

⁷⁴ 39/2006. Legea, 2006ko abenduaren 14koa.

⁷⁵ Prestación Económica para Cuidados en el Entorno Familiar.

⁷⁶ Prestación Económica de Asistencia Personal.

jarduerak bermatzeko, besteak beste, hezkuntza, lana edo bizitza autonomoagoa eramateko, eta iii) PEVS⁷⁷, zerbitzu zehatz bateri lotutako prestazio ekonomikoa, hau da, eskubidea duen zerbitzu publiko bat jasotzeko itzarote-zerrendan dagoenean zentro pribatuan ordaindu behar duena konpentsatzeko prestazio ekonomikoa.

Gainera, arauak hiru menpekotasun gradu finkatzen ditu bakoitza bi mailatan zatituta eta komunitate autonomoei eskubidea ematen die dependentziaren balorazio organoak aukeratzeko eta behar diren zainketa motak zehazteko. Finantzaketa, berriz, Estatuaren Administrazio Orokorraren ardurapean gelditzen da, autonomia-erkidegoen laguntzarekin. Hain zuzen ere, autonomia-erkidegoen urteko ekarpena gutxienez Estatuaren Administrazio Orokorraren kantitate berdina izan behar du. Aipatu beharra dago onuradunek ere kostuaren ordainketan parte hartzen dutela bakoitzak bere ahalmen ekonomikoaren arabera.

2012an, krisi ekonomikoaren testuinguruan, lege dekretu⁷⁸ berri bat martxan jartzen da 2006ko mendekotasun legea aldatzeko. Lege horrek, besteak beste, prestazioen murrizketak, onuradunen ekarpenen igoera, familiako laguntzaile ez profesionalen gizarte segurantzaren kotizazioen Estatuaren ordainketaren amaiera eta menpekotasunaren baremoaren sinplifikazioa ekarriko ditu.

5.3.2 Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen Legea

Estatuko mendekotasunaren legearekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoak gizarte zerbitzuen oinarri-lege orokor bat dauka gizarte zerbitzuen legea bezala ezagutzen dena⁷⁹. Lege hori 1987ko Konstituzioaren babesean sortzen da, bertan Euskal Autonomia Erkidegoari gizarte laguntzaren eskumen eskusiboa ematen dio. Lege horrek jarraipena ematen die gizarte zerbitzuei buruzko aurreko zenbait legeei, 1982 eta 1996 urteren artean onartutakoak. 1996ko legean zenbait urrats ematen dira. Hasteko, oinarritzko gizarte zerbitzuak martxan ipintzen dira eskumena udalen eskuetan geldituz. Baita ere, eraginkortasuneko, kalitateko eta kostuko baldintza antzekoak daudenean irabazi asmorik

⁷⁷ Prestación Económica Vinculada a un Servicio.

⁷⁸ 2012ko uztailaren 13ko 20/2012 Lege dekretua

⁷⁹ 2008ko abenduaren 12ko 12/2008 legea.

gabeko erakundeei lehenetasuna ematen zaie eta onuradunek zerbitzuaren finantzaketan parte hartu beharko dute baina, beti ere, ezin izango dira zerbitzutik kanpo gelditu arrazoi ekonomikoengatik.

Aurreko arautegi hori kontuan hartuta Euskal Autonomia Erkidegoko 2008ko gizarte zerbitzuen legeak errealitate berri bateri aurre egin nahi dio. Lege berri hori martxan ipintzen denean ez da aurreikusten ondoren etorriko den Atzeraldi Handia. Kontuan hartzen da ekonomia hazkunde fase batean aurkitzen dela, BPGren igoerekin eta langabezia tasa baxuekin. Gainera, bizimodua aldatzen doa eta emakumea egunetik egunera gehiago sartzen ari da lan merkatuan. Bestalde, nahiz eta ekonomia ziklo positiboan egon, ahulezia egoeran edo pobrezian dauden pertsonen beharrak handitu egin dira. Testuinguru horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen sistema ongizate-estatuaren oinarrietako bat kontsideratzen da, biztanleria osoari zuzendutako ardura publikoa eta estaldura unibertsala azpimarratuz. Hala ere garai horretan oraindik alde nabarmenak ikusten dira Europako Herrialde garatueneekin eta arau berri horren bitartez diferentziak gutxitu egin nahi dira behar berriak aurreikusiz eta tresna egokiak planifikatuz. Legeak zioen azalpenean azaltzen den moduan: *“Gainera, bada diferentzia orokor bat Autonomia Erkidegoaren eta Europako eremuko herrialderik aurreratuenen artean. Ezberdintasun horiek gutxika-gutxika urritzeko, ezinbestekoa da gizarte-beharrizanen bilakaerari buruz aurreikuspen egokiak egitea eta Autonomia Erkidegoaren lurralde osoan sistemaren garapen planifikatua gauzatzeko behar diren tresnak prestatzea”*.

Legearen lehenbiziko tituluan, legearen helburu orokorrak finkatzen dira. Bertan gizarte zerbitzuen erabilera eskubide subjektiboa dela azpimarratzen da eta gainera EAEko gizarte zerbitzuen helburua prestazioen eta zerbitzuen izaera unibertsala bermatzea izango dela: *“Legearen xedea zehazten da bertan, alegia: gizarte-zerbitzuetarako eskubide subjektiboa aldarrikatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazioen eta zerbitzuen izaera unibertsala bermatzea, euskal administrazio publikoek prestazio eta zerbitzu horiek sistema horretako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoaren barruan eskainiko dituztela bermatzea eta sistema hori antolatu eta egituratzea, gizarte-zerbitzuetarako eskubidearen erabilera egiazkoa izan dadin”*.

7. artikuluan gizarte zerbitzuetako Euskal Autonomia Erkidegoko printzipioak ondo definituta gelditzen dira:

a) Erantzukizun publikoa. Botere publikoek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan araututako prestazioen eta zerbitzuen eskaintza eta horietaz baliatzeko modua bermatuko dute. Nolanahi ere, sistemara sartzeko prestazioen, eskarien lehenengo harrerako prestazioen eta kasu-koordinazioarekin zuzenean lotutako prestazioen zuzeneko kudeaketa publikoa bermatuko dute, 59.2 artikulua dioenaren arabera. Osagarri modura, zerbitzuen eta erabiltzaile eta profesionalen beharrezkoen eta kudeaketaren eta arretaren kalitatea bermatzeko zailtasunen errealitatea berariaz ezagutzen jarraitzeko, eta jokabide egokien ereduak eskaintzeko, eta sistema bere helburuetarantz bultzatuko duten baliabide berritzaile eta alternatiboak esperimentu bezala probatzeko, esparru honetan eta modu orokorrean aurreikusiko dira kudeaketa publikoaren eta gizarte-ekimenaren bidezko kudeaketaren nagusitasuna, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan zerbitzu eta prestazioak ematerakoan.

b) Unibertsaltasuna. Botere publikoek Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogoan jasotzen diren prestazioez eta zerbitzuez baliatzeko eskubidea bermatuko diete eskubide horren titular diren pertsona guztiei, lege honetako 3. artikuluan zehazten diren baldintzen arabera; nolanahi ere, prestazio eta zerbitzu horietaz baliatzeko eskubidea berariazko baldintzak betetzeko betebeharraren pean jarri ahalko da.

c) Berdintasuna eta ekitatea. Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek prestazio eta zerbitzu jakin batzuk bermatu behar dituzte gutxienez, hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Mapak zehazten dituenak, baliabideak Autonomia Erkidegoaren lurraldean berdin banatuko direla ziurtatzearen. Halaber, prestazio eta zerbitzu horietaz ekitatearen irizpidearen arabera baliatzea bermatuko dute, baldintza sozial edo pertsonalengatik bereizkeriarik eragin gabe, ekintza positiborako edo aukera- eta tratu-berdintasunerako neurriak aplikatzearen kalterik gabe, eta beren jardunean gizon eta emakumeen berdintasunaren eta dibertsitate sexualaren ikuspegiak integratuz, bai eta belaunaldi ezberdinak eta kultura ezberdinak aintzat hartzeko ikuspegia ere. Era berean,

Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek, hizkuntz araudia betetze aldera, pertsonak euskara edo gaztelania erabiltzeko duten askatasuna bermatuko dute.

d) Hurbiltasuna. Hurbiltasunaren printzipioari erantzunez, gizarte-zerbitzuak, haien izaerak aukera ematen duenean, ahalik eta deszentralizatorik handienarekin eskainiko dira.

e) Prebentzioa, integrazioa eta normalizazioa. Bazterketa sortzen duten edo bizimodu autonomoa mugatzen duten egiturazko kausen azterketa eta prebentzioa egingo dute gizarte-zerbitzuek. Era berean, herritarrak beren ingurune pertsonal, familiar eta sozialean integratzea izango dute helburu, eta normalizazioa sustatuko dute, beste arreta-sistema eta politika publiko batzuek baliatzen lagunduz.

f) Arreta pertsonalizatua eta integrala eta arretaren jarraitasuna. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak arreta pertsonalizatua eskaini behar du, pertsona eta/edo familia bakoitzaren beharrezkoak egokitua eta haien egoeraren ebaluazio integral batean oinarritua, eta arreta jarraitua eta integrala izango dela bermatu beharko du, nahiz eta administrazio edo sistema bat baino gehiago jardun.

g) Esku-hartze interdisziplinarioak. Eskaintako arretaren izaera integrala eta baliabide publikoen aplikazio arrazoizko eta eraginkorra bermatze aldera, ahalegina egingo da esku-hartzeak interdisziplinarioak izan daitezkeen, eta, horretarako, talde-lana sustatuko da, bai eta gizarte-arloko esku-hartzean aritzen diren era bateko eta besteko lanbideetako ekarpenak eta egokiak diren guztiak aintzat hartzea ere.

h) Koordinazioa eta lankidetzak. Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioak koordinazio- eta lankidetzak-betebeharraren arabera jardungo dira elkarren artean, bai eta irabazi asmorik gabeko gizarte-ekimen pribatuarekin ere. Elkarlanean arituko dira, orobat, gainerako ekimen pribatuarekin, lege honetako V. tituluan ezarritako eran. Koordinazio eta elkarlan horrek gainditu egin beharko du gizarte-zerbitzuen arloa, eta beste babes-sistema eta -politika publiko batzuetara ere hedatu beharko da.

i) Gizarte-ekimena sustatzea. Irabazi asmorik gabeko gizarte-ekimenak gizarte-zerbitzuen arloan parte har dezan sustatuko dute botere publikoek, bereziki Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren parte har dezan.

j) Herritarren parte-hartzea. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren plangintzan eta garapenean, pertsonak eta taldeak elkartasunezko lankidetzan ari daitezen sustatuko dute botere publikoek, bai eta erabiltzaileen parte-hartzea ere.

k) Kalitatea. Prestazio eta zerbitzu nagusiek kalitate-estandar gutxieneko batzuk izan ditzaten bermatu behar dute Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek; horretarako, autonomia-mailan, gutxieneko eskakizun gisa bete beharreko baldintza material, funtzional eta langileei buruzkoak arautuko dituzte eta aipatu estandarren hobekuntza sustatu; orobat sustatu beharko dute Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema osoan xedetzat kalitatea izango duen kudeaketa.

Bigarren tituluan, prestazioak eta zerbitzuak zehaztu eta zerrendatzen dira. Horrekin batera, esku hartzeko moduak finkatzen dira. Gainera Prestazio eta Zerbitzuen Kartera eta Katalogoa aurkezten dira: *“Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazioak -teknikoak, ekonomikoak eta teknologikoak- eta zerbitzuak definitu eta sailkatzeko baliatzen da lehenbiziko kapitulua; era berean, esku-hartzeko oinarrizko prozedura antolatzen du. Prozedura horren arabera, erreferentziako profesionali dagokie kasua koordinatzea, eta, hala dagokionean, arreta pertsonalizatuko plan bat egin beharko da. Ondoren, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Kartera eta Katalogoa definitzen ditu, eta horien ezaugarriak, edukia eta eguneratzea arautzen ditu, bai eta prestazioez eta zerbitzuez baliatzeko baldintza orokorrak ere”.*

Hirugarren tituluan gizarte zerbitzuen eskumenak, antolaketa, kontsulta eta parte hartzea arautzen da. Atal honetan gizarte zerbitzuen eskumenak banatzen dira Eusko Jaurlaritza, foru aldundien eta udalen artean. Bertan zehazten da Euskal Autonomi Erkidegoko Legebiltzarrari dagokiola gizarte zerbitzuen legegintza-funtzioa. Lege honek berak eta legearen garapen-arauek gizarte zerbitzuei buruz agintzen dizkion arloetan, Legebiltzarraren eskumenekoa da arauak garatzea eta zuzeneko ekintza burutzea. Arrazoia da prestazio eta

zerbitzu batzuk Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde osoan bateraturik eskaini behar izatea, hain zuzen ere, interes orokorrekoak direlako edo eskala-ekonomiak lortu nahi direlako.

Era berean, Eusko Jaurlaritzaren ardura da Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte zerbitzuen planifikazioa egitea bai Gizarte-Zerbitzuen Plan Estrategikoaren barruan bai eta kasuan kasu prestatuko diren plan sektorial eta plan berezietan ere. Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren eskuetan daude horrela finkatutako zenbait prestazio eta zerbitzuak betetzea, besteak beste telelaguntza-zerbitzua, familiarentzako elkargunea epai bidez datozen kasuetan arreta eskaintzeko zerbitzu modura balio duenean eta familia-bitartekotzarako zerbitzu osoa.

Foru aldundiei dagokionez, eskumena izango dute beren zerbitzuak antolatzeko erregelamenduak egiteko. Hain zuzen ere lurralde organo hauen ardura nagusia bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuak eskaintzea da, horien artean menpekotasuna, ahalmen-urritasuna, bazterketa eta babesgabetasuna baloratzeko eta diagnostikatzeko zerbitzua, eguneko arretako zerbitzuak edo zentroak, gaueko harrera-zentroak, egoitzak, atsedenerako zerbitzua eta gizarte-larrialdietarako koordinazio-zerbitzua. Baita ere aipatzekoa da arrisku larrian edo babesik gabe dauden adingabeak babesteko dauzkaten eskumenak.

Udalei berriz dagokie, bakoitzak bere udalerrian, gizarte zerbitzuen Euskal Autonomi Erkidegoko sistemako zerbitzuak, bere eskumenekoak, antolatzea, Euskal Autonomia Erkideko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan jasota dagoenaren arabera, foru-aldundiaren plangintzan jasota dagoenaren arabera eta, halakorik baldin badago, arlokako planetan eta autonomia-eremuko plan berezietan jasota dagoenaren arabera. Bereziki, udalaren ardurapean daude oinarrizko gizarte zerbitzuak sortzea, antolatzea eta kudeatzea. Hau da, Gizarte Zerbitzuen Euskal Autonomia Erkidegoko Sistemaren prestazio eta zerbitzuen katalogoko lehen mailako arretako gizarte zerbitzuak eskaintzea telelaguntza-zerbitzua izan ezik Eusko Jaurlaritzako eskumenpekoa delako. Horien artean aipatu ditzakegu Informazio-, balorazio-, diagnostiko- eta orientazio-zerbitzua, etxez etxeko laguntza-zerbitzua, gizarte eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua, zaintzaileei laguntzeko zerbitzua, gizarte zerbitzuen eremuan partaidetza eta gizarteratzea sustatzeko zerbitzua, eguneko arretako zerbitzuak, gaueko harrera-zentroak eta Ostatu-zerbitzuak.

Bestalde, lege horren arabera herri-administrazioaren betebeharrak bat herritarren parte hartzea indartzea da: *“Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek herritar guztien parte-hartzea erraztuko duten parte hartze bideak izango direla bermatuko dute, eta, bereziki, gizarte-zerbitzuetako eta ekimen pribatuko erakundeetako erabiltzaile eta profesionalak ordezkatzeko dituzten erakundeak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren plangintza, funtzionamendu eta ebaluazioan, eta, horretarako, parte hartzeko bitarteko eraginkor eta zaluak izan daitezela bermatuko dute”*. Hain zuzen ere parte hartze hori burutzeko bitarteko desberdinak erabiliko ditu, hala nola: *“Kontsultarako eta parte-hartzerako lege honetan aurreikusten diren organoak, parte hartzeko kontseiluak eta erabiltzaileen parte-hartzerako beste bitarteko formal batzuk, gizarte-zerbitzuetako zerbitzuetan eta zentroetan ezarritakoak eta herri-administrazioek gai orokor edo berezi jakin batzuetan parte hartzeko antolatzen dituzten prozesuak, gai horiek izan dezaketen interes bereziengatik”*.

Kontsultarako eta parte hartzerako martxan ipiniko dituen organoen artean garrantzitsuenetakoa Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua izango da: *“Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua kontsultarako eta parte-hartzerako organo nagusia izango da, Eusko Jaurlaritzan gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen sailari atxikia, eta, bertan, ordezkari paritariora izango dute, alde batetik Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta udalek, eta, bestetik, arloan parte hartzen duten gizarte-eragile guztiek, zehazki, sindikatu-erakundeek, enpresaburuen elkarteek, erabiltzaileen erakundeek, gizarte-ekintzaren hirugarren sektorekoek eta gizarte-zerbitzuen arloan lan egiten duten profesionalen elkarteek”*.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren dinamikaren barnean, beharren eta interesaren arabera, legeak Kontseilu Sektorialak antolatzeko aukera uzten du. Hala ere, nahitanahiez eratu beharko dira adinduen, haurren, ezinduen eta gizarteratze arloetan: *“Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren barruan gizarte-zerbitzuen kontseilu sektorialak sortu ahal izango dira; kontsultarako eta parte-hartzerako izango dira, eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren erabiltzaileen eta profesionalen beharrez berezien arabera zehaztuko da zein*

arlotan jardungo diren. Arlokako kontseilu horiek aintzat hartu ahal izango dituzte beren eginkizuna betetzeko egoki iruditzen zaizkien txosten eta ikerketa guztiak, bai eta, bereziki, erabiltzaileen ordezkari-tza-erakundeek eta gizarte-ekintzaren hirugarren sektorekoek egindako proposamenak ere. Nolanahi ere, beharrezkotzat jotzen diren beste batzuk sortzea eragotzi gabe, nahitaez eratu beharko dira arlo hauetako kontseiluak: adinduak, haurrak, ezinduak eta gizarteratzea. Orobat, gizarte-zerbitzuen arloko enpleguaren kalitaterako eta prestakuntzaren eta kualifikazioaren hobekuntzarako kontseilu bat ere sortu beharko da”.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluarekin batera Gizarte Zerbitzuen Euskal Autonomia Erkidegoko legeak Lurralde-Kontseiluak eta Toki-Kontseiluak eratzeke agintzen du: *“Foru-aldundiek eta udalek, bakoitzak bere lurraldearen eremuan, eta beren kasa edo beste batzuekin elkar hartuta, autoantolaketarako ahalmenaz dihardutela, gizarte-zerbitzuen kontseilua eratuko dituzte, nork bere eskumen-eremuko gizarte-zerbitzuei buruzko kontsultarako eta parte-hartzerako organo gisa. Kontseilu horien osaerak gizarte-zerbitzuen eremuan esku hartzen duten gizarte-eragileen parte hartzea bermatu beharko du, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako herri-administrazioena ere, kasu bakoitzean dagokionarena. Halaber, gizonezkoen eta emakumezkoen artean ordezkari-tza orekatua egon dadin zaindu beharko da”.*

Ezin dugu ahaztu ere egin Eusko Jaurlaritza, foru aldundien eta udalen betebeharra gizarte-ekintzaren hirugarren sektorea sustatzea dela. Baita ere elkartegintza bultzatzea, gizarte zerbitzuen esparruan boluntario-lana eta irabazi asmorik gabeko eta gizarte-ekimeneko kooperatibismoa eragitea eta gizarte zerbitzuen kudeaketan eta ebaluaketan erabiltzaileek eta profesionalek ere parte hartzea. Halakoetan, ahal dela, foru aldundiek gizonen eta emakumeen arteko partaidetza orekatua lortzen saiatu beharko dira. Baita ere, foru aldundiek gizarte zerbitzuen sisteman esku hartzen duten eragile eta profesionalen prestakuntza bultzatu beharko dute Autonomiako beste gainerako administrazioekin batera.

Baita ere titulu horretan Euskal Autonomi Erkidegoko administrazioen arteko lankidetzeta eta koordinazio organoak eta prozedurak jasotzen dira: *“Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Sistemaren eskumen, antolamendu, kontsulta eta parte-hartzearen araubidea ezartzen du,... eta administrazioen arteko lankidetzeta- eta koordinazio-organoko eta prozedurak*

zehazten ditu, hala Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Sistemarako nola gizarte-ongizatea xede duten beste sistema eta politika publiko kideko edo osagarri batzuekiko harremanetarako". Titulu honetan bereziki aipatzekoa da Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoaren sorrera zehazten dela. Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen sistemaren batasuna bermatu nahi da eta, ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde osoan prestazio eta zerbitzu guztien garapen koherente eta harmoniko bat bilatzen da. Organo horretan Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek eta udalek (Eudelen bitartez) ordezkari-tza paritarioa izango dute bertan. Helburua sistemaren iraupena eta kalitatea guztien ardura bihurtzea da.

Laugarren tituluan Gizarte Zerbitzuen Sistemaren finantzaketa arautzen da, eta finantza-iturriak eta administrazioen arteko finantza-arloko lankidetzak-formulak zehazten dira: *"Esparru horretan, gizarte zerbitzuen berezko prestazioen finantzaketa (ar-lo horretan eskumena duten herri-administrazioen esku egongo da) eta beste sistema batzuen berezko prestazioen finantzaketa bereizten dira (beste ar-lo batzuetan eskumena duten herri-administrazioek finantzatuko dituzte). Nolanahi ere, horrek ez du eragotziko prestazio horiek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari integratutako zerbitzuetan eskaintzea; horretarako, eskumena duten administrazioek argitu egin beharko dituzte arian-arian beren eskumenekoa diren prestazioen finantzaketan dituzten erantzukizunak. Halaber, erabiltzaileek doakoak ez diren zerbitzuen finantzaketan izan beharko duten parte-hartze ekonomikoa zehazteko funtsezko alderdiak ezartzen dira, eta prezio publikoetan oinarritutako sistema bat hautatzen da horretarako: prezio publikoak eta erabiltzaile bakoitzak egin beharko duen ekarpenaren zenbatekoa errespetatzeko oinarritzko irizpideak arautuko dira horrela".*

Bosgarren tituluan gure ikerketarako garrantzitsua den ekimen pribatuaren esku-hartzea jorratzen da. Bertako I. kapituluari ekimen pribatuaren esku hartzea erantzukizun publikoko gizarte zerbitzuetan nola antolatzen den aztertzen da. Horretarako, lehenbizi zerbitzu eta zentroak baimendu eta homologatu egin behar dira: *"Ekimen pribatuko erakundeek, Gizarte Zerbitzuen Erregistroan inskribatzeaz gain, kasuan kasuko administrazio-baimena beharko dute gizarte-zerbitzuen horniketari eta eskaintzari esku hartu ahal izateko, zerbitzuon*

izatasunaren eta tipologiaren arabera egokitzen zaizkion eskakizun material, funtzional eta pertsonalekoak bete ondoren. Erakunde pribatuek, behar bezala inskribatzeaz eta baimentzeaz gain, aldez aurreko homologazioa ere beharko dute Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren sartutako gizarte-zerbitzuen eskaintzan esku hartzeko. Aldez aurreko homologazioa nahitaezko baldintza izango da erakunde pribatu batek gizarte-zerbitzuen horniketa herri-administrazio batekin hitzartu edo kontratatu ahal izan dezan. Homologazioa lortzeak, nolana ere, ez du ematen eskubiderik itunak edo kontratuak, edo, hala balegokio, lankidetzak-hitzarmenak egitea galdatzeko”.

Ondoren, ekimen pribatuaren parte hartzea Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoko zerbitzuen eskaintzan finkatuko da eta hori burutzeko zuzeneko kudeaketa, zeharkako kudeaketa eta hitzarmenak irabazi asmorik gabeko erakundeekin erabiliko ditu: *“Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek, beren eskumeneren eremuan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoko zerbitzuen eskaintza antolatu ahal izango dute, honako formula hauen bidez: zuzeneko kudeaketa, itunak lege honetan aurreikusitako itun-araubidearen bidez, zeharkako kudeaketa Administrazio Publikoen kontratazioko araudiaren esparruan, eta hitzarmenak irabazi-asmorik gabeko erakundeekin”.*

Era berean, kapitulu horretan diskriminazio positiboko neurriak kontuan hartuko dira irabazi asmorik gabeko erakundeentzat, beti ere antzeko baldintzak betetzen dituztenean: *“Itunak ezartzerakoan, administrazio publikoek lehentasuna emango diete, eraginkortasuneko, kalitateko eta kostuko baldintza antzekoak daudenean, irabazizko izaerarik ez duten gizarte-zerbitzuak eskaintzen diharduten erakundeek”.*

Baita ere, erakundearen forma juridikoa kontuan hartu gabe, diskriminazio positiboa ezarriko da ondorengo neurriak hartzen dituzten erakundeentzat:

a) Jardueraren emaitza ekonomikoak ituntzea eskatu duten zerbitzu eta zentroen etengabeko hobekuntzara bideratu izana, eta hori egiteko hitza ematea ituna indarrean dagoen bitartean.

b) Gizarte-egoera bereziki ahuleko pertsona, familia eta/edo taldeei zuzendutako zerbitzuak eskaintzea edo zentroak kudeatzea.

c) Itundu beharreko zerbitzuari edo zentroari balioa eranstea, zerbitzuaren hartzaile diren pertsona, familia eta/edo taldeei zuzendutako beste prestazio, zerbitzu edo jarduera batzuekin lortzeko.

d) Itundu beharreko zerbitzurako edo zentrorako pertsonal kontratatuaren ratio ezarriak hobetzea Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Karteran.

e) Erasandako pertsonen parte-hartzea eta gizarte-boluntariorako jarduerak aurreikustea, elkarlaguntzako jardueren bidez, zerbitzuaren edo zentroaren hartzaile diren pertsona, familia eta/edo beharrianak artatzeko.

f) Zuzendaritzako organoetan emakumeak % 40tik gora izatea.

g) Familia- eta lan-bizitza uztartzera zuzendutako neurriak aplikatzea.

h) Ahalmen-urrituak lanean, legeek agintzen dutenetik harago, benetan integratzeko neurriak aplikatzea.

i) Ingurumena babesteko, zaintzeko eta berrezartzeko neurriak aplikatzea.

j) Kalitatea bermatzeko edo etengabe hobetzeko sistemak aplikatzea.

k) Lan-baldintzak hobetzera zuzendutako neurriak aplikatzea.

Lankidetzako esparru-hitzarmenei dagokionez, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan sartutako zerbitzuak kudeatzeko hitzarmenak egin daitezke irabazi asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeekin: *“Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek hitzarmenak ezar ditzakete irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeekin, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogoan sartutako prestazio eta zerbitzuen horniketarako; baldin eta, erakundearen jarduera edo dagokion prestazioa edo zerbitzua berezia, premiazkoa, berritzailea edo esperimentala izaki,*

itun-araubidea aplikatzea komeni ez bada, ituna nola arautu den aintzat hartuta, eta betiere hori behar bezala egiaztatzen bada”.

Lankidetzako esparru-akordioak egiteko aukera ere finkatzen da legean: *“Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek lankidetzako esparru-akordioak ezarri ahal izango dituzte irabazi-asmorik gabeko erakundeekin. Akordio horiek honako hauek jasoko dituzte: direla katalogoan sartutako zerbitzuak eskaintzeko erakundearekin ezartzen diren itun, hitzarmen edo kontratuak, direla katalogoan sartu gabeko gizarte-zerbitzuak eskaintzeko edo kasuan kasuko administrazio publikoak sustatzea egokituzat edo bidezkozat hartzen dituen beste jarduera batzuk egiteko erakunde horiekin izenpetzen diren lankidetzako hitzarmenak”.*

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoko zerbitzuen kudeaketa eta gizarte zerbitzuen eremuko erantzukizun publikoko beste jarduera batzuk eskaintzerakoan, zuzeneko kudeaketa aukeratzen ez dutenean, zerbitzuen zeharkako kudeaketara jo ahal izango dute. Horretarako kontuan hartuko da zerbitzuaren izaera berritzailea: *“Katalogoko zentro eta zerbitzuen zeharkako kudeaketa hori herri-administrazioen kontratuak arautzen dituzten araudietan zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuetarako aurreikusten diren xedapenetara egokitu behar da. Kontratu horiek kontratu-programen bidez formalizatuko dira”.*

Gainera, katalogoko zerbitzuak kudeatzeko kontratuak esleitzeko prozeduretan klausula sozialak, diskriminazio positiboko neurriak eta kontrataziorako beste irizpide batzuk erabiliko dira: *“Administrazio Publikoek, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoko zerbitzuak kudeatzeko kontratuak esleitzeko prozeduretan, gizarte-klausula batzuk erantsiko dituzte. Besteak beste, honi egingo diote erreferentzia klausulok: erakundearen aldetik arreta jarraituko eskakizuna betetzeari, zerbitzuaren izatasunaren arabera zehazten den denboran zehar, antzeko beharrianak dituzten pertsona, familia eta/edo taldeei, hau da, zerbitzuaren edo zentroaren hartzaile direnen antzeko beharrianak dituztenei arreta jarraitua, zerbitzu edo zentro horien kudeaketa esleitu nahi bada, eta bereziki aintzat hartuko da zerbitzua eman behar duen eremuan alde aurretik egon bada. Gizarte-klausula horiek esleipenerako eskakizuna izango dira, eta ez dira, inola ere, merezimendu soiltzat balioetsiko”.*

Hori dela eta, kontratuak finkatzeko garaian lehentasuna emango zaie irabazi asmorik gabeko erakundeei, beti ere eraginkortasuneko, kalitateko eta kostuko antzeko baldintzak betetzen badituzte: *“Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuak ezartzerakoan, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek lehentasuna emango diete, eraginkortasuneko, kalitateko eta kostuko baldintza antzekoak daudenean, irabazizko izaerarik ez duten gizarte-zerbitzuak eskaintzen diharduten erakundeei”.*

Era berean, erakunde horren forma juridikoa kontuan hartu gabe, diskriminazio positiboko neurriak martxan ipiniko dira, besteak beste, honako ezaugarri hauek biltzen dituzten erakundeen alde:

a) Jardueraren emaitza ekonomikoak kontratugai diren zerbitzu eta zentroen etengabeko hobekuntzara bideratzea.

b) Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazioen eta Zerbitzuen Karteran ezartzen diren ratioak hobetzea.

c) Zerbitzuaren eskaintzari edo zentroaren kudeaketari lotutako kostuak gutxitzen laguntzea, beste zerbitzu edo zentro batzuen erabilera konbinatuaren bidez.

d) Erasandako pertsonen parte-hartzea egituratzea, elkarlaguntzako jardueren eta gizarte-boluntariorantzako jardueren bidez.

e) Zuzendaritzako organoetan emakumeak % 40tik gora izatea”.

Bosgarren titulu horren II. kapituluaren berriz, irabazi asmorik gabeko gizarte ekimenari babes publikoa emango zaio Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan sartuta ez dauden prestazio eta zerbitzuak garatzeko eta gizarte zerbitzuen eremuko beste jarduera batzuk antolatzeke garaian: *“Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan sartuta ez dauden beste prestazio eta zerbitzuak eskuratzea sustatu eta/edo babestu ahal izango dute, bai eta gizarte-zerbitzuen eremuko beste jarduera batzuk egin daitezen sustatzea ere, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen plangintza*

estrategikoak ezarritako jardunbide orokorretara egokitzen badira eta irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeek garatzen badituzte, zein ere den horien forma juridikoa (elkarteak, fundazioak, gizarte-ekimeneko kooperatibak edo irabazi-asmorik gabeko beste erakunde batzuk)”.

Beste jarduera batzuren artean bereziki kontuan hartuko dira hurrengo prestazio eta zerbitzuak:

a) pertsonak artatzeko prestazio eta zerbitzu berriak martxan jartzearekin lotuta dauden jarduera berritzaile eta esperimentalak;

b) elkarte-sarea babesteko eta herritarren parte hartzea sustatzeko jarduerak;

c) plangintza hobetzera, zerbitzuen antolaketako eta arretaren eskaintzako kalitatea bermatzera eta hobetzera, eta praktika profesionalak hobetzera zuzenduta dauden ikerketa, garapen eta berrikuntzako jarduerak.

II. kapitulu horrekin jarraituz irabazi asmorik gabeko erakundeak gizarte-interesekotzat aitortuak izan daitezke, erregelamenduan finkatutako baldintzak betetzen badituzte: *“gizarte zerbitzuen eskaintzan diharduten irabazi-asmorik gabeko erakundeek, kasuan kasuko forma juridikoen berariazko legerian aurreikusitako baldintzetan herri-onurakotzat aitortuak izatearen kalterik gabe, gizarte-interesekotzat aitortuak ahal izango dira, erregelamendu bidez zehazten diren baldintzak biltzen dituztenean”.*

Eusko Jaurlaritzako gizarte zerbitzuen arloko eskumena duen sailari egokituko zaio gizarte-interesekotzat izendatzea eta izaera hori aitortu ondoren lehentasuna izango dute diru-laguntzak eta laguntzak jasotzerakoan, beti ere haien jardueretan eraginkortasuna eta kalitatea egiaztatzen badute: *“Gizarte-interesekotzat aitortutako erakundeek lehentasuna izango dute diru laguntzak eta laguntzak jasotzerakoan, baldin eta haien jardueretan eraginkortasuna eta kalitatea egiaztatzen badute”.*

Bosgarren titulu hori amaitzeko legeak elkar laguntzako eta gizarte-boluntariotzako antolakundeen aldeko hautua egiten du: *“Euskal Autonomia Erkidegoko herri-adminis-*

trazioek elkarlaguntzako antolakundeak eta gizarte-boluntariorako jarduerak sustatuko dituzte. Lege honen ondorioetarako, elkarlaguntzako antolakundetzat ulertuko dira irabazizko izaerarik ez duten erakundeak, baldin eta beren bazkideak, nagusiki, beharrianeko edo zailtasuneko egoera bati zuzenean aurre egiten dioten pertsonak eta/edo haien senitartekoak badira”.

Seigarren tituluan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren hobekuntza eta garapena lantzen da, eta sistema hori osatzen duten prestazioen, zerbitzuen, egitasmoen eta jardueren kalitatearen hobekuntza sustatzen du, hiru tresna funtsezkoen bidez, hala nola, Gizarte Zerbitzuen Euskal Autonomi Elkarteko Behatokia sortzea, gizarte zerbitzuei buruzko ikerketa sustatzea eta gizarte zerbitzuetako profesionalen prestakuntza etengabe hobetzea.

Legearen zazpigarren eta azken tituluan gizarte zerbitzuen ikuskapena eta aplikatzekoa den arau-hauste eta zigor-araubidea arautzen da. Azken horri dagokionez, zigor-jarduera ororen nahitaezko legezkotasun-printzipioa errespetatze aldera, Euskal Autonomia Erkidegoko ikuskapen-eginkizuna egiaz eraginkorra izateko modua emango duten arau-hausteen eta zigor koadroa ezartzen da, eta, aldi berean, segurtasun juridikoari eusten zaio.

2008ko gizarte zerbitzuen legeak aurkezten duen katalogoa osatzeko 2015an Dekretu⁸⁰ berri bat onartzen da, Gizarte Zerbitzuen Euskal Autonomia Erkidegoko prestazioen eta zorroari buruzkoa. Bertan, alde batetik, finkatzen dira zerbitzuen ezaugarriak, modalitateak, helburuak eta zerbitzu horiek jasotzeko eta kentzeko baldintzak eta, bestetik, prestazio ekonomikoen deitura, helburuak, zenbatekoa eta prestazio ekonomiko hori jasotzeko eta kentzeko baldintzak.

5.4 Gipuzkoako gizarte zerbitzuen ereduaren ezaugarri nagusiak

Goian aipatutako testuak aztertu ondoren zenbait ondorio atera daitezke. Menpekotasunari lotutako zerbitzuak eta prestazioak izaera subjektiboa daukate. Estatu Espainoleko legeak daukan helburua menpekotasunaren gainean arduratuko den zerbitzu profesionalen sektore bat sortzea da, kontuan hartuz senideentzat ematen diren ez profesionalentzako prestazio

⁸⁰ 185/2015 DEKRETUA, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Autonomi Elkarteko Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa.

ekonomikoak salbuesenezkoak izan behar dutela. Gainera, Estatu Espainoleko legeak gobernu autonomoen finantzaketa nahikoa aurreikusten du mendekotasunaren kostuei aurre egiteko. Hala ere, 2012tik aurrera Estatu Espainoleko menpekotasunaren finantzaketa saiakera murriztua izan da Estatuko aurrekontuak krisiarengatik asko murriztu direlako. Euskal Autonomi Erkidegoko gizarte zerbitzuen legeak, berriz, mendekotasunari aurre egiteko zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak antolatzen ditu. Horien artean, Lehen Mailako eta Bigarren Mailako arreta-zerbitzuak ditugu. Administrazio bakoitzak jokatu behar duen eginkizun zehatza ere gizarte zerbitzuen lege horretan finkatzen da. Hala nola, irizpide orokor bezala Lehen Mailako arreta-zerbitzuen finantzaketa udalen eskuetan gelditzen da eta Bigarren Mailako arreta-zerbitzuen foro aldundien ardura da. Dena dela, zerbitzuen eta prestazioen modalitate desberdinak eta zenbateko zehatzak 2015ean onartutako prestazioen eta zorroari buruzko dekretu baten bitartez gauzatuko dira. Mendekotasunaren lege estatalak eta autonomikoak azpimarratzen dute gizarte zerbitzuen alorrean hirugarren sektoreko aktoreen ekarpenak garrantzitsuak direla. Baita ere, lege horiek azpimarratzen dute gizarte- eta osasun-zerbitzuen arteko koordinazioak daukan garrantzia.

Gallego eta al.-ek (2003) egindako analisiaren arabera ikusten da Estatu mailan gizarte zerbitzuen ardura bereziki familia eta merkatuko eragileen artean banatzen dela, sektore publikoaren esku-hartze eskasak lagunduta. Euskal Autonomia Erkidegoa, berriz, Gobernu Zentralaren eredu horretatik aldendu egiten da eta ekimen publikoari merkatuari baino pisu handiagoa ematen dio. Autore horiek ondorioztatzen dute Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen antolaketa zerbitzu publikoaren eta gizarte-sareen eskuetan gelditzen dela. Aitu horien arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko azken urteetako gizarte politiken bereizgarri nagusienak sektore publikoaren hazkunde sostengatua eta elkarteen arteko sare zabal baten osaketa izan dira. Ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoko eredu bi joera desberdinen bateratzeetik sortuko da. Alde batetik, ezaguna da bertan dagoen tradizio publiko eta komunitario indartsua eta bestetik, gizarte zerbitzuetan erakunde pribatu eta informalen presentzia nabarmentzen da.

Etxezarreta, Zurbano eta Bakaikoaren (2012) arabera Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuek eredu mistoa islatzen dute. Alde batetik, hirugarren sektore sendo baten

presentzia nabaria da eta bestetik, zerbitzu publikoaren iraunkortasunaren inguruko eztabaidak agertzen dira. Hirugarren sektoreak, sektore publikoaren esku hartzearen aurretik hor zegoela ikusita, zerbitzua emateko garaian zenbait abantaila ditu ezagutza eta kualifikazio maila handia duelako. Hori dela eta, eredu mistoaren abantaila logikazko funtzioaren arabera banaketa batean oinarritzen da. Elkarre bakoitza espezializatuko da hobekien egiten dakien horretan. Hala ere, eredu misto horrek zenbait arazo ekartzen dio sektore publikoari, bereziki, zeharkako kudeaketak sektore publikoaren ahalmena eta kontrola ahuldu egiten duelako. Kontuan hartu behar da Euskal Autonomia Erkidegoko ereduaren Administrazioa dela zerbitzuen funtsezko arduraduna. Dena dela, eredu misto hori ez da berdina aplikatzen Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historiko desberdinetan. Etxezarreta eta al.-en (2011) arabera Arabako probintzian gizarte zerbitzuetan sektore publikoaren esku hartzea nagusitu egiten da. Bizkaian berriz, sektore pribatuak eta hirugarren sektoreak pisu nabarmena dute eta azkenik Gipuzkoan kontzertatutako antolaketa batean oinarritzen da eta bertan batzuetan esku hartze publikoa zuzenean gauzatzen da eta beste batzuetan merkataritza sektorearen eta hirugarren sektorearen bitartez burutzen da.

6 KAPITULUA: LANDA AZTERKETAREN METODOLOGIA. GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO GIZARTE ZERBITZUEN GOBERNANTZARI BURUZKO DELPHI AZTERKETA

6.1 Delphi metodoaren hausnarketa teoriko orokorra

Goian aipatu den moduan Delphi metodoa erabili da Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamenduak gizarte zerbitzuak antolatzeko garaian Berrikuntza Sozial Eraldatzailea erabiltzen duen jakiteko, bereziki hirugarren sektorea/ekonomia soziala eta kooperatibak era aktiboan bultzatuz. Landa azterketa hori egin genuen momentuan, 2014 urteko martxoan, Bildu koalizioak Gipuzkoako Foru Aldundia eta bide batez Gizarte Politikako Departamentua gobernatzen zuenean, gogo berezi bat zegoen sail horretan gobernantza eredu eztabaidatzeko, bereziki hirugarren sektorea/ekonomia sozialaren eta kooperatibizazioaren ekarpena aztertzeko.

Ikerketa hori aurrera eramateko Delphi metodoa erabili dugu. Teknika honen bitartez lortutako informazio subjektiboarekin eredu matematiko bat elikatu dezaketen datuak lortu dira. Bereziki datu objektibo horiek inkesta prozesu baten bitartez eskuratu dira.

Informazio subjektibo hori, norbanakoen edo taldeen sinesmen, itxaropen edo iritzietatik ateratakoa, informazio objektiboaren informazio iturri alternatiboa edo osagarria izan daiteke. Askotan, gainera, lortu edo erabil daitekeen bakarra izaten da.

Teknika horren justifikazioa zientzia aplikatuek gidatzen duten espirituan oinarritzen da. Zientzia horien helburua gizarte osoarentzat tresna eraginkorrak izatea da eta gure kasu zehatzean, berriz, Gipuzkoako Foru Aldundia bezalako erabakitzaile publiko baten erabilgarritasun praktikoa igotzea da, beren erabakiak hartzeko ekimenen geroz eta handiagoa den ziurgabetasuna gutxituz.

Informazio mota horretan oinarritutako ereduak eta teknikak helburu erreferentzial horren bitartez gidatuta daude, eta baliagarriak kontsideratu behar dira beti ere bere emaitzek gabeziak baino erabilgarritasun handiagoa ematen badiote erabakitzaileari.

Informazio subjektiboa erabiltzeak, adituen juizioaren bitartez, ez du esan nahi metodologia zientifikoa ez dela erabili. Metodologiak zientifikoa izaten jarraituko du baino ez hain era murriztailean. Informazioa era sistematikoan eta arrazoituan azalduko duten teknikak erabili dira, eraginkortasuna eta ahal den objektibitate maila handiena bermatuz. Horretarako, zehazki, hiru esparruetan eragin behar da (Helmer, 1983, 58 orr.):

(1) Ikerketa zehatzarentzat informazio iturri egokienak aukeratuz (adituak), horiek aukeratzeko irizpide argiak finkatuz.

(2) Adituaren aktibitatearen betebeharrak eraginkorrak izaten lagundu, bereziki, ondo zehaztuz zertarako nahi den bere presentzia, behar duen informazio guztia helaraziz eta beste adituekin hartu emana erraztuz.

(3) Lortutako informazioa kalitate handikoa dela bermatuko duen metodologia finkatu.

Eszenatoki horretan kokatzen da informazio subjektiboan oinarritutako taldeko erabaki eta aurreikuspenen tekniken agerpena eta bizi iraupena.

Delphi metodoa teknika multzo horien barruan kokatzen da, aditu talde batetik abiatuta talde iritzi sinesgarri bat lortzeko giza ikerketarako teknika bat delako. Pertsona talde batean komunikazioa egituratzeko metodo bat da, gai korapilatsu bat konpontzeko ekarpen probetxugarriak egin dezakeena. 50eko hamarkadan sortu zen helburu militarrei erantzuteko eta 60ko hamarkadatik hona esparru akademikoan eta enpresa munduan erabilia izan da. Bereziki aplikatu da aurreikuspen eta kontsentsuko teknika bat bezala zihurtasunik gabeko egoeretan, informazio objektiboetan oinarritzen diren beste teknika batzuk erabiltzerik ez dagoenean. Bere ezaugarri nagusiak hauexek dira:

(1) Iterazio-metodo bat da. Gutxienez, adituak bi aldiz kontsultatuak izan behar dira galdera berdinari buruz. Era horretara bigarren aldiz pentsa dezakete erantzuna beste adituen iritzietatik jaso duten informazioa aztertu ondoren.

(2) Parte hartzaileen anonimatua gordetzen da, edo gutxienez euren erantzunena, horiek zuzenean koordinatzailearengana doazelako. Horrek ahalbidetzen du lan prozesu bat

antolatzea tokian eta denboran bat egiten ez duten aditu talde baten barruan. Gainera, metodo horrek bilatzen du eragin negatiboak saihestea.

(3) Feedback kontrolatua. Adituen arteko informazio trukaketa ez da librea, ikerketako koordinatzailearen bitartez egiten da. Era horretan baztertu egiten da garrantzitsua ez den informazioa.

(4) Taldeko erantzun estatistikoa. Iritzi guztiak azken erantzunaren parte dira. Galderak eginda dauden moduan aukera ematen du erantzunen tratamendu kuantitatiboa eta estatistikoa bideratzeko.

Koordinatzaileak Delphi teknika eta inkestaren nondik norakoak ezagutu behar ditu, metodo hori era zuzenean aplikatzeko eta aditu taldearen iritzia eta ekarpenak ondo jasotzeko. Metodoaren ardatz nagusia adituen taldea edo panela da. Talde hori informazioa eskaintzen duena da. Gero, informazio hori, iterazio, interakzio eta agregazio prozesuak jaso ondoren, taldearen iritzia bihurtuko da, ikerketaren outputa osatuz. Delphi metodoak, 50eko hamarkadan jaio zenetik, etapa desberdinak igaro ditu. Sekretismoan oinarritutako lehen etapa militar bat pasa eta egokipen desberdinak jaso ondoren gaur egungo erabilera jarraituko fasera iritsi da.

Teknika horren erabilera soziala eta bere ekarpen metodologikoak bizirik dira eta zenbait kasuetan positiboki konpara daiteke jardura esparru berdineko teknikekin (aurrez aurreko taldeak, talde nominalak, brainstorminga). Horregatik teknika hori erabil daiteke arrazionalki horretarako baldintza egokiak ematen direnean (Landeta, 1999, 5. Kap.). Ez hori bakarrik. Esan daiteke teknika horrek gaurkotasuna eta erabilera berreskuratu duela bere ezaugarriek (Dalkey eta Helmer, 1963) gaur egungo egoerarako bereziki egokia bihurtzen dutelako. Hain zuzen ere, zalantzazko egoeratan aurreikuspen edo erabaki prozesu bat martxan ipintzen denean, pertsona/aditu kopuru handi baten ezagupena, informazioa eta sena edukitzeko aukera izateak, era egituratu eta sistematizatu batean elkar arituz, toki eta momentu desberdinetan, elkar topo egin gabe, gaur egun orain dela zenbait hamarkada baino beharrezkoagoa da.

Aldaketen abiadurak eta informazio teknologien garapenak eta zabalkunde izugarriak teknika honen gaurkotasuna indartzeko balio izan du. Arrazoi horrengatik, informazio teknologien garapen azkar horrek ahalbidetu dezake Delphi teknika hau gehiago erabiltzea, aplikazioaren iraupena nabarmenki laburtuz eta partaideen arteko informazio trukaketa eta feedbacka erraztuz.

Goian aipatutako aurrekariak kontuan hartuta, ikerketa horretan honako bi proposamen hauek baieztatu nahi dira:

(1) Delphi metodoa informazioa lortzeko teknika bat da eta, gainera, metodo honen garrantzia handitu egiten da ingurune ez-ziurretan. Esan den moduan, testuinguru horretan informazioa lortzeko aukerak gutxitu egiten dira eta teknika horrek balore erlatibo handiagoa hartzen du.

(2) Informazio teknologiek laburtu egin dezakete Delphi prozesu baten iraupena eta, era berean, kalitatea hobetu. Egin den ikerketa horretan adituekin elkarreragina sustatzeko posta elektronikoaren erabilerak erdiko eta azken emaitzen abiadura eta kontrola handitu egin du. Aldi berean, aukeratutako adituen benetako parte hartzea ere igo egin da. Era horretan gaingitu egin dira ikerketa mota horietan posta erabilia sortzen diren ohiko arazoak, bereziki, informazioa lortzeko eta tratatzeko prozesuak oso geldoak bihurtzen direlako.

6.2 Delphi metodoaren lan enpiriko zehatzari egokipena

Delphi metodo hori oinarri bezala hartuta, ikerketa zehatza burutzeko, zenbait egokipen egin zaizkio ahalik eta etekin handiena ateratzeko. Azken finean, Delphi hibrido bat erabili da, oinarrizko teknika horri aberasgarriak izango diren beste ikerketa tresna batzuk gehituz.

6.2.1 Focus Group

Ikerketa ondo bideratzeko eta Delphi metodoari ahalik eta zuku handiena ateratzeko garrantzi handikoa izan zen 2014ko urtarrilaren 15ean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Txara eraikineko gizarte-zerbitzuetako bulegoetan burutu zen bi orduko aurretiko bilera informal hori. Bertan, besteak beste, honako hauek parte hartu zuten:

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetako Departamentua

- .- Gizarte Plangintzako, Inbertsioetako eta Prestazio Ekonomikoetako Zuzendari Nagusia.
- .- Ezinduen eta Desgaituen Laguntzako Zuzendari Nagusia.
- .- Haurren Babeseko eta Gizarteratzeko Zuzendari Nagusia.
- .- Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako Zuzendari Nagusia.
- .- Departamentuko Prentsa Arduraduna.
- .- Gizarte Politikako Departamentuko Aholkularia (1).
- .- Gizarte Politikako Departamentuko Aholkularia (2).
- .- Alternatiba alderdi politikoko gizartekintza batzordeko Partaidea.

Agintzari Gizarte Ekimeneko Kooperatiba

- .- Agintzari kooperatibako Kudeatzailea.
- .- Agintzari kooperatibako Lankidea (1).
- .- Agintzari kooperatibako Lankidea (2).
- .- Agintzari kooperatibako Lankidea (3).

GEZKI

- .- Euskal Kooperatiben Goren Kontseiluko Letradua.
- .- EHU-UPVko Irakaslea.
- .- EHU-UPVko Gizarte Ekonomia eta Ekonomia Solidarioko Masterreko Ikaslea (1).
- .- EHU-UPVko Gizarte Ekonomia eta Ekonomia Solidarioko Masterreko Ikaslea (2).

Bertatik ikerketa diseinatzeko informazio asko eta ona jaso zen. Focus Group hori oso baliagarria izan zen ikerketa zentratzeko eta gizarte zerbitzuetan hirugarren sektorea/ekonomia soziala eta kooperatibizazioa garatzeko jokoan zeuden aldagai nagusiak identifikatzeko. Gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiko gizarte zerbitzuetako arduradun nagusiek ezagutzeko parada izan genuen eta bide batez adituak hautatzeko aukera eduki genuen.

Aipatzekoa da ere Ikerketa-lan hori martxan ipintzeko Gipuzkoako Foru Aldundiko gizarte politikarako arduradunen jarrera positiboarekin aurkitu ginela. Hain zuzen ere, pertsona horiek interes berezia agertu zuten gizarte zerbitzuen politika publikoak ezaugarritu eta hirugarren sektorea/ekonomia sozialaren eta kooperatibizazioaren aldeko apustua

eztabaidatzeko eta aztertzeko. Zalantzarik gabe, gogo berezi bat zegoen gizarte politiken departamentuan administrazioaren gestioan parte hartzea eta demokrazia nola bultzatu aztertzeko. Helburu horiek lortzeko, hausnartu nahi zuten ea hirugarren sektorea/ekonomia sozialaren eta kooperatibizazioaren ekarpena egokia zen lankidetzan oinarritutako gobernantza eredua praktikara eramateko.

Bestalde, ikerketa horretan Agintzari Gizarte Ekimeneko Kooperatibak, interes handia agertu zuen beren urte luzeetako esperientzia mahai ganean jartzeko eta Gipuzkoako Foru Aldundiko gizarte politika departamentuarekin gizarte zerbitzuen politika publikoen inguruan eztabaida burutzeko (Agintzari, 2013). Kontuan hartu behar da Agintzari Kooperatibak garai horretan martxan ipini zuen Zabalduz Kooperatiba Donostiako Loiola auzoko haurren babeserako UBA zentroa gestionatzen ari zela eta interesatuta zegoela bere jarduera Gipuzkoako gizarte zerbitzu desberdinetara zabaltzeko.

Aldi berean, GEZKI/EHU-UPV Institutuko zenbait kide ere eztabaida-prozesu horretan prest agertu ziren euren aholkua emateko eta, bide batez, euren esperientzia eta ezagupena Gipuzkoako Foru Aldundiko gizarte zerbitzuetako arduradunekin partekatzeko. Santi Merinok, Euskal Kooperatiben Goren Kontseiluko Letraduak, oso ondo ezagutzen du kooperatiben mundua eta hori dela eta, bere ekarpena aurkeztu zuen GFako Txara eraikinean burutako mintegian (Merino, 2014). Enekoitz Etxezarretak, EHU-UPVko irakasleak berriz, bere ikerketetan ateratako ondorioak plazaratu zituen mintegi berdinean (Etxezarreta, 2014). Azken finean, agente desberdin horien arteko sinergia positiboak oso emankorrak izan ziren Focus Group hori osatzeko eta ikerketa ondo diseinatzeko.

6.2.2 Adituak aukeratu

Adituek Delphi metodoaren bizkar hezurra osatzen dute. Eurek finkatutako irizpideen ganean eraikiko da teknika horren outputa. Horregatik garrantzi handia dauka aditu horiek ondo aukeratuak izatea. Gipuzkoako Foru Aldundiko gizarte politika departamenduak gizarte zerbitzuen gobernantza eta kooperatibizazioari buruz zer pentsatzen duen aztertzeko logikoena da departamentu horretan ardurak eta ezagupena duten pertsonengan jotzea. Aditua izateko lehenbiziko baldintza da gaiari buruzko ezagupen maila edukitzea.

Profil politikoa

Alde batetik, adituak izateko Gizarte Politikako Departamentuan ardurak zituztenak eta bide batez erabaki politikoak hartzeko ahalmena zutenak aukeratu ziren. Dударik gabe, gizarte zerbitzuen gobernantza prozesuari buruz hitz egiteko ez da nahikoa gaia ezagutzea. Horrekin batera garrantzitsua da ahalmen politikoa edukitzea erabakiak hartzeko. Gainera, auzi horretan asko daukate esateko ez bakarrik Departamentuko arduradun politikoei eta aholkulariei baita ere ikerketa egin zen garaian Gipuzkoako Foru Aldundia gobernatzen zuten hiru alderdi politikoetako (Alternatiba, Ezker Abertzalea eta Eusko Alkartasuna) arduradun sozioekonomikoei. Azken horien iritziak garrantzitsuak dira instituzioetan eraman behar diren ildo sozioekonomikoetan pisua dutelako. Hau dela eta, profil politiko horren barruan honako aditu hauek aukeratu ziren:

- 1.- Gizarte-Politikako Departamentuko Diputatu Nagusia.
- 2.- Ezinduen eta Desgaituen Laguntzako Zuzendari Nagusia.
- 3.- Plangintzako, Inbertsioetako eta Prestazio Ekonomikoetako Zuzendari Nagusia.
- 4.- Haurren Babeseko eta Gizarteratzeko Zuzendari Nagusia.
- 5.- Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako Zuzendari Nagusia.
- 6.- Gizarte Politikako Departamentuko Aholkularia.
- 7.- Gizarte Politikako Departamentuko Aholkularia.
- 8.- Eusko Alkartasuna alderdiko kidea eta Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuko Diputatu.
- 9.- Alternatiba alderdiko Gizartekintza Batzordeko kidea eta Bizkaiko Batzar Nagusietako Batzarkidea.
- 10.- Ezker Abertzaleko arlo sozioekonomikoko Kidea.
- 11.- Ezker Abertzaleko kidea eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatu Nagusiaren Kabinete burua.

Profil teknikoa

Adituen multzoan, profil politikoa duten arduradunekin batera izaera teknikoa eta egonkorra dutenak bildu nahi izan dira. Hain zuzen ere, Gizarte Politika Departamentuko bost

zuzendaritzetako zerbitzuburuak aukeratu ziren. Horiek GFAko gizarte zerbitzuen arloari buruzko esperientzia eta ezagupen handia eskaini zezaketen. Urte asko daramate Departamenduko barneko gestioa eramaten eta pertsona kualifikatuak dira gizarte zerbitzuen gobernantzari buruz hitz egiteko:

12.- Ezinduen eta Desgaituen Laguntzako Zerbitzuburua.

13.- Plangintzako, Ituneko eta Prestazio Ekonomikoetako Zerbitzuburua.

14.- Ikuskapeneko, Inbertsioetako eta Gizarte Ekimeneko Zerbitzuburua.

15.- Haurren eta Nerabeen Babeseko Zerbitzuburua.

16.- Gizarteratzeko, Indarkeria Matxistaren Emakume Biktimen Laguntzako eta Gizarte Larrialdietako Zerbitzuburua.

6.2.3 Galdetegia prestatu

Galdetegia prestatzerakoan kontuan hartu dira honako ezaugarriak:

(1) Galdera kopurua 27ra mugatu da. Kopuru egokia da adituak galdetegian buru belarri zentratzeko, atentzia mantentzeko eta kontzentrazioaren intentsitatea ez galtzeko.

(2) Galderak 6 gai-multzoetan banatu dira. Galdetegia 6 gai-multzo nagusietan banatu ditugu ikerketaren azterketa errazteko eta ondorioak 6 gai nagusi hauen inguruan ateratzeko:

a.-Eredu egokiena gizarte zerbitzuak emateko: publikoa, kontzertatua, pribatua.

b.-Administrazioak gizarte zerbitzu publikoak diseinatzeko garaian eragile sozialak kontuan hartzen dituen edo ez.

c.-Administrazioak gizarte zerbitzu publikoak emateko garaian eredurik egokiena zein den: kontzertazioa, kontratazioa, hitzarmena.

d.-Hirugarren sektorea eta kooperatibak.

e.-Kooperatibizazio prozesua: Publikotasuna zabaldu edo pribatizazioari ateak ireki.

f.-Adituak gehitu nahiko lukeena.

(3) Galdera motak. Galdetegian zehar galdera kualitatiboak eta itxiak diseinatu ditugu, beti ere, kuantifikatzeko aukerarekin. Erantzun horiek kuantifikatzeko 1etik 5erako Likert eskala erabili da (1,2,3,4,5). Bertan erdiko balioa 3 izango da, desadostasuna 1 eta 2 eta adostasuna 4 eta 5. Horrela egiteak aukera ematen du batez bestekoak, desbideratze tipikoak eta kuartilak aztertze.

Gainera, galdera argiak eta zehatzak prestatu dira, ikerketaren muinari helduz eta hizkuntza maila adituen kolektiboari egokitzuz. Azkenik, gai-multzo bakoitza galdera ireki batekin amaitu da aditu bakoitzak aukera eduki dezan atal horri buruzko iruzkinak eta ekarpenak egiteko. Galdetegi diseinu honekin lortzen da azterketa kuantitatiboa azterketa kualitatiboarekin lotzea eta, bide batez, ikertzailearen hautemateak gehitzea.

6.2.4 Bi txandako Delphi prozesua finkatu

Delphi metodoa burutzeko bi inkesta-txanda erabili dira. Gainera, bigarren inkesta betetzerakoan adituek dagoeneko ezagutzen zituzten lehenengo txandan aditu horiek emandako batez besteko erantzunak. Feedback hau nahikoa izan da aditu-multzoaren iritziak gerturatzen joateko eta adostasunetara iristeko.

6.2.5 Politikoen eta teknikoen emaitzak bakoitzak bere aldetik ere aztertu

Delphi metodotik lortutako bigarren inkesta-txandako aldagai guztien datuak ere bi azpimultzotan aztertu dira iragazki bat ipini ondoren. Alde batetik politikoen emaitzak aztertu dira eta bestetik teknikoenak eta ahal izan den heinean biren arteko emaitzak alderatu dira. Hain zuzen ere, Delphi metodoa martxan ipini aurretik antolatu zen Focus Groupean argi geratu zen aditu taldean politikoak eta teknikoak bi azpimultzo zeharo desberdinduak osatzen zutela eta horren ondorioz gure ikerketarako oso baliagarria zela azpimultzo bakoitzeko emaitzak bere aldetik aztertzea. Goian aipatu den moduan Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politika Departamenduak zer pentsatzen duen gizarte zerbitzuen gobernantza eta kooperatibizazioari buruz aztertze jo da Gipuzkoako Foru Aldundian eta Departamentu horretan ardurak eta ezagupena duten adituengana. Bertan, ondo finkatutako bi blokeekin aurkitu gara. Alde batetik, profil politikoa dutenak eta bide batez erabaki politikoak hartzeko ahalmena dutenak. Horiek, gainera, lau urtero aukeratuak

izaten dira eta gehienetan ardura ezegonkorra dute. Bestetik, berriz, profil teknikoa eta egonkorra dutenak. Horiek Gipuzkoako Foru Aldundiko gizarte zerbitzuen arloari buruzko eskarmentu eta ezagupen handia daukate. Urte asko daramate Departamentuaren barneko gestioan eta euren iritziek pisu handia dute erabakiak hartzeko momentuan.

6.2.6 Emaizten kalitatea baloratu

Aditu-taldearen kalitatea

Aditu taldea aukeratzeko garaian kontuan eduki da zeintzuk diren Gizarte Politikako Departamentuan, gizarte zerbitzuen gobernantza, hirugarren sektorea/ekonomia soziala eta kooperatibizazioari buruz, jakinduria eta erabakitzeko ahalmena duten pertsonak. Zalantzarik gabe, adituen multzoa osatzeko lortu den panelak sinesgarritasun handia ematen dio ikerketaren emaitzari. Jakinduria politikoaren ikuspegitik lortu dira biltzea Departamenduko Diputatua, lau zuzendari nagusiak eta departamenduko bi aholkulari garrantzitsuak. Atal politikoaren ikuspegia indartu da garai horretan Gipuzkoako Foru Aldundia gobernatzen zuten hiru alderdi politikoetako arduradun sozioekonomikoak aditu-taldera txertatuz. Ikuspegi teknikotik, berriz, Gizarte Politika Departamentuko bost zerbitzuburuak aukeratu dira, horiek bai dute eskarmentu handia gizarte zerbitzuak gestionatzeko garaian. Bestalde, zerbitzuburu horiek gizarte zerbitzuen bilakaera historikoari buruz eta etorkizunean hartu beharreko bidearen aurrean ezagupen handia daukate. Gainera, nahiz eta adituen profilak (politikoak, teknikoak) desberdinak izan denek lan egiten zuten espazio berdinean eta elkar ulertzea ezinbestekoa zen etorkizunari begirako erabaki egokienak hartzeko. Guztira, aditu kopurua 16ra mugatu da. Kantitate horrek aise gainditzen du Delphi metodoa eraginkorra izateko markatuta dagoen gutxieneko zazpiko kopurua (Landeta, 1999, 60 orr.).

Aditu-taldearen egonkortasuna

Adituen egonkortasuna ezin hobea izan da hasieratik bukaeraraino. Hamasei aditu aukeratu bagenituen ere hamahiruk hasi zuten inkesta prozesua eta hamahiru adituen multzo hori mantendu da egonkor amaiera arte inolako ordezkapenik egin gabe. Aipatu den moduan, arrazoi desberdinengatik, hiru bakarrik gelditu dira inkesta prozesua hasi gabe:

- 1.- Plangintzako, Inbertsioetako eta Prestazio Ekonomikoetako Zuzendari Nagusia.
- 2.- Eusko Alkartasuna alderdiko kidea eta Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuko Diputatua.
- 3.- Ezker Abertzaleko kidea eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatu Nagusiaren Kabinete burua.

Prozesuaren iraupena

Txanda bakoitzaren iraupena beste adierazle bat izaten da Delphi metodoaren kalitatea neurtzeko. Inkesta-txanda bakoitza erantzuteko denbora ez da komeni gehiegi luzatzea. Aldi berean, txanda batetik bestera igarotzen den denbora ere laburra izatea garrantzitsua da. Epe hauek gehiegi luzatzen badira metodologiak indarra galtzen du eta mota horretako hausnarketak eskatzen duen arreta adituen aldetik gutxitu egiten da.

6.2.6.1 Taula: Delphi prozesuaren iraupena

	HASIERAKO DATA	AMAIERAKO DATA	EGUNAK GUZTIRA
I. INKESTA-TXANDA	2014-03-05	2014-03-14	10
Inkesten arteko Tartea	2014-03-15	2014-03-17	3
II. INKESTA-TXANDA	2014-03-18	2014-03-25	8
GUZTIRA	2014-03-05	2014-03-25	21

Iturria: Geuk egina (2014)

Kasu honetan prozesu osoa 2014ko martxoaren 3an hasi zen aditu guztiei inkesta prozesuaren aurkezpen eskutitza bidaliz (1. eranskina eta 2. eranskina). Handik bi egunetara, martxoaren 5ean, ireki zen I. inkesta-txanda erantzuteko epea, martxoaren 14ean amaituz. Lehen erronda horretan lortutako emaitza partzialak estatistikoki aztertu eta ondorio nagusiak atera ondoren martxoaren 18an hasiera eman zitzaion II. inkesta-txandari bigarren erronda hau martxoaren 25ean amaituz. Ondorioz, bi errondak burutzeko guztira 18 egun erabili dira. Tartean, erronda batetik bestera igarotako denbora, 3 egunekoa izan da. Hau da, prozesu osoa burutzeko hilabete bat baino denbora gutxiago erabili da, metodo horrek eskatzen dituen gutxieneko denbora baldintzak aise gaindituz.

Iritzien adostasuna eta egonkortasuna

Delphi metodoa martxan ipini zenetik kontuan hartu den irizpidea prozesuari amaiera emateko adituen artean *adostasuna* lortzea izan da. Hau dela eta, erronda bat baino gehiago eginda eta feedback kontrolatuaren bitartez (beste adituen ekarpenak eta arrazoibideak ezagutu ondoren) iritzia hurbiltzea da metodo honen helburuetako bat (Landeta, 1999, 90 orr.).

Dena dela, jokamolde honek badu ere arrisku bat, hau da, adituak gehiegi bultzatu ezker adostasuna lortzera, kontsentsuaren izenean azpitaldeetako korranteak eta irizpide kontrajarriak baliogabetuta gera daitezke. Horrek esan nahi du kontsentsura iritsi nahi ez duten erantzunak atentzio bereziarekin ikertu beharko direla ez bada nahi adostasunaren izenean informazioa galdu. Horregatik, arrisku hau gainditzeko eta helburu eta aplikazio berriei erantzuteko irizpide berri bat sartuko da Delphi metodoaren arrakasta neurtzeko: *estimazioen egonkortasuna*. Irizpide hori dela medio, prozesua amaitutzat emango da adituen iritzia egonkortu direla ikusten dugunean (Landeta, 1999, 90 orr.).

Goian aipatu ditugun irizpide horiekin aztertzen baditugu lan honetan ikertutako 23 aldagai kualitatiboak, 12 kasuetan esan dezakegu adostasun hurbilketa bat eman dela, hain zuzen ere, horietan desbideratze tipikoak lehen txandatik bigarrenera gutxitu egin direlako. Beste, 11 aldagaien kasuetan, nahiz eta kasu gehienetan txikiak izan, urrunketa prozesuak eman dira. Dena dela, zazpigarren kapituluaren banan bana aztertuko dira aldagai bakoitzaren gerturatze edo urruntze mailak eta kontsentsuaren edo estimazioaren egonkortasunaren inguruan ondorio orokorragoak edo zehatzagoak aterako dira.

6.2.6.2 Taula: Gerturatze maila aldagai kuantitatiboetan

DESBIDERATZE TIPIKOAREN BILAKAERA TXANDA BATETIK BESTERA				
ZBK	ALDAGAI KUANTITATIBOAK	I.TXANDA	II.TXANDA	ALDEA
2	Eredu publiko soila eredu egokiena	1,215	1,251	-0,036
3	Eredu kontzertatua eredu egokiena	1,382	1,414	-0,032
4	Eredu pribatu soila eredu egokiena	0,599	0,555	0,044
6	Diseinuan, 3. sektorea era informatiboan bakarrik	0,506	1,155	-0,649
7	Diseinuan, 3. sektorea era kontsultiboan bakarrik	1,377	1,235	0,142
8	Diseinuan, 3. sektorea modu partekatuan	1,05	1,032	0,018
10	Ematerako garaian, kontzertazioa	1,215	0,718	0,497
11	Ematerako garaian, kontratazioa	0,793	0,669	0,124
12	Ematerako garaian, hitzarmena	1,084	0,793	0,291
14	Ematerako garaian, 3. sektorea positiboki driskriminatu	1,166	1,182	-0,016
15	Klausula sozialak garrantzitsuak	0,689	1,038	-0,349
16	Bereziki kooperatibak diskriminatu behar direla	1,303	1,261	0,042
18	Kooperatibizazioa espazio publikoa zabaltzeko	1,311	1,267	0,044
19	Kooperatibizazioa erantzukizun publikoa indartu	0,996	1,084	-0,088
20	kooperatibizazioa erantzukizuna pribatizatzeko bidea	1,166	1,288	-0,122
21	kooperatibizazioa helburu integrala	1,084	1,316	-0,232
22	Kooperatibizazioa aldi baterako helburua	1,165	1,214	-0,049
23	Kooperatibizazioa arazo puntualei bakarrik aurre egiteko	1,215	1,182	0,033
24	Kooperatibizazioa inolaz ere aukera bat	1,325	1,463	-0,138
25.1	Kooperatiba arrunta	1,05	0,718	0,332
25.2	Onura Publikoko kooperatiba	1,109	1,079	0,03
25.3	Gizartearen Intereserako Kooperatiba	0,641	1,044	-0,403
25.4	Kooperatiba Mistoa	1,506	1,231	0,275

Iturria: Geuk egina (2014)

Adituen balorazio positiboa itzultze-bilera egiterakoan

Datuak prozesatu ondoren azken urratsa da prozesuan parte hartu zuten adituekin eta interesatuekin emaitza horiek partekatzea eta euren balorazioa jasotzea. Azken urrats horrek seriotasuna ematen dio metodologia guztiari, bereziki kontuan hartzen bada ikerketa hau aurrera eramatea posible izan dela pertsona-aditu batzuen lan desinteresatuarengatik. Aldi berean, kontraste horrek informazio asko eskuratzeko parada ematen du eta momentu egokia izaten da emaitzak egiaztatzeko eta egon daitekeen edozein desbiderapen zuzentzeko.

Gainera komeni izaten da itzultze-bilera horiek konfiantzazko giroan egitea adituek lasai hitz

egiteko eta bide batez ahalik eta etekin handienak lortzeko. Horregatik erabaki zen bi mintegi desberdin egitea. Bata politikoekin eta bestea teknikoekin. Gero, agenda arazoak zirela medio, hiru bilera egin behar izan ziren. Bertan parte hartu zuten adituei ikerketaren aurretiko datuak aurkeztu eta gero ondorioak hausnartzeko parada eman zitzaien:

1. Bilera:

Data: 2014ko abenduaren 11.

Tokia: GFAko Gizarte Politikako Txara eraikinean, Intxaurren, Donostia.

Ordua: goizeko 10.00etan.

Iraupena: ordu bat.

Partaideak:

.- Hurren eta Nerabeen Babeseko Zerbitzburua.

2. Bilera:

Data: 2014ko abenduaren 12.

Tokia: GFAko Gizarte Politikako Txara eraikinean, Intxaurren, Donostia.

Ordua: goizeko 9.00etan.

Iraupena: bi ordu.

Partaideak:

.- Ezinduen eta Desgaituen Laguntzako Zerbitzburua.

.- Plangintzako, Ituneko eta Prestazio Ekonomikoetako Zerbitzburua.

.- Ikuskapeneko, Inbertsioetako eta Gizarte Ekimeneko Zerbitzburua.

.- Gizarteratzeko, Indarkeria Matxistaren Emakume Biktimen Laguntzako eta Gizarte Larrialdietako Zerbitzburua.

3.- Bilera:

Data: 2014ko abenduaren 12.

Tokia: GFAko Gizarte Politikako Txara eraikinean, Intxaurren, Donostia.

Ordua: goizeko 11.30etan.

Iraupena: bi ordu.

Partaideak:

- .- Gizarte Politikako Departamentuko Diputatu Nagusia.
- .- Ezinduen eta Desgaituen Laguntzako Zuzendari Nagusia.
- .- Haurren Babeseko eta Gizarteratzeko Zuzendari Nagusia.
- .- Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako Zuzendari Nagusia.
- .- Gizarte Politikako Departamentuko Aholkularia (1).
- .- Gizarte Politikako Departamentuko Aholkularia (2).
- .- Alternatiba alderdiko Gizartekintza Batzordeko kidea eta Bizkaiko Batzar Nagusietako Batzarkidea.
- .- Ezker Abertzaleko arlo sozioekonomikoko Kidea.

Hiru bilera horietan adituek orokorrean aurretiko emaitzen balorazio positiboa egin zuten eta koordinatzailearen aldetik egindako hausnarketak eta argipenak ontzat eman zituzten.

7 KAPITULUA: LANDA AZTERKETAREN EMAITZAK. GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO GIZARTE ZERBITZUEN GOBERNANTZARI BURUZKO DELPHI AZTERKETA

Aipatu dugun moduan egindako ikerketaren helburua da jakitea ea Gipuzkoako Foru Aldundia, gizarte zerbitzuen gobernantza demokratizatzeko eta parte hartzea handitzeko bidean, prest dagoen hirugarren sektorea/ekonomia sozialeko erakundeekin lan egiteko eta, bereziki, kooperatibizazio bidea erabiltzeko. Metodologia atalean aipatu den moduan lan honetan “hirugarren sektorea” eta “ekonomia soziala” terminoak berdin berdin erabiliko dira. Galdetegian “hirugarren sektorea” terminoa erabili da, kontuan hartuta gizarte-zerbitzuetan “ekonomia soziala” terminoak ospe handia ez duelako eta bakarrik kooperatibekin lotzen delako. Bestalde, hirugarren sektoreak zenbait kooperatiba mota barneratzen ditu, irabazi-asmorik gabekoak direnak. Horregatik, hirugarren sektoreari buruz hitz egiterakoan zentzu zabalean egingo da, kooperatibak ere integratuz eta ekonomia sozialari buruz hitz egiten denean baita ere irabazi-asmorik gabeko erakundeak sartuko dira

Ikerketa hori burutzeko Delphi metodoa erabili da. Horretarako adituek inkesta berdina bi aldiz on-line bete dute. Erantzun duten 13 adituk bi aldiz kontsultatuak izan dira galdetegi berdinari buruz. Gainera, bigarren galdetegia bete baino lehen euren eskuetan eduki dituzte lehen bueltan adituek eman dituzten iritzi nagusiak atal bakoitzari buruz.

Galdetegia 27 galderakoa izan da, 6 multzotan banatuta. Interneten bidez erantzun ahal izateak erraztu egin du lana. Esan beharrik ez dago inkestaren izaera guztiz konfidentziala izan dela.

Azterketa honen emaitzak 7.1 azpiatalean aurkezten dira. Bertan, behatu diren 27 aldagaien azterketa zehatza eta zorrotza egiten da, bakoitzaren inguruko hausnarketak eginez eta gero, haiek multzoka bildu ondoren, ondorio orokorrak lortuz.

7.1 Emaidza nagusiak

Alde batetik, azpiatal honetan lehen ikerketaren emaitzak galderaz galdera aztertuak izan dira, lau alderdi nagusi jorratuz:

1. Galdera bakoitzaren emaitzen azterketa taula eta grafikoa.
2. Batez bestekoa eta desbideratze tipikoa.
3. I. txandatik II. txandara eman den gerturatze maila batez bestekoan eta desbideratze tipikoan.
4. Galdera bakoitzaren emaitzen azterketa, adituen artean politikoak eta teknikoak bereizita.

Bestetik, galdera horiek sei multzo nagusitan bildu direnez adituen hausnarketa kualitatiboak multzoka gehitu dizkiogu. Gero, emaitza horiek adituen aurrean aurkeztu eta eztabaidatu dira itzultze-bileretan, politikoak eta teknikoak bereizita, eta informazio guzti horrekin multzo bakoitzari buruzko hausnarketa orokorra egin dugu.


7.1.1 Hiru aukeren artean esan ezazu zein den zure gaur egungo ardura:

7.1.1 Taula: Adituen gaur egungo ardurak

ADITUEN ARDURAK	KOPURUA
Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politika Departamenduko Diputatua, Zuzendaria edo Aholkularia	5
Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politika Departamenduko Zerbitzburua	5
Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernuan dauden alderdietako Ordezkari Politikoa	3
GUZTIRA	13

Iturria: Geuk egina (2014)

7.1.1 Grafikoa: Adituen gaur egungo ardurak



Iturria: Geuk egina (2014)

Ikusten denez inkestaren II txanda honetan adituen multzoa 13 pertsonen osatu dute. Horietatik 5 Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politika Departamenduko Diputatua, Zuzendaria edo aholkularien multzokoak izan dira, beste 5 Departamenduko Zerbitzburuen taldekoak eta, azkeneko 3rak Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernu alderdietako Ordezkari Politikoak.

Gainera esan daiteke, inkestaren I. txandatik adituen multzoko kideak oso osorik mantendu egin direla taldearen egonkortasuna frogatuz.

LEHENBIZIKO ARLOA: EREDU EGOKIENA GIPIZKOAN GIZARTE ZERBITZUAK EMATEKO



7.1.2 Ados al zaude eredu publiko soila dela eredurik egokiena Gipuzkoan gizarte zerbitzuak emateko? (1 izanik Desadostasun Osoa eta 5 izanik Adostasun Osoa)

7.1.2.1 Taula: Eredurik egokiena eredu publiko soila

1 ez ados, 5 ados	KOPURUA	EHUNEKOETAN
1	2	15%
2	1	8%
3	2	15%
4	7	54%
5	1	8%
ED/EE	0	0%
GUZTIRA	13	100

Iturria: Geuk egina (2014)

7.1.2.1 Grafikoa: Eredurik egokiena eredu publiko soila



Iturria: Geuk egina (2014)

Adituen %62ak pentsatzen du eredu publiko soila dela eredurik egokiena Gipuzkoan gizarte zerbitzuak emateko (4 eta 5). Bestalde, %23ak kontrako iritzia agertzen du (1 eta 2). Erdian(3), berriz, %15a gelditzen da, alde batera edo bestera iritzi argia eman gabe.

7.1.2.2 Taula: Batez bestekoa eta desbider. tipikoa; eredurik egokiena eredu publiko soila

Azterketa teknikoa	
Batez bestekoa	3,308
Desbideratze tipikoa	1,251
Laginaren tamaina	13

Iturria: Geuk egina (2014)

Batez bestekoa 3,308an kokatzen da, 1,251ko desbideratze tipikoarekin.

7.1.2.3 Taula: Gerturatze maila; eredurik egokiena eredu publiko soila


Gerturatze maila	I. Txanda	II. Txanda
Batez bestekoa	3,25	3,308
Desbideratze Tipikoa	1,215	1,251

Iturria: Geuk egina (2014)

Zerbitzu publikoaren aldeko adituen batez bestekoa, gutxi bada ere, 5 ehunen igo egin da lehen txandatik bigarrenera. Adituen iritzien gerturatze mailari dagokionez, berriz, atal honetan ez da hobekuntzarik sumatzen. Oso gutxi bada ere, desbideratze tipikoa 3 ehunen igo egiten da.

Lehenbiziko txandatik bigarrenera, inkestaren atzeraelikaduraren bitartez (feedback), argitu egin da eredu publiko soila kontsideratzen dela kudeaketa osoa era zuzenean antolatzen denean. Aldi berean, bigarren txandan lortu da aditu guztiek galderari erantzutea, lehen txandan zegoen “Ez daki/Ez du erantzuten” laukiko erantzun bat desagertuz.

7.1.2.2. Grafikoa: Politikoen eta teknikoen balorazioa; eredurik egokiena eredu publiko soila



Iturria: Geuk egina (2014)

Galdera honi buruz diferentzia nabarmenak ematen dira politiko eta teknikoen iritzien artean. Politikoen %87entzat eredu publiko soila da eredurik egokiena Gipuzkoan gizarte-zerbitzuak emateko. Teknikoen kasuan, berriz, %20ra jaisten da. Eredu publiko soilaren kontra, berriz, politikoen %12a bakarrik eta teknikoen %40a azaltzen dira. Gainera, politikoak argi badute aldeko edo kontrako jarrera (erdian ez da inor kokatzen) teknikoen kasuan %40a erdian kokatu da (3).


7.1.3 Ados al zaude eredu kontzertatua dela eredurik egokiena Gipuzkoan gizarte zerbitzuak emateko? (1 izanik Desadostasun Osoa eta 5 izanik Adostasun Osoa)

7.1.3.1 Taula: Eredurik egokiena eredu kontzertatua

1 ez ados, 5 Ados	KOPURUA	EHUNEKOETAN
1	3	23%
2	1	8%
3	4	31%
4	3	23%
5	2	15%
ED/EE	0	0%
GUZTIRA	13	100

Iturria: Geuk egina (2014)

7.1.3.1 Grafikoa: Eredurik egokiena eredu kontzertatua



Iturria: Geuk egina (2014)

Eredu Kontzertatuari dagokionez, adituen %38k bat egiten du eredu horrekin (4 eta 5). Aldiz, eredu horren kontrako jarrera %31koa da (1 eta 2). Azkenik, %31 erdian kokatzen da alde batera edo bestera partidirik hartu gabe (3).

7.1.3.2 Taula: Batez bestekoa eta desbid. tipikoa; eredurik egokiena eredu kontzertatua

Azterketa teknikoa	
Batez bestekoa	3,000
Desbideratze tipikoa	1,414
Laginaren tamaina	13

Iturria: Geuk egina (2014)

Eredu Kontzertatuaren aldeko batez bestekoa 3, 000 izan da eta desbideratze tipikoa, berriz, 1,414.


7.1.3.3 Taula: Gerturatze maila; eredurik egokiena eredu kontzertatua

Gerturatze maila	I. Txanda	II.Txanda
Batez bestekoa	2,923	3
Desbideratze Tipikoa	1,382	1,414

Iturria: Geuk egina (2014)

Eredu Kontzertatua ondo ikusten duten adituen batez bestekoa nahiko egonkor mantentzen da lehenbiziko txandatik bigarren txandara. 8 ehunen bakarrik igotzen da. Adituen iritzien gerturatze mailak, berriz, ez du hobera egiten. Oso gutxi bada ere, desbideratze tipikoa 3 ehunen igo egiten da.

7.1.3.2 Grafikoa: Politikoen eta teknikoek balorazioa; eredurik egokiena eredu kontzertatua



Iturria: Geuk egina (2014)

Eredu kontzertatuari dagokionez, politikoei kontrako jarrera agertzen dute. Hau da, Politikoen %12 bakarrik azaltzen da alde eta %50 kontra. Erdian(3), % 38. Teknikoei dagokionez, berriz, %80ek eredu kontzertatuaren aldeko apustua egiten dute eta gelditzen diren %20ak erdian kokatzen dira(3). Teknikoen multzo honetan kontrako jarrerarik ez dago.


7.1.4 Ados al zaude eredu pribatu soila dela eredurik egokiena Gipuzkoan gizarte zerbitzuak emateko? (1 izanik Desadostasun Osoa eta 5 izanik Adostasun Osoa)

7.1.4.1 Taula: Eredurik egokiena eredu pribatu soila

1 ez ados, 5 ados	KOPURUA	EHUNekoETAN
1	12	92%
2	0	0%
3	1	8%
4	0	0%
5	0	0%
ED/EE	0	0%
GUZTIRA	13	100

Iturria: Geuk egina (2014)

7.1.4.1 Grafikoa: Eredurik egokiena eredu pribatu soila



Iturria: Geuk egina (2014)

Eredu pribatuari dagokionez, adituen %92ak desadostasun osoa agertzen du (1) eredu pribatu soila dela eredurik egokiena gizarte zerbitzuak emateko ideiarekin. Gelditzen den %8a erdian gelditzen da (3).

7.1.4.2 Taula: Batez bestekoa eta desbideratze tipikoa; eredurik egokiena eredu pribatua

Azterketa teknikoa	
Batez bestekoa	1,154
Desbideratze tipikoa	0,555
Laginaren tamaina	13

Iturria: Geuk egina (2014)

Iritziak hain bateratuak izanik desadostasun osoaren inguruan, batez bestekoa 1,154ean kokatzen da eta desbideratze tipikoaren balorea txikia da, 0,555.


7.1.4.3 Taula: Gerturatze maila; eredurik egokiena eredu pribatua

Gerturatze maila	I. Txanda	II. Txanda
Batez bestekoa	1,231	1,154
Desbideratze Tipikoa	0,599	0,555

Iturria: Geuk egina (2014)

Lehen txandatik bigarren txandara adituen iritziak oraindik gehiago bildu dira desadostasun osoaren puntuaren inguruan (1). Lehenbiziko txandan 2 puntuaren inguruan kokatutako %8a 1 puntura mugitu da. Horren ondorioz, batez bestekoa 1,231tik 1,154ra jaisten da, desbideratze tipikoa 0,559tik 0,555ra gutxituz.

7.1.4.2 Grafikoa: Politikoen eta teknikoek balorazioa; eredurik egokiena eredu pribatua



Iturria: Geuk egina (2014)

Eredu pribatu soilari buruz, politikoez eta teknikez iritzi nahiko antzekoa dute. Politiko guztiak (%100), inongo salbuespenik gabe, eredu pribatu soilaren aurka agertzen dira (1). Aldiz, tekniko gehienek (%80) kontrako jarrera berdina hartzen dute eta %20ak ez du posizioirik hartzen(3).

**7.1.5 Adituen hausnarketa kualitatiboak lehenbiziko arlo honi buruz (2, 3 eta 4. galderak):
EREDU EGOKIENA GIPUZKOAN GIZARTE ZERBITZUAK EMATEKO. Adituek, arlo honi buruz,
egin dituzten hausnarketak euren erantzunak argitu eta garatzeko:**

Lehen Txanda

-Erantzun gabeko galderak: 6

-Jasotako erantzunak: 7

1.-“Eredu kontzertatua dagoeneko nagusia da Gipuzkoan. Indartu egin behar da legeak dioenaren arabera, gaurko hitzarmen sistema erreformatuz”.

2.- “Erantzukizun publikoko eredu misto baten aldekoa naiz (publikoa eta kontzertatua)”.

3.- “Gipuzkoan gizarte zerbitzuen erantzukizuna publikoa da, eta horrela izanda kudeatzeko modeloan hirugarren sektoreak eta elkarteek ematen duten balio erantsia inkorporatu behar da”.

4.- “Oinarrian eredu publikoak egon behar du. Baldintzen arabera, zenbait kasuetan beste eredu batzuekin konbinatu daiteke”.

5.- “Bigarren galderan argitu beharko litzateke zer ulertzen dugun “eredu publikoa” aipatzen dugunean. Zuzeneko kudeaketa bakarrik?”.

6.- “Uste dut erantzukizuna beti publikoa izan behar dela, baina kudeaketa soziala oso egokia izan daitekeela, kasuen arabera. Irabazi asmoa daukaten enpresen kontzertazioarekin ez nago ados, baina zenbait gizarte eragileekin kontzertatzea egokia iruditzen zait”.

7.- “Eredu motak soilik ezin du bermatu zerbitzu egokiena”.

Bigarren txanda

-Erantzun gabeko galderak: 8

-Jasotako erantzunak: 5

1.-“Oinarria publikoa izan behar du; beste ereduak, izatekotan, osagarriak”.

2.-“Erantzukizun publikoko sistema misto baten aldekoa naiz, hirugarren sektoreko edo gizarte ekonomiako enpresei lehentasuna emanda hitzartzeko garaian”.

3.-“Nere ustez, inportanteena erantzukizun publikoa da, hau da zerbitzu sozialen sistema definitzeko, planifikatzeko, ezarpenaren jarraipena egiteko eta ebaluatzeko administrazio publikoari dagokiola. Kudeaketa, hau da ezarpena nola kudeatzen den, kudeaketa publikokoa edo kontzertatua izan daiteke, ezin baita ahaztu hirugarren sektoreak zerbitzu publikoen garapenean izandako historia, ezagutza, erabiltzaileekiko gertutasuna eta abar”.

4.-“Nire ustez, erantzukizunak beti publikoa izan behar du, baina eragile sozialak kudeaketan sartzeak asko aberastu ditzake gizarte zerbitzuak. Ni, ideologikoki, kudeaketa soziala eta irabazi asmorik gabekoaren aldekoa naiz. Gero ikusi behar da, kasuz kasu, zein da egokiena”.

5.-“Eredu motak ez du bermatzen emaitza egokiak”.

Lehenbiziko arloa: Hausnarketa orokorra arlo osoari buruz (2, 3, 4 eta 5. galdera): EREDU EGOKIENA GIPUZKOAN GIZARTE ZERBITZUAK EMATEKO

Lehenbiziko arlo honetan atera daitekeen ondorio nagusia da gehiengo osoa eredu pribatu soilaren kontra agertzen dela. Honekin batera aipatzekoa da adituen gehiengo eredu publiko soilaren alde dagoela, baina beti ere, gaur egungo errealitatek abiatuta, atea irekitzen zaio eredu kontzertatuari:

“Eredu kontzertatua dagoeneko nagusia da Gipuzkoan. Indartu egin behar da legeak dioenaren arabera, gaurko hitzarmen sistema erreformatuz.” (Adituek Delphiaren lehenbiziko atalean, 7.1.5. puntuan, egindako hausnarketa kualitatiboak. Hemendik aurrera hausnarketa horiek (A1) bezala ezagutuko ditugu)

Egin diren ekarpen gehienetan aipatzen da eredia erantzukizun publikoan oinarritu behar dela. Baina gero erantzukizun publiko horri gehitzen zaizkio aldaera desberdinak, horien artean, eredu mistoa, hirugarren sektorea eta elkarten balio erantsia edo irabazi-asmorik gabeko erakundeen kudeaketa soziala:

“Erantzukizun publikoko eredu misto baten aldekoa naiz (publikoa eta kontzertatua).” (A1)

“Gipuzkoan gizarte zerbitzuen erantzukizuna publikoa da, eta horrela izanda kudeatzeko modeloan hirugarren sektoreak eta elkarteek ematen duten balio erantsia inkorporatu behar da”. (A1)

“Oinarrian eredu publikoak egon behar du. Baldintzen arabera, zenbait kasuetan beste eredu batzuekin konbinatu daiteke”. (A1)

“Uste dut erantzukizuna beti publikoa izan behar dela, baina kudeaketa soziala oso egokia izan daitekeela, kasuen arabera. Irabazi asmoa daukaten enpresen kontzertazioarekin ez nago ados, baina zenbait gizarte eragileekin kontzertatzea egokia iruditzen zait”. (A1)

“Oinarria publikoa izan behar du; beste ereduak, izatekotan, osagarriak”. (A1)

“Erantzukizun publikoko sistema misto baten aldekoa naiz, hirugarren sektoreko edo gizarte ekonomiako enpresei lehentasuna emanda hitzartzeko garaian”. (A1)

“Nere ustez, inportanteena erantzukizun publikoa da, hau da zerbitzu sozialen sistema definitzeko, planifikatzeko, ezarpenaren jarraipena egiteko eta ebaluatzeko administrazio publikoari dagokiola. Kudeaketa, hau da ezarpena nola kudeatzen den, kudeaketa publikokoa edo kontzertatua izan daiteke, ezin baita ahaztu

hirugarren sektoreak zerbitzu publikoen garapenean izandako historia, ezagutza, erabiltzaileekiko gertutasuna eta abar". (A1)

"Nire ustez, erantzukizunak beti publikoa izan behar du, baina eragile sozialak kudeaketan sartzeak asko aberastu ditzake gizarte zerbitzuak. Ni, ideologikoki, kudeaketa soziala eta irabazi asmorik gabekoaren aldekoa naiz. Gero ikusi behar da, kasuz kasu, zein da egokiena". (A1)

Aipatzekoa da ere zenbait ekarpenek azpimarratzen dutela eredu motak soilik ez duela bermatzen zerbitzuaren kalitatea:

"Eredu motak soilik ezin du bermatu zerbitzu egokiena".(A1)

"Eredu motak ez du bermatzen emaitza egokiak". (A1)

Nahiz eta gehiengo eredu publiko soilaren alde agertu (%62), ehuneko adierazgarria dago eredu publiko soilaren kontra (%23). Eta, erdian, jarrera argi bat agertu gabe, %15. Eredu kontzertatu soilari dagokionez, iritzia sakabanatu egiten dira, antzeko ehunekoetan, hiru aukera nagusien artean: %38 alde, %31 kontra eta %31 ez alde eta ez kontra. Eredu pribatu soil dela eta, gehiengo osoa kontra azaltzen da (%92). Erdian, posizio argi bat hartu gabe, %8a.

Atal honetako emaitza orokorrak azaldu ondoren komenigarria da orain aztertzea politiko eta teknikoaren iritzien artean ematen diren diferentziak. Hasteko, politikoek eta teknikoek iritzi nahiko antzekoa dute eredu pribatu soilaren aurka. Politiko guztiak (%100), inongo salbuespenik gabe, eredu pribatu soilaren aurka agertzen dira (1). Aldiz, tekniko gehienek (%80) kontrako jarrera berdina hartzen dute eta %20ak ez du posiziorik hartzen (3).

Hausnarketa bateratu horretatik abiatuta gero politiko eta teknikoaren arteko diferentziak handitu egiten dira eredu publiko eta kontzertatuari buruz hitz egiten hasten garenean.

Alde batetik, politikoak eredu publikoaren defendatzaile sutsuak dira. Teknikoaren kasuan, berriz, gutxiengoak egiten du eredu publiko soilaren alde. Hau da, politikoaren %87entzat eredu publiko soil da eredurik egokiena Gipuzkoan gizarte zerbitzuak emateko. Teknikoaren kasuan, berriz, %20ra jaisten da. Eredu publiko soilaren kontra, berriz, politikoaren %12a

bakarrik eta teknikoek %40a azaltzen dira. Gainera, politikoak argi badute aldeko edo kontrako jarrera (erdian ez da inor kokatzen) teknikoek kasuan %40a erdian kokatu da (3).

Eta bestetik, eredu kontzertatuari dagokionez, politikoek kontrako jarrera hartzen dute eta teknikoek alde. Hau da, Politikoek % 50a eredu kontzertatu soilaren kontra agertzen da eta %12a bakarrik alde. Erdian (3), %38. Teknikoek dagokionez, berriz, %80ek eredu kontzertatuaren aldeko apustua egiten dute eta gelditzen diren %20ak erdian kokatzen dira(3). Teknikoek multzo honetan kontrako jarrerarik ez dago.

Hala ere, komeni da politiko eta teknikoek artean ematen diren iritzien diferentzia nabarmen hauek zehaztea eta sakontzea benetako argazkia plazaratzeko.

Hasteko politikoek nabarmendu nahi dute teknikoek eredu publikoaren aldeko jarrera hobetu egin dutela legegaldien zehar, bereziki kudeaketa pribatuak edo kontzertatuak arazoak ematen dituen esparruetan:

“Nik ikusi det teknikari batzuen aldetik iritzia nola aldatu duten. Ez guztiz publikoaren alde daudela baino bai ikusi dut non orain dela 3 urte kontzertazioa bakarrik ikusten zuten eta orain ari dira esaten arlo batzuetan beinpein komeniko litzatekeela kudeaketa publikoa egitea. Hori aldatu egin da. Lorpena izan da talde politikoaren lorpena eta pixka bat errealitatea azken urteetako errealitatea ikusirik kudeaketa pribatua edo kontzertatuak arazoak ematen dituen esparru osoetan, delikatuetan, gizarte zerbitzuei begira” (2014ko abenduaren 11an eta 12an Politikoekin egindako itzultze-bileran egindako hausnarketak. Hemendik aurrera hausnarketa horiek (P) bezala ezagutuko ditugu).

Aldi berean, politikoek iritziz ikerketa honetan ez dugu aukerarik eman eredu publiko, kontzertatu eta pribatu soilen arteko ereduak hautatzeko eta honek baldintzatu egin du adituen iritzia:

“teknikarien iritziaz ez nago harritzen zer nolako iritzia daukaten eredu buruz baino bai erdibideko adibideak ipiniko bagenitu horrelako inkesta edo saiakera batean, bereziki eredu publiko eta kontzertatuaren arteko mix bat edo erdibidezko bat non eredu publiko batean hainbat gauza ezin diren delegatu eta zuzenean kudeatu behar dira baita nahi edo nahi ez eta hemen Gipuzkoan kudeatzen ditugun baino gai gehiago diren eta horrekin zer nolako kontzertazioa. Horrek ere errealitatea jakin bat dauka”.(P)

Teknikoek, berriz, azpimarratzen dute gaur egungo Gipuzkoako gizarte zerbitzuen egoera aztertzeke momentuan kontuan hartu behar dela, alde batetik, historikoki zerbitzu hauek

mugimendu asoziatibo indartsu batetik sortu direla eta bestetik, sektore bakoitzak, garapen historiko baten ondorioz, bere eredu propioa eraiki duela:

“Hor nik uste dut gauzak kontestualizatu behar direla. Nolabait ere gu hemen teknikariak garenok, departamentukoak garenok, ikusi dugula traiektoria bat. Egia esan itinerario hori ibilbide horretan gauzak hori aldatzen ari dira. Gu nolabait ere bizi izan gara hemen Gipuzkoan zerbitzuen garapen bat beti tejido asoziatibo oso potente batetan oinarrituta. Batez ere, ez hainbeste gure sektorean, baino bai diskapazidadean, adineko pertsonengan ere bai. Joan zaitez, Atzegi, Gautena. Nolabait ere, Elkartek haundi horiek, soziedadean oinarritutako elkarte horiek, batez ere kontutan hartu beti izan direla ezintasunen Familiarren Elkartek. Gure Uliazpi ere hortikan sortu zan. Hori oso potentea izan da eta Gipuzkoan egon den modeloa horretan oinarritu da. Ba ditu bere alde negatiboak ere bai. Baino oso potentea izan da eta historikoki oso bizia eta oso aberatsa. Gu bizi izan gea hori. Eta orduan horretan ematen du orain ere sinesten dugula. Zer gertatzen ari da azken urte hauetan? Alde batetik Elkartek horiek ere profesionalizatu egin dira. Hau da, galdu dute nolabait ere kutsu asoziatibo hori, batez ere, zerbitzuen probisioan. Ze badute sensibilizazioa eta badute ere beste espazio bat. Baino guri dagokiguna eta da zerbitzuen probisioa, horretan bai profesionalizazio bat etorri da, beharrezkoa, derrigorrezkoa, baino galdu du beste aspektu hori”. (2014ko abenduaren 12an Teknikoekin egindako itzultze-bileran egindako hausnarketak. Hemendik aurrera hausnarketa horiek (T) bezala ezagutuko ditugu).

Eta aldi berean sartu dira beste entitate batzuk kutsu hori ez dutenak. Eta entitate horiek ere izan dezakete inklusio forma asoziatiboa baino aldi berean dira “nik nator zerbitzua prestatzea eta abar”. Esaten duzu, bizi izan dugu egoera bat oso aberatsa eta horretan agian sinesten dugu gauzak aldatzen ari dira eta orduan ya nolabait ere galtzen ari da hori”. (T)

Ibilbide historiko honen ondorioz eredu kontzertatua bada ere jaun eta jabe Gipuzkoan teknikoek ere argi dute zerbitzuaren azken ardura publikoa izan behar duela:

“Baino guk beti esaten dugu ardura, nik oso garbi daukat, erresponsabilitatea gurea da. Are gehiago sortu izan direnean eta, ya ez, orain dela gutxi arte, sortu izan dira zenbait espazioetan zerbitzu batzuk zentro batzuk espazio batzuk gure planifikaziotik kanpo sortu direnak eta problema da gero horiek kokatzea”. (T)

“Momentu honetan burura datorkit gauza bat orain Inertzioa eta bion artean daukagu problema bat dago. Gipuzkoan dago zentro bat, zerbitzu bat. Bien arteko. Inertzioan dago baino dudan dago non kokatu. Zergatik dago dudan eta zertarako eta nola zein dan bere misioa. Sortu zelako elkarte batetik zentro bat 12 plaza ez da bitxikeria bat kostu handi bat dauka eta egia esan ez dugu kokatzen hori gure planifikazioan. Baino hor dago”. (T)

“Orain nolabait ere egiten ari gara ahalegin bat jakiteko non kokatu eta zertarako. Bere misioa berdefinitu behar dugu. Hor dago ta dago. Baldin badago non kokatu. Hori da ejemplo bat esateko guk sinesten dugu beste

modelo batean. Hemendikan planifikatu, hemendikan diseinatu eta horren arabera gauzak sortu. Baina ez kanpotikan etorri. Beste hori orain dela 20, 30 urteko modelo da. Momentu honetan hori ez da admisiblea".(T)

Dena dela, teknikoentzat eredu pururik ez dago. Zaintzarena eredu mistoa da. Nahasketa bat bilatu behar da, ardura batzuk publikoak, beste batzuk hitzartu edo kontratatu. Teknikoek argi dute funtzio batzuk publikoak izan behar direla, besteak beste, planifikazioa. Bestalde, eredu kontzertatua ezin da orokortu ezta ere. Gero arreta zuzena publikoa izan behar duen ez dute hain garbi ikusten. Hau da, ezin da sistema osoa eredu puru batekin parekatu:

"Nik uste dut Zerbitzu sozialen planifikazioa Administrazioari dagokio"... "Gero probisioen modeloak izan daitezke edo pura enpresa pribatua edo izan daitezke funtzionarioak. Neri eskatzen didatena da zerbitzua ematea. Nik niregatik nahiago nituzke denak funtzionarioak izatea, azken finean enplegu solidoago, estableago, hobeto rekonozitua eta abar eta abar. Baina momentu honetan ez du ematen hori posible denik. Gainera momentu honetan dagoen krisiarekin hortikan oso zaila ikusten dut". (T)

Gainera, teknikoentzat nabarmena da gobernu horrek eredu publikoaren aldeko apustu politiko bat egin duela. Nahiz eta politikoek dena publiko bihurtu behar dela esaten duten gero praktikan zailtasun handiak edukiko dituzte helburu hori betetzen joateko. Epe motzera kudeatuko dituzte kontratuak, konkurtsoak baina hori ez da kudeaketa zuzena. Behar bada, izan daiteke apustu politiko bat oso epe luzera:

"Politikoki departamenduak egin du apustu bat kudeaketa zuzenaren alde. Kabiarekin. Baina ez da egia. Grabatzen ari zara baina esango det nire diputatuak gezurra esan du. Atera da periodikoan esanez Kudeaketa zuzena. Ez dago kudeaketa zuzenik. Zuk kudeatuko dituzu kontratuak, hau da konkurtsoak. Baina hori ez da kudeaketa zuzena barkatu. Onartuko duzu ez da planteatu ere egin. Gutxienez oso maila altuan buruan bai baina oraindik ez da planteatu. Ordun Kudeaketa zuzenaren alde. Berak esango dizu baietz, klaro, apustu politiko oso epe luzera. Ni alde dago. Errazago zeukala Hegogain Diputazioaren zentro bakarra. Zergatik ez dago Kabian? Hor badituzu hasteko funtzionarioak. Nik uste dut ba dela keinu politiko bat. Sinesten dugu badagoela kudeaketa beste formula bat eta keinu bat egiten da". (T)

Horregatik, teknikoentzat publikoa izatearen erabakia ez da soilik ideologikoa. Praktikan beste muga asko gainditu behar dira erabaki ideologiko hori gauzatzeko. Adibidez, bete behar den legediak asko baldintzatzen du:

“Kontestu honetan eta dagoen krisiarekin eta inkluso agian Diputazio osoak ez duela oso gabi ikusten gehi dauden beste arazo batzuk. Sortzen baduzu momentu honetan horrelako erakunde bat. Halako erakunde batetan Jartzen baldin badituzu filtro batzuk eman dezagun perfil linguistikoak agian momentu honetan lanean dagoen jendea ez da sartuko. Hor dago kriston problema. Momentu honetan Diputazioak sortu behar baditu plaza horiek logikoa denez bermatu behar ditu hiritarren hizkuntz eskubideak eta orduan perfilak jarri beharko ditu eta perfil horiek . Zer problema dago? Gaur egun dagoen jendea ez da sartuko . Zergatikan? Gaur egun Gaur egun adineko zentroetan dauden asko dira atzerritarrak. Nere aita egon zen halako zentro batean hemen Donostian eta berarekin lan egiten zuten guztiak ziren Kubanoak. Zergatik? Lan baldintzak oso kaxkarrak direlako. Hor egon da espazio bat. Horri buelta emateko egin behar dituzu lan baldintzak garantiakoak baino beste aldetik zerbait eskatu behar diezu. Hor dago problema bat gero hori bideratu ahal izateko”. (T)

Politikoek ere nabarmendu dute historikoki zerbitzuak kanporatu egin direla, bereziki azpikontratatu eta teknikariek beti bizi izan dutela kanporatzeko ohitura hori:

“Printzipioz kudeaketa publikoa egiten zirenean, kanporatzea erabakitzen zen hainbat arlotan eta holako gauzak egin ziren. Adibide bat jartzeagatik adineko egoitza baten gauak eta aste bukaerako lanak azpikontratatu enpresak egiten zuen eta funtzionarioak zirenak bakarrik asteen zehar. Esan nahi det horrelako gauzak eraman dira Diputazio horretan eta herri askotako zea bat. Nire kale garbiketan beti egiten zen. Jende propioarekin. Gero hori ere kanporatua izan zen eta nik uste dut ere hemengo teknikariek bizi izan dute betidanik horrelako jarreraren kontraka. Eta beste adibide bat igual eta argiago jartzeko menpekotasunaren balorazioa printzipioz legean oso garbi agertzen zen baliabide propioekin egin behar zela baino dena dela erabakitzen zen kanporatzea gai hori eta tranpa txiki batekin egitea ez. Hauek egiten dute kanpoko lana eta hemendikan sinatzen da. Esan nahi det ere printzipioz da hemendikan funtzionarioek ikusi dutena. Printzipioz administrazioaren jarrera edo norabidea izan behar zen azpikontratatu edukitzea hainbat zerbitzu”. (P)

Politiko eta teknikoaren artean iritzi desberdinak daude eredu kontzertatuak kontrol publikoa bermatzen duenaren inguruan. Teknikoek azpimarratzen dute kontrol publikoa bermatzeko bide bakarra gutxieneko bitartekoak ipintzea dela:

“Nire esparrua txikiagoa da beste batzuekin konparatuta. Baina egiten ari gara ahalegin hori. Horrek eskatzen du esfortzu handia. Behar dira ekipoak horretarako. Guri gertatzen zaigu. Gurekin orain dela urte ta piko hasi zen lanean entitate bat. Bizkaiko entitate bat. Dago harrিতuta. Ez du ulertzen zergatik hainbeste Kontrol. Lehenengo egunean esaten zidatena “orain eskatzen diguzue auditoria bat”. “Es que auditoria bat eskatzeak kostatzen da 1700 euro”. “Zuei zer inporta zaizue gure xoxen egoera? Joder, asko!. Guk behar ditugu enpresa solidoak, bideragarriak, halakoak, bestela arrisku handian gaude. Gero egon daitezke kiebrak, konkurtsoak eta izan ditugu halako esperientziak. Kriston zorrak sortzen dituztela enpresa batzuk langileengan, Seguritate Sozialean edo Ogasunean,(azken hau zailago dute hemen). “Baino ez Bizkaiak eta ez Eusko Jaurlaritzak ez

digute eskatzen". Gero kriston zorrak sortarazten dituztenak. Horiek lan handia egiten dute justizia jubenilarekin. Horrek dauka hainbesteko pena. Bai jartzen dituzte baldintzak oso orokorrak. 6 hilabete barru bueltatu honera. Egon zaitez. Guk funtzionalki gaude oso gainean. Exigitzen dugu Kontrol handia absolutua. Utzi guri lan egiten. Baina "el campo de juego" guk markatzen dugu goitik behera. Agintzari aipatu duzu. Horiek Bizkaian daude lanean. Agintzari kontinuantemente gaude markatzen. Eta han ez. Esaten dute Kriston diferentzia dago. Hemen argi dugu ardura osoa hemengoa dela. Planifikatu, kontrolatu eta egokitu. Hemen asko ikusten da. Badaude lan ekipo batzuk kudeaketa ekonomikoko lan taldea dago kontrolatzeko bakarrik. Ez dira biz pa hiru pertsona. Dira hamarren bat. Horretarako daude bakarrik. Eta hori derrigorrezkoa da. Orduan Kontrol publikoa bermatu behar da bitartekoak jarritz. Auditoriak eskatzen baldin badituzu, nik ez dakit zenbat entitate egongo diren departamendu osoarekin lanean. Baina asko izango dira. Auditoria horiek edo gero analizatzen dituzu edo armariora doaz. Zuk zure eginkizuna ondo bete nahi baduzu, nire ardura publikoan sinesten badut horiek hartu analizatu behar dira eta identifikatu non daude problemak. Eta gertatu izan zaigu orain dela bi urte enpresa batek auditoriak aurkezten zitun baina auditoria horiek bai adierazten zuten problemak zeudela entitate horietan. Hemendik ez zen kasorik egin eta gero kiebrara joan zen. Eta kiebra sortzen denean sortzen da guretzako problema. Zer egin nola egin nola kudeatu non dauden alternatibak konkurtso bat edo egin behar baduzu, gutxieneko problema sei hilabetekoa da eta kiebra iristen denean iristen da bat-batean, egon daitezke konfliktu laboralak atzetikan. Eta kiebra badago langileek ez dute kobratzen. Oso konplikatua. Hori gertatu izan da hemen. Auditoriak presentatu begiratu ez. Bat-batean problemak. Horretarako eduki behar dituzu ekipoak begiratzen eta ekipoak nahiko ahalmena eduki behar dute sartzen zaien informazio guztia kudeatu ahal izateko". (T)

Politikoez, aldiz, azpimarratzen dute ez dela bakarrik gutxieneko bitartekoak ipintzea baizik eta gero tresna horiek erabiltzeko erabaki politikoa hartzea:

"Alde batetik da zer tresna dauden eta gero zer erabilera egiten da tresna horiena. Lehen esan dugu, adibidez, lan ikuskaritza ez daukagu tresna bat baina gure ikuskaritza, osea Aldundikoa, bada gure tresna. Baina zuk esan duzun bezala erabaki politiko bat da erabiltzea edo ez erabiltzea. Askotan jotzen dugu eredu kontzertatua suposatzen dugu kontrol publikoa dagoela, teorian, baina erabiltzen baduzu. Esperientziak esaten digu ez dela erabiltzen. Edo leku batzuetan ez dela erabiltzen". (P)

Aldi berean politikoez uste dute azken 3 urte horietan bitarteko asko jarri dituztela kontrol publiko hori hobetzeko eta gaur egun lege-eremuaren sabaia ukitzen ari direla. Horrek esan nahi du arlo horretan egin daitekeen lana amaitzen ari dela:

"yo creo que en 3 años se ha hecho mucho tanto en inspección y control de las condiciones, la inspección es la clave, ampliar lo más servicios antes necesitaban implicaban dependencia de otros servicios, control de dos aspectos fundamentales, uno, las condiciones de las hojas de servicios desde el punto de vista de ratios del

cumplimiento del nº de horas tal no se qué, pero también de las condiciones laborales estableciendo una política de control y ahí el control que se ha hecho desde gestión económica es muy importante, visibilizar ese control en los pliegos, en los convenios que se están firmando en torno a las cláusulas, ahora sí que tenemos un hito más que son el establecimiento de las cláusulas sociales que es un hito que no teníamos hace 3 años. Pero dentro, no de redefinir pero sí acotar el modelo de concertación, empezamos a tocar techo por marco legal y mucho mucho más de lo que se ha avanzado esta legislatura no vamos a poder avanzar porque hay límites claros. Inspección de trabajo no podemos entrar. Hemos blindado. En todo lo que hemos querido hacer hemos blindado e incluso nos han llevado 3 veces a los tribunales también. Ya estamos rozando la ley. Mucho mucho más ya no se puede hacer salvo que se redefinan las medidas básicas de contratación. Evidentemente, si de nosotros/as dependiera, seguramente pues se replantearían las medidas de contratación por parte de la Administración pública, no me cabe ninguna duda, pero actualmente tenemos que gestionar o tenemos que actuar dentro de un marco que nosotros no definimos. Ese marco empezamos ya a agotarlo. Mucho de lo que hacemos tiene un punto de ingeniería jurídica, no solo este departamento también el departamento de carreteras tiene algo de, no, de atreverse a hacer, no, cosas pioneras pero bueno que tiene algo de ingeniería jurídica. Por eso digo yo que ese camino empieza agotarse ya. Qué pasos más se pueden dar si no puedes tocar ese marco? Bueno, son preguntas que habría que realizarse. Sí que cambiamos. La concertación es, yo concierto y me olvido, no, yo concierto conciertas con esta administración y esta administración te tutela sobre esas cuestiones que tienes que ir cumpliendo y eventualmente hemos hecho cosas que no se habían hecho hasta ahora como establecer sanciones que nunca en la historia de la Diputación se habían establecido una sanción económica a una empresa... Y esta Diputación lo ha hecho Eh. Y se han resuelto contratos y convenios que hasta ahora no se había procedido en la historia de la Diputación a resolver por esas causas, al menos, a resolver contratos y convenios existentes pero comienza a agotarse". (P)

Politikoez, bestalde, zalantzak dituzte eredu kontzertatuari buruz. Eurentzat kasu batzuetan eredu kontzertatuak emaitza positiboak eman ditu eta beste batzuetan ez:

"Batzutan bai izan dala esperientzia ona eta emaitzak eman ditu, baina beste batzuetan ez. Pixka bat Anderrek esan duen bezala. Azkenean ez da berdina entitate bat edo beste bat hartu. Kudeaketa eramatea. Ez da jarri alde tekniko baizik eta nola kudeatzen zun el cómo garrantzitsua da. Ez da berdina esatea nire helburua da ahalik eta euro gehien ateratzea edota nire helburua da zerbitzu ez kalitatezko zerbitzu bat ematea eta bueno nirekin lan egiten duten pertsonak gustura egotea eta gero bai hausnartzen da. Ez da berdina eta emaitzak nik uste dut planteamendu batekin eta bestekin ez dira berdinak". (P)

Politikoren batek ere argi du kasu batzuetan eredu publiko zuzenak ez duela eredu kontzertatu batek baino garantia handiagoa ematen. Beste batzuentzat bai. Ulertzeko modua sektore eta eragilearen arabera alda daiteke:

“Batzuk ez dugu holan ikusten, nik uste dut sektorearen arabera eta eragileen ezagutzaren arabera. Nik uste dut eragile batzuek balio erantsi handiena ematen diola zerbitzuei. Beraien esperientziagatik jakinduriarengatik. Eta bai noski egon behar delako kontrol publikoa baino zenbait sektoreetan balio erantsia oso handia da. Eta errespetatu behar da. Baino zeintzuk izango lirateke sektore horiek? Ba adibidez Izan daiteke Gautena, Aspace, Gureak. Adibide asko daude”. (P)

“Si pones en la balanza desde luego el modelo concertado en infancia al menos ¡es un desastre!”. (P)

“Según para mí, según donde pongas el peso. Yo creo que por mucho que publifiques Aspace o Gureak no lo vas a mejorar”. (P)

“Yo entiendo que si lo publicas te tienes que ocupar de cosas que si está concertado te pierdes. O sea la certeza de ocuparte de cosas que en la concertación te tienes que ocupar. Te puedes centrar al menos”. (P)

“Para mí hay que avanzar hacia formulas diferentes de concertación. No quedarse en monocontrato no sé cuantos años y que sea como un diálogo más directo entre los agentes y la administración. Para mí estamos atascados en un sistema clásico de concertación. Y también la administración es muy pesada y que solo por ser público no es bueno”. (P)

Gainera, politikoentzat kontzertazioaren ohitura horrek lan baldintza oso prekarioak ekarri ditu sektorerara eta ikuspuntu hori barneratzea ez da erraza izan departamentuan. Zerbitzuak gauzatu dira baino langileen lan baldintza kaskarren kontura:

“azken urteetan zaintza lanak eman dira? zainketa eman da, eredu kontzertatu honen bitartez? Bai eman dira. Zaindu da? Bai, Ondo zaindu da? Orokorrean bai. Baino zer egoeran garatu da lan hori askotan? Oso era prekarioan. Sektorean ez dago hitzarmenik, hitzarmenak oso eskasak ziren baldintzak oso eskasak ziren, prekaritatea handia zen eta ikuspegi hori txertatzea departamenduan ez da batere erraza izan. Gaur egun aldaketa dexente izan da eta gauza hauek kontrolatzen dira ez bakarrik ikuspegi politiko bat egon delako konbentzimendu puntu bat egon delako beti ere eredu horren baitan. Klaro. Ez dakit ondo azaltzen naizen horri buruz. Gauza da zuk nola planteatzen duzun galdera. Lan horiek burutu dira? Nola burutu diren hori, urte askotan ez dira kontuan izan nola lortzen zen hori. Eta egun denetatik ikusi det. Berriro ere, ez dut ejenplorik emango. Baino praktika oso txarrak ikusi dira, langileen eskubideen ikuspuntutik”. (P)

Bestalde, politikoentzat ez da berdina kontzertazio bat egitea ekonomia sozialeko erakunde batekin edo enpresa kapitalista batekin. Ez eta ere zerbitzu bat edo beste kontzertatu:

“Ez da berdina ez dut izena esango ez da berdina kontzertazio bat egitea kooperatiba batekin edo irabazriki gabeko entitate batekin edo merkantil batekin. Nire ustez ez da berdina. Ez du konotazio berdina. Ez da berdina

zerbitzu jakin batzuk kontzertatzea edo beste batzuk. Honek sakontasuna du ondo finkatzeko zein izan behar diren zein den azkeneko jarrera, beti ere posibilismo baten baita". (P)

Politikoen eztabaidak ez du hemen gelditu nahi. Urrunago joan nahi du. Zalantzan jarri nahi dute gaur egungo eredu publikoa eta eredu kontzertatua:

"Nik ulertzen ez dudana zergatik aukeratu behar dugun daukagun publikoa edo daukagun kontzertatua. Agian aldatu daiteke kontzertazio eredu edo harreman publiko-pribatua. Ez dute zertan izan behar dauden moduan".(P)

Ez hori bakarrik, politikoez "publiko" terminoa ezbaian dagoela diote eta ondorioz definizio berriak sortzen ari direla bai eskuinetik eta baita ere ezkerretik:

"Nik ere badaukat sentsazioa publiko terminoa disputan dagoela. Nik badaukat galdera horren aurrean, Bizkaiko Batzarkidea naiz eta haiek ez dute inoiz aitortuko publiko eredu ez dagoela. O sea. Esan nahi dut "se redefine el término público mientras exista una financiación y cierto control de la administración pública y no se acepta que existe una renuncia en ese sentido mientras existan esos dos mecanismos. Entonces ¿Hay límites? ¿Hay déficit? Sí, pero dentro de esos márgenes del control o mejoras del control dentro de la administración igual se pueden resolver esos problemas sin que haya una recuperación directa de la gestión desde la administración. Entonces, ni siquiera podemos hablar de que avanzamos o transitamos hacia un cambio de modelo o que ha habido una renuncia a la privatización porque ha habido una redefinición del concepto. O sea que la sociedad tampoco es testigo de un proceso de privatización. Es algo como muy encubierto. Y yo creo que, por otro lado, también puede una redefinición de lo público desde la izquierda. Siempre hemos hablado de lo público como una única manera de gestión directa desde la administración y ahora se empieza a hablar pues igual vamos a hablar de una gestión colectiva o de otras maneras de concebir lo público que no se entienda solo como una gestión directa desde la Administración. Claro, eso desde luego, es una discusión más minoritaria que casi no está. Que incluso es un debate que desde el cual no estamos profundizando mucho. Está prevaleciendo más lo otro". (P)

Eztabaida honen barruan, departamentuko politikoez Kabia erakunde autonomoa sortzea erabaki dute gizarte zerbitzuak emateko garaian kontrol publikoa handitu eta zuzenean kudeatzeko:

"Zuzenean kudeatzeko. Azkenean hor gure kontrolpean edo kontrol publikoa areagotzeko nik lehen ukitu dudana moduan oso gutxi geratzen da ya. Tetxoak ditugu eta orain ya legea ez bada aldatzen gauza oso gutxi egin dezakegu. Asko hobetu egin da. Nik aipatutako galderari erantzunez. Kontrol publikoa ulertuta kontrol bezala hor ez dago niretzat eztabaida izpirik zein bermatzen duen gehiago. Beste galdera bat izango litzateke ea

sektore kontzertatuan eta nola kontzertatzen duzun ea nahiko kontrol publiko bermatzen duen. Galdera desberdina da. Nahiko kontrol publiko bermatzen duen? Ba, eztabaida hori luzea izango litzateke baina klaro administrazioak ere bere lana burutu egin behar du, administrazio bakoitzak bere lana ondo egiten badu baiezkoa izan daiteke galdera baino horretarako lan ikuskaritza benetan egin behar du. Gaur egun, ba bueno zentro batean, hori sindikatu bateri galdetzen badiozu, berehala esango dizu zuk lan arazo bat baldin badaukazu eta lan ikuskaritza deitzen baduzu “ya puedes esperar sentado porque para cuando aparecen”. Klaro eta esparru horretan, adibidez, Aldundiak ezin du ezer egin. Hori aldatuko balitz beste egoera batean egongo ginateke”. (P)

Politikoentzat eztabaida horretan garrantzitsua da zehaztea nola ulertzen den eredu publikoa, hau da, estatuaren esku hartze handiagoa bultzatzen duena edo baita ere zaintzaren autoeraketa bilatzen duena. Gainera ezbaian ipini beharko zen kogestiorako eta irabazi-asmorik gabeko erakundeak izateko gaur egun eskatzen diren baldintzak, betetzeko oso errazak dira eta edozein sar daiteke:

“Bai hemen bertan eta lehen Aranek planteatu duen eta mahaia ere ideia hori ezta, nola pixkanaka pixkanaka, pauso eztabaida ideologiko horretan, eredu publikoa nola ulertzen dugun hor “más estatismo o es también autoorganización de los cuidados”. Familias que se organizan y proveen de cuidados a personas de determinado perfil es público o no es público. Para ser público también zer berme jarri behar duzun? Eredu kontzertatu horretan Irabazi Asmokoak duten entitateak daude eta Irabazi Asmorik gabeko entitateak daude. Eta horien bertan ere estatus hori lortzeko asko hitz egin beharko litzateke zer nolako minimoak bete beharko lituzkete estatus bat izateko. Zer gaur egun oso laxoa da eta edozein pertsona, enpresek irabazi Asmorik Gabeko entitate bat jarri dezakete martxan. Sin ir más lejos Florentino Perez tiene una empresa de reinserción que se acaba de cepillar a Gureak el contrato de limpieza en Donosti. Florentino Perez. Una empresa de Reinserción, una empresa de Empleo Especial. Claro y cumple los requisitos. Hori da buruan daukaguna cuando hablamos de la autoorganización? Pues no. Hay que replantearse los requisitos también”. (P)

“Yo creo que hay experiencias muy pequeñas de cogestión pero muy interesantes como puede ser el modelo de la casa de las mujeres que está el ayuntamiento de Donostia, la asociación casa de las mujeres y conjuntamente deciden lo que se va a hacer. Para mí es un modelo muy interesante que se está explorando y creo que desde el departamento habría oportunidad de hacer, no sé, potenciar los consejos, tal vez, darles más control, no sé. No sé cuál es la manera pero a mí me parece interesante avanzar hacia esos modelos”. (P)

Gainera, politiko batzuen iritziz “Kontrol publikoari” buruz baino “kontrol demokratikoaren” edo “kontrol sozialaren” inguruan hitz egin beharko zen:

“Nik uste det kontrol publiko baino gehiago hitz egin behar dugula kontrol demokratikoa, kontrol sozialari buruz. Azkenean momentu honetan ogasunean departamentutan politika soziala dago, nolabait ere borondate politika bat kontrol publiko bat martxan jartzeko eta hori bermatzen dela. Baino aldatzen bada zuzendaritza organo politikoan hori ere desagertuko da. Orduan nik uste dut bilatu behar dira formulak inplikatzeko gehiago. Kontrol demokratiko hori gizarte eragileak edo, lan ikuskaritzak ez badu bere lana egiten, baldin badauka atzetik presio bat, gizartearena, behartuko dugu lan hori egitera”. (P)

Politikoentzat kontrol soziala agian ez da nahikoa erantzukizun publikoa bermatzeko. Oraindik herritarrak ez daude prestatuak kontrol hori bermatzeko. Baina argi dago erantzukizun publikoari bigarren buelta bat eman behar zaiola eredu komunitarioarekin lotuz. Hau da, eragileekin erabakiak hartzeko guneak sortu behar dira. Erronka litzateke harreman publiko-pribatuak birplanteatzea, oraingo publikoa eta oraingo kontzertazioa gaindituz:

“Zuk adibidez esan duzu gizarte kontrola. Ni gizarte politikan ba arazotxoak ikusten dut hori, ze segun ze gizarte politikako ze gaiei, sektoreei buruz hitz egiten badugu ba klaro jende guztiak nahi ditu errekurtsioak, adibidez, egoitzak zaharrentzako, baino inork ez du beste zerbitzu batzuk, gizarteratzeko zerbitzuak ez ditu nahi, jendeak ez du nahi gehiengoak, herritar gehiengoak. Eta hor ere kontuz ibili behar da. Segun zu bueno ba adibidez, haurren sektorean legalki erantzukizun bat daukagu baina beste sektore batzuetan ez daukagu legalki erantzukizun hori. Izan beharko genuke? Ba igual bai. Hori ere bai bermatzeko. Eta hori ere bada eredu publikoa. Orduan ez dakit osea ez da bakarrik pentsatzea zer den daukaguna baizik eta nola zer garantia izan dezakegun ere bai kasu bakoitzean”. (P)

“Ez dakit baino agian kontrol hitza ez da egokiena. Nik uste dut . Esan duzu hor dagoela filosofia politiko bat atzetik. Noski, gaur egun, bihar martxan jarriko balira ez dakit zenbat pues zenbait sistema herritarrak parte hartzeko sistemak edo tresnak, agian politikoki edo pedagogikoki ez gaude herritar moduan denok prest aurrera eramateko gauzak. Baino zuk buruan badaukazu ikuspegi hori denok ados gaudela publikoari buelta bat eman behar diogula. Amaiak esandakoaren arabera ni ados nago ere bai. Nik uste dut pentsatu behar dugula ere eredu komunitarioetan edo herri ereduetan eta hori bihar martxan jarri al dugula? Ez. Kontrol soziala dauka eta gero noski alde asko nabardura asko aspektu asko. Arlo soziala erraldoia da. Gauza asko daude hor barruan baino nahi baldin badugu ez gizartea benetako parte hartze bat demokratikoa izatea ez dakit zer tresnak martxan jarri ditzakegu? Edo zer esperientziak? Aranek esan duena da esperientzia bat. Baloratu dezakegula bere arloan edo ez, edo pentsatu ditugunean adibidez gu garela, ez lankidetzara arlokoa, klaro da, oso arlo berrezia. Baina gu teorikoki behintzat pentsatzen ari gara etorkizun hurbil batean martxan jartzea ez gune kontsultiboak bakarrik baizik eta eragileekin erabakiak elkarrekin hartzeko gune bat martxan jartzea. Noski da arlo txikia, errazago, ez dauka zer ikusirik desgaitasunarekin. Badakigu direla oso desberdinak. Baina bueno, nik ulertzen dut zuk esaten duzuna baino niretzako kontrol soziala... “. (P)

BIGARREN ARLOA: GIZARTE ZERBITZU PUBLIKOAK DISEINATZEKO GARAIAK


7.1.6 Ados al zaude Gipuzkoako Diputazioak, Gipuzkoako gizarte zerbitzu publikoak diseinatzerakoan, hirugarren sektorea eta beste eragile sozialak aintzakotzat hartu behar dituela era informatiboan bakarrik? (1 Desadostasun Osoa eta 5 Adostasun Osoa)

7.1.6.1 Taula: Diseinuan, hirugarren sektorea era informatiboan

1 ez ados, 5 dos	KOPURUAK	EHUNEKOTAN
1	5	38%
2	5	38%
3	2	15%
4	0	0%
5	1	8%
ED/EE	0	0%
GUZTIRA	13	100

Iturria: Geuk egina (2014)

7.1.6.1 Grafikoa: Diseinuan, hirugarren sektorea era informatiboan



Iturria: Geuk egina (2014)

Gizarte zerbitzu publikoak diseinatzeko garaian adituen % 76ek ez du ondo ikusten (1 eta 2) gizarte zerbitzu publikoak diseinatzerakoan hirugarren sektorea eta beste eragile sozialak bakarrik era informatiboan kontuan hartzea. %8a, berriz, ados agertzen da eragileak era informatiboan tratatzea(5). Azkenik %15ek ez dute posiziorik hartzen (3).

7.1.6.2 Taula: Batez bestekoa eta desbideratze tipikoa; Diseinuan, hirugarren sektorea era informatiboan

Azterketa teknikoa	
Batez bestekoa	2,000
Desbideratze tipikoa	1,155
Laginaren tamaina	13

Iturria: Geuk egina (2014)

Adituen hiru laurdenak baino gehiagok ez dutelako ondo ikusten gizarte zerbitzu publikoak diseinatzerakoan hirugarren sektorea eta beste eragile sozialak era informatiboan bakarrik aintzakotzat hartzea, aldagai honen batez bestekoa 2,000 balioan finkatzen da. Desbideratze tipikoa, berriz, 1,155ekoa da.


7.1.6.3 Taula: Gerturatze maila; diseinuan, hirugarren sektorea era informatiboan

Gerturatze maila	I. Txanda	II. Txanda
Batez bestekoa	1,385	2
Desbideratze Tipikoa	0,506	1,155

Iturria: Geuk egina (2014)

Lehen txandan iritziak bateratuagoak bazeuden, adituen %100ak hirugarren sektorea eta beste eragile sozialak era informatiboan bakarrik kontuan izatearen aurka (1 eta 2), bigarren txandan goranzko lerratze bat ematen da % 15a erdian kokatuz (3) eta beste % 8a era informatiboan bakarrik aintzat hartzearen alde agertuz (5). Mugimendu honek eragina du batez bestekoaren balioan 1,385etik 2,000ra pasatuz eta desbideratze tipikoan 0,506tik 1,155era igoz. Hau dela eta, aldagai honetan gerturatze bat baino gehiago urrunketa bat ematen da.

7.1.6.2 Grafikoa: Politikoen eta teknikoen balorazioa; diseinuan, hirugarren sektorea era informatiboan



Iturria: Geuk egina (2014)

Politikoen %88ek ez dute ondo ikusten gizarte zerbitzu publikoak diseinatzerakoan hirugarren sektorea eta beste eragile sozialak bakarrik era informatiboan kontuan hartzea (1 eta 2) eta gelditzen diren beste %12ek ez dute posiziorik hartzen (3). Teknikoen kasuan, berriz, %60ra jaisten da hirugarren sektorea eta eragile sozialak bakarrik era informatiboan kontuan hartzea ados ez daudenak. Ados daudenak, berriz, %20 dira (5), erdian beste %20 gelditzen direlarik.


7.1.7 Ados al zaude Gipuzkoako Diputazioak, Gipuzkoako gizarte zerbitzu publikoak diseinatzerakoan, hirugarren sektorea eta beste eragile sozialak aintzakotzat hartu behar dituela era kontsultiboan bakarrik? (1 Desadostasun Osoa eta 5 Adostasun Osoa)

7.1.7.1 Taula: Diseinuan, hirugarren sektorea era kontsultiboan bakarrik

1 ez ados, 5 ados	KOPURUA	EHUNEKOAK
1	1	8%
2	3	23%
3	3	23%
4	4	31%
5	2	15%
ED/EE	0	0%
GUZTIRA	13	100

Iturria: Geuk egina (2014)

7.1.7.1 Grafikoa: Diseinuan, hirugarren sektorea era kontsultiboan bakarrik



Iturria: Geuk egina (2014)

Bestalde, adituen %31ak ez du ondo ikusten hirugarren sektorea eta eragile sozialak era kontsultiboan bakarrik hartzea (1 eta 2). Aldekoen jarrera, berriz, %46koa da (4 eta 5). Erdian, ez alde eta ez kontra, adituen % 23 kokatzen da (3).

7.1.7.2 Taula: Batez bestekoa eta desbideratze tipikoa; hirugarren sektorea era kontsultiboan

Azterketa teknikoa	
Batez bestekoa	3,231
Desbideraketa tipikoa	1,235
Laginaren tamaina	13

Iturria: Geuk egina (2014)

Batez bestekoa 3,231an kokatzen da eta desbideratze tipikoa 1,235ean.


7.1.7.3 Taula: Gerturatze maila; hirugarren sektorea era kontsultiboan bakarrik

Gerturatze maila	I. Txanda	II. Txanda
Batez bestekoa	2,692	3,231
Desbideratze Tipikoa	1,377	1,235

Iturria: Geuk egina (2014)

Alde batetik, esan dezakegu bigarren txandak balio izan duela adituek jarrera argiagoak hartzeko eta erdiguneko ehunekoa (3) %31tik %23ra jaisteko. Bestetik, bigarren txandan bikoiztu egin dira parte hartze kontsultiboaren aldeko iritzia %23tik %46ra. Ondorioz, batez bestekoa 2,692tik 3,231ra igaro da. Horrekin batera, gerturatze maila handitu egin da desbideratze tipikoa 1,377tik 1,235era jaitziz. Laburbilduz, lehen txandatik bigarreneira iritzi bateratze bat eta lerratze argi bat eman da jarrera kontsultiboak bakarrik indartzearen alde (4 eta 5).

7.1.7.2. Grafikoa: Politikoen eta teknikoen balorazioa; diseinuan, hirugarren sektorea era kontsultiboan bakarrik



Iturria: Geuk egina (2014)

Politikarien erdiek (%50) ez dute ondo ikusten (1 eta 2) hirugarren sektorea eta eragile sozialak era kontsultiboan bakarrik parte hartzea. Ikusten dutenak, berriz, %25 dira (4) eta beste %25a erdian (3) kokatzen da. Teknikoen kasuan, gehiengo osoak (%80) ondo ikusten du hirugarren sektorea eta eragile sozialak era kontsultiboan bakarrik parte hartzea (4 eta 5), kontrako iritzirik (1 eta 2) ez dago (%0) eta gelditzen den beste %20a erdian kokatzen da (3).


7.1.8 Ados al zaude Gipuzkoako Diputazioak, Gipuzkoako gizarte zerbitzu publikoak diseinatzerakoan, hirugarren sektorea eta beste eragile sozialak aintzakotzat hartu behar dituela erabakiak modu partekatuan hartzeko? (1 izanik Desadostasun Osoa eta 5 izanik Adostasun Osoa)

7.1.8.1 Taula: Diseinuan, hirugarren sektorearekin erabakiak modu partekatuan

1 ez ados, 5 ados	KOPURUA	EHUNekoETAN
1	0	0%
2	4	31%
3	2	15%
4	6	46%
5	1	8%
ED/EE	0	0%
GUZTIRA	13	100

Iturria: Geuk egina (2014)

7.1.8.1 Grafikoa: Diseinuan, hirugarren sektorearekin erabakiak modu partekatuan



Iturria: Geuk egina (2014)

Gainera, adituen %54a erabakiak modu partekatuan hartzearen alde agertu da (4 eta 5). Hala ere, egon diren ekarpen gehienetan, jarrera honen aldekoek azpimarratu dute azken hitza, desadostasuna egon ezker, erakunde publikoarena izan behar duela. Jarrera honen kontra, berriz, %31a agertzen da (1 eta 2) eta erdian (3) %15.

7.1.8.2 Taula: Batez bestekoa eta desbideratze tipikoa; diseinuan, hirugarren sektorearekin erabakiak modu partekatuan

Azterketa teknikoa	
Batez bestekoa	3,308
Desbideratze tipikoa	1,032
Laginaren tamaina	13

Iturria: Geuk egina (2014)

Erabakiak modu partekatuan hartzearen aldeko jarrera garaile atera delako batez bestekoa 3,308ra iritsi da. Desbideratze tipikoa, berriz, 1,032an gelditu da.


7.1.8.3 Taula: Gerturatze maila; diseinuan, hirugarren sektorearekin erabakiak modu partekatuan

Gerturatze maila	I. Txanda	II. Txanda
Batez bestekoa	3,462	3,308
Desbideratze Tipikoa	1,05	1,032

Iturria: Geuk egina (2014)

Lehen txandatik bigarren txandara erabakiak modu partekatuan hartzearen aldeko jarrera zerbait apaldu egin da, %62tik %54ra jaitsiz (4 eta 5) eta, honen ondorioz, batez bestekoa 3,462tik 3,308ra pasa da. Gerturatze maila ere handitu egin da, desbideratze tipikoa 1,050etik 1,032ra joanez.

7.1.8.2 Grafikoa: Politikoen eta teknikoek balorazioa; diseinuan, hirugarren sektorearekin erabakiak modu partekatuan



Iturria: Geuk egina (2014)

Politikarien %62ek esaten dute erabakiak modu partekatuan hartu behar direla hirugarren sektorea eta eragile sozialekin batera. Kontra daudenak, berriz, %13 dira eta erdian %25 kokatzen dira. Bestalde, teknikarien kasuan modu partekatuen aldekoak % 40ra jaisten dira(4) eta kontrakoak %60ra igo (2).

Bai politikariek eta baita ere teknikoek azpimarratu dute azken hitza beti Administrazioarena izan behar duela.

**7.1.9. Adituen hausnarketa kualitatiboak bigarren arlo honi buruz (6, 7 eta 8. galderak):
GIZARTE ZERBITZUEN DISEINUARI BURUZ. Adituek, arlo honi buruz, egin dituzten
hausnarketak euren erantzunak argitu eta garatzeko:**

Lehen txanda

-Erantzun gabeko galderak: 6

-Jasotako erantzunak: 7

- 1.- “Egon daitezke hainbat gai politikoki erabaki behar izanak”.
- 2.- “Foru Aldundia ez da Gipuzkoako gizarte zerbitzuen arduradun bakarra. Eusko Jaurlaritza eta udalak ere hor daude”.
- 3.- “Kontsultatu eta elkarrekin hausnartu behar dira erabakiak, baina hartzea eta ondorioei aurre egitea Gipuzkoako Diputazioari dagokio. Gipuzkoarrek horretarako izendatzen dute herritarrek”.
- 4.- “Gizarte zerbitzuen sistemaren ardura eta erantzukizuna publikoa baldin bada, erakunde publikoei dagokie erabakiak hartzea. Baina prozesu horretan (planifikatu, ezarri eta ebaluatu) hirugarren sektorearen, erabiltzaileen, beste sistemen eta beste eragile batzuen parte hartzea ezinbestekoa da”.
- 5.- “Hirugarren sektorearen parte hartzea erabaketan ezinbestekoa da, hala ere, azken hitza Diputazioarena izan behar du”.
- 6.- “Argi geratu beharko litzateke adostasunik ez badago, azken erabakia Administrazioari dagokiola”.
- 7.- “Gauza bat da honen inguruan teorizatzea eta beste bat politika publikoak martxan jartzea. Mundu ideal batean erabakiak hirugarren sektorearekin partekatu beharko lirateke, baina praktikan, askotan, ikusten da zenbait eragilek interes pribatiboak dauzkatela ez datozenak bat politikaren eraikitze demokratikoarekin. Beraz, nire ustez, kasuz kasu hausnartu behar da zein puntutaraino iritsi behar den eragileen parte hartzea”.

Bigarren txanda

-Erantzun gabeko galderak: 9

-Jasotako erantzunak: 4

- 1.- “Erabakiak modu partekatuan baina azken hitza Administrazioarena”.
- 2.- “Esan nuen bezala, kontsulta eta adostasunaren aldekoa naiz baina ahaztu gabe ardura Diputazioarena dela, boto emaileek erakunde horren gobernuari eman baitiote”.
- 3.- “Erantzukizuna administrazioari dagokio, berea da ardura osoa. Hirugarren sektoreak asko du esateko eta kudeatzeko baina administrazioa da sistemaren garantea”.
- 4.- “Zenbaitetan eragileak instituzioaren ezkerrean kokatzen dira, beste zenbaitetan beste aldera gertatzen da. Beraz, nahiz eta, printzipioz, erabakiak hirugarren sektorearekin partekatzearekin ados egon, instituzioa bere ideologiarekin koherente izan behar dela uste dut”.

Bigarren arloa: Hausnarketa orokorra arlo osoari buruz (6, 7, 8 eta 9. galdera): GIZARTE ZERBITZUEN DISEINUARI BURUZ.

Delphi prozesuaren bitartez arlo honetako posizioak argitu eta bateratzen joan dira. Lehen txandako hausnarketak eta iritziak konpartitu ondoren lerratze prozesu argi bat eman da jarrera kontsultiboaren alde. Jarrera kontsultiboa indartu den heinean erabaki partekatua apaldu egin da. Prozesu hau eman da ekarpenen bitartez eztabaidaren muina kokatu delako erabaki partekatua bultzatzen duten guztiek argi ikusten dutelako kasu honetan azken hitza Administrazioaren eskuetan egon behar duela esanez:

“Kontsultatu eta elkarrekin hausnartu behar dira erabakiak, baina hartzea eta ondorioei aurre egitea Gipuzkoako Diputazioari dagokio. Gipuzkoarrek horretarako izendatzen dute herritarrek”. (Adituek Delphiaren bigarren atalean, 7.1.9. puntuan, egindako hausnarketa kualitatiboak. Hemendik aurrera hausnarketa horiek (A2) bezala ezagutuko ditugu)

“Gizarte zerbitzuen sistemaren ardura eta erantzukizuna publikoa baldin bada, erakunde publikoei dagokie erabakiak hartzea. Baina prozesu horretan (planifikatu, ezarri eta ebaluatu) hirugarren sektorearen, erabiltzaileen, beste sistemen eta beste eragile batzuen parte hartzea ezinbestekoa da”. (A2)

“Hirugarren sektorearen parte hartzea erabakietan ezinbestekoa da, hala ere, azken hitza Diputazioarena izan behar du”. (A2)

“Argi geratu beharko litzateke adostasunik ez badago, azken erabakia administrazioari dagokiola”. (A2)

“Erabakiak modu partekatuan baina azken hitza administrazioarena”. (A2)

“Esan nuen bezala, kontsulta eta adostasunaren aldekoa naiz baina ahaztu gabe ardura Diputazioarena dela, boto emaileek erakunde horren gobernuari eman baitiote”. (A2)

“Erantzukizuna administrazioari dagokio, berea da ardura osoa. Hirugarren sektoreak asko du esateko eta kudeatzeko baina administrazioa da sistemaren garatea”. (A2)

Delphi prozesua amaitu ondoren esan daiteke adituen erdiak baino gehiago (%54) erabakiak hirugarren sektorea eta beste eragile sozialekin modu partekatuan hartzeko prest daudela (4 eta 5), beti ere argi utzita azken hitza Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskuetan dagoela. Gainera, erabakiak modu partekatuan hartzeko prest ez daudenen kopurua ere esangarria da (%31) (2).

Era berean, adituen ia erdiek (%46) (4 eta 5) ondo ikusten dute Gipuzkoako Foru Aldundiak hirugarren sektorea eta beste eragile sozialak aintzakotzat hartzea era kontsultiboan bakarrik. Kasu honetan ere erabakiak modu kontsultiboan hartzeko prest ez daudenen kopurua azpimarratzekoa da (%31) (1 eta 2).

Baita ere, argi gelditzen da adituen artean ez dagoela ondo ikusia Gipuzkoako Foru Aldundiak hirugarren sektorea eta beste eragile sozialak aintzakotzat hartzea era informatiboan bakarrik (%76)(1 eta 2).

Jasotako iritzien artean aipatu behar da hirugarren sektorea eta beste eragile sozialekiko mesfidantza puntu bat agertzen dela. Nahiz eta eragile sozialen parte hartzea ezinbestekoa kontsideratzen den, gero praktikan kontu handiz ibili behar da tartean interes pribatu asko daudelako:

“Gauza bat da honen inguruan teorizatzea eta beste bat politika publikoak martxan jartzea. Mundu ideal batean erabakiak 3. sektorearekin partekatu beharko lirateke, baina praktikan, askotan, ikusten da zenbait eragilek interes pribatiboak dauzkatela ez datozenak bat politikaren eraikitze demokratikoarekin. Beraz, nire ustez, kasuz kasu hausnartu behar da zein puntutaraino iritsi behar den eragileen parte hartzea”. (A2)

Politikoen eta teknikoen posizioak bakoitza bere aldetik aztertzen badira zenbait ñabardura azpimarratu daitezke.

Alde batetik, bi eremuetan ez da ondo ikusten gizarte zerbitzu publikoak diseinatzerakoan hirugarren sektorea eta beste eragile sozialak bakarrik era informatiboan kontuan hartzea. Beti ere, politikoen teknikoek baino kontrako posizio argiagoa dute. Hau da, politikoen %88k ez dute ondo ikusten gizarte zerbitzu publikoak diseinatzerakoan hirugarren sektorea eta beste eragile sozialak bakarrik era informatiboan kontuan hartzea (1 eta 2) eta teknikoen kasuan, berriz, %60ra jaisten da.

Bestetik, berriz, zehaztasunak zehaztasun, politikariek hobeto ikusten dute erabakiak modu partekatuan hartu behar direla hirugarren sektorea eta eragile sozialekin batera eta teknikoek, berriz, nahiago dute hirugarren sektorea eta eragile sozialak era kontsultiboan bakarrik hartzea. Hori bai, bi eremuetan adostasun osoa dago iritzi kontrajarriaren bat dagoenean beti azken hitza Administrazioarena izan behar duela. Hau da, politikarien

%62k esaten dute erabakiak modu partekatuan hartu behar direla hirugarren sektorea eta eragile sozialekin batera. Bestalde, teknikarien kasuan modu partekatuaren aldekoak % 40ra jaisten dira(4). Teknikoen kasuan, berriz, gehiengo osoak (%80) ondo ikusten du hirugarren sektorea eta eragile sozialak era kontsultiboan bakarrik parte hartzea (4 eta 5) eta politikarien multzoan %25ra jaisten dira ondo ikusten dutenak (4).

Zehaztasunetan sartu ezker teknikoek argi ikusten dute eredu kontsultiboaren aldeko apustua egin behar dela. Hain zuzen ere, teknikoen ustez, informazio asko dago sektorean administrazioetik kanpo eta informazio hori jasota eta prozesatuta Administrazioak erabakiak hartu behar ditu:

“Planifikatzeko garaian bai informazioa eskuratu behar duzula eta bai kontsultatu behar duzula baino erabakia guria da. Bestela gertatuko da lehenago aipatutakoa. Sortzen direla gauzak ekimen pribatuaren bidez eta gauza horiek non kokatu. Momentu honetan inori ez zaio okurrituko eskola bat sortzea ez dakit non mapa nolabait ere aztertu gabe. Nik sortzen badut ikastetxe bat hemen pentsatzen det hezkuntza sailak baimena eman ala ez baloratuko du zer mapa dagoen zer oferta dagoen, nola dagoen, zerrendak dauden, ez dakit zer indikadoreak erabiliko dituen baino seguramente ez du baimenik emango horrela, begiratu gabe. Ba gauza bera, zeinek ematen du baimena ikastetxe bat irekitzeko edo aula bat irekitzeko edo ez dakit zer DBH emateko edo ez. Horrek esan nahi du aztertuko dituela indikadore batzuk baino sistema publikoa da Eusko Jaurlaritza. Ardura beriena da. Kontsultatu behar dugu. Nola ez. Informazio asko dago hemendik kanpo. Baina informazio guztia hartuta erabaki bestela txanpinoiak ditugu. Txanpinoi asko ditugu zerbitzu sozialetan. Ekimen asko daude oso txikiak autoenpleguarekin oso lotuta baino horiek integratu egin behar dira. Konplikatu da”. (T)

Baino beti ere teknikoek argi dute azkeneko hitza Administrazioak hartu behar duela eta planifikazioa bertatik egin behar dela:

“Bai baino azkenen zuk hartu behar dituzu erabakiak. Eta hartu behar dituzu lehentasunak eta honi bai eta besteari ez. Eta hori bai garbi azaldu behar duzu zergatik, hori bai eta besteari zergatik ez. Hau da, zer kriterio erabili dituzu zeintzuk izan diren zuk planifikatzeko garaian hartutako indikadoreak, lehentasunak. Azaldu behar da mapa. Baina adibidez mobida horretan bertan departamenduan bukatu dugu datozen urteetarako mapa. Orain ez dakit aprobatuta dagoen edo ez baino egina dago. Hemendikan lan teknikoa eta politikoa bukatu da. Orain ez dakit zer egingo duten BBNetara eraman nahi zuten e.a. Baina nolabait ere mapa hau egiteko garaian bai kontsultatu dela eta bai egin direla zerak eta abar baino planifikazioa izan da hemendikan. Eta jarri dira nolabait ere non dauden gabeziak non dauden lehentasunak demandak zer aldaketak sortarazten ari diren non dauden itsaron zerrendak zer nolakoak, definitu behar dituzu zure

kobertura tasak". (T)

Gainera teknikoak jakitun dira praktikan sektoreko eragileekin behar dena baino gutxiago konpartitzen direla ikuspegiak arloa antolatzeke garaian. Udalekin ere ez da behar den bezalako lana egin:

"Gutxi. Zergatik? Ezin dizut esplikatu. Ez, Lan tekniko-politikoak izan da. Batera. Hor bai batera joan gara. Baina ez dakit. Ezin dizut esplikatu zergatik konpartitu den gutxi. Inklusio konpartitu da gutxi udalekin. Hombre, gure zerbitzuen probisioa da. Hau da, zer nolako oferta egingo nahi dugu zer nolako intentsidadearekin Baina nik uste det agian gehiago landu behar zela. Hombre, gero agian operatibitatea da. Da departamendu osoa. Horretarako dago planifikazioa hemen. Da departamendu osoa datozen 3-4 urtetan 2017 bitartean zer nolako mapa.2017an zer mapa behar dugun. Mapa da. Bai legislatura hontan". (T)

Hori dela eta, errealitatea hau bada, gero teknikoen ustez kontraesankorra da politikoen dena eragile sozialekin modu partekatuan egin behar dela esatea:

"Hombre, badaude Kontseilu Kontsultiboak. Ez dakit gure esparruan ez dago baino pentsatzen det eramango zutela hara, seguraski tratatu dela hor, baino ezin dizut ziurtatu. Hori hobeto esango dizute beste batzuk. Hori da klabea. Mapa oraintxe bertan itxi dugu. 2017ko bitartekoak eta definitu egin da. Hau da, espazio bakoitzean ze plazak, lotuta dago plazekin eta departamenduaren eginkizuna ez da plaza bakarra. Askoz gehiago da, hau da, adibidez programak eta historiak. Baina plazak asko markatzen du. Plaza bat irekitzeak, diskapazidadean edo adin nagusian edo eguneko zentroan edo salud mental edo, hori irekitzeak markatzen du etorkizuna. Hau da hori da gure departamenduak egin duen oferta eta egia esan nik uste dut esan daitekeela gutxi landu dala kanpoan". (T)

Politikoen artean hausnarketa desberdinak atera dira eredu publikoa eta gestio partekatuaren arteko ikuspegietan. Politiko batzuk azpimarratu dute, nahiz eta eredu partekatuaren aldeko apustua egin, logikoa dela eredu kontsultiboa ateratzea garaile, hain zuzen ere, interes orokorra atera behar delako garaile. Gainera, horientzat denbora faktore garrantzitsu bat da eredu kontsultiboa indartuta ateratzeko:

"Uste dut hemen pixka bat ba diseinuak egiterakoan ikuspegi orokor hori pixka bat norbanakoaren interesetik haruntzago doan interes orokorrik hori bermatu behar dela modu batean edo bestean. Nik uste dut nahiko logikoa dela kontsultiboan, partekatuan baino azken hitza administrazioak eduki behar duela. Nik iruditzen zait pixka bat jendeak garbi eta garbi nola funtzionatzen duten ikusita logikoa da modu horretan egitea diseinua. Denbora da faktore inportantea. Eredu partekatuak askoz ere erritmo motelagoa dauka eredu kontsultiboak baino. Jarrerak berak, ohiturak berak eramaten zaituela modelo kontsultibora eta gero beste

gauza bat esanda kontraesankorra da eredu publiko bat defendatu eta gero esatea hirugarren sektorearekin modu partekatuan hartuko direla erabakiak". (P)

Beste politiko batzuentzat argitu beharko da "publiko" hitzak administrazio sektorea bakarrik hartzen duen edo kontzeptu askoz zabalagoa den gizarte bateko herritarrak eta gizarte-eragileak bertan sartuz:

"Argitu behar genuke publikoa administrazio sektorea bakarrik den edo beste herritar batzuk dauden hirugarren sektorearen gain. Kudeaketaz hitz egiten dugunean kudeaketa izan daiteke hirugarren sektoreko eragileena edo nik ez dakit ez zer puntura arte herri den edo publiko espresio bat den, publikoarena izan dezake, gizartearena esan nahi dut. Eta gero, bestalde, nire ustez hor egon daiteke nabardura zer den hirugarren sektorea eta ikuspuntu bakarra izatea hirugarren sektorea da kudeaketa egin behar duena edo gero. Eurek esaten bazuten arazoa zela diseinua parte hartu dezake hirugarren sektorea eta gero eredia publikoa izan. Nik ez dut ikusten hainbesteko kontraesana". (P)

Gainera politiko baten batek ere eredu publikoa ulertzen du herri erantzukizun baten erantzule eta horregatik eredu hau argi eta garbi bultzatzen bada ez da inongo kontrasterik egin behar edo erabaki partekaturik hartu behar sektoreko gizarte-eragileekin:

"Eredu publiko batetara joaten bazara azkenean herriko erantzukizun bat daukazu. Ez duzu kanpoarekin ez kontrastea ez erabakia partekatu behar. Normalean nire ustez gainera bizi izan dugu gizarte zerbitzuetan progresio bat dagoela kasu batzuetan eragileekin batuak elkarrekin hasi direnak eta gero adibidez zerbitzu hori sortu egin da. Askotan, klaro, elkarre horiek jarraitzeko aukera daukate agian zerbitzu hori ez da denon gustura ematen edo sektore berdina izan beste profil batzuetara edo beste ekimen batzuetara zabaldu daitezke eta gero horrek berriz ere administrazioak bere gain hartu. Nik adibidez dinamika hori begi onez ikusten dut. Orduan gaur egun ez litzateke izango eurek esandako azken hitz hori kontutan hartzea eta hori izan baliteke prozedura partehartzea bermatzea. Nire ustez". (P)

Politikoentzat eztabaida honen gakoa izan daiteke erantzukizun publikoa eta kudeaketa publikoaren artean desberdintzea. Bi esparru horiek ondo desberdintzen badira gero eragile sozial askorekin eredu partekatua aplikatzea errazagoa izango da, beti ere sektoreko eragileekin ikuspegi orokorretan sintonia politikoa badago. Bestela ezinezkoa izango litzateke:

"Nik uste dut eredia da erantzukizun publikokoa. Erantzukizuna publikoa da. Eta gero kudeaketa hitzartuta dagoenean izan daiteke erantzukizun publikoa. Hemen norbait egon behar du bermatzeko hau dela denon onerako nolabait esateko. Nik uste dut hori dela erantzukizun publikoa. Guk ez dugu bakarrik begiratzen

sektore bat, partikular bat, legitimo izan daitekeen, erakunde batena edo sektore batena edo eragile batena edo enpresariala. Hemen badago erakunde bat bilatzen duela begiratzen duena dena, gizartearen onerako izatea, ari dela orekatzen. Hori da erantzukizun publikoa. Gero dago, kudeaketa publikoa. Kudeaketa publikoa izan daiteke publikoa edo partziala ere bai. Ez dakit noraino nik uste det nik esan nahi dudana da erantzukizun publikoa izan behar duela. Ordun, azken hitza bermatzeko hori dela denon onerako edo gehienena edo proiektu baten onerako da publikoa. Eta gero mila kasu sortzen dira. Baldin badaukazu eragile batzuk parte hartzaile batzuk onda horretan daudenak baino normalean ikusten diren dinamika izango dira konpartituagoa, sintonia baldin badago. Zuen eragileekin baldinbaduzu sintonia bat gero erabakia erantzukizun publikoa izango da baino gero erabakiak partekatuko dira gehiegi. Ez badira ondakoak eta sortzen badira gatazkak edo desadostasunak hor azken hitza izango du administrazioak eta horrela beharko du. Nik uste. Hori nik uste ona dela. Ordun honetan ez dakit. Administrazio bat itxita dago eta kontsultibo esaten dugunean, defentsiboa, depende zer esparruan dauden. Eragile askorekin ahal degu partekatu erabakiak askok onda berean gaudelako. Eta beste dinamika batzuetan ezinezkoa da. Izango da entzun eta guk argi dugu hemendikan joan behar dela. Nik ez dakit. Gero mugak gauza batzutan". (P)

"Nik uste dut hortan ere askotan atera dela beste arlo batzutan eta da bueno nik ados egon naiteke partekatua izatearena edo parte hartze prozesu horretan adostasun batera iristea baldin eta nire pentsamenduak edo nire zeak nik ditudan ereduak eta nire tratamendu moldeak kontrari ez badira agertzen bestela ez nuke egingo. Izan ere posible da partekatzen duzu baino etortzen diren eragileek beste iritzikoak diren eta gainera kontra dioa zuk planteatzen duzunarekin. Orduan nik uste dut ere oso garbi eduki behar dugula, kasu horietan esatea, ez hemendikan ez garela pasako. Eta hori askotan izanda ere sindikatuekin ordu estrarena. Langileen asanblada izan daiteke ordu estrak egin nahi dituztela baino sindikatu bezala zuk oso argi barneratuta baldin badaukazu ordu estren kontra jarrera daukazula hortik ez zarela pasatuko nahiz eta asanblada horretan esateak. Ta nire igual kontrajarriak izan daitezkeela gero ateratzen da hortikan". (P)

Politikoez ere argi dute errealitatean erdibide asko daudela, eragileekin lan egiteko modu asko, baino azken hitza beti Administrazioarena izan behar dela:

"Errealitatean erdibide asko daude eta abar. Horregatik hemen argi eta argi ikusi dugu denak gutxienez irekita eragileekin iritziarekin kontatzeko eta aztertze bako beti azken hitza administrazioan. Hori izan da orokorra atal guztietan eta nik uste dut hori konfirmatzen dela". (P)

HIRUGARREN ARLOA: GIZARTE ZERBITZUAK EMATEKO GARAIAIN


7.1.10 Ados al zaude Gipuzkoako Diputazioarentzat KONTZERTAZIOA (gestio-kontratua edo diru-laguntzen bidez) hirugarren sektoreko eragileekin eta enpresa pribatuekin dela markorik egokiena gizarte zerbitzu publikoak emateko ? (1 Desadostasun Osoa eta 5 Adostasun Osoa)

7.1.10.1 Taula: Ematerako garaian, kontzertazioa eredurik egokiena

1 ez ados, 5 ados	KOPURUA	EHUNEKOETAN
1	0	0%
2	2	15%
3	6	46%
4	4	31%
5	0	0%
ED/EE	1	8%
GUZTIRA	13	100

Iturria: Geuk egina (2014)

7.1.10.1 Grafikoa: Ematerako garaian, kontzertazioa eredurik egokiena



Iturria: Geuk egina (2014)

Gizarte zerbitzuak emateko garaian adituek ez dute argi Kontzertazioa hirugarren sektoreko eragileekin eta enpresa pribatuekin dela markorik egokiena gizarte zerbitzu publikoak emateko. Alde batetik, adituen %54ak ez du posiziorik hartzen. Horien artean, adituen %8ak ez daki edo ez du erantzuten eta adituen %46 erdian gelditzen da (3), alde edo kontra egin gabe. Bestetik, adituen %31 kontzertazioaren alde agertzen da (4) eta %15 kontra (2).

7.1.10.2 Taula: Batez bestekoa eta desbideratze tipikoa; ematerako garaian, kontzertazioa egokiena

Azterketa teknikoa	
Batez bestekoa	3,167
Desbideratze tipikoa	0,718
Laginaren tamaina	13

Iturria: Geuk egina (2014)

Kontzertazioaren inguruko zehaztugabetasun horrek eraginda batez bestekoa 3,167an kokatzen da. Balio hau aztertzeko garaian kontuan hartu behar da erdiko puntuazioak (3) eduki duen pisua (%46). Kasu honetan, 3 baino handiagoa izanik, adostasunaren esparruan kokatzen da. Bestalde, balio gehienak erdiko balore honen inguruan mugitu direlako desbideratze tipikoa txikia izan da, 0,718.


7.1.10.3 Taula: Gerturatze maila; ematerako garaian, kontzertazioa eredurik egokiena

Gerturatze maila	I. Txanda	II. Txanda
Batez bestekoa	3,25	3,167
Desbideratze Tipikoa	1,215	0,718

Iturria: Geuk egina (2014)

Lehenbiziko txandatik bigarrenera adituen iritziak lerrokatu eta bildu egin dira erdiko puntu horretan(3). Aldeko jarrera (4 eta 5) gutxitu egin da, %38tik % 31ra eta kontrako jarrera (1 eta 2) apaldu egin da %23tik %15era. Horren ondorioz, batez bestekoa gerturatu egin da erdirantz, 3,250etik 3,167ra. Desbideratze tipikoa ere uzkurdu egin da, 1,215etik 0,718ra.

7.1.10.2. Grafikoa: Politikoen eta teknikoen balorazioa; ematerako garaian, kontzertazioa eredurik egokiena



Iturria: Geuk egina (2014)

Gizarte zerbitzuak emateko garaian politikoak eta teknikoak ez dute ikuspegi argi bat kontzertazioari buruz. Politikoen zati garrantzitsu batek (%63) ez du partidurik hartzen (3) edo ez daki edo ez du erantzuten (ED/EE). Teknikoen kasuan, berriz, nahiz eta argitasun falta hori altu mantentzen den, politikoeikiko jaitsi egiten da %40an kokatuz. Bestalde, politikoen kasuan kontzertazioaren aldeko batez bestekoa 2,85 bada, teknikoen kasuan 3,60ra igo egiten da. [1etik 5era]


7.1.11 Ados al zaude Gipuzkoako Diputazioarentzat KONTRATAZIOA (Zerbitzu-Kontratua), klausula sozialak aplikatuz, hirugarren sektoreko eragileekin eta enpresa pribatuekin dela markorik egokiena gizarte zerbitzu publikoak emateko? (1 izanik Desadostasun Osoa eta 5 izanik Adostasun Osoa)

7.1.11.1 Taula: Ematerako garaian, kontratazioa eredurik egokiena

1 ez ados, 5 ados	KOPURUA	EHUNEKOETAN
1	0	0%
2	2	15%
3	7	54%
4	3	23%
5	0	0%
ED/EE	1	8%
GUZTIRA	13	100

Iturria: Geuk egina (2014)

7.1.11.1 Grafikoa: Ematerako garaian, kontratazioa eredurik egokiena



Iturria: Geuk egina (2014)

Gizarte zerbitzuak emateko garaian adituek ere ez dute argi ikusten Kontratazioa hirugarren sektoreko eragileekin eta enpresa pribatuekin dela markorik egokiena gizarte zerbitzu publikoak emateko. Kontzertazioarekin gertatzen den moduan kontratazioarekin ere adituen gehiengoak, %62 kasu honetan, ez du posiziorik hartzen. Horien artean, adituen %8ak ez daki edo ez du erantzuten eta adituen %54 erdian gelditzen da (3), alde edo kontra egin gabe. Bestetik, adituen %23 kontratazioaren alde agertzen da (4) eta %15 kontra (2).

7.1.11.2 Taula: Batez bestekoa eta desbideratze tipikoa; ematerako garaian, kontratazioa egokiena

Azterketa teknikoa	
Batez bestekoa	3,083
Desbideratze tipikoa	0,669
Laginaren tamaina	13

Iturria: Geuk egina (2014)

Kontratazioaren aukeraren inguruan adituen gehiengoek erakutsi duten zehaztasun faltak eraman du batez bestekoa 3,083an kokatzea. Balio hau aztertzeko garaian kontuan hartu behar da erdiko puntuazioak (3) daukan pisua (%54). Beti ere, 3 baino handiagoa denez, adostasunaren aldean gelditzen da. Bestalde, balio gehienak erdiko balore honen inguruan mugitu direlako desbideratze tipikoa txikia izan da, 0,793.


7.1.11.3 Taula: Gerturatze maila; ematerako garaian, kontratazioa egokiena

Gerturatze maila	I. Txanda	II. Txanda
Batez bestekoa	3,083	3,083
Desbideratze Tipikoa	0,793	0,669

Iturria: Geuk egina (2014)

Kontratazioaren kasuan ere, neurketa orokorrean, lehen txandatik bigarrenera adituen iritziak lerrokatu eta bildu egin dira erdirantz, nahiz eta erdiko puntuaren pisua(3) %62tik %54ra jaitsi (3). Adostasun osoaren jarrera (5) gutxitu egin da, %8tik %0ra eta adostasunarena (4) indartu, %8tik %23ra. Kontratazioaren kontrako jarrerari dagokionez, lehenengo txandako balore berdinak mantendu dira, %15 (2). Mugimendu horren ondorioz batez bestekoa lehenengo lekuan geratu bada ere, desbideratze tipikoa urritu egin da, 0,793tik 0,669ra.

7.1.11.2 Grafikoa: Politikoen eta teknikoek emateko garaian, kontratazioa eredurik egokiena



Iturria: Geuk egina (2014)

Gizarte zerbitzuak emateko garaian politikokoak eta teknikoak kontratazioaren kasuan ere ez dute iritzi argi bat. Politikoen %74ek ez du posiziorik hartzen (3) edo ez daki edo ez du erantzuten (ED/EE). Teknikoei dagokionez, kasu honetan ere %40ra jaisten da.

Azkenik, politikoen kasuan kontratazioaren aldeko batez bestekoa 3,00 bada, teknikoek kasuan 3,20ra igotzen da. [1etik 5era]


7.1.12 Ados al zaude Gipuzkoako Diputazioarentzat HITZARMENA (Komenioa) hirugarren sektoreko eragileekin eta enpresa pribatuekin dela markorik egokiena gizarte zerbitzu publikoak emateko ? (1 izanik Desadostasun Osoa eta 5 izanik Adostasun Osoa)

7.1.12.1 Taula: Ematerako garaian, hitzarmena eredurik egokiena

1 ez ados, 5 ados	KOPURUA	EHUNEKOETAN
1	1	8%
2	4	31%
3	6	46%
4	1	8%
5	0	0%
ED/EE	1	8%
GUZTIRA	13	100

Iturria: Geuk egina (2014)

7.1.12.1 Grafikoa: Ematerako garaian, hitzarmena eredurik egokiena



Iturria: Geuk egina (2014)

Azkenik, gizarte zerbitzuak emateko garaian, adituek ere zailtasunak dituzte hitzarmenaren inguruan posizio garbi bat hartzeko. Aukera horretan ere, adituen gehiengoak, %54, ez du posiziorik hartu. Horien artean, adituen %8ak ez daki edo ez du erantzuten eta adituen %46 erdian gelditzen da (3), aldeko edo kontrako jarrera hartu gabe. Bestalde, adituen %8 hitzarmenaren alde agertzen da (4) eta %39 kontra (1 eta 2).

7.1.12.2 Taula: Batez bestekoa eta desbideratze tipikoa; ematerako garaian, hitzarmena egokiena

Azterketa teknikoa	
Batez bestekoa	2,583
Desbideratze tipikoa	0,793
Laginaren tamaina	13

Iturria: Geuk egina (2014)

Hitzarmenaren kasuan ere adituen gehiengoek ez dute jarrera garden bat hartu eta erdiko posizioetan kulunkatu dira. Dena dela, kontzertazioan eta kontratazioan gertatu ez den bezala, hitzarmenaren kasuan batez bestekoa 3 balorearen azpitik gelditu da, 2,583an. Horrek erakusten digu adituen hitzarmenaren kontrako iritziek aldekoenak gainditu dituztela. Desbideratze tipikoa, berriz, 0,793an kokatu da.


7.1.12.3 Taula: Gerturatze maila; ematerako garaian, hitzarmena eredurik egokiena

Gerturatze maila	I. Txanda	II. Txanda
Batez bestekoa	2,583	2,583
Desbideratze Tipikoa	1,084	0,793

Iturria: Geuk egina (2014)

Hitzarmenaren aldagaien lehen txandatik bigarrenera adituen balorazioak bildu egin dira 2,583 batez bestekoaren balioaren inguruan. Ez da kasualitatea desbideratze tipikoa 1,084tik 0,793ra jaitea. Hain zuzen ere, adostasunaren jarrera (4) %15etik %8ra gutxitu da. Hitzarmenaren kontrako jarrerari dagokionez, berriz, desadostasun osoarena (1) %23tik %8ra jaitsi da eta desadostasunarena(2) %8tik %31ra igo da.

7.1.12.2 Grafikoa: Politikoen eta teknikoek balorazioa; ematerako garaian, hitzarmena eredurik egokiena



Iturria: Geuk egina (2014)

Gizarte zerbitzuak emateko garaian politikoei eta teknikoei ere ez dute iritzi argi bat hitzarmena baloratzeko momentuan. Aukera honetan politikoen %50ek ez du posizioirik hartzen (3) edo ez daki edo ez du erantzuten (ED/EE). Teknikoei dagokionez, kasu honetan ere %40ek ez du aukera argi bat egiten.

Amaitzeko, politikoen kasuan hitzarmenaren aldeko batez bestekoa 2,57 bada, teknikoek kasuan 2,6ra igotzen da. [1etik 5era]

7.1.13 Adituen hausnarketa kualitatiboak hirugarren arlo honi buruz (10, 11 eta 12. galderak): GIZARTE ZERBITZUAK EMATEKO GARAIAN. Adituek, arlo honi buruz, egin dituzten hausnarketak euren erantzunak argitu eta garatzeko:

Lehen txanda

-Erantzun gabeko galderak: 8

-Erantzundako galderak: 5

1.- “Zerbitzu jakin bakoitzaren izaeraren arabera aukeratu behar da kasu bakoitzean zein marko den egokiena”.

2.-“ Nere erantzuna, hau da, kontzertazioaren aldeko apustua hipotesi hutsa da, gaur egun halakorik ez baitugu. Gaur egun indarrean dagoen modeloan kontratazioa da hobeto funtzionatzen duen formula: diputazioak erabakitzen baldin badu zeintzuk diren zerbitzu horretan lortu behar diren helburuak, zeintzuk diren sartu-ateratzeko irizpideak, zeintzuk itinerarioak... hobeto bermatzen dira elementu horiek guztiak kontratu baten bidez, hitzarmenen bidez baino. Hitzarmenak balio dezake zerbitzuen karteratik kanpo dauden programak bideratzeko, besterik ez”.

3.- “Ez dago zerbitzu bat kontratatzeke eredu prefekturik, egoerak baldintzatzen du askotan hartu beharreko bidea, dena den “kontratazioa” berme gehiago ematen dizkio Administrazioari”.

4.- “Ez dut oso ondo ulertzen lehengo biren artean dagoen bereizketa teknikoa. Baina iruditzen zaidana da administrazioa burujabe izan behar dela kontratatzeke edo kontzertatzeko, beti ere eragileen eskubideak eta gardentasuna errespetatzen”.

5.- “Harreman formatua baino garrantzizkoagoa da helburuak eta zerbitzu katalogoa definitua eta adostua izatea”.

Bigarren txanda

-Erantzun gabeko galderak: 9

-Erantzundako galderak: 4

1.- “Zaila da neurtzea aukera bakoitzak dituen ondorioak”.

2.- “Hiru aukerak dira baliagarriak zerbitzu motaren arabera. Erakundeak zentroak dituenen, kontzertazioa, hirugarren sektorea programetan sartzen bada hitzarmena eta pribatua beste kasuetan”.

3.- “Zaila da orohar erantzuten, zerbitzu jakin batzuei hobeto egokitzen zaie formula bat edo bestea. Denek daukate abantailak eta gabeziak”.

4.- “Administrazioak definitzen du zein den erabiltzailea, bere profila, zer zerbitzu hartu behar dituen, nolakoak... beraz, gaur dagoen markoan, kontratazioa da formularik egokiena. Baina laster izango dugun kontzertazio dekretuarekin kontzertazioa izango da oso bide interesgarria”.

Hirugarren arloa: Hausnarketa orokorra arlo osoari buruz (10, 11, 12 eta 13. galdera):
GIZARTE ZERBITZUAK EMATEKO GARAIAN.

Ikusienez, gizarte zerbitzuak emateko garaian adituen iritziek zehaztugabetasun handia erakutsi dute. Ez dute jarrera argi bat azaldu gizarte zerbitzuak emateko tresna juridiko desberdinen inguruan. Hain zuzen ere adituen erdiek (%54, %62, %54) ez dute posizio argirik hartu kontzertazioa, kontratazioa eta hitzarmenaren inguruan. Erdian mantendu dira(3) edo ez dute erantzun (ED/EE).

Adituek argudiatu duten arrazoietako bat izan da formatu perfekturik ez dagoela eta askotan zerbitzu jakin baten izaerak eta momentuko egoera zehatzak baldintzatu egiten duela kontzertazioa, kontratazioa edo hitzarmena aukeratzea:

“Zerbitzu jakin bakoitzaren izaeraren arabera aukeratu behar da kasu bakoitzean zein marko den egokiena”. (Adituek Delphiaren hirugarren atalean, 7.1.13. puntuan, egindako hausnarketa kualitatiboak. Hemendik aurrera hausnarketa horiek (A3) bezala ezagutuko dira)

“Ez dago zerbitzu bat kontratatzeke eredu perfekturik, egoerak baldintzatzen du askotan hartu beharreko bidea, dena den “kontratazioa” berme gehiago ematen dizkio administrazioari”. (A3)

“3 aukerak dira baliagarriak zerbitzu motaren arabera. Erakundeak zentroak dituenean, kontzertazioa, hirugarren sektorea programetan sartzen bada hitzarmena eta pribatua beste kasuetan”. (A3)

“Zaila da orohar erantzuten, zerbitzu jakin batzuei hobeto egokitzen zaie formula bat edo bestea. Denek dauzkate abantailak eta gabeziak”. (A3)

Baita ere, adituen batek azpimarratzen du harreman juridikoaren formatuak baino garrantzi gehiago daukala ondo finkatzea helburuak eta zerbitzu katalogoa:

“Harreman formatua baino garrantzizkoagoa da helburuak eta zerbitzu katalogoa definitua eta adostua izatea”. (A3)

Nahiz eta emaitzak nahiko parekoak izan, kontzertazioaren aldeko batzuetan bestekoa 3,16 izan da, kontratazioaren aldekoa 3,08 eta hitzarmenaren aldekoa 2,58. [1etik 5era]

Politikoen eta teknikoen iritziak bakoitzak bere aldetik aztertzen direnean ere antzeko emaitzak jasotzen dira. Hau da, gizarte zerbitzuak emateko garaian politikoei eta

teknikoek ez dute ikuspegi argi bat kontzertazioa, kontratazioa eta hitzarmenari buruz.

Zehaztasunetara sartuz kontzertazioari dagokionez, politikoen zati garrantzitsu batek (%63) ez du partidurik hartzen (3) edo ez daki edo ez du erantzuten (ED/EE). Teknikoen kasuan, berriz, nahiz eta argitasun falta hori altu mantentzen den, politikoekiko jaitsi egiten da %40an kokatuz. Bestalde, politikoen kasuan kontzertazioaren aldeko batez bestekoa 2,85 bada, teknikoek kasuan 3,60ra igo egiten da.

Kontratazioaren kasuan politikoak eta teknikoak ere ez dute iritzi argi bat. Politikoen %74ek ez du posiziorik hartzen (3) edo ez daki edo ez du erantzuten (ED/EE). Teknikoei dagokionez, kasu honetan ere %40ra jaisten da. Azkenik, politikoen kasuan kontratazioaren aldeko batez bestekoa 3,00 bada, teknikoek kasuan 3,20ra igotzen da.

Hitzarmena kontuan hartzen bada politikoek eta teknikoek ere ez dute ideia garbi bat hau baloratzeko momentuan. Aukera honetan politikoen %50ek ez du posiziorik hartzen (3) edo ez daki edo ez du erantzuten (ED/EE). Teknikoei dagokionez, kasu honetan ere %40ek ez du aukera argi bat egiten. Amaitzeko, politikoen kasuan hitzarmenaren aldeko batez bestekoa 2,57 bada, teknikoek kasuan 2,6ra igotzen da.

Nahiz eta politiko eta teknikoek artean iritzi finko bat ez eduki zerbitzua emateko hiru eredu artean teknikoek azpimarratzen dute azken urte hauetan hitzarmenaren aplikazioak arazoak eman dituela. Bereziki administrazio txarraren ondorioz hitzartutako erakundearen galerak sortzen direnean eta gero oso zaila delako egoera hori gestionatzea. Gainera, hitzarmenak, definizioz (nik erakunde bezala nire kabuz sortutako zerbitzuak kudeatzen ditut eta zu Administrazioa diruz laguntzen didazu) talka egiten du administrazio publiko baten zereginarekin (administrazioak zerbitzuen beharrak ondo finkatzea eta gero ikustea nor dagoen kanpoan prestatuta zerbitzu horiek emateko). Orduan, hitzarmenaren bidez kudeatzea ez da zuzena:

“Hitzarmenaren bidez kudeaketa azken urte hauetan departamenduan arazoak eman ditu. Bat-batean elkarte batek hitzarmenaren bidez gauza batzuk kudeatzen dituen, kudeaketa txar batengatik “pufiak” egiten ditu. Puz, hori bideratzea ez dakizu zer konplejua den. Kasi kasi ezinezkoa da. Administrazioan dago “Ley de Contratos del Estado”, definitzen du nola egiten diren gauzak baino gero hitzarmenaren bidez egiten dituzunean dago hutsune bat”. (T)

“Klaro, berez, hitzarmenak definizioz da, hau da, ni naiz hirugarren bat, nire kabuz sortutako gauzak eta nire interesek sortutako gauzak kudeatzen ditut eta zuk diru laguntzen didazu. Baina, klaro, hemen esaten baldin badugu gure zerbitzuen probisioak eta gure zerbitzuak direla hor sortzen dira arazoak. Ya ez da zure kabuz egin nahi duzun zerbait baizik eta nik definitzen det hemen zein sartzen den eta zein ateratzen den. Eta definitzen det zeintzuk diren inklusiorako eta eskusiorako irizpideak. Nolabait esateko altak eta bajak nik eman behar ditut. Bestela ya ez da planifikazio publiko bat. Ya da beste gauza bat. Ordun hor hitzarmenen bidez kudeatzea ez da egokia”. (T)

Horregatik, Teknikoentzat administrazio baten zereginak betetzeko eredurik egokiena kontzertazioa izango litzateke. Administrazioak definitzen du zer mapa nahi duen eta gero ikusten du kanpoan zein den gai zehaztutako zerbitzu horiek emateko:

“Neretzako inportantea da, berriro nator hasierara. Gure eginkizuna kanpoan egiten da. Horrela da modeloa, bale. Baina da hemendikan definitzen duguna. Hemendikan nik esan dut oso argi altak eta bajak hemendikan bideratu behar dira. Hau da, gure zentruan ez da inor sartzen gure oniritzia jaso gabe. Are gehiago guk esaten dugu zuk hara. Adin nagusiko bat ere bai. Badator gaur egun pertsona bat ezintasuna duen pertsona bat eta hemendikan definitu behar da zer behar dituen behar horiek zeinek asetuko ditu hobekien eta abar. Ez da Matia fundazioa dagoela hor eta harrapatzen duela bat era gero esaten digu. Kontzertazioa azken finean zer da, kontratu mota bat. Hezkuntzan gertatzen dena ikastolakin eta kristau eskolakin egiten dena. Baina mapa kontutan hartzen ditu, hiru sareak, kontzertatua, ikastola, beste kontzertazio mota bat edo kontzertazioa eta publikoa. Baina mapan ez dira zapaltzen bata besteari. Teoriaz. Eta mapak eduki behar du ekilibrio bat territoriala, modeloak direla, gauzak direla, bueno, hori da azken finean... Nik esango det zer behar det eta jendeak esango dugu ni ez naiz gai horretarako. Baina nik planifikatzen den, nik esaten det zenbat plaza behar dutudan, non, nolakoak, zer nolakoak, bere ezaugarri guztiekin. Lehen aipatzen genuena, nik daukat mapa hau, zein da gai hau emateko?. Nik, ba bale. Baina aurretikan definitu dudan zer mapa nahi dudan, hau da, zenbat plaza, nolakoak, zer behar dituzten, zer perfil profesionalak horiek asetu ahal izateko, zer nolako... Hori izango litzateke bi hitzetan esanda kontzertazioa. Modelo hortara baldin bagoaz ni tan mal”. (T)

Hala ere, Teknikoen esanetan kontzertazioaren eredu hori ez da oraindik garatu hirugarren sektoreko entitateen presioagatik baino oso mesedegarria izango litzateke kontzertazioaren dekretua garatzea. Pentsatu daiteke hemendik gutxira aterako dela Eusko Jaurlaritzaren dekretua eredu hau zehazki definitzeko. Orokorki eredia ezagutzen da baino oraindik ez dakite praktikoki nola funtzionatuko duen:

“Suposatzen da orain datorrela kontzertazioa. Laster asko auskalo etorriko da dekretu bat Eusko

Jaurlaritzarena hori definitzen duena. Baino zer praktikamente zer izango den ez dugu gehiegi ezagutzen bueno ezagutzen dugu ez dugu praktikan ikusi". (T)

Momentu honetan kontratua eta hitzarmena daude martxan eta teknikoek kontratuaren aldekoak dira hitzarmenak arazo asko eman dielako:

"Baino bueno, momentu honetan dagoena da kontratua eta hitzarmena. Bien artean argi esaten dizut. Ni banao kontratuaren alde, ze hitzarmenak eman dizkit izugarritzko problemak. Bizi izan ditugu problema horiek. Hitzarmena oso ona da ondo dijoanean, baina gauzak okertzen direnean, jai daukazu, benetan, administrazio bezala, erantzun publiko horretatik begira". (T)

Gainera, teknikoen ustez, kontratuan administrazioaren posizioa sendoagoa da. Hitzarmenean, berriz, bi aldeek indar bera dute. Aldiz kontrolerako gaitasun berdina ematen du batak ala bestek. Ogasunak esaten du zerbitzuak kontratu bidez egin behar direla, baino gero ez dago kontratu sistema espezifikorik gizarte zerbitzuentzat eta orduan hitzarmenaren bidez egiten dira, askotan zentzurik ez duenean:

"Hitzarmenarekin klientelismoa egon daiteke. Kontratuarekin ere bai. Zuk kontratatzen duzu gaur egun, berdin zait, CLECE, eta sartu daiteke arduradunaren koinatuak. Ulertzen? Orain, perfil profesionala, guk eskatzen duguna eta abar, ematen duen bitartean, hemendik kanpo dagoena bakoitzak jakingo du nola kontratatzen duen, baldin eta aurretik markatutako perfilak eta betetzen badira. Hitzarmenarekin administrazioaren gustokoak sartzeko aukera suposatzen da ezetz. Suposatzen da kontratazioa dela publikoa, unibertsala eta nahi duzun guztia baino gero bai gertatzen direla mugimenduak, oso nabarmen". (T)

Bestalde, teknikoek diote gero eta zerbitzuak espezializatuagoak direla eta gero eta gehiago kostatzen dela hornitzaile egokiak aurkitzea, bereziki gaur egun Administrazioa sektorearen aurretik doalako. Lehen entitateak administrazioaren aurretik joaten ziren eta atzetik etortzen zen Administrazioa euren egitasmoak finantzatzera. Orain berriz, Administrazioak aurre hartu die eta askotan kostatzen zaio hornitzaile egokiak aurkitzea zerbitzu espezializatu horiek emateko:

"Gero eta zerbitzuak espezializatuagoak izan, batzutan kostatzen da gero eta gehiago probedore egokiak aurkitzea. Hori bai da problema bat. Batzutan, zuk ere atera beharko zenuke kalera probisio horiek lortzeko. Baino, klaro, kontratuaren legeak ez dizu hori onartzen. Administrazioan egonda ezin dituzu horrelako ekimen proaktibo horiek egin. Ez dira estetikoak, ez dira etikoak, eta ez dira ilegalak baino alegalak bai. Orduan, hor daukazu problema bat, hor bai dugula problema bat eta gure problema izan da batzutan eta

departamenduan nik uste det sektore guztietan gertatu dala. Aurretik goazela. Hau da, historikoki hasieran aipatzen genituen Gautena, Atzegi eta gure esparruan beste batzuk ere bai, nolabait ere administrazioaren aurretik zijoazten eta administrazioa atzetik finantziatzen eta bale bale bale, baino momentu honetan alderantziz da. Orain gure erantzukizun publikoari eutsita gu aurretik goaz, guk definitzen, guk hobekuntzak sartzen, nolabait ere prozesu horretan eta kostatzen zaigu arrastrapzea eta nola aurkitu horiek? Nola egiten duzu? Orain konkurtso txiki bat daukagu. Ez da haundia. Asesoria juridikoa. Gure esparruan, "Derecho del menor" eta "derecho de familia" oso espezifikoa da. Eta gainera aldaketa askokin eta oso kasuistika bereziarekin eta behar dugu asesoria bat hortarako. Guk ateratzen dugu konkurtso bat eta presentatzen zaigu Legalitas. Legalitas horrek emango al dit nik behar dudan zerbitzua? Klaro tiratzen ditu prezioak. Legalitas horrek emango al dit nik behar dudan zerbitzua?. Nik baldin badakit zeintzuk diren horretan adituak eta benetan trebatuak eta iaioak ezin det. Ba ezin det. Gero informazioa pasatzen diezu, konkurtsoa aterako da. Beti zaude mugan... Baino ostras, es que baldin badatorkizu Legalitas bat "la has cagado". Eta punto. Esaten duzu, hau nola izan daiteke? Zuk publizitate osoarekin egin behar dituzu konkurtsoak "con igualdad de oportunidades", hori ondo dago baino zenbait gauzetarako "harrapatuta". Joan den astean esaten genuen Kasu honetan, kaleratuko da konkurtso hori eta esaten dugu zer kriterio jartzen dituzu?. Momentu honetan departamenduko konkurtso guztietan, teknikoetan beti prezio da ehuneko erdia, %50. Joder baldin badatorkizu Legalitas bat, azken finean hartzen dituela 4 bekario edo auskalo zer hitzarmen sektoriala dagoen eta abar, azkenean es que agian daukazu problema bat izugarria edo sortea daukazu". (T)

Politiko batzuen aldetik ezagupen falta ikusten da hiru tipologiaren artean benetako iritzia plazaratzeko:

"Nik uste dut behintzat, nik ez dut ondo bereizten tipologia bakoitzak daukan eraginak. Zehaztasun gehiagorik gabe ezingo nuke esan. Behar bada besteei berdin". (P)

"Nik ez dut uste hau erantzun dudarik ez nuelako bereizten. Adituak ez gara bereizketa argia egiteko". (P)

Bestalde, politikoen ustez, hitzarmena eta kontratazioaren arteko aukeraketak alde politikoa eta teknikoa du. Kontratuak berdintasun handiagoa bermatzen du baina hitzarmenak azkartasuna ematen dizu:

"Dauka bere alde politikoa eta teknikoa ere. Askotan, suposatzen da kontratu legeak daukala berdintasun kutsu hori eta hitzarmenak ez daukana, baino hitzarmenera jotzearena badauka bere abantailak, kasu batzutan lortzen duzu errazago argi daukazunean proiektu bat edo badakizunean batzuk betetzen dutela baldintzak. Orduan horretara jotzea nahi duzunean, argi duzunean ekimen bat eta nahi duzunean errazagoa da horretara jotzea. Klaro, alde batetik esaten da hori berdintasunaren aurkakoa bueno es que zer da berdintasuna horrek ere egin dezake talka aukera publiko batekin. Batzutan nire ustez orain arte erabili da

askotan berdintasun hori edo guztientzako aukera hori baino azken batean esan nahi da neutro izango balitz bezala eta hori ez da neutroa". (P)

Gainera, politikoentzat, hitzarmenak gehiago erabiltzen dira elkarrekin eta kontratuak gehiago enpresekin:

"Ordun hemen badaukagu hitzarmenak eta normalean izaten dira elkarrekin eta izaten dira normalean elkarrekin zerbitzu edo programa horiek daudenean. Kontratazioa izaten da guk daukagun baliabide horiek eta ordun ateratzen ditugu hortan eta ordun al mejor postor". (P)

"Orokorrean esan dezakegu gehiago daukagula hitzarmena nik ustez, elkarrekin eta kontratuak gehiago dira enpresekin. Eta hori da arloaren arabera. Adibidez, gizarteratze arloan, zerbitzuak ematen dituzten askok dira elkarrekin, osea, edo desgaitasun arloan, berez da familiak sartutakoak edo elkarrekin problematika arazo bat Gipuzkoan sortu den elkarrekin bat erakundea eta gehiago dauka eragilez haurren eta adinekoen arloan ba gehiago dira kontratuak ze azken batean hor ere ez da egon bilakaera hori". (P)

"Hemen kontratazioa dago bolumen bat zerbitzu nolabait ere finkatuagoak, arautuagoak eta dago konkurrentzia. Daude eragile ezberdinak zerbitzu horiek eman dezaketenak. Orduan hori da perfil tipo ezta. Pues hori, halakoak, zerbitzu juridiko bat, ez dakit zenbat abokatu daude edo egoitza bat edo enpresa asko dago". (P)

"Eta hitzarmena da elkarrekin batetik, Alzer, halako gaixoekin egiten duena eta lan bat egiten du eta zelan hori sustatu. Kasu horretan berari ematea laguntza bat ez dizu problemarik sortzen ez dagoelako ondoan beste ondoan beste elkarrekin bat esaten nik ere nahi dut. Edo Egongo balira 4 elkarrekin edo bost derrigorrez egin beharko zenuke kontratu bat non lehiatu. Baina nola ez dagoenen gehiagorik horren bidez ahal duzu sustatu elkarrekin batzuen lana". (P)

"Ze denek nahi dute hitzarmena eduki. Horrekin ere ziurtatuta daukatela hurrengo urtean ere edukiko dutela holako kopururen bat jasotzen. Bestela Parisera joan behar dutela". (P)

Baina politikoentzat helburu nagusia da aukeratzea erantzukizun publikoa eta kontrola bermatzen duen erdua. Beraientzat hor kokatu behar da eztabaida nagusia. Alde batetik, kalitatea bermatu behar bada kontratua izan daiteke eredurik egokiena prozedura publikoa delako eta kompetentziaren bitartez eskaintza onenari emateko aukera dagoelako. Baina beti ere, lehiaketa horretan neurri batzuk hartzen badira, besteak beste, klausula sozialak eta eskaintza ekonomikoa eta teknikoa ondo baloratzeko bitartekoak. Bestetik, berriz, Administrazioak begi onez ikusten duen entitate zehatz bat bultzatu nahi

badu, dinamika konkretu bat, gauzak egiteko modu bat, orduan, agian, hitzarmenak edo kontzertazioak ematen dio tresna gehiago, hemen ere neurriak hartuz erantzukizun publikoa eta kalitatea lortzeko. Horregatik, politikoen hausnarketa honetan, eredu zehatzari baino gehiago garrantzia eman behar zaio ipintzen diren kontrolei eta betebeharrei erantzukizun publikoa eta kalitatea bermatzeko:

“Europar ikusten dela jarraitzen erantzukizun publikoaren ideiarekin eta kontrol publikoaren ideiarekin. Hortako zein harrimintak ematen dizkizu garantia gehiago? Garantia gehien zerbitzua kalitatezkoa izateko, hor ematen du konkurtsoan nola prozedura publikoa da eta aurkezle desberdinak presentatzen diren hor badaukazula garantia konpetentzia berak eman dizulako onenari emango diozula hori da bat zerk ematen dizu garantia gehiago kalitatea bermatzeko eta bi zerk ematen dizu aukera gehiago zuk lehen esaten zenuen hori zuk faboratzeko entitate konkretu batzuk, dinamika konkretu batzuk, kolektibo konkretu batzuk. Nik uste dut hor dagoela, adibidez teknikoan aldetik bigarren aspektu hau ez zijoan berarekin. Nik administrazio publiko bezala nik ez daukat obligazio bat erakunde konkretu bat faboratzeko. Nik garantizatu behar dut kalitatea, beraz, kontratua. Kontratua da berme gehiago ematen didan sistema, ez? Orain, zuk nahi baduzula entitate konkretu bat bultzatzea administrazio publikotik agian hitzarmenak ematen dizu edo kontzertazioak ematen dizu harriminta gehiago garantia gehiago. Nik uste dut debatea hortik planteatu daitekeela”. (P)

“Orokorrean horrela da. Hori ñabardura askorekin. Ze nik ez dut uste kalitatea ematen dela lehiaketa duzulako. Agian segun, lehiaketa horretan hartzen badituzu neurri batzuk, klausula sozialak, eskaintza ekonomikoan eta teknikoan nola baloratzen dituzun. Hor bada, zuk hartu ahal dituzun neurriak horretan ere kalitate hori bermatzeko ulertuta erantzukizun publikoa eta zerbitzurik onena eskaintzeko. Eta hitzarmenarekin berdin”. (P)

“Ni erabat ados nago. Ez hainbeste forma. Nik uste dut bermatu dezakezula depende zer nolako kontrolak. Kontratazio batera baldin bazoaz zerbitzuen indefinizio batean eta bakarrikan bada prezioa pues izango zen suficiente baino agian ematen den zerbitzuaren barruan atenditzea zaharrak eta en fin bi baino pues klaro eta hitzarmen batean berdin tori laguntza bat giltzurdineko gaixoei laguntzeko eta ordun askotan zer gertatzen da ez dela erabiltzen modu egoki baten. Ez dagoela publikoa berdefinitzen zerbitzuen eta gero ez dituzu jartzen mekanismoak hori kontrolatzeko eta subkontratatu dezakezu ikuskaritzaren bidez kontrato bat edo kontzertazio bat edo hori egiten da eta hitzarmenetan ere ahal dezu gehiago sartu. Gauza askotan erabiltzen dela saihesteko hitzarmena, hori bati emateko ezta, laguntza gero ez zea exigentea, ez duzu kontrolatzen, urte batzuk daramatzate ondo ala gaizki baino ez diozu inoiz galdetu, oso ondo egiten dutela eta hala da edo kontrakoa, ematen duzula eta oso ondo ari dira. Ordun publikoa nola posizionatzen den formula hauek erabiltzeko garaian oso inportantea da. Argi dago ere bai hitzarmen bat duzunean eta ya batzutan hitzarmen txikiak dira, pilotoak, hartzen duten bolumen bat eta dihardute martxa bat eta konkurrentziaz denean, baino kasu horietan jotzen dugu gehiago kontratura”. (P)

LAUGARREN ARLOA: HIRUGARREN SEKTOREA ETA KOOPERATIBAK


7.1.14 Ados al zaude Gipuzkoako Diputazioak, Gipuzkoako gizarte zerbitzu publikoak ematerakoan hirugarren sektoreko partaideak positiboki diskriminatu behar dituela? (1 izanik Desadostasun Osoa eta 5 izanik Adostasun Osoa)

7.1.14.1 Taula: Zerbitzua ematerako garaian hirugarren sektorea positiboki diskriminatu

1 ez ados, 5 ados	KOPURUA	EHUNEKOETAN
1	1	8%
2	1	8%
3	2	15%
4	6	46%
5	3	23%
ED/EE	0	0%
GUZTIRA	13	100

Iturria: Geuk egina (2014)

7.1.14.1 Grafikoa: Zerbitzua ematerako garaian hirugarren sektorea positiboki diskriminatu



Iturria: Geuk egina (2014)

Adituen aldetik jarrera argia agertzen da zerbitzu publikoak ematerakoan hirugarren sektoreko partaideak positiboki diskriminatzearen alde (4 eta 5), %69a. Kontra (1 eta 2), berriz, %16a. Erdian (3), %15a.

7.1.14.2 Taula: Batez bestekoa eta desbideratze tipikoa; zerbitzua emateko garaian hirugarren sektorea positiboki diskriminatu

Azterketa teknikoa	
Batez bestekoa	3,692
Desbideratze tipikoa	1,182
Laginaren Tamaina	13

Iturria: Geuk egina (2014)

Adituen Jarrera positibo horren adierazlea da batez bestekoak 3, 692 balioa hartzen duela, 4tik nahiko gertu. Hain zuzen ere, adituen % 46ek 4 balioa eta %23k 5 balioa aukeratu dute. Kontrako posizioetan, berriz, %16ek desadostasuna erakutsi dute (1 eta 2). Desbideratze tipikoari dagokionez, berriz, 1,182an kokatzen da. Nahiz eta posizio nagusiak adostasunaren inguruan bildu diren, desadostasunen aldeko gutxieneko jarrerak desbideratze tipikoa 1 balioaren gainetik ipini dute.


7.1.14.3 Taula: Gerturatze maila; zerbitzua ematerako garaian hirugarren sektorea positiboki diskriminatu

Gerturatze maila	I. Txanda	II. Txanda
Batez bestekoa	3,769	3,692
Desbideratze Tipikoa	1,166	1,182

Iturria: Geuk egina (2014)

Gerturatze mailari dagokionez mugimendu handirik ez da egon lehen txandatik bigarrenera. Alde batetik, Batez bestekoa zertxobait gutxitu egin da, 0,077 puntu. Eta bestetik, desbideratze tipikoa 0,016 handitu egin da. Eraitza horrek adierazi nahi du adituen gehiengoek hasiera hasieratik zalantza gutxi zituztela hirugarren sektoreko partaideak positiboki diskriminatzearen alde.

7.1.14.2 Grafikoa: Politikoak eta teknikoak balorazioa; zerbitzua ematerako garaian hirugarren sektorea positiboki diskriminatu



Iturria: Geuk egina (2014)

Politikoak zerbitzu publikoak ematerakoan hirugarren sektoreko partaideak positiboki diskriminatzearen alde (4 eta 5) agertzen badira ere, euren ehunekoak aditu guztien %69tik %63ra jaisten da. Kontrako jarrera %12koa da (2) eta erdikoak (3) %25ekoa. Teknikoen aldeko ehunekoak, berriz, % 80ra igotzen da eta kontrako jarrera %20koa da.


7.1.15 Ados al zaude prezioaz gain irizpide sozialak kontuan hartzea (klausula sozialak) garrantzitsua dela hirugarren sektorea eta kooperatibak positiboki diskriminatzeke? (1 izanik Desadostasun Osoa eta 5 izanik Adostasun Osoa)

7.1.15.1 Taula: Klausula sozialak garrantzitsuak

1 ez ados, 5 ados	KOPURUA	EHUNEKOETAN
1	1	8%
2	0	0%
3	1	8%
4	8	62%
5	3	23%
ED/EE	0	0%
GUZTIRA	13	100

Iturria: Geuk egina (2014)

7.1.15.1 Grafikoa: Klausula sozialak garrantzitsuak



Iturria: Geuk egina (2014)

Gainera, adituen %85a bat dator klausula sozialak garrantzitsuak direla hirugarren sektorea eta kooperatibak positiboki diskriminatzeke garaian(4 eta 5). Kontrako iritzia (1) %8koa da eta beste %8a erdian kokatzen da (3).

7.1.15.2 Taula: Batez bestekoa eta desbideratze tipikoa; klausula sozialak garrantzitsuak

Azterketa teknikoa	
Batez bestekoa	3,923
Desbideratze tipikoa	1,038
Laginaren tamaina	13

Iturria: Geuk egina (2014)

Klausula sozialen aldeko iritzi gardenak eramaten du 3,923ko batez bestekoa lortzea, 4tik oso gertu. Desbideratze tipikoa, berriz, 1,038an kokatzen da, bereziki adituen %8a desadostasun osoaren posizioan gelditu delako (1).


7.1.15.3 Taula: Gerturatze maila; klausula sozialak garrantzitsuak

Gerturatze maila	I. Txanda	II. Txanda
Batez bestekoa	4,154	3,923
Desbideratze Tipikoa	0,689	1,038

Iturria: Geuk egina (2014)

Lehenengo txandan eman diren jarrera argiak eta bateratuak klausula sozialen alde (4 eta 5) (%85) errepikatu egin dira bigarren txandan (%85). Dena dela, lehenengo txandan erdian mantendu direnen (3) %15etik bigarren txandan %8ek kontrako jarrera argia hartu dute(1) eta ondorioz, gutxitu egin da batez bestekoa (4,154tik 3,923ra) eta handitu desbideratze tipikoa (0,689tik 1,038ra).

7.1.15.2 Grafikoa: Politikoen eta teknikoen balorazioa; klausula sozialak garrantzitsuak



Iturria: Geuk egina (2014)

Politikoen %87 eta teknikoen %80 klausula sozialen alde agertzen dira (4 eta 5), aditu guztien antzeko maila mantenduz. Kontra, berriz, politikorik ez bada agertzen ere teknikoen %20 aurka daude (1). Erdian (3), Politikoen %12 eta teknikorik ez.


7.1.16 Ados al zaude Gipuzkoako Diputazioak, Gipuzkoako gizarte zerbitzu publikoak ematerakoan hirugarren sektoreko partaideen artean bereziki Kooperatibak diskriminatu behar dituela positiboki? (1 izanik Desadostasun Osoa eta 5 izanik Adostasun Osoa)

7.1.16.1 Taula: Bereziki kooperatibak diskriminatu

1 ez ados, 5 ados	KOPURUA	EHUNEKOETAN
1	1	8%
2	3	23%
3	1	8%
4	6	46%
5	2	15%
ED/EE	0	0%
GUZTIRA	13	100

Iturria: Geuk egina (2014)

7.1.16.1 Grafikoa: Bereziki kooperatibak diskriminatu



Iturria: Geuk egina (2014)

Azkenik, adituen % 61a alde dago (4 eta 5) hirugarren sektoreko partaideen artean bereziki kooperatibak diskriminatu behar direla esaterakoan. Kontra (1 eta 2), berriz, ehuneko esanguratsu bat kokatzen da, adituen %31a. Erdian (3), %8a. Gutxi gora behera, esan daiteke adituen 2/3 kooperatibak diskriminatzearen alde eta 1/3 kooperatibak diskriminatzearen kontra agertzen direla.

7.1.16.2 Taula: Batez bestekoa eta de. tipikoa; bereziki kooperatibak diskriminatu

Azterketa teknikoa	
Batez bestekoa	3,385
Desbideratze tipikoa	1,261
Laginaren tamaina	13

Iturria: Geuk egina (2014)

Batez bestekoa 3,385 da eta desbideratze tipikoa 1,26.


7.1.16.3 Taula: Gerturatze maila; bereziki kooperatibak diskriminatu

Gerturatze maila	I. Txanda	II. Txanda
Batez bestekoa	3,333	3,385
Desbideratze Tipikoa	1,303	1,261

Iturria: Geuk egina (2014)

Lehen txandatik bigarren txandara hirugarren sektoreko partaideen artean bereziki kooperatibak diskriminatu behar direnaren aldeko jarrera indartu egiten da. %53tik %61era pasatzen da. Aldeko jarreraren indarketa hau lehen txandan erantzun ez duen %8ak (ED/EE) bigarren txandan aldeko posizioa hartu duelako da (4 eta 5). Kontrako jarrerak, berriz, mantendu egin dira lehen txandatik bigarrenera (%31)(1 eta 2). Joera honen ondorioz batez bestekoa handitu egiten da, 3,333tik 3,385ra. Era berean, Delphi prozesuan adituen jarrerak zertxobait bildu egin direlako desbideratze tipikoa txikitu egin da 1,303tik 1,261era.

7.1.16.2 Grafikoa: Politikoen eta teknikoek balorazioa; bereziki kooperatibak diskriminatu



Iturria: Geuk egina (2014)

Hirugarren sektoreko partaideen artean bereziki kooperatibak diskriminatu behar direla esaterakoan politikoen %75ek aldeko jarrera dute, %12 kontra daude eta azken %12ak erdian kokatzen dira (3). Teknikoak, berriz, ez dira hain argi posizionatzen: %40 alde (4) eta %60 kontra (1 eta 2).

Era berean, bai politikoen eta teknikoek iritziek azpimarratzen dute kooperatibaren izaera juridikoak ez duela enpresaren izaera soziala bermatzen.

7.1.17 Adituen hausnarketa kualitatiboak laugarren arlo honi buruz (14, 15 eta 16. galderak): HIRUGARREN SEKTOREA ETA KOOPERATIBAK. Adituek, arlo honi buruz, egin dituzten hausnarketak euren erantzunak argitu eta garatzeko:

Lehen txanda

-Erantzun gabeko galderak: 9

-Erantzundako galderak: 4

1.-“Kooperatibak ez dira Hirugarren Sektorea”.

2.- “Arazoa ez da enpresaren izaera juridikoa, barne funtzionamendu demokratikoa baizik”.

3.- “Kooperatibek oso izaera interesgarria dute, baina nire ustez ez dira zertan, beti, lehenetsi behar. Adibidez, zenbaitetan elkarte batekin kontratatzea demokratikoagoa izan daiteke”.

4.- “Zerbitzuaren edukia eta kalitatea egokia izan behar da lehenik eta behin. Aurrekoa bermatzen baldin bada nik positiboki diskriminatuko nituzke. Aurrekoa ez bada bermatzen, ez nituzke positiboki diskriminatuko”.

Bigarren txanda

-Erantzun gabeko galderak: 8

-Erantzundako galderak: 5

1.- “Enpresen izaera juridikoa ez da ezeren bermea”.

2.- “Diskriminazioaren alde nago, baina ez enpresaren molde juridikoaren arabera”.

3.-“Kooperatiba izateak soilik ez du bermatzen enpresaren izaera soziala, ez eta ere zerbitzua emateko gaitasun teknikoa eta etikoa”.

4.- “Galdera hauen sarreran esaten den moduan, kooperatiba izateak ez dut uste plusik ematen duenik izaera demokratikoaren aldetik”.

5.- “Irabazi-asmorik gabeko kooperatiba integralak nahiz elkarteak lehenetsi beharko lirateke, nire ustez”.

**Laugarren arloa: Hausnarketa orokorra arlo osoari buruz (14, 15, 16 eta 17. galdera):
HIRUGARREN SEKTOREA ETA KOOPERATIBAK.**

Adituen aldetik jarrera argia agertzen da zerbitzu publikoak ematerakoan hirugarren sektoreko partaideak positiboki diskriminatzearen alde (4 eta 5), %69a. Kontra (1 eta 2), berriz, %16a. Erdian(3), %15a.

Gainera, adituen %85a bat dator klausula sozialak garrantzitsuak direla hirugarren sektorea eta kooperatibak positiboki diskriminatzeke garaian (4 eta 5). Kontrako iritzia (1) %8koa da eta beste %8a erdian kokatzen da (3).

Azkenik, adituen % 61a alde dago (4 eta 5) hirugarren sektoreko partaideen artean bereziki kooperatibak diskriminatu behar direla esaterakoan. Kontra (1 eta 2), berriz, adituen %31a dago. Erdian (3), %8a.

Iritzi desberdinak jasotzeko momentuan errepikatu den ideia bat da kooperatibaren izaera juridikoak ez duela berez bermatzen zerbitzuaren edukia, kalitatea eta izaera demokratikoa. Hau da, aditu batzuen ustez, izaera juridikoa baino lehen begiratu behar dela ea zerbitzua eta kalitatea egokia den. Hain zuzen ere, pentsatzen dutelako kooperatiba izateak ez duela izaera soziala, gaitasun teknikoa, oinarri etikoa edo antolaketa demokratikoa ziurtatzen:

“Arazoa ez da enpresaren izaera juridikoa, barne funtzionamendu demokratikoa baizik”. (Adituek Delphiaren laugarren atalean, 7.1.17. puntuan, egindako hausnarketa kualitatiboak. Hemendik aurrera hausnarketa horiek (A4) bezala ezagutuko ditugu)

“Kooperatibek oso izaera interesgarria dute, baina nire ustez ez dira zertan, beti, lehenetsi behar. Adibidez, zenbaitetan elkarrekin kontratatzea demokratikoagoa izan daiteke”. (A4)

“ Zerbitzuaren edukia eta kalitatea egokia izan behar da lehenik eta behin. Aurrekoa bermatzen baldin bada nik positiboki diskriminatuko nituzke. Aurrekoa ez bada bermatzen, ez nituzke positiboki diskriminatuko”. (A4)

“Enpresen izaera juridikoa ez da ezeren bermea”. (A4)

“Diskriminazioaren alde nago, baina ez enpresaren molde juridikoaren arabera”. (A4)

“Kooperatiba izateak soilik ez du bermatzen enpresaren izaera soziala eta zerbitzua emateko gaitasun teknikoa

nahiz etikoa". (A4)

"Galdera hauen sarreran esaten den moduan, kooperatiba izateak ez dut uste plusik ematen duenik izaera demokratikoaren aldetik". (A4)

Bestalde, badaude Iritzi batzuk azpimarratzen dutela irabazi asmorik gabeko erakundeak lehenetsi behar direla, kooperatiba izan edo ez izan:

"Irabazi asmorik gabeko kooperatiba integralak, nahiz elkarteak lehenetsi beharko lirateke, nire ustez". (A4)

Politiko eta teknikoen arteko hausnarketak desberdintzeko momentuan politikoak zerbitzu publikoak ematerakoan hirugarren sektoreko partaideak positiboki diskriminatzearen alde (4 eta 5) agertzen badira ere, euren ehunekoa aditu guztien %69tik %63ra jaisten da. Teknikoen aldeko ehunekoa, berriz, % 80ra igotzen da.

Klausula sozialen aldeko jarrera aztertzerakoan antzekotasun handia ematen da bi esparruetan. Politikoen %87a eta teknikoen %80a klausula sozialen alde agertzen dira (4 eta 5), aditu guztien ehunekoen inguruan mantenduz.

Azkenik, hirugarren sektoreko partaideen artean bereziki kooperatibak diskriminatu behar direla esaterakoan politikoen %75ek aldeko jarrera dute. Teknikoek, berriz, ez dute hain argi ikusten eta aldeko jarrera %40ra jaisten da. Era berean, bai politikoen eta teknikoen iritziek azpimarratzen dute kooperatiben izaera juridikoak ez duela bermatzen enpresaren izaera soziala.

Teknikoen artean klausula sozialen aldeko jarrera daukate. Dena dela eztabaida nagusia da zer nolako klausula sozialak ipini behar diren eta zer nolako pisua eduki behar duten klausula sozial horiek puntuazio osoan. Teknikoentzat gaia kudeatzea zaila da. Departamentuan saiatu dira klausula sozialak garatzen. Hain zuzen ere Diputazioak indarrean dagoen norma bat atera du. Bertan aipatzen da konkurtso guztietan gutxieneko %10 klausula sozialetara dedikatu behar dela. Gainera, Gizarte Zerbitzuen Departamentuak 2014ean atera dituen konkurtso guztietan klausula sozialak baloratu ditu, zehazki, berdintasun planari %5a eta euskara planari beste %5a ematea. Hori izan da hala moduzko planteamendu bat. Puntuazio gehiago eman behar zaio? Puntuazio hori bideratu behar da bakarrik berdintasun planera

eta euskara planera edo beste faktore batzuk ere kontuan hartu beharko dira? Horiek dira erantzun beharreko galderak:

“Argi dago, gero oso zaila da. Departamenduan saiatu gara klausula sozialak lantzen. Oso konplikatuak izanda. Orain bertan, orain dela 15 egun Diputazioak kaleratu du klausula sozialerako ez dakit norma edo dekretua da. Orain indarrean dago. Horrek esaten du gutxueneko %10 klausula sozialetara dedikatu behar dela, konkurtso guztietan. Baina ez dakigu gero hori nola gauzatu. Adibidez, 2014an guk atera ditugun konkurtso guztietan sartu ditugu beharrezkoa direla, baloratzen direla e.a., berdintasun plana eta euskara plana edukitzea. Eta hortik zijoan eta gu izan ginen lehenengoak eta gero departamendu ia guztiak joan dira atzetik. Baina klaro ez genekien nola gauzatu hori. Azkenean guk pentsatu dugu berdintasun plana planteatu eta abar. Gero, lehentasunak eman behar zaio, barkatu. Guk alde aurretikan esaten dugu bueno konkurtso guztietan jartzen da eskatzen duzu eta gu ari gara eskatzen bi horiek eta gainera baloratzen dira. Momentu honetan berdintasun planari 5 puntu ematen zaizkio eta euskara planari beste 5. Baina hori izan zen nolabait ere, halako planteamendu bat”. (T)

Teknikoentzat, kooperatiba izateagatik ez luke puntu gehiago jaso behar. Tekniko baten lana ez da figura juridiko bat bultzatzea bestea baino. Kooperatibak besteak bezalako enpresak dira eta azkenean eskaintza egokiena egiten duenari ematen zaio konkurtsoa. Departamentua eroslea da eta ez gizarte eraldatzailea. Tekniko horientzat logikoagoa da klausula sozial hauekin berdintasuna, euskara edo kolektibo zehatzak bultzatzea (emakumeak, etorkinak, bazterketa jasaten duten pertsonak) kooperatibak bezalako enpresak edo kudeaketa motak sustatzea baino. Gainera, teknikoek iritziz, politikoen erakusten ari diren kooperatiben aldeko jarrera euren defendatzen ari diren kudeaketa zuzenarekin kontraesankorra da:

“Eman behar zaio puntuazio gehiago edo 10 puntu horietatik batzuk bideratu behar dira kooperatiba, hau da, beste figura bati edo? Diskusio hori egin beharko genuke departamenduan. Nik esango nuke ezetz. Esango nizuke ezetz. Eta are gehiago, zer arrazoiengatik? Ni nahiago det, nire iritzi pertsonala izango litzateke planteatzea, bai berdintasuna, ez dakit berdintasun plana, bai euskara, bai kolektibo batzuk kontratatzen aldekoak (Ez dakit emakumeak, emigranteak, inklusioak) baino nik uste klausula sozialak hortik bideratu behar direla. Ez hainbeste enpresa mota edo kudeaketa motagatik. Nere inpresioa. Eta esaten dizut nire harridurarako talde politikoak apustua egin du kooperatiben alde eta esaten dizut nire harridurarako ze kontraesan bat da. Gero kontraesan bat da kudeaketa zuzenaren alde egindako apustuarekin. Ez dator bat nire ikuspegitik. Zure apustua baldin bada zuk zuzenean egitea, kooperatibak zuri bost ajola. Bi hitzetan esanda. Karrikatura bat egiten nahi baldin baduzu baino nik harritu nintzan piska bat horrekin”. (T)

Hala ere, teknikoek aipatzen dute puntuaketa jartzerakoan dagoeneko kopuru zehatz batzuk finkatuta daudela eta horrek baldintza dezakeela klausula sozial horien pisua eta garapena. Hasteko, Gizarte Politikako Departamentuan puntuaketaren %50a eskaintza ekonomikoarentzat izaten da. Gero gelditzen den %50etik %10a klausula sozialentzat erabiltzen bada eta beste %10a zentroetako mantentze planak baloratzeko bideratzen bada, orduan %30a bakarrik geldituko da prezio oso merkeak eskaintzen dituzten enpresak frenatzeko:

“Klausula sozialak nik ez dakit %10 nik agian gehiago emango nioke. Problema bat dago eta da konkurtsoetan momentu honetan Diputazioan. Departamenduan behintzat bai. Eta %50 dedikatu behar dituzula oferta ekonomikoari. Klaro, erdia da oferta ekonomikoa. Ta gero gelditzen dira beste %50 puntu. Suposatzen da 50 puntu horiek dedikatu behar dituzula eskaintza teknikoa aztertzea. Hasten baldin ba zara deskontatzen puntuak, kasu honetan, adibidez, 10 deskontatu behar dituzu eta ez zara sartzen hainbeste oferta teknikoan baizik eta oferta tekniko horrekin lotutako elementu batzuk. Baina oferta teknikoaren funtsa ez da. Ordun zer gerta daiteke? Joder momentu honetan gu ari gea konkurtsoak ateratzen eta oferta tekniko teknikoa gelditzen da %40. Edo inkluso gutxiago izan daiteke. zen badago ahaleginean departamenduan beste akordio bat zentroak direnean. Ze badago departamenduan hainbat ditugu, ez dakit, zentro asko, guk 30, zentroak direnean % 10a dedikatu behar da mantenimendu planera. Klaro, zuk ematen diozu, Txara II, hau ondokoa, ematen diozu enpresa bati, hor dago Biharko, ematen diozu Biharkori eta zuk ematen diozu zure eraikin bat eta esan behar diozu nola zainduko diozu eraikina? Nola mantenduko duzu%? Eta horretarako dago hemendikan ematen zaie mantenimendu minimo bat. Noiz kalderak begiratu, aulkiak, oso definituta dago, gehiago definituta egon beharko zen. Hori nola kudeatuko duzu 10 puntu. Zer gertatzen da? Oferta teknikoa % 30 bakarrik dela. Ta joder, eskas xamar. Datorkizu Clece bat, prezioak tiratzen ditu eta bide erdia egina du eta enpresa horiek agian oso onak dira mantenimendu eta txorrada horietan, idazten, gero praktika beste gauza bat da, eta abar eta abar eta gero kapaz dira edukitzeko berdintasun plan bat “que te cagas”. Esaten duzu “ostras pedrín . Agian, orduan .”Que me estoy pegando el tiro al pie”. (T)

Azken finean, teknikoentzat klausula sozialekin enpresa kooperatiba soilak bultzatu orde z orokorrean ekimen soziala eta gertutasuna adierazten duten enpresak bultzatu beharko lirateke. Zerbitzua definitzeko eta emateko garaian hornitzailea gero eta gertuago edukitzen bada eta gero eta konpromiso handiagoa erakusten badu orduan eta kalitate handiagoa emateko gai izango da. Enpresa horiek gero eta gertuago sentituko dira eta oso ondo ezagutuko dute zein den gure Departamentuaren filosofia eta orduan konkurtso bat ateratzen denean gai izango dira irabazteko:

“Aipatu duzu gertutasuna. Baina nik uste klabea dela. Guretzako gero eta entitatea, nahiz eta enpresa hutsa izan, gertuago egon hobeto. Are gehiago gu momentu batean definitu genuen entitate batzuk guretzako lan egiten zutenak aliatu bezala definitu behar genituela. Esan nahi det nik zurekin konpartituko ditut konpartitu beharreko guztiak. Ez zara probedore hutsa. Aliatua. Nere kezkek hauek dira, diagnostiko bat egin behar badet zurekin kontatuko det, etorri zaitetz inkorporatu zaitetz gure hausnarketa prozesuetara, e.a. eta abar. Zurekin kontatuko det. Inkorporatu zaitetz gure hausnarketara. Horrek eskatuko du esfortzu bat guretzako. Deditu beharko duzu denbora eta abar. Baina gero horrek o kalitatean isla zuzena dauka. Zaila da. Ni gogoratzen naiz, Mercedesek ditu probeedoreak. Egongo dira supermatxakatuak. Baina nik uste modeloa dela Mercedesek kotxe bat diseinatu behar badu eta amortiguadoreak diseinatu behar baditu deituko dio. Ni egitera noa kotxe berri bat. Behar det amortiguadore bat que te cagas chaval. Hasi pentsatzen eta gero inkorporatuko dugu eta prozesu horretan denek parte hartuko dute. Ez da izango Mercedesek egiten duena eta gero esango du nik hau nahi dut. Zeinek egingo dit? Ez. Alderantziz. Kanpora aterako du Bezeroekin harreman hori. Bezeroekin harreman hori adibidez Irizarrek egiten ari da gestio modelo berrian. Eta bezeroarekin aldaketa guztiak elementu berriak aurkezterakoan aurretik bezeroekin eta. Guk batzuekin egiten dugu. Batzuekin. Baina beste batzuk inkorporatu ahal ditugu eta oso inkorporatuta. Eta esaten dizut gero beraiek gero eta gertuago sentitu gero eta kalitate gehiago. Eta konpromezu aldetik ere, enpresa aldetik ere, hemengoak badira bi aldetik dago interes hori. Denek irabazten dute. Non dago euren irabazia? Konkurtso bat egin behar baduzu ez bakarrik konkurtsoaren tripak modeloaren tripak ezagutzen dituztela. Badakite zeintzuk diren guk buruan ditugun zeak. Parametroak. Klaro. Ordun, nire proiektua egiteko garaian badakizu non zauden, badakit zer baloratuko duzun gero horiek asmatuko dute ala ez. Baina nolabait ere beraientzak bentaja handia da. Guk Konkurtsoa kaleratzen dugunean eta beraien kontratua baldin bada oso garbi dute azken finean zer egin behar duten. Eta normalmente ez da problemarik egongo. Gero egon dira aldaketak horrekin. Guk aliatuak deitzen genien. Begira, etorri honera, lan asko egin beharko duzue eta ez bakarrik zerbitzuaren probisioa baizik eta gauza definitzeko garaian lan taldeetan eta historietan parte hartu behar dugu eta hori denbora da eta gainera eskatuko dizut baina interesatzen zaizu”. (T)

Politikoez azpimarratzen dute indarrean dagoen foru arau berriarekin zuzenean ezin dela enpresaren figura juridikoaren arabera diskriminatu baina bai zeharka, besteak beste, langileen parte hartzea enpresan, hurbiltasuna edo berdintasuna kontuan hartuta. Hau da, klabea izan daiteke proposamenaren “kalitate sozialari” heltzea:

“Guk eduki genuen formakuntza hori esan zuten. Daukagu Foru Arau berri bat. Nik uste dut badagoela aukera. Foru Arauaren kontestuaren eztabaidan erregimen juridikoez esaten zuten izaerak ez zuela diskriminatzeko aukerarik ematen. Klaro, beraiek euren ikuspuntutik ikusten dutelako baina REASeko teknikariak justu kontrakoa esaten du. Oso interpretazio kontua da. Horretan dudak zeuden. Marko juridikoaren mugak. Klausula bat izatea izaera juridikoarena. Momentuz ez dago Foru Arauan. Baloratu egiten da, bai, behar bada kooperatiba delako. Baina orain arte ez dago esperientziarik. Espero dugu izatea laster. Behar bada ezin da

baloratu izaera juridikoarengatik baino langileen parte hartzeagatik bai. Ikusi beharko da Foru Araua noraino iristen den". (P)

"Aipatzekotan zerbait pixkat gehiago hurbiltzen dena dago hemen 18. Artikuluan: aceptación de la calidad social de la propuesta. Ez da oso zuzena baino bueno, tokiko garapena, hurbiltzen dira gauza batzuk kooperatibaren izaerarekin, langileen partaidetza sustatzea. Hori da pixka bat. Zeharka ikuitzen ditu elementu batzuk. Kalitate sozialarena. Hor lotzen da". (P)

BOSGARREN ARLOA: KOOPERATIBIZAZIO PROZESUA, PUBLIKOTASUNA ZABALDU EDO PRIBATIZAZIOARI ATEAK IREKI


7.1.18 Ados al zaude gizarte zerbitzu publikoen kooperatibizazio prozesua espazio publikoa zabaltzeko bide bat dela? (1 izanik Desadostasun Osoa eta 5 izanik Adostasun Osoa)

7.1.18.1 Taula: Kooperatibizazioa espazio publikoa zabaltzeko

1 ez ados, 5 ados	KOPURUA	EHUNekoETAN
1	2	15%
2	3	23%
3	3	23%
4	3	23%
5	1	8%
ED/EE	1	8%
GUZTIRA	13	100

Iturria: Geuk egina (2014)

7.1.18.1 Grafikoa: Kooperatibizazioa espazio publikoa zabaltzeko



Iturria: Geuk egina (2014)

Galdera honen inguruan adituek jarrera kontrajarriak dituzte. Batzuentzat, gizarte zerbitzu publikoen kooperatibizazio prozesua espazio publikoa zabaltzeko bide bat da (4 eta 5)[%31] eta beste batzuentzat ez (1 eta 2)[%38]. Ez alde batera eta ez bestera, berriz, %31 (Erdian (3) %23a eta ED/EE %8a).

7.1.18.2 Taula: Batez bestekoa eta desbideratze tipikoa; kooperatibizazioa espazio publikoa zabaltzeko

Azterketa teknikoa	
Batez bestekoa	2,833
Desbideratze tipikoa	1,267
Laginaren tamaina	13

Iturria: Geuk egina (2014)

Batez bestekoari dagokionez, puntuazioa 2,833an gelditzen da, (3) erdiko puntuaren azpitik. Desbideratze tipikoa, berriz, 1,267koa da.


7.1.18.3 Taula: Gerturatze maila; kooperatibizazioa espazio publikoa zabaltzeko

Gerturatze maila	I. Txanda	II. Txanda
Batez bestekoa	2,917	2,833
Desbideratze Tipikoa	1,311	1,267

Iturria: Geuk egina (2014)

I. Txandatik II. Txandara desbideratze tipikoa jaitsi egin da 1,311tik 1,267ra. Honek, adituen artean gerturatze prozesu txiki bat eman dela erakutsi badezake ere, praktikan zehaztugabetasuna handitzearen ondorio bat izan da. Hain zuzen ere, erdiko puntua indartu egin delako (3) posizionamendu argien espektroaren kaltetan (1 eta 2, 4 eta 5). Gainera, txanda batetik bestera ED/EE ehunekoa ez da gutxitzen, %8an mantenduz.

7.1.18.2 Grafikoa: Politikoen eta teknikoen balorazioa; kooperatibizazioa espazio publikoa zabaltzeko



Iturria: Geuk egina (2014)

Politikoen %24rentzat kooperatibizazioa espazio publikoa zabaltzeko bide bat da (4 eta 5) eta %37rentzat ez (1 eta 2). Erdian(3), berriz, %25a gelditzen da eta %12ak ez daki edo ez du erantzuten. Teknikoei dagokionez, %40ek kooperatibizazioa espazio publikoa zabaltzeko bide bat dela esaten dute (4) eta beste %40ek ez (1 eta 2). Erdian (3) %20 gelditzen da.


7.1.19 Ados al zaude gizarte zerbitzu publikoen kooperatibizazio prozesua egitura publikoa mehetu arren erantzukizun publikoa indartzeko bide bat dela? (1 izanik Desadostasun Osoa eta 5 izanik Adostasun Osoa)

7.1.19.1 Taula: Kooperatibizazioa erantzukizun publikoa indartu

1 ez ados, 5 ados	KOPURUA	EHUNEKOETAN
1	2	15%
2	6	46%
3	1	8%
4	3	23%
5	0	0%
ED/EE	1	8%
GUZTIRA	13	100

Iturria: Geuk egina (2014)

7.1.19.1 Grafikoa: Kooperatibizazioa erantzukizun publikoa indartu



Iturria: Geuk egina (2014)

Adituen gutxiengoek (%23) (4 eta 5) pentsatzen dute kooperatibizazioak egitura publikoa mehetu arren erantzukizun publikoa indartzeko balio duela. Bestalde, adituen gehiengoek (%61) (1 eta 2) uste dute kooperatibizazioak egitura publikoa mehetu eta, era berean, erantzukizun publikoa ahuldu egiten duela. Erdian (3), berriz, %8a eta Ez daki edo Ez du erantzuten beste %8a.

7.1.19.2 Taula: Batez bestekoa eta desbideratze tipikoa; kooperatibizazioa erantzukizun publikoa indartu

Azterketa teknikoa	
Batez bestekoa	2,417
Desbideraketa tipikoa	1,084
Laginaren tamaina	13

Iturria: Geuk egina (2014)

Datu hauek batez bestekoa, erditik behera kokatzen dute, 2,417an eta desbideratze tipikoak 1,084 balioa hartzen du .


7.1.19.3 Taula: Gerturatze maila; kooperatibizazioa erantzukizun publikoa indartu

Gerturatze maila	I. Txanda	II.Txanda
Batez bestekoa	2,417	2,417
Desbideratze Tipikoa	0,996	1,084

Iturria: Geuk egina (2014)

Gerturatze mailari dagokionez, I. Txandatik II. Txandara adituen iritziek ez dute konbergentzia prozesua jarraitu. Aldiz, desbideratze tipikoa 0,088 puntu igo egin da 0,996tik 1,084ra. Gainera, Delphi metodologia ez da gai izan II. Txandan ED/EE aukerako %8a desagertu arazteko. Dena dela, batez bestekoa mantendu egin da 2,417an.

7.1.19.2 Grafikoa: Politikoek eta teknikoek balorazioa; kooperatibizazioa erantzukizun publikoa indartu



Iturria: Geuk egina (2014)

Politikoen %12k bakarrik uste du kooperatibizazioak egitura publikoa mehetu arren erantzukizun publikoa indartu egiten duela (4). Teknikoen kasuan berriz, %40ra igotzen da (4). Kontrako iritzia, kooperatibizazioak egitura publikoa mehetu arren erantzukizun publikoa ahuldu egiten duela, politikoen %62k (2) eta teknikoek %60ek adierazten dute (1 eta 2).


7.1.20 Ados al zaude gizarte zerbitzu publikoen kooperatibizazio prozesua egitura publikoa mehetzeaz gain erantzukizuna pribatizatzen joateko bide bat dela? (1 izanik Desadostasun Osoa eta 5 izanik Adostasun Osoa)

7.1.20.1 Taula: Kooperatibizazioa erantzukizuna pribatizatze bidea

1 ez ados, 5 ados	KOPURUAK	EHUNekoETAN
1	2	15%
2	4	31%
3	2	15%
4	3	23%
5	1	8%
ED/EE	1	8%
GUZTIRA	13	100

Iturria: Geuk egina (2014)

7.1.20.1 Grafikoa: Kooperatibizazioa erantzukizuna pribatizatze bidea



Iturria: Geuk egina (2014)

Batzuentzat, gizarte zerbitzu publikoen kooperatibizazioa egitura publikoa mehetzeaz gain erantzukizuna pribatizatzen joateko bide bat da (4 eta 5)[%31]. Beste batzuentzat, aldiz, kooperatibizazioa ez da erantzukizuna pribatizatzen joateko bide bat (1 eta 2)[%46]. Azkenik, ez alde batera eta ez bestera %23 (Erdian(3) %15 eta ED/EE %8).

7.1.20.2 Taula: Batez bestekoa eta desbideratze tipikoa; kooperatibizazioa erantzukizuna pribatizatze bidea

Azterketa teknikoa	
Batez bestekoa	2,750
Desbideratze tipikoa	1,288
Laginaren tamaina	13

Iturria: Geuk egina (2014)

Batez bestekoa 2,750an finkatu da eta desbideratze tipikoak 1,288 balio hartu du.


7.1.20.3 Taula: Gerturatze maila; kooperatibizazioa erantzukizuna pribatizatze bidea

Gerturatze maila	I. Txanda	II.Txanda
Batez bestekoa	2,769	2,75
Desbideratze Tipikoa	1,166	1,288

Iturria: Geuk egina (2014)

Txanden arteko informazio trukaketak zalantza gehiago sortu ditu adituen artean. Horren ondorioz, desbideratze tipikoa zertxobait igo egin da 1,166tik 1,288ra. Gainera, II. Txandako emaitzetan mantendu egin da erdian gelditu den adituen ehunekoa (3) [%15] eta ED/EE aukera %0tik %8ra igo da.

7.1.20.2 Grafikoa: Politikoen eta teknikoen balorazioa; kooperatibizazioa erantzukizuna pribatizatze bidea



Iturria: Geuk egina (2014)

Politikoen %25entzat kooperatibizazioa erantzukizuna pribatizatze bide bat da (4). Bestalde, %50entzat ez (1 eta 2). Erdian %12a kokatzen da eta beste %13ak ez daki edo ez du erantzuten. Teknikoei dagokienez, %40ek erantzukizuna pribatizatze bide bat dela diote (4 eta 5) eta beste %40ek ez (1 eta 2). Erdian, %20 (3).


7.1.21 Ados al zaude gizarte zerbitzu publikoen kooperatibizazioa helburu integral bat dela? (1 izanik Desadostasun Osoa eta 5 izanik Adostasun Osoa)

7.1.21.1 Taula: Kooperatibizazioa helburu integral bat

1 ez ados, 5 ados	KOPURUA	EHUNekoETAN
1	3	23%
2	3	23%
3	3	23%
4	3	23%
5	1	8%
ED/EE	0	0%
GUZTIRA	13	100

Iturria: Geuk egina (2014)

7.1.21.1 Grafikoa: Kooperatibizazioa helburu integral bat



Iturria: Geuk egina (2014)

Adituen %31k bakarrik ikusten du kooperatibizazioa helburu integral bat bezala(4 eta 5).

Aldiz, %46ak ez du horrela ikusten. Erdian (3) %23a ez da posizionatzen.

7.1.21.2 Taula: Batez bestekoa eta desb. tipikoa; kooperatibizazioa helburu integral bat

Azterketa teknikoa	
Batez bestekoa	2,692
Desbideratze tipikoa	1,316
Laginaren tamaina	13

Iturria: Geuk egina (2014)

Ondorioz, batez bestekoa 2,692an kokatzen da eta desbideratze tipikoak 1,316 balioa hartzen du.


7.1.21.3 Taula: Gerturatze maila; kooperatibizazioa helburu integral bat

Gerturatze maila	I. Txanda	II. Txanda
Batez bestekoa	2,417	2,692
Desbideratze Tipikoa	1,084	1,316

Iturria: Geuk egina (2014)

Gerturatze mailari dagokionez, I. Txandatik II. Txandara ez da lortu adituen iritziak batzea. Hori bai, ED/EE aukeraren %8a kentzea lortu da. Ondorioz, desbideratze tipikoa 1,084tik 1,316ra igo da eta batez bestekoaren bilakaera handitu egin da 2,417tik 2,692ra.

7.1.21.2 Grafikoa: Politikoen eta teknikoen balorazioa; kooperatibizazioa helburu integrala



Iturria: Geuk egina (2014)

Politikoen %37rentzat kooperatibizazioa helburu integral bat da(4 eta 5) eta %50rentzat ez. Erdian, %13 (3). Teknikoen %20rentzat, berriz, helburu integral bat da eta % 40rentzat ez. Erdian, %40 (3).


7.1.22 Ados al zaude gizarte zerbitzu publikoen kooperatibizazioa aldi baterako helburu bat dela publikazio integrala berreskuratzeko ? (1 izanik Desadostasun Osoa eta 5 izanik Adostasun Osoa)

7.1.22.1 Taula: Kooperatibizazioa aldi baterako helburu bat

1 ez ados, 5 ados	KOPURUAK	EHUNekoETAN
1	4	31%
2	6	46%
3	1	8%
4	1	8%
5	1	8%
ED/EE	0	0%
GUZTIRA	13	100

Iturria: Geuk egina (2014)

7.1.22.1 Grafikoa: Kooperatibizazioa aldi baterako helburu bat



Iturria: Geuk egina (2014)

Adituen %16ak bakarrik uste du kooperatibizazioa aldi baterako helburua dela publikazio integrala berreskuratzeko bidean(4 eta 5). %76ak, ordea, ez (1 eta 2). Erdian(3), berriz, %8a.

7.1.22.2 Taula: Batez bestekoa eta des. tipikoa; kooperatibizazioa aldi baterako helburua

Azterketa teknikoa	
Batez bestekoa	2,154
Desbideratze tipikoa	1,214
Laginaren tamaina	13

Iturria: Geuk egina (2014)

Emitza horiek batez bestekoa 2,154 balioan kokatu dute eta desbideratze tipikoa 1,214ean.


7.1.22.3 Taula: Gerturatze maila; kooperatibizazioa aldi baterako helburu bat

Gerturatze maila	I. Txanda	II. Txanda
Batez bestekoa	2,417	2,154
Desbideratze Tipikoa	1,165	1,214

Iturria: Geuk egina (2014)

Delphi prozesuaren bitartez I. Txandatik II. Txandara adituen iritzia 1 eta 2 balioen inguruan indartzen joan dira. Kooperatibizazioa aldi baterako helburua ez dela esaten zuten adituen portzentajea (1 eta 2) %54tik %76ra igo da txanda batetik bestera. Horren ondorioz, batez bestekoa 2,417tik 2,154ra jaitsi egin da. Desbideratze tipikoa, aldiz, gerturatze prozesuarekin jaitsi ordez igo egin da 1,165etik 1,214ra, bereziki I. Txandako ED/EE aukerako adituen %8a 1-5 balio-tartean sartu delako.

7.1.22.2 Grafikoa: Politikoen eta teknikoen balorazioa; kooperatibizazioa aldi baterako helburu bat



Iturria: Geuk egina (2014)

Politikoen %25entzat kooperatibizazioa aldi baterako helburu bat da publikazioa berreskuratzeko (4 eta 5) eta %75entzat ez (1 eta 2). Bestalde, teknikoen artean ez da aldeko jarrerarik agertzen eta %80entzat kooperatibizazioa ez da aldi baterako helburu bat(1 eta 2). Erdian, %20 (3).


7.1.23 Ados al zaude gizarte zerbitzu publikoen kooperatibazioa arazo puntualei bakarrik aurre egiteko tresna dela ? (1 izanik Desadostasun Osoa eta 5 izanik Adostasun Osoa)

7.1.23.1 Taula: Kooperatibazioa arazo puntualei bakarrik aurre egiteko

1 ez ados, 5 ados	KOPURUAK	EHUNekoETAN
1	3	23%
2	6	46%
3	2	15%
4	1	8%
5	1	8%
ED/EE	0	0%
GUZTIRA	13	100

Iturria: Geuk egina (2014)

7.1.23.1 Grafikoa: Kooperatibazioa arazo puntualei bakarrik aurre egiteko



Iturria: Geuk egina (2014)

Adituen %16ak ikusten du kooperatibazioa arazo puntualei bakarrik aurre egiteko tresna bat dela (4 eta 5). %69ak, aldiz, ez (1 eta 2). Erdian(3), %15a gelditzen da.

7.1.23.2 Taula: Batez bestekoa eta desbideratze tipikoa; kooperatibizazioa arazo puntualentzat bakarrik

Azterketa teknikoa	
Batez bestekoa	2,308
Desbideratze tipikoa	1,182
Laginaren tamaina	13

Iturria: Geuk egina (2014)

Datu hauen ondorioz, batez bestekoa 2,308 da, 2tik gertu. Desbideratze tipikoak, berriz, 1,182 balioa hartuko du.


7.1.23.3 Taula: Gerturatze maila; kooperatibizazioa arazo puntualentzat bakarrik

Gerturatze maila	I. Txanda	II. Txanda
Batez bestekoa	2,25	2,308
Desbideratze Tipikoa	1,215	1,182

Iturria: Geuk egina (2014)

I. Txandatik II. Txandara gerturatze prozesu bat eman da adituen iritzien artean. Batez bestekoa 2,250etik 2,308ra igo ondoren desbideratze tipikoa 1,215etik 1,182ra jaitsi da, adituen hausnarketak hurbilduz.

7.1.23.2 Grafikoa: Politikoen eta teknikoek arazo puntualak bakarrik aurrera eramateko



Iturria: Geuk egina (2014)

Politikoen % 12rentzat kooperatibizazioa arazo puntualak bakarrik aurrera eramateko tresna bat da (4) eta % 88rentzat ez (1 eta 2). Bestalde, teknikoek %20rentzat arazo puntualak bakarrik aurrera eramateko tresna bat da (5) eta %40rentzat ez (2). Erdian, berriz, %40(3).


7.1.24 Ados al zaude gizarte zerbitzu publikoen kooperatibizazioa ez dela inolaz ere aukera bat ? (1 izanik Desadostasun Osoa eta 5 izanik Adostasun Osoa)

7.1.24.1 Taula: Kooperatibizazioa ez da inolaz ere aukera bat

1 ez ados, 5 ados	KOPURUAK	EHUNekoETAN
1	6	46%
2	3	23%
3	2	15%
4	0	0%
5	2	15%
ED/EE	0	0%
GUZTIRA	13	100

Iturria: Geuk egina (2014)

7.1.24.1 Grafikoa: Kooperatibizazioa ez da inolaz ere aukera bat



Iturria: Geuk egina (2014)

Adituen %15arentzat bakarrik gizarte zerbitzu publikoen kooperatibizazioa ez da inolaz ere aukera bat (4 eta 5). Aldiz, %69k kooperatibizazioa aukera bat bezala ikusten dute (1 eta 2). Erdian(3) %15a gelditzen da.

7.1.24.2 Taula: Batez bestekoa eta desb. tipikoa; kooperatibizazioa ez da aukera bat

Azterketa teknikoa	
Batez bestekoa	2,154
Desbideratze tipikoa	1,463
Laginaren tamaina	13

Iturria: Geuk egina (2014)

Batez bestekoa 2,154koa da eta desbideratze tipikoa 1,463koa.


7.1.24.3 Taula: Gerturatze maila; kooperatibizazioa ez da aukera bat

Gerturatze maila	I. Txanda	II.Txanda
Batez bestekoa	1,615	2,154
Desbideratze Tipikoa	1,325	1,463

Iturria: Geuk egina (2014)

Lehen txandan emandako adituen iritzi gehienak 1 balioaren inguruan bildu dira (%77) batez bestekoa 1,615ean kokatuz. Gero, berriz, adituen iritzien kontrastea egin ondoren, batez bestekoa 2,154ra igo da eta adituen ekarpenak zertxobait sakabanatu dira desbideratze tipikoa 1,325etik 1,463ra igoz.

7.1.24.2 Grafikoa: Politikoen eta teknikoen balorazioa; kooperatibizazioa ez da inolaz ere aukera bat



Iturria: Geuk egina (2014)

Politikoen %12rentzat kooperatibizazioa ez da inolaz ere aukera bat(5). Bestalde, %88rentzat bai(1 eta 2). Teknikoentzat, berriz, %20entzat ez da aukera bat eta %40entzat bai(1). Erdian (3) beste %40a gelditzen da.


7.1.25 Zer nolako kooperatibizazio ereduak bultzatuko zenuke Gipuzkoako gizarte zerbitzuak emateko? Baloratu 1etik 5era kooperatiba mota bakoitza (1 izanik ez zaizula kooperatiba mota hori inolaz ere gustatzen eta 5 izanik kooperatiba mota hori asko gustatzen zaizula gizarte zerbitzuak emateko)

7.1.25.1 Taula: Kooperatiba mota desberdinen balorazioa

	1(%)	2(%)	3(%)	4(%)	5(%)	ED/EE	X	Guztira
1.-KOOPERATIBA ARRUNTA	15	46	31	0	0	8	2,17	13
2.-ONURA PUBLIKOKO KOOPERATIBA	0	31	15	31	8	15	3,18	13
3.-GIZARTE-EKIMENEN KOOPERATIBA	0	8	23	23	31	15	3,91	13
4.-KOOPERATIBA MISTOA	8	15	23	31	15	8	3,33	13
KOOPERATIBA GUZTIEN BATEZ BESTEKOA							3,15	

Iturria: Geuk egina (2014)

7.1.25.1 Grafikoa: Kooperatiba mota desberdinen balorazioa



Iturria: Geuk egina (2014)

Azterketa egiterakoan honako kooperatiba mota desberdinak baloratu behar izan dituzte:

- 1.-KOOPERATIBA ARRUNTA
- 2.-ONURA PUBLIKOKO KOOPERATIBA (Administrazioak onura fiskalak eta ekonomikoak ematen dio)
- 3.-GIZARTE-EKIMENEN KOOPERATIBA (Irabazi Asmorik Gabekoa)
- 4.-KOOPERATIBA MISTOA (Administrazioak parte har dezake, gehienez kapitalaren %49 edukita)

Kooperatiba mota desberdinak aukeratzeko garaian nota hoberena “Gizarte-ekimeneko Kooperatibak” ateratzen du (3,91). Gero, “Kooperatiba Misto”(3,33). Atzetik, “Onura Publikoko Kooperatiba”(3,18) eta, azkenik, Kooperatiba Arrunta (2,17). Bestalde, Kooperatiba guztien batez bestekoa 3,15koa izan da.

7.1.25.2 Batez bestekoa eta Desbideratze Tipikoa

7.1.25.2.1 Taula: batez bestekoa eta desbideratze tipikoa; Kooperatiba Arrunta

1.-KOOPERATIBA ARRUNTA	
Batez bestekoa	2,167
Desbideratze tipikoa	0,718
Laginaren tamaina	13

Iturria: Geuk egina (2014)

Kooperatiba Arruntak 2,167ko batez bestekoa atera du, 0,718ko desbideratze tipikoarekin. Desbideratze tipiko hau txikia izan da aditu guztien balorazioak 1, 2 eta 3 balioen inguruan bakarrik mugitu direlako.

7.1.25.2.2 Taula: Batez bestekoa eta desbideratze tipikoa; Onura Publikoko Kooperatiba

2.-ONURA PUBLIKOKO KOOPERATIBA	
Batez bestekoa	3,182
Desbideratze tipikoa	1,079
Laginaren tamaina	13

Iturria: Geuk egina (2014)

Onura Publikoko Kooperatibaren batez bestekoa 3,182koa izan da, 1,079ko desbideratze tipikoarekin. Kasu honetan, neurri honen sakabanatzea handiagoa izan da 2, 3, 4 eta 5 balioen artean mugitu delako.

7.1.25.2.3 Taula: Batez bestekoa eta Desb. Tipikoa; Gizarte-ekimeneko Kooperatiba

3.-GIZARTE-EKIMENENKO KOOPERATIBA	
Batez bestekoa	3,909
Desbideratze tipikoa	1,044
Laginaren tamaina	13

Iturria: Geuk egina (2014)

Gizarte-ekimeneko Kooperatibak jaso du notarik hoberena 3,909ko batez bestekoarekin. Desbideratze tipikoa, berriz, 1,044koa izan da. Kasu honetan ere, aukeraketen sakabanatzea 2, 3, 4 eta 5 balioen artean mugitu da.

7.1.25.2.4 Taula: Batez bestekoa eta desbideratze tipikoa; Kooperatiba Misto

4.-KOOPERATIBA MISTOA	
Batez bestekoa	3,333
Desbideratze tipikoa	1,231
Laginaren tamaina	13

Iturria: Geuk egina (2014)

Azkenik, Kooperatiba Mistoaren kasuan, batez bestekoa 3,333koa izan da eta desbideratze tipikoa 1,231ra igo da, aukera honetan adituen puntuazioak espektro osoan, 1etik 5era, ibili direlako.

7.1.25.3 Gerturatze maila

7.1.25.3.1 Taula: Gerturatze maila; Kooperatiba Arrunta

1.-KOOPERATIBA ARRUNTA:

Gerturatze maila	I. Txanda	II. Txanda
Batez bestekoa	2,538	2,167
Desbideratze Tipikoa	1,05	0,718

Iturria: Geuk egina (2014)

Kooperatiba Arruntaren kasuan, txanda batetik bestera adituen arteko hurbiltze prozesu bat eman da eta 2 balorearen inguruan bildu dira aukeraketa guztiak. Horregatik, desbideratze tipikoa 1,05etik 0,718ra jaitsi da.

7.1.25.3.2 Taula: Gerturatze maila; Onura Publikoko Kooperatiba

2.-ONURA PUBLIKOKO KOOPERATIBA:

Gerturatze maila	I. Txanda	II. Txanda
Batez bestekoa	3,308	3,182
Desbideratze Tipikoa	1,109	1,079

Iturria: Geuk egina (2014)

Onura Publikoko Kooperatibaren adituen balorazioan lehen txandatik bigarrenera gerturatze txiki bat eman da. II. Txandan balioen espektroa murriztu egin da 1 balioa desagertuz. Horregatik, desbideratze tipikoa 1,109tik 1,079ra gutxitu da.

7.1.25.3.3 Taula: Gerturatze maila; Gizarte-ekimeneko Kooperatiba

3.-GIZARTE-EKIMENENKO KOOPERATIBA:

Gerturatze maila	I. Txanda	II. Txanda
Batez bestekoa	4,077	3,909
Desbideratze Tipikoa	0,641	1,044

Iturria: Geuk egina (2014)

Gizarte-ekimeneko Kooperatiban txanda batetik bestera adituen balorazioen sakabanatze prozesu bat eman da. Horren adierazle nagusia desbideratze tipikoaren igoera nabarmena izan da 0,641etik 1,044ra pasatuz.

7.1.25.3.4 Taula: Gerturatze maila; Kooperatiba Mistoa

4.-KOOPERATIBA MISTOA:



Gerturatze maila	I. Txanda	II. Txanda
Batez bestekoa	3,538	3,333
Desbideratze Tipikoa	1,506	1,231

Iturria: Geuk egina (2014)

Azkenik, Kooperatiba Mistoari dagokionez, adituen iritzien hurbilketa prozesu bat eman da. Hau dela eta, balioen desbideratze tipikoa 1,506tik 1,231era jaitsi da.

Gerturatze mailaren atal hau amaitzeko azpimarratuko genuke lau kooperatiba erduetan I. Txandatik II. Txandara batez bestekoaren balioa gutxitu egin dela. Honek esan nahi du hausnarketa prozesuaren ondorioz bigarren errondan kooperatiba guztiekiko puntuazioa txikitu egin dela.

7.1.25.2 Grafikoak: Politikoak eta teknikoak balorazioa; kooperatiba mota desberdinen balorazioa



Iturria: Geuk egina (2014)

Azkenik, kooperatibizazio ereduari dagokionez, politikoek honako sailkapena egin dute:

- Kooperatiba mistoa: 4,00
- Gizartearen intereserako kooperatiba: 3,71
- Onura Publikoko Kooperatiba: 3,00
- Kooperatiba arrunta: 2,13

Teknikoek, berriz:

- Gizartearen intereserako kooperatiba: 4,25
- Onura Publikoko Kooperatiba: 3,50
- Kooperatiba arrunta: 2,25
- kooperatiba mistoa: 2,00

7.1.26 Adituen hausnarketa kualitatiboak bosgarren arlo honi buruz (18,19,20,21,22,23,24,25. galderak): KOOPERATIBIZAZIO PROZESUA, PUBLIKOTASUNA ZABALDU EDO PRIBATIZAZIOARI ATEAK IREKI. Adituek, arlo honi buruz, egin dituzten hausnarketak euren erantzunak argitu eta garatzeko:

Lehen txanda

-Lehen txanda honetan ez dugu espaziorik ireki bosgarren atal honi buruzko hausnarketak jasotzeko.

Bigarren txanda

-Erantzun gabeko galderak: 11

-Erantzundako galderak: 2

1.- “Nere esperientziaren arabera, nire sektorean lan egiten duten kooperatibek ez dute ezer diferenterik ematen, ez zerbitzuaren kalitatearen aldetik, ezta izaera publikoaren aldetik ere”.

2.- “Nik uste dut herritarren parte hartzea defendatzen baldin badugu, nahitaez kooperatibak bultzatu behar direla. Beti ere irabazi asmorik gabekoak eta integralak baldin badira askoz hobea. Zein gizarte eredu eratu nahi dugu? nire ustez herritarrok zainketaz ere arduratu behar gara, eta saiatu behar gara zaintzak merkatutik ateratzen”.

Bosgarren arloa: Hausnarketa orokorra arlo osoari buruz (18, 19, 20, 21, 22, 23, 24, 25 eta 26. galderak): KOOPERATIBIZAZIO PROZESUA, PUBLIKOTASUNA ZABALDU EDO PRIBATIZAZIOARI ATEAK IREKI.

Arlo honetan adituen artean zalantza asko eta iritzi kontrajarriak daudela esan daiteke. Laburbilduz azpimarratu behar da adituek ez daukatela argi gizarte zerbitzu publikoen kooperatibizazioa helburu integral bat izan daitekeenik. Baino bestalde ere, argi gelditu da kooperatibizazioa ezin dela erabili gizarte zerbitzu publikoen tokian tokiko adabaki moduan. Hain zuzen ere, gehiengoek kooperatibizazioa ikusten dute aukera bat bezala. Hona hemen gizarte zerbitzu publikoen kooperatibizazioari buruz atal honetan atera diren ondorio nagusiak:

Alde batetik, iritzi kontrajarriak daude. Aditu batzuentzat, gizarte zerbitzu publikoen kooperatibizazioa espazio publikoa zabaltzeko bide bat da (4 eta 5)[%31] eta beste batzuentzat ez (1 eta 2)[%38]. Ez alde eta ez kontra %31 [Erdian(3) %23 eta ED/EE %8]. Galdera beste era batetara eginda ere emaitzak errepikatu egiten dira. Batzuentzat gizarte zerbitzu publikoen kooperatibizazioa erantzukizuna pribatizatzen joateko bide bat da (4 eta 5)[%31] eta beste batzuentzat ez (1 eta 2)[%46]. Ez alde eta ez kontra % 23 [Erdian(3) %15 eta ED/EE %8].

Bestalde, helburu integral bat bezala ere ez da argi gelditzen. Adituen %31ak bakarrik ikusten du kooperatibizazioa helburu integral bat bezala (4 eta 5). Aldiz, %46ak ez (1 eta 2). Erdian, %23a ez da posizionatzen.

Gainera, aldi baterako helburu moduan ez da ikusten. Hau da, adituen %16ak bakarrik uste du gizarte zerbitzu publikoen kooperatibizazioa aldi baterako helburua dela publikazio integrala berreskuratzeko (4 eta 5). %76ak, ordea, ez (1 eta 2). Erdian(3), %8a.

Ez da kontsideratzen ere tresna egokia arazo puntualei aurre egiteko. Adituen % 16ak bakarrik uste du kooperatibizazioa bitarteko bat dela gizarte zerbitzu publikoen arazo puntualei aurre egiteko (4). %69ak, aldiz, ez (1 eta 2). Erdian(3), %15a gelditzen da.

Hori bai, adituen %69k kooperatibizazioa baztertu ezinezko aukera bat bezala ikusten dute (1 eta 2). Kontra, berriz, adituen %15a azaltzen da (4 eta 5) eta erdian (3) %15a.

Kooperatiba mota desberdinak aztertzen badira nota hoberena “Gizartearen Intereserako Kooperatibak” ateratzen du (3,91). Gero, “Kooperatiba Mistoak”(3,33). Atzetik, “Onura Publikoko Kooperatiba”(3,18) dator. Eta azkenik, Kooperatiba Arrunta (2,17).

Politiko eta teknikoen iritziak desberdintzen badira, politikoen %24rentzat kooperatibizazioa espazio publikoa zabaltzeko bide bat da (4 eta 5) eta %37rentzat ez (1 eta 2). Erdian(3), berriz, %25a gelditzen da eta %12ak ez daki edo ez du erantzuten. Teknikoei dagokionez, %40ek kooperatibizazioa espazio publikoa zabaltzeko bide bat dela esaten dute (4) eta beste %40ek ez (1 eta 2). Erdian (3) %20 gelditzen da.

Teknikoentzat kooperatibizazio prozesu batek ez luke izaera publikoa indartuko. Hau da, kanpoko enpresa batek ematen badu zerbitzua ez da publikoa izango. Erantzukizuna publikoa izango da baino probisioa pribatua. Gero beste gauza bat da nahiago izatea probisio hori emateko irabazi asmorik gabeko enpresa bat, kooperatiba bat edo gertutasuna adierazten duen enpresa bat enpresa kapitalista arrunt bat baino. Baino azken finean orokorrean teknikoentzat kooperatibizazioa pribatizazio prozesu bat da. Are gehiago, kooperatiba edo sektorean azpitik sortutako elkarte baten artean, aukeratzekotan, elkartea aukeratuko lukete historikoki behar sozial batetik sortu delako:

“Kanpoko batek, berdin zein eta zein izaerakoa, ematen badizu probisioa eta hori nolabait ere kanpoan dago. Ez da publikoa. Erantzukizun publikoa izango da baino probisioa pribatua. Kanpoko izaera kontuan hartu gabe hori bai, hori lehenengo pausua. Bigarren pausua, baino bale, hori kapoan da. Baino zer nolako izaera du kanpoko horrek. Hemen lehen aipatu dizut. Nik nahiago dut Zabalduz Clece baino. Bale. Hor bai dagola, agian dauden parametroak dira zuk aipatzen zenituenak, gertutasuna, irabazi asmorik gabe. Aver. Neretzako hori pribatizazioa da. Momentu honetan edo dago prestazio zuzena edo ez zuzena. Eta ez zuzen hori nolabait ere pribatizazio hitza ez zait gustatzen baino bai, kanpoan ez zuzena. Nahiago det ematen den kanpoko hori gertuagokoa izatea eta ahalik eta sozialagoa izan eta abar baino pribatizazioa da modu batean. Are gehiago, jartzen baldin badezu Atzegi zerbait esateagatik eta ondoan kooperatiba bat nahiago dut Atzegi, zergatikan? Historikoki azpitikan sortzen den zerbait delako, ekimen sozialeko gero bere izaera izango da elkarte bat. Baino ordun hor daude pausoak .Baino gero bakoitza bakoitza da. Baino esaten baldin baduzu ez dakit zein pue”. (T)

Tekniko batzuk apustua egiten dute zerbitzua zuzenean emateko. Horrek ere baditu bere alde negatiboak ere bai. Alde batetik, zerbitzua zuzenki emateko egitura egokiak edukitzea eskatzen du behar den ahalmen guztia edukitzeko, behar den balio erantsia sortzeko. Eta bestetik, langileak funtzionario bihurtzeko arriskua dago:

“Nik beti esan det apustu bat egingo nuke dena zuzenki emateko. Modu zuzenean. Zergatikan ez! Gero horrek baditu bere alde kaskarrak ere bai. Nik beti esaten det zuzenki ematen baduzu zerbitzuak estrukturak behar duzu horren araberrako. Ejenplo berdina ipintzen dut departamendu honetan, Uliazpi, Uliazko kalitate handikoa da baino Uliazpik 200 plaza eduki ahal izateko uste dut ditula 200 ta justu ez dakit zenbat diren, kriston estruktura intermedio handia dauka, hau da, daude arduradunak, zentro-arduraduna, kalitate arduradunak, lan harremanen arduradunak e.a., zuzendariak, zuzendari medikoak, zuzendari funtzionala. Esan nahi det zuk behar duzula estruktura bat. Zergatikan? Zuk sortu behar duzulako balio guztia. Zuk asmatu behar duzu nola eman. Balio erantsia zuk zure kabuz sortu behar duzu, ez da bakarrik jartzea zaintzaileak edo ez dakit zer. Zerbait gehiago. Nik beti esaten det 200 ta piko plaza emateko begira zer nolako estruktura dauka Uliazpi. Emaitza? Kalitatea. Are gehiago, Alde txarra? Ez dakit baino ba dakit, Bizkaikoekin eta Arabakoekin hitz egiten kexatzen dira jendea funtzionarizatu egiten dela. Ta orduan arazoak sortzen dira. Arazoak, arazo horiek legitimoak dira baino kriston amorrua ematen dute. Zenbait espazioetan ezin dezu, osea, badakizu zer nolako zerbitzua ematen dezun, 24 orduak urte osorako. Hori Jendeak txandaka ibili behar badu eta jendeak festiboetan lan egin behar badu, joder, koño, hori errekonozitu eta ya está. Baino gero sortzen dira problemak. Nik badakit adibidez, ez dizut esango non baino ibili dira kriston arazoekin gu lan egin bai baino funtzionarioak lan egiten dute astelehenetik ostiralera eta astebukaeratan sartzen da Clece. No me jodas!. Hau ez da normala. Neretzako da impresionantea. Non? Egogain da Eibarren dagoen Adin Nagusiko zentroa. Diputazioak funtzionarioen bidez egiten duen bakarra. Eta zer dugu? eta dugu hori. No mejodas! Asteburuko lanak besteak. Trabajadores de primera eta de segunda. Eta gainera nik oso garbi daukat zenbait momentuetan mahai ganean jarri da eta begira hor jarraitzen du. Hori zer da? Momentu batean bertako langilek esan dute ni Diputazioko langilea naiz eta Diputazioko langileek lan egiten dute astelehenetik ostiralera eta goizez bakarrik. Nik ere bai nahi det. Baino aizu motel. Ezin duzu. Zuk zara Diputazioaren funtzionarioa sektore konkretu batean. Eta horri frente izateko zer egiten da? Sartzen da kanpoko enpresa. Hori da kudeaketa anormala. Hori ez da erantzun egokia. Hori gertatzen da zergatikan? presio handia egoten da, nik hori ikusi dut beste probintzietan. Eta hor ikusi da presio sindikala fuertea izaten da eta a. eta a. eta ekipo politikoeak beti dute denboraren muga eta problemarik ez dute nahi eta gero zer egiten dute? Venga tira paya! Eta hortik klaro hori problema bat da. Ordun, funtzionarizazio figura horretan zerbitzuen probisio zuzenean arriskua hori da. Guk kogerente eta goiko nolabait ere figura horiek lau urtetarako, zortzi eta hamabi urtetarako gaudela eta ordun epe luzera pentsatu behar dira gauza batzuk eta hori problema bat da”. (T)

Teknikoen ustez gaur egundo Foru Aldundiak ez du kooperatiben aldeko apustua egiten. Hain zuzen

ere politikoek epe luzera prestazio zuzenaren aldeko apustua egin dutelako. Dena dela teknikoentzat prestazio zuzenaren aldeko apustu hori gaur egungo ereditik oso urruti dago eta Kabiarekin hasi da zehazten. Hala ere, teknikoen ikuspegitik, prestazio zuzenaren aldeko benetako apustua egiteko ibilbide argi bat finkatu ondoren egitura eta ekipo funtzional egokiak osatu behar dira. Bestela, teoriarik egin nahi den apustu ideologiko hori gero praktikan ez da gauzatuko:

“Nik uste dut politikoki apustua epe luzera dela prestazio zuzenaren alde. Prestazio zuzen hori dago oso urruti gaur egun dagoen modelotik inoiterario hori oraindik ez dago, agian kabiarekin hasi da definitzen. Politikoki ematen du prestazio zuzenera goazela. Horizonte batean”. (T)

“Nik horrekin ados egon naiteke baino definitu behar dela ongi inoiterarioa eta inoiterario horretan jarri behar dira baliabideak. Lehenago Uliazpitaz esaten duguna adibidez. Kabiak sortu da. Kabiak oraingoz kontratu batzuk hartuko ditu eta kudeatu kontratuak. Baino pauso emanda inkluso egoera horretarako Kabiak behar duen ekipo funtzional bat teknikoak. Behar du ere bai abokaturen bat eta ekonomistaren bat kontratuak eta gauzak ondo egin ahal izateko, oso zaila da ondo legalki eta modu ordenatuan eta efizientean egin ahal izateko. Baino nolabait ere Kabiak ere esan beharko die enpresariei zerbitzua nola nahi duen, zerbitzua nola prestatu behar den ze intesitatekoa eta hori guztia definitu behar da eta hori Uliazpik egiten du eta horretarako behar du estruktura bat. Zuk inoiterario horretan, demagun Kabiak izan daitekeela horretarako tresna eta definitu behar diozu Kabiari nolabait ere estruktura bat eta ekipo bat funtzionala definitzeko nola nahi duzun antolatu nola eta horretarako jarri behar da ere bai. Baino da nolabait ere prestazioa nola egiten den eta abar eta abar. Eta bestela puñetas. Hau da behar duzu ekipo oso potentea. Egitura antolatu behar da, funtzionala. Ez kudeaketarako egitura. Kabiak orain uste det sortu behar dituzte plaza batzuk, ta dira abokatuak, ekonomialaria eta administraria. Kojonudo. Non dago beste zerbaite? Ah departamendua! Departamendua bai, agian txikia den neurrian baino Kabiak handitzen bada, joan zaitez, IFAS, Bizkaiko eta Arabako institutoetara eta begiratu a ver ekipoak dituzten ala ez. Potenteak dituzte oso. Ordun hasi hori guztia inkorporatzen eta inoiterario horretan, karo, egin behar da planifikazioa oso epe luzera, oso epe luzera, ez 4 urtetara. Agian 20 urtetara. Gai gea? Hemen beti epe motzera, begira orain mapa aipatu dizut lehenago 2017 bitartekoa, hau da, pasau mañana. Ulertzen? Eta horrela agian funtzionatu behar da baino behar da beste perspektiba luzeago bat. Ez da egon”. (T)

“Gerta daiteke Hauteskundeak edo inkluso Bildukoa izan eta ez jarraitu bide hortatikan. Dator Bilduko beste bat. Nik hemen bizi izan ditut partidu berdinekoak eta kriston aldaketak. Askotan dauden pertsonak, partidu barruko familiak inkluso Bildun ere badaude taldeak hemen dago Alternatiba ezin da ahaztu etorri daiteke Sortu, ulertzen? Ordun ez dago epe luzerako politika. Hausturak egoten dira. Gero haustura horiek ez dira gehiegi nabaritzen, kontinuitate bat egoten da”. (T)

Politikoen artean planteatu denean kooperatibizazioa urrats bat den eredu publiko edo

eredu pribatuaren alde ez dira erantzun argiak jaso. Iritzi desberdinak jaso dira hausnarketa anitzak eginez. Politiko batzuk azpimarratu dute kooperatibizazioa trantsizio momentu baterako elementu interesgarria izan daitekeela beti ere helburua sistema publikoa izanik:

“Hor egon da momentu bat non eztabaidatu da eredu publiko horren baitan ulertzen dugun zainketa horien autoorganizazioa barruan egongo litzateke edo kanpoan. Behin hori finkatuta zure helburutan erabakitzen duzu ea trantsizio horretan kabitzen dira horrelako formulak? Bai eta horren aldeko apustua egingo du departamenduak? Bai ta ere, eta helmugan? non kokatzen da autoorganizazio hori, kooperatiba izaera izango lukeena? Ez dakit ondo azaldu naizen. Horrela jarraitu behar du ia helmugan ere edo helmugan hortik planteamendu bat egongo litzateke? Klaro, zer nolako konpetentziak ditugu”. (P)

Beste batzuk azpimarratu dute publiko-pribatu eztabaida hori gainditu egin beharko litzatekela azentua izaera sozialean jarriz:

“Eta niretzako ere zer nolako gestio publikoa daukagu? Adibidez, gure gestio publikoa, adibidez, partehartzea oso eskasa da eta hori gabezi handia da. Ordun, niretzat ez dauka zentzurik, publikoa eta listo? Ez. Publikoa ere moldatu daiteke. Ordun oso dikotomikoa da eztabaida. Nik uste dut erdibideko bideak ere badaudela ta aztertu daitezkeenak”. (P)

Baita ere hausnartu da batzuetan kooperatibak erabiltzen direla lan baldintzak prekarizatu eta aldi berean bake soziala bermatzeko:

“Edo hor ere badago beste atal hori. Azkenean, lan balditzen debatea. Kooperatibak balio dute lan baldintzak duintzeko? Kooperatibak erabiltzen dira lan baldintzak prekarizatu eta aldi berean bake soziala bermatzeko sindikatuak kentzen dituzulako erditik? Hor dago eztabaida ere bai”. (P)

Politikoez ere azpimarratzen dute bere garaian egon zen kultura kooperatiboa gaur egun nahiko ahul dagoela eta hasieratik ez bada kooperatibizazioa oso argi ikusten gero kultura falta honek ez ditu gauzak errazten:

“Baina nik, historia bada ere, ez dakit agian ez garelako bizi Arrasaten inguruan edo hola, baino sentsazioa dut nahiago duela beti nagusi bat izatea, enpresa bat egotea. Ez dakit noraino dagoen kultura bat jendeak sortzeko kooperatibak”. (P)

“Ez dago kulturarik. Egon zen kultura eta Arrasaten egon zen kultura hori orain dela urte dexente. Baina gaur egun azken krisiaren ostean igual kontzientzia hori areagotu egin da baina no era conciencia de decir “Yo soy trabajador y patron y propietario y tal”. (P)

“Ez da lehengo bera. Beste gauza bat da egoera jakin batzuetan hori dela irtenbide bat eta alde hortatik jendea agian animatzen da. Nik ez dakit noraino egon daitekeen nahiz eta guk borondate bat izan hori bultzatzeko. Ez badago kultura bat jendeak nahiago du enpresa bat egotea zer ardura gutxiago delako eta gero guk ezin badugu ere hori gero modu argi batean ez badugu ikusten eta gero ez dakit noraino ahal dugun, hitzartzeko garaian edo kontratatzekeo garaian, hori bultzatu. Ordun, ez dakit, nik uste eremu konplikatua dela. Aparte gure hasiera puntua, gure ideologiaz gain, ez dut ikusten oso erraza nahi izango bagenu hortik tira”. (P)

Gainera, politikoez nabarmendu nahi dute kooperatibizazioa ezin dela dekretuz lortu. Kontzientziazio prozesu bat eman behar da kooperatibistak sortzeko eta ondoren kooperatibak eraikitzeko. Kooperatiben dimentsio txikiak eta adin aldetik kooperatibistak gazteak izateak lagundu egiten du kooperatiba-izpiritua zabaltzen. Administrazioaren segimenduak eta laguntzak kooperatibizazioa bultzatzea dezake. Beti ere gainditu egin beharko da lehiakortasunaren aldeko diskurtsoa lankidetzaren parametroetan lan eginez:

“Yo lo que quisiera comentar que a golpe de decreto no se consigue nada. Vienen de varias vías Sobre todo me voy a centrar en el sector. Estoy de acuerdo que es un debate más amplio. Es un problema de concienciación, incluso dentro del propio movimiento cooperativo, y también de tamaño. Yo creo que es más sencillo lograr esas concienciaciones en tamaños pequeños que en medianos y grandes. Porque en medianos y grandes los focos de decisión y del día a día se alejan y te hacen menos consciente de tu condición de cooperativistas y por lo tanto propietario de los medios de producción. Es verdad que en cooperativas más pequeñas eres más consciente. Lo que parte del problema que le ha pasado al MCC se han ido alejando esos núcleos de decisiones se han ido alejando, delegando en pirámide y eso ha hecho que no se sienta no se perciba la condición de cooperativista. Primero, que es más viable en servicios en intervenciones más pequeñas que la escala es un problema. Dos, que depende al sector que te dirijas en más o menos sencillo. Yo creo que este momento es más sencillo por tipo de perfil de persona trabajadora en sectores como en la infancia o en la inserción que en sectores más feminizados o de mayoría de edad como ayuda domiciliaria es más complejo, más complicado al menos. Un factor como la edad es un factor determinante. Con 25 años me animo pero con 50 es más complicado. Luego, hacer los debidos acompañamientos. Es decir si somos conscientes del problema igual tenemos que hacer los acompañamientos necesarios, más allá de los decretos, a los sectores si quieres más problemáticos con formación y ayudas económicas también. Yo creo que uno de los grandes problemas a la hora de decidir porque lo hemos podido comprobar aunque sea no habiendo estado nosotros incentivándolo es por ejemplo decir que igual la diferencia entre un grupo de mujeres de un sitio pequeño ha pasado a cooperativa para un servicio determinado pero por unos problemas que ha surgido, el tema de las fianzas para los recursos, seguramente eran personas debidamente cualificadas, mira yo he trabajado para esta empresa durante 15 años en ayuda domiciliaria, yo soy capaz de, junto a mis compañeras, autoorganizarme en una cooperativa y presentarme a concurso y ganarlo pero un handicap muy importante es el establecimiento de

avales para el concurso. Entonces, ¿se podría establecer una política de ayudas al respecto? Se podría dar una vuelta. También intentar penetrar en determinados sectores a través de las cooperativas mixtas. Por ejemplo, donde si me acompaña la administración igual puede ser interesante entrar. Como tengo un tipo de colchón o alguien que va acompañar en este proceso. E incluso dentro de la propia organización de la cooperativa. Y luego un tema también de concienciación social y discursivo en el que nosotros incurrimos también. Es decir, estamos en la época de la competitividad y no de la cooperación. ¿Cuánta gente habla de la Cooperación? Cada vez más. “La economía colaborativa” está muy en boga. Es la primera vez que escucho hablar de economía colaborativa. “Sharing economy”. No, pero en el día a día caemos “hay que impulsar la competitividad”. “Cuando dos personas compiten una pierde”. “Cuando cooperan dos personas ambas ganan”. Entonces yo creo que incluso discursivamente no estamos en la clave de decir tenemos que cooperar. Siempre incurrimos en lo mismo. Hay que ser competitivos, siempre no, inconscientemente detrás de eso va toda una lectura social también. Y eso tendríamos que cambiarlo incluso en los propios discursos que articulan, y lo digo como autocrítica, gobiernos de determinados ámbitos. Y definir los términos que acompañan a determinada visión de la sociedad. Que claro, también tienen sus efectos. Resumiendo, por decreto ley no, y tendremos que ponernos las pilas tarde o temprano para acompañar a determinados procesos”. (P)

Kooperatiba mota desberdinen artean politikoez kooperatiba mistoaren aldeko apustua egiten dute eta teknikoek berriz, kooperatiba mistoa azken postuan jartzen dute. Tartean, beste kooperatiba eredu guztiak politikoez eta teknikoek ordena berdinean sailkatzen dituzte: Gizarte Ekimenekoa, Onura publikokoa eta Arrunta.

Hala ere, politikoez azpimarratu nahi dute mugimendu kooperatiboa ahula den tokietan kooperatiba mistoaren aldeko apustua egin behar dela eta kooperatiba-izpiritua garatuta dagoen lekuetan beste ereduera jotzea komeni dela:

“Nik bai eta ez. Ordenarekin ados nago baina nire ustez kooperatiba misto batek arlo eta esparru eta egoera batean lehentasuna izango luke eta beste arlo batean Gizarte Ekimeneko kooperatibak izango luke. Hau erlazioan jarriz nik lehen aipatu dudanarekin. Mugimendua oso ahula den tokian kooperatiba mistoak edukiko luke lehentasuna. Naturaltasunez eta egoera objektibo horiek indar gehiago dauzkaten esparru horietan beste eredu batek dauka lehentasuna neretzako”. (P)

Politikoentzat eztabaida nagusia da jakitea noren kontura zabaldu nahi den kooperatibazioa, gestio zuzenaren edo ekimen pribatuaren kontura. Zentzu horretan, politikoen kooperatiben zabalkundeak ezin du gestio zuzena jan. Horren harira, zahar-egoitzetan eta eguneko zentroetan kudeaketa zuzena zabaltzeko aukera bakarra 16 udal egoitza bereganatzea izan da eta testuinguru horretan ez da GSR kooperatibaren aldeko apustua egin. Kooperatiba baten esku uztea ezkutuko

pribatizazioa egitea bezala uler daiteke. Beste esparru batzuetan, berriz, kudeaketa zuzena burutzeko paradarik ez dagoen tokian, aukera errealak daude kooperatibizazio prozesuak burutzeko, beti ere langileen lan kontratu desberdinen arteko tentsioak gainditzen badira:

“¿A costa de quién tiene que crecer la cooperativización? Claro, es que el planteamiento que nos hace GSR era a costa de la gestión directa. Si yo considero que ser el 3% de la red me genera un problema digo no es que para mi la gestión de residencias me hace saltar del 3 al 16 o al 20 que es donde tengo que estar por diferentes motivos que ahora no vienen al caso (reconocimiento... bastantes elementos con un sector de gestión directa relevante dentro de un todo el sector). GSR puede crecer a costa de la iniciativa privada. El problema es ¿a costa de quién haces crecer?. Si el planteamiento que se nos hace en el contexto, y es cierto, pues mira GSR se puede implicar en la gestión residencial integral lo cooperativizas y ya está. Yo puedo estar de acuerdo en que me siento más cómodo en centros donde se haya cooperativizado al personal que en empresas mercantiles al uso. De acuerdo, pero si esa propuesta hace que yo no pueda crecer en la gestión directa es un problema y ahí ha habido un choque que no era relativo a “descarto las fórmulas de cooperativización” sino no precisamente cuando ahora tenemos una oportunidad de decir algo más en el sector. Ez dakit ondo esplikatzen naizen”. (P)

“Behintzat kudeaketa zuzena artikulatzeko lehia. Guk, argi eta garbi esateko, egoitza eta eguneko zentroak, adineko egoitza gure kudeaketa zuzena areagotzeko aukera bakarra, salvo que nos de por comprar una concesión administrativa pero no tenemos 60 millones de euros para comprarla o 30 millones de euros que pueda costar, aukera bakarra 16 udal egoitza hauek dira. Ez dago beste aukerarik. Bueno, etorkizunean etorriko diren egoitza berriak. Baina bueno, enfin, hori bere egunean etorriko da, eta pixkanaka pixkanaka, eta ez dakit, 10 urten bat edo bi. Aukera bakarra hori zan. Momentu horretan planteatzea ez dugu kudeaketa zuzenaren aldeko apostua egingo baizik eta publikoa alboratuta, esku zabalez. Orain da momentua esparru honetan kooperatibizazio prozesua animatzeko edo bultzatzeko? Ba ez. Horrek ez du kentzen beste esparru batzuetan aukera errealak daude kooperatibizazio prozesuak burutzeko. Baina beste esparrun ez daude kudeaketa zuzena artikulatzeko aukerarik. Hori izan zen nire ustez. Hor izan genuen eztabaida”. (P)

“Gainera ulertu zitekeen pribatizazio kamuflatu bat bezala ere bai. Zeren azkenean, Lehenengo bost hauetan subrogazioa dago baina hurrengotan daude pertsonal zuzena, funtzionarioak eta abar. Ordun klaro mugimendu hau uler daiteke...nahi duguna da hori pribatizatzeke. Erabili justu kontrako asmoarekin”. (P)

“Nik gogoratzen dut proposamena. Y la convivencia entre personal laboral, no laboral, propio, cooperativizado.. eso yo creo que ahí GSR y lo digo, aunque me estén grabando pero como consejero, que es más problemático de lo que dijo GSR cuando vino. La convivencia de personal suele ser bastante problemática de diferentes categorías cuando cumplen la misma función. Yo lo he vivido en la residencia de Arrasate y siempre ha sido. Eta hor, langile zuzeneko kopurua oso txikia zen eta beste guztia enpresa baten bitartez, lehen kooperatiba zen eta gero nahiko berdina zen eta beti gatazkak zeuden. Azkenean lan berdina egiten dugu eta oso soldata

desberdinak daukazu eta hori sostengatzeko epe ertainean nahiko konplexua da. Eta hor GSR-ek proposamena egin zuenean ez dakit oso konszientea zen horrek arazoak ekartzen dituela. Beste gauza bat da zerotik hartzea egoitza bat non dena estandarizatuta dagoen eta hor kooperatibizazio bat egiten duzu baina non erdi eta erdi daude edo 10 edo 20 langile propio daudenean horrek arazoak ekartzen ditu epe ertainean eta tentsioak ekartzen ditu". (P)

"Eta sindikatuen aldetik ere nik uste dut ere hor arazoak planteatu zutela ere. Hauentzat ere zen beti hortan dago ere kudeaketa publikoa izan behar dugula eta ordun kooperatibizazio hori komentatzen zuten ari zen pribatizatzea berriro ere. Hauentzat ere GSR dago baino GSR ere da enpresa merkantil bat. Kooperatiba baino enpresa merkantila. Eta ordun esan nahi det ere hortan gauza bat da gure aldetik ere hartzearena zea kudeaketa publiko ideiaarena eta beste bat zen gizartea. Eta nik gutxienez bai iruditzen zitzaidan kontrako jarrera sindikatuen aldetik". (P)

Azkenik, politikoei erantzukizun publikoari ematen diote lehentasun osoa. Irizpide orokor horren barruan politikoei pentsatzen dute ekonomia soziala bultzatu behar dela, kooperatibizazioa barne. Horretarako Administrazioak dituen tresna desberdinak erabiliko dituzte, horien artean, klausula sozialak:

"Gabezia markatzen baldin baduzu ematen du kontrako jarrera duzula. Esan dezakezu berdina beste bide batetik. Eta agian da, guk erantzukizun publikoaren alde gaudela. Horren barruan uste dugu klausulen bidez ez dakizer, hirugarren sektorean edo ekonomia sozialeko ez dakizer bultzatu nahi dugula eta horren barruan ez dugula ikusten bereziki kooperatibizazioa dela lerro...Baina beno, hau esanda, ez gaudela horren alde ematen du, ez dakit. Nik esan nion egin zigun argazkian aurkezpen horretan nik ez nuela nire burua ikusten. Ematen zuen gabezia. Ez duzu bultzatzen, baino agian ez dudalako uste bereziki bultzatu behar dela horrela. Baina agian ari gara bultzatzen ere, ez dakit, beste testuinguru baten barruan horren alde gaude. Orduan, nik esan nion kontuz ibiltzeko, batez ere sentitzeko islatuta horretan, ezta". (P)

SEIGARREN ARLOA: ADITUAK GEHITU NAHIKO LUKEENA

7.1.27 Azken arlo honetan adituak egin dezake bere hausnarketa laburra Gipuzkoako gizarte zerbitzuen kooperatibizazioaren inguruan aurreko ataletan ukitu ez den edozein gai jorratuz.

Lehen txanda

-Erantzun gabeko galderak: 8

-Erantzundako galderak: 5

1.- “Kooperatibak egoera batzuetara egokitzen dira eta abantailak dituzte kasu horietan, baina enpresak dira eta forma juridikoak ez du ezer bermatzen beste kasuetan”.

2.- “Arazo batzuekin topo egin dut inkesta erantzuteko garaian. Garrantzitsuena da ez ditudala nahiko ezagutzen kooperatiba mota ezberdinen arteko diferentziak”.

3.- “Azken ataleko baieztapenak txuribeltzean planteatu dira eta grisaren esparruan mugitzen dira”.

4.- “Galderetan kooperatibak kudeaketa zuzenaren kontra planteatzen dira bereziki. Baina gaur egungo Gipuzkoako gizarte zerbitzuen kudeaketa eredu pribatua izanik, alderatu beharko litzateke bereziki zer nolako hobekuntza ekarri dezakeen kooperatibismoak enpresa eredu klasikoaren aurrean”.

5.- “Nire ustez kudeaketa pribatua daukaten zerbitzuekin hasi behar da. Beste esparruetan (adibidez, hezkuntzan, elikaduran) eta beste herrialdeetan (adibidez, Brasilen) oso esperientzia interesgarriak daude. Kooperatiba integralak sortzera jo beharko genuke, non zerbitzuen erabiltzaileek ere parte hartzen duten. Ez ginateke zerbitzuen kudeaketara mugatu beharko, baizik eta komunitatea sortzen duen kooperatibak diseinatu. Adibidez, Cooperativa Integral Catalana eta holako eredu alternatiboak, nahiz eta oso anbizio handikoak izan, begiratu ditzakegu”.

Bigarren txanda

Erantzun gabeko galderak: 12

Erantzundako galderak: 1

1.-“Gizarte zerbitzuak nola ulertzen ditugun bakoitzaren ideologian oinarritzen da. Nik uste dut argi eduki behar dugula zein gizarte mota nahi dugun, eta hori lortzeko politika trantsitorio aproposak eta koherenteak diseinatu behar ditugu”.

BIGARREN ATALEKO (LANDA AZTERKETA) ONDORIO NAGUSIAK

Puntu honetan laburbilduko dira landa azterketaren atalean egin diren hausnarketa nagusiak. Aurretik, Gipuzkoako gizarte zerbitzuen eredu kokatuko da Europar Batasunean, Estatu Espainolean eta Euskal Autonomia Erkidegoan. Gero Delphiren metodologia gainetik pasa ondoren ikerketa enpirikoan lortu diren ondorio nagusiak bost multzo nagusietan banatuta plazaratuko dira: eredu egokiena gizarte zerbitzuak emateko, gizarte zerbitzu publikoen diseinua, gizarte zerbitzu publikoak emateko ereduak, hirugarren sektorea/ekonomia soziala eta kooperatiben diskriminazio positiboa eta azkenik kooperatibizazio prozesua, publikotasuna zabaldu edo pribatizazioari atek irekitzeko bidea. Atal honetan honako ondorio nagusiak atera dira:

(1) Gipuzkoako gizarte zerbitzuen gogoeta egiten denean ateratzen den ezaugarri nagusia da zerbitzu horiek kontzertatutako antolaketa batean oinarritzen direla. Gipuzkoako lurraldera jaitsi aurretik esan daiteke Europar Batasunean gizarte zerbitzuen arloan subsidiarioritasun printzipioa aplikatzen dela. Bestalde printzipio hori Europar Batasuneko herrialde gehienak zeharkatzen dituen joera global baten menpe dago: bere biztanleriaren zahartzea. Bizi-itzaropena luzatzen ari bada ere ezgaitasunik gabeko bizi-itzaropena ez da luzatu proportzio berdinean. Zentzu horretan zahartze aktiboaren printzipioa nagusitzen ari da europar mailako politika desberdinetan. Horren ondorio nagusia da gizarte zerbitzuen kostu publikoa izugarri handitzen ari dela.

Bestalde, Estatu Espainolean mediterraneoko erregimen kontserbadore korporatibista aplikatzen da. Hori bai, zenbait espezifikotasun zehatz erakusten dituelarik. Mediterraneoko izaera horrek bere barnean elizaren eragina eta familiaren balio tradizionalen babesa darama. Eredu hori subsidiarioa da, hau da, Estatuak esku hartuko du familiaren eta eliza bezalako beste erakunde batzuen ahalmena agortzen denean.

Espainiar Estatuan 2006an mendekotasun legea onartu zen. Lege hori martxan jartzen da autonomia pertsonala sustatzeko eta dependentzia egoeran dauden pertsonak laguntzeko. Estatu Espainolak, beste administrazio publiko guztiekin batera, Lege horrekin bermatu egin nahi ditu gutxieneko eskubide batzuk bere lurralde osoan. Legeak Estatuko Administrazio

Orokorren aldetik gutxieneko berme bat plazaratzen badu ere gero autonomia-erkidego bakoitzari aukera ematen zaio babes hori osatzeko eta toki-administrazioekin partekatzeko.

Espainiar Estatuaren mailan egin diren zenbait azterketa kontuan hartzen badira ikerketa horietan azpimarratzen da Estatuko erregioek, bakoitzaren autonomiaren ahalmenaren arabera, berezitasun propioak dituztela. Zentzu horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuek eredu mistoa islatzen dute. Euskal Autonomia Erkidegoak, beste autonomiekin alderatuta, gastu sozial handiagoa dauka. Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoa Estatuko Gobernu Zentralak proposatzen duen ildotik alderatu egiten da ekimen publikoaren eginkizunari merkatuari baino pisu handiagoa emanez. Horrekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-laguntza, enplegu eta oinarrizko errenten zerbitzuetan nabarmendu egiten da.

Estatuko mendekotasunaren legearekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoak 2008ko gizarte zerbitzuen legea onartzen du errealitate berri horri aurre egiteko. Testuinguru horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen sistema ongizate-estatuaren oinarrietako bat kontsideratzen da, biztanleria osoari zuzendutako ardura publikoa eta estaldura unibertsala azpimarratuz. Hala ere oraindik alde nabarmenak ikusten dira Europako Herrialde garatuenean eta arau berri horren bitartez diferentziak gutxitu egin nahi dira behar berriak aurreikusiz eta tresna egokiak planifikatuz.

Ikerketaren beharrak kontuan hartzen badira Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen lege horretatik bosgarren titulua azpimarratuko da bertan finkatzen direlako aukera desberdinak hirugarren sektoreak eta ekonomia sozialak gizarte zerbitzuen probisioan parte hartzeko. Bertako I. kapituluan ekimen pribatuaren esku hartzea erantzukizun publikoko gizarte zerbitzuetan nola antolatzen den aztertzen da. Horretarako, lehenbizi zerbitzu eta zentroak baimendu eta homologatu egin behar dira. Ondoren, ekimen pribatuaren parte hartzea gizarte zerbitzuen sisteman finkatuko da eta hori burutzeko zuzeneko kudeaketa, zeharkako kudeaketa eta hitzarmenak irabazi asmorik gabeko erakundeekin erabiliko dira. Era berean, kapitulu horretan diskriminazio positiboko neurriak kontuan hartuko dira irabazi asmorik gabeko erakundeentzat, beti ere antzeko baldintzak betetzen dituztenean.

Lankidetzako esparru-hitzarmenei dagokionez, gizarte zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan sartutako zerbitzuak kudeatzeko hitzarmenak egin daitezke irabazi asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeekin. Gainera, katalogoko zerbitzuak kudeatzeko kontratuak esleitzeko prozeduretan klausula sozialak, diskriminazio positiboko neurriak eta kontrataziorako beste irizpide batzuk erabiliko dira. Hori dela eta, kontratuak finkatzeko garaian lehentasuna emango zaie irabazi asmorik gabeko erakundeei, beti ere eraginkortasuneko, kalitateko eta kostuko antzeko baldintzak betetzen badituzte.

Bosgarren titulu horren II. kapitulu berriz, irabazi asmorik gabeko gizarte ekimenari babes publikoa emango zaio Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan sartuta ez dauden prestazio eta zerbitzuak garatzeko eta gizarte zerbitzuen eremuko beste jarduera batzuk antolatzekeo garaian. II. kapitulu horrekin jarraituz irabazi asmorik gabeko erakundeak gizarte-intereskotzat aitortuak izan daitezke, erregelamenduan finkatutako baldintzak betetzen badituzte. Bosgarren titulu hori amaitzeko legeak elkarlaguntzako eta gizarte-boluntariotzako antolakundeen aldeko hautua egiten du.

Ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoko 2008ko gizarte zerbitzuen legearen aplikazioaren bitartez gutxieneko garapen bat lortu da eremu publikoan eta esparru sozialean. Horregatik, Espainiar estatu mailan gizarte zerbitzuetan, merkatuak eta familiak agintzen badu ere, Euskal Autonomia Erkidegoan esku hartze publikoak eta sare sozialek pisu handiagoa hartzen dute merkatuaren eta familiaren eragina asko gutxituz. Hala ere, eredu misto horrek zenbait arazo ekartzen dio sektore publikoari, bereziki, zeharkako kudeaketak sektore publikoaren ahalmena eta kontrola ahuldu egiten duelako. Kontuan hartu behar da Euskal Autonomia Erkidegoko eredu Administrazioa dela zerbitzuen funtsezko arduraduna. Dena dela, eredu misto hori ez da berdina aplikatzen Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historiko desberdinetan. Arabako probintzian gizarte-zerbitzuetan sektore publikoaren esku hartzea nagusitu egiten da. Bizkaian berriz, sektore pribatuak eta hirugarren sektoreak pisu nabarmena dute eta azkenik Gipuzkoan kontzertatutako antolaketa batean oinarritzen da eta bertan batzuetan esku hartze publikoa zuzenean gauzatzen da eta beste batzuetan merkataritza sektorearen eta hirugarren sektorearen bitartez.

(2) Ikerketa honetan egin den landa azterketan lortu diren ondorio nagusiak arloka laburbilduta plazaratuko dira. Lehenbiziko arloan azertu da zein den eredu egokiena Gipuzkoan gizarte zerbitzuak emateko. Bertan atera daitekeen ondorio nagusia da Gipuzkoan gizarte zerbitzuak emateko gehiengo osoa eredu pribatu soilaren kontra agertzen dela. Horrekin batera aipatzekoa da adituen gehiengoa eredu publiko soilaren alde dagoela, baina beti ere, gaur egungo errealitatek abiatuta, atea irekitzen zaio eredu kontzertatuari. Iritzi nagusia da eredia erantzukizun publikoan oinarritu behar dela. Baina gero ez dago adostasunik erantzukizun publiko hori nola gauzatu behar den aztertzeko garaian. Batzuk eredu publiko soila lehenesten dute. Beste batzuk, berriz, eredu misto publiko-konzertatuaren aldekoak dira. Azken jarrera hori dutenen artean batzuk hirugarren sektorea/ekonomia sozialaren eta elkarteen balio erantsiari edo irabazi asmorik gabeko erakundeen kudeaketa sozialari lehentasuna ematen diote. Aipatzekoa da ere zenbait ekarpenek aipatzen dutela eredu motak soilik ez duela bermatzen zerbitzuaren kalitatea.

Atal honetako emaitza orokorrak azaldu ondoren komenigarria da orain aztertzea politiko eta teknikoen iritzien artean ematen diren diferentziak. Hasteko, politikoez eta teknikez iritzi nahiko antzekoa dute eredu pribatu soilaren aurka. Hausnarketa bateratu horretatik abiatuta gero politiko eta teknikoen arteko diferentziak handitu egiten dira eredu publiko eta kontzertatuari buruz hitz egiten hasten direnean.

Alde batetik, politikoak eredu publikoaren defendatzaile sutsuak dira. Teknikoen kasuan, berriz, gutxiengoak egiten du eredu publiko soilaren alde. Eta bestetik, eredu kontzertatuari dagokionez, politikoez kontrako jarrera hartzen dute eta teknikez aldekoa. Hasteko politikoez nabarmendu nahi dute teknikez eredu publikoaren aldeko jarrera hobetu egin dutela legegaldaren zehar, bereziki kudeaketa pribatuak edo kontzertatuak arazoak ematen dituen esparruetan. Aldi berean, politikoen iritziak ikerketa honetan ez da aukerarik eman eredu publiko, kontzertatu eta pribatu soilen arteko ereduak hautatzeko eta horrek baldintzatu egin du erdibideko ereduaren aldeko posizionamenduak agertzea. Teknikoez ere azpimarratzen dute gaur egungo Gipuzkoako gizarte zerbitzuen egoera aztertzeko momentuan kontuan hartu behar dela, alde batetik, historian zehar zerbitzu horiek mugimendu asoziatibo indartsu batetik sortu direla eta bestetik, sektore bakoitzak, garapen

historiko baten ondorioz, bere eredu propioa eraiki duela. Ibilbide historiko horren ondorioz Gipuzkoan eredu kontzertatua jaun eta jabe bada ere teknikoek argi dute zerbitzuaren azken ardura publikoa izan behar duela.

Bigarren arloan ikerketa gizarte zerbitzu publikoen diseinuan zentratu da. Gipuzkoako gizarte zerbitzu publikoen diseinua antolatzeko garaian jarrera kontsultiboa atera da garaile. Prozesu hori eman da erabaki partekatua bultzatzen duten guztiek argi ikusten dutelako kasu horretan azken hitza Administrazioaren eskuetan egon behar duela. Alde batetik, adituen ia erdiek ondo ikusten dute Gipuzkoako Foru Aldundiak hirugarren sektorea eta beste eragile sozialak aintzakotzat hartzea era kontsultiboan bakarrik. Eta bestetik, esan daiteke adituen erdiak baino gehiago erabakiak hirugarren sektorea eta beste eragile sozialekin modu partekatuan hartzeko prest daudela, beti ere argi utzita azken hitza Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskuetan dagoela. Baita ere, argi gelditzen da adituen gehiengo osoarentzat ez dagoela ondo ikusia Gipuzkoako Foru Aldundiak hirugarren sektorea eta beste eragile sozialak aintzakotzat hartzea era informatiboan bakarrik. Jasotako iritzien artean aipatu behar da ere hirugarren sektorea eta beste eragile sozialekiko mesfidantza puntu bat agertzen dela. Nahiz eta eragile sozialen parte hartzea ezinbestekoa kontsideratzen den, gero praktikan kontu handiz ibili behar da tartean interes pribatu asko daudelako.

Politikoen eta teknikoek posizioak bakoitza bere aldetik aztertzen badira zenbait ñabardura atera daitezke. Politikariak erabakiak hirugarren sektorea eta eragile sozialekin modu partekatuan hartzearen alde lerrokatzen dira eta teknikoek, berriz, nahiago dute hirugarren sektorea eta eragile sozialak era kontsultiboan bakarrik hartzea. Hori bai, bi eremuetan adostasun osoa dago beti azken hitza administrazioarena izan behar duela.

Hirugarren arloan hausnartu da zein den eredurik egokiena gizarte zerbitzu publikoak emateko garaian. Ikusi denez, gizarte zerbitzuak emateko garaian adituen iritziek zehaztugabetasun handia erakutsi dute. Ez dute jarrera argi bat azaldu gizarte zerbitzuak emateko tresna juridiko desberdinen inguruan. Hain zuzen ere adituen erdiek baino gehiagok ez dute posizio argirik hartu kontzertazioa, kontratazioa eta hitzarmenaren inguruan. Adituek argudiatu dute formatu perfekturik ez dagoela eta askotan zerbitzu jakin

baten izaerak eta momentuko egoera zehatzak baldintzatu egiten duela kontzertazioa, kontratazioa edo hitzarmena aukeratzea. Baita ere, adituen batek azpimarratzen du harreman juridikoaren formatuak baino garrantzi gehiago daukala helburuak eta zerbitzu katalogoa ondo finkatzea.

Politikoen eta teknikoaren iritzia bakoitza bere aldetik aztertzen direnean ere antzeko emaitzetara iristen dira. Hau da, gizarte zerbitzuak emateko garaian politikoen eta teknikoek ez dute ikuspegi argi bat kontzertazioa, kontratazioa eta hitzarmenari buruz.

Nahiz eta politiko eta teknikoaren artean iritzi finko bat ez eduki zerbitzua emateko hiru ereduaren artean teknikoek azpimarratzen dute azken urte hauetan hitzarmenaren aplikazioak arazoak eman dituela. Bereziki administrazio txarraren ondorioz hitzartutako erakundearen galerak sortzen direnean eta gero oso zaila delako egoera hori gestionatzea. Gainera, hitzarmenak, definizioz (nik erakunde bezala nire kabuz sortutako zerbitzuak kudeatzen ditut eta zu administrazioa diruz laguntzen didazu) talka egiten du administrazio publiko baten zereginarekin (administrazioak zerbitzuen beharrak ondo finkatzea eta gero ikustea nor dagoen kanpoan prestatuta zerbitzu horiek emateko). Orduan, hitzarmenaren bidez kudeatzea ez da zuzena. Horregatik, teknikoentzat administrazio baten zereginak betetzeko eredurik egokiena kontzertazioa izango litzateke.

Politiko baten aldetik ezagupen falta ikusten da hiru tipologiaen artean benetako iritzia plazaratzeko. Bestalde, politikoen ustez, hitzarmena eta kontratazioaren arteko aukeraketak alde politikoa eta teknikoa du. Kontratuak berdintasun handiagoa bermatzen du baina hitzarmenak azkartasuna ematen dio administrazioari. Gainera, politikoentzat, hitzarmenak gehiago erabiltzen dira elkarrekin eta kontratuak gehiago enprekin. Baina politikoentzat helburu nagusia da aukeratzea erantzukizun publikoa eta kontrola bermatzen duen eredu.

Laugarren arloan hirugarren sektorearen eta kooperatiben diskriminazio positiboa aztertu da. Adituen aldetik jarrera argia agertzen da zerbitzu publikoak emateko unean hirugarren sektorea/ekonomia sozialeko partaideak positiboki diskriminatzearen alde. Bestalde, adituen gehiengo zabala, hirugarren sektorea/ekonomia soziala eta kooperatibak positiboki diskriminatzeke, klausula sozialen aldekoa da. Gainera, adituen gehiengo hirugarren

sektorea/ekonomia sozialeko partaideen artean bereziki kooperatibak diskriminatzearen alde dago. Hala ere iritzi desberdinak jasotzeko momentuan errepikatu den ideia bat da kooperatibaren izaera juridikoak ez duela berez bermatzen zerbitzuaren edukia, kalitatea eta izaera demokratikoa. Hau da, aditu batzuen ustez, izaera juridikoa baino lehen begiratu behar dela ea zerbitzua eta kalitatea egokia den. Hain zuzen ere, pentsatzen dutelako kooperatiba izateak ez duela ziurtatzen izaera soziala, gaitasun teknikoa, oinarri etikoa edo antolaketa demokratikoa. Bestalde, badaude Iritzi batzuk irabazi asmorik gabeko erakundeak lehenetsi behar direla azpimarratzen dutenak, kooperatiba izan edo ez izan.

Politikoen eta teknikoen arteko iritziak kontuan hartzen badira klausula sozialen aldeko jarrera aztertzerakoan antzekotasun handia ematen da bi esparruetan. Politikoen %87 eta teknikoen %80 klausula sozialen alde agertzen dira, aditu guztien ehunekoen inguruan mantenduz. Bestalde, hirugarren sektorea/ekonomia sozialeko partaideen artean bereziki kooperatibak diskriminatu behar direla aipatzerakoan politikoen %75ek aldeko jarrera dute. Teknikoek, berriz, ez dute hain argi ikusten eta aldeko jarrera %40ra jaisten da. Era berean, politikoen eta teknikoen azpimarratzen dute kooperatiben izaera juridikoak ez duela bermatzen enpresaren izaera soziala.

Aipatu den moduan teknikoek klausula sozialen aldeko jarrera dute. Dena dela eztabaida nagusia da zer nolako klausula sozialak ipini behar diren eta zer nolako pisua eduki behar duten klausula sozial horiek puntuazio osoan. Teknikoentzat gaia kudeatzea zaila da. Bestalde, teknikoentzat klausula sozialekin enpresa kooperatiba soilak bultzatzea baino orokorrean ekimen soziala eta gertutasuna adierazten duten enpresak sustatu beharko dira. Politikoen, berriz, azpimarratzen dute dagoen Foru Arau berrian zuzenean ezin dela diskriminatu enpresaren figura juridikoaren arabera baino bai zeharka, besteak beste langileen parte hartzea enpresan, hurbiltasuna edo berdintasuna aintzat hartuz.

Bosgarren eta azken arloan kooperatibizazio prozesuaren aldeko jarrera aztertu da, publikotasuna zabaltzeko edo pribatizazioari ateak irekitzeko bide bezala. Gai honetan adituen artean zalantza asko eta iritzi kontrajarriak daude. Laburbilduz, azpimarratu daiteke adituek ez daukatela argi gizarte zerbitzu publikoen kooperatibizazioa helburu integral bat izan daitekeenik. Baina bestalde ere, argi gelditu da kooperatibizazioa ezin dela erabili

gizarte zerbitzu publikoen tokian tokiko adabaki moduan. Hala ere, gehiengoek kooperatibizazioa aukera bat bezala ikusten dute.

Orokorrean gizarte zerbitzu publikoen kooperatibizazioari buruz iritzi kontrajarriak daude. Aritu batzuentzat, gizarte zerbitzu publikoen kooperatibizazioa espazio publikoa zabaltzeko bide bat da eta beste batzuentzat ez. Galdera beste era batetara eginda ere emaitzak errepikatu egiten dira. Batzuentzat gizarte zerbitzu publikoen kooperatibizazioa erantzukizuna pribatizatzen joateko aukera bat da eta beste batzuentzat ez. Gainera, adituen herenak ez du posiziorik hartzen.

Bestalde adituen herenak bakarrik ikusten du kooperatibizazioa helburu integral bat bezala. Era berean, adituen %16ak bakarrik uste du gizarte zerbitzu publikoen kooperatibizazioa aldi baterako helburua dela publikazio integrala berreskuratu arte. Gainera, adituen % 16ak gizarte zerbitzu publikoen kooperatibizazioa arazo puntualei bakarrik aurre egiteko tresna bezala ikusten du. Aldiz, %69k kooperatibizazioa baztertu ezinezko aukera bat bezala ikusten dute.

Kooperatiba mota desberdinak aukeratzeko garaian nota hoberena "Gizartearen Intereserako Kooperatibak" ateratzen du (3,91). Gero, "Kooperatiba Mistoak"(3,33). Atzetik, "Onura Publikoko Kooperatiba"(3,18) dator. Eta azkenik, Kooperatiba Arrunta (2,17).

Politikoen eta teknikoaren iritziak bakoitzak bere aldetik aztertzen direnean ere antzeko emaitza orokorretara iristen gara. Hori bai, iritzi horiek banan bana aztertuta ñabardura desberdinak azpimarratu daitezke. Teknikoentzat kooperatibizazio prozesu batek ez luke izaera publikoa indartuko. Hau da, kanpoko enpresa batek ematen badu zerbitzua ez da publikoa izango. Erantzukizuna publikoa izango da baino hornikuntza pribatua. Gero beste gauza bat da nahiago izatea hornikuntza hori emateko irabazi asmorik gabeko enpresa bat, kooperatiba bat edo gertutasuna adierazten duen enpresa bat enpresa kapitalista arrunt bat baino. Azken finean orokorrean teknikoentzat kooperatibizazioa pribatizazio prozesu bat da. Are gehiago, kooperatiba edo sektorean azpitik sortutako elkarte baten artean aukeratzetik balego teknikoek elkarte aukeratuko lukete elkarte hori, denboran zehar, behar sozial batetik sortu delako.

Politikoen artean planteatu denean ea kooperatibizazioa urrats bat den eredu publiko edo eredu pribatuaren alde ez dira erantzun argiak jaso. Iritzi desberdinak agertu dira hausnarketa anitzak eginez. Politiko batzuk azpimarratu dute kooperatibizazioa trantsizio momentu baterako elementu interesgarria izan daitekeela beti ere helburua sistema publiko integrala eraikitzea bada. Beste batzuk ohartarazi dute publiko-pribatu eztabaida hori gainditu egin beharko litzatekeela azentua izaera sozialean jarriz. Baita ere hausnartu da batzuetan kooperatibak erabiltzen direla lan baldintzak kolokan jartzeko eta aldi berean bake soziala bermatzeko. Politikoen ere azpimarratzen dute bere garaian egon zen kultura kooperatiboa gaur egun nahiko ahul dagoela eta hasieratik ez bada kooperatibizazioa oso argi ikusten gero kultura falta horrek ez ditu gauzak errazten. Gainera, politikoen nabarmendu nahi dute kooperatibizazioa ezin dela dekretuz lortu.

Kooperatiba mota desberdinen artean politikoen mistoaren aldeko apustua egiten dute eta teknikoek berriz, kooperatiba mistoa azken postuan jartzen dute. Beste aukera guztiak ordena berdinean sailkatzen dituzte, hots, Gizarte Ekimeneko Kooperatiba, Onura Publikokoa eta Arrunta. Politikoentzat eztabaida nagusia da noren kontura zabaldu nahi den kooperatibizazioa, gestio zuzenaren kontura edo ekimen pribatuaren kontura. Zentzu horretan, politikoen kontat kooperatiben zabalkundeak ezin du gestio zuzena oztopatu.

8. AZKEN GOGOETAK

2011tik 2015era Bildu koalizioak hartu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiko gobernua eta bide batez Gizarte Politikako Departamentua koalizio horren esku geratu zen. Eusko Alderdi Jeltzaleak (EAJ) bi hamarkada Gipuzkoan gobernatu ondoren 2011ko maiatzaren 24ko hauteskundeak galdu egiten ditu. Gipuzkoako Batzar Nagusietako 51 eserlekuetatik Bildu koalizioak 22 lortzen ditu, EAJak 14, PSEk 10, PPK 4 eta Aralarrek 1. Gainera, EAJ ez da gai izango PSE-rekin akordio bat sinatzeko eta orduan Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernua Bilduren eskuetan gelditzen da. Hala ere, Bildu koalizioak ez du gehiengo absolutua lortzen. Testuinguru soziopolitiko horretan bide batzuk ireki daitezke gizarte politika berriak martxan ipintzeko. Horregatik, ikerketa honetan aztertu da ea Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako departamentuak gizarte zerbitzuak antolatzerakoan Berrikuntza Sozial Eraldatzailea aplikatzeko gai den.

Hipotesiaren kontrastea: Azterketa burutu zen garaian, 2014ko martxoan, Bildu koalizioak Gipuzkoako Foru Aldundia gobernatzen zuenean, Gizarte Politikako Departamentuak Berrikuntza Sozial Eraldatzailea aplikatzen zuen gizarte zerbitzuak antolatzeko momentuan.

Hipotesi nagusi hori kontrastatzeko hurrengo bost azpi-hipotesiak plazaratu dira:

- (1) Gizarte politikako departamentuak gizarte zerbitzu publikoak antolatzeko garaian lankidetzan oinarritutako eredu publikoa garatzen du.
- (2) Gizarte politikako departamentua, gizarte zerbitzu publikoak diseinatzeko garaian, koeraikuntzan oinarritzen da hirugarren sektorea/ekonomia soziala aintzakotzat hartuz.
- (3) Gizarte politikako departamentua, gizarte zerbitzu publikoak emateko garaian, kudeaketa zuzenarekin batera kontzertatutako koprodukzioan oinarritzen da hirugarren sektorea/ekonomia soziala aintzakotzat hartuz.
- (4) Gizarte politikako departamentuak, gizarte zerbitzu publikoak emateko garaian, hirugarren sektorea/ekonomia sozialeko partaideak positiboki diskriminatzen ditu.

(5) Gizarte politikako departamentuak, gizarte zerbitzu publikoak emateko garaian, kooperatibizazioa sustatzen du espazio publikoa zabaltzeko.

Marko teorikoaren atalean gizarte-eraldaketan oinarritutako Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen zimenduak garatu dira neoliberalismoaren gaurko fasea zalantzan jartzeko eta gizarteari bide berriak irekitzen joateko. Gero, Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen terminoa ondo definitu ondoren hausnarketa hori lurralde eremu zehatz batetara eraman da. Hain zuzen ere, landa azterketa bat burutu da Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuko arduradunekin. Bertan Delphi azterketa bat egin da ikertzeko ea Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak Berrikuntza Sozial Eraldatzailea aplikatzen duen gizarte zerbitzuak antolatzeko garaian.

Berrikuntza Sozial Eraldatzaile hori Gipuzkoako gizarte zerbitzuetan aplikatzen den ikusteko kontuan hartu dira bost azpi-hipotesietan zehaztu diren aldagaiak: gizarte zerbitzu publikoen antolaketa eredia, diseinua, probisioa, hirugarren sektorea/ekonomia sozialaren diskriminazio positiboa eta kooperatibizazioaren aldeko jarrera.

Galdetegia gai teknikoetan baino gehiago gizarte zerbitzuetako departamentuko arduradunen arrazoi ideologikoetan zentratu da. Hau da, aztertu da ea departamentuko arduradunek, zailtasun tekniko, juridiko eta politikoen gaineratik, Berrikuntza Sozial Eraldatzailea aplikatzen duten gizarte zerbitzuetan.

Nahiz eta proposamenak harrera ona eduki duen esan daiteke Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuko 2014ko arduradunen artean hipotesi horrek zenbait kezka eta zalantza sortu dituela. Alde batetik, Gipuzkoan gizarte zerbitzuak antolatzeko garaian adituen gehiengoa eredu publiko soilaren alde dago, baino beti ere, gaur egungo errealitatetik abiatuta, atea irekitzen zaio eredu kontzertatuari. Iritzi nagusia da eredia erantzukizun publikoan oinarritu behar dela. Baino gero ez dago adostasunik erantzukizun publiko hori nola gauzatu behar den aztertzekeo garaian. Batzuk eredu publiko soila lehenesten dute. Beste batzuk, berriz, eredu misto publiko-konzertatuaren aldekoak dira.

Bestalde, Gipuzkoako gizarte zerbitzu publikoen diseinua antolatzeko garaian jarrera kontsultiboa atera da garaile. Prozesu hori eman da koeraikuntza eta erabaki partekatua

bultzatzen duten guztiek argi ikusten dutelako kasu horretan azken hitza Administrazioaren eskuetan egon behar duela. Alde batetik, adituen ia erdiek ondo ikusten dute Gipuzkoako Foru Aldundiak hirugarren sektorea/ekonomia soziala aintzakotzat hartzea era kontsultiboan bakarrik. Eta bestetik, esan daiteke adituen erdiak baino gehiago erabakiak hirugarren sektorea/ekonomia sozialekin koeraikuntzan, modu partekatuan, hartzeko prest daudela, beti ere argi utzita azken hitza Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskuetan dagoela.

Horrekin batera, gizarte zerbitzuak emateko garaian adituen iritziek zehaztugabetasun handia erakutsi dute. Ez dute jarrera argi bat azaldu gizarte zerbitzuak emateko tresna juridiko desberdinen inguruan. Hain zuzen ere adituen erdiek baino gehiagok ez dute posizio argirik hartu kontzertazioa, kontratazioa eta hitzarmenaren inguruan. Adituek argudiatu dute formatu perfekturik ez dagoela eta askotan zerbitzu jakin baten izaerak eta momentuko egoera zehatzak baldintzatu egiten duela kontzertazioa, kontratazioa edo hitzarmena aukeratzea.

Adituek jarrera argia agertzen dute baita ere zerbitzu publikoak emateko unean hirugarren sektorea/ekonomia sozialeko partaideak positiboki diskriminatzearen alde. Bestalde, adituen gehiengo zabala, hirugarren sektorea/ekonomia soziala eta kooperatibak positiboki diskriminatzeko, klausula sozialen aldekoa da. Gainera, adituen gehiengoak hirugarren sektorea/ekonomia sozialeko partaideen artean bereziki kooperatibak diskriminatzearen alde dago. Hala ere iritzi desberdinak jasotzeko momentuan errepikatu den ideia bat da kooperatibaren ezaugarri juridikoak ez duela berez bermatzen zerbitzuaren edukia, kalitatea eta izaera demokratikoa. Hau da, aditu batzuen ustez, erakundearen ezaugarri juridikoa baino lehen izaera soziala bermatu behar dela, ematen duen zerbitzu eta kalitate egokia errespetatuz.

Azkenik, orokorrean gizarte zerbitzu publikoen kooperatibizazioari buruz iritzi kontrajarriak daude. Nahiz eta gehiengoak lankidetzaren gobernantza bat hirugarren sektorea/ekonomia sozialaren parte hartzearekin ez duen privatizazio prozesu batekin parekatzen era berean ez da ikusten eredu publikoa zabaltzeko modu egoki bat bezala. Alde batetik, uste da kooperatibizazio estrategiak egoera zehatzak konpontzeko baino gehiagorako balio duela.

Baina bestetik, kooperatibizazio estrategia hori ez da helburu integral bat bezala sumatzen. Gainera, aipatzekoa da adituen herenak ez duela posiziorik hartu.

Zalantzarik gabe, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuko arduradunekin burutu den ikerketa hori testuinguru ekonomiko eta soziopolitiko zehatz batetan gertatu da. Ongizate-estatuaren gainbeherak markatzen du egoera sozioekonomikoa. Gainera, 2007ko Atzeraldi Handiak sortu duen krisia ez da bakarrik ekonomikoa. Baita ere soziala, kulturala, politikoa, ekologikoa, ideologikoa eta etikoa. Azken finean, zibilizazioaren paradigma bera krisian dago. Gizartea ez dago aldaketen garai baten aurrean bakarrik, aro aldaketa sakon baten ataria gurutzatzen ari da. Kapitalismoaren garaipen ideologikoak bere krisi luzea ezkututzen du ez delako gai gizakiaren etorkizunak planteatzen dituen erronkei, arazoei eta zalantzei erantzuteko. Kapitalismoak desberdintasun sozioekonomiko izugarriak sortzen ditu ez bakarrik munduko biztanleriaren artean, baita ere Europar Batasunaren barruan, Euskal Herria eta Gipuzkoa barne. Horregatik adierazi daiteke gaur egungo eredu neoliberalak huts egin duela. Hala ere, jautzia ez da egun batetik bestera emango. Sistema kapitalistak gaitasuna dauka erreproduzitzeko egoera honetaz probetxua ateratzen duten klase sozialak eta interes ekonomikoak daudelako.

2007ko Atzeraldi Handi horrek utzi duen ondorio negatiboena arrazionaltasun eta diziplina neoliberalak sendotuta atera dela da. Berrero ere, urgentziazko lehenetsunezko eginkizunak hazkundera berreskuratzea eta aurrekontu murrizketak dira. 1929ko Depresio Handiarekin gertatu zen bezala orain ere kapitalismoak erakutsi du gaitasun handia duela krisiak sortutako baldintzak bere alde kapitalizatzeko. Horregatik, berriz ere, neoliberalismoaren desagertzearen aurrean baino gehiago neoliberalismoaren mutazio prozesuaren beste inflexio puntu historiko bat gerta daiteke.

Krisi garai horiek momentu zailak dira politika aurrerakoiak martxan ipintzeko. Hasiera batean bazirudien burtsaren erorketa neoliberalismoaren merkatu askearen doktrinaren amaiera izan zitekeela. Pentsatu genezakeen krisiaren errautsetatik eredu gizatiar eta iraunkorrago bat sortzeko baldintzak zeudela. Momentu batean ematen zuen hori zela aldaketaren norabidea. Baina gero, prozesu eraldatzailea martxan ipintzeko baldintzak desagertu egin ziren. Bat-batean, aldaketaren joera aurrerakoi hori azkar desagertu zen.

Oraindik okerragoa dena, argi gelditu zen krisia erabili nahi zutela beste kontraeraso neoliberal bat martxan ipintzeko. Agindutako finantza arloko araudien aldaketak berehala gelditu ziren diluituta; errentagarritasuna berreskuratu zen heinean larrialdietarako gastu programak azkar ezabatu ziren baina langabezia eta etxe kaleratzeak handiak izaten jarraitu zuten; ongizate-estatuaren berrantolaketa eta zerbitzu publikoen murrizketak zorra arintzeko ezinbesteko baldintzak bezala aurkeztu ziren; gobernu zentralek arriskuak eta ardurak deskargatu zituzten tokiko gobernu, eskola zuzendaritza, osasun arduradun, karitate eta boluntario talde eta azken garaian kontsumitzaileen gainean. Azken finean, berrantolaketa kostuak berriro ere txiroen eta ahulenen gainean erori ziren, gastu publikoen murrizketak eta privatizazioak bultzatuz. Behar bada esan daiteke neoliberalismoaren ahultasunak eta limiteak ematen diola ideologia horri sistema erregulatzailer moduan aurrera ateratzeko grina. Dударik gabe, neoliberalismoa merkatu arauetan oinarritutako kontraesan bezalako prozesu bat da. Gainera estatuaren mugetan negoziatu da eta XIX. mendeko merkatu askearen kritika arinetik XX. mendeko kolektibismoan, planifikazioan eta sozializazioan oinarritutako gobernuei egindako kritika zorrotz arteko espazio ideologikoa betetzen du. Irakurketa horretatik abiatuta neoliberalismoak ez dakar politika finko eta egonkor bat. Gehiago da esperimentazioan oinarritutako prozesu kontrajarri bat, porrot-krisia dinamika batek lagunduta. Hori bai, joera bat dago aukeraketa estrategikoa merkatuaren, privatizazioaren eta korporazioaren alde egiteko, baina kasu horietan ere praktikan neoliberalismoak forma desberdinak eta testuinguruaren arabera erakusten ditu. Horretarako, neoliberalismoaren helburua, bere forma desberdinetan, estatua heltzea eta berrerabiltzea izan da korporazio, merkatu aske eta merkatu ordenaren alde moldatzeko. Hala ere hau ez da inoiz izan erraz burututako prozesu bat.

Testuinguru horretan, egunetik egunera garrantzitsuagoa da beste gizarte-eredu bat eraikitzea balio eta politika desberdinekin, elkarkidetasunean, ondasunaren banaketan, parte hartze sozialean eta bizi kalitatean oinarrituta. Horregatik, ezinbestekoa da, apustu bat egitea, beste garapen eredu baten alde, beste gizarte baten alde. Planetaren etorkizuna bermatu nahi bada, Lurraren bioaniztasun ekologikoa, kulturala eta linguistikoa gorde nahi bada, mundu parekidea, justu, bidezkoa eta solidarioa nahi bada ezinbestekoa da beste eredu alternatibo baten alde lan egitea. Hala ere ez da lan erraza izango neoliberalismoa

garaitzea baino bai ezinbestekoa gaur egungo eredu ekonomiko nagusiak dakarren dualizazioa eta injustizia gainditzeko. Bide luze eta malkartsu hori egiteko hemen garatu den Berrikuntza Sozial Eraldatzailea tresna egokia izan daiteke.

Hain zuzen ere, autore desberdinen hausnarketak ikusita ondorioztatu daiteke gaur egun erronka bat dela Berrikuntza Soziala gizarte-eraldaketa proiektu baten alde ipintzea. Hain zuzen ere, Berrikuntza Soziala ulertzeko modu asko daudela ikusi da. Autore batzuk pentsatzen dute Berrikuntza Sozialari buruz hitz egiteko nahikoa dela praktika zahar bat egokitzea, ideia bat beste testuinguru batean aplikatzea edo bazterketa sozialari aurre egiteko edozein neurri hartzea. Beste batzuk, berriz, ezinbestekoa ikusten dute errotikako iraulketa bat ematea, haustura bat burutzea, izaeran, bitartekoetan eta antolaketa moduan. Horregatik, argi gelditu da Berrikuntza Sozialaren hitzarekin nahasketa handia sortzen dela Berrikuntza Sozial mota guzti horiek esanahi berdin baten azpian biltzen direlako eta bide batez eraldaketa sozial erreal baten aldeko Berrikuntza Sozialak zurrumbilo horren barruan galduta agertzeko arriskua dagoelako. Horregatik, ikerketa honen asmoa izan da gizarte-eraldaketan oinarritutako Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen zimenduak antolatzea neoliberalismoaren gaurko faseari atea ixteko eta gizarteari bide berriak irekitzen joateko.

Horregatik Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen funtzioa ondo finkatzeari lehentasuna eman zaio, ikuspegi sozio-politiko alternatiboak sortzeko eta eraldaketa sozialaren aldeko ahalmena garatzeko. Azken finean, gizartearen eraldaketara bideratutako Berrikuntza Sozialaren kontzeptuak, teoriak, praktikak eta estrategiak elkarlotu dira gaur egungo gizarte-desorekei eta ongizate faltari aurre egiteko eta inongo bazterketarik gabeko mundu bat eraikitze bidean urrats sendoak emateko.

Bide horretan Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak oinarri politiko eta ideologiko argiak eduki behar ditu bere potentzialitate guztia gizarte-eraldaketara bideratzeko. Hain zuzen ere, komeni da Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen eginkizuna ondo kokatzea hausnarketa sozio-politiko alternatibo egokiak plazaratzeko eta praktikara eramateko. Zentzuzko alternatibak plazaratu dira. Horretarako sormena, antolaketa egokia, herritar desberdinen mobilizazio ahalmena eta instituzioei zuzendutako lankidetzeta eta interpelazioa erabili da. Garrantzitsua da jarduera horien arteko halako oreka bat bilatzea errendimendu sozial eta politikorik

handiena gauzatzeko. Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen helburua teoria politiko-ideologiko horiek martxan ipintzea izan da orain arte berrikuntzan eta arlo politikoan nagusi izan diren aurrerapen teknikoan eta irabazian oinarritutako diskurtsoetatik aldentzeko.

Azpimarratu daiteke baita ere Berrikuntza Sozial Eraldatzailean garrantzia alternatiben hedapenak eta sustapenak hartzen dutela. Behar handi bat dago praktika hobereenen forma aurrerakoiak hedatzeko eta iraunarazteko. Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak benetako protagonismoa ematen dio eguneroko praktikan gauzatzen den eraldaketa sozialari. Hori dela eta, prozesu eraldatzailearen lehenbiziko helburua ekonomia eta gizarte eredu alternatiboa eraikitzea da. Komeni da elkarren arteko lankidetzaz azpimarratzea, proposamenak alderatzea eta lan egitea, erronka garrantzitsuei aurre egiteko, hala nola, herritarren gehiengoaren bizi kalitatea hobetzea, lana eta aberastasuna banatzea eta guztion helburuak batzen dituen ekimen sozio-ekonomikoa sakontzea. Eta teoria hutsean geratu gabe prestatutako proposamenak praktikara eraman behar dira egungo errealitateak abiatuz.

Argi eta garbi, krisiaren baldintzak bakarrik ez du bermatzen neoliberalismoaren kontrako ildoaren indarketa. Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak esparru sozial alternatiboak sortzen joaten da balore indibidualista, kontsumista eta erreakzionarioarekin funtzionatzen duten sare eta guneei aurre egiteko. Alternatiba aurrerakoiak garatzeko beharra, bideragarritasuna eta iraunkortasuna ez da nahikoa proiektu horiek gauzatzeko. Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak ahalmena dauka neoliberalismoak azken hamarkadetan garatu duen ingurumen egituratu eta errotuan prozesu eraldatzaileak martxan ipintzeko. Hain zuzen ere, denbora horretan merkatuaren eta korporazioen aldeko arrazionaltasunak bat egin du egitura sozial, korporatibo eta finantzarioekin eta, aldi berean, estatu-boterearekin eta ez da erraza "humus" horretan kimu aurrerakoi berriak ernaltzea. Espazio ekonomiko, sozial eta politiko alternatibo horiek erreferentzia puntu garrantzitsuak bihurtzeko esperientzia positibo eta eraldatzaile horiek ezagunak egiteko eta gero beste espazio batzuetara garraiatzeko. Hau da, arnas-gune horiek prozesu eraldatzailearen zabalte estrategian paper garrantzitsua jokatzen dute.

Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak bultzatu nahi duen prozesu eraldatzailea gaur egungo jokaleku neoliberalatik abiatzen da. Jokaleku neoliberal horretan, mugimenduan dagoen esparru bat izanik, aukera sortzaileak egon daitezke. Formulazio hori onartzen bada, neoliberalismoa ezaugarritu daiteke ez bakarrik muga garrantzitsuak dituen eredu bat bezala, baita ere aukera politikorako erregistro berrien jokaleku gisa. Horretarako egunez egun urratsak eman behar dira, norabide onean, iparra ondo finkatuz, epe motzeko urratsak epe erdiko eta luzeko urratsekin lotuz, garapen teorikoak errealitateko praktikarekin koordinatuz. Baina, beti ere, korrante neoliberalak asimilatu gabe.

Aldi berean, Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak tokian tokiko proposamenak nazioarteko dinamikekin lotuko ditu. Aurrerapausoak bi mailatan eman behar dira. Alde batetik, gaitasuna erakutsi behar da tokian tokiko esperientzia emankorrak nazioarteko sare alternatiboetara bideratzeko eta bestetik, nazioartean sendotzen ari direnak gertuko eremuetara eramateko. Horretarako, beharrezkoa da informazio-trukaketa indartzea, jarduketako ildoak burutzea eta koordinazio-dinamikak martxan jartzea. Bilakaera horrek prozesu eraldatzailearen zenbait praktika egokitzea eskatzen du, ohiko joera ekimen lokalak eta organikoak, oinarrizko berrikuntzak eta maila sozialean soilik txertatutako estrategiak baloratzea izan delako. Horiek arrakastatsuak izan daitezke maila lokalean baina eraldaketa prozesua ez da borobiltzen ez bada gai nazioarteko dinamiketan txertatzeko. Esparru horretan zirkuito neoliberalak abantaila handiarekin jokatzen du eremu lokala eta globala ondo lotzen dakielako eta horregatik ez da erronka makala izango zirkuitu ekonomiko eta sozial alternatibo egonkorrek sortzea.

Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen estrategia hori eraginkorra izateko komeni da maila lokalean eta nazioartean transformazio sozialaren alde mugitzen diren mugimendu sozial, sindikal eta politikoekin lan egitea. Lan hori herri eta auzoetan gauzatzen da tokiko arazoak konpontzeko, baina baita herrialdean, nazioan eta nazioartean ere. Komeni da elkarren arteko elkarrizketa azpimarratzea, proposamenak erkatzea eta mugimendu sozial eta sindikalarekin lan egitea, sare alternatiboak sortu eta erronka garrantzitsuei aurre eginez, lana eta aberastasuna banatzeko eta gehiengoaren helburuak batzen dituen eredu alternatiboa eraikitzen joateko.

Halaber, Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak estatuaren esku hartzea gizartearen gehiengoaren alde burutzea lortu behar du, bertako sektore behartsuei lehentasuna emanaz. Doktrina neoliberalak aldarrikatzen du ekonomia merkatuaren legearen bidez funtzionatu behar duela, eskaria eta eskaintzaren joko libre garatuz eta administrazioaren ahalik eta esku hartze txikiena erabiliz. Gero praktikan hori ez da egia. Estatu neoliberalaren esku hartzea gai ekonomikoetan, nahiz eta batzuetan ezkutuan egiten den, oso handia da. Gainera, eskaintza multinazionalen oligopolioen bidez finkatzen da prezioak sakonki manipulaturik. Gaur egungo eztabaida ideologiko nagusia ez da esku hartzea bai edo ez. Auzia da noren alde egiten den interbentzio hori, elitezko sektore aberatsak edo klase herrikoiak defendatzeko. Horregatik, Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak antolaketa instituzional konprometitua aldarrikatzen du. Hiritar guztiei gizarte zerbitzuak eta segurtasun ekonomikoa eskaintzeaz gain, hiritar ororentzat oinarrizko eskubide sozialak bermatuko dituen antolaketa instituzionala edukitzea ezinbestekoa da. Antolaketa instituzional horrek zenbait mekanismo ditu politika birbanatzaileak gauzatzeko, zerbitzu publiko egokiak hornitzeko eta gizarte, genero eta ekonomia alorreko desberdintasunak gainditzeko.

Berrikuntza Sozial Eraldatzailearentzat merkatuak paper positiboa joka dezake beti ere sektore herrikoi zabalen alde aritzen bada. Kontuan hartu behar da merkatuak paper bikoitza bete dezakeela. Desberdindu egin behar da klase herrikoiaren interesen alde aritzen den merkatua merkatu inperfektu txar batetik non, azken honetan, estatuaren esku hartzea gomendagarria den.

Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak norbanakoen lanerako konpromisoa zaindu behar du. Eredu neoliberalaren atzean interes ekonomiko eta politiko asko ezkututzen dira eta ondorioz, ereduaren arteko talka irabazteko ahalik eta pertsona gehien aktibatu behar dira bakoitzak bere posibilitateen arabera eta gustuko duen esparruan lan egiteko. Hau da, ilusioa sortu eta transmitituko duten pertsona militanteak behar dira. Hori baita modu bakarra gizartea sustatzeko eta martxan ipintzeko. Testuinguru horretan, trebakuntzari garrantzi berezia eman zaio. Hain zuzen ere formakuntza oinarrizko tresna bat da talde dinamika egokiak antolatzeke eta bide batez eraldaketaren motorra izango diren sektoreen parte hartzea, prestaketa ideologikoa, eta protagonismoa indartzeko.

Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak parte hartzeari ere atea irekitzen dizkio. Hain zuzen ere herritarren parte hartzearekin hartzen dira erabaki sozial, politiko eta ekonomiko garrantzitsuenak. Informazioa lortzeko, eztabaida egokiak burutzeko eta erabakiak hartzeko Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak parte hartzeko tresna egokiak antolatzen ditu.

Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak ezin du ahaztu ere emakumeen bazterkeria gainditzeko politikak gauzatu behar dituela. Politika integralez ari gara, emakumeen kolektiboen errealitate desberdinen diagnostikotik abiatuz, neurri konpentsatzaile eraginkorrak aplikatzen dira esparru desberdinetan genero desberdintasunak gainditzen joateko.

Ez hori bakarrik, Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak zor zaion garrantzia ematen dio prestakuntza ideologikoari. Hiritarrak prestatu behar dira gai sozioekonomikoak aztertzeko eta ulertzeko eta eredu neoliberaletik datorren erasoei aurre egiteko. Gizarte eta ekonomia gaietan lan egitea, herri eta auzoetako arazoei heltzea da. Hiritarrak euren artean antolatzea oso garrantzitsua da oinarrizko arazoei irtenbide bat aurkitzeko. Ezin da ahaztu ere egin gizarte honetan komunikazioaren arloak duen garrantzia. Horretarako, beharrezkoa da eskuartean dauden baliabide guztiak erabiltzea egindako proposamenak eta balorazioak gizarteratzeko. Helburua da indarrak bildu eta antolatzea aurkeztu diren alternatiba zehatzak aurrera eramateko. Hiritarren autoeraketarekin batera, eraldaketaren aldeko indar politiko, sozial eta sindikalak aktibatzen dira, aldeko instituzio mailako dinamikak ere ahaztu gabe. Jarduera guzti horien arteko oreka bat bilatzen da, errendimendu sozial eta politikorik handiena lortzeko.

Bestalde, Berrikuntza Sozial Eraldatzailea garatzeko ezinbestekoa da baloreen dimentsioari garrantzia ematea. Aldaketa soziala bultzatu nahi bada baloredun pertsonak ezinbestekoak dira. Hain zuzen ere, Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen azpian dauden baloreak korrante nagusiko baloreen (besteak beste merkatu ekonomia, demokrazia ordezkatzaila eta hezkuntza eredu formalak) aurrez aurre daude. Aldaketa sozial aurrerakoia lortzeko, besteak beste, irabazi asmorik gabeko jarduera ekonomikoan oinarritutako eredu alternatiboak, pertsonen autogestioa, zuzeneko inplikazioa erabakitze ahalmen-prozesuetan, justizia sozialaren bilaketa, aukera berdintasuna eta genero parekidetasuna beharrezkoak dira. Berrikuntza Sozial Eraldatzailea garatzeko eta bere inguruan ikertzeko ikertzaileak aldaketa

sozial aurrerakoia sustatzeko oinarrizkoak diren balore-joko osoa ezagutu eta barneratzen ditu. Gainera, nahiz eta forma kolektiboak eta asoziatiboak txikiak edo informalak izan, ikertzaileak balore horiek garatzen diren espazio desberdinekiko sentsibilitate berezi bat erakusten du. Bestalde, balore aurrerakoi horiek lantzeko trebakuntza ideologikoari zor zaion garrantzia ematen zaio.

Ezin da ahaztu gatazkaren dimentsioa Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen barruan txertatzea oso garrantzitsua dela. Kasu askotan gatazka sortzea ezinbestekoa da, urratsak emateko, konponketak bilatzeko, desoreka sozial, ekonomiko eta ekologikoak gainditzeko. Bidegabekeria bat gertatzen denean, giza eskubideak errespetatzen ez direnean, zapalkuntza egoera bat ematen denean gatazka pizten bada horrek atentzioa sortzen du eta arazo horretan inplikaturik dauden aktore desberdinak ardurapean ipintzen ditu mekanismo desberdinen bitartez irtenbide zentzuzkoak eta sortzaileak lortzeko. Zentzu horretan gatazka gizarte eraldaketaren iturri da eta, gainera, eraginkorra izan daiteke kapitalismoak eragindako desorekak eta bidegabekeriak salatzen eta, bide batez, proposamen alternatibo egingarriak inplementatu arazteko. Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak ezinbestekoa du politika neoliberal horiei erantzutea. Horrek eskatzen du askotan desatsegina den eguneroko erantzun lan hori derrigorrezkoa bihurtzea, bereziki neoliberalismoaren erasoaldien aurrean erantzun kontzertatuak martxan ipintzea. Hala ere, gatazkek sortzen dituen aukera guztiak profitatzen beharrezkoa da kudeaketa sortzailea ondo gobernatzea. Hau da, alde batetik, eskala lokalak, erregionalak, nazionalak eta nazioartekoak osagarri bihurtzen dira. Bestetik berriz, mugimenduko militanteek prestakuntza egokia jasotzen dute gatazkaren atzean dauden borroka molde desberdinak ondo kudeatzeko eta eraginkorrak bihurtzeko. Sarritan Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak egitura politiko-instituzionalaren aldaketa sakonak eskatzen ditu eta horretarako salaketa eta mobilizazioaren bidea erabiltzen du.

Laburbilduz, ikerketa honetan Berrikuntza Sozialari "Eraldatzailea" terminoa gehitu zaio kapitalismoari aurre egingo dion beste eredu alternatibo bat eraikitzen tresna egokia izan nahi duelako. Horregatik, hemen garatu den Berrikuntza Sozial Eraldatzailea definitzeko hurrengo hiru aldagaiak aztertu dira:

(1) Berrikuntzaren izaera. Berrikuntzaren izaera kontuan hartzen bada Berrikuntza Sozial Eraldatzailea gizartearen eraldaketara bideratzen da. Horrek esan nahi du bere helburua gizarte eredu berri bat eraikitzekeo prozesu eraldatzaileak martxan ipintzea dela. Gainera, xede hori lortzeko kontzeptuak, teoriak, praktikak eta estrategiak elkarlotzen dira.

Prozesu eraldatzaile horiek neoliberalismoak azken hamarkadetan garatu duen ingurumen egituratu eta errotutik abiatzen dira. Hain zuzen ere, jokaleku neoliberal mugimenduan dagoen esparru bat izanik aukera sortzaileak egon daitezke. Ez hori bakarrik, espazio sozial alternatiboak sortu nahi dira balore indibidualista, kontsumista eta atzerakoiekin funtzionatzen duten sare eta guneei aurre egiteko. Elkarren arteko elkarriketa sendotzen da eta proposamen desberdinak erkatzen dira gehiengoaren helburuak eraikitzekeo.

Gero espazio ekonomiko, sozial eta politiko alternatibo horiek erreferentzi puntuak bihurtzea da helburua. Arnasa-gune horiek prozesu eraldatzailearen zabaltze estrategian paper garrantzitsua joka dezakete. Esperientzia positibo eta eraldatzaile horiek ezagunak egiten diren heinean beste espazio batzuetara garraiatzen dira.

Tokian tokiko proposamenak nazioarteko dinamikekin lotzen dira. Bertako esperientzia emankorrak nazioarteko sare alternatiboetara bideratzen dira. Horrekin batera, informazio-trukaketa indartu, jarduera-ildoak burutu eta koordinazio-dinamikak martxan ipintzen dira.

Berrikuntza Sozial Eraldatzailea garatzeko ezinbestekoa da baloreen dimentsioari garrantzia ematea. Aldaketa soziala bultzatzeko baloredun pertsonak ezinbestekoak dira. Hain zuzen ere, Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen azpian dauden baloreek korrante nagusiko baloreen aurrez aurre daude. Aldaketa sozial aurrerakoia lortzeko, besteak beste, irabazi asmorik gabeko jarduera ekonomikoan oinarritutako eredu alternatiboak, pertsonen autogestioa, zuzeneko inplikazioa erabakitzekeo ahalmen-prozesuetan, justizia sozialaren bilaketa, aukera berdintasuna eta genero parekidetasuna bultzatzen da.

Prozesu eraldatzaileak martxan ipintzekeo gatazkaren dimentsioa txertatzea garrantzitsua da. Kasu askotan gatazka sortzea ezinbestekoa da, urratsak ematekeo, konponketak bilatzeko eta desoreka sozial, ekonomiko eta ekologikoak gainditzeko. Bidegabekeria bat gertatzen denean, giza eskubideak errespetatzen ez direnean, zapalkuntza egoera bat ematen denean

gatazka pizten bada horrek atentzioa sortzen du eta arazo horretan inplikatur dauden aktore desberdinak ardurapean ipintzen ditu mekanismo desberdinen bitartez irtenbide zentzuzkoak eta sortzaileak lortzeko. Zentzu horretan gatazka gizarte eraldaketaren iturri da eta, gainera, eraginkorra izan daiteke kapitalismoak eragindako desorekak eta bidegabekeriak salatzeko eta, bide batez, proposamen alternatibo egingarriak inplementatu arazteko.

(2) Berrikuntzaren dimentsio soziala. Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen azken helburua ez da bete gabeko edo gaizki betetako behar sozialei aurre egitea. Ez eta ere esku hartze sozialari buruz bakarrik aritzea. Gizartearen eraldaketa integralaren dimentsioari heldu nahi dio. Xedea beste garapen eredu alternatibo bat eraikitzea da Planetaren etorkizuna bermatzeko, lurraren bioaniztasun ekologikoa, kulturala eta linguistikoa sostengatzeko eta mundu parekidea, justu, bidezkoa eta solidarioa eraikitzeko. Horregatik, Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak arlo ekonomikoa, soziala, kulturala, politikoa, ekologikoa, ideologikoa eta etikoa lantzen ditu eta genero berdintasuna helburu bezala jartzen du.

Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak premia materialak baino zerbait gehiago asetzen ditu. Pertsona protagonista izango den gizartearen eraikuntzan inbertitzen du. Indar guztiak gizarteko premia indibidual eta kolektiboak asetzeko antolatzen dira. Hau da, ekonomia pertsona eta kolektibitatearen zerbitzura jartzen da eta ez alderantziz.

Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak estatuaren esku hartzea gizartearen gehiengoaren alde ipintzen du. Hau da, antolaketa instituzional konprometitua izan behar du, lankidetzagobernantzan oinarrituz, sektore behartsuei lehentasuna emanaz, hiritar guztiei gizarte zerbitzuak eta segurtasuna eskainiz, hiritar ororentzat oinarrizko eskubide sozialak bermatuz, politika birbanatzaileak gauzatuz, zerbitzu publiko egokiak bermatuz eta gizarte eta ekonomia alorreko desberdintasunak gaindituz.

Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak merkatuaren paper positiboa bultzatzen du, beti ere sektore herrikoi zabalen alde arituz. Kontuan hartu behar da merkatuak paper bikoitza jokatu dezakeela. Desberdindu egin behar da klase herrikoiaren interesen alde aritzen den merkatua merkatu inperfektu txar batetik. Hau da, Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak merkatu

eraginkorra sustatzen du, gizartearen interes indibidual eta kolektiboekin bat eginez eta enpresa-ahaleginak eta ekimen pribatuak kolektiboaren mesedera bideratuz.

Gainera, Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak Ekonomia Sozial Eraldatzailearen ahalmen guztia askatuko du. Kontuan hartu behar da Ekonomia Sozial Eraldatzailea Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen tresna estrategikoa dela, harrobia eta sustatzailea. Prozesu eraldatzaileak martxan ipintzeko euskarrietako bat baita ere.

(3) Berrikuntzaren antolaketa. Prozesu eraldatzailea antolatzen da neoliberalismoaren aurrean beste eredu transformatzaile sendo eta posible bat eraikitzeko. Helburu hori lortzeko elkartasuna, integrazioa eta elkarlana bultzatzen dira indibidualismoa, sektorializazioa eta zatiketa alboratuz.

Gainera, estrategia egokia antolatzeko aztertzen da zein den gaur egungo sistema neoliberalaren eta Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen dinamiken arteko dialektika. Baita ere, komeni da ikertzea eta aurreikustea zeintzuk diren gaur egungo sistema ekonomikoaren dinamika baztertzailak eta atzerakoiak Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak kontra erreakzionatzeko. Kontuan hartzen da ere zein ekimenek hobetzen duten gizartearen baloreak, zein mugimendu sozial edo politiko diren garrantzitsuak aldaketa sozialerako eta zeintzuk diren dinamika sozio-politiko eta instituzional egokiak Berrikuntza Sozial Eraldatzailea tokiko komunitateetan eta enpresetan garaile ateratzeko.

Hiritarren auto-eraketarekin batera eraldaketaren aldeko indar sozial, sindikal, politiko eta instituzionalak bat egingo dute. Antolaketa hori herri eta auzoetan gauzatzen da tokiko arazoak konpontzeko, baina baita herrialdean, nazioan eta nazioartean ere. Elkarren arteko elkarrizketa, koordinaketa eta lan amankomuna sustatzen da urratsez urrats aurrerapenak lortzeko. Hain zuzen ere, epe motzeko pausoak epe erdiko eta epe luzeko pausoekin lotuz. Egin beharreko bidea eta tokian tokiko testuingurua kontuan hartzen dira estrategia egokia plazaratzeko. Proposamen teorikoak ere praktikarekin uztartzea komeni da egungo errealitatekin abiatuz. Beti ere, korrante neoliberalak asimilatu gabe.

Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak demokrazia parte-hartzailea ere sustatzen du. Hain zuzen ere herritarren parte hartzearekin hartzen dira erabaki sozial, politiko eta ekonomiko

garrantzitsuenak. Informazioa lortzeko, eztabaida egokiak burutzeko eta erabakiak hartzeko Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak parte hartzeko tresna egokiak antolatzen ditu.

Ilusioa sortu eta transmitituko duten pertsona militanteak animatzea eta antolatzea garrantzitsua da gustuko duten esparruetan lan egiteko. Horretarako zor zaion garrantzia ematen zaio prestakuntza ideologikoari. Hiritarrak formatu behar dira gizarte eta ekonomia gaiak ulertzeko eta aztertzeko. Segurtasuna lortzea garrantzitsua da talde dinamika egokiak antolatzeko eta herri eta auzoetako arazoei heltzeko. Baita ere, komeni da ere komunikazioa lantzea antolatutako dinamikak gizarteratzeko.

Aldi berean, Berrikuntza Sozial Eraldatzailea gai izan behar da botere politiko subiranoa eratzeko oinarri oinarrizko eremuetatik hasita. Ahalik eta deszentralizazio administratiborik handiena lortzea da helburua eta horretarako udal eta tokiko erakundeei eskumenak eta beharrezko baliabideak esleituko zaizkie.

Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen oinarriak finkatu ondoren ekonomia sozialaren garrantzia azpimarratuko da. Ikerketa honetan garatu dugun Berrikuntza Sozial Eraldatzailean ekonomia sozialak protagonismo berezia hartzen du. Nahiz eta Ekonomia soziala ez den fenomeno berri bat azken hamarkadetan ekonomia sozialaren inguruko interesa indartu egin da. Eman diren aldaketa ekonomiko, sozial eta politikoen ekonomia sozialaren zeregina handitu egin dute. Gainera, gaur egungo krisi egoeran ekonomia sozialak paper garrantzitsua joka dezake. Horrekin batera ekonomia soziala Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen harrobia eta sustatzailea izan daiteke. Hau da, ekonomia sozialak beste mugimendu eta dinamika sozialekin batera gaitasun handia eduki dezake ekonomia eredu berri bat eraikitzeko gizartearekin eta politikarekin lotura zuzena mantenduz.

Baina horretarako Ekonomia Sozialak eraldaketarako duen potentzialitate guztia askatu behar du azaleko jarrera hutsean erori gabe eta eraldaketarako tresna garrantzitsua bihurtuz. Gaur egungo testuinguru sozioekonomikoan ekonomia sozialak bi arima ditu. Batetik, sistema kapitalistaren barruan integraturik, zenbait arloetan gero eta diferentzia gutxiago dago enpresa kapitalista eta ekonomia sozialaren artean. Bestetik, ordea, kapitalismoaren logikatik kanpo dauden hainbat elementu mantentzen ditu, eta etorkizuneko alternatibak posible direla pentsatzeko edo frogatzeko elementu

garrantzitsuak izan daitezke. Bigarren adiera horretatik tira eginez ekonomia sozialak zeregin handia dauka desberdintasun ekonomiko eta sozialei irtenbideak bilatzeko eta bide horretatik beste garapen eredu bat eraikitzen laguntzeko. Maila lokalean, bizi-baldintzetan, enpleguan, lurraldean eta baita ere politika publikoetako plangintzetan eta inplementazioetan egitura-aldaketak eragiteko ahalmena eduki dezake.

Horregatik, eraldaketan oinarritutako ekonomia soziala Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen kontzeptuaren parte bezala ikusten da. Ekonomia sozial eraldatzaile horrek lortu beharko luke merkatuaren eksklusibotasuna apurtzea eta gizartearen garapenerako estatuaren eginkizun zentrala partekatzea. Helburu horiek eskuratzeko instituzioen laguntza ezinbestekoa da, aldeko giroa dagoen instituzio sistemetan errazagoa delako gaur egun dauden hutsuneak eta mugak ezagutaraztea, aktore instituzionalek jokatu behar duten papera zehaztea eta azkenik, irtenbide berriak pentsatzea eta gauzatzea.

Bestalde, Ekonomia sozial eraldatzailearen helburuetako bat lurralde baten egitura sozioekonomikoa indartzea da. Aldi berean, garrantzitsua da estamentu desberdinen arteko parte hartzearen faktorea sendotzea. Azken finean, helburu nagusia gizartea ekonomiara eta botere politikora hurbiltzea delako. Helburu hori lortzeko Ekonomia sozialaren tamaina baino gehiago kontuan hartzen da esparru horrek daukan ahalmena eremu instituzionalean eragiteko. Horretarako oinarritzko printzipioei eutsi, gaurkotu eta ekonomia sozialaren politika norabide horretan bideratzea da helburu nagusia. Horrek eskatzen du ekonomia sozialaren zenbait inertzia eta bizio sakonki aldatzea, eta ondo finkatzen ari diren zenbait arlo hobetzea. Ekonomia sozialaren esperientzia errealitate baliotsua dela aitortu behar da. Bide bat egin du, eta egiten jarraitzen du, enpresa-demokrazia esperientzia bezala, horrek berekin dituen ekarpen, gorabehera eta kontraesan guztien artean. Baita ere, tokian tokiko garapen ekonomiko, sozial eta kulturalarekin konpromisoko ibilbide bat osatu du. Zentzu horretan, estandarizazio kapitalistaren barruan esperientzia sozio-ekonomiko singular eta propio bat osatzen du, pista interesgarriak eskaintzen dituen historiako momentu honetan.

Berrikuntza Sozial Eraldatzailearentzat tresna estrategikoa izango den ekonomia soziala berreraiki behar da. Horretarako, ekonomia sozialaren oinarritzko elementuak berreskuratu ondoren garai berrietara egokitu behar dira bi norabide handi landuz. Alde batetik,

esperientzia sozio-ekonomiko berezi bat bezala sakontzea, enpresa-demokrazia gero eta erradikalagoa lortzea eta azentua hazkunderan jartzeari utzi eta lehentasuna elementu kualitatiboetan ipintzea. Eta bestetik, Konpromiso soziala indartu eta gaurkotu egin behar da. Bi norabide horiek elkarren osagarriak dira eta horien inguruan hainbat ildo bultzatu nahi dira: demokrazia parte hartzailea garatzea, ideia-lanketa, eztabaida eta formazio soziala eta kooperatiboa bultzatzea, lan baldintza duinak bermatzea, ingurumena errespetatzea, inguruarekiko ezaugarri sozial eta kulturalean txertatzea eta munduko hegoaldearen garapenerako lankidetzan eta tokian tokiko eraikuntzan parte hartzea.

Horregatik, ekonomia sozial eraldatzaileak antolakuntza sozioekonomikoan izaera estrategikoa dauka eta gaur egungo ikuspegi ekonomizistatik aldentzeko tresna baliagarria da egitasmo ekonomikoaren garapenean beste eredu gizatiarragoak eta beste balore herrikoiagoak txertatzen joateko. Dударik gabe, ekonomia sozialaren barnean koordinazio espazioak sortzea beharrezkoa da informazioa trukatu, hausnarketak burutu eta ildo berriak zabaltzeko. Ezin da ahaztu ere egin partaideen heziketak daukan garrantzia ekonomia sozialaren baloreekiko atxikimendua indartzeko. Gauza jakina da urteetan emandako bilakaerak, ekonomia soziala errealitate aldakor baten aurrean jartzen duela, kolektibo honetara inguratzen diren partaideen profila eta ikuspegiak egun oso desberdinak direlarik.

Ekonomia sozial eraldatzaileak bertako beharrei eta bertako arazoei, bertako bitartekoekin, erritmoekin eta kolektibo horrek eskatzen dituen estiloekin erantzun beharko die. Neurrira egindako jantzia osatu beharko litzateke, beti ere orain arteko eskarmentua eta esperientzia praktikoa erabiliz.

Gainera, hasiera hasieratik eraginkortasuna landuko da aplikazio praktikoari garrantzia emanaz. Eredu ekonomikoan kontu handiarekin hartuko da ekonomia sozialaren eragina. Ekonomia sozialaren izpirituak demokrazia ekonomikoa, kogestioa, kopartaidetza eta langileen mugimenduarekiko artikulazio ideologikoa, politikoa eta organikoa ere bultzatu beharko ditu. Ekonomia sozialaren aukera ere erabili behar da sistema kapitalista gainditzeko eta tokian tokiko mugimendu herrikoiaren proiektu sozio-politikoan integratzeko.

Hori gertatzen da ekonomia sozial eraldatzaileak bat egiten duelako kultura kolektiboarekin eta iragan komunalarekin. Ekonomia sozial eraldatzailea aipatzea enpresa multzo eta elkarte eta esperientzia herrikoi eta komunitarioez hitz egitea da. Bertan ondasun eta zerbitzuen ekoizleek ekoizpen bitartekoen jabegoa dute edo prozesu ekonomiko globalaren beste osagarriren baten gestio kolektiboa burutzen dute (banaketa, finantzaketa...). Hau da, bere jabegoan, funtzionamenduan eta gestioan parte hartzen dute.

Laburbilduz, eraldaketan oinarritutako ekonomia soziala Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen pieza bat dela esan daiteke. Hain zuzen ere, Ekonomia Sozial Eraldatzaile hori definitzeko hurrengo giltzarri nagusiak kontuan hartuko dira:

(1) Ekonomia Sozial Eraldatzailea Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen kontzeptuaren parte da. Hau dela eta, Ekonomia Sozial Eraldatzailea Berrikuntza Sozial Eraldatzailearentzat tresna estrategikoa da. Horrekin batera, Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen harrobia eta sustatzailea izan daiteke. Hau da, Ekonomia Sozial Eraldatzaileak beste mugimendu eta dinamika sozialekin batera gaitasun handia eduki dezake prozesu eraldatzaileak martxan ipintzeko. Horretarako, Ekonomia Sozial Eraldatzaileak bi esparru nagusi jorratzen ditu. Alde batetik, esperientzia sozio-ekonomiko berezi bat bezala garatzen da, enpresa-demokrazia gero eta erradikalagoa lortzeko eta azpimarra hazkundean jartzeari utzi eta lehentasuna elementu kualitatiboetan ipintzeko. Eta bestetik, konpromiso soziala indartu eta gaurkotzen du. Bi norabide horiek elkarren osagarriak dira eta horiek sendotzeko hainbat ildo lantzen dira: demokrazia parte-hartzailea garatu, ideia-lanketa, eztabaida eta formazio soziala eta kooperatiboa bultzatu, lan baldintza duinak bermatu, ingurumena errespetatu, inguruarekiko ezaugarri sozial eta kulturean txertatu eta munduko hegoaldearen garapenerako lankidetzan eta tokian tokiko eraikuntzan parte hartu.

(2) Ekonomia Sozial Eraldatzaileak Ekonomia Solidarioaren adiera darama bere barnean. Hain zuzen ere, Ekonomia Solidarioaren adiera ekonomia sozialaren kontraesanak gainditzeko bide gisa proposatzen da. Hortaz, ekonomia solidarioaren proposamenarekin, ekonomia sozialaren interpretazio tradizionalak dituen zenbait muga gainditzea litzateke helburua, bestelako enpresa errealitateak aintzat hartuz (laneratze enpresak, bidezko merkataritzakoak edo finantza etikoen esparrukoak), eta teoria neoklasikoak eskaintzen ez

dituen lanabes analitikoak proposatuz, ekonomia ulertzeko eta egiteko bestelako moduak teorizatu eta azaltzeko. Ekonomia solidarioaren proposamen horrek, beraz, ekonomia sozialaren kontzeptua zabaldu nahi du gutxienik hiru arloetan: i) antolaketa esparruan, ekonomia sozialak aintzat hartzen ez dituen zenbait dinamika eta enpresa errealitateak barneratuz (laneratze enpresak, bidezko merkataritza, finantza etikoak...); ii) arlo politikoan, ekonomia sozialaren funtzio politikoaren sakontzea proposatuz, eta iii) esparru teorikoan, teoria ekonomiko hegemonikoei aurka egingo dien korpus teoriko berri baten eraikuntzan parte hartuz.

(3) Ekonomia Sozial Eraldatzaileak lau ezaugarri nagusi ditu. Ekonomia Sozial Eraldatzailearen edukia ulertzeko lau aspektu kontuan hartzen dira. Lehendabizi, ekonomia sozial eraldatzailea globalizazioari aurre egiteko tresna da, lurraldetasuna, elkartzeko ahalmena, malgutasuna eta komunitatearen garapena landuz. Bigarren, ekonomia sozial eraldatzaileak bertako sindikatuarekin eta langile mugimenduariarekin artikulazio ideologikoa eta politikoa eratzen du gero tokian tokiko instituzioekin elkarlana burutzeko. Hirugarren, ekonomia sozial eraldatzailea autogestioan oinarritutako garapen eredu propio baten ezinbesteko pieza izango da. Azkenik, laugarren atalean, ekonomia sozial eraldatzailea gizarte-ekintzari laguntzeko bitartekoa kontsideratu daiteke, lortutako etekin ekonomikoen zati bat lurraldeko gizarte-ekintzetara bideratuz, lurraldeko garapen ekonomiko, sozial eta kulturalaren beharrei erantzuten joateko.

Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak, baita ere, lotura zuzena dauka gobernantzarekin. Horregatik, Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak lantzen duen gobernantza interes orokorra defendatzen du. Horretarako estatua eta gizartearen arteko erlazioak birdefinitzen dituen praktika berriak eta esku-hartze publikoaren modalitate desberdinak garatzen ditu. Hain zuzen ere Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak gobernantzaren kontzeptuak hierarkia eta merkatuaren mugak gainditzen dituzten ekimen publikoak azpimarratzen ditu eta bide batez, gaur egungo gizarte konplexuan estatuaren eginkizunaren eraldaketari garrantzia ematen dio. Sareen eta lankidetzaren garapenari tokia utziz.

Berrikuntza Sozial Eraldatzailean erabiltzen den gobernantzaren kontzeptuak arazo kolektiboak konpontzeko prozesuak azpimarratzen ditu eta gizarte zibila eta botere

publikoaren arteko elkarrekintzari garrantzia ematen dio. Gainera, gobernantza eraldatzaile horrek aktore publiko eta pribatuen aniztasunaren presentzia eskatzen du, partikularki ekonomia sozial eta solidarioko aktoreena esku hartze kolektiboak lantzeko eta martxan ipintzeko. Gobernantza eraldatzailearen ideiaaren atzean dagoen botere publikoaren eginkizuna lidergoa erabiltzen duen bideratzaile batena da. Aldi berean, Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen gobernantzak botere publikoaren esku hartze moduen aldaketari garrantzia ematen dio. Ez hori bakarrik, baita ere Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen gobernantza lankidetzatza motakoa da. Erregimen horretan lankidetzatza bat martxan ipintzen da botere publikoa eta bereziki sozietate zibileko aktoreen artean. Autoritate publikoen eginkizuna ez da indarrezko boterea erabiltzea. Gehiago da koordinazio eta sustatze lanak burutzea gizarte zibila eta botere publikoaren artean sortu diren lankidetzatza desberdinetan. Azken finean, lankidetzatza motako gobernantzak jakinduria kolektiboa sortzen du eta aktore desberdinen arteko logiken nahasketa dakar. Gainera, lankidetzatza ahalik eta simetrikoea izan beharko du, aktore guztiek errekurtsio eta indar antzekoa erabiliz.

Tokiko gizartea eta administrazioa esparru egokiena da gobernantza eraldatzaile hori martxan ipintzeko, gune aproposa delako aktoreen arteko koordinazio horizontala sustatzeko eta aldi berean lurraldea ekoizpen faktore bihurtzeko. Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen gobernantza berri hori gauzatzeko ezinbestekoa da lurralde horretan, alde batetik, kapital soziala egotea eta baliaraztea eta bestetik, harreman instituzionalak garatzea demokrazia parte-hartzailea gauzatu dadin. Arazo kolektiboren bat dagoen auzo edo herri bateko komunitateak suspertze-prozesu kolektibo bat martxan ipini dezake bertako eragile sozioekonomikoek beren interesak defendatzeko mobilizatzeko gaitasuna erakusten badute. Mobilizazio horrek arazoaren konponketan paper erabakigarria jokatzen du. Gainera, eragile sozial desberdinen arteko erlazioak sendotu egiten ditu. Mobilizazio soziala eta ekimen kolektiboa martxan ipintzen da, kontzientzia hartuz eta zergatieri aurre eginez. Elkartasun sozialaren bila biltzen diren aktore desberdinek gaitasuna erakusten badute botere publikoa interpelatzeko gai dira lankidetzatza oinarritutako gobernantza sustatzeko eta tokian tokiko arazoei aurre egiteko.

Ikuspegi horretatik, Ekonomia Sozial eta Solidarioko erakundeek eginkizun garrantzitsua daukate Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen gobernantza martxan ipintzeko garaian, hain zuzen ere, erakunde horiek gizalegezko konpromisoen eta gizarte-partaidetzaren espazioak direlako. Ekonomia sozialeko aktoreek, bereziki maila lokalean, beste ezaugarri batzuen artean honako bi dituzte gobernantza eraldatzailearen aktore pribilegiatuak izateko. Alde batetik, elkartasunezko guneak osatzen dituzte borondatezko konpromisoetan eta elkarrekikotasunean oinarritutako ekimen kolektiboak burutzeko gai direlarik. Bestetik, berriz, erakunde horietako erabaki prozesuak hastapen eta prozedura demokratikoetan oinarritzen dira. Arrazoi horiengatik ekonomia sozial eta solidarioko erakundeak gizarte zibilaren mobilizaziorako eta ordezkartzarako aktore klabeak dira. Horregatik, Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak sustatzen duen gobernantzak, alde batetik, estatuaren esku hartzea baloratzen du eta bestetik, gizarte zibilaren, merkatuaren eta bereziki ekonomia sozialaren ekarpenak kontuan hartzen ditu.

Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak bultzatzen duen gobernantzak politika publikoaren koeraikuntzaren alde egingo du, merkatuko, gizarte zibileko eta ekonomia sozialeko aktoreekin lankidetzan arituz. Koeraikuntza horrek interes orokorra bilatzen du eta aldi berean koeraikuntza neoliberaletik eta korporatibistatik aldendu egiten da.

Estatuak politika publikoak koeraikitzen ditu merkatuko eta gizarte zibileko erakundeekin lankidetzan arituz. Horrek ez du esan nahi estatua koeraikuntzan parte hartzen duten beste aktoreen posizio berdin berdinean dagoela. Funtsean, estatuak, desadostasunak daudenean, gobernatu eta azken erabakiak hartzen ditu. Estatuak politika publikoak garatzen ditu lankidetzan estuan merkatu ekonomiako eta gizarte zibileko aktoreekin. Hau da, estatukoak ez diren beste aktoreekin hitz egin, iritziak elkartrukatu eta hausnarketak burutzen ditu. Estatua gainera egongo da baina aldi berean eurengandik gertu. Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak estatua eraldatu nahi du, iraulketa parte hartzailea gauzatuz. Hain zuzen ere estatuaren indarra dator ahalmen handia duelako gizartearen segmentu guztien errekursoak bildu ondoren helburu kolektiboak eta interes orokorra lortzeko.

Gobernantza eraldatzaileak demokrazia ordezkatzailetik eta demokrazia parte-hartzailetik ezaugarri interesgarrienak hautatzea dakar. Gobernantza eraldatzaile horrek aukeratutako

ordezkari politiko horiek gobernatzeko modu irekiak hautatzea bilatzen du. Horrek esan nahi du elkarrizketa bultzatu behar dela ordezkari politiko eta demokrazia parte-hartzaileko kidegoekin. Horretarako elkarrizketarako, bitartekaritzarako eta hausnarketarako topalekuak sortzen dira.

Politika publikoen koeraikuntza demokratikoak ekonomia sozialeko aktoreen parte hartzearen aitortza dakar. Gauza ez da ekonomia sozialari pribilegio-tratamendu bat ematea. Gehiago da, politika publikoak eta programak zehazten diren momentuan, ekonomia sozialari aukera ematea beste aktoreen artean bere ahotsa kontuan hartzeko. Helburua da gaur egun ekonomia sozialak politika publikoen aplikazioan jokatzen duen papera estatuaren tresna huts bezala gaituztea. Azken finean, elkartasunean oinarritutako koeraikuntza ez da luxu bat, demokrazia lortzeko bitarteko bat baizik. Horregatik, gizarte zibileko eta ekonomia sozialeko aktoreak estatuarekiko harremanetan baztertuak edo erabiliak direnean politika publikoa pobretuta ateratzen da lehiakortasunaren eta burokraziaren erregulazioaren alde negatiboenak agerian gelditzen direlako.

Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen bidean urratsak emateko koeraikuntza demokratikoaren eredu hori sakondu egiten da planifikazio parte-hartzailea gehituz. Dударik gabe, gaur egungo demokrazia ordezkatzailearen koordenadak gaituzte egin behar dira. Parlamentuaren eta alderdi politikoaren jokoak ez da nahikoa interes orokorra eta komunitarioa defendatzeko. Dinamika hori partekatu egiten da gizarte zibilean mugitzen diren aktore eta herri mugimenduekin. Horregatik, ekonomia sozialaren, langileria eta gizartearen parte hartzea ezinbestekoa da sektore publikoaren plangintza ekonomikoa burutzeko. Ez da bakarrik aktore desberdinen ahotsa kontuan hartzea. Urrunago joatea eskatzen du. Planifikazio parte-hartzaile hori martxan ipintzeko mekanismo desberdinak finkatzen dira. Alde batetik, prozesuan parte hartzen duten aktoreei informazio osoa bideratzen zaie eta, bestetik, erabakiak hartzeko aukera eta bide batez hartutako erabaki horiek fiskalizatzeko ahalmena bermatzen da. Ez da nahikoa eztabaida eta kontraste markoak definitzea bakarrik. Horrekin batera marko horien eraginkortasuna lortu behar da.

Zentzu horretan, bitartekoak ipini behar dira aktore inplikatuaren esku hartze zuzena bermatzeko. Gizartearen antolaketa autonomoa aktore eta herri mugimendu desberdinetan

klabeetako bat da parte hartze zuzena sustatzeko. Hala nola borondatezko lanaren bitartez ikuspegi eta proposamen berrien ekarpenak egingo dituzte. Herri mugimenduek joka dezaketen papera oraindik garrantzitsuagoa da kontuan hartzen bada arlo sozioekonomikoan hartzen diren erabaki asko zalantzakorrak direla. Beste kasu batzuetan, berriz, erabaki bat edo beste hartzeak balorazio ezberdinak sortzen ditu eta horrek eskatzen du gizartean kontsentsu zabalak lortzea, bereziki eragile sozialekin.

Planifikazio parte hartzaile horrek lurralde esparrua, arlo instituzionala eta arlo pribatua jorratzen ditu. Gaur egun ekonomiak duen konplexutasuna kontuan hartzen bada sektore publikoaren esku-hartzeak prozesu ekonomikoan bi alderdi oso desberdin ditu. Alde batetik, sektore publikoak berak prozesuaren zati garrantzitsu bat antolatu eta zuzentzen du, ekoizle bezala behar indibidualak eta kolektiboak asebetez. Bestetik, berriz, sektore publiko horrek ekonomia sozialaren eta sektore pribatuaren plan ekonomikoak zuzendu, erregulatu eta osatu egiten ditu.

Gaur arte sektore publikoaren planifikazioak bat egin du ingurune kapitalistaren beharrekin. Boterearen inguruan mugitu diren talde formalak, informalak edo presio-taldeak saiatu dira komunitatearen soberakinak beren mesedera jartzen eta bide batez sektore publikoaren pribatizazioaren aldeko argudioak zabaltzen, esparru hori iruzurrarekin, diru-xahutzearekin, eraginkortasun ezarekin eta burokrazia eroarekin identifikatuz. Guzti horrengatik, esparru instituzional osoan, tokian tokiko gobernuetatik hasita, premiazkoa da martxan ipintzea planifikazio parte hartzailean oinarritutako mekanismoak. Erakunde horietan hartzen bait dira behar desberdinak konpontzeko erabakiak, hirigintza eta ekologiatik hasita, babes soziala eta produkzio-inbertsioekin jarraituz eta hezkuntza eta kulturaraino. Zentzu horretan, garrantzitsua da biztanleriak dituen lehentasunak gai guzti horietan zeintzuk diren jakiteko mekanismoak zehaztea. Planifikazio parte-hartzaile horrek lagundu beharko luke, besteak beste, errentaren banaketa, estaldura soziala, garapen kulturala eta kontzientzia soziala hobetzen.

Berrikuntza Sozial neoliberala eta Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen arteko diferentzia ez dago estatuaren parte hartzea bultzatzearen aferarekin lotuta. Dilema horrela planteatzea ez da egokia. Garrantzitsuena da zehaztea zein den esku hartzearen helburua.

Neoliberalismoaren helburua elite bat eta errenta eta aberastasunaren banaketa bidegabea egonkortzea da. Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak berriz, biztanleriaren gehiengoaren aldeko esku hartzea bultzatzen du, sortutako ondasuna modu zuzenean banatuz.

Horregatik funtsezkoa da sektore publikoaren esku hartzea antolaketa ekonomikoan. Esku hartze hori gardena izan behar du, merkatuak eragiten dituen desoreka larrien zuzentzaile bai arlo produktiboan eta baita ere errentaren eta ondasunaren banaketan. Ezinbestekoa da sektore publiko indartsu bat antolatzea ez bakarrik arrazoi ideologikoengatik, baita ere eraginkortasun ekonomikoa dela medio. Sektore publiko horrek goian aipatu den planifikazio ekonomiko parte hartzailearen ezaugarri guztiak ditu. Sektore publikoaren bilakaera zintzoa babesteko eta bide okerretik ez joateko beharrezko kontrolak ipiniko dira eta gizarte zibilaren erakunde ordezkatzailak izango dira kontrol horren berme.

Bistakoa da ekimen pribatua ez dela nahikoa sare sozioekonomikoa antolatzeko. Sektore publikoa ezinbestekoa da ekonomiako arlo desberdinak koordinatzeko eta dinamizatzeko. Horregatik hain garrantzitsua da egiazko sektore publiko indartsu, dinamiko, eraginkor eta zintzo bat sendotzea politika makroekonomikoak, politika sektorialak eta politika horizontalak planifikatu eta koordinatzeko. Sektore publiko hori buru izango da ekonomiaren birsorkuntza eta modernizazioa bideratzeko eta bere gainean planifikazio loteslea eta sektore pribatuarentzat planifikazio orientagarria ezartzeko. Dударik gabe, Planifikazio parte hartzailearen eredian, planifikazio hori gizarte zibileko eragile sozial desberdinekin eta ekimen pribatuarekin lankidetzan estuan antolatzen da. Merkatua operatiboa denean eta ekimen pribatuak eta enpresa-ahaleginak komunitatearen mesedean jarduten duenean dinamika pribatu horiek estimulatuak izango dira. Sektore pribatuarentzat planifikazio orientagarria aipatzen denean baldintzatutako politika orokorreko eta sustapen publikorako neurriak hartzea eskatzen da. Bere helburua agente ekonomiko pribatuei eragitea da komunitateak finkatutako helburu sozialak betearazteko.

Gizarte eta osasun zerbitzuen arloa aztertzen bada, Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak gizarte eta osasun zerbitzuen atalean lankidetzan oinarritutako prozesuak bultzatzen ditu, bereziki erakunde publiko eta hirugarren sektorea/ekonomia sozialeko enpresen artean gauzatzen direnak. Bide horrek koordinazio instituzionalaren iraulketa eskatzen du eta bide batez

estatuaren funtzioa gizartearen aurrean birkokatzen da. Gizarte eta osasun zerbitzuen marko instituzionalaren eraldaketa sakon horrek akordio soziala zabaltzea ahalbideratzen du. Zentzu horretan estatuaren esku hartzea indartuta ateratzen da. Hori bai, gizarte eta osasun zerbitzuak ezin dira estatuaren eskuetan bakarrik utzi. Estatua ez da gai zenbait arazoei aurre egiteko eta horretarako Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak eragile sozialen esku hartze anitza bultzatzen du.

Horregatik, Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen eskutik gizarte eta osasun zerbitzuak estatua eta beste partaideen arteko koeraikuntza mekanismoaren bitartez antolatzen dira, gizarte zibileko erakundeak eta enpresak oinarri bezala hartuta. Testuinguru horretan, ekonomia sozialak beste aktoreek baino gaitasun handiago erakutsi dezake behar berriak identifikatzeko, arazoei erantzuteko, planteamendu berritzaileak asmatzeko eta tresna berriak martxan ipintzeko. Horregatik, Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak bultzatutako gizarte eta osasun zerbitzuetan ekonomia sozialak ekarpen garrantzitsua egin dezake estatuak lankidetzan eta sarean oinarritutako marko instituzionalak definitzeko garaian. Ez hori bakarrik, gainera antolaketa arloan aktore ekonomiko eta sozial guztiak baldintza berdinetan kokatzen dira. Estatua ere beste eragileen maila berdinean arituko da gizarte zerbitzuen ekoizpena eta gestioa antolatzen. Horregatik, lankidetzan oinarritutako gobernantza batek ondo funtzionatzeko aktore desberdinen arteko bitartekaritza espazioak garatzen ditu eta partaideen arteko koordinaketa konbentzimenduaren bitartez lantzen da, bereziki informazioaren trukaketa erabilita. Horrek aktoreen arteko konfiantza sendotzen du. Azken finean, Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen gobernantza, gizarte eta osasun zerbitzuetan aplikatzeko, sostengua eta entrenamendua behar da, lehenbizi entzuten ikasteko eta gero gogoeta eta negoziazioa gauzatzeko.

Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen lankidetzan oinarritutako gobernantzan diskurtsoa eta praktikaren arteko distantzia murriztea lortu behar da. Gainera gizarte zibileko arduradunen eta kargu politikoen artean ematen diren tentsioak gainditu egin behar dira. Hain zuzen ere, demokrazia parte-hartzailearen eta demokrazia ordezkatzailearen arteko kontraesanak leuntzea komeni da. Azken finean, lankidetzaren egonkorrenak inizatiba elkarrekin etortzen

direnean ematen dira, kasu horietan, partaideen arteko barne oreka errespetatzen delako eta finantza-iturriak dibertsifikatuak direlako.

Berrikuntza Sozial Eraldatzailea, gizarte eta osasun zerbitzuen arloan, lankidetzagobernantzaren inguruan zentratu da beste erregimenek baino gehiago erabiltzen duelako berrikuntza eta esperimentazioa, bereziki ahalmen handia duelako hurbilketa partekatuetan eta interes orokorreko proiektuetan aktore asko eta anitzak partaide izateko. Lankidetzagobernantza ez da hainbeste erregulazio publikoen desegite huts bat. Gehiago da desarauketa eta birrarauketaren konbinaketa bat.

Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak bultzatutako gizarte eta osasun zerbitzuen iraulketa bat egitea ez da enpresa erraza. Hala ere, ezinbestekoa dela esan dezakegu, erabiltzaileentzat kalitatea hobetzeko eta ekonomia sozial eta irabazi asmorik gabeko erakundeentzat eraginkortasuna handitu eta jarduera esparruak zabaltzeko. Gizarte eta osasun zerbitzuetan Lankidetzagobernantzaren esparrua handitzen bada konkurrentzia-gobernantzaren esparrua murriztu egingo da. Hala ere ezin da ahaztu zenbait gunetan bi gobernantza-forma horien hibridazioa ematen dela. Gobernantza-forma horien hibridazioa trantsizio fase bat izan daiteke lankidetzagobernantzara iristeko.

Laburbilduz, Berrikuntza Sozial Eraldatzailean erabiliko den gobernantzaren kontzeptuak arazo kolektiboak konpontzeko prozesuak azpimarratzen ditu eta gizarte zibila eta botere publikoaren arteko elkarrekintzari garrantzia ematen dio. Hain zuzen ere, Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen gobernantzak hurrengo gakoak azpimarratzen ditu:

(1) Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen gobernantzak lankidetzan oinarritutako eredu publikoa garatzen du. Hau da, Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen gobernantza botere publikoan oinarritzen da. Ez hori bakarrik, baita ere Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen gobernantza lankidetzat motakoa da. Aldi berean, Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen gobernantzak botere publikoaren esku hartze moduen aldaketari garrantzia ematen dio. Erregimen horretan lankidetzat bat martxan ipintzen da botere publikoa eta bereziki sozietate zibileko aktoreen artean. Autoritate publikoen eginkizuna ez da indarrezko boterea erabiltzea. Gehiago da koordinazio eta sustatze lanak burutzea gizarte zibila eta botere

publikoaren artean sortu diren lankidetzak desberdinetan. Azken finean, lankidetzak motak gobernantzak jakinduria kolektiboa sortzen du eta aktore desberdinen arteko logiken nahasketa dakar. Gainera, lankidetzak ahalik eta simetrikoena da, aktore guztiek errekurtso eta indar antzekoa erabiliz.

Gizarte zerbitzuen arloa aztertzen bada, Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak gizarte zerbitzuen atalean lankidetzan oinarritutako gobernantza-prozesuak bultzatzen ditu, bereziki erakunde publiko eta hirugarren sektorea/ekonomia sozialeko enpresen artean gauzatzen direnak. Bide horrek koordinazio instituzionalaren iraulketa dakar eta bide batez estatuaren funtzioa gizartearen aurrean birkokatzen du. Gizarte zerbitzuen marko instituzionalaren eraldaketa sakon horrek akordio soziala zabaltzea ahalbideratzen du. Zentzu horretan gizarte zerbitzuen arloan eredu publikoaren esku hartzea indartzen da antolaketa instituzionala areagotu eta dinamizazio bitartekoak gorpuzteko. Hori bai, gizarte zerbitzuak ezin dira eredu publikoaren eskuetan bakarrik utzi. Eredu publikoa ez da gai zenbait arazoei aurre egiteko. Horretarako Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak eragile sozialen esku hartze anitza bultzatzen du.

Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak bultzatutako gizarte zerbitzuen iraulketa bat egitea ez da enpresa erraza. Hala ere, ezinbestekoa da erabiltzaileentzat kalitatea hobetzeko eta ekonomia sozial eta irabazi asmorik gabeko erakundeentzat eraginkortasuna handitu eta jarduera esparruak zabaltzeko.

(2) Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen gobernantza, zerbitzu publikoak diseinatzeko garaian, koeraikuntzan oinarritzen da. Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak, zerbitzu publikoak diseinatzeko garaian, koeraikuntzaren alde egingo du, gizarte zibileko, ekonomia sozialeko eta merkatuko aktoreekin erabakiak lankidetzan hartuz. Koeraikuntza ibilbidearen hasieran gauzatzen da, politika publikoa sortu eta diseinatzeko den momentuan. Dударik gabe, estatuak lankidetzan oinarritutako koeraikuntza martxan ipintzen duenean gizarte zibileko, ekonomia sozialeko eta merkatuko aktoreekin onura asko ekartzen ditu politika publikoaren esparru jakinetan. Koeraikuntza horrek interes orokorra bilatzen du eta aldi berean koeraikuntza neoliberaletik eta korporatibistatik aldendu egiten da.

Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen gobernantzan estatuak politika publikoak koeraikitzen ditu gizarte zibileko eta merkatuko erakundeekin lankidetzan arituz. Horrek ez du esan nahi estatua koeraikuntzan parte hartzen duten beste aktoreen posizio berdinean dagoela. Hau da, estatukoak ez diren beste aktoreekin hitz egin, iritzia elkartrukatu eta erabakiak hartuko ditu. Estatua gainetik egongo da baino aldi berean eurengandik gertu. Funtsean, estatuak, desadostasunak daudenean, gobernatu eta azken erabakiak hartzen ditu. Hau da, estatuak politika publikoak garatzen ditu lankidetzan estuan enpresa eta gizarte zibileko aktoreekin. Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak estatua eraldatu nahi du, iraulketa parte hartzailea gauzatuz. Hain zuzen ere estatuaren indarra dator ahalmen handia duelako gizartearen segmentu guztien errekurtsioak bildu ondoren helburu kolektiboak eta interes orokorra lortzeko.

Zentzu berean, Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen eskutik gizarte zerbitzuak estatua eta beste partaideen arteko koeraikuntza mekanismoaren bitartez diseinatzen dira, gizarte zibileko erakundeak eta enpresak oinarri bezala hartuta. Ez hori bakarrik, gainera antolaketa arloan aktore ekonomiko eta sozial guztiak baldintza berdinetan kokatzen dira. Estatua ere beste eragileen maila berdinean aritzen da gizarte zerbitzuak diseinatzen. Horregatik, lankidetzan oinarritutako gobernantza batek ondo funtzionatzeko aktore desberdinen arteko bitartekaritza espazioak garatzen ditu eta partaideen arteko koordinaketa konbentzimenduaren bitartez lantzen da, bereziki informazioaren trukaketa erabilita. Horrek aktoreen arteko konfiantza sendotzen du. Azken finean, Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen gobernantza gizarte zerbitzuetan aplikatzeko sostengua eta entrenamendua behar da, lehenbizi entzuten ikasteko eta gero gogoeta eta negoziazioa gauzatzeko.

(3) Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen gobernantza, zerbitzu publikoak emateko garaian, kudeaketa zuzenarekin batera, gizarte zibilarekin eta hirugarren sektorea/ekonomia sozialeko eragileekin kontzertatutako koprodukzioan oinarritzen da. Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen gobernantzaren ikuspegitik, sistema publiko batek, baita ere gizarte zerbitzuen sistemak ere, publiko gisa, zerbitzu publikoak emateko garaian, zuzenean kudeatutako gutxieneko gune bat behar du. Erantzukizun publiko zuzena bermatu behar da erregulazioa, finantzaketa eta kontrola antolatzerakoan. Baita ere, zuzenean ekoizten da

sistemaren plangintza eta koordinazioa. Gizarte zerbitzuen erabiltzaileei ere bermatu behar zaie kudeaketa zuzenaren bitartez, besteak beste, informazioa, balioztapena, orientazioa, bitartekaritza eta erreklamazio-sistema.

Bestalde, Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen koprodukzioak, zerbitzu publikoak ekoizterakoan, estatuaren eta aktore kolektiboen parte hartzea eskatzen du. Gainera, Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen koprodukzioak, zerbitzu publikoak emateko garaian, norbanakoen eta aktore kolektibo horien eginkizuna azpimarratzen du. Hain zuzen ere, Koprodukzio eraldatzaile horrek parte hartze demokratikoa sustatzen du eta balio du sistema politikoa berritzeko. Horregatik, Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen koprodukzioaren helburua estatuaren eta politika publikoen demokratizazioa lortzea da. Zerbitzu publikoen eta politika publikoen antolamendua eraikitzen saiatzen da. Bertan, autoritate publikoek, zerbitzu publikoak ekoizteko garaian, estatukoak ez diren aktoreen ekarpenak bilatzen dituzte.

Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen gobernantzan, estatua eta aktore kolektiboen arteko gizarte zerbitzuen koprodukzioa antolatzeko, bereziki kontzertazio sistema erabiltzen da. Lehenbizi administrazioak, koeraikuntzaren bitartez, gizarte zerbitzuen mapa osoa diseinatzen du. Ondoren, kanpoan ikusten da zein erakunde edo enpresa den gai zehaztutako gizarte zerbitzu horiek emateko. Kontzertazioaren bitartez kalitatezko zerbitzua bermatu nahi da, beharra duten herritar guztiei asistentzia ona eta homologatua eskainiz. Bestalde, eskaintza kontzertatua ondo arautu behar da zerbitzu kontzertatueterako exigentziak eta egonkortasuna aldi berean egokitzeko.

Gainera, politika publikoak ekoizteko garaian Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak hirugarren sektorea/ekonomia sozialeko erakundeen aldeko apustua egiten du. Hau da, hirugarren sektorea/ekonomia sozialeko erakundeek ahalmena dute gobernantza demokratikoa zabaltzeko eta sakontzeko. Gainera, hirugarren sektorea/ekonomia sozialeko erakunde horiek hobekien kokatuta daude parte hartze plural hori gauzatzeko. Hori bai, finantzaketa publiko egokia eta erregulazio aproposa bermatu behar da.

(4) Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen gobernantzak hirugarren sektorea/ekonomia sozialeko partaideak positiboki diskriminatzen ditu. Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen gobernantza horrek aktore publiko eta pribatuen aniztasunaren presentzia eskatzen du, partikulariki hirugarren sektorea/ekonomia sozialeko aktoreena esku hartze kolektiboak lantzeko eta martxan ipintzeko. Ikuspegi horretatik, hirugarren sektorea/ekonomia sozialeko erakundeek eginkizun garrantzitsua eduki dezakete Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen gobernantza martxan ipintzeko garaian, hain zuzen ere, erakunde horiek gizalegezko konpromisoen eta gizarte-partaidetzaren espazioak direlako. Hirugarren sektorea/ekonomia sozialeko aktoreek, bereziki maila lokalean, beste ezaugarri batzuen artean honako bi dituzte gobernantza eraldatzailearen aktore pribilegiatuak izateko. Alde batetik, elkartasunezko guneak osatzen dituzte borondatezko konpromisoetan eta elkarrekikotasunean oinarritutako ekimen kolektiboak burutzeko gai direlarik. Bestetik, berriz, erakunde horietako erabaki prozesuak hastapen eta prozedura demokratikoetan oinarritzen dira.

Arrazoi horiengatik hirugarren sektorea/ekonomia sozialeko erakundeak gizarte zibilaren mobilizaziorako eta ordezkarietarako aktore klabeak dira. Horregatik, Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak sustatuko duen gobernantzak, alde batetik, estatuaren esku hartzea baloratuko du eta bestetik, gizarte zibilaren eta bereziki hirugarren sektorea/ekonomia sozialaren ekarpenak aintzat hartuko ditu.

Politika publikoen koeraikuntza eta koproduzio demokratikoak hirugarren sektorea/ekonomia sozialeko aktoreen parte hartzearen aitortzea dakar. Gauza ez da hirugarren sektorea/ekonomia sozialari pribilegio-tratamendu bat ematea. Gehiago da, politika publikoak eta programak zehazten diren momentuan, hirugarren sektorea/ekonomia sozialari aukera ematea beste aktoreen artean bere ahotsa kontuan hartzeko. Helburua da gaur egun hirugarren sektorea/ekonomia sozialak politika publikoen aplikazioan jokatzeko duen papera estatuaren tresna huts bezala gainditzea.

Gizarte zerbitzuen arloan hirugarren sektorea/ekonomia sozialak beste aktoreek baino gaitasun handiago erakutsi dezake behar berriak identifikatzeko, arazoei erantzuteko, planteamendu berritzaileak asmatzeko eta tresna berriak martxan ipintzeko. Horregatik, Berrikuntza Sozial Eraldatzailean, gizarte zerbitzuak emateko garaian, hirugarren

sektorea/ekonomia sozialak ekarpen garrantzitsua egin dezake estatuak lankidetzan eta sarean oinarritutako marko instituzionalak definitzeko eta zerbitzuak ekoizteko garaian.

(5) Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen gobernantzak kooperatibizazioa sustatzen du espazio publikoa zabaltzeko. Berrikuntza Sozial Eraldatzaileak Kooperatibizazioaren esperientzia errealitate balioetsua bezala aitortzen du erantzukizun publikoa indartzeko. Eredu publiko soilarekin batera ekonomia sozialak eta bere barnean bereziki kooperatibismoak ekarpen estimagarria egiten dio izaera publikoari. Beti ere, kooperatibismo horrek kapitalismoaren logikatik kanpo dauden elementuak mantentzen baditu. Hau da, kooperatibismoak demokrazia ekonomikoa, kogestioa, kopartaidetza eta artikulazio ideologiko, politiko eta organiko alternatiboa bultzatzen badu, herri sektoreekin bat eginez. Zentzu horretan, kooperatibizazioa etorkizuneko eredu alternatiboa posible dela pentsatzeko edo frogatzeko elementu garrantzitsua izan daiteke. Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen adiera horretatik tira eginez kooperatibismoak zeregin handia dauka desberdintasun ekonomiko eta sozialei irtenbideak bilatzeko eta bide horretatik beste garapen eredu bat eraikitzen laguntzeko. Maila lokalean, bizi-baldintzetan, enpleguan, lurraldean eta baita ere politika publikoetako plangintzetan eta inplementazioetan egitura-aldaketak eragiteko ahalmena eduki dezake.

Horregatik, eraldaketan oinarritutako kooperatibismoa Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen kontzeptuaren parte bezala ikusten da. Kooperatibismo eraldatzaile horrek lortzen du merkatuaren eskusibotasuna apurtzea eta gizartearen garapenerako gobernantza partekatzea. Hala ere, Kooperatibizazio eraldatzaile hori ezin da dekretuz ezarri. Tokian tokiko eremu sozioekonomikoetan substratu egokia behar da. Kooperatibismo eraldatzailea aipatzea enpresa multzo eta elkarte eta esperientzia herrikoi eta komunitarioez hitz egitea da. Bertan ondasun eta zerbitzuen ekoizleek ekoizpen bitartekoen jabegoa dute edo prozesu ekonomiko globalaren beste osagarriren baten gestio kolektiboa burutzen dute. Hau da, bere jabegoan, funtzionamenduan eta gestioan parte hartzen dute. Baita ere ezinbestekoa da instituzioen laguntza egotea. Aldeko giroa dagoen gobernantza sistemetan errazagoa da gaur egun dauden hutsuneak eta mugak ezagutaraztea, aktore instituzionalek jokatu behar duten papera zehaztea eta azkenik, irtenbide berriak pentsatzea eta gauzatzea.

Beste alde batetik, kooperatibismoaren barnean koordinazio espazioak sortzea beharrezkoa da informazioa trukatu, hausnarketak burutu eta ildo berriak zabaltzeko. Ezin da ahaztu ere partaideen heziketak duen garrantzia kooperatibismo eraldatzailearen baloreekiko atxikimendua indartzeko.

Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen ikuspegitik gizarte zerbitzuen arloko gobernantzan ekonomia sozialaren barnean kooperatibismoak ahalmen ekonomiko ukazina erakutsi dezake. Hain zuzen ere, kooperatibizazioak izaera estrategikoa dauka gizarte zerbitzuen diseinuan eta ekoizpenean ahalmen publikoa eta soziala zabaltzeko. Gainera, erantzukizun publiko horren zabalkundea gestio pribatuaren kontura egitea komeni da.

Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen gobernantzari buruzko hausnarketa teorikoa egin ondoren gero landa azterketa Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuan aplikatu da Delphi metodoaren bitartez. Ikerketako emaitzak banan-banan aztertu baino lehen komeni da aurretik Gipuzkoako gizarte zerbitzuen egoera aurkeztea.

Gipuzkoako gizarte zerbitzuen esparruaren gogoeta egiten denean ikusten den ezaugarri nagusia da zerbitzu horiek kontzertatutako antolaketa batean oinarritzen direla. Gipuzkoako lurraldera jaitsi aurretik esan daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuek eredu mistoa islatzen dutela. Alde batetik, Estatu Espainolaren esparruan 2006an mendekotasun legea onartu zen. Lege hori martxan jartzen da autonomia pertsonala sustatzeko eta dependentzia egoeran dauden pertsonak laguntzeko. Estatu Espainolak, beste administrazio publiko guztiekin batera, Lege horrekin bermatu egin nahi ditu gutxieneko eskubide batzuk bere lurralde osoan. Zerbitzu horiek emateko hirugarren sektorearen parte hartzea ere bertan jasota dago. Legeak Estatuko Administrazio Orokorren aldetik gutxieneko berme bat plazaratzen badu ere gero autonomia-erkidego bakoitzari aukera ematen zaio babes hori osatzeko eta toki-administrazioekin partekatzeko. Ildo horretatik Estatuko mendekotasunaren legearekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoak gizarte zerbitzuen oinarri-lege orokor bat dauka gizarte zerbitzuen legea bezala ezagutzen dena. Lege hori 1987ko Estatuko Konstituzioaren babesean sortzen da, bertan Euskal Autonomia Erkidegoari gizarte-laguntzaren eskumen eksklusiboa ematen zaiolako. Aurreko arautegi hori kontuan hartuta Euskal Autonomia Erkidegoko 2008ko gizarte zerbitzuen lege

horrek errealitate berri bateri aurre egin nahi dio. Testuinguru horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen sistema ongizate-estatuaren oinarrietako bat kontsideratzen da, biztanleria osoari zuzendutako ardura publikoa eta estaldura unibertsala azpimarratuz. Hala ere oraindik alde nabarmenak ikusten dira Europako Herrialde garatuenean eta arau berri horren bitartez diferentziak gutxitu egin nahi dira behar berriak aurreikusiz eta tresna egokiak planifikatuz.

Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen lege hori titulu desberdinetan banatzen da baino hemen bereziki bosgarren titulua aztertuko da bertan finkatzen direlako aukera desberdinak hirugarren sektoreak eta ekonomia sozialak gizarte zerbitzuen probisioan parte hartzeko. Bosgarren titulu horretan ekimen pribatuaren esku-hartzea jorratzen da. Bertako I. kapituluaren ekimen pribatuaren esku hartzea erantzukizun publikoko gizarte zerbitzuetan nola antolatzen den aztertzen da. Horretarako, lehenbizi zerbitzu eta zentroak baimendu eta homologatu egin behar dira. Ondoren, ekimen pribatuaren parte hartzea gizarte zerbitzuen sisteman finkatuko da eta hori burutzeko zuzeneko kudeaketa, zeharkako kudeaketa eta hitzarmenak irabazi asmorik gabeko erakundeekin erabiliko dira. Era berean, kapitulu horretan diskriminazio positiboko neurriak kontuan hartuko dira irabazi asmorik gabeko erakundeentzat, beti ere antzeko baldintzak betetzen dituztenean.

Lankidetzako esparru-hitzarmenei dagokionez, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan sartutako zerbitzuak kudeatzeko hitzarmenak egin daitezke irabazi asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeekin. Gainera, katalogoko zerbitzuak kudeatzeko kontratuak esleitzeko prozeduretan klausula sozialak, diskriminazio positiboko neurriak eta kontrataziorako beste irizpide batzuk erabiliko dira. Hori dela eta, kontratuak finkatzeko garaian lehentasuna emango zaie irabazi asmorik gabeko erakundeei, beti ere eraginkortasuneko, kalitateko eta kostuko antzeko baldintzak betetzen badituzte.

Bosgarren titulu horren II. Kapituluaren berriz, irabazi asmorik gabeko gizarte ekimenari babes publikoa emango zaio Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan sartuta ez dauden prestazio eta zerbitzuak garatzeko eta gizarte zerbitzuen eremuko beste jardura batzuk egiteko garaian. II. kapitulu horrekin jarraituz irabazi asmorik gabeko erakundeak gizarte-interesekotzat aitortuak izan daitezke, erregelamenduan

finkatutako baldintzak betetzen badituzte. Eusko Jaurlaritzako gizarte zerbitzuen arloko eskumena duen sailari egokituko zaio gizarte-interesekotzat izendatzea eta izaera hori aitortu ondoren lehentasuna izango dute diru-laguntzak eta laguntzak jasotzerakoan, beti ere haien jardueretan eraginkortasuna eta kalitatea egiaztatzen badute. Bosgarren titulu hori amaitzeko legeak elkar laguntzako eta gizarte-boluntariotzako antolakundeen aldeko hautua egiten du.

Hau dela eta, Euskal Autonomia Erkidegoko 2008ko gizarte zerbitzuen legearen aplikazioaren ondorioz gutxieneko garapen bat lortu da eremu publikoan eta esparru sozialean. Horregatik, Espainiar estatu mailan gizarte zerbitzuetan, merkatuak eta familiak agintzen badu ere, Euskal Autonomia Erkidegoan esku hartze publikoak eta sare sozialek pisu handiagoa hartzen dute merkatuaren eta familiaren eragina asko gutxituz. Alde batetik, hirugarren sektore sendo baten presentzia nabaria da eta bestetik, zerbitzu publikoaren iraunkortasunaren inguruko eztabaidak agertzen dira. Hirugarren sektoreak, sektore publikoaren esku hartzearen aurretik hor zegoela ikusita, zerbitzua emateko garaian zenbait abantaila ditu ezagutza eta kualifikazio maila handia duelako. Hori dela eta, eredu mistoaren abantaila logikazko funtzioaren araberako banaketa batean oinarritzen da. Elkarre bakoitza espezializatuko da hobekien egiten dakien horretan. Hala ere, eredu misto horrek zenbait arazo ekartzen dio sektore publikoari, bereziki, zeharkako kudeaketak sektore publikoaren ahalmena eta kontrola ahuldu egiten duelako. Kontuan hartu behar da Euskal Autonomia Erkidegoko ereduaren Administrazioa dela zerbitzuen funtsezko arduraduna.

Dena dela, eredu misto hori ez da berdin aplikatzen Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historiko desberdinetan. Arabako probintzian gizarte zerbitzuetan sektore publikoaren esku hartzea nagusitu egiten da. Bizkaian berriz, sektore pribatuak eta hirugarren sektoreak pisu nabarmena dute eta azkenik Gipuzkoan kontzertatutako antolaketa batean oinarritzen da eta bertan, batzuetan, esku hartze publikoa zuzenean gauzatzen da eta beste batzuetan merkataritza sektorearen eta hirugarren sektorearen bitartez burutzen da.

Gipuzkoako gizarte zerbitzuen kokapen orokorra egin ondoren landa azterketa bat burutu da Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuko arduradunekin. Bertan

Delphi azterketa bat egin da ikertzeko ea Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamenduak ikerketa honetan garatu dugun Berrikuntza Sozial Eraldatzailea aplikatzen duen gizarte zerbitzuak antolatzeko garaian. Galdetegia gai teknikoetan baino gehiago gizarte zerbitzuetako departamentuko arduradunen arrazoi ideologikoetan zentratu da. Hau da, azterlanaren muina da ea departamenduko arduradunek, zailtasun tekniko, juridiko eta politikoen gainera, gizarte zerbitzuak antolatzeko momentuan Berrikuntza Sozial Eraldatzailea erabiltzen duten.

Ikerketa honetan garatu dugun Berrikuntza Sozial Eraldatzailea Gipuzkoako gizarte zerbitzuetan aplikatzen den ikusteko kontuan hartu dira bost azpi-hipotesietan zehaztu diren aldagaiak: i) Gizarte politikako departamentuak gizarte zerbitzu publikoak antolatzeko garaian lankidetzan oinarritutako eredu publikoaren garapena; ii) Gizarte politikako departamentua, gizarte zerbitzu publikoak diseinatzeko garaian, koeraikuntzan oinarritzen den hirugarren sektorea/ekonomia soziala aintzakotzat hartuz; iii) Gizarte politikako departamentuak, gizarte zerbitzu publikoak emateko garaian, kudeaketa zuzenarekin batera kontzertatutako koprodukzioa erabiltzen duen hirugarren sektorea/ekonomia soziala aintzakotzat hartuz; iv) Gizarte politikako departamentuak, gizarte zerbitzu publikoak emateko garaian, hirugarren sektorea/ekonomia sozialeko partaideak positiboki diskriminatzen dituen eta azkenik v) Gizarte politikako departamentuak, gizarte zerbitzu publikoak emateko garaian, kooperatibizazioa sustatzen duen espazio publikoa zabaltzeko.

Hasteko, ikertu nahi izan da Gizarte Politikako departamentuak gizarte zerbitzu publikoak antolatzeko garaian lankidetzan oinarritutako eredu publikoa garatu duen. Horretarako adituei galdetu zaie zein den eredu egokiena gizarte zerbitzuak emateko. Bertan atera den ondorio nagusia da Gipuzkoan gizarte zerbitzuak emateko gehiengo osoa eredu pribatu soilaren kontra agertzen dela. Honekin batera aipatzekoa da adituen gehiengoa eredu publiko soilaren alde dagoela, baina beti ere, gaur egungo errealitatek abiatuta, atea irekitzen zaio eredu kontzertatuari. Iritzi nagusia da eredu erantzukizun publikoan oinarritu behar dela. Baina gero ez dago adostasunik erantzukizun publiko hori nola gauzatu behar den aztertzeko garaian. Batzuk eredu publiko soilaren lehenean dute. Beste batzuk, berriz, eredu misto publiko-konzertatuaren aldekoak dira. Azken jarrera hori dutenen artean

batzuk hirugarren sektorearen eta elkarteen balio erantsiari edo irabazi asmorik gabeko erakundeen kudeaketa sozialari lehentasuna ematen diote. Aipatzekoa da ere zenbait ekarpenek aipatzen dutela eredu motak soilik ez duela bermatzen zerbitzuaren kalitatea.

Adituen taldea politiko eta teknikoaren artean bereizten bada, politikoek eta teknikoek iritzi nahiko antzekoa dute eredu pribatu soilaren aurka. Hausnarketa bateratu horretatik abiatu eta gero politiko eta teknikoaren arteko diferentziak handitu egiten dira eredu publiko eta kontzertatuari buruz hitz egiten hasten direnean. Alde batetik, politikoak eredu publikoaren defendatzaile sutsuak dira. Teknikoen kasuan, berriz, gutxiengoak egiten du eredu publiko soilaren alde. Eta bestetik, eredu kontzertatuari dagokionez, politikoek kontrako jarrera hartzen dute eta teknikoek aldekoa.

Bestalde, politikoek nabarmendu nahi dute teknikoek eredu publikoaren aldeko jarrera hobetu egin dutela legealdian zehar, bereziki kudeaketa pribatuak edo kontzertatuak arazoak ematen dituen esparruetan. Aldi berean, politikoaren iritzi ikerketa honetan ez da aukerarik eman eredu publiko, kontzertatu eta pribatu soilen arteko ereduak hautatzeko eta horrek baldintzatu egin du erdibideko ereduaren aldeko posizionamenduak agertzea. Teknikoek ere azpimarratzen dute gaur egungo Gipuzkoako gizarte zerbitzuen egoera aztertzeke momentuan kontuan hartu behar dela, alde batetik, historian zehar zerbitzu hauek mugimendu asoziatibo indartsu batetik sortu direla eta bestetik, sektore bakoitzak, garapen historiko baten ondorioz, bere eredu propioa eraiki duela. Ibilbide historiko horren ondorioz Gipuzkoan eredu kontzertatua jaun eta jabe bada ere teknikoek argi dute zerbitzuaren azken ardura publikoa izan behar duela.

Baita ere, teknikoentzat eredu pururik ez dago. Zaintza eredu mistoa da. Horregatik nahasketa bat bilatu behar da, ardura batzuk publikoak izan behar dute eta beste batzuk hitzartu edo kontratatu egin behar dira. Gainera, teknikoentzat nabarmena da Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernu horrek eredu publikoaren aldeko apustu politiko bat egin duela. Hala ere, nahiz eta politikoek dena publiko bihurtu behar dela esaten duten gero praktikan zailtasun handiak edukiko dituzte helburu hori betetzen joateko. Epe motzera kontratuak edo konkurtsoak kudeatuko dituzte baino hori ez da kudeaketa zuzena. Behar bada, izan daiteke apustu politiko bat oso epe luzera. Horregatik, teknikoentzat publikoa izatearen

erabakia ez da soilik ideologikoa. Praktikan beste muga asko gainditu behar dira erabaki ideologiko hori gauzatzeko. Adibidez, bete behar den legediak asko baldintzatzen du.

Politikoez ere nabarmendu nahi dute azken hamarkadetan zerbitzuak eredu publikotik atera egin direla, bereziki azpikontratazioaren bitartez eta teknikariek beti bizi izan dutela kanporatzeko ohitura hori. Aldi berean politikoez uste dute azken hiru urte hauetan bitarteko asko jarri dituztela kontrol publiko hori hobetzeko eta gaur egun lege-eremuaren sabaia ukitzen ari direla. Horrek esan nahi du arlo honetan egin daitekeen lana amaitzen ari dela. Politikoez, bestalde, zalantzak dituzte eredu kontzertatuari buruz. Kasu batzuetan eredu kontzertatuak emaitza positiboak eman ditu eta beste batzuetan ez. Gainera, politikoez kontzertazioaren ohitura horrek lan baldintza oso prekarioak ekarri ditu sektorerara eta ikuspuntu hori barneratzea ez da erraza izan departamentuan. Zerbitzuak gauzatu dira baino langileen lan baldintza kaskarren kontura. Bestalde, politikoez ez da berdina kontzertazio bat egitea ekonomia sozialeko erakunde batekin edo enpresa kapitalista batekin. Bestalde, politikoen eztabaidak ez du hemen gelditu nahi. Urrunago joan nahi du. Zalantza jarri nahi ditu gaur egungo eredu publikoa eta eredu kontzertatua. Ez hori bakarrik, politikoez “publiko” terminoa ezbaian dagoela diote eta ondorioz definizio berriak sortzen ari direla bai eskuinetik eta baita ere ezkerretik. Eztabaida horren barruan, departamentuko politikoez Kabia erakunde autonomoa sortzea erabaki dute gizarte zerbitzuak emateko garaian kontrol publikoa handitu eta zuzenean kudeatzeko.

Politikoez eztabaida horretan garrantzitsua da zehaztea ere nola ulertzen den eredu publikoa, hau da, estatuaren esku hartze handiagoa bultzatzen duena edo baita ere zaintzaren auto-eraketaren atzetik dagoena. Gainera ezbaian ipini beharko lirateke kogestiorako eta irabazi asmorik gabeko erakundeak izateko gaur egun eskatzen diren baldintzak, betetzeko oso errazak dira eta edozein sartu daiteke. Bestalde, politikoez batzuen iritziz “kontrol publikoari” buruz baino gehiago “kontrol demokratikoari” edo “kontrol sozialari” buruz hitz egin beharko zen. Politikoez kontrol soziala agian ez da nahikoa erantzukizun publiko praktikan ipintzeko. Oraindik gizarte ez dago prestatua herritar bezala kontrol hori bermatzeko. Harreman publiko pribatuak birplanteatzea litzateke erronka, oraingo publikoa eta oraingo kontzertazioa gaindituz.

Ikerkuntzaren bigarren hausnarketa izan da ikustea ea Gizarte Politikako Departamentua, gizarte zerbitzu publikoak diseinatzeko garaian, koeraikuntzan oinarritzen den hirugarren sektorea/ekonomia soziala aintzakotzat hartuz. Gipuzkoako gizarte zerbitzu publikoen diseinua antolatzeko garaian jarrera kontsultiboa atera da garaile. Prozesu hori eman da erabaki partekatua bultzatzen duten guztiek argi ikusten dutelako kasu horretan azken hitza administrazioaren eskuetan egon behar duela. Alde batetik, adituen ia erdiek ondo ikusten dute Gipuzkoako Foru Aldundiak hirugarren sektorea eta beste eragile sozialak aintzakotzat hartzea era kontsultiboan bakarrik. Eta bestetik, esan daiteke adituen erdiak baino gehiago erabakiak hirugarren sektorea/ekonomia soziala eta beste eragile sozialekin modu partekatuan hartzeko prest daudela, beti ere argi utzita azken hitza Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskuetan dagoela. Baita ere, argi gelditzen da adituen gehiengo osoarentzat ez dagoela ondo ikusia Gipuzkoako Foru Aldundiak hirugarren sektorea/ekonomia soziala eta beste eragile sozialak aintzakotzat hartzea era informatiboan bakarrik. Jasotako iritzien artean aipatu behar da ere hirugarren sektorea/ekonomia soziala eta beste eragile sozialekiko mesfidantza puntu bat agertzen dela. Nahiz eta eragile sozialen parte hartzea ezinbestekoa kontsideratzen den, gero praktikan kontu handiz ibili behar da tartean interes pribatu asko daudelako.

Politikoen eta teknikoen posizioak bakoitza bere aldetik aztertzen badira zenbait ñabardura atera daitezke. Politikariak erabakiak hirugarren sektorea/ekonomia soziala eta beste eragile sozialekin modu partekatuan hartzearen alde lerrokatzen dira eta teknikoek, berriz, nahiago dute hirugarren sektorea/ekonomia soziala eta beste eragile sozialak era kontsultiboan bakarrik hartzea. Hori bai, bi eremuetan adostasun osoa dago beti azken hitza Administrazioarena izan behar duela.

Zehaztasunetan sartuz gero teknikoek argi ikusten dute eredu kontsultiboaren aldeko apustua egin behar dela. Hain zuzen ere, teknikoen ustez, informazio asko dago sektorean Administrazioetik kanpo eta informazio hori jasota eta prozesatuta Administrazioak erabakiak hartu behar ditu. Gainera teknikoak jakitun dira praktikan sektoreko eragileekin behar dena baino gutxiago konpartitzen direla ikuspegiak arloa antolatzeko garaian. Udalekin ere ez da behar den bezalako lana egiten.

Politikoen artean hausnarketa desberdinak atera dira eredu publikoa eta gestio partekatuaren arteko ikuspegietan. Politiko batzuk azpimarratu dute, nahiz eta eredu partekatuaren aldeko apustua egin, logikoa dela eredu kontsultiboa ateratzea garaile, hain zuzen ere, interes orokorra atera behar delako irabazle. Gainera, horientzat denbora faktore garrantzitsua da eredu kontsultiboa indartuta ateratzeko. Beste politiko batzuk argitu nahi dute “publiko” hitzak administrazio sektorea bakarrik hartzen duen edo kontzeptu askoz zabalagoa den gizarte bateko herritarrak eta gizarte-eragileak bertan sartuz. Gainera politiko baten batek ere eredu publikoa ulertzen du herri ardura baten erantzule eta horregatik eredu publiko hori argi eta garbi bultzatzen bada ez da erabakia partekatu behar sektoreko gizarte-eragileekin. Politikoentzat eztabaida honen gakoa izan daiteke erantzukizun publikoa eta kudeaketa publikoaren artean desberdintzea. Bi esparru horiek ondo desberdintzen badira gero errazagoa izango da eragile sozial desberdinekin eredu partekatua aplikatzea, beti ere sektoreko eragileekin ikuspegi orokorretan sintonia politikoa badago. Bestela ezinezkoa izango litzateke.

Hirugarren multzoan Gizarte Politikako Departamentuak, gizarte zerbitzu publikoak emateko garaian, kudeaketa zuzenarekin batera kontzertatutako koprodukzioa erabiltzen duen aztertu da hirugarren sektorea/ekonomia soziala aintzakotzat hartuz. Ikusi denez, gizarte zerbitzuak emateko garaian departamentuko adituek zehaztugabetasun handia erakutsi dute. Ez dute jarrera argi bat azaldu gizarte zerbitzuak emateko tresna juridiko desberdinen inguruan. Hain zuzen ere adituen erdiek baino gehiagok ez dute posizio argirik hartu kontzertazioa, kontratazioa eta hitzarmenaren inguruan. Adituek argudiatu dute formatu perfekturik ez dagoela eta askotan zerbitzu jakin baten izaerak eta momentuko egoera zehatzak baldintzatu egiten duela kontzertazioa, kontratazioa edo hitzarmena aukeratzea. Baita ere, adituen batek azpimarratu du harreman juridikoaren formatuak baino garrantzi gehiago daukala helburuak eta zerbitzu katalogoa ondo finkatzea.

Politikoen eta teknikoen iritziak bakoitzak bere aldetik aztertzen direnean ere antzeko emaitzetara iristen dira. Hau da, gizarte zerbitzuak emateko garaian politikoek eta teknikoek ez dute ikuspegi argi bat kontzertazioa, kontratazioa eta hitzarmenari buruz.

Nahiz eta politiko eta teknikoen artean iritzi finko bat ez eduki zerbitzua emateko hiru ereduen artean teknikoek azpimarratzen dute azken urte hauetan hitzarmenaren aplikazioak arazoak eman dituela. Bereziki administrazio txarraren ondorioz hitzartutako erakundean galerak sortzen direnean eta gero oso zaila delako egoera hori gestionatzea. Gainera, hitzarmenak, definizioz (nik erakunde bezala nire kabuz sortutako zerbitzuak kudeatzen ditut eta zu Administrazioa diruz laguntzen didazu) talka egiten du administrazio publiko baten zereginarekin (Administrazioak zerbitzuen beharrak ondo finkatzea eta gero ikustea nor dagoen kanpoan prestatuta zerbitzu horiek emateko). Orduan, hitzarmenaren bidez kudeatzea ez da zuzena. Horregatik, teknikoentzat administrazio baten zereginak betetzeko eredurik egokiena kontzertazioa izango litzateke. Administrazioak definitzen du nahi duen mapa eta gero begiratzen du kanpoan zein den gai zehaztutako zerbitzu horiek emateko. Hala ere, Teknikoen esanetan kontzertazioaren eredu hori, hirugarren sektoreko entitateen presioagatik, ez da oraindik garatu. Dena dela, oso mesedegarria izango litzateke kontzertazioaren dekretua onartzea. Kontzertazio eredu hori era orokorrean ezagutzen da baino oraindik ez dakite praktikan nola funtzionatuko duen. Momentu horretan kontratua eta hitzarmena daude martxan eta teknikoak kontratuaren aldekoak dira hitzarmenak arazo asko ematen dielako. Gainera, teknikoen ustez, kontratuan Administrazioaren posizioa sendoagoa da. Hitzarmenean, berriz, bi aldeek indar bera dute. Foru Ogasunak esaten du zerbitzuak kontratu bidez egin behar direla, baino gero ez dago kontratu sistema espezifikorik gizarte zerbitzuentzat eta orduan hitzarmenaren bidez egiten dira, askotan zentzurik ez duenean. Bestalde, teknikoek diote gero eta zerbitzuak espezializatuagoak direla eta gero eta gehiago kostatzen dela hornitzaile egokiak aurkitzea, bereziki gaur egun Administrazioa sektorearen aurretik doalako. Lehen, erakundeak administrazioaren aurretik joaten ziren eta Administrazioa atzetik etortzen zen euren egitasmoak finantzatzera. Orain berriz, administrazioak aurre hartu die eta askotan kostatzen zaio hornitzaile egokiak aurkitzea zerbitzu espezializatu horiek emateko.

Politiko batzuen aldetik ezagupen falta ikusten da hiru tipologiaren artean benetako iritzia plazaratzeko. Bestalde, politikoen ustez, hitzarmena eta kontratazioaren arteko aukeraketak alde politikoa eta teknikoa du. Kontratuak berdintasun handiagoa bermatzen du baina hitzarmenak azkartasuna ematen dio Administrazioari. Gainera, politikoenentzat, hitzarmenak

gehiago erabiltzen dira elkarteekin eta kontratuak gehiago enpresekin. Politikoentzat helburu nagusia da aukeratzea erantzukizun publikoa eta kontrola bermatzen duen eredu. Politikoentzat, kalitatea bermatu behar bada, kontratua izan daiteke eredurik egokiena prozedura publikoa delako eta kompetentziaren bitartez eskaintza onenari emateko aukera dagoelako. Baina beti ere, lehiaketa horretan neurri batzuk hartzen badira, besteak beste, klausula sozialak aplikatuz eta eskaintza ekonomikoa eta teknikoa ondo baloratzeko bitartekoak jarritz. Bestetik, berriz, Administrazioak begi onez ikusten duen entitate zehatz bat bultzatu nahi badu, dinamika konkretu bat, gauzak egiteko modu bat, orduan, agian, hitzarmenak edo kontzertazioak ematen dio aukera gehiago. Kasu honetan ere neurriak hartuz erantzukizun publikoa eta kalitatea lortzeko. Horregatik, politikoen hausnarketa honetan, eredu zehatzari baino gehiago garrantzia eman behar zaio ipintzen diren kontrolei eta betebeharrei erantzukizun publikoa eta kalitatea bermatzeko.

Laugarren arloan berriz, Gizarte Politikako Departamentuak, gizarte zerbitzu publikoak emateko garaian, hirugarren sektorea/ekonomia sozialeko partaideak positiboki diskriminatzen dituen aztertu da. Adituen aldetik jarrera argia agertu da zerbitzu publikoak emateko unean hirugarren sektorea/ekonomia sozialeko partaideak positiboki diskriminatzearen alde. Bestalde, adituen gehiengo zabala, hirugarren sektorea/ekonomia soziala eta kooperatibak positiboki diskriminatzeko, klausula sozialen aldekoa da. Gainera, adituen gehiengoa hirugarren sektorea/ekonomia sozialeko partaideen artean bereziki kooperatibak diskriminatzearen alde dago. Hala ere iritzi desberdinak jasotzeko momentuan errepikatu den ideia bat da kooperatibaren izaera juridikoak ez duela berez bermatzen zerbitzuaren edukia, kalitatea eta izaera demokratikoa. Hau da, aditu batzuen ustez, izaera juridikoa baino lehen begiratu behar dela ea zerbitzua eta kalitatea egokia den. Hain zuzen ere, pentsatzen dutelako kooperatiba izateak ez duela ziurtatzen izaera soziala, gaitasun teknikoa, oinarri etikoa edo antolaketa demokratikoa. Bestalde, badaude Iritzi batzuk irabazi asmorik gabeko erakundeak lehenetsi behar direla azpimarratzen dutenak, kooperatiba izan edo ez izan.

Politikoen eta teknikoen arteko iritziak kontuan hartzen badira klausula sozialen aldeko jarrera aztertzerakoan antzekotasun handia ematen da bi esparruetan. Politikoen %87 eta

teknikoen %80 klausula sozialen alde agertzen dira, aditu guztien ehunekoen inguruan mantenduz. Bestalde, hirugarren sektorea/ekonomia sozialeko partaideen artean bereziki kooperatibak diskriminatu behar direla aipatzerakoan politikoen %75ek aldeko jarrera dute. Teknikoek, berriz, ez dute hain argi ikusten eta aldeko jarrera %40ra jaisten da. Era berean, politikoen eta teknikoen azpimarratzen dute kooperatiben izaera juridikoak ez duela bermatzen enpresaren izaera soziala.

Aipatu den moduan teknikoen klausula sozialen aldeko jarrera dute. Dena dela eztabaida nagusia da zer nolako klausula sozialak ipini behar diren eta zer nolako pisua eduki behar duten klausula sozial horiek puntuazio osoan. Teknikoentzat gaia kudeatzea zaila da. Departamentuan saiatu dira klausula sozialak garatzen. Hain zuzen ere Foru Aldundiak arau bat atera du. Bertan aipatzen da konkurtso guztietan gutxieneko %10 klausula sozialetara dedikatu behar dela. Gainera, Gizarte Politikako Departamentuak 2014an atera dituen konkurtso guztietan klausula sozialak aplikatu ditu, zehazki, berdintasun plana (%5) eta euskara plana (%5) edukitzea kontuan hartu ditu. Hau izan da abiapuntuko planteamendua.

Hemendik aurrera aztertu beharko da ea klausula sozialei puntuazio gehiago edo gutxiago eman behar zaien. Teknikoentzat, kooperatiba izateagatik ez luke puntu gehiago jaso behar. Tekniko baten lana ez da figura juridiko bat bultzatzea. Kooperatibak besteak bezalako enpresak dira eta azkenean eskaintza egokiena egiten duenari ematen zaio konkurtsoa. Departamentua eroslea da eta ez gizarte eraldatzailea. Teknikoentzat logikoagoa da klausula sozial horiekin berdintasuna, euskara edo kolektibo zehatzak bultzatzea (emakumeak, etorkinak, bazterketa jasaten duten pertsonak) eta ez kooperatibak bezalako enpresak. Gainera teknikoen iritziz, politikoen kudeaketa zuzenaren alde egin duten apustuarekin, kooperatibak laguntzeko erakusten ari diren jarrera kontraesankorra da. Hala ere, teknikoen aipatzen dute puntuaketa ipintzeko garaian kopuru zehatz batzuk daudela finkatuta eta horrek baldintzatu dezakeela klausula sozial horien pisua eta garapena.

Hasteko, Departamentuan %50 dedikatzen da eskaintza ekonomikoari. Gero gelditzen den %50etik %10 klausula sozialentzat erabiltzen bada eta beste %10 zentroetako mantenu planetarako orduan eskaintza teknikoarentzat %30 bakarrik geldituko da eta azken kantitate hori oso txikia izan daiteke prezio oso merkeak eskaintzen dituzten enpresak kanpoan

uzteko. Azken finean, teknikoentzat klausula sozialekin enpresa kooperatiba soilak bultzatu baino ekimen soziala orokorrean eta gertutasuna adierazten duten enpresak bultzatu beharko liriateke. Zerbitzua definitzeko eta emateko garaian bezeroa gero eta gertuago edukitzen bada eta gero eta konpromiso handiagoa erakusten badu orduan eta kalitate handiagoa emateko gai izango da. Enpresa horiek gero eta gertuago sentituko dira Administrazioarengandik eta oso ondo ezagutuko dute zein den Departamentuaren filosofia eta orduan konkurtso bat ateratzen denean gai izango dira irabazteko.

Politikoez azpimarratzen dute Foru Arau Berrian zuzenean ezin dela diskriminatu enpresaren figura juridikoaren arabera baino bai zeharka, besteak beste langileen parte hartzea enpresan, hurbiltasuna edo berdintasuna kontuan hartuz. Klabea izan daiteke proposamenaren "kalitate sozialari" heltzea.

Amaitzeko, bosgarren eta azken gogoetan, Gizarte Politikako Departamentuak, gizarte zerbitzu publikoak emateko garaian, kooperatibizazioa sustatzen duen espazio publikoa zabaltzeko ikertu da. Arlo honetan adituen artean zalantza asko eta iritzi kontrajarriak daudela esan daiteke. Laburbilduz azpimarratu behar da adituek ez daukatela argi gizarte zerbitzu publikoen kooperatibizazioa helburu integral bat izan daitekeenik. Baina bestalde ere, argi gelditu da kooperatibizazioa ezin dela erabili gizarte zerbitzu publikoen tokian tokiko adabaki moduan. Hala ere, adituen gehiengoek kooperatibizazioa aukera bat bezala ikusten dute.

Ikerketaren arabera gizarte zerbitzu publikoen kooperatibizazioari buruz iritzi kontrajarriak daude. Aditu batzuentzat, gizarte zerbitzu publikoen kooperatibizazioa espazio publikoa zabaltzeko bide bat da eta beste batzuentzat ez. Galdera beste era batetara eginda ere emaitzak errepikatu egiten dira. Batzuentzat gizarte zerbitzu publikoen kooperatibizazioa erantzukizuna pribatizatzen joateko bide bat da eta beste batzuentzat ez. Gainera, adituen herenak ez du posiziorik hartzen.

Bestalde adituen herenak bakarrik ikusten du kooperatibizazioa helburu integral bat bezala. Era berean, adituen %16ak bakarrik uste du gizarte zerbitzu publikoen kooperatibizazioa aldi baterako helburua dela publikazio integrala berreskuratu arte. Gainera, adituen % 16ek

ikusten dute gizarte zerbitzu publikoen kooperatibizazioa arazo puntualei bakarrik aurre egiteko tresna bezala. Aldiz, %69k kooperatibizazioa baztertu ezinezko aukera bat bezala ikusten dute.

Azkenik, Kooperatiba mota desberdinak aukeratzeko garaian nota hoberena “Gizartearen Intereserako Kooperatibak” ateratzen du (3,91). Gero, “Kooperatiba Mistoak”(3,33). Atzetik, “Onura Publikoko Kooperatiba”(3,18) dator. Eta azkenik, Kooperatiba Arrunta (2,17).

Politikoen eta teknikoek iritziak bakoitzak bere aldetik aztertzen direnean ere antzeko emaitza orokorrak lortzen dira. Hori bai, iritzi horiek banan bana aztertuta ñabardura desberdinak ateratzen dira.

Teknikoentzat kooperatibizazio prozesu batek ez luke izaera publikoa indartuko. Hau da, kanpoko enpresa batek ematen badu zerbitzua ez da publikoa izango. Erantzukizuna publikoa izango da baino hornikuntza pribatua. Gero beste gauza bat da nahiago izatea hornikuntza hori emateko irabazi asmorik gabeko enpresa bat, kooperatiba bat edo gertutasuna adierazten duen enpresa bat enpresa kapitalista arrunt bat baino. Azken finean orokorrean teknikoentzat kooperatibizazioa pribatizazio prozesu bat da. Are gehiago, kooperatiba edo sektorean azpitik sortutako elkarte baten artean elkarteak aukeratu lukete denboran zehar behar sozial batetik sortu delako. Tekniko batzuk apustua egiten dute zerbitzua zuzenean emateko. Gero horrek ere baditu bere alde negatiboak ere bai. Alde batetik, zerbitzua zuzenki emateko egitura egokiak edukitzea eskatzen du behar den ahalmen guztia edukitzeko, behar den balio erantsia sortzeko. Eta bestetik, langileak “funtzionario” bihurtzeko arriskua dago. Teknikoen ustez gaur egungo Diputazioak ez du kooperatibaren aldeko apustua egiten. Hain zuzen ere politikoei epe luzera prestazio zuzenaren aldeko apustua egin dutelako. Dena dela eurentzat prestazio zuzenaren aldeko apustu hori gaur egungo eredutik oso urruti dago eta Kabia Erakunde Autonomoarekin hasi da zehazten. Hala ere, teknikoek ikuspegitik, prestazio zuzenaren aldeko benetako apustua egiteko ibilbide argi bat finkatu ondoren egitura eta ekipo funtzional egokiak izendatu behar dira. Bestela, teorian egin nahi den apustu ideologiko hori gero praktikan ez da gauzatuko.

Politikoen artean, berriz, kooperatibizazioa urrats bat den eredu publiko edo eredu pribatuaren alde planteatu denean ez dira erantzun argiak jaso. Iritzi desberdinak eman dira hausnarketa anitzak eginez. Politiko batzuk azpimarratu dute kooperatibizazioa transizio momentu baterako elementu interesgarria izan daitekeela beti ere helburua sistema publiko integrala eraikitzea izanik. Beste batzuk azpimarratu dute publiko-pribatu eztabaida hori gainditu egin beharko litzatekeela azentua izaera sozialean jarriz. Baita ere hausnartu da batzuetan kooperatibak erabiltzen direla lan baldintzak kolokan jartzeko eta aldi berean bake soziala bermatzeko. Politikoen ere azpimarratzen dute bere garaian egon zen kultura kooperatiboa gaur egun nahiko ahul dagoela eta hasieratik ez bada kooperatibizazioa oso argi ikusten gero kultura falta horrek ez ditu gauzak errazten. Gainera, politikoen nabarmendu nahi dute kooperatibizazioa ezin dela dekretuz lortu. Kontzientziazio prozesu bat eman behar da kooperatibistak sortzeko eta ondoren kooperatibak eraikitzeko. Kooperatiba dimentsio txikiak eta adin aldetik kooperatibistak gazteak izateak lagundu egiten du kooperatiba-izpiritua zabaltzen. Administrazioaren jarraipenak eta laguntzak bultzatzen dezake kooperatibak sortzera. Beti ere gainditu egin beharko da lehiakortasunaren aldeko diskurtsoa lankidetzaren parametroetan lan egiteko.

Kooperatiba mota desberdinen artean politikoen mistoaren aldeko apustua egiten dute eta teknikoek berriz, kooperatiba mistoa azken postuan jartzen dute. Beste aukera guztiek ordena berdinean sailkatzen dituzte, hots, Gizarte Ekimeneko Kooperatiba, Onura Publikokoa eta Arrunta. Politikoen eztabaida nagusia da noren kontura zabaldu nahi den kooperatibizazioa, gestio zuzenaren kontura edo ekimen pribatuaren kontura. Zentzu horretan, politikoen eztabaida kooperatiben zabalkundeak ezin du gestio zuzena oztopatu. Horregatik, egoitza eta eguneko zentroetan kudeaketa zuzena zabaltzeko aukera bakarra 16 udal egoitza bereganatzea izan da eta testuinguru horretan ez da ikusi GSR Kooperatiba sartzea. Gainera, kooperatiba bat sartzea ulertu zitekeen ezkutuko pribatizazio bat ematea bezala. Politikoen ustetan beste esparru batzuetan, berriz, kudeaketa zuzena burutzeko paradarik ez dagoen tokian, aukera errealak daude kooperatibizazio prozesuak burutzeko, beti ere langileen lan kontratu desberdinen arteko tentsioak gainditzeko gai badira. Politikoen erantzukizun publikoari ematen diote lehentasun osoa. Eta irizpide orokor horren

barruan pentsatzen dute ekonomia soziala bultzatu behar dela, kooperatibizazioa barne, Administrazioak dituen tresna desberdinen bitartez, besteak beste, klausula sozialak erabiliz.

9. BIBLIOGRAFIA

Agintzari, (2013). *Transformación del modelo de provisión de servicios sociales de Gipuzkoa*. (2014ko urtarrilaren 15ean Gipuzkoako Foru Aldundiko Txarako gizarte zerbitzuetako bulegoetan egindako mintegian aurkeztua).

Aucoin, P. (1995). *The New Public Management: Canada in Comparative Perspective*. Montreal: Institute for Research on Public Policy.

Ayob, N., Teasdale, S., eta Fagan, K. (2016). How Social Innovation 'Came to Be': Tracing the Evolution of a Contested Concept. *Journal of Social Policy*, 45(4), 635-653.

Barea, J., eta Monzón, J.L. (1995). *Las Cuentas Satélite de la Economía Social en España: una primera aproximación*. Valencia: CIRIEC-España.

Barea, J., eta Monzón, J.L. (2007). *Manual para la elaboración de las cuentas satélite de las empresas de la Economía Social: Cooperativas y Mutuas*. Valencia: CIRIEC-España.

Benington, J., eta Moore, M.H. (Ed.). (2011). *Public Value. Theory and Practice*. New York: Palgrave Macmillan.

Bezes, P. (2009). *Réinventer l'Etat. Les réformes de l'administration française*. Paris: P.U.F.

Borzaga, C., eta Defourny, J. (Eds). (2004). *The emergence of social enterprise*. London: Routledge.

Bouchard, C. (1999). *Contribution à une politique de l'immatériel: recherche en sciences humaines et sociales et innovations sociales*. Québec: Conseil québécois de la recherche sociale, Groupe de travail sur l'innovation sociale.

Bouchard, M.J. (2006). De l'expérimentation à l'institutionnalisation positive, l'innovation sociale dans le logement communautaire au Québec. *Annales de l'économie publique, sociale et cooperative*, 77(2), 139-166.

Bouchard, M.J. (2007). *L'innovation sociale en économie sociale*. In J.-L. Klein eta D. Harrison (dir.), *L'innovation sociale, émergence et effets sur la transformation des sociétés*. Québec: Presses de l'Université du Québec.

Bouchard, M.J. (2013). *The Social Economy in Québec: a Laboratory of Social Innovation*. In M.J. Bouchard (Ed.), *Innovation and the Social Economy* (3-24 orr.). Toronto: University of Toronto Press.

Bouchard, M.J., eta B. Lévesque (2010). *Économie sociale et innovation: L'approche de la régulation, au coeur de la construction québécoise de l'économie sociale*. Montréal: CRISES and Chaire de recherche du Canada en économie sociale, nos. ET1103 eta R-2010-04.

Bovaird, T., eta Loeffler, E. (2012). *From engagement to co-production: how service users and communities contribute to public services*. In V. Pestoff, T. Brandsen and B. Verschuere (eds), *New Public Governance, The third Sector and Co-production* (35-60 orr.). London: Routledge.

Brandsen, T., eta Pestoff, V. (2006). Co-production, the third sector and the delivery of public services. *Public Management Review*, 8(4), 493-501.

Bronfrenbrenner, K. (2000). *The American Labor Movement and the Resurgence in Union Organizing*. Ithaca: Cornell University Press.

Brundtland, G.H. (1987). *Nuestro futuro común*. Informe de la Comisión Mundial sobre el Medio Ambiente y el Desarrollo. New York: Asamblea General de la ONU.

Brunsson, N. (1989). *The Organisation of Hypocrisy: Talk, Decisions and Actions in Organisations*. Chichester: John Wiley.

Callon, M., Larédo, P., eta Rabeharisoa, V. (1997). Que signifie innover dans les services. Une triple rupture avec le modèle de l'innovation industrielle. *La Recherche*, 295, 34-36.

Castells, M. (2004). *The power of Identity*. Madison: Wiley-Blackwell.

Chambon, J.-L., David, A., eta Devevey, J.M. (1982). *Les innovations sociales*. Paris: Presses Universitaires de France.

Chaves, R. (1997). Economía política de la economía social. Una visión de la literatura económica reciente. *CIRIEC-España, Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, 25, 141-162.

Chesbrough, H. (2003). *Open Innovation: The New Imperative for Creating and Profiting from Technology*. Cambridge, MA: Harvard Business Review Press.

Coraggio, J.L. (Ed.). (2009). *¿Qué es lo económico? Materiales para un debate necesario contra el fatalismo*. Buenos Aires: Ciccus.

Coraggio, J.L. (2012). *Las tres corrientes vigentes de pensamiento y acción dentro del campo de la Economía Social y Solidaria (ESS): Sus diferentes alcances*. http://www.socioeco.org/bdf/es/corpus_document/fiche-document-2124.html. orrialde elektronikotik 2017ko azaroaren 26an hartuta.

Coraggio, J.L. (2011). *Economía social y solidaria. El trabajo antes que el capital*. Quito: Abya Yala.

Dacheux, E., eta Goujon, D. (2011). *Principes d'économie solidaire*. Paris: Ellipses.

Dalkey, N., eta Helmer, O. (1963). An experimental application of the Delphi Method to the use of experts. *Management Science*, 9, 458-467.

Dancause, L., eta Morin, R. (2013). *Governance and the Associative Sector of the Social Economy: The partnership between the State and Civil Society in Question*. In M.J. Bouchard (Ed.), *Innovation and the Social Economy* (97-126 orr.). Toronto: University of Toronto Press.

Defourny, J., eta Nyssens, M. (2012). El enfoque EMES de la empresa social desde una perspectiva comparada. *CIRIEC-España, Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, 75, 7-34.

Drucker, P. (1987). Social Innovation: management's new dimension. *Long Range Planning*, 20(6), 29-34.

Dubet, F. (2004). *Les inégalités multipliées*. Paris: L'Aube.

Duñaiturria, S. (2007). *Influencia de la Filosofía contemporánea en el progreso de la humanidad: alternativa al neoliberalismo*. Bilbo: Erroteta.

Eme, B., eta Laville, J.-L. (Eds.). (1994). *Cohésion Sociale et emploi*. Paris: Desclée de Brower.

Enjolras, B. (2002). *L'économie solidaire et le marché*. Paris: L'Harmattan.

Enjolras, B. (2008). *Introduction*. In B. Enjolras, *Gouvernance et intérêt général dans les services sociaux et de santé* (pp. 11-22). Bruxelles : Peter Lang (Collection: Économie sociale & Économie publique/Social Economy & Public Economy).

Esping-Andersen, G. (1990). *The Three Worlds of Welfare Capitalism*. Princeton, US: Princeton University Press.

Etxezarreta, E., eta Bakaikoa, B. (2011). La participación de la economía social en el ámbito de la dependencia: una aproximación teórica. *CIRIEC-España, Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, 71, 25-48.

Etxezarreta, E. (2014). *Hacia fórmulas más participativas en la prestación de servicios sociales: análisis del contexto del debate*. (2014ko urtarrilaren 15ean GFAko Txarako gizarte zerbitzuetako bulegoetan egindako mintegian aurkeztua).

Etxezarreta, E., Zurbano, M., eta Bakaikoa, B. (2012). Pribatizazioa ala (auto)kudeaketa komunitarioa? Euskadiko gizarte-zerbitzuen izaera mistoa eztabaidagai. *Zerbitzuan*, 52, 42-62.

Etxezarreta, E., eta Morandeira, Jon (2012). Consideraciones conceptuales sobre la Economía Social a la luz de la Ley 5/2011. *Revista vasca de economía social/ Gizarte ekonomiaren euskal aldizkaria*, 8, 7-36.

Etxezarreta, E., Pérez de Mendiguren J.C., eta Morandeira, J. (2014). *Sobre el concepto de Economía Social y su proceso de consolidación*. In I. Bretos eta J.M. Pérez de Uralde, *Economía Social Vasca y Crisis Económica: Análisis de su evolución socioeconómica entre 2009 y 2013* (11-17 orr.). Donostia-San Sebastián: OVES.

Evers, A., eta Laville, J.-L. (eds.). (2004). *The Third Sector in Europe, Globalisation and Welfare*. Cheltenham, UK: Edward Elgar Publishing.

Evers, A., Ewert, B., eta Brandsen, T. (2014). Social innovations for social cohesion. Liege: EMES European Research Network. <http://hdl.handle.net/2066/127760>, 2018ko otsailaren 26an begiratua.

Fajardo, G. (2012). El fomento de la economía social en la legislación española. *REVESCO, Revista de Estudios Cooperativos*, 107, 58-97.

Fernández Durán, R. (1996). *Contra la Europa del Capital y la globalización económica*. Madrid: Talasa ediciones SL.

Fontan, J.-M., Klein J.-L., eta Tremblay, D.-G. (2005). *Innovation socio-territoriale et reconversion économique*. Paris : L'Harmattan.

Freeman, C. (1991). Innovation, change of techno-economic paradigm and biological analogies in economics. *Revue économique*, 2, 211-231.

Friedman, M. (2002). Capitalism and freedom, especial edition. Chicago: The University of Chicago Press.

Friedman, T.L. (2005). *The world is flat*. New York: Farrar, Straus, and Giroux.

Gallego, R., Subirats J., eta Gomá, R. (2003). Estado de Bienestar y Comunidades Autónomas. Madrid: Tecnos.

Gershuny, J. (1987), Technology, Social Innovation and the informal economy. *The Annals of the American Academy of Political and Social Science*, 493, 47-63.

Gizarte Ekonomiako Euskal Behatokia (2018). EAEko Kooperatibak eta Lan Sozietateak. Zifra orokorrak. <http://www.oves-geeb.com/eu/arlo-sozioekonomikoa/enplegua/zifra-orokorrak>, 2018ko ekainaren 10ean begiratua.

Haddock, S., eta Tornaghi, Ch. (2013). *A transversal reading of social innovation in European cities*. In F. Moulaert, D. MacCallum, A. Mehmood eta A. Hamdouch, *The International Handbook on Social Innovation* (264-273 orr.). Cheltenham, UK: Edward Elgard Publishing Limited.

Hall, P. (1993). Policy Paradigms, Social Learning and the State. The Case of Economic Policy Making in Britain. *Comparative Politics*, 25(3), 275-296.

Helmer, O. (1983). *Looking forward: a guide to future research*. Beverly Hills, CA: Sage.

Hernandez, S., Trudelle, C., eta Koci, S. (2013). *Les grands projets urbains à Montréal: que nous révèle l'activité conflictuelle?* In J.-L. Klein eta M. Roy, *Pour une nouvelle mondialisation, le défi d'innover* (292-308 orr.). Quebec: Presses de l'Université du Quebec.

Hillenkamp, I. (2016). *¿Innovar para sostenerse? Representaciones y prácticas de Economía Popular Solidaria en América Latina*. In C. Puig, *Economía Social y Solidaria: conceptos, prácticas y políticas públicas* (65-82 orr.). Bilbao: UPV-EHU, Hegoa.

Hoggan, F. (1909). The American negro and race blending. *The Sociological Review*, 2(4), 349-360.

Hood, C. (1991). A Public Management for all Seasons. *Public Administration*, 69(1), 3-19. <http://dx.doi.org/10.1111/j.1370-4788.2006.00301.x>

ImPRovE (2018). ImPRovE project: Poverty, Social Policy and Innovation. <http://improve-research.eu/>, 2018ko ekainaren 23an begiratua.

Itçaina, X. (2017). Ipar Euskal Herriko Gizarte Ekonomiaz. <http://www.oves-geeb.com/eu/noticias-eu/detalle-eu/ipar-euskal-herriko-gizarte-ekonomiaz-1011>, 2017ko azaroaren 25ean begiratua.

Jenson, J. (2015). Social Innovation: Redesigning the Welfare Diamond. In A. Nicholls, J. Simon, eta M. Gabriel (Eds.), *New Frontiers in Social Innovation Research* (89-106 orr.). Hampshire: Palgrave Macmillan.

Jurado, N. (2010). *Independencia, de reivindicación histórica a necesidad económica*. Tafalla, Nafarroa: Txalaparta argitaletxea.

Kaletsky, A. (2011). *Capitalism 4.0, the birth of a new economy*. London: Bloomsbury.

Keynes, J.M. (2006). *Teoría General de la ocupación, el interés y el dinero*. Madrid: S.L. Fondo de cultura económica de España.

Klein, J.-L. (2008). Territoire et Régulation. *Cahiers de recherche sociologique*, 45, 41-58.

Klein, J.L. (2013) *Introduction: social innovation at the crossroads between science, economy and society*. In F. Moulaert, D. MacCallum, A. Mehmood eta A. Hamdouch, *The International Handbook on Social Innovation* (9-12 orr.). Cheltenham, UK: Edward Elgard Publishing Limited.

Klein, J.-L., eta Harrison, D. (2010). *L'innovation sociale. Émergence et effets sur la transformation des sociétés*. Québec : Presses de l'Université du Québec.

Klein, J.-L., Tremblay, D.-G., eta Bussièrès D.-R. (2010). Social economy-based local initiatives and social innovation: A Montreal case study. *International Journal of Technology Management*, 51 (1), 121-138.

Klein, J.-L., Fontan, J.-M., Harrison, D., eta Lévesque, B. (2009). *L'innovation sociale au Québec: un système d'innovation fondé sur la concertation*. Montréal : Cahiers du CRISES, coll. "Études théoriques", n° ET0907.

Landeta, J. (1999). *El método Delphi: una técnica de previsión de futuro*. Ariel Social, Barcelona.

Laville, J.-L., eta Evers, A. (Eds.). (2004). *The third sector in Europe*. Cheltenham, UK/Northampton, MA, USA: Edward Elgar.

Laville, J.-L. (2013). *Économie sociale et solidaire, capitalisme et changement démocratique*. In D. Hiez eta E. Lavillunière (dir), *Vers une théorie de l'économie sociale et solidaire*, (17-32 orr.). Bilduma: Droit & économie sociale et solidaire. Paris: Editions Larcier.

Laville, J.-L. (2004). *El marco conceptual de la Economía social y solidaria*. In J.-L. Laville (Ed.), *Economía social y solidaria: Una visión europea* (1-25 orr.). Buenos Aires: Fundación OSDE - Universidad Nacional de General Sarmiento-Altamira.

Lévesque, B. (2003). Fonction de base et nouveau rôle des pouvoirs publics: vers un nouveau paradigme de l'État. *Annals of Public and Cooperative Economics*, 74 (4), 489-513.

Lévesque, B. (2004). *Les entreprises d'économie sociale, plus porteuses d'innovations sociales que les autres?* In *Le développement social au rythme de l'innovation* (51-72 orr.). Québec: Presses de l'Université du Québec et Fonds de recherche sur la société et la culture.

Lévesque, B. (2006). Le potentiel d'innovation et de transformation de l'économie sociale: quelques éléments de problématique. *Economie et Solidarités*, 37(2), 13-48.

Lévesque, B. (2011) Un monde qui se défait, un monde à reconstruire. *L'Action nationale*, 133, 157-184.

Lévesque, B. (2013). *Social innovation in governance and public management systems: toward a new paradigm?* In F. Moulaert, D. MacCallum, A. Mehmood eta A. Hamdouch, *The International Handbook on Social Innovation* (25-39 orr.). Cheltenham, UK: Edward Elgar Publishing Limited.

Lévesque, B., and Thiry, B. (2008). *Concurrence et partenariat, deux vecteurs de la reconfiguration des nouveaux régimes de la gouvernance des services sociaux et de santé*. In B. Enjolras (Dir.), *Gouvernance et intérêt général dans les services sociaux et de santé* (227-261 orr.). Bruxelles, Bern, Berlin, Frankfurt am Main, New York, Oxford, Wien: PIE Peter Lang Publishers.

Lévesque, B., eta Vaillancourt, Y. (1998). *Les services de proximité au Québec: De l'expérimentation à l'institutionnalisation*. Montréal: Université du Québec, Centre de recherche sur les innovations sociales, collection Recherche, n° 9812.

Lipietz, A. (1997). *Elegir la Audacia. Una alternativa para el siglo XXI*. Madrid: Editorial Trotta.

Martin Seco, J.F. (1992). *El Desequilibrio Europeo, en La izquierda y Europa. Una aproximación crítica al Tratado de Maastricht*. Madrid: Los libros de la Catarata.

Marx, K., eta Engels, F. (1968). *Manifiesto del Partido Comunista*. Pekin: Edit. Progrés.

Mendizabal, A. (2012). *Aproximación a la autogestión en la economía de mercado*. Saarbrücken: Editorial Académica Española.

Merino, S. (2014). *La prestación de servicios públicos a través de sociedades cooperativas*. (2014ko urtarrilaren 15ean GFAko Txarako gizarte-zerbitzuetako bulegoetan egindako mintegian aurkeztua).

Meyer, J., eta Rowan, B. (1997). Institutional Organizations: Formal Structure as Myth and Ceremony. *American Journal of Sociology*, 83, 340–363.

Montes, P. (1993). *La integración en Europa. Del plan de estabilidad a Maastricht*. Madrid: Editorial Trotta.

Monzón, J.-L. (2003). El cooperativismo en la historia de la literatura económica. *CIRIEC-España, Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, 44, 9-32.

Monzón, J.-L. (2006). Economía Social y conceptos afines: fronteras borrosas y ambigüedades conceptuales del Tercer Sector. *CIRIEC-España, Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, 56, 9-24.

Monzón, J.-L. (dir.). (2010). *Las grandes cifras de la Economía Social en España. Ámbito, entidades y cifras clave año 2008*. Valencia: CIRIEC.

Monzón, J.-L., eta Chaves, R. (2016). *Evolución reciente de la economía social en la Unión Europea*. Bruselas: Comité Económico y Social Europeo.

Monzón, J.-L., eta Chaves, R. (2012). *La Economía Social en la Unión Europea*. Bruselas: Comité Económico y Social Europeo.

Monzón, J.-L. (2016). La economía social en la literatura económica y en los hechos. 30 años del CIRIEC-España. *CIRIEC-España, Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, 88, 287-307.

Moulaert, F. (2009). *Social Innovation: Institutionally Embedded, Territorially (Re)Produce*. In D. MacCallum, F. Moulaert, J. Hillier eta S. Vicari Haddock (Eds.), *Social Innovation and Territorial Development* (11-24 orr.) Farnham (UK) and Burlington VT, US: Ashgate Publishing Limited.

Moulaert, F., MacCallum, D., eta Hillier, J. (2013). *Social innovation: intuition, precept, concept, theory and practice*. In F. Moulaert, D. MacCallum, A. Mehmood eta A. Hamdouch, *The International Handbook on Social Innovation* (13-24 orr.). Cheltenham, UK: Edward Elgard Publishing Limited.

Moulaert, F., MacCallum, D., Mehmood, A. eta Hamdouch, A. (Eds). (2013). *The International Handbook on Social Innovation*. Cheltenham, UK: Edward Elgard Publishing Limited.

Mumford, M.D. (2002). Social innovation: Ten cases from Benjamin Franklin. *Creativity Research Journal*, 14 (2), 253-266.

Novy, A. (2017) Transformative Social Innovation. *SRE - Discussion Papers*, 2017/05. Vienna: WU Vienna University of Economics and Business.

O'Flynn, J. (2007). From New Public Management to Public Value: Paradigmatic Change and Managerial Implications. *The Australian Journal of Public Administration*, 66 (3), 353-366.

Osborne, D., eta Gaebler, T. (1993). *Reinventing Government: How the Entrepreneurial Spirit is Transforming the Public Sector*. New York: Penguin.

Osborne, S.P. (2013). *Voluntary organizations and innovation in public services*. London: Routledge.

Peck, j. (2013). *Social Innovation... at the limits of neoliberalism*. In J.L. Klein eta M. Roy (Dir.), *Pour une nouvelle mondialisation, le défi d'innover* (11-29 orr.). Québec : Presses de l'Université du Québec.

Peck, J., eta Tickell, A. (2002). Neoliberalizing space. *Antipode*, 34(3), 380-404.

Peck, J., eta Theodore, N. (2010). Mobilizing policy: models, methods and mutations. *Geoforum*, 41(2), 195-208.

Peet, R. (1983). *Relations of production and the relocation of USA manufacturing since 1960*. Worcester: Clark University Press.

Pérez de Mendiguren, J.-C., eta Etxezarreta, E. (2015-II). Otros modelos de empresa en la economía solidaria: entre la retórica y la práctica. *Lan Harremanak Aldizkaria*, 33, 227-252.

Pérez de Mendiguren, J.-C., eta Etxezarreta, E. (2015). Sobre el concepto de economía social y solidaria: aproximaciones desde Europa y América Latina. *Revista de Economía Mundial*, 40, 123-144.

Pérez de Mendiguren, J.-C., Etxezarreta, E., eta Guridi, L. (2009): Economía Social, Empresa Social y Economía Solidaria: diferentes conceptos para un mismo debate. *Papeles de Economía Solidaria*, 1, 1-41.

Pérez De Uralde, J.-M. (2014). La inaplicación de la Ley de Economía Social en un contexto de crisis económica. Algunas interpretaciones y propuestas. *CIRIEC-España, Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, 81, 33-59.

Pestoff, V. (1999). *Beyond the Market and the State, Social Enterprises and Civil Democracy in a Welfare Society*. Aldershot, Brookfield, Singapore, Sydney eta Tokio: Ashgate & English Editions.

Pestoff, V. (2006). Citizens and co-production of welfare services. *Public Management Review*, 8(4), 503-519.

Pestoff, V., Osborne, S.-P., eta Brandsen, T. (2006). Patterns of co-production in public services: Some concluding thoughts. *Public Management Review*, 8(4), 591-595.

Pierre, J. (2000). *Debating Governance*. Oxford: Oxford University Press.

Pol, E. eta Ville, S. (2009). Social Innovation: Buzz word or enduring term? *The Journal of Socio-Economics*, 38(6), 878-885.

Polanyi, K. (1997). *La Gran Transformación*. Madrid: Ediciones de La Piqueta.

Pollitt, C., eta Dan, S. (2011). The impact of the New Public Management in Europe: A Meta-analysis. COCOPS Working Paper, 3. www.cocops.eu/publications/working-papers, 2017ko maiatzaren 13an begiratua.

Quarter, J., Mook, L., eta Armstrong, A. (2009). *Understanding the social economy: A Canadian perspective*. Toronto: University of Toronto Press.

Richez-Battesti, N., Petrella, F., eta Vallade, D. (2012). L'Innovation sociale, une notion aux usages pluriels: Quels enjeux et défis pour l'analyse? *Innovations*, 38, 15-36.

Rodhes, R.A.W. (1997). *Understanding Governance*. Buckingham: Open University Press.

Rodriguez Cabrero, G. (2008). L'Etat providence espagnol: pérennité, transformation et défis. *Travail et Emploi*, 115, 95-109.

Salamon, L. M., eta Sokolowsky, W. (2014) The Third Sector in Europe: towards a consensus conceptualization. *TSI Working Paper Series* nº 2. Seventh Framework Programme (grant agreement 613034), European Union, Brussels: Third Sector Impact.

Schumpeter, J. (2005). Development. *Journal of Economic Literature*, 43(1), 108-120.

Smith, A. (2011). *La riqueza de las naciones*. Madrid: Alianza Editorial.

Stoker, G. (2006). Public Value Management: A new narrative for networked Governance? *The American review of public administration*, 36(1), 41-56.

Tarde, G. (1899). *Social laws: an outline of sociology*. New York: Macmillan.

Tilly, C. (1984). *Social movements and national politics*. In C. Bright eta S. Harding (Dir.), *State-making and Social Movements* (297-317 orr.). Ann Arbor: University of Michigan Press.

Tourain, A. (2007). *Penser autrement*. Paris: Fayard.

TRANSIT (2018). Transformative Social Innovation theory. The TRANSIT Project. <http://www.transitsocialinnovation.eu/>, 2018ko ekainaren 23an begiratua.

Ugalde, I. (2017). Navarra Capital, información para las empresas. <http://navarracapital.es/navarra-unico-territorio-europeo-que-ha-incorporado-la-economia-social-a-su-s3/>, 2018ko ekainaren 10ean begiratua.

Unger, R.M. (2015). *Conclusion: the Task of the Social Innovation Movement*. In A. Nicolls, J. Simon, eta M. Gabriel (Eds), *New Frontiers in Social Innovation Research* (233-251 orr.). Hampshire: Palgrave Macmillan.

Vaillancourt, Y. (2009). Social economy in the co-construction of public policy. *Annals of Public and Cooperative Economics*, 80(2), 275-313.

Vaillancourt, Y. (2013). *The Co-construction of Public Policy: The contribution of the Social Economy*. In M.-J. Bouchard (Ed.), *Innovation and the Social Economy* (127-157 orr.). Toronto: University of Toronto Press.

Vainer, C. (2013). *Lieu, région, nation, monde, luttes populaires et échelles d'actions. L'expérience du mouvement des affectés par les barrages, Brésil*. In J.L. Klein eta M. Roy, *Pour une nouvelle mondialisation, le défi d'innover* (275-289 orr.). Quebec: Presses de l'Université du Quebec.

Van de Walle, S., eta Hammerschmid, G. (2011). Coordinating for Cohesion in the Public Sector of the future. *COCOPS Working Paper*, nº1. www.cocops.eu/publications/working-papers, 2017ko maiatzaren 13an begiratua.

Verhoest, K., Verschuere, B., eta Brouckaert, G. (2007). Pressure Legitimacy and Innovative Behavior by Public Organizations. *Governance: An International Journal of Policy, Administration and Institutions*, 20(3), 469-497.

Vienney, C. (1980). *Socio-économie des organisations coopératives*. Paris: C.I.E.M.

Von Hippel, E. (2005). Democratizing Innovation: The Evolving Phenomenon of user innovation. *Journal für Betriebswirtschaft*, 55, 63-78.

Vries, J. (2010). Is New Public Management Really Dead? *OECD Journal on Budgeting*, 1, 1-5.

Weber, M. (1965). *Essais sur la théorie de la science*. Paris: Plon (édition originale: 1904-1917).

Weber, M. (1947). *The Theory of Social and Economic Organization*. New York: Oxford University Press.

Wood, C. (1995). The New Public Management in the 1980s: variations on a theme. *Accounting Organizations and Society*, 20(2/3), 93-109.

Zurbano, M. (1998). *Munduko Ekonomia*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.

Zurbano, M. (2010). *Munduko Ekonomiaren Globalizazioa*. In M. Zurbano (koord.), *Ekonomia Globala, Gizarte Globalerako Oinarri Berriak* (43-76 orr.). Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.

10. TAULA ETA GRAFIKOEN AURKIBIDEA

10.1. Taulak

2.1.1 Taula: Berrikuntza Sozial kontzeptuaren bilakaera.....	72
2.1.2 Taula: Berrikuntza Sozialaren hiru proposamen zehatz.....	73
2.2.1 Taula : Berrikuntza Sozialera gerturatzeko hiru ikuspegi.....	77
2.2.2 Taula: Berrikuntza Sozial mota desberdinak.....	79
2.2.3 Taula: Berrikuntza Sozialaren kontzepzio desberdinak.....	82
2.2.4 Taula: Berrikuntza Soziala kokatzeko aldagaiak.....	85
2.6.1 Taula: Gatazkak ulertzeko modu desberdinak.....	103
2.7.1 Taula: Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen giltzarri nagusiak.....	109
3.1.4.1.1 Taula: "Ekonomia sozialaren kontzeptuaren nazio-onarpena EBn"	121
3.3.1 Taula: Ekonomia sozialaren sailkapena.....	137
3.4.1 Taula: Ekonomia Sozial Eraldatzailearen giltzarri nagusiak.....	142
4.6.1 Taula: Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen Gobernantzaren giltzarri nagusiak.....	183
6.2.6.1 Taula: Delphi prozesuaren iraupena.....	227
6.2.6.2 Taula: Gerturatze maila aldagai kuantitatiboetan.....	229
7.1.1 Taula: Adituen gaur egungo ardurak.....	235
7.1.2.1 Taula: Eredurik egokiena eredu publiko soila.....	237
7.1.2.2 Taula: Batez bes. eta desbid. tipikoa; eredu publiko soila egokiena.....	238
7.1.2.3 Taula: Gerturatze maila; eredurik egokiena eredu publiko soila.....	238
7.1.3.1 Taula: Eredurik egokiena eredu kontzertatua.....	241
7.1.3.2 Taula: Batez best. eta desbid. tipikoa; eredu kontzertatua egokiena.....	242
7.1.3.3 Taula: Gerturatze maila; eredurik egokiena eredu kontzertatua.....	242
7.1.4.1 Taula: Eredurik egokiena eredu pribatu soila.....	245
7.1.4.2 Taula: Batez bestekoa eta desb. tipikoa; eredu pribatua egokiena.....	246
7.1.4.3 Taula: Gerturatze maila;eredurik egokiena eredu pribatua.....	246
7.1.6.1 Taula: Diseinuan, hirugarren sektorea era informatiboan.....	263
7.1.6.2 Taula: Batez bes. eta desb. tipikoa; hirug. sektorea era informatiboan.....	264
7.1.6.3 Taula: Gerturatze maila; hirugarren sektorea era informatiboan.....	264
7.1.7.1 Taula: Diseinuan, hirugarren sektorea era kontsultiboan bakarrik.....	267

7.1.7.2 Taula: Batez bes. eta desb. tipikoa; hirug. sektorea era kontsultiboan.....	268
7.1.7.3 Taula: Gerturatze maila; hirug. sektorea era kontsultiboan bakarrik.....	268
7.1.8.1 Taula: Diseinuan, hirug. sektorearekin erabakiak modu partekatuan.....	271
7.1.8.2 Taula: Batez bes. eta des. tipikoa; hirug. Sektor. modu partekatuan.....	272
7.1.8.3 Taula: Gerturatze maila; hirug. sektorearekin modu partekatuan.....	272
7.1.10.1 Taula: Ematerako garaian, kontzertazioa eredurik egokiena.....	283
7.1.10.2 Taula: Batez bes. eta des. tipikoa; kontzertazioa egokiena.....	284
7.1.10.3 Taula: Gerturatze maila; kontzertazioa eredurik egokiena.....	284
7.1.11.1 Taula: Ematerako garaian, kontratazioa eredurik egokiena.....	287
7.1.11.2 Taula: Batez bes. eta desb. tipikoa; kontratazioa egokiena.....	288
7.1.11.3 Taula: Gerturatze maila; kontratazioa egokiena.....	288
7.1.12.1 Taula: Ematerako garaian, hitzarmena eredurik egokiena.....	291
7.1.12.2 Taula: Batez bes. eta des. tipikoa; hitzarmena egokiena.....	292
7.1.12.3 Taula: Gerturatze maila; hitzarmena eredurik egokiena.....	292
7.1.14.1 Taula: Ematerako garaian hirug. sektorea positiboki diskriminatu.....	305
7.1.14.2 Taula: Batez best. eta des. tipik.; hirug. Sekt. positiboki diskriminatu.....	306
7.1.14.3 Taula: Gerturatze maila; hirug. sektorea positiboki diskriminatu.....	306
7.1.15.1 Taula: Klausula sozialak garrantzitsuak.....	309
7.1.15.2 Taula: Batez bes. eta desb. tipikoa; klausula sozialak garrantzitsuak.....	310
7.1.15.3 Taula: Gerturatze maila; klausula sozialak garrantzitsuak.....	310
7.1.16.1 Taula: Bereziki kooperatibak diskriminatu.....	313
7.1.16.2 Taula: Batez best. eta de. tipikoa; bereziki kooperatibak diskriminatu.....	314
7.1.16.3 Taula: Gerturatze maila; bereziki kooperatibak diskriminatu.....	314
7.1.18.1 Taula: Kooperatibizazioa espazio publikoa zabaltzeko.....	325
7.1.18.2 Taula: Batez bes eta de. tipi.; kooperatib. espazio publikoa zabaltzeko.....	326
7.1.18.3 Taula: Gerturatze maila; kooperatib. espazio publikoa zabaltzeko.....	326
7.1.19.1 Taula: Kooperatibizazioa erantzukizun publikoa indartu.....	329
7.1.19.2 Taula: Batez bes. eta des. tipi.; kooperatib. erantzun publikoa indartu.....	330
7.1.19.3 Taula: Gerturatze maila; kooperatib. erantzukizun publikoa indartu.....	330

7.1.20.1 Taula: Kooperatibizazioa erantzukizuna pribatizatzeko bidea.....	333
7.1.20.2 Taula: Batez bes. eta des. tipi.; kooperatib. erantzuna pribatizatzeko.....	334
7.1.20.3 Taula: Gerturatze maila; kooperatib. erantzukizuna pribatizatzeko.....	334
7.1.21.1 Taula: Kooperatibizazioa helburu integral bat.....	337
7.1.21.2 Taula: Batez bes. eta desb. tipikoa; kooperatib. helburu integral bat.....	338
7.1.21.3 Taula: Gerturatze maila; kooperatibizazioa helburu integral bat.....	338
7.1.22.1 Taula: Kooperatibizazioa aldi baterako helburu bat.....	341
7.1.22.2 Taula: Batez bes. eta des. tipikoa; kooperatib. aldi baterako helburua.....	342
7.1.22.3 Taula: Gerturatze maila; kooperatibizazioa aldi baterako helburu bat.....	342
7.1.23.1 Taula: Kooperatibizazioa arazo puntualei bakarrik aurre egiteko.....	345
7.1.23.2 Taula: Batez bes. eta desb. tip.; kooperatib. arazo puntualentzat	346
7.1.23.3 Taula: Gerturatze maila; kooperatibizazioa arazo puntualentzat.....	346
7.1.24.1 Taula: Kooperatibizazioa ez da inolaz ere aukera bat.....	349
7.1.24.2 Taula: Batez bes. eta desb. tipikoa; kooperatibizazioa aukera ez.....	350
7.1.24.3 Taula: Gerturatze maila; kooperatibizazioa ez da aukera bat.....	350
7.1.25.1 Taula: Kooperatiba mota desberdinen balorazioa.....	353
7.1.25.2.1 Taula: Batez bestekoa eta desb. tipikoa; kooperatiba arrunta.....	354
7.1.25.2.2 Taula: Batez bes. eta desb. tipikoa; Onura Publikoko Kooperatiba.....	354
7.1.25.2.3 Taula: Batez bes. eta desb. tipi.; Gizarte-ekimeneko Kooperatiba.....	354
7.1.25.2.4 Taula: Batez bestekoa eta desb. tipikoa; Kooperatiba Mistoa.....	355
7.1.25.3.1 Taula: Gerturatze maila; Kooperatiba Arrunta.....	355
7.1.25.3.2 Taula: Gerturatze maila; Onura Publikoko Kooperatiba.....	355
7.1.25.3.3 Taula: Gerturatze maila; Gizarte-ekimeneko Kooperatiba.....	356
7.1.25.3.4 Taula: Gerturatze maila; Kooperatiba Mistoa.....	356

10.2 Grafikoak

2.1.1 Grafikoa: Berrikuntza Sozialaren prozesua pausoz pauso.....	74
7.1.1 Grafikoa: Adituen gaur egungo ardurak.....	235
7.1.2.1 Grafikoa: Eredurik egokiena eredu publiko soila.....	237
7.1.2.2 Grafikoa: Politikoak eta teknikoak; eredu publiko soila egokiena.....	239
7.1.3.1 Grafikoa: Eredurik egokiena eredu kontzertatua.....	241
7.1.3.2 Grafikoa: Politikoak eta teknikoak; eredu kontzertatua egokiena.....	243
7.1.4.1 Grafikoa: Eredurik egokiena eredu pribatu soila.....	245
7.1.4.2 Grafikoa: Politikoak eta teknikoak; eredu pribatua egokiena.....	247
7.1.6.1 Grafikoa: Diseinuan, hirugarren sektorea era informatiboan.....	263
7.1.6.2 Grafikoa: Politikoak eta teknikoak; hirug. sektorea era informatiboan.....	265
7.1.7.1 Grafikoa: Diseinuan, hirugarren sektorea era kontsultiboan bakarrik.....	267
7.1.7.2 Grafikoa: Politikoak eta teknikoak; hirug. sektorea era kontsultiboan	269
7.1.8.1 Grafikoa: Diseinuan, hirug. sektorearekin erabakiak modu partekatuan.....	271
7.1.8.2 Grafikoa: Politikoak eta teknikoak; hirug. sektorea modu partekatuan.....	273
7.1.10.1 Grafikoa: Ematerako garaian, kontzertazioa eredurik egokiena.....	283
7.1.10.2 Grafikoa: Politikoak eta teknikoak; kontzertazioa eredurik egokiena.....	285
7.1.11.1 Grafikoa: Ematerako garaian, kontratazioa eredurik egokiena.....	287
7.1.11.2 Grafikoa: Politikoak eta teknikoak; kontratazioa eredurik egokiena.....	289
7.1.12.1 Grafikoa: Ematerako garaian, hitzarmena eredurik egokiena.....	291
7.1.12.2 Grafikoa: Politikoak eta teknikoak; hitzarmena eredurik egokiena.....	293
7.1.14.1 Grafikoa: Ematerako garaian hirug. sektorea positiboki diskriminatu.....	305
7.1.14.2 Grafikoa: Politikoak eta teknikoak; hirug. sekt. positib. Diskriminatu.....	307
7.1.15.1 Grafikoa: Klausula sozialak garrantzitsuak.....	309
7.1.15.2 Grafikoa: Politikoak eta teknikoak; klausula sozialak garrantzitsuak.....	311
7.1.16.1 Grafikoa: Bereziki kooperatibak diskriminatu.....	313
7.1.16.2 Grafikoa: Politikoak eta teknikoak; kooperatibak diskriminatu.....	315
7.1.18.1 Grafikoa: Kooperatibizazioa espazio publikoa zabaltzeko.....	325
7.1.18.2 Grafikoa: Politikoak eta teknikoak; kooperatibi. esp. publikoa zabaldu.....	327

7.1.19.1 Grafikoa: Kooperatibizazioa erantzukizun publikoa indartu.....	329
7.1.19.2 Grafikoa: Politikoak eta teknikoak; kooperatibi. eran. publikoa indartu	331
7.1.20.1 Grafikoa: Kooperatibizazioa erantzukizuna pribatizatzeko bidea.....	333
7.1.20.2 Grafikoa: Politikoak eta teknikoak; kooperatibi. erantzuna pribatizatu.....	335
7.1.21.1 Grafikoa: Kooperatibizazioa helburu integral bat.....	337
7.1.21.2 Grafikoa: Politikoak eta teknikoak; kooperatibizazioa helburu integrala.....	339
7.1.22.1 Grafikoa: Kooperatibizazioa aldi baterako helburu bat.....	341
7.1.22.2 Grafikoa: Politikoak eta teknikoak; kooperatib. aldi baterako helburua.....	343
7.1.23.1 Grafikoa: Kooperatibizazioa arazo puntualei bakarrik aurre egiteko.....	345
7.1.23.2 Grafikoa: Politikoak eta teknikoak; kooperatib. arazo puntualentzat.....	347
7.1.24.1 Grafikoa: Kooperatibizazioa ez da inolaz ere aukera bat.....	349
7.1.24.2 Grafikoa: Politikoak eta teknikoak; kooperatib. ez da aukera bat.....	351
7.1.25.1 Grafikoa: Kooperatiba mota desberdinen balorazioa.....	353
7.1.25.2 Grafikoak: Politikoak eta teknikoak; kooperatiba mota desberdinak.....	357

11. WEB ORRIAK

American way of life: https://historiaybiografias.com/el_mundo07b/

Amsterdameko Tratatua: <http://www.europarl.europa.eu/topics/treaty/pdf/amst-es.pdf>

Andere Nahia: <http://www.anderenahia.asso.fr/>

ANEL: <http://www.anel.es/>

Arrapitz: <http://www.argia.eus/argia-astekaria/1760/arrapitz-federazioa>

Ashoka Elkartea: <https://www.ashoka.org/es>

ASLE: <http://asle.es/>

Atzeraldi Handia: <http://www.argia.eus/argia-astekaria/2532/erantzuna-historia-ekonomikoari-galdetu>

Bergizarteratze Zentroak Nafarroa:

http://www.centrosdeinsercion.org/centrosdeinsercion/Centros_de_Insercion_Navarra.html

Bretton Woodseko akordioa:

https://elpais.com/economia/2008/11/15/actualidad/1226737974_850215.html

CEPES: <http://www.cepes.es/>

CEPES Nafarroa: <http://www.cepesnavarra.org/>

COCETA: <http://www.coceta.coop/>

CONFESAL: <https://www.confesal.org/WEB/index.php>

CSCE-EKGK: <http://www.csce-ekgk.coop/es/>

Master Economía Social y Solidaria:

<https://www.ehu.eus/es/web/economiasocialysolidaria/aurkezpena>

EGES: <https://www.eges.eus/es-eges>

EHLABE: <http://www.ehlabe.org>

Ekonomia eta Diru Batasuna (EDB): https://ec.europa.eu/info/business-economy-euro/economic-and-fiscal-policy-coordination/economic-and-monetary-union/what-economic-and-monetary-union-emu_en

ELB: <http://www.euskonews.com/0492zkb/ebooks49204eu.html>

ELGA: <http://www.oecd.org/about/>

Erromako Tratatua: <http://eur-lex.europa.eu/legal-content/EN/TXT/?uri=LEGISSUM%3Axy0023>

Europako Akta Bakarra: <http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=LEGISSUM%3Axy0027>

Europako Industrialarien Mahai Borobila (EIMB): <https://www.ert.eu/>

Europar Batasuna: https://europa.eu/european-union/index_es

Europar Batasunaren historia Laburra: https://europa.eu/european-union/about-eu/history_es

Europar Estrategia 2020: https://ec.europa.eu/info/business-economy-euro/economic-and-fiscal-policy-coordination/eu-economic-governance-monitoring-prevention-correction/european-semester/framework/europe-2020-strategy_es

Filadelfiako Aldarrikapena: <http://www.ilo.org/legacy/spanish/inwork/cb-policy-guide/declaraciondefiladelfia1944.pdf>

Fordismoa: <https://definicion.de/fordismo/>

GEZKI: <http://www.gezki.eus>

Gizatea: <http://www.gizatea.net/>

Hagako Programa: <http://www.acnur.org/t3/fileadmin/Documentos/BDL/2009/7286.pdf?view=1>

Hemen-herrikoa: <http://hemen-herrikoa.org/>

Inbertsio Fondoak: <http://www.fondosdeinversion.es/fondos-inversion-renta-fija/>

Instituto de Estudios Cooperativos, Deusto:
<http://derecho.deusto.es/cs/Satellite/derecho/es/instituto-de-estudios-cooperativos-0>

KONFEKOOP: <https://www.konfekoop.coop/?idioma=es>

Laborantxa Iraunkorraren Mugimendua: <http://www.eitelkartea.com/dokumentuak/berco.pdf>

Laissez Faire: http://www.eco-finanzas.com/diccionario/L/LAISSEZ_FAIRE.htm

Lan Berri: <https://www.lexpress.fr/emploi/formation/detail-organisme.html?id=29812>

LANE: <http://www.onu.cl/onu/sample-page/agencias-fondos-y-programas/oit/>

LANKI: <http://www.mondragon.edu/eu/huhezi/ikerketa/ikerketa-taldeak/lanki>

Lisboako Estrategia: http://www.europarl.europa.eu/summits/lis1_es.htm

Maastrichteko Tratatua: https://europa.eu/european-union/sites/europa.eu/files/docs/body/treaty_on_european_union_en.pdf

Master Economía Social y Solidaria:
<https://www.ehu.es/es/web/economiasocialsolidaria/aurkezpena>

Munduko Bankua: <http://www.bancomundial.org/>

Munduko Merkataritza Erakundea: <https://www.wto.org/indexsp.htm>

Nazioarteko Moneta Funtza: <http://www.imf.org/external/spanish/>

Nekazaritza Politika Bateratuaren historia: https://ec.europa.eu/agriculture/cap-overview/history_es

New Deal Akordioa: https://web.stanford.edu/class/e297c/poverty_prejudice/soc_sec/hgreat.htm

Nizako Tratatua: http://www.europarl.europa.eu/ftu/pdf/es/FTU_1.1.4.pdf

OVES-EGES: <http://www.oves-geeb.com/eu/behatokia/nortzuk-gara>

Partzuer: http://www.euskonews.com/0664zbk/elkar_eu.html

Petrolioaren krisia (1973): <http://www.hiru.eus/historia/la-crisis-del-petroleo>

Plan Integral de Economía Social, Nafarroa:

http://www.gobiernoabierto.navarra.es/sites/default/files/plan_integral_de_economia_social_v6.pdf

Pôle Territorial de Coopération Économique:

https://www.economie.gouv.fr/files/files/PDF/20150421_dossier_de_presse_ptce.pdf

REAS, Nafarroa: <http://www.economiasolidaria.org/reasnavarra>

Tampereko Europar Kontseilua: http://www.europarl.europa.eu/summits/tam_es.htm

Thatcherismoa: <http://www.elmundo.es/elmundo/2013/04/08/economia/1365430449.html>

UCAN: <http://ucan.es/>

UNESCO: <https://es.unesco.org/>

Washingtongo Akordioa: <http://economipedia.com/historia/consenso-de-washington.html>

12. ERANSKINAK

12.1 Eranskina 1: Delphi prozesuan parte hartzeko Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuko Zerbitzburuei bidalitako eskutitza



Jaun agurgarria,

Nire izena Eusebio Lasa Altuna da eta GEZKI Institutuak eta Euskal Herriko Unibertsitateak antolatzen duen Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Masterra egiten ari naiz Donostian. Era berean EHUko irakaslea naiz, Ekonomia Aplikatua I departamentuan. Nire Masterreko Tesinaren helburua da jakitea ea Gipuzkoako Diputazioak, Gizarte Zerbitzuen politika publikoak demokratizatzeko bidean, bat egiten duen kooperatibizazio prozesuarekin.

Zu, Gipuzkoako Diputazioko Gizarte Politikako Zerbitzburua zarenez, ikerketarako hautatua izan zara.

Ikerketa hau egiteko Delphi Metodoa erabiliko dut. Hau dela eta zure betebeharrak bakarrik **datozen egunetan inkesta berdina bi aldiz on-line gai honi buruz betetzea izango da.** Aukeratu ditugun adituak bi aldiz kontsultatuak izango zarete galdetegi berdinari buruz. Era horretara bigarren galdetegia bete baino lehen zuen eskuetan edukiko dituzue zeintzuk diren lehen bueltan adituek eman dituzuen iritzi nagusiak atal bakoitzari buruz. Benetan estimatuko nizuke inkesta honen atal ezberdinak betetzeko prestutasuna azalduko bazenu.

Galdetegia motza eta erraza da erantzuten, minutu gutxi batzuk baino ez dituzu behar izango osorik erantzuten (20'), eta internet bidez erantzun ahal izateak are erraztasun handiagoak ematen dituela deritzogu. Esan beharrik ez dago inkestaren izaera **gutziz konfidentziala dela,** eta ez direla inola ere arduradun bakoitzak azalduko iritziak publiko egingo. Halaber, zure erakundeak inkesta honetan lorturiko emaitzak jasotzeko interesik izango balu, zalantzarik gabe gurekin harremanetan jartzeko gonbitea luzatuko genizuke.

Mila esker zure laguntzarengatik. Jaso ezazu gure agurrik beroena.

Donostia, 2014ko martxoaren 3a

Eusebio Lasa Altuna

Enekoitz Etxezarreta Etxarri

TESINA EGILEA

TESINA ZUZENDARIA

12.2 Eranskina 2: Delphi prozesuan parte hartzeko Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuko Zuzendariei bidalitako eskutitza



Jaun/andere agurgarria,

Nire izena Eusebio Lasa Altuna da eta GEZKI Institutuak eta Euskal Herriko Unibertsitateak antolatzen duen Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Masterra egiten ari naiz Donostian. Era berean EHUko irakaslea naiz, Ekonomia Aplikatua I departamentuan. Nire Masterreko Tesinaren helburua da jakitea ea Gipuzkoako Diputazioak, Gizarte Zerbitzuen politika publikoak demokratizatzeko bidean, bat egiten duen kooperatibizazio prozesuarekin.

Zu, Gipuzkoako Diputazioko Gizarte Politikako zuzendaria zarenez eta Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Kooperatibizazio prozesuari buruz Gipuzkoako Diputazioak, GEZKIk eta Agintzari Kooperatibak urtarrilaren 15ean antolatu zuten hausnarketa jardunaldian parte hartu zenuenez, ikerketarako hautatua izan zara.

Ikerketa hau egiteko Delphi Metodoa erabiliko dut. Hau dela eta zure betebeharrak bakarrik **datozen egunetan inkesta berdina bi aldiz on-line gai honi buruz betetzea izango da.** Aukeratu ditugun adituak bi aldiz kontsultatuak izango zarete galdetegi berdinari buruz. Era horretara bigarren galdetegia bete baino lehen zuen eskuetan edukiko dituzue zeintzuk diren lehen bueltan adituek eman dituzuen iritzi nagusiak atal bakoitzari buruz. Benetan estimatuko nizuke inkesta honen atal ezberdinak betetzeko prestutasuna azalduko bazenu.

Galdetegia motza eta erraza da erantzuten, minutu gutxi batzuk baino ez dituzu behar izango osorik erantzuten (20'), eta internet bidez erantzun ahal izateak are erraztasun handiagoak ematen dituela deritzogu. Esan beharrik ez dago inkestaren izaera **guztiz konfidentziala dela,** eta ez direla inola ere arduradun bakoitzak azalduko iritziak publiko egingo. Halaber, zure erakundeak inkesta honetan lorturiko emaitzak jasotzeko interesik izango balu, zalantzarik gabe gurekin harremanetan jartzeko gonbitea luzatuko genizuke.

Mila esker zuen laguntzarengatik. Jaso ezazu gure agurrik beroena.

Donostia, 2014ko martxoaren 3a

Eusebio Lasa Altuna

Enekoitz Etxezarreta Etxarri

TESINA EGILEA

TESINA ZUZENDARIA

12.3 Eranskina 3: Adituei bidalitako lehen txandako aurkezpen eskutitza eta galdeketa (2014-03-05)

GIPUZKOAKO GIZARTE ZERBITZUEN POLITIKA PUBLIKOAK ETA KOOPERATIBIZAZIOA

Zure aurrean duzun galdeketa hau Eusebio Lasa Altunaren Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia Sozial eta Solidarioko Masterraren ikerketa burutzeko da.

Orain dela egun batzuk jaso zenuen aurkezpen kartan azaltzen nizun moduan nire ikerketaren helburua da jakitea ea Gipuzkoako Diputazioak, Gizarte Zerbitzuen politika publikoak demokratizatze bidean, bat egiten duen kooperatibizazio prozesuarekin.

Zu, Gipuzkoako Diputazioko Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria zarenez eta Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Kooperatibizazio prozesuari buruz Gipuzkoako Diputazioak, GEZKIk eta Agintzari Kooperatibak urtarrilaren 15ean antolatu zuten hausnarketa jardunaldian parte hartu zenuenez, ikerketarako hautatua izan zara.

Eskuartearen duzun inkesta hau motza eta erraza da erantzuten, minutu gutxi batzuk baino ez dituzu behar izango osorik erantzuten (20'). Aldi berean, eskertuko nizuke lehen bai lehen erantzungo bazenidan.

Lehen galdetegi honetan jasotako erantzun guztiak prozesatu ondoren atal bakoitzari buruzko joera nagusiak aterako ditut eta bidaliko dizkizuet kontuan har ditzazuen inkesta berdina bigarren itzulian bete baino lehen.

Esan beharrik ez dago inkestaren izaera **guztiz konfidentziala dela**, eta ez direla inola ere arduradun bakoitzak azalduko iritziak publiko egingo. Halaber, zure erakundeak inkesta honetan lorturiko emaitzak jasotzeko interesik izango balu, zalantzarik gabe gurekin harremanetan jartzeko gonbitea luzatuko genizuke.

Mila esker zure laguntzarengatik

Eusebio Lasa Altuna

Eusebio.lasa@ehu.es

1. ATALA: EREDU EGOKIENA GIZARTE ZERBITZUAK EMATEKO

Atal honetako galdeketaren helburua da ikustea zein den aditu bakoitzarentzat eredurik egokiena Gipuzkoan Gizarte Zerbitzuak emateko.

1.-Ados al zaude eredu publiko soila dela eredurik egokiena Gipuzkoan Gizarte Zerbitzuak emateko? (1 izanik Desadostasun Osoa eta 5 izanik Adostasun Osoa)

Desadostasun osoa 1 2 3 4 5 Adostasun osoa

2.-Ados al zaude eredu kontzertatua dela eredurik egokiena Gipuzkoan Gizarte Zerbitzuak emateko? (1 izanik Desadostasun Osoa eta 5 izanik Adostasun Osoa)

Desadostasun osoa 1 2 3 4 5 Adostasun osoa

3.-Ados al zaude eredu pribatu soila dela eredurik egokiena Gipuzkoan Gizarte Zerbitzuak emateko? (1 izanik Desadostasun Osoa eta 5 izanik Adostasun Osoa)

Desadostasun osoa 1 2 3 4 5 Adostasun osoa

4.-ADITUAREN HAUSNARKETA ATAL HONI BURUZ (Puntu honetan adituak atal honi buruz eman dituen erantzunak argitu eta garatu ditzake era laburbildu batean):

2. ATALA: GIZARTE ZERBITZU PUBLIKOAK DISEINATZEKO GARAIAN

Atal honetan, galdera hauen bitartez, jakin nahi dugu adituak zer nolako jarrera daukan Gipuzkoako Gizarte Zerbitzu Publikoak finkatzeko eta diseinatzeko garaian (norabide orokorrak finkatu eta politikaren oinarriak erabaki). Gipuzkoako Diputazioari, Administrazio bezala, berari bakarrik dagokio Gizarte Zerbitzu Publiko hauek eraikitzea eta diseinatzea edo lan egin behar du lankidetzan 3. sektorearekin eta beste eragile sozialekin Administrazioa demokratizatzeke. Gainera jakin nahi dugu adituak lankidetzan hau bultzatzen badu, zer nolako mailan ulertzen duen: eragileak informatzea bakarrik, eragileak kontsultatzea edo erabakiak modu partekatuan hartzea.

5.-Ados al zaude Gipuzkoako Diputazioak, Gipuzkoako Gizarte Zerbitzu Publikoak **diseinatzerakoan**, 3. sektorea eta beste eragile sozialak aintzakotzat hartu behar dituela era informatiboan bakarrik? (1 izanik Desadostasun Osoa eta 5 izanik Adostasun Osoa)

Desadostasun osoa 1 2 3 4 5 Adostasun osoa

6.-Ados al zaude Gipuzkoako Diputazioak, Gipuzkoako Gizarte Zerbitzu Publikoak **diseinatzerakoan**, 3. sektorea eta beste eragile sozialak aintzakotzat hartu behar dituela era kontsultiboan bakarrik? (1 izanik Desadostasun Osoa eta 5 izanik Adostasun Osoa)

Desadostasun osoa 1 2 3 4 5 Adostasun osoa

7.-Ados al zaude Gipuzkoako Diputazioak, Gipuzkoako Gizarte Zerbitzu Publikoak **diseinatzerakoan**, 3. sektorea eta beste eragile sozialak aintzakotzat hartu behar dituela erabakiak modu partekatuan hartzeko? (1 izanik Desadostasun Osoa eta 5 izanik Adostasun Osoa)

Desadostasun osoa 1 2 3 4 5 Adostasun osoa

8.- ADITUAREN HAUSNARKETA ATAL HONI BURUZ: Puntu honetan GIZARTE ZERBITZUEN DISEINUARI buruz eman dituzun erantzunak argitu eta garatu ditzakezu era laburbildu batean:

3. ATALA: GIZARTE ZERBITZU PUBLIKOAK EMATEKO GARAIAN

Atal honetan, galdera hauen bitartez, jakin nahi dugu adituak zer nolako jarrera daukan Gipuzkoako Gizarte Zerbitzu Publikoak emateko garaian. Adituari galdetu nahi diogu noraino dagoen ados Kontzertazioarekin, kontratazioarekin eta komenioarekin.

9.- Ados al zaude Gipuzkoako Diputazioarentzat KONTZERTAZIOA (Ituntzea) hirugarren sektoreko eragileekin eta enpresa pribatuekin dela markorik egokiena Gizarte Zerbitzu Publikoak emateko ? (1 izanik Desadostasun Osoa eta 5 izanik Adostasun Osoa)

Desadostasun osoa 1 2 3 4 5 Adostasun osoa

10.- Ados al zaude Gipuzkoako Diputazioarentzat KONTRATAZIOA, klausula sozialak aplikatuz, hirugarren sektoreko eragileekin eta enpresa pribatuekin dela markorik egokiena Gizarte Zerbitzu Publikoak emateko ? (1 izanik Desadostasun Osoa eta 5 izanik Adostasun Osoa)

Desadostasun osoa 1 2 3 4 5 Adostasun osoa

11.- Ados al zaude Gipuzkoako Diputazioarentzat HITZARMENA (Komenioa) hirugarren sektoreko eragileekin eta enpresa pribatuekin dela markorik egokiena Gizarte Zerbitzu Publikoak emateko ? (1 izanik Desadostasun Osoa eta 5 izanik Adostasun Osoa)

Desadostasun osoa 1 2 3 4 5 Adostasun osoa

12.-ADITUAREN HAUSNARKETA ATAL HONI BURUZ (Puntu honetan adituak atal honi buruz eman dituen erantzunak argitu eta garatu ditzake era laburbildu batean):

4.-ATALA: 3. SEKTOREA ETA KOOPERATIBAK

Atal honetan ikusi nahi dugu aditua 3. Sektorearen eta, bereziki, kooperatiben diskriminazio positiboaren aldekoa den.

13.-Ados al zaude Gipuzkoako Diputazioak, Gipuzkoako Gizarte Zerbitzu Publikoak **ematerakoan** 3. Sektoreko partaideak positiboki diskriminatu behar dituela? (1 izanik Desadostasun Osoa eta 5 izanik Adostasun Osoa)

Desadostasun osoa 1 2 3 4 5 Adostasun osoa

14.-Ados al zaude Prezioaz gain Irizpide Sozialak kontuan hartzea (klausula sozialak) garrantzitsua dela 3. Sektorea eta kooperatibak positiboki diskriminatzeko? (1 izanik Desadostasun Osoa eta 5 izanik Adostasun Osoa)

Desadostasun osoa 1 2 3 4 5 Adostasun osoa

15.-Ados al zaude Gipuzkoako Diputazioak, Gipuzkoako Gizarte Zerbitzu Publikoak **ematerakoan** 3. Sektoreko partaideen artean bereziki kooperatibak diskriminatu behar dituela positiboki? (1 izanik Desadostasun Osoa eta 5 izanik Adostasun Osoa)

Desadostasun osoa 1 2 3 4 5 Adostasun osoa

16.-ADITUAREN HAUSNARKETA ATAL HONI BURUZ (Puntu honetan adituak atal honi buruz eman dituen erantzunak argitu eta garatu ditzake era laburbildu batean):

5.-ATALA: KOOPERATIBIZAZIO PROZESUA: PUBLIKOTASUNA ZABALDU EDO PRIVATIZAZIOARI ATEAK IREKI

Atal honetan sakondu nahi dugu zein den adituaren iritzia Gipuzkoako Zerbitzu Publikoen kooperatibizazio prozesu posible bati buruz. Jakin nahi dugu adituak nola ulertzen duen Gizarte Zerbitzu hauen kooperatibizazioa, Gizarte Zerbitzu Publikoak demokratizatzeko eta publikotasuna gehiago zabaltzeko bide bat bezala edo esparru publikoa privatizatzeko tresna moduan.

17.-Ados al zaude Gizarte Zerbitzu Publikoen Kooperatibizazio prozesua espazio publikoa zabaltzeko bide bat dela ? (1 izanik Desadostasun Osoa eta 5 izanik Adostasun Osoa)

Desadostasun osoa 1 2 3 4 5 Adostasun osoa

18.-Ados al zaude Gizarte Zerbitzu Publikoen Kooperatibizazio prozesua egitura publikoa mehetu arren erantzukizun publikoa indartzeko bide bat dela? (1 izanik Desadostasun Osoa eta 5 izanik Adostasun Osoa)

Desadostasun osoa 1 2 3 4 5 Adostasun osoa

19.-Ados al zaude Gizarte Zerbitzu Publikoen Kooperatibizazio prozesua egitura publikoa mehetzeaz gain erantzukizuna privatizatzen joateko bide bat dela? (1 izanik Desadostasun Osoa eta 5 izanik Adostasun Osoa)

Desadostasun osoa 1 2 3 4 5 Adostasun osoa

20.-Ados al zaude Gizarte Zerbitzu Publikoen Kooperatibizazioa helburu integral bat dela? (1 izanik Desadostasun Osoa eta 5 izanik Adostasun Osoa)

Desadostasun osoa 1 2 3 4 5 Adostasun osoa

21.-Ados al zaude Gizarte Zerbitzu Publikoen Kooperatibizazioa helburu iragankor bat dela publikazio integrala berreskuratzeko ? (1 izanik Desadostasun Osoa eta 5 izanik Adostasun Osoa)

Desadostasun osoa 1 2 3 4 5 Adostasun osoa

22.-Ados al zaude Gizarte Zerbitzu Publikoen Kooperatibizazioa arazo puntualei bakarrik aurre egiteko tresna dela ? (1 izanik Desadostasun Osoa eta 5 izanik Adostasun Osoa)

Desadostasun osoa 1 2 3 4 5 Adostasun osoa

23.-Ados al zaude Gizarte Zerbitzu Publikoen Kooperatibizazioa ez dela inolaz ere aukera bat? (1 izanik Desadostasun Osoa eta 5 izanik Adostasun Osoa)

Desadostasun osoa 1 2 3 4 5 Adostasun osoa

24.-Zer nolako kooperatibizazio eredua bultzatuko zenuke Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuak emateko? Baloratu 1etik 5era kooperatiba mota bakoitza (1 izanik ez zaizula kooperatiba mota hori inolaz ere gustatzen eta 5 izanik kooperatiba mota hori asko gustatzen zaizula)

-Kooperatiba arrunta

-Onura publikoko kooperatiba

-Gizartearen intereserako kooperatiba

-Kooperatiba mistoa

25.-ADITUAREN HAUSNARKETA ATAL HONI BURUZ (Puntu honetan adituak atal honi buruz eman dituen erantzunak argitu eta garatu ditzake era laburbildu batean):

6.- ATALA: ADITUAK GEHITU NAHIKO LUKEENA

26.- Azken arlo honetan adituak egin dezake bere hausnarketa laburra Gipuzkoako gizarte zerbitzuen kooperatibizazioaren inguruan aurreko ataletan ukitu ez den edozein gai jorratuz.